









1074  
1074









M-9967  
R-4381



# TESTAMENTU ZARRÉCO

ETA

# BERRICO CONDAIRA

EDO MUNDUAREN ASIERATIC JESU-CRISTO-REN  
EVANGELIOA APOSTOLUAC ERACUTSI ZUTEN ARTERAÑOÇO  
BERRI, ESCRITURA SANTATIC ATERA, ETA EUSCARAZ  
IPIÑI DITUENAC

Apaiz D. Francisco Ignacio de Lardizabal

ZALDIVIACO BENEFICIADUAC.

---

PAMPLONACO OBISPO JAUNAREN BAIMENAREQUIN.

---

TOLOSAN:

EUSEBIO LOPEZ-EN MOLDIZTEGUIAN.

1887.

ES PROPIEDAD,

## ITZ-AURREA.

Nere euscaldun maiteac: Guizonaren gaiztaqueriari ateac isteco, bide onenetic bat, deritzat, Jaungoicoac guizonagatic equin duena, jaquitea dila. Equiaz gnor guizonaganaco Jaungoicoaren amorioa ezagutcen duena, Jaungoicoac guizonaren alde equin izan dituen mirari andiac daquizquiena, jarrico da berari min ematen, eta contra eguiten, arren aguindu santuac autsiac? Guciz esquer-gabea, eta dollora izan bear da, alaco erantzupidea ain Onguille oparoarcquin gordetceco. Argatic Elizaco guraso santuac beti leyatu izan dira, Jaun-Eguilleaganaco esquer-ona Cristaüen biotzetan sarerazotzen, beguien aurrean ipintcen diezteela artuizan dituzten mesedeac, eta esqueñtcen diezten zori-onac: eta, ara emen, nere lanari equiteco izan nuen eresia, aquerturic. Itzcuntza gucietan dituzte beren liburuac, eracusten diezteenac, Jaungoicoac equin dituela, Escritura Santac dion, gauza miragarriac: eta zuec ere, nere erritar maiteac, mesede au mereci cenduten, ceron beguiacquin gucia arguiró cecusatzen. Equia da, aita Fray Juan Antonio Ubillos-ec Apais Fleuri-  
ren escu-liburucho bat, combat guertacari dacarzukiena, eman cizuela, euscarara ederqui itzulia; baña nai litzaquean baño laburragoa da. Francia-co Apais-Larregui-c ere, orain iruroqueita amar urteco diralaric, arguitaratu zuen TESTAMENTU ZARRECO ETA BERRICO HISTORIA-ren icenarequin liburu luceago bat, munduaren asieratic, Jesu-Cristo gure Jauna cerura igo zan arterañoco berriac cerbait cearoago eta zabalquiago ematen dituena; baña liburu onec ere, batetic Labort-euscaran ipiñia, bestetic zuen artean chit urria eta bacari dabico, dezuten utzunea ez du, nai becela, betetcen. Nic, bada, nere ez-jaquiñari gogor equiñic, artu nuen, Guipuzcoa-co nere euscaran berri bat ipintceco, eta arguilaratceco asma. Badaquit, nere lanac utz andiac izango dituela; ala-erz, beste obeto equindaco eta ezarritaco bat escuetaratcen dezuten bitartean, Jaungoicoaren obra miragarrien berriac ugari emango dizquizute, ceñac icusita, zuen biotzac, arrizcoac ezbadira, artuco dute, ain Onguille onarequin leyälac izateco gogo, nere nequearen sariric nayena izango dana. Jaungoicoari ala nai daquiela beraren onraraco, eta animac oneraco. Agur.

## Obispo jaunaren baimena.

NOS EL DOCTOR D. SEVERO ANDRIANI, POR LA GRACIA DE DIOS Y DE LA SANTA SEDE APOSTÓLICA, OBISPO DE ESTA DIÓCESIS, SENADOR DEL REINO, CABALLERO GRAN-CRUZ DE LA REAL Y DISTINGUIDA ORDEN ESPAÑOLA DE CARLOS 3.º etc.

Hacemos saber á los Señores que las presentes vieren que ante Nos se presentó una obra intitulada *Historia del antiguo y nuevo testamento* vertida al idioma Vascongado, dialecto de Guipúzcoa, por el Presbitero D. Francisco Ignacio de Lardizabal, Beneficiado de la Iglesia Parroquial de la villa de Zaldivia, solicitando nuestra licencia para la impresion, y habiéndola remitido para su exámen al Doctor D. Ruperto de Iturbide, Presbitero Vicario de la Parroquial de San Juan Bautista de esta Ciudad, por su censura consta que la citada obra no contiene cosa alguna contraria á los Dogmas de Nuestra Santa Religion, ni á las buenas costumbres, y que su impresion puede ser muy útil para el país vascongado. Por tanto concedemos licencia para la impresion de la referida obra, debiéndose poner al principio de cada ejemplar de la misma una copia de esta muestra Licencia. Dada en Pamplona á diez y ocho de Junio de mil ochocientos cincuenta y cinco.—Severo, Obispo de Pamplona.—Por mandado de S. E. I. el Obispo mi Señor, Don Luis Barasoain, Secretario.



TESTAMENTU ZARRECO

CONDAIRA EDO HISTORIA,

LENENGO IRACURGAYA.

1. §.—*Munduaren eguitea.*

**S**aungoicoac mundu au, eta emen diran gauza guciac  
Jecer ezetic atera nai izan cituen. Sei egunean gucia  
eguin zuen. Lenengoan cerua, lurra, urac, sua eta ar-  
guia eguin cituen. Bigarrenean firmamentu edo ga-  
ñean daucagun estali urdin ori eguin, eta onen gañeco  
urac, beecoetatic berecitu edo apartatu cituen. Irugarre-  
nean beeco ur oyec batu, edo lecu batera bildu cituen, eta  
leorra aguertu zan; urai edo ur-lecuari deitu cion *itsasoa*,  
eta leorrari *lurra*. Gueró lurrari belar, eta zuaitz. mota gu-  
ciac emanerazo ciozcan. Laugarrenean eguzquia, illarguia  
eta izarrac eguin cituen. argui-eguin cezaten, eta oyen  
ibillietatic egunac eta gatiac, asteac, illac eta urteac zucen-  
du citecen. Bostgarrenean Jaincoa gauza vici gabecoetatic

vicicorretara igaro zan; urai arrayac emanerazo ciezen: eta egun berean aireco egazti guciac ere eguin cituen, eta norc bere antzecoa sorteco indarra eman cien. Seigarrenean lurrari aguindu cion, abere eta lur-gañean dabilzan beste vicicari guciac eman citzala, oyei ere beren guisa, edo antzecoac sorteco escua emanic.

Seigarren egun onetan eguin ere zuen guizona, bere lanen atcena, eta gucietan beteena, ceñarentzat osteronteco guciac eguin cituen, eta doaitsuena, bere Eguillea ezagutceco eta maitalceco gai, bera bacarric dalaco. Lur zati bat artu, eta gorputza moldatu zuren; eta anima edo espiritu uts bat ecer-ezetic sorturic, gorputzari erantsi cion, eta guizona eguiña gueldita zan. Zazpigarrenean Jaincoac ecer eguileari utci cion, edo atsedean zuen.

Ona emen, itz bitan, munduaren eguitea, eta asiera. !Eguite, eta asiera miragarria! *Cerua eguin bedi*, Jaincoac dio, eta cerua eguiten da. *Lurra eguin bedi*, Jaincoac dio, eta lurra erguiten da. !*Eguin bedi indartsua!* bada onen bitártez ceru-lurra, eta oyetan diran gauza guciac sortcen dira. !O Jaincoaren escu altsua, eta guizonen biotzac beretu bear lituqueana!

Escritura Santac, munduaren asieraren gañean itz eguitean, ezdigu aingueruen aitamenic eguiten; baña Elizaren guraso santuen iritecian, *arguia eguin bedi*, Jaincoac esan zuenean, espiritu oyec sortuac dira. Aingueruac, Jaincoac eguin cituenean, onac ciran, eta batzuet beti onean iraun zuten; baña besteac, Jaincoac bera bezala izan nai izan ciralaco, gaiztotu ciran, eta Jaincoac infernuco su-leicean Lucifer buru zutela, ondatu cituen. Jaincoac ordutic aingueruac bezain izate eder eta doaitsuai emandaco ain castigu latz, eta gogorrarequin eracutsi eigan, arroqueria edo andiustea cein gaizqui artcen duen.

## 2. §. Adan lenengo guizona lurreco Paradisuan ipiña.

Jaincoac cerua, lurra, itsasoa, eta beste gauza guciac ecer-ezetic atera, eta guizona bere antzera eguin zuenean,

Paradisua ceritzan lorategui ebo baratza eder batean ipiñi zuen.

Lecu zoragarri onetan Adan i Jaincoac atseguin-contentuzco gauza guciac escura eman ciozcan. Emen zorion gucian, eta neque gabe egongo zan, Jaincoac cerura aldatu bear zuen bitartean. Baña bere leyaltasuna cembatera-ñocoa zan, icusi nai izan zuen. Baratza onetan zuaitz edo arbola frutadun gozo ederren guciac arkitzen ciran, eta erdi-erdian bat, ona eta gaitzaren jaquinduriaco arbola ceritzana. Beste gucien frutae jateco escubidea eman cion, baña erdico onenic jateac zorrotz debeatu cion, esanaz baldin debecu au austen bazuen, bertatic eriotz-pean jarrico zala. Gueró abere guciac aurrean ipiñi ciozcan, nori bere icena emateco, eta Adan-ec guciai cegoquienarequin deitu cion.

Adan-ec bideric asco bazuen, bere Eguille andiari leyal izateco; Jaun eta Jabetzat ezagutceco: atseguñic gozoena aren mendean egoten zuela, adierazteco; eta zan gucia argandic cetorquiola, aitortceco; baña itsutu zan, eta bere ondorengoan galmena ecarri zuen.

Adan Paradisuan bacarric, eta bere antzeco iñor gabe cegoan, eta lo pisu batec artu zuen. Lo onetan celzala, Jaincoac sayets-ezur bat atera cion, onen lecu aragviz beteric; eta ezur onequin lenengo emacumea eguin zuen.

Adan esnatu zanean, Jaincoac beguetan ipiñi cion, eta icusitacoan, esan zuen; au nere ezurren ezurra. eta araguiaren araguaia da; etorquitzonean guizonac bere emazteagatic ait-amae utzico ditu, eta biac ezdira aragui bat baicic izango. Gueró emacume oni Adan-ec deitu cion Eva, Jaincoac au ere doai eta vertute eder guciacquin janci zuen; baña Adan-i bezala, oni ere debeatu cion icentatutaco arbolatic jatea. Ara emen munduan lenengo, izan zan ezcontza, eta guizon gucien iturburu, eta sustraya.

### 3. §.—*Adan-en eroricoa.*

Adan, eta Eva Paradisuco naiquera, eta atseguñiac gozatcen asi ciran bezain laster, etsayac criatura bi ayen le-

yaltasunari equin cion; ayen errueza edo inocenciari eraso cion. Bera espiritu utsa izanic, urgulleri edo arroqueriac galdu zuen: eta Adan, eta Eva lurrez eguiñac, Jaincoaren servitzari, bera izan zan baño, leyalagoac izatea ecin eram zuen; argatic artu zuen berai guerra emateco, eta lembicico gurasoelan oyen ondore, eta etorquin gucia galtceco asmoa. Onetaraco, sugue pistiric sotillenz baliatu zan. Emazteagandic asi zan, au irabazten, errazago zala, uste bide zuelaco ¿Cergatic, etsayac suguearen aotic esan cion, cergatic Jaincoac aguindu dizute Paradisuco arbola- tic ez jateco? Eva-c Jaincoari zor cion leyaltasuna osó aguertceco, pozonizco galde oni belarriac ichi bearrean, erantzun cion, ezanaz; Paradisuco arbolaen fruta mota guciac jaten ditugu; baño erdian dagoan arbolatic jatea, eta uqnitcea debeatu digu, ill ez gaitecen. Etcerate, ez, illico, etsayac esan cion; Jaincoac badaqui, fruta hura jaten dezuten egun beretic, zuen beguiac zabalduco dirala, eta Jaincoaren parecoac, eta ona eta gaitza daquizutenac izango ceratela.

Eva-c fruta debeatuari beguiratu cion, eta icusiric, chit ederra, eta jateco ona zala, escua luzatu cion, eta jan zuen: berebat artu, senarrari eman, eta oni ere janerazo cion. !Jan zorigaiztoco mocadu negargarri, aimbeste ondamen ecarri zuena! Bereala biai beguiac zabaldu citzayezten, ez ona eta gaitza, etsayac esqueñi izan cien bezala, icusteco; ezpada beren gaiztaqueriarequin ecarri cituzten calle, eta ondamenac ezagutzeco. Beren buruac billosac edo larrugorrian icusi, eta lotsatu ciran; eta lotsagarri au quendu nayez, picu-ondo batera joan, eta picu-ostoz gorputzac estali cituzten.

Adan-en aldi onetaco argaltasuna andia zan, bai; Jaunaren aguinduac baño, emaztearen esanac indar gueyago eguin cion; eta debecu estu hura autsi nayago izan zuen, emazteari atsecaberie eman baño. Orducoa da, Santuac, ecin esan-alacoa deitzen dioten, becatua; orducoa da, aimbeste calle ecarri cituena; orducoa da, ondorengo jatorri gucia mendean artu zuen, becatua; Adan-en hume guciai



eriotza ematen diena, eta guizona deaubruaren azpico eguiten duena.

4. §.—*Adan-en castigua.*

Adan eta Eva bereala asi ciran beren erorico callarqui-  
tsua ezagutzen, billosic icusi ciranean: etzuten, alabañan,  
beren billostasuna icusten, arteraño erru edo culpa ga-  
beac ciralaco. Aingueruen garbitasuna bera ceucalen; ayen  
gorputzac espirituaren mendean eunden; gaitic gegoan  
etzuten: argatic, erori orduco, lotsatu ciran, eta gorputzac  
picu-ostoz estali cituzten. Andic laster Adan eta Eva-c Pa-  
radisuco baratzan Jaincoaren otsa entzun zuten; baña  
onequin, lenago bezala, poztu bearrean igues-eguin nai  
izan zuten, eta beren buruac gordetcera eguin zuten. ¿Non  
cera? Jaincoac Adan-i galdetu cion. Adan-ec erantzun cion  
etzala aguertcera venturatcen, larrugorrian cegoalaco. Jain-  
coac bere desobediencia arpeguira eman cion, eta esan ere  
bai, bere billostasuna becatu are ezagutuerazo ciola. Adan-  
ec lambide gaizto artatic garbitu nayez, gaizqui-eguiña  
emazteari ezarri cion, esanaz, fruta debecalua onegan-  
dic arri zuela. Orduan Jaincoac emazteari, galdetu cion,  
¿certaco ori eguin dezu? Au ere orobat garbitu nai izan  
zan, sugueari errua egoteiric; eta erantzun cion; sugueac  
engañatu, eta jan nuen; baña onelaco apuco eta aitzaquiac.  
Jaincoaren aurean ecer balio etzuten, bere legue santa ain  
arguiró bein autsi ezqueró. Jaincoac suguea lenengo ma-  
daricatu zuen, oquer areu iturburua zalaco, ezanaz; sabe-  
laren gañean arrastaca ibilico aiz, eta ere vici gucian lurra  
jango den. Esan ere cion, emacumea engañatu zuen beza-  
la, berari ere emacumeac burua noizbat lerurco ciola. Gue-  
ró bere epai edo sententia bi errudun ayen contra eman  
zuen; esan cion, cer castiguac beretu cituzten, ceintzuec  
orain ere gugan badiraute. Aurrena emazteari esan cion;  
oñace eta arazoac ascotu edo ugarituec dizquizut; miñez  
aurrac eguingo dituzu; guizonaren mendeco izango cera,  
eta onec agunduco dizu. Bereala Adan-i ere esan cion,  
Jaincoaren otsari baño emaztearen esanari obetó jarraitu

citsayon ezquerò, lurra nequetacoa izango zuela; elorrilarrac emango ciozcala; eta copetaco icerdiarequin oguia jango zuela, irten zan lur berera itzuli arteraño; ceren, esan cion, autsa ceran, eta auts biurtuco ceran. Jaincoac epai icaragarri oyec eman, eta gueró, abere-larruzco soñeco batzuecquin Adan eta Eva janciric, atseguñezco lecu Paradisu eder artatic campora bola cituen. Bereala Paradisuco atean Querubin bat suzco ezpatarequin ipiñi zuen, viciaren arbolari contu arteen.

Ona, bada, naicunde, eta atseguin gucien lecu artatic gure lenengo gurasoac nola irten ciran, beste nombait negarmalcoric samiñenac beren gaizqui-eguin zorigaizto-coagatic itsurtceco. Ordu hura ezquerò lurrac ayentzat sastracac baieic etzuen; alde gucietatic becatuaren siñale negargarriac, eta castigu miñac aguertcen citzayezten; orañago ceuzcaten ondasun ecin esan-alacoaz oroilcen ciran; eta beren leyallasun escasac ecarri ciezen: neque eta gaitzac non-nai icusten cituzten: izaera baletic besteraco desberdintza ezagutzen zuten: eta naigaberic andiena onec ematen cien. Eta berac galtceaz gañera, ondorengo guciac ere ondatu, eta eriotz-pean ipiñi cituztela, baciequiten Oroipen onec bi gurazo ayen biotzac illuntcen cituen; baña Jainco erruquitsua cupitu zan, eta adierazo cien, munduac bere Zucenzalle, eta Salvatzallea izango zuela, eta uste onequin, ayen biotz illac poztu ciran; beren becatuagatic negar eguin zuten, Jaincoac barcatu cien, eta bere adisquidetasunera artu cituen. Gueroco egunac, neque artean, eta icerdiarequin coipetutaco oguia janaz, munduan eguin cituzten. Vicilza lucea izan zuten; bada, Adan bederatai eun eta ogueita amar urtean vici izan zan; eta biac Jauaren gracian il ciran.

### 5. §.—*Abel-en eriotza.*

Adan-en becatuac laster erroac eman cituen. Adan eta Eva-c, becatu eguin ezqueró izancituzten seme-alabaetatic leenengoa Cain zan, eta bigarrena Abel. Abel artzaya, eta Cain necazaria ciran. Biac Jaincoari esqueñi edo ofrendac

eguiten ciozcaten, baña Jaincoac Abel-enac, bai, eta Cain-enac etcituen ontzat artcen, Abel-ec bildotsic obenac, eta guicenenac esqueñtzen ciozcalaco: eta Cain-ec, berriz bere abuztuetatia guichi bat, eta au ere gogo gabe ematen cio-laco: Guertacari onec Cain-~~bere~~ anaya Abel-ganaco gorroto eta igüin vicia sortu cion, eta gaitceco asmoa artu zuen. Cain-en pozonía Jaincoac ezaguturic, eta bere sus-trayean sendatu nayerz, esan cion, ¿cergatic aserretzen ce-ra, eta becoquia illuntzen dezu? Oraindic esan cion, ona eguiten bazuen, bere saria izango zuela; bestela, berac bere gaiztaqueriaren castigua eramango zuela. Baña, ecin icusia sartuta dagoan biotzarentzat ondo-esanae alperrie dira: cembat gueyago esan, aibat aren indarra gorago-  
tzen da.

Jaincoaren deyac baño, Abel-en ecin eramanae ematen cion damuac, Cain-en biotzean gueyago cezaquean. Goac-en campora, Cain-ec Abel-i esan cion egurastu bat artce-co aitzakiarequin, baña bere gogo gaiztoa gordeta. Abel, berez paquetsua, eta gaitz gabea izanic, gaitz-pensatu etzuen, eta alaco asmo galduric bere anayagan uste izan ga-be, jarraitu citzayon. Echetic cerbait aldegin zulenean, Cain-ec, bere anayaren contra alchalu, eta Abel il zuen. Lembicico odol-iñurtee au eguin, eta bereala Jaincoac Cain-i otsegin cion ¿Anaya Abel non dezu? Ezdaquit, Cain-ec eranzun cion. ¿Cer bada? ¿Ni nere anayaren contu-artza-  
llea naiz, onen berriac emateco? ¿Cer eguin dezu? Berriz esan cion; zure anayaren odola lurretic deadarrez dago-quit. Jaincoac bere aserre bidezcoa aguertu cion, ezanaz; anayaren odolarequin loitu zuen lurrean madaricatua izan-go zala, eta vici-lecu jaquin gabeco arrotz bezala. eta beti iguesi ibilli bearco zala. Cain, bada, bere biotceco arra ecin quendu, eta eramanic, gurasoen echetic irten, eta Eden-dic campoan. eguzquiaren sort-aldeco bazter batean vici zan zan, arreba batequin, arteñano emacume atceagoric munduan etzalaco, ezconduta; eta ondore chit biurri eta gaiztoaren guraso eta aiton izan zan, Jaincoac ordutic era-cutsi cigun, bera dala erru gabecoai eguiten zayerzten bi-  
degabequerien ordaintzalle eta castigatzallea.

Adan-ec, Abel illa, eta Cain iguesi joan citzayonaz gâ-  
ñera, Seth ceritzan beste seme bat izan zuen. Onen ondo-  
rengoac luzaró Jaincoaren bildur andian vici izan ciran;  
baña Cain-en ondorengo nescach ederrai on-iritcila, es-  
contzaz nastu ciranean, gaistotcen asi ciran. Guizonac mun-  
duan sabaltcen ciran eran, gaiztaqueria ere berequin ce-  
ramaten, alaco moduan, non, guizona sortua eta eguiña  
Jaincoari damutu citzayon, ceren mundu gucia gaztaque-  
ria eta becatuz betea icusten zuen. Gueroanean guizona  
eta onequin batean lurreco vicicor edo vicihun guciac on-  
datceco asmoa artu zuen; baña mundu galdu onetan ar-  
quitu zuen Noé ceritzan erru gabeco guizon zucen bat, ce-  
ñari beguiratuta, vicihun gucietaoac gorde cituen, guero  
mundua berriz ere beren antzecoacquin bete cezaten.

Manduaren asieratic, ugolde izugarri baten bitartez on-  
damen au eguin zaneraño, milla, eta sei eun, berrogueita  
amasei urte igaro ciran. Dembora onetan Adan-gandic  
Noe-gana amar belaun edo guizaldi izan ciran, guciac ur-  
te asco munduan eguin zutenac. Ara cembat.

1. Adan-ec..... 930 urte eguin cituen.
2. Seth-ec..... 912.
3. Enos-ec..... 905.
4. Cainan-ec..... 910.
5. Malaléel-ec... 895.
6. Jared-ec..... 962.
7. Henoah-ec.... 365.
8. Matusalen-ec 969.
9. Lameth-ec.... 777, eta
10. Noe c..... 950.

Escritura Santa ez digu esaten, orduco guizonac cer-  
gatic aimbeste urtean vici izaten ciran; baña Erasculéac  
cembait arguibide gai onetan ematen dizquigute. Lenen-  
go; mundua, Jaincoac ecer-ezetic eguin, eta aimbeste gau-  
za on ederrequin jantei ezqueró, guiza-seme-esque cegoan;  
eta lemdabicico guizonac luzaró vicitcea on zan, lembait-  
len vicilariz bete cedia. Bigarrengo; lurra berri eta garbia  
cegoan ugoldeac guero utsi cion coipe gaiztoric eteucan;  
eta ematen cituen jan-gauza guciac gaitz gabeco esasan-

tsuac ciran; eta oyec janaz batetic, eta aragui-gauza sendo, eta ardo gabe bestetic vici ciran guizón ac berandu zartcea eta erortcea, etzan cer miretsi. Irugarren, dembora aye-tan etzan escribatcen, eta mundu asi-berriaren, eta are gue-roco berriac ondorengoai emateco eta gogoan obeto idu-quitceco, ecinbide obeagoric, aitonac seme, illoba, eta oyen humeen humeacquin itzeguitea baño. Adan berreuneta-be-rroqueita bi urtean Matusalén seigarren oñeco illobarequin vici izan zan. Matusalén bere illoba Noerequin seieun ur-tean. Argatic Noe-c mundu asi-berriaren gauzac jaquite-co, etceucan Matusalén bere aitonari aditu baicic, eta onec eman eiozcan, Adan-i icasitaco eran, eta berri ayec guciac gurasoelatic semeatara onela aldatuaz, luzaró, escribuz ezarri artean, gorde ciran.

## BIGARREN IRACURGAYA.

### *1. §. Noe-ren cucha edo ontzia.*

Jaincoac, guizonen gaiztaqueria ecin eramán-alaño muga gabea, eta mundu gucia loiquerian sartua, eta cuntsutua ce-goala icusiric, orañago esan dan bezala, osó garbitcea era-baqui zuenean, Noe guizon on eta servitzari leyalari esan cion, cer asmo zuen; baño bere ontasan eta zuentasuna-gatit Noe berari, ondamen arc etciola uquituco, eta gor-deco zuela, Onetaraco aguindu cion, cucha, arca edo ontzi zurezo, campolic eta barratic betunez igortcia, eguin ce-zala. Cer neurri, eta guisacoa izan bear zan, erautsi cion, Noe-c cucha au eguiten, urte asco igaro cituen. Bitarte o-netan guizonac baciequiten certaco zan, eta guciac ondat-cera celorren ugoaldea edo diluviaa cere cecarren: baño on-duaz Jaincoaren escua atceratu bearrean, beren gaizlaque-rian aurrera cijoacen; eta Jaincoaren esan, eta queñadaric etzuten ecertan artcen. Jaincoa castiguraco baño barcacio-raco prestago cegoan, ayen aldetic erbait damutasun icusi ezqueró; baño dei ondonayezco guciac alperric ciran, eta mercei zuten cigorrada latza erori citzayen.

Jaincoac aguindu gucia Noe-c eguin, eta cucha bucatu zuenean, barrunen egoango ciran egunetaraco bear ciran janariacquin bete zuen: ugoldea asi zan aurreco zazpi gunetan cucha sartu cituen abere edo animali-mota guciac, bacoitzetic pare bat, ar-emeac; eta Jaunari sacrificioan esqueñteen citzayozcan abere garbietatic, iru pareatu aldi, eta bat bacarra edo laguntzaca. Lan au berez nequeza badirudi ere, Jaincoac erraztu cion, cucharen ate-aurrean guciac ipiñita. Noe atenean, bere iru seme Sem, Cam eta Jafel, eta lauren emazteacquin cucha sartu zan, eta uric sartu etequion, Jaincoac cuchaço atea ichi cion.

Noe bereacquin cucha sartu zaneco, euri jasa izugarri batec eraso cion, eta berrogueti egun eta berrogueti galian alertu gabe iraun zuen. Euri-ar oyec bazter gucielara zabaldu ciran, eta mundua osotoró bete zuten. Mendiric altuenac ere zazpi cana, eta erdiz gorago estali ciran. Gai-zonac, lurreco abere eta pistiac, aireco egaztiac, guciac itz batean, ugolde izugarri artan galdu eta ondatu ciran. Cucha gordeai bacar bacarric bicia utsi citzayen, demboraz mundua berriró bete cezaten.

Berrogueti egunen buruan alerrunea aguertu zan, baña eunda berrogueta amar egunean urac gora-beerarie eguin gabe, mundu gucia estaltcen zutela, iraun zuten. Egun oyec igarotacoan, aice andi bat irten, eta urac piscaca beeratcen asi ciran. Ewentic larogueita zazpigarren egunean *Ararat* ceriltzan Armenia-co mendi gañean cucha guelditu zan. Amar illabeteren buruan mendi-tontorrae aguertu ciran. Onela berrogueti egun igarotacoan Noe-c cucharen leyo bat idiquita, belea bialdu zuen, eta etcitza-yon itzuli. Gueró usoabialdu zuen, eta non oña ipiñiric arquite bide etzuelaco, cuchara biurtu zan. Andic zazpi egunera berriz ere usoa bialdu zuen, eta olivo adar-osto berde-duna mocoon zuela itzuli zan, Orduan Noe-c ezagutú zuen, urac beeratu cirala; ala ere beste zazpi egunean ichedon zuen, eta irugarren aldian usoa bialduric, etcitza-yon gueyago etorri.

Noe-c icusi zuenean urac beren lecura joan, eta mundua chucatu zala, cucha sartu zanetic urte betera, bere emazte,

iru seme, eta iru errañacquin irten zan; lurreco eta aireco vicicor, cuchan iduqui cituen guciac, berequin atera cituen, eta nor bere erara munduan zabaldu ciran. Cuchatic irten, eta lurrean jarri zanean, aldare bat eguin, eta abere garbizazpigarren banaca pareatu gabe ayec Jaincoari ofrendan esqueñi ciozean, beraren escu oparotic artu cituen mesede andiacgatic esquer onac emateco, eta bere aitormena erarusteco.

Jaincoac ofrenda hura chit onetsi edo estimatu cion, eta esan ere bai, guizonacgatic etzuela berriz mundua madaricatuco: mundua mundu dan artean ereite-itaiteac. otz-be-roac, uda-negnac, gau-egunac elcarri jarraituco citzayeztela. Guero Noe, bere emaztea, eta oyen iru seme-errañac bedeincatu cituen, eta esan cion, seméac sortu, ugaritu, eta mundua guizacumez bete cezatela. Cuchan egondaco abere, pisti eta egaztiac oyen mendean ipiñi cituen, eta Noe-ri esan cion, gogoac ciona, oyecquin eguin cezala; bada bere mendecoac cituela. Atcenean, igaro zuten ondamen latzie berriz icusteco bildur gabe, lenagocoan viciric guelditu ciran zortei lagun ayec egon citecen, Jaincoac esan cion, zuela ugolderie gueyago lurrera bialduco, eta bere itzaren sinisgarrizat ostrellaca eman cion, ezanaz, cerua odeyez estalcen danean, ostrellacá aguertuco da, eta zuecquin eguin dedan batasunaz, orduan oroituco naiz.

## 2. §. Noeren mastia.

Jaincoac, mundua guizacumez betelceco, esan dan guisan, gorde cituen Noe-ren iru semeen artean bat izan zan, bere aitaren eta jaincoaren madaricacioa bereganatu zuena. Ara nola. Noe cuchatic irten zanean, necazaritzari eman citzayon, lenengo becatua guizonac eguin zuenean, copetaco icerdiarequin oguia jateco eman cion epaya betelceco; baña laster ezagutu zuen, lurra elcorragoa, eta lenago bezain gozoa eta ugaria etzala. Ala ere, bere lanari etcion uisi. Beste gauza ascoren artean masti bat ipiñi zuen. Guizon justu arc etzuen, nosqui, ardoaren indarric ezagucen; matsari zumua quendu, edan, orditu, eta loac artu zuen.

Cam bere bigarren semea, lo cetzan lecura joan citzayon, eta onestasunari ezd agoquion erdi-aguerian icusi zuenean, estali bearrean, irten eta farra-irrian beste anayai esan cien, aita nola cetzan; baña oyec albista onequin lotsaturic, capabat artu, eta beguiac alboronz cituztelá joan, eta beguiratu ere gabe estali zuten.

Noe-c, esnato, eta jaquin zuenean, Cam-ec cer eguin cion, bere madaricacioa bota cion, ez bere buruan Cam-i, eucha-tie irten ondoan, Jaincoac bedeincatua izan zalaco, ezpada Cam-en bigarren seme Canaan-i; eta esan cion beste anayen mendeco izan bearco zala. Gueró Sem eta Jafet bedeincatu cituen, eta adierazo cien, cer etórquizan andi zorigaiz-toco, eta lucaera negargarri iren beguira ceuden; ceintzuec demborarequin munduan, gueró aitaluco dan bezala, icasi izan ciran. Sem eta Jafet-ec Jaincoaren bedeincacioa, Cam ec madaricacioa bezala, beretu zuten, gurasoa on-rateen, eta onen argallasuna estalcen jaquin zatelaco; ceñac eracasten digute, cer, beguirune edo errespeto gura-soai zor diegun, eta cein bildurgarria dan gurasoai farra eguitea, eta naigabeac ematea.

### 3. §.—*Babel co Dorrea.*

Noe-re humeac zabalduaz cijoacen: eta ean urteren bu-ruan aimbeste ascotu edo ngaritu ciran, non eycargandic aldeguin, banacatu, eta nor bere bazter jaquiñean vicitu bearrean arquite ciran, ordea lambide oní buru-eman ba-ño lenago, elcarri esan ciolen: Osturi bat eguin dezagun, eta uri onetan cerurañeco Dorre bat, gure icena mundua mundu dan artean gordeco duena. Lambide onetan oguei-ta amar urte igaro cituzten; eta Jaincoac oyen arroqueria beeratu nayez, arteraño guciac izan zuten itzeuntza bacarra, bat batetan nastu, eta batac besteari ecin adierazoz ipi-ñi cituen, eta lanari laga bearrean arquite ciran; argatic uriari deitu cioten *Babilonia*, eta Dorreari *Babel-coa*, ceñac esan nai date *nasmena* edo naspilla.

Dembora onetan echejaun edo familietaro buruac iruro-gueita amar ciran; ceintzuetatic bacoitzari bere itzeuntza



bereci bestec etciequiena Jaincoac eman cien, (1) eta beren arroqueriarequin beretu zuten elcar ecin aditua icusiric, or-emen, mundu gucira, nor bere echecoacquin, uste baño ere lenago zabaldu bearrean arquite ciran, eta oguia irabazteco bidea guciac sacabanuta, artu zuten.

Noe-c bere hume, eta ondorengoan banacatce au icusi zuen, baita ugoaldea mundura eracarrizuen gaiztaqueria ber-ritz ere guizonetan sartu zala, eta bere atzeneco urteetan min onequin vici izan zan, eta bederatzi eun, eta berro-queita amar urtecoa il zan, Jaincoa bere egunetan leyalqui-ró servituta. Bere aiton Adan, eta beste Patriarca-c landu eta erabilizuten Iurbazterraren jaun eta jabetzat bere seme Sem itci zuen.

## IRUGARREN IRACURGAYA.

### 1. §.—*Abran-en deya.*

Sem-ec ere munduan sei eun urte eguin cituen, eta bi-tarte onetan hume eta humeen hume asco ezagutu cituen. Oyen artean batzuec gaizto-biurriac izan baciran ere, asco chit on-contuzcoac, eta Jainco eguiazcoaren sinismena, eta ezagüeradunac ciran. Oyec, Jaincoac biotzera emandaco berezco arguiac edo *leque naturalac* eracusten cien egui-ñaZ, vicituten ciran. Oyetan Jaincoac besteric ez bezalaco bat arquite zuen, *Abran* ceritzana, Tare-ren semea, eta Noe-ren billoba amaicagarren belaunecoa; ceña ugoaldea izan zanetic irureun eta berroqueita amaicagarren urtean *Ur* ce-ritzan Caldea-rran Urian, jayo zan.

Abran au, bada, bere emazte Sarai-requin Mesopotamia-n

---

(1) Escritura santac ez digu esaten iruroqueita amar itzcuntza oyec cein ciran, baña jaquintsuen iritcian oyetatic bat gure *Eus-quera* zan. Tubal, Noeren billoba, edo Noe-ren seme Jafet-en se-mea bere echecoacquin etorri zan munduaren alderdi au guizacu-mez betetcera, eta España-n lur-eguin zuenean, itzcuntza au emen sartu zan, eta gueróz badiran, len Erreinu gucian bezala, orain bazter menditsu oyetan baicic gordetcen ez bada ere.

vici zala, Jaincoac bere asmoac aguertu ciozcan, eta itse-  
guin cion onela; cere erri eta echetic bereala irten zaite, eta  
nic eracutsico dizudan lecura atoz; ecin esan al-adiña gen-  
deren guraso eta aiton eguingo zaitut; eta zure icena ots  
andicoa izango da; eta lurrean sortuco diran gende guciac  
zukan bedeincatuco ditut: esan balio bezala, muuduaren  
Salvatzallea zure odoletic jayoco da.

Jaincoaren ots oni leyalquiró erantzunda, Abran bere  
emazte Sarai, eta illoba Lot, berequin cituela, gauza guciac  
ntciric, echetic irten zan. Jaincoac bereala adierazo cion,  
Canaan-go lurra zala, arentzat aututa ceucana. Bazter au  
zan Adan, eta ondorengo Patriarcá-c vici izan cirana, eta  
munduan lecuric eder eta guicenenena. Bidean egun asco egui-  
ñic, Abran lur onetan sartu, eta Siquen-eronz joan zan.  
Jaincoa berriz ere aguertu citzayon eta esan cion; lur au  
zure ondorengoai emango diet. Bere Jaunari esquerrac ema-  
teco aldare bat eguin, eta ofrendac esqueñi ciozcan. Emen  
cebillela, gosete andi bat sortu, eta Egipto-ronz jachi bea-  
rrean arquite zan: baña Erreinu enetara alderatu zanean,  
bildurac artu zuen, eta emazteari esan cion; badaquit ema-  
cume ederra cerala, eta Igitoac icusten zaituztenean, esan-  
go dute; onen emaztea da: ni il, eta zu gordeco zaituzte;  
esan-ezazu, arren, nere arreba cerala, nic gaitzic izan ez-  
dezadan, eta zugatic viciric guelditu nadin. Abran-ec itz-  
queta onequin etzuen guezurric esan, ceren Hebrear-  
ren artean aide urrenai anai-arrebac deitzen citzayen; eta badi-  
ra diotenac, Sarai Abran-en illoba zala; baitaere Abran eta  
Sarai ama birenhumeac baciran ere, aita bat zutela, eta sa-  
bel batecoac ez izan ezqueró, ezcón da citez juean; beintzat,  
jaquintsu ascoc diote, artaraco baimena Jaincoac eman  
izango ciela, ain ondore gogoangarria izateco aututa ceu-  
den bi guraso ayei.

Esan eta eguin; Abran Egipto-n sartu zaneco, Sarai-ri  
beguia ezarri cioten, eta bere edertasun andiari on-iritciric,  
Faraon-i (ceña zan Egipto-co Erregueen icena) adierazo cio-  
ten, nola emacume eder bat aguertu zan, eta bereala aur-  
queztu cioten, ezcondu cedin. Jaincoac Sarai-ren garbitasu-  
na zaintzen zuen, eta Igitoac artutaco asmoa elzan eguin.

Erreguiñatzaco autuac ciran nescach gazteac, sei illabetean usan-belar, eta olio gozoz igortciaz iduqui oi cituzten, ederrago eguin eñecen. Sarai ere, artaraco ceucaten lecuan ipiñi zuten; eta Abran bitarte onetan naiquera gucian vici zan; inore gaitzie eguin, ez ecie, ondasun andiac ematen ciozcatela, Sarai-ren anaya zalacoan.

Dembora onetan Faraon-i eta bere echeari zauri eta neque andiac Sarai-gatic sortu citzayezten; eta Faraon-ec gaitz ayen iturriaren aztarna eta zantzua nombait izan zuen, eta Abran-i otseguin, eta esan cion, ¿cer eguin didazu? ¿Cergatic esan ez didazu, Sarai zure emaztea zala? Certaco esan cidazun, arreba cenduela, berri onequin, nic nere emazteztat artceco, niri bideric eman gabe? Ots, bada, cere emaztea dalaco ori ar-ezazu, eta zoaz emendic: eta laguntzalleac emanic, bere gauza guciacquin bialdu zuen.

Faraon -ec, Jainco eguiazcoaren aitormen gabea bazan ere, ezagutcen zuen, inoren emaztearequin cutsulcea cein itsusi dan; argatic Abran-i aimbeste espa aguertu ciozcan, Sarai emaztea zuela, lenengotic esan etciolaco. Abran, bada, aberastasun andiacquin Egipto-tic irten, eta bere bazterreronz itzuli zan; eta Egipto-n artutaco mesedeen oroi-penean, lenagoco aldarean Jaunari ofrenda berriac eguin ciozcan.

Icusi degu, Abran, Jaincoac aguindu cion lecura, bere gauza guciac utci, eta bere nai gucia Jaunaren escuan ipiñi, eta joan zala. Bada, Jaincoac obediencia itsu au ordain ascorequin saeristatu cion; onela eracusten digula, Jaincoaren icenean artutaco nequeac ez dirala aztuac izango.

## 2. §.—*Abran, eta Lot-en banacatcea.*

Abran, Sarai, eta Lot beren gauza guciacquin Canaan-go lurrera itzuli ciranean, lurrac landu, eta abereac larreatuaz vicimodua aferatcen asi ciran. Jaincoac osaba-illobai emandaco ondasunac, batezere abereac, asco eta andiac ciran, eta elcarrequin bazcatu ecinean laster arquitu ciran. Lambide onegatic Abran eta Lot-en artzayen artean despita eta elea batzuec sortu ciran: eta oyei lenengotic ateaç ichi na-

yez, Lot illobari Abran-ec esan cion; ezda zure eta nere artean itz-trucalceric bear, ez eta gure artzayetan ere; bada senideac guera: banacatu: gaitecen: orra bazter guciac auqueran: zu ezquerrera bazoaz, ni escuironz noa, eta zuc escuya antutcen badezu, ni ezquerreronz joango naiz. Lot-ec bazter guciai beguiratu, eta Jordan-go ibar zabal, beguien zoragarria zan lecu ederra beretzat artu, eta osabagandic aldeguin zuen: eta artzayac beren abereacquin ibarrean ipiñiric, bera Sodoma-n jarri zan, Abran bereacquin Canaan-en guelditu zan.

Abran-ec bere illoba uztea chit gain eta damu zuen; baña baciequiet, mirabeen artean sortulaco despita eta ezdabaidac, indar artu ezqueró, nagusietaraco cirala; argatic guiron zucen, Jaunaren bildurreco, eta etorquizun gaiztoai bideac ebaqui nai ciezenac bezala, Lot-i bere gogoa aguertu cion.

Lot-ec osabagandic aldeguin, eta laster Jaincoa Abran-aguertu citzayon, eta esan cion, beguietan ceucan bazter eder hura berari, eta bere ondorengoai emango ciela; eta beste esqueñi asco eta andiac ere eguin ciozcan. Guerdò andic Mambre-co ibarrera aldatu zan, eta sei urte buruauste andiric gabe igaro cituen, ceren echeco guciac bere ontasun, eta eraculsi onarequin aciac ceuzcan, eta etciolen atsecaberie ematen. Baña laster icusi zuen, bere osaba onagandic illobac aldeguitea, eta cer eguiten zuen ondo beguiratu gabe, Sodoma, guizonic gaiztoenac berequin ceuzcana, vicileentzat artea, Lot-entzat cein caltarquitsua izan zan.

3. §.—*Lot catibu erori, eta Abran-ec libratzen du.*

Bazter oyetaco Erregueac cerbaiten gañean elcarren arteco despita artu, eta nor berearequin iten nayez, alde batetic lau Erregue jarri ciran, eta bestetic bost, eta oyen artean Sodoma-coa. Lau ayec bostai eraso cietenean, oyec ere arpegui eman nai izan cieten; baña Sodomá, eta Gomorra-coac, nosqui, icaraturic, itzultcera eguin bidezuten, eta bertan erori ciran, eta beste irurac mendira igues-eguin zuten. Garailariac Sodoma, eta Gomorra-n sartu, cegoan gucia ar-

tu, eta beren toqnira biurtu ciran; eta beste ascoren artean Lot ere catibu eramán zuten.

Ondamen onetatic igues-eguin zuen batec, Lot-en berri mingarri au Abran-i eramán cion; eta irureunda emezortci servitzari indartsu eta burlardetsuenac arturic, lau Erregue garailariai gogor eguiteco asmoan, bidera irten citzayen. Si- quen-go ondoan atcitu cituen, eta alacoric uste elzutela ceu- den lecuán, itsumustuan sartu, eta eraso cien, eta batzuec il, eta besteac iguesi bialdu cituen. Ceramazquiten catibu eta ondasun guciac quendu ciezten, eta bere illoba Lot ere be- re gauzacquin libratu zuen. Berri gogoangarri au barrea- tu zanean bereala, Sodo-na-co Erregue berri, erasoan il za- naren semei, aurqueztu citzayon, bere esquer onac eman, eta escueracutsiac eguitera.

Sodoma-co Erreguearen arrera onec Abran-i poz eta at- seguin andia eman cion: baña are andiagoa izan zuen Sa- lem-go Erregue Melquisedec-ec eguin cionarequin, Salem- go Erregue au dembora herean Jaincoaren Apaiza zan; ce- ñac Jaincoari oguia eta ardoa ofrendaturic, Abran bedeín- catu zuen; eta Abran-ec bedeincacio au beguirune gucia- requin artu, eta Jaunari bere gauza gucién amarrena es- queñi cion; onequin eracusten zuela, Jaincoaren escuetatic artutaco mesedeai ondo erantzuten, cein leyalac izan bear- gueran. Elizeaco gurasoac Melquisedec au, millata bedera- tci eun urtez lenago Jesu Cristo gure Jauna siñale agueri- coacquin adierazo zuen iduri eguiazcoenecotzal daucate.

Melquisedec-quin Abran-en arteco lambidea bucatu za- nean bereala, Sodoma-ec Erreguea sartu zan, eta Abran-i esan cion, etsayaren escuetatic libratu cituen personac ema- teco, eta gauza guciac beretzat gorde citzala; baña etzuen ecer ere artu nai izan, eta Erregue ayec, nor bere gauzac- quin guelditu ciran.

#### 4. §.—*Agar-eguin Abran-en ezcontza.*

Dembora onetan Abran-ec humeric etzuen. Berac eta be- re emazteac gogoan ceucaten, Abran-en ondorengoac itsa- socio areac baño ugariagoac izango cirala, Jaincoac eman

izan eien ustea: baña Sarai zarra, eta aurrac izateco urteetan igaroa zan; eta Sarai-c bere eciñari beguiraturic, senarrari esan cion, echean ceucaten nescach Ig.to Agar-equin ezcondu cedilla.

Iracurleen jaquiunderaco emen esan bear da, guizonac emazte bat baicic ez izateco leguea munduaren asieratic ipiñia dala. Ugoldea bitarteco milla eta gueyago urtean legue au bere indarrean egon zan: baña ugolde ondoan, nai zuenac emazte bat baño gueyago iduquitceco escuà Jaincoac eman zuen; dirudienez, mundua berriró gendez lembaitlen betetceagatic. Escubide e lo baimen onen bidez, dacuscu, Abran, eta Jacob Patriarca guciz santuac ere emazte bi edo gueyago izan cituztela. Gueró ere ascoc au bera eguin zuten, Jesu Cristo gure Jaunac, munduaren asieran bezala, norc bere bat baicic ez izateco leguea bere oñera itzuli zuen arteraño.

Sarai-ren esanari on-iritcita, Jaunaren promesa betetceco bere odoleco bat utci nayez, Abran Agar-equin ezcondu zan: baña on-bearrez artu zuen langai onec laster bere naigabe eta buruausteac eman ciozcan. Agar, naguciac batetic onela onratuta, eta bestetic aurdun edo gorputz catibuarequin cegoala, ezagutu zuenean, ecin gueyagó arrotu zan, eta servitzari eta mendeco bat zala azturic, asi zan asco iseca eta farra Sarai-ri, bere agortasun edo aurric eza arpeguian emanaz, eguiten. Onec ecin cituen Agar-en lotsagabequeriac eraman; eta senarrari beti espa eta quejuraca cegoquion; uste zuen, alabañan, Agar-en esan-eguin lotsa gaiztoco oyecontza, ematen cituela. Baña Abran-ec uste char onetatic bereala atera zuen, ezanaz; zure mendean daucazu, eta berarequin, nai dezuna, eguizu. Sarai-c escubide onequin, Agar gogor arteen zuen, eta basoronz iguesi joan zan. Agar baso-bazter batera zanean, aingueru batec esan cion, ¿Nondic zatoz, eta nora zoaz? Nere echecondre Sarai-ren becoqui illunaren iguesi noa, Agar-ec eranzun cion. Ez ori, aingueruac esan cion; itzuli zaite, eta Sarai-ri umillatu zatzaquio. Gueró esan cion, sabelean ceucan semeari cer icen ipiñi: bai ta ere, seme onen etorquizuneco berri asco eman ciozcan, bere garayean guertatu cira-

nac. Agar itzuli zan, eta lengo arroqueriac utcita, chit umi-llatua Sarai-c icusi zuenean, arrera ona eguin, eta arpegui arguiarequin beguiratcen cion. Egúnac bele ciranean, Agar-ec Abran-i eman cion seme bat, *Ysmael* deitu citzayona.

5. §.—*Circuncisioa.*

Abram-ec orduan larogueita sei urte cituen; eta andic amairugarren urtean Jaincoa berriz ere aguertu citzayon, eta esan cion, anciñago arequin eguindaco batasun edo el-car-arteea, eta eguin ciozcan promesac, berriztu nai cituela. Bere itzaldia eguin eta atcenean esan cion; ondorengo ascoren guraso izango cera; eta aurreracoan etzalzu deituco *Abran*, ezpada *Abraham*. *Abram*-ec esan nai du, *Aitabitorea*, eta *Abraham*-ec *asquide* edo *ascotza bitorearen Aita*. Jaincoac icentruatece onequin bigarren au adierazten cion; bada, esan cion; gendeen buruan ipiñi co zaitut, eta Erregueac zugandic irtengo dira. Ala-guertatu zan; bada bere odoletic ez bacarrie David, Salomon, eta beste Erregueasco etorri ciran; baita Erregue gucien Erregue, Jesu Cristo gure Jauna ere.

Orduan Jaincoac bere erri bereci eta servitzaritzat *Abraham* eta onen ondorea autu cituen; eta auquera onen siñaletzat *Circuncisioa* eman cion; ceña zan, guizona dan edo ez, ezagutcen dan gorputzaren zatian ganibitaz ebaqui bat eguitea, Jaincoaren erricotzat, bada, bat iduquitceco, legue onen bidez zortzigarren egunean semea circuncidatu bear zan.

Aguñdu au ipiñi eta bereala emaztearen icena ere truca tu nai izan zen; eta *Abraham*-i esan cion; Sarai zure emazteari ez diozu *Sarai* deituco ezpada *Sara*; eta bedeincatuco det, eta beraren bitartez emango dizut seme bat, bedeincatuco dedana, eta gendeen aita izango dana, eta Erregueac bere odolean izango dituen. *Sarai*-c esan nai du *Andrea*, eta *Sara* c *Princesa*,

*Abraham* auzpez jarri zan, eta farraz cegoan, beregan ciola; ¶Eun urteco agureac semea izan, eta *Sara* larogueita amarrecoac aur-eguin! Aguin du cion, jayoco citzayon se-

meari *Isaac* deitceco. Gueró Jaincoac Aguindu gucia, Abraham-ec eguin zuen. Ismael bere semea, eta bere eheco guciac circuncidatu cituen. Circuncisio onec, orain batayoc becatu jatorrizco edo originala barcatceco duen indarra, zuen; eta Jainco eguiazcoaren aitormena zuten guciac: Jesu Cristo-c batayoa ipiñi arteraño, gorde izan oi zuten.

Jaincoac Abraham-en leyala, eta aguindua eguiteco pres, tasuna icusiric, egüerdi batean bere eche-atarian eserita cegoala, iñoiz ere ez bezalaco eran aguertu citzayon. Beguiac luzatu cituen batean iru guizon bere ondoan zutic icusi cituen, eta ongui-etorria eguitera joan citzayen; eta auzpez jarriric, esan cien, etcitecela aurrera joan; ura ecarrico zuela; eta oñac garbituta arbola-pean atsedem cezatela; eta gueró cer jana emango ciela, onequin zuzpertuta. bideari equiteco. Abraham chit biotz andicoa zan, eta etcitzayon iñor, berac icusi ezqueró, arrera ona eguin gabe joaten; eta aldi onetan ere berezco oitura eguin zuen. Iru guizon oyec bere esqueñi oparoa ontzat artu, eta erantzun cioten, ciona eguin cezala bada. Bereala Sara-gana sartu, eta aguin-du cion, su-auts-azpian erretaco oguiac prestatu citzala beiteguira bera joan, eta chal guicen guri bat arturic, mo' rroi bali eman cion, egosteco. Chal eta ogui onela presta tuacquin, coipea eta eznea arturic, iru guizonai eraman ciezen; eta arbola-pean ayen ondoan jarri zan. Jan zutenean, galdetu cioten; ¿Sara non dezu? Or, guelan, dago. Orduan Jaincoac iru guizon ciralaco ayen bitartez esan cion; berriz ni biurtceraco, Sara zure emazteac seme bat izango du. Sara ate-atcean itzqueta au aditcen cegoanac, beregan farrari eman cion; eta Jaincoac Abraham-i galdetu cion? Certaco Sara farraz dago, ezanaz, cer, ni atsotu onec aur-eguin bear det? ¿Cer bada! ¿Jaincoarentzat eciñic bada? Sara lot-satu zan, eta far-eguiña ucatuaz garbitu nai izan zan, baña ecin cezaquean.

Egon-aldia eguin, eta iru guizonac Sodoma-ronz abiatu ciran; Abraham ere bai ayei cerraiquiela, eta Jaincoac videan esan cion, Sodoma, eta Gomorra-co becatuac gañez eguin zutela, eta cegoquien castigua ematera cijoala. Emen iruetatic bi aurrera joan, eta bat Abraham-eguin guelditu zan;



eta Abraham-ec galdetu cion. ¿Cer? ¿ona gaiztoarequin ondatuco dezu, Jauna? ¿Baldin berroqueita amar on arquitcen badira, barcatuco diezu? Jaunac erantzun cion; baldin berroqueita amar zucen edo justu Sodoma-n arquitcen baditut, Uri guciari oyecgatic barcatuco diot. Abraham-ec esan zuen, autsa eta erautsa baicie ez naizan onec nere Jaunari itzeguingo diot; ¿Cer eguingo cenduque berroqueita bost justu baicie arquituco ezpaciñitu? Berroqueita bost justu arquitcen baditut, ez det Uria ondatuco. Eta ¿cer berrogei baicie ezpadira? Ezta ere. Abraham cerraquion galdeac eguiten, eta justuen cembatezcoa guichitcen. Atcenean galdetu cion; ¿cer eguingo cenduque amar baicie ez izatera? Amar ayei beguiratuta, ez det ondatuco. Au esan, eta Jaincoac aldeguin zuen, eta Abraham bere echera edo dendara itzuli zan.

¡Jaincoaren ontasuna eta biotza cein andia dan! Emen agueri da, becatariac castigatcera ecin bestec daramala. Sodoma bezain Uri galdu eta gaiztoa ondaceelic Jauna atceratuco zan, amar on utsac arquitu balira ere: eta Abraham-ec galdetu balio, ¿ea bosgatic edo guichiagogatic barcatuco cion? Menturaz erantzungo zuen, bayez. Jaincoaren aurre-raco anima on batec ¡cembat balio ote du! Jaunaren servitzari leyalac ¡cembat ondasun eta mesede erriai ecarri ote ditzazquiequete! Oyec ugaritcea berari nai daquiola bada.

6. §.—*Sodoma eta beste Urien ondamera.*

Abraham-gandic lenengo aldeguin zuten bi ayec illunabarrean Sodoma-ra bacijoacen. Lot, Abraham-en iloba, eta osa ba bezala biotz onecca eta onguillea, Urico atean eserita cegoan; eta bi ayec icusi cituenean, jaiqui, eta joan citzayen, eta auzpez jarriric, esan cion; Jaunac, zuen servitzari onen echera, arren atozte, eta alsedengo dezute, eta goicean bideari emango zatzayozca Ez, erantzun cioten, Urian gueldituco guera. Lot berriz ere leyatu citzayen, eta gueroenean berequin eraman cituen. Afaria prestaturic, jaten eman cion. Etzatera cijoacen aurrean. Urico zar-gazteac elcar-arturic, echea ingurutu zuten. Lot-i otseguin, eta esan cioten

gillunabarrean zure eche onetan sartutaco guizon arrotzac non dituzu? Ecarzquiguzu, ezagutu ditzagun. Lot echetic irten, eta oyen asmo galduai iguerrita, erregutu cien, etzezatela alaco gaiztaqueriaric eguin. Eguin-al guciac eguin cituen, guizon biurri ayen biotzat biguntceco, eta atceratceco; baña alperric. Asi ciran indarrez sarteen. Ateac puscatceco-zorian ceucatela, bi guizónac Lot escutic artu, barrura sartu, eta atea ichi zuten; eta eche-inguruan ayen esque cebiltzan guciac itsututa ipiñi cituzten, atea ere ecin lopatu zutela. Orduan Lot-i bi ayec adierazo cioten, Jaincoac Urihura ondatcera bialdutaco aingueruac eirala, eta esan cioten; cereetacoric iñor emen badezu, bereala atera itzatzu; bada, Uria oso ondatcera goaz, ceren emengo becatuac cerua aserretu duten. Lot echetic irten, eta bere bi alabacquin ezcontceco ceuden sui-gayai esan cien, cer guertalcera cijuan, eta irten citezela; baña esana etcioten ecertan artu. Biaramonean goiz aingueruac Lot-i leyatcen eitzayozcan bere alabacquin lembaitlen irtececo besteacquin batean ondatu etcitecen. Onetan naguichó cebiltzala icusiric, aingueruac Lot, onen emazte, eta bi alabac escutic oartzaca artu, eta Uriaz campora atera cituzten. Emen Lot-i esan cioten; cereburua gorde ezazu; ez atcera beguiratu; ez inguru oyetan guelditu; basora zoaz, besteacquin ondatu etzaitecen. Lot-ec erregutu cien, utsi cizayotela, agueri zan erri chiqui Segor-en sartcen, emen bere burua gordelceco; eta eman cioten baimenarequin Segor-era joan zan.

Cerua garbia cegoan chit; eguzquia orduan aguertcen zan; eta chimista viciac ceriozcan odei batec cerua bat batetan estali zuen. Lurra idiqui, eta su eta garrac botatcen cituen; eta odehyetic jachi zan sufre eta zuzco jasa icaragarriac Sodoma, Gomorra, Adama, eta Seboin-go erriac iracequi, eta osotoró erre, eta quiscaldu cituen, cer izan ciran aztarnaric ere utci gabe. Eche eder-galantac, lur-mami-go-zoac, arbola icusgarriac, eta Lot, bere vici-lecutzat aututcerai ipiñi zuten gañeraco gauza zoragarri guciac emen erre ciran; eta ur-zulo' ciquin bat eguiñic guelditu zan; ceñari gueroztic, *itsaso illa* deritza.

7. §—*Lot-en emaztea gatz biurtua. Lot-en becatua* ,

Orainago esan da, Lot-i, eta bere lagunai aguindu citzayetela, ez atcera beguiratceco; baña Lot-en emazteac, debecu au autsiric, su eta garren ots izugarriac, eta erri ayetaco quiscalcio gogorrac aditu cituenean, beguiac itzuli cituen, eta jó miragarria! lecu berean gatz eguiñic guelditu zan; eta era onetan bi milla urtez gueroago ere cirañian; ¡Icasbide ona, munduco Sodoma galduari, bein itzi ezqueró, ez berriz beguiratceco, eta becatuagana itzultcecol!

Biaramonean chit goiz Abraham jaiquiric, vezperan Jaincoac itseguin cion lecura joan zan, eta lurretic ceruronz Sodoma eta bere inguruetan cebiltzan chimpar gorriac eta odei gucia estaltcen zuten que beltz illunac icusi cituen. Icusgarri min onen erdian atsecaberie andiana, bere illoba maite Lot-ec cer eguin ote zuen, ecin iguerriac ematen cion. Eguia da, Jaunaren erruquimentua zuen uste osoac sinisterrazotcen ciola, gañeracoen ondamenetatic gordea izango zala; eta etzan guezurtatu. Lot, arestian esan dan bezala, aingueruen laguntzarequin ondamen artatic ondo irten zan; baña beste lambide gaizto batean erori, eta bere osabari nai gabe andia eman cion. Lot-ec, aingueruen lenengo esanera joan nai izan etzan basora joateco gogoa artu zuen, bere burua obeto gordetceagatic: eta ara zanean, orditu ta bi alabacquin becatuan erori zan, eta izan cituen bi seme Moab eta Amon, cembat buruauste eta neque Abraham-en ondo reari ecarri cietenac.

Abraham-ec, bazter ayetaco becatuacquin, eta Lot-en echeconaigabe eta ez-bearraequin izuluric, Gerara-ronz aldeguin zuen, non guertatu citzayon guichi gora beera, Egipto-co Erreguearequin guertatua. Onara zanean, esan zuen, Sara arreba, zuela. Abimelec erri artaco Erregueac jaquiñic, Sara cein ederra zan, icusteco gogoarequin bere Jauregui edo echera eramazerazo zuen: baña Jaincoac gañaz ametsetan itzeguin cion onela; illic gueldituco cera, baldin emacume orrequin cutsutcen bacera, ceren ezcondua dan. Erregueac crantzun cion, ¡cer bada! ¿Fede onean, eta ez-jaqui-

ñean dijoan culpa gabeari vicia quenduco diozu? Guizon arc berac esan dit, Sara arreba zala, eta Sara-c ere Abraham anaya duela: beraz dacusu, gaitzqui eguileco asmorie ez nuela. Jaincoac Erregueari esan cion, zure fede onaren berri badet; argatic becatutic gorde ere zaitul: senarrari bere emaztea itzuli zayozu bada; bera Profeta bat da; zugatic erregutuco du, eta vicico cera: bestela jaquin ezazu, zu eta cere echecho guciac illico ceratela.

Jaincoaren esanarequin Abimelec icaraturic, Abraham beregana eracarri, eta esan cion; ¿cer eguin didazu? ¿Cer gaitz eguin dizugu, becatu ain izugarri bat niri eraguin, eta ni nere Erreinu guciarequin ondatceco bidean ipinierazotceco? Abraham-ec erantzun cion; uste nuen, bazter oyetan Jaincoaren bildurric etzala, eta ni il eta emaztea beretu cezaten icarac, esanerazo cidan, arreba nuela; izatez ere, alais hen da: bada, ama biren humeac baguera ere, aita bat degu: bestetic, nere ehetic, Jaincoac aguindu, eta irten nintzan ezqueró, Sara erreguturic neucan, arren, nere arreba zala ezateco. Arreba deitzen dio, aita baten humeac ezba-ciran ere, beintzat aide chit urrecoac ciralaco, lenagoco iracurgayean esan dan bezala. Abimelec-ec Abraham-i escue-racutsi eta erregalo andiac eguin ciozcan; eta Sara-gandic aldeguitean, oni ere esan cion; zure anaya dalacoari milla cillar diru eman diozcan, ceintzuecquit oyal bat erosico dezu, cere burua estaltceco, munduac jaquin dezan, ezcon-dua cerala.

Jaincoac legue zarrean berean ere ezconduen elcargana-co leyaltasuna zorrotzquiró aguintcen zuen. Bada ¿cer izango da Cristaunen arteco escontza, Sacramentu izatera alchaltu ezquerocoari zor zayona? ¿Cer castigat, gogoz baicic ez bada ere, batasun santa au austen duenac merecico ezditu? Batagandic besteaganaco desberdintzari beguira be-quo, eta edoceñec ezagutuco du, onelaco desleyala cein bildur izatecoa dan.

## LAUGARRFN IRACURGAYA.

### 1. §.—*Isaac-en jayotza.*

Arestico guertalditic laster, Jaincoac Abraham-i emandaco itza bete zan. Sara-e izan zuen seme bat, Jaincoac esan bezala, eta icentatuco demboran, *Isaac* ceritzana, eta zortzigarren egunean circuncidatu zuten. Abraham-ec eun urte, eta Sara-c larogueita amar cituzten, seme bedeincacioco aimbeste aldiz promestutaco az izan zutenean. Jayotza onec gurasoai poz eta atseguin andia eman cion; eta Sara-ec bere bularrean aci zuen, titia quendu cion artean. Orduan Abraham-ec oitura zan bezala, bere poza adierazteco, bazcari andi bat eman zuen; baña demboraz poz au samindu citzayon. Beste emazte Agar-gandic izandaco seme Ismael-ec oguei urte bacituen, eta anaya gazlea ecin icusiac artu zuen, eta noiz-naiz zatitu eta ceatcen zuen: baciequien, alabaña Isaac seme autua zala, eta noizbait aren buru izateco cegoala. eta min onec edoceñ gauza eraguiten cion. Sara-c bein batean icusiric, Ismael-ec Isaac ecertan etceu cala, senarrari esan cion; nescame ori bere semearequin echetic bota ezazu, bada calibuaren semeac, Isaac nereacquin ez du zure ondadean parteric izan bear. Sara-ren escaera au Abrahamni-gogoreguin citzayon; Ismael ere, bigarren mallaco emazteagandic izana bazan ere, berea zuen. Jaincoac esturasun onetan, cer eguin, eracutsi cion. Eguizu, bada, Jaincoac esan cion, Sara-c diona eguizu; eta Isaac-gandic irtengo da zure icena gordeco duena. Abraham beti prest cegoan, Jaincoaren esana eguiteco. Biaramonean egun-sentian jaiqui zan; ogui bat, eta ur-ontzi bat arturic, Agar-i sorbaldan ipiñi ciozean; Ismael eman cion; eta ama-semeac echetic bota cituen.

### 2. §.—*Agar eta Ismael-en basora joatea.*

Agar eta Ismael Abraham-en echetic irten, eta Faran-go mendi edo basoronz abiatu ciran. Mortu iracequi onetara

ciranean, beroac easan, eta Ismael, ur gabez, egarriaz il-tecco zorian jarri zan. Agar-ec bere semea ilcen icusteco biotzie etzuelaco, au arbola-pe batean utsi, eta bazter batera aldeguin zuen. Ismael-ec icusi zuenean ama negarrez eta ayezcaz aldeguiten, ceruronz biotza jaso, eta bere aita Abraham-en Jaincoari escatu cion, arren. artzaz cupitu cedilla. Jaincoac Ismael-en escaria aditu zuen, eta Agar-i bialdu cion, aingueru bat, ciotsana; ?Certan zaude? Ez icaratu; Jaunac Ismael-en escaria aditu du:zoazquio, eta jaquin ezazu, ondore andi baten buru eta aitatzat Jaincoac autua daucala. Agar-en beguiac arguitu ciran: eta aldamenean icusi zuen iturri eder batetic ontzia urez bete, eta semeari edaten eman cion; onequin semea bizcortu, eta lenagoco indarretara zan. Ama-semeac ustegabeco laguntza onequin chit poztu, eta gueroz luzaró basoan vici izan ciran, semeac eicean biltcen zuena janaz. Amac demborarequid Egiptotic nescach bat ecarri, eta semea ezcondu zan, eta Jaungoicoac esan bezala, izan cituen seme eta oyen hume asco, baster zabal ayen jabe eguin, eta vicitu ciranac.

Ismael eta bere ama Agar Abraham-en echetic irten ciran ezqueró, Abraham Gerara-n paque andian vici zan. Bere ontasunarequin gucien gogoac beretcen cituen. Bere lan-eguite, icerdi, eta contu onarequin, urte guchiren epean chit, aberastu zan. Beste pozgarri ascoren artean lenengo mallan Abraham eta Sara-c beren semecho Isaac ceucaten; onen aciera ona eta zucena zan ayen ardurarie andiena: eta semeac ere gurasoen contu onari ondo erantzun cion; eta arterañano izan zan gazteric ederrena, eta oiturarie obenetacoa, bear bada, zan.

### 3. §.—*Abraham-en esqueñetza edo sacrificioa.*

Isaac cerbait aci zanean, Jaincoac Abraham-en obediencia icusi nayez, aguindu cion, bere seme maite au artu, eta berac ezango cion mendigañ batean esqueñi edo sacrificatu cezala. Ofrenda edo sacrificio au, gauza viciren bat il, sutan erre, eta austuaz eguin oi zan. Guraso batentzat neque gogorreco lana zan; ala ere Jaincoaren esana egui-

teagatic Abraham artara jarri zan. Baciequin, Jaincoac, emana zuela, eta itzulceco prest cegoan. Goiz batean, bada-egun sentia baño lenago jaiqui, astoa tresnatu, sua éguiteco bear zan egurra chiquitu, eta bere seme Isaac, eta bi morroi arturic, inñori ere bere asmoa aguertu gabe, Jaincoac icentatu cion mendironz abiatu zan. Irugarren egunean mendia icusi zuenean, bere morroyai aguindu cien, astoarequin mendi-ondoru egon citecela; eta bera bere semearequin mendi-gañera igo, eta Jaincoa adoratutacoan, itzulico zala. Astoari egurra quendu, eta semeari sorbaldan ipiñi cion; eta sua eta ganibita berac escuan cituela, gañeronz baci-joacen. Bidean semeac aitari esan cion: ¡Ene aita! sua eta egurra dacusquit, baño ¿non da esqueñi edo sacrificatu bear dana? Galde onec, naita-ez, Abraham-en biotza erdiratuco zuen: ezagutcen zuen, seme au il ezqueró, bere atseguin eta poz gucia galtcen zuela: ala ere, Jaincoaren aguindua eguitera, aita biotz onarequin cijoan; baita semea ere aitaren esanera, cer asmotan, edo certara cijoan asco uste gabe. Abraham-ec erantzun cion; Ene seme, bear dana Jaincoac eratuco du. Gueroenean mendi-gañera igo ciran. Abraham-ec aldare bat eguin, eta egurrarequin prestatu zuen: semea lotu, eta egur gañean ipiñi zuen; eta ganibita escuan arturic, semeari lepoa ebaquitceco asmoan, besoa jaso zuen; eta golpea ezartcera cijoaquion unean gauza arrigarria! aditu zuen Aingueruaren ots bat ciotsana: ¡Abraham, Abraham!. Ona emen, guraso obeditu onec erantzun cion. Ez zure seme orri golperic ezarri, Aingueruac esan cion, Orain ezagutcen det Jaincoari bildur zat-zayola, eta cere seme bacarrari ere ezdiazula aren amorioagatic barcatu. Onelan Abraham-ec beguiac jaso, eta icusi zuen alboan chiquiro bat sasian adarretatic itsasia. Bereala semea ascatu, egur-gañetic queadu, onen lecuan chiquiroa ipiñi; il eta erre zuen, eta Jaunari esqueñi cion. Gueró morroyac guelditu ciran mendi-ondora aita-semeac itzuli, eta emendic guciac echera joan ciran.

Guertaera oni alde gucietatic beguiratcen bazayo, icusico da, Isaac umilla, Galbario-co mendian gure Salvat-zallearen irudi eguiazcoa dala, Bere sorbaldan egurra zue-

la, *Moria*-co mendira Isaac igo, eta escu-oñac loturic, aldarean ipiñia izan zan, Jaunari esqueñteco. Eta au bera Jesus-equin ere guertatuzan; ceña bere sorbaldan gurutcea zuela, igo zan Galbarioco mendira (ceña dan *Moria*-coa bera), eta escu-oñac lotu, eta gurutcean ipiñi zuten, emen vicia uzteco. Beste gauza asco ere arquta litezque emen, garbitó adieracico liguquetenac, Isaac, Jesus-en antz eguiazcoa, eta guizonaren oneraco noizbait guertatuco zana, munduari eracusten ciona, zala.

#### 4. §. — *Sara-ren eriotza.*

Abraham eta Sara-c aurrac izateco demboraz campora izan zuten seme maite au Jaincoari ain oparó esqueñi, eta Jaincoac, esan dan bezala, itzuli cien ezqueró, bere gurasoen atseguin vicia izan zan. Baña Abraham-en biotzac laster izan zuen atsecabe min bat, berari eta echeco guciai negar andiac utci cieztana. Sara-c eunda ogueita zazpi urte cituen eta Isaac-ec ogueita amazapi, Jaincoac emacume andi ari bere vicitza onaren saria ematera, atotsi edo beregana eramán zuenean. Sara il zanean, Abraham-ec negar andiac eguin, eta gueró aren gorputz- illa lurpetceco obi baten billan abiatu zan. Onetaraco, Jaincoari lenago aldare bat eguin izandaco lecuá nai zuen; eta Het-en semeai joan citzayen, esanaz; ni zuen artean arrotz eta erromes bat naiz; nere emazte zana lurpetceco lecuá indazute. Het-en humeac chit arrera ona eguin cioten. Jaincoaren Lenena edo Principea deituaz; eta bérac lurpetcen ciran lecuán onena ceritzana antutceco escua eman cioten. Abraham-ec etzuen idolozale ayen gorputzen artean bere emaztearena ipiñi nai, eta agur andi bat eguin, esquer onac eman, eta gueró esan cien, Efron-equin bitartetza eguin cezatela, bere lurrean ceucan bi ciscuco coba saltcez emateco. Efron-ec Abraham-en escaera aditu zuenean bereala, jarri zan ematera, ez ordeá saltcez ciola, iñola ereez da ori orrela eguingo; ezpada lurruspe edo coba ori diru gabe ar- ezazu: baña Abraham-ec etzuen nai ecer ere doan artu, eta iñorequin zorretan egon. Gueroenean Efron ipiñi



zuen lur arc cembat balio zuen esatera, eta lareun sielo (iru mila erreal besalatu) emanic, Abraham coba eta inguruc lurraz jabe-eguin zan, non Sara bere emazte zana progn andiarequin obiatu zuen. Jaunari aldare bat noizbait eguindaco lecuau baicic bere emazte zana ipiñi ez nai izatearequin Abraham-ec eracusten digu, lecu bereci, eta santuetan illac lurpetceco oitura cein anciñacoa eta gogoangarria dan.

5. §. — *Isaac-en ezcontza.*

Abraham-ec iru urte ceramazquien bere emazte maitea burutic ecin quenduz negarrez; eta bera ere zartu zan; eunda berrogueti urte ceuzcan: Isaac-ec ere bai berrogueti. Eta seme au escontceco dembora zala pensatu, eta emazte bat eratceco asmoa artu zuen; baña bera vici zan Canaan-go bazter ayetaco nescachic etzuen nai, emengo gende gucia idolozaleara, eta gaiztotua cegoalaco. Bereala bere jayoterra eta aideetara beguia ezarri zuen. Canaan-era joateco Mesopotamia-tic irten zanean, echean guelditu zan Nacor bere anaya, ceñaren ondorengoac ascotu ciran, eta oyen arteco nescach bat errañtzat nai zuen artu. Onetaraco Eliezer, bere ondasunen contu-artzalle edo mayordomoari aguindu cion, Mesopotamia-ra joan, eta aren semearentzat nescach bat autu cezala. Eliezer gameluetan escueracutsi andiac eta gauza on asco arturic, videraco prestatu zan: eta Nacor vici zan erri Haran-era illunabar batean alderatu zanean, cer eguin edo nola auqueratu ecin pensatuz gueratu zan putzu-ondo batean, nora errico gendeac illunceetan ur esque irten oi ciran. Esturasun onetan ceruronz beguiac jaso, eta Jaunari erregutu cion onela; Abraham nere nagusiaren Jauna, gaur ordu onetan lagun zadazu. Errico alabac putzu onetara ur-esque etorrico dira: eta nic ura escatu, eta neretzat, ez ecic, gameluentzat ere esqueñtzen didan huraishe izango da nere nagusi Isaac-en emaztetzat zue autu dezuna. Eliezer-ec erregu au Jaunari eguin cioneraco, Rebeca erritic irten, eta putzura ur-esque joan zan. Rebeca, Escritura Santac dionez,

nescali eder, eta guciz ona zan; Melca-ren seme Batuel-en alaba; eta Melca, Abraham-en anaya Nacor-en emaztea; beragatic Isaac-en lengusu baten humea eta Abraham-en odolecoa, ceña zan onec opa zuena. Rebeca au, bada, putzuc ura artu, eta echeronz abiatcean, Eliecer irten citzayon; eta edateco ur pisca bat escatu cion Rebeca-c bereala eta gogo guciarequin eman cion, eta gameluentzat esqueñi ere bai. Servitzari leyal arc Rebeca-ren eguñeratic ezagutu zuen, huraishe zala, Jaincoac aren nagusi gaztearen emaztezaraco ceucana. Game.uac ura edan zutenean Eliecer-ec berequin ceramazquien belarrietaco, eta escumuturretacoac eman ciozcan, eta galdetu cion; ¿ea nor zan? ¿eta bere aitaren echean arentzat lecuric izango ote zan?, Rebecac galde oyei erantzun cien, esanaz, Batuel-en alaba zala, eta arentzat eta aren gameluentzat bere aitaren echean lecu eta cer jana izango zala. Au esan, eta bereala Rebeca echera joan zan, cer guertatu citzayon ehecoai ezatera. Rebeca-ren anaya Laban-ec, arrebac ceramazquien edergarri eta apaindurac icusi cituenean, Eliecer-gana joan, eta erregutu cion, aren echera sartu cedilla. Eliecer-ec, ara zanean, ehecoai esan cien, etzuela ecer ere ez jan, eta ez edango, ceraman eguitecoaren berri ayei eman gabe. Asi zan bada, itzeguiten, eta esan cien, Abraham-en servitzari bat zala; Jaincoac aren nagusiari ondasun andiac eman ciozcala, eta semea ezcondu nayeian, ara ayen artera emazte-gai billan bialdu zuela: Jaincoari biotzelic escatu ciola, arren, berac icentateen ciozcan siñale batzuen bitartez, Isaac-en emaztezaraco ceucana adierazteco eta Jaincoac garbiró aguertu ciola, Rebeca zala autua eta onen esque ceterquiela.

Batuel eta Laban-ec ezaguturic, gauza au Jainco beraren lana zala, baimena eman zuten. Orduan Eliecer-ec bai Rebeca-ri, bai onen ama eta aideai esqueñi ciezen amaitza eta escueracutci andiac, nola ciran urre eta cillarrezco charroac, janci baliotsuac, eta beste gauza ederasco; eta bereala bazcari andi bat ipiñiric, poz eta atseguin artean jan zuten. Eliecer prestatu zan, biaramonean chit goiz irteteco, berri on au nagusiari ematera. Rebeca-ren

aideen atseguina zan Eliecer dembora gueyagoan beren artean egotea, eta Rebeca egun batzuetan beracquin iduquitcea. Au Eliecer-i adierazo cioten: baña au lembaitlen nagusiagana itzuli nai zan. Orduan Rebeca-ri deitu eta galdetu cioten: ¿ea guizon arequin joan nai zan? Eta erantzun cienean, bayez, gauza guciac bereala prestatu ciran, bideari equiteco. Guraso eta alabac elcarri azquendiosal gozoac eguñic, Eliecer eta Rebeca, mirabe asco ondorean citoztela; echetic irten ciran, eta Abraham vici zan errira urreratu ciranean. icusi zuten Isaac arratsaldean egurastu bat, bacarrean artcera irten zana. Isaac ere, gende-talde hura icusi zuenean, beretaronz abiatu zan: eta Rebeca-c Eliecer-i galdetu cion; ¿guganonz datorren guizon ori nor degu? Eliecer-ec erantzun cion; orishe da nere nagusi gazte Isaac. Au entzundacoan, Rebeca lotsatu zan, eta bere burua oyalez estali zuen: eta onela, guciac elcar joric, bideari jarraitu citzayozcan. Bidean cijoacela, Eliecer-ec, bidajea guertatu citzayon gucia Isaac-i esan cion. Abraham-en echera eldu ciranean, Rebeca ipiñi zuten Sara bere amaguiarraba izango zan, eta iru urtez lenago il zana-ren guelan, Bereala Isaac Rebeca-requin ezcondu zan, eta ain andia izan zan oni arc artu cion amorioa, non, Escritura Santac dionez, amaren ilteac 'emandaco min andia gozatu cion, eta guertacari negargarri aren bidez ceramazquien pena gucietalic biotza osó arguitu citzayon.

Abraham etcebillen errañ- gai aberats, ezpada Jaunaren bildurrecoaren billan, argatic Jaincoac Sara bezain emacume ona Isaac bere seme maitearentzat eratu cion; guciai eracusten diela, gai onetan cer eguin bear duten. Rebeca-c ere, Isaac icustean bere burua estallcearequin cer icasi nescach guciai ematen die. ¡Cein ederra litzaquean au bera ezcon-gai guciac eguitea, ezcontzaco Sacramentu Santuac biac lotu arteraño!

6. §.—*Esau eta Jacob-en jayotza. Abraham-en eriotza.*

Abraham-ec, bere seme maitea bein ezcondu ezqueró, biotz gucitic ondorengo bat opa zuen, Jaincoac anciñago

esana betetceco, beré odolac iraun cezan; baña Jaincoac pöz au Abraham-i luzatu nai izan cion. Oguei urtean Rebeca-c etzuen aurric izan. Bitarte onetan Isaac Jaunari beti erreguz cegoquion, seme baten esque; eta Jaincoari escari oyec uquitu cioten, eta Rebeca oguei urteren buruan aurdun arquite zan. Berri onee alde batetic Rebeca poz-tutcen bazuen, bestetic biotza illuntcen cion. Aur-eguiteco egunetara zanean, ezagutu zuen, sabelean bi aur ceuzcala; eta oyec elcarren contra elean cebiltzala, oñace miñac ematen cioten, alaco moduan, non, aur ayec sortua, eta bere agortasun, edo aurric-ezean ez gueldituaz damu zuen. Icusiric, bada, aur biac errayetan cerabilten despita, Jaincoari jarri citzayon, guerra era arc cer esan nai znen galdez; eta Jaincoac erantzun cion, sabelean cecarzquien aur ayec, bi erri edo gende, bata bestearen contra beti ibillico ciranen buru izango cirala, eta zarrena gazteenaren mendean izan bearco zala.

Jayotceco egunac bete ciranean, Rebeca-c murdura bi seme eman cituen. Lenengo jayoa gorritaracoa eta illetsua zan, eta deitu citzayon *Esau*. Bigarrena ere onen ondoren bereala, eta anayaren orpoari cichecala jayo zan, eta ceritzan *Jacob*.

Isaac-ec iruroguei urte cituen, eta eunda iruroguei Abraham-ec, ceñac zarzaroan bere seme maitearen hume oyec icusteco poza eta atseguña izan zuen: baña amasei urteetara aur oyec eldu ciranean, Jaincoac guizon santu au atotsi edo beregana artu zuen, ain fede viciarequin beti billatu izan cituen ondasun beticoac gozatcera. Abram-en vicitza chit ona izan zan; Jaincoaganaco leyaltasuna atce-neco asnasaraño gorde zuen: erbestean guizon arrotza bezala, Canaan-go lurean bici izan bazan ere, bere erri Caldea-ra itzuli bear zanic etcion beñere gogoac eman, Jaincoac ala aguinduta bere aide eta erria bein betico utci izan cituen ezqueró. Beti vici izan zan, nondic eta nola Jaincoa obeto servituco, zuen, bere griña eta gogo guciac aren nayerara ipiñita. Eramanquizon andiac izan cituen: esturasun gogor latcetan arquite zan: Sara bere emaztearen edertasunac, eta Lot bere illobari cion amorioac pe-

rill, eta galbide estuetan ipiñi izan zuten; baña Jaincoari-contuz jarraituaz, eguiteco gucietan beti ondo irten zan. Patriarca santu au eunda irurogueita amabost urtecoa il zan, zarzaro doatsu bat izanic, eta bere anima, bera baño lenago mundutic irtendacoanima justuen artean ipiñia izan zan. Isaac eta Ismael bere bi semeac aita Abram-en gorputza Sara-ren ondoan, Efron-i erositaco coban; progu andiarequin obiratu zuten.

Aitagandic berrogueita bederatci urtera, Ismael semea ere eunda ogueita amazapi urtecoa il zan. Onee bere seme eta ondorengo asco ezagutu cituen, ceintzuec amabi eche edo familietan, nor bere buruarequin jarriric, lurbazter andiac landu eta erabiliac, vici izaten ciran; eta Jaincoac Abraham-i promestu cion bezala, amabi lenen edo Principe beren artean ezagutu eta izan cituzten. Ismael bere ehecoen artean lurpetua izan zan.

## BOSTGARREN IRACURGAYA.

### 1. §.—*Esau-c Jacob-i lenen-izatea saltcen dio.*

Isaac eta Rebeca-c contu andia ceucaten beren bi seme biroqui Esau eta Jacob ondo acitceco; baña aurtasunean ere, oraindic sabelean ceudela asitaco despita, eta elcar ecin artuari cerraizquion, eta arguiró adierazten zuten, bata bestearequin eguiteco, onac etcirala. Urteetan cerbait sartu eiranean, Esau osotoró eizeari eman citzayon, eta basoz-baso cebillen. Jacob-ec griña bera etzuen; ezpada bere aitaren ondoan eche-lanetan, eta abere-zai ibiltcea zan onen eresia.

Bein batean Esau-c, basotic echera chit necatua, eta gosetua cetorrela, anaya Jacob chiliste edo lentejac deritzaten illarmotac jaten arquite zuen; eta janari artatic cerbait escatu cion. Bai, Jacob-ec erantzun cion; emango dizut, baldin lembiei jayotceari darraizquion escubide eta derechac utci nai badizquidazu. ¡Guizonaren argaltasun ichua! Esau bereala artara jarri zan; itza eman cion; eta anayac

emandaco chiliste-illarrac jan, eta bere eicera itzuli zan. Salera au Rebeca-c gogoan artu zuen, eta bi seméac sabelean ceuzcala, Jaincoac gazteenaren alde esana ere etcitzayon aztutcen; eta berri oyecquin, beti Jacob-ganaco eresi gueyago zuen, eta amorio viciagoa aguertcen cion. Isaac, berriz, Esau-ren gozacaitzqueriac atsecabe andia ematen bacioten ere, lenen-jayoa zalaco, onengana etciñagoa zan Onela vici cirala, Canaan-go alderdian gosete gogor bat sortu zalaco, Isaac Egipto-ra bere echecoacquin jan billan joan bearrean arquiteu zan. Bideari equin citzayon; baña Jaincoac bide-erdian guëldierazo cion, esanaz berac incentatcen cion toquian vici izan cedilla, eta lagunduco ciola. Aita Abraham-i eguindaco promes andi guciac berriztu ciozcan. Poz onequin Isaac Geràra-n guelditu zan. Emen artu cituen lur-erloetan azaroac ereio eta abuztu onac izaten cituen. Jaunac bedeincatu zuen, eta alaco moduan aberastu zan, non auzoac aren ona ecin eramana, asi ciran esetsi edo perseguitcen. Auezagaturic, Jaincoac, len itzeguin cion toquira joan zan; eta Jaincoagandic arturic gaitzic eguingo etciotelaco itza, aldare bat eguin, eta sacrificioac esqueñi ciozcan, eta emen bertan bere vicilecua artu zuen. Urte batzuec paque onean igaro ondoan, echecoetan sortu citzayon gauza bat chit naigabe andia eman ciona. Esau seme zarrenac, berroguei urteetara eldu zanean, ezcontceco asmoa artu zuen. Aitaren iritcia eta baimena artea seme oni bacegoquion, ain gauza pisuan ez utseguiteco; baña gazte berecoi onec etcion bere gogorari baicic eceri beguiratu, eta Isaac aitac eta Abraham asabac bezala, bere odoleco Jaincoaren servitzari bat emazte eguin bearrean, Het-en jatorrico bi nescach idolozarequin ezcondu zan; ceren videz gurasoai atsecabe miña eman cien. Isaac-ec naigabe au beregan itoric, bi errañac echean artu cituen. Urte ascoan oyecquin vici izan zan, bere egunen ondoreraco Esau onordeco uzteco asmoan, semearen bidegabequeria guciac aztuta, zarrena zalaco, eta bitarte onetan Esau-c ere zarrenari cegoquion escualdia beti aguertcen zuen.

2. §.—*Isaac-ec Jacob bedeincatcen du.*

Isaac zartu zan, eta Patriarca santuac oitura zuten bezala, bere azquen-bedeincacioa semeari eman nai izan cion. Au bein eman ezqueró, bere contra ecer eguiteric elcegoan. Rebeca azcarrac, Jaincoaren arguiarequin cegoanac bezala, bere seme maite Jacob-en gañera bedeincacio au, eta onequin lenengotza ecarteco modua eguin zuen.

Isaac-ec, bada here seme Esau-ri egun batean deitu, eta esan cion; ¡Ene seme! Dacusu zartu naizala, eta nere azquen eguna ezdaquidala: cere armac artu, eta eizera zoaz, eta alcitcen dezuna, ecardazu hura jandacoan, il baño lenago, bdeincatu zaitzadan. Rebeca itzqueta au aditcen cegoanac, bereala beste seme Jacob-i aditcera eman cion, aita cer eguitera cijoan; eta aguin du cion, auntzaldera joan eta bi anchume obenac ecartceco, ciotzala; nic anchume oyec zure aitaren gogora maneatuco ditut, eta zuc eramango diozcasu, jan ondoan, bedeincatu zaitzan. Lan au Rebeca-ri erraza ceritzan, ez ordea ¡Jacob-i, eta cemeac amari erantzun cion; badaquizu nere anaya Esau-i illetsua dala, eta ni ez. Nere aitac uquitcen badit, eta ezagutcen banau bildur naiz, uste izan dezan, enganatu nai izan dedala, eta bedeincacioaren orde madaricacioa neretu dezadan. Ene seme, Rebeca-c esan cion, madaricacio ori nere gañ izan bedi, eta nere esana zuc eguizu: zoaz eta bi anchumeac ecarquidazu. Semeac ecarri, eta amac guisatu cituen, aitac nai izaten zuen eran. Amac semeari soñecoric obena jancierazo cion: escuac eta lepoac anchume-larruz estali ciozcan: eta amac maneatutaco anchumequia arturic, aitari joan citzayon, ciotzala; ¡Ene aita! Isaac-ec erantzun cion; ¿Nor zaitut, ene seme? Jacob-ec erantzun cion; ni zure seme zarrena naiz: zuc esana eguin det; jaiqui, eta eseri zaitte, nere eiza jateco, gueró zure bedeincacioa niri eman dizadazun, Isaac-ec etzuen uste, ain laster Esau etorri citequeanic, eta esan cion; ¿Nola, ene seme, orren laster eiza eguin dezu? Semeac erantzun cion;

Jaincoac nai izan du. Orduan Isaac ec esan cion; alozquit, ene seme, uqutu dizazudan eta ezagutu zaitzadan, Esau nere semea zuote ceran. Jacob urreratu citzayon, eta Isaac-ec semearen escuai uqutu cienean, esan zuen; itza Jacob-ena da, bai, baña escuac Esau-renac dira. Gueró galdetu cion, ¿Esau nere semea cera? Bai, ni naiz, semea erantzunc cion Bereala Isaac-ec esan cion; ene seme, eizá indazu, jan eta gueró bedeincatu zaitzadan. Jan zuenean, aitac esan cion, atoz oná, eta laztandu nazazu. Laztan artan Jacob-en soñecoen usai gozoa Isaac-ec ulertu edo sentitu zuenean, bere bedeincacioa eman cion, ésanaz; Jaincoac ceruco intza eta lurreco coipearequin oguia eta ardoa ugari eman dizazquizula; erriac servitu, eta vallerac adora zaitzatela: zure anayaen jaun izan zaite; eta zure amaren seméac zure aurrean macurtu bitez: zu madaricatcen zaituena, madaricatuia izan bedi, eta zu bedeincatcen zaituena, bedeincacioaz bete bedi, Onela Isaac-ec bere bedeincacioa bucatu zuen. Jacob, badirudi, guezurretan cebillela, edo Esau zala esatean, guezurra ceriola; baña, San Agustín-ec dionez, itzqueta hura guezurrezcoa etzan, ezpada misteriozco, gauza isill miragarriac adierazten cituena. Jacob larruz jancia jarri zan Jesu Cristo guizatasunez jancia, eta gure becatuen pisua gañean artu zuena aditcera emateco.

Isaac-ec atceneco itzac esan, eta Jacob irten orduco, Esau bere eizarequin aguertu zan, eta aitari ondora joan, eta esan cion; jaiqui zaite, ene aita, eta ni zure seme onec daczazudan eizá janezazu, gueró ni bedeincatceco. ?Nor cera, bada, zu? Aitac galdetu cion. Ni Esau zure seme nagusia naiz, Esau-c erantzun cion; Isaac-ec, esan-al gucien gañean arrituric, galdetu cion; ¿cein zan, bada, arestian, zu etorri baño lenago, eiza ecarri, eta janerazo didana? Nic bedeincatu det, eta bedeincatuia izango da. Esau-c, aitaren itzac entzun cituenean, ayesca eta deadartari eman cion, eta aitaren oñetan lurjo zuen, esanaz; ene aita, zure bedeincacioa, niri ere indazu. Aitac erantzun cion; zure anaya somaz etorri, eta zure bedeincacioa artu du. Orduan Esau-c bere aoari anayaren contra espa andiac erasan ciozcan. Gogoratu citzayon, lenen-izatea cein merque salda cion;



lambide enetan berean salera aren ondorea icusten zuen; eta nolabait ere lengo utseguitea zucendu nayez, aitari esan cion, ¿ez ote dezu neretzat bedeincaciorie gorde? Bana aitac erantzun cion, bere anayaen buru eta nagusi Jacob ipiñi zuela, eta bein itz-eman ezqueró, ecin onie atceratu cezaqueala. ¿Cer bada? Esau leyatcen eitzayon, ¿bedeincacio bat baici ezdezu? Arren, ni ere bedeincea nazazu. Semearen negar eta ayezcae aitari biotza erdiratu cioten, eta semeari esan cion; lurreco guicentasunean eta ceruco entzean zure bedeincacioa izango da, Guerran vici eta zure anayaren mendeco izango cera. Esau-c, bedeincacio au etzuen ontzat artu, anayaren mendean izan bearco zala, aitac esan ciolaco: ordutic aci eta sutu eitzayon, anayari len eta beli gorde izan cion iguin eta gorrotó vicia.

Jacob-i, aitarequin izan zuen lambideac cer pensatu andia ematen cion; etzuen, alabañan, aitac gaitzat arceeric nai; eta Jacob aurqueztu baño lenago, Rebeca, gauza aren guidariac, Isaac-i joan, eta esan cion, cergatic eta ceren bidez lan hura eguin zan; arguileco cegoala, Jaincoac cer aguertu cion, baita ere, beste gauzaasco, Isaac-ec arteraño etciequizquienac esan ciozcan; ceintzuec guizon santu arc aditu cituenean, Jannari esquerrac eman, eta gueró Jacob bere ordeco nagusitzat ezagutu zuen.

### 3. §.—*Jacob-en zurubia edo escallera.*

Aitarequicoa Jacob-ec onela eguin bazuen ere, ez ordeca anaya Esau-ren ayercunea itzali. Onec gueróngo eta gorrotó gueyago cion, eta anaya iltecco gogoa beregan cerabilen. Asmo galdu onezaz Rebeca oartu zan; eta bere seme cutuna beguetatic uzteac naigabe andia ematen bacion ere, anaya biotz gogordun aren escuelatic gordetceagatic, Jacob-i esan cion, Mesopotamia-ra amaren anaya Laban-enechera joan, eta Esau-ren aserre eta igüina itzali artean, an egotea on zala. Gueró senarrari ere, cer pensatcen zuen, esan cion, Jacob-en ezcontza beren odoleco batequin, aitzauquitat emanic. Ciotsan, bada; Het-en alabac vicitez asperturic naucate, eta baldin Jacob-ec alderdi oyelaco bat

emazletzat artuco balu, ez nintzaque vicico. Isaac-ec au adituta, Jacob-i deitu cion, eta bere lengo bedeincacioac berrizturie, aguindu cion, etcezala Canaan-go nescachie emazte eguin, ezpada Mesopotamia-ra Batuel aitasabaren echera joan, eta Laban osabaren alaba batequin ezcondu cedilla.

Jacob, bere anaya Esau-ren ayercuneari igues-eguileatic, Bersabée-tic irten, eta Laban vici zan erri Heran-eronz abiatu zan. Bidean cijoala, illunabar batean Luzan ceritzan erri-ondoan guelditu zan atsedeten, eta burucotzat arri bal ipiñirie, loac artu zuen, Lo cetzala amets misteriozco bat eguin zuen, Amets onetan icusi zuen escallera bat, ondoa edo oña lurrean, eta goya edo errematea ceruan cituena; eta Jaunaren aingueruac gora-beera escallera onetan cebiltzan; eta Jaincoa bera escallerari ciehecala cegoan, esanaz; ni naiz Abraham-en Jainco Jauna, eta Isaac-en Jaincoa; zuri eta zur e ondoreari le zatzan lur ori emango dizutet; eta zure ondorea lurreco autsa bezain ugaria izango da. Munduaren lau aldeetara zabalduco cera; eta zugandie irtengo danac munduco guciac bedeincatuco ditu. Nic neronec zuzaz non-nai contu izango det; lur onetara itzulico zaitut; eta esan dizudan gucia eguin artean, zurequin izango nazu. Jacob esnatu zan, eta icusi eta aditu cituen gauzacquin arriturie, deadar eguin zuen; Jaincoa da . bai, emen, eta nic ez niequien. ¡Cein lecu icaragarria au! ¡Ezdago, ez, emen Jaincoaren echea baicic, eta ceruco atea!

Jacob-ec, Jaincoagandie izan zuen icasqueta miraritsu onen oroipeneraco burupean iduqui zuen arria artu, lurrean ipiñi, eta pillare bat eguin zuen, eta olioaz igortci. Eta ara emen, Jaincoaren icenean eta onran olioaz igortcitaco lembicico aldarea, ceñaren oitura Jaincoac gueroago Moises-i aguindu cion, eta Eliz-Ama Santac orain ere gordetzen du. Jacob-en esnatu ondoco itz ayec eracusten digute, gure elizai cein beguirune andia izan bear diegun. Bada, Jaincoac amets uts baten bitartez itzeguin ciolaco, lecu hura Jaunaren echetzat artu bazuen, ¿eguiaz eta menaz Jaincoa hera dagoan lecu bedeincatu oyecgatie cer esango zuen?. Patriarca santu aren itzacquin aitortu dezagun, bada, Jaincoaren eche eta ceruco ate eguiazcoac oyec dirala; eta zor zayen beguirune gucia beti gorde dizayegun.

4. §.—*Jacob-en joanera Haran-era,*

Jacob-ec ezaguturic, Jaunac aguertu ciozcan gauza andiacgatic, cembat zor cion, andic aurrera are obetoago servitceco, eta aren onran al-eguiña eguiteco itza eman cion, eta Jaincoa bere alde zuela, eta lagunduco cion uste oso osoa arturic, Haran-eronzco bidean jarri zan. Putzu-ondo batera alderatu zanean, icusi cituen iru artalde, ura edateco ará bilduac. Jacob artzayetara urreratu, eta galdetu cien, ¿ea nongoac ciran? eta erantzun ciotenean, Haran-goac, galdetu cien, ¿ea Laban, Nacor-en semea ezagutzen zuten? Bsi, erantzun cioten, eta ará non dezun aren alaba Raquel, ardiacquin datorrena. Ardiai edanerazotceco putzua, guciac bildu artean, arlosa andi batequin ichia egoten zan, eta Jacob-ec, Raquel-en ardiac putzu-ondora ciranean, arriaquendu, ardiai ura eman, eta Raquel-i diosala eguin cion. Bereala negarrez jarri zan; orain ezdaquigu edo nai zuen gucia eratu citzayolaco pozarequin, negar oyec ciran, edo bere lengusuari cer emanic etzuelaco miñez; bada, Jaunac eracusten ciona eguiteco gogo eta asmo vici-vicia bacic, ecer ere bere echetic etzuen artu. Jacob-ec Raquel-i adierazo cion, nor zan, eta Raquel-ec lasterrean echera joan, eta Laban-i esan cion, cer icusi zuen, Laban-ec aditu zuenean, bere arreba Rebeca-ren semea an zala, bidera irten citzayon, eta laztan-emanic, echera eraman zuen. Jacob-ec esan cion, bere gurasoen echetic igues-eguin, eta ará bearrean, cerc ipiñi zuen, gañeraco guertatu citzayon guciarequin, eta Laban-ec chit beguitarte eta arrera ona eguin cion.

Laban-en echean illabete baceraman eche-lan eta neque guciai arpegui emanaz, Laban-ec galdetu cionean, ¿ea doan aurrera servitu bear zuen, edo cer sari nai zuen? Laban-ec bi alaba, Lia eta Raquel, cituen. Lia beberea, edo begui-beara zan, eta Raquel arpegui ederrecoa, Jacob-ec Raquel putzu-ondoan icusi zuetic, on-iritei cion, eta gogoan sartu citzayon. Aita Laban-ec galdehura eguin cionean, Jacob-ec erantzun cion, Raquel bere bigarren alaba emaztetzat emateagatic zazpi urtean servituco zuela. Laban-ec bereala bayezcoa eman cion.

5. §.—*Jacob-en ezcontza.*

Jacob ordu onetatic eramanquizon, eta neque gogorren azpian, eta bere outasuna cembalerañocoa zan eracusteco bidean jarri zan. Zazpi urteac asi ciran; eta bitarte onetan osaba biotz gogordunac aguintcen ciozcan neque latzac Jacob-ec ecertan etceuzcan, Raquel maite zuelaco; eta onequin ezcontceco pozac azterazoteen ciozcan; baña bere utseac utseguin cion. Zazpi urteen buruan Jacob-ec Laban-i Raquel escatu cion; eztayac eguin cituzten: baña Laban salduac alaba zarrena utci, eta gazteenarequin ezcontceari ondo etceritzalaco, Raquel-en ordez eztaigañean oyea Lia sartu cion. Jacob eguna zabaldu artean etzan oartu. Orduan aitaguiarrabari espa andiac aguertu ciozcan, cergatic engañatu zuen; baña Laban-ec otz-otzean erantzun cion, zarrena baño lenago gazteena ezcontcea oitura gucien contra zala. Guero esan cion, eztaigastea, beintzat, igaro ezala, eta beste zazpi urteco morrontzagatic Raquel ere emango ciola. Jacob-ec Laban-i cerbait esateco biheric asco hazuen, salduqueria billau hura eguin ciolaco: baña naigabe guciac, itzie ere esan gabe, barrunen ito cituen, eta astearen zazpi egunac igarotacoan, Raquel-eguin ere ezcondu zan, beste zazpi urte Laban servitcen eguiteco itzean.

Jacob-ec Lia-ri ezbezalaco maitetasuna Raquel-i beti izan cion; baña atseguin guciac herequia etcituen. Jainco on gucien Emalleac Lia-ri bai, eta Raquel-i etcion aurric ematen. Lia-ec dembora laburrean izan cituen lau seme, Ruben, Simeon, Levi eta Judá ceritzatenac. Raquel-ec ecin eraman zuen, berac ez, eta aizpac aurrac izatea; gauza onec naigabe audia ematen cion; eta senarrari espaca jarri citzayon. Jacob santuac erantzuten cion, aurrac izatea Jaincoaren escuan cegoala, eta ecin ecer eguin citzayoqueala. Orduan Raquel-ec esan cion, Bala ceritzan bere nescamearequin ezcondu cedilla, eta onec ematen ciozcanac, bere semetzat artu, eta acico cituela.

Dembora artan cerbait ondasun zuten gurasoac alabac ezcontcen cituztenean, bere queraco nescach bana emate-

co oitura zuten. Laban-ec Lia-ri Zelfa, eta Raquel-i Bala ceritzatenac eman ciezen. Baita ere cillegui zan, len esan dan bezala, emazte bat baño gueyago izatea: eta emazte nagusiac aurric etzuenean, bere nescacha senarrari emaztetzat eman, onegandic jayotcen ciran semeac beretzat artu, eta aciteen cituen. Oitura oni cerraiquiola, Raquel-ec bere senarrari emaztetzat eman cion Bala servitzaria, ceñagandic izan cituen bi seme, Dan eta Neptali ceritzatenac, eta Raquel-ec bere semetzat artu cituen. Lia-c ere, icusiric semeac eguiteari utzi ciola, senarrari emaztetzat eman cion bere nescame Zelfa, ceñac izan cituen bi seme, Gad eta Aser icena zutenac; eta Lia-c ere oyec biac beretzat artu cituen. Berriz ere, cembait urte joan ondoan, Jaincoac Lia-ri eman ciozan bi seme, Isacar eta Zabulon, eta alaba bat, Dina ceritzana.

Urte asco bere agortasunean eguin arren, Raquel-ec etzuen noizbait ama izateco ustea galteen, eta Jaincoari beti esque cegoquion. Gueroenean ere irichi zuen seme bat, *José* icena ipiñi citzayona; José aimbeste aldiz aitatuco deguna; José mundua mundu dan artean ain otspatsua izango dana. Raquel eta Jacob, ain dembora lucearen buruan seme au icusi zutenean, chit poztu ciran; eta Raquel-ec bere pozarequin otseguin zuen; lotsabidetic Jaincoac atera nau. Jacob-ec ere zazpi urtean Raquel-gatic artutaco neque-pena guciac ontzat eman cituen.

Laban aitaguiarrabaren echean eta morrontzan Jacob-ec amalau urte ceramazquien. Bitartean len esan dan bezala, bere lau emazteetic amaica seme eta alaba bat izan cituen. Onetan pensatu zuen Laban-en mendetic irten, eta beretzat cerbait eguiteco dembora zala; eta Canaan-era bere aitagana itzultceco asmoa artu zuen. Onetaraco, emazte, eta humeacquin bere echera biuriceco baimena Laban-i escatu cion: baño Laban-ec Jacob uztea min zuen, ceren ezaguturic ceucan, servitzari leyal onen bitartez amalau urte ayetan ondasunac |chil ugaritu citzayozcala; eta galdetu cion, ¿ea guero ere aren echean egoteagatic cer nai zuen? Jacob-ec erantzun cion, etzuela ecer ere bear; gauza bat esango ciola, eta au eguin nai bazuen, berriz ere

aren servitzoan, eta abere-zai egongo citzayola. Jacob-ec gueró esan cion; zure artaldeai icusi bat eman, eta ardi nabar guciac banacatu edo apartatu itzatzu, eta colore bateco, naiz oso zuriac, naiz oso beltzac nere contura utzi zazquidazu, eta oyetatic jayotcen diran nabarrac gatic servituco zaitut, Suyaren esanera Laban bereala jarri zan, ceren uste zuen, oso zuri edo oso beltzetatic nabar ascoric ecin irten citequeala. Ardi nabar guciac, bada, Laban-ec banacatu cituen, eta oyecquin iru eguneco bidetan joan zan, Jacob-en contura colore batecoac utcita.

Jacob-ec zotz verde batzuec arfu, eta onetic unera azala quendu cien, azala quendutaco lecuan zuri eta gañeracoan verde guelditcen cirala. Zotz oyec ardiar ar-emetceco demboran aurrean ipintcen ciezen, eta arcume nabarrac soteen ciran; eta guriac guisa onetacoac irten etcitecen, banaca batzuec zotz oyec gabe umetcen cituen, guichi bederic Laban-entzat ere jayotceco.

Jacob-i soldata emateco garaya eldu zanean, asi ciran arcume nabarrac colore batecoetatic banacatcen, eta Laban-ec icusi zuenean, zuri uts edo beltz utsac baño nabarrac ascoz ere gueyago cirala, etzitzayon ondo erori; ala ere, Jacob-i cegozquion guciac eman ciozean, urrengo ume-aldian nabarrac Laban-entzat, eta zuri uts edo beltz usac Jacob-entzat izateco itzean. Jacob-ec urrengoan lenagocoa etzuen eguin; ezpada ardiac umerazo cituen, argalen banaca batzuei baicic zotzac eracutsi gabe; eta berbat soldata emateco dembora eldu zanean, Laban-ec berretzat chit guichi arquitn cituen, ceren argal ayetatic bacarrie nabarrac sorta ciran, eta oyec ere chil argal-ayecatuac, eta gaitz-etsiac.

Urteac cijoacen onela, Laban-ec gaur batzuec, eta biar bestac beretzat aututcen. Atcenean icusirie beti Jacob ondoena irten, eta aberastuteen cijoala, suyaren ona ecin eraman gaizto, eta aren gorroto viciac artu zuen. Jacob-ec iguerritcen cion, eta contuan cebillen. Onetan bein batean Jaincoari aditu cion, esaten; zure erri eta gurasoen echera itzuli zaite, eta zurequin izango nazu. Jacob bereala jarri zan Jaincoaren esana eguiteco; baño aurrean

asco eragozpen jartcen citzayozcan, Laban-en ondotic igues-eguiteco: aia ere, bi emazte Raquel eta Lia bera ce-goan lecura atotsiric edo eramanic, esan cien cer asmo zuen, eta gea ayec ere jarrico ciran beren gurasoac eta echea utzi, eta arequin batean joatera? Biaz, bayez, eran-tzun cioten.

Bereala bi aizpac aurrena, eta Jacob urrena Haran-era itzuli, eta al-zan isillena bideraco prestamenac eguin ci-tuzten. Laban ardi-mozquetan zan aldian, Jacob Mesopo-tamia-tic irten zan, bere emazte, amaica semeac eta alaba, gañeraco mirabe, ondasun eta gauza guciacquin arturic. Raquel-ec ere bere aitaren idoloac isillic artu cituen, dala asco balio zutelaco, dala bere aitaren echetic jainco gue-zurrezcoac ayenatceagatic.

6. §. — *Mesopotamia-tic Jacob-en iguesa.*

Laban irugarren egunean, artu zano: Jacob-ec emazte, hume eta gauzacquin igues-eguin ciola, eta bere aideac baturic, ari cerraiquiola, irten zan atcitceco asmoan. Zaz-pigarren egunean eldu ciran, Jacob bere atsedena egui-ten guelditu zan Galaadco mendian icustera. Illunac artu cituen Jacob eta Laban, nor bere lecian etzauntzac eguin-da. Jacob Laban-i bildur citzayon, baña uste oso betea ceucan, ará joateco aguinda cion Jaincuac lagunduco cio-la. Laban-ec, berriz, Jacob bere gauza guciacquin atcitu-tzat ceucan, Onela ceudela, Laban-ec ametsetan aditu zuea Jaincoaren ots bat, esaten ciona, ez Jacob-i gaitzic eguite-co. Dei onequin Laban-en su gucia itzali zan. Biaramo-nean egun-sentian Jacob-i ondora joan citzayon, eta bere espasunac aguertu ciozcan, ciotsala, gea cergatic aren isi-llic, catibuac haciran bezala, alabac eramán ciozcan, az-quen-agurra eguin, eta alaba-illobac laztantceco ere lecu-ric eman gabe? Ezagutu cezala guisa artan igues-eguitea cein itsusi zan; eta eguinbide onegatic mereci zuen cas-tigua ematea escuan ceucala; baña Jaincoac eragotzi ciola gaitzic eguitea, eta etziola eguingo ere, Norc bere guraso eta aideen echera itzuli nai izatea, bidezcoa zala; baña

¿ea cergatic aren idoloac ostuta ceramazquien? Jacob ee Laban-i espa oyec morduz aditu, eta erantzun cion, ala bac quenduco ciozcan bildurrac, isillie eta ari contu-eman gabe, igues-eraguin ciola: baña idoloric ostu etzuela. Au obeto sinitserazotceco esan cion, berari edo bereetaco iñori topatcen baciozcan, ayec ceuzcana, gucien aurrean il cezala. Jacob-ec etciequien, Raquel-ec cituenic. Jacob-en eta bere emazte Lia, Bala, eta Zelfa-ren chaola edo etzauntzetan idolo billan Laban sartu zan, eta etcituen arquitu. Raquel-enean ere sartu zan, baña emacume argui onec gamelu baten tresna-pean gorde cituen, eta bera gañean eseriric, aitari esan cion; ez, arren, gaitzat artu ni ez jaiquitsea; bada ecin naiz, eta gaizqui nago. Laban-ec idoloac billatcez azperture, eta alabari, aitzaquia au sinistarric, paquean utci cion, eta arquituco etcituenez etsi zzen,

Jacob-ec orduan asco espa eta quejuracquin aitaguiarrabari eraso cion, aimeste mesede artu, eta gueró bera eta beréac lapur eguiten izan zuen esquergabequeria arpeguia emanaz. Gogoraerazo ciozcan, oguei urtean eguin ciozcan servitze eta morrontzac; ugaritu ciozcan ondasunac; Jaincoagandie iritsi ciozcan mesedeac; eta oyen truke beti gorde izan cion gogortasuna; eta lengoac asco, ez ecie, orain lapur eguitearequin eman cion naigabe eta miña. Laban-ec espasun ain bidezco oyec ontz it artu ciozcan: escatu cion, bien arteco paqueac bein belico eguin citecela. Jacob artara jarri zan; eta biac adisquidetu ciran; elcarri gaitzie ez eguiteco itz ciñeztua batac besteari eman cioten; arri-munto bat ipiñi zuten, bi alderdien mugá izan cediñ, eta batac bestcaren contra andie igarotzeco escubideric izan: etcezan. Egun gucia adisquidetasun gozoan eguin, eta biaramonean Laban, bere bi alaba, eta oyen humeai laztan emanic, eta bedecaturic, Mesopotamiarra bere erri Haran-era bere lagunacquin itzuli zan.

Jacob ee ere bere bideari equin cion, baña aitaguiarrabaren gogortasuna bigundu, eta cion ayercunea itzalita, onen aldetie bildurric ezbazuen ere, oguei urtez lenago echetic irten zanean utci zuen anaya Esau-renetic poz bera etceraman. Baciequien, alabañan, onec hura iltceco



itza emana ceucala, eta berri onec itzutcen zuen, eta pen-  
saquizun andietan ceucan. Baña ¡O Jainco andia! Echetie  
iguesi cijoala, ainguriac ametsetan aguertu citzayozcan  
bezala, echeronzcoan ceraman bildurra quentceco ere  
icusten ditu aingueru-samalda bera gordetcera irteten za-  
yozcanac, eta deadar eguiten du; Jaincoaren egon-lecuac  
dira oyec: eta toqui ari deitu cion, *Mahanian*, ceñac esan  
nai *duegonlecu*.

Esau-c oguei urte ayetan bere ondasunetan asco aurre-  
ratu zuen, eta aguinte andia ceucan. Berri onec Jacob are  
gueyago estututcen zuen: ala ere icusi nai zuen ¿ea cer  
arrera eguiten cion? Mandatariac bialdu ciozcan, bere ice-  
nean agur eguitera, eta adisquidetu ote zan jaquitera. Man-  
datariac itzuli ciran, Esau, anaya Jacob alderatcen citzayola  
aditu bezala laster lareun guizon arturic, bidera cetorqui-  
olaco berriarequin Gaztigu onec Jacob-en bialza osoró il  
zuen. Seme, mirabe, eta servitzariac gañera berequin abe-  
re eta gauza asco cituen, isillie nora-nai joateco; argatic  
Esa-uri bere asmoa adierazo nai izan cion. Icusiric, bada,  
anayaren lengo ayercuneac bacirañela, bere prestamenac  
artu cituen, anayac erasotcen bación ere. Bere gendea eta  
gauza guciac erdi bi eguin cituen, ezanaz, balzuec galtzen  
baciran, besteac, beintzat, gordeco cituela. Jacob Jain-  
coaren escuetan jarria cegoan, eta lagunduco cion uste oso  
osoa ceucan; ala ere norc bere aldetie al-eguiña eguitea  
Jaincoac nai duela ciequielaco, prestamen oyec artu cituen.  
Gueró Jaincoari erreguz jarri citzayon onela; Nere aita  
Abraham-en Jaincoa, eta nere aita Isaac-en Jaincoa; zure  
errira itzuli zaite, eta on eguingo dizut, esan cidazun orrec,  
nere anaya Esau-ren escuetatic gorde nazazu, ama eta se-  
méac il-oztu ez ditzan.

Erregu au eguin ondoan, auntz- samaldac, artaldeac,  
eta gamelu asco auturic, oyecquin morroyac bialdu citu-  
en Esau-c cecarren bideronz, esanaz; nere aurretie zoazte;  
eta abere-taldeac bijoaz bat-banaca, edo batagandie bes-  
teagana cerbait bitarte edo une dutela. Lenengo cijoan  
morroyari esan cion; nere anaya Esau topatcen badezu,  
eta galdetcen badizu ¿noren cera? ¿nora zoaz? edo dara-

mazun ori norena dezu? erantzun zayoza; Jacob zure ser-  
vitzariac Esau nere Jaunari bialtzen diozcan emaitza edo  
erregaloac dira: eta bera ere gure ondoren or dator. Bi-  
garren morroyari ere agundu bera eguin cion. Gau artan  
Jacob bertan guelditu zan. Biaramonean eguna baño lena-  
go jaiqui, eta bere bi emazte nagusi Raquel eta Lia, beste  
bi beeragocoac, amaica semeac eta alaba, eta cituen gauza  
guciac arturic, Jacob-co ibaia igaro zuen, eta beste guciac  
aurrera bialdu, eta bera bacarric guelditu zan.

7. §.—*Aingueruarequin Jacob-en burruca.*

Egoera onetan, biotza ceruronz jasoric, Jaincoari lagun-  
tza berriró escatu cion: eta guizonaren antzeco Aingueru  
bat aguertu, eta itsatsi citzayon, Jacob eta Ainguerua bu-  
rruca luzaró ibilli ciran, elcar ecin azpiratuz. Aingueruac  
icusiric Jacob-ec cein gogor eguiten cion, istar-zañean jo  
zuen, eta bereala igartu citzayon; ala ere Jacob-ec etcion  
bere arerioari escuetatic uzten. Orduan Aingueruac esan  
cion; utci nazazu, egun sentia data. Ez, Jacob-ec erantzun  
cion, etzaitut utzico, bedeincatzen ez nazun artean. Ain-  
gueruac galdetu cion, ¿Nola deritzatzu? Jacob, erantzun  
cion. Etcera, bada, gaurgueró Jacob deituco, ezpada *Isra-  
el*, Aingueruac esan cion; cergatic, ce, baldin ain sendo  
eta irmo Jaincoaren contra eraso badezu, ¿nola guizónac  
garaituco ezdituzu? Jacob-ec contu hura norequin zuen  
jaquin nayez, Aingueruari icena galdetu cion, baña Ain-  
gueruac erantzun cion; ? ea galde hura certaco eguiten  
zuen. ?Orduan Aingueruá Jacob en escuetatic irten zan;  
bedeincatu zuen; eta ezcutatu citzayon. Jacob arri eguiñic  
guelditu zan, Jaunari esquerrac ematen, esanaz; Jaincoa  
arpeguiz-arpegui icusi det; eta lecu ari deitu cion *Fanuel*,  
au, da, *Jaincoaren icusquera*.

8. §.—*Jacob eta Esau-ren elcar iccustea,*

Eguzquia arguitu zanean, Jacob Fanuel-dic bere eche-  
coetaronz irten zan; istar-zaña igartu citzayolaco, errenca

cijoan; baña irme eta sendò, Aingueruarequin jazarra edo pelea izan zuen ezqueró. Andie laster icusi zuen Esau la-reun guizon armadunequin cedorquiona. Bereala echeco guciac bere eran ipiñi cituen: lenengo Bala, eta Zelfa bi emazteac beren lau semeacquin; gueró Lia bere sei seme eta alabarequin; atcenean Raquel bere semecho José escutic zuela. Jacob gucien aurretie jarri zan. Bi anáyac cerbait alderatu ciranean, Jacob bera, echecoac atcean utcita, aurreratu zan; anayari zazpi aldiz agur eguin cion, unetic unera auzpez jarriaz, ceñaren umiltasuna Esau-c icusi zuenean, biotzac etcion gaitzie eguiten utci: besoac zabal-duric, Jacob-i sartu citzayon; eta biac lazlan gozoac elcarrri emanaz, luzaró egon ciran, negar-malcóac cerieztela. Bitartean Jacob-en emazte eta humeac eldu ciran, eta Esau-ri agur eguin cioten, ceintzuec icustearequin Esau-c atseguin landia artu zuen.

Anaya onen biotz gogorra arquitu zan bat-batean bigundua, eta ain ayer citzayonagaraco chit etciña. Aldaqueta guci au umiltasunac ecarri zuen; bada, Jacob eta bere echecoac izan zutenarequin ain beteró gogoan sartu citzayozcan, non biotzie obenarequin beguiratu cien, Anaya bien arteco adisquidetasuna eguin, eta elcarrenac bezala bici izateco itza batac besteari eman cioten. Jacob-ec ceramazquien emaitza eta escueracutsiac anayari esqueñi ciozcan; ceintzuec artcera, nequez bederic, Esau ipiñi zuen. Onec aguertu cion oraindic ibilli bearra ceucaten bidea elcarrequin eguiteco eresia; baña Jacob-ec erantzun cion, emazte mimberac, aur gaztechoac, ardi eta bei umeguiteco bete-beteac berequin cituela, eta baldin bidean gueyegui necatcen bacituen, egun batean illico citzayozcala: argatic Esau aurrera cijoala, eta berá ondoren ezarian bere echecoai cegoquien donarioan jarraituco zala. Jacob-ec etciozcan artu nai izan, bidean laguntceco Esau-c esgueñitaco guizon-armadunac, esanaz, etzuela ecer eré, aren adisquidetasuna, eta ondo-naya baicic bear. Onembestez Esau bere echera Seir-era itzuli zan, anayari itz poz eta atseguingarrienac emanic.

Orra nola Jacob-ec igues-eguin cion, vicia quendu nayez

cebilquion Esau bere anayaren aserreari. Jacob-ec bacie-  
quien, oben edo culpa gucia Esau-c zuela, eta ez berac;  
ala ere anayaren contra etorri citzazquioquean ayercune  
guciac bere gogotic quendn cituen, eta anayaren bidega-  
bequeric azturic, artu zuen aren biotza nmiltasunez ira-  
bazteco asmoa, bai osotoró irabaci ere, icusi degun bezela  
guztiori eracusten digula, lagunaren aserre eta suac itzal-  
tceco bideric obena umiltasuna dala, eta indarrac ecin  
duena, biguntasunac beti edo gueyenean iristen duela.

Jacob, ezdaquigu cergatic, etzan Esau vici zan toquir  
joan, ezpada Jordan-go celaietara, non Siquem-go lurrean  
echea eguin, eta bere vicitza ipiñi zuen. Bazter eder abee-  
rats onetan cerbait dembora igaro, eta Salem ceritzan Ca-  
naan-go Uri ondora aldatu zan. Emen erosi zuen, eun ur-  
tez lenago bere asaba Abraham-ec izan zuen lurra; aldare  
bat eguin, eta Jaunari sacrificioac ezqueñi ciozcan, uztez  
emen luzaró vicitceco asmoan; baña echean guertatu citza-  
yon naigabe batec laster andic bialdu zuen.

### 9. §.—*Dina-ren gertaera.*

Jacob-ec Dina ceritzan alaba bacarra zuen, eta au ama-  
sei urtecoa zala, Siquem-era joan nai izan zan, ango emacu-  
me eta oyen junciac icustera. Dina-c etzuen, lambide one-  
tatic oquerrie etorri bear citzayonic uste; baña mirapilac  
edo icusinayan asco galtcen ditu. Dina aldi onetan bezala  
Ango Erregue Hemor-en seme Siquem-ec Israel-tar nes-  
cach gazte au errian icusi zuenean, gogoan sartu citzayon,  
eta indarrez echera eramanezoric, osotasuna galdu cion.  
Dina negarrez malcoac ceriozcala lotsaz bururic jasotceco  
ere quemén gabe Siquem-en cegoan. Galai arc Dina-ren  
egoera mingarria eta negarrac icusiric, poztu nai izan  
zuen; eta ezcontceco itza ere eman cion. Onetaraco aita  
Hemor-i baimena escatu cion, gazte bien artean eguindaco  
oquerra aguertuaz.

Jacob-ec bere alabaren autsi-oso negargarria jaquin  
zuen, bere seméac abere-zantzan cirala, eta echera cetocen  
artean isillic cegoan. Bitartean Hemor Siquem-go Erreguea

bere semearequin Jacob-i joan citzayon, bere erraintzara-  
co alaba-es-que. Orduraco Jacob-en semeac ere echeratu  
ciran; eta arrebari guertatua aditu zutenean, aserre vici-vi-  
cian sartu ciran; baña su au aguertu, ez ecie, Hemor eta  
bere semearen escariac, eta esqueñtzac ontzat artcen ci-  
tuztelaco irudia eguiñaz, erantzun zuten, baldin ayen arre-  
ba emaztetzat artu nai bazuten, circuncidatu citecela, ayei  
legueac aguintcen cien bezala. Orduan Dina eta gañeraco  
nescachac ezcontzaz emango ciezteela: bestela, Jainco bat  
bera aitortcen etzutelaco, bat-egnin ecin citezqueala, Jacob-  
en semeac barrunen cerabilten asmoa ain ondo estali zu-  
ten, non, Siquem-go aita-semeac etcieten iguerri. eta sus-  
meric edo sospecharic ere artu. Bereala errira joan eta gen-  
de guciari esan cioten, Israel-tarracquin itzeguin zutela;  
eta bi aldetacoac ezcontzaz elcartcea chit ondo cetorquiela;  
baña onetaraco Israel-tarren legueac aguintcen zuena eguin  
bear zala. Siquem-tarrac gogo guciarequin artara jarri,  
eta guizonezco guciac circuncidatu ciran. Andic irugarren  
egunean, noiz eta circuncisioaren oñaceac suric andienean  
ceuden. eta ecerlaraco ere gauza etciran, Jacob-en seme  
Simeon eta Levi beren ezpatacquin Siquem-en sartu. eta  
guizon guciac, Erregue eta bere semeari ere barcatu gabe,  
il-cituzten; eta arreba Dina berequin arturic, aitari eraman  
cioten. Beste semeac ere errian bereala sartu, cegoan gau-  
za on gucia artu, gañeracoac ondatu, eta atcenean ema-  
cume eta aurrac calibu eraman cituzten.

¿Nore esango zuen Dina, bere aitaren echetic Siquem-  
go emacuméac icustera irtetean, bere mirapilliac aimbeste  
calte eta gaitz ecarri bear cituela? Eva sagar ederra icusiac  
galdu zuen, eta Dina ere bai, emacumebatzuec icusi na-  
yac, ceña chit galbide andia da, ala guizonetan nola ema-  
cumeetan, eta igues eguin bear diona, galdu nai ez darac,

Langai negargarri oyec Jacob-ec aditu cituenean, biotza  
erdiratu citzayon, eta erdi-nastua jarri zan. ¡Bere alaba  
bacarra galdua! ¡bi seme guizon-iltzalle! ¡gañeracoac la-  
pur-ondatzalle! ¡cer pena Jacob-entzat gaiztaqueria eta ez-  
béar oyec guciac echean icustea! Naigabe oyezaz gañera,  
an bacegoan, etorquizuná larritcen zuen, ceren ildacoen

auzoac etorri, eta Siquem-goai eguindaco ilquintza eta cal-teac ordaindu citzazquiquetean. Au gogoan ceucala, bere burua nola-ere bait gordetceco, catibu eraman cituzten emacume eta aurrai beren abere eta gauza guciarequin echera itzultceco escubidea emanic, artu zuen, nora et-ciequiela, igues-eguiteco asmoa.

Baña, Jaincoac bere servitzari leyal onezaz contu zuen; aguertu citzayon; eta esan cion; Betel-era zoaz; an vici; zaite; eta anaya Esau-ren ignesi cebiltzala aguertu citzatzun Jaincoari aldare bat eguiozu. Jacob bere echeco guciacquin bidean bereala jarri, eta Betel-era joan zan, non Jaincoac berriz ere itzeguin cion; aitasaba Abraham-i eguindaco esqueñi andiac berriztu ciozcan; eta itz-aldi onen oroipeneraco arri-pilla bat eguin, eta ardo-olioac bota ciozcan.

#### 10. §.—*Raquel-en-iltcea.*

Udaberrian Betel-dic irten, eta Efrata-ronz cijoala, nairgabe andi bat izan zuen. Raquel aurguiteco bete-betea cegoan, ez ordea ustez, bidean gaizqui ibillico zala bildur izateco aimbat egunetan aurreratua. Baña, uts-eguin zuen. Efrata-ra baño lenago aur-miñac artu, eta mundura zuen seme bat. *Benjamin* ceritzana; eta aurguiteco neque-oñaceacquin ama bereala il zan.

Aimbeste nai cion emaztearen iltcearequin Jacob-ec artu zuen pena, ecin bear bezala neurtu diteque. Seme berri

bat icusteac etcion arintcen. Bere negar gucien erdian, Efrata-ronzco bidean, gueró Belen deitu citzayon toquian, progu andiarequin lurpetu zuen; eta cerbait aztutcearren, nai zuen aldequin; baña, Benjamin jayo berria bidean nola-nai erabiltceco etcegoan; eta bi iambide oyec nola-ere-bat zuentceco, Bala bere emaztearequin Benjamin Belen-en utci, eta bera gañeraco seme eta echecoacquin aurreronz ordeca-celai andi batera joan zan.

Jacob emen bici zala, Ruben seme nagusia, Bala bere aitaren emazteaz lilluratu zan edo amorioa artu cion, eta

Belenera joanic, biac nastu ciran. Jacob-i berri onec nalgabe andia eman cion, baña beste era bat artean isillic ceucan. Celai onetan abereac bazcatcen urte bete eguin, eta gueró Benjamin amaordecoaren besoan ibiltceco adiña eguin zanean, Mambreira joan zan, non arquitu zuen bere aita Isaac, ogueita amar urte ayetan icusi etzuena, ez ordea bere ama Rebeca, urte batzuez lenago il zalaco, Isaac bere zarzaroan itsutua, eta eria cegoan, eta Rebeca il citzayon ezqueró inondic ere poz gabe. Jacob eta Esau bi semeac anteiña aldeguin cioten, eta bere lasatce gucia Jacob noizbait itzultcearequin ceucan, Ordu au bete citzayon, Isaac-en vici-lecuan Jacob sartu zan, eta biac laztanduric luzaró egon ciran elcar ecin utciz. Gueró bereala Jacob-ec aurqueztu ciozcan bere seme guciac, ceintzuec Isaa-ec atseguin andian bedeincatu cituen Semeac echetic irten zanelic arterañoco guertacari guciac, esan ciozcan, eta aitac ezagutu zuen, bere ibilli gucietan Jaincoac lagundu ciola.

Isaac chit zarra eta eroria cegoan; ala ere bere seme maitea eta onen humeac icusteac viotza zabaldu cion, eta beste amairu urtean vici izanic, eunda laroguei urtecoa il zan. Orduraco Esau beste semea ere ingurutu citzayon eta anaya biac progu andia eguin, eta Abraham asabac erositaco coban, ama Rebeca eta Abraham eta Sara aitamonan ondoan Isaac lurpetu zuten.

Esau eta Jacob bi anayac adisquideturic, arestian esan dan bezala, aitaren eriotzan elcarrequin ceuden. Ala Esau nola Jacob chit aberatsac. eta abere eta atcienda asco ceucaten, beragatic ezagutcen zuten, ecin bata bestearequin izan citezqueala, eta Esau bereacquin Seirera itzuli, eta Jacob berebat bereacquin Canaan-go lurrean guelditu zan.

## SEIGARREN IRACURGAYA.

### 1. .—*José.*

Jacob en vicitza nequezcoa zala ezagutceco adiña

esan da; baña arterañoco en azcarriac gueroco ceuden. Mesopotamia-n amabi seme eta alaba bat izan cituen, guisa onetan: Lia-gandic Ruben, Simeon, Levi, Dan eta Neotali: Celfa-gandic gad, eta Aser: eta Raquel gandic: José, eta Benjamin gueroago bidean jayoa. Mesopotamia-n izan cituenetan atcenecoa zuen José, ceñari, bere onta-sunagalic, eta zarzaroan bere erreguacquin Jaincoagan-dic iritsia zalaco, chit asco nai cion, eta bere maitetasuna eracusteco, janci nabar polit bat ere eguin cion, Berecit-ce edo auquera-antz au anáyac gaizqui eramán zuten eta gorroto arte cioten José amasei urtecoa zala, bere anáyac gaiztaqueris itsusi bat eguin; eta Jacob bere aitari salatu bearrean arquite zan. Salaqueta onec su gue-yago eman cion, besteac ez bezala, seme gazteena aítac maite izateac sortcen zuen ecin eramánari, eta ayer cit-zayozcan. Andic laster José-c amets batzuec izan, eta bere anayái aguertu ciezten. Beguira cer amets eguin dedan, anayái esan cien. Iduritu citzadan senide gucioc sorroan, gari-bal edo sortac egulten guembiltzala, eta nere balá bestéac baño andiagoo zala, eta zuenac nereari agure guiten ciotela. Anayac erantzun cioten; ¿cer. gure Erre-gue izango ote aiz? ¿Edo ire mendeco izan bear ote gai-tuc? Anayaen ayercuneari errequin gueyago emateco, José-c bigarren ametsa ere esan cien. Beguira cer. idu-ritu zat eguzquiac, illarguiac, eta amaica izarrec agur eguiten cidatela. Amets onen berri aitari ere eman, eta aítac erantzun cion; ¿amets orrec cer esan naidu? ¿Cer bada? ¿Nic neronec, zure amac, eta senidéac lurrean ado-ratu bear zaitugu? Bi amets oyec senideen gorrotoa ga-ñeztu zuten; gueròz begui onez beguiratcen etcioten, eta itz on bat ere ez esan. Ala ere aítac beregan cera-mazquien, cer esan andiac cituztela, gogoan arturic.

## 2. .—*José-ren salera*

Andic ondoren Jacob-en semeac Mambre tic irten, eta Siquen-ingurura joan ciran, arreba Dina-rèn guertaera-galic utcitaco larre gozo ugarietan ardi eta beste abereai



jaten ematera; José echean aitarequin guelditu zan. Cer-  
bait dembora semeen berri gabe aitac igarotacoan, José  
ri agundu cion, anayaetara joan, eta nola ceuden jaquin  
cezala. José bereala prestatu, eta aitari liztan emanic, ir-  
ten zan. ¡Cein guichi uste zuten ez aitac. eta ez semeac  
ogueita gueyago urtean elcar icusi gabe egon bearco ci-  
rala! José Siquen-ondora joan zan: baña elcituen anayac  
topatu. Or-emen billan cebillela, anayaz galdetu cion gui-  
zon bati, ceñac erantzun cion, andic aldeguin zutela; eta  
Dotain-era goacen, esaten aditu ciela. José ere Dotain-  
eronz abiatu zan. Auaya au, besteac urrutitic icusi zute-  
nean. beetaronz cijoaquieia, elcarri esan cioten; , ara  
ametslaria badator, Ost, il, eta putzu-zulo onetan bota  
dezagun; gueró esango degu. pisi gaizto batec jan due-  
la: orduanicusico degu, bere ametsac cer balio izan dio-  
ten. Ruben anaya zarrenac etzuen esan au ondo artu;  
aditu utsarequin izutu zan, eta besteen escuetatic gordet-  
ceco, aleguin gucia eguin zuen. Ez il, esaten cien, eta ez  
bere odolic isuri; ezpada ur gabeco putzu onetan sartu  
ezazute, emen berez ilco da. zuec ceron escuac calsutu  
gabe. Ruben-ec onela itseguiten cien, gueró andic atera,  
eta aitari bialteco asmoan. Itzqueta onetan anayac ciar-  
dutela, José guizañoa(1) alacoric gaitz pensatu gabe joan  
citzayen. Bereala escuac ezarri ciozcaten; eta ez bere hu-  
metasunac, ez bere negarrac, ez aitac artu bear zuen nai  
gabea, ayen biotz gogorrac biguñteco adiña izan ciran  
Bere jancia quendu, eta putzu-zulo agor batera bota zu-  
ten. Andic laster Ismael-tar mandazai batzuet alabearrez  
Egipto-ronz jaisten ciran: eta Judas-ec, anayaren negar  
triste eta garrasiaequin erruquituric, besteai esan cien-  
; Aur au emen iltecarequin cer aurreratcen degu? Beli gu-  
re anaya da; obe deritzat, mandazai oriei saltcea. Esan  
au ontzat artu, eta putzulic ateraric, eunda berroqueita  
amasei errealean mandazayai saldu cieten, eta eroslea  
Egiptora eraman zuten.

(1) Oraindaño *guizaishoa*, *guizassoa*, ipiñi izandu da, baña  
orain ñ tildearequin eraguinda, itz au, eta onen antzeco beste gu-  
ciac emendic aurrera letra-mota berri enequin ezarrico dira.

Anaya arrize o ayec beren lambide macurra estaltceco, anchume bat il, onen odolarequin José-ri quendutaco jancia busti, eta aita Jacob-i bialdu cioten, esanaz; janci ori arqitu degu, zue dacusun guizan: beguira zure seme José-rena ote dan. ¡Nore esan aldi onetaco Jacob-en biotzerdiratcea! ¡Esagutcen det, bai, deadar eguin zuen; nere seme maitearen soñecoa da au! ¡Pizti gaizto batec nere semechoa jan dit! Negarrari eman cion, ecin inore poztu zuen eran. Beste semeac beren gaiztaqueria colcoan ceucatela, loseinchan joan citzayozcan, lasatera, baña erantzuten cien, alperrie ari cirala; beste munduan semearequin batu artean aren negárrac iraungo zu tela.

Ona izatea asco da, munduan gorrotatu, eta gaizqui icusia izateco; mundua mundu dan artean ala guertatuco da. José ona eta zucena zan; eta anayaen gaiztaqueriac ecin eramán cituelaco, saltcerañoco gorrotoa eta ayercunea artu cioten: baña Jaincoac José-ren bitartez gauza andiac eguin-asmo cituen, eta vicirie gorde zuen.

3. §.—*Tamar-ekin Judas-en becatua.*

Jacob-en naigabeac bacirauen, eta lena arindu bearrean berri bat izan zuen. Judas bere bostgarren semeac echele igues-eguin, cergatic inore ere elciequiela, eta Odolango urira joan zan. Emen Sue Canaan-tarraren alaba batequin ezcondu, eta izan cituen iru seme, Her, Onan, eta Sela. Judas-ec, seme zarrena adiñera zanean, Tamar ceritzan Canaan-go nescach batequin ezcondu zuen; baña bere astura lasai gaiztoacgatic Jaincoac il zuen, ondorengoric utci gabe. Bigarren semea ere Tamar alargunarequin ezcondu zuen; baña Onan ere lenagocoa bezain senar gaiztoa zan, ezcontzari cegoquion garbitasuna gorde tceco: eta aurric ez izateagatic, gaiztaqueria zatar itsusietan erori izan zalaco, anayaren guisa ber-berean il zan. Abraham-en jatorricoen artean emacume bat alargundutcen zanean, senar zanaren anayarequin ezcondu ci zan, eta onegandic cituen seméac, lenengoaren icena eramaten zuten. Judas-ec icusirie, bi seméac, adiñaren lorean il

citzayozcala, eta irugarrenari au bera gnertatu cequio-  
quean bildurrez, Tamar-i esan cion, aitaren echera joan,  
eta emen, vici cedilla, Sela irugarren semea cerbait aci  
eta indarretan sartu artean. Tamar-ec aitaguiarrabaren  
esana eguin zuen, eta bere aitaren echera joan zan. Cer-  
bait demboraren buruan Judas bera ere alargundu zan,  
eta emazte zanari progua eguin, eta gueró artu zuen Ta-  
mas-era ardi-moşquetara igotceco asmoa. Tamar-ec asmo  
au lendanaz jaquin cion; eta Sela aci arren, icusirie etcio-  
la senartzat ematen, bide-gurutce batean irten citzayon  
alarguntzaco soñeco en orde, alayac janci, eta mantuare-  
quin estalirie, ezagutu estezan Tamar-en lambidea guciz  
gaiztoa, eta andre galdu batena zan, baña nai guciare-  
quin irten zan. Judas sarean erori zan, norequin etcieque-  
la, eta naste aren saritzat, erraztuna, escumuturretacoa,  
eta bere maquilla Tamar-i eman ciozcan, eta Tamar aita-  
ren echera itzuli zan. Iru illabeteren buruan Judas-i esan  
cioten, Tamar arguiteco cegoala, eta Judas-ec, aserre vi-  
cian sarturie, aguinduzuen, eraman cizayotela, erre cedin.  
Dembora artan onelaco gaiztaquerian erortcen ciran ema-  
cumeai suzco castigu au emateco escubidea Echeetaco bu-  
ruac bazuten, ildacoai eguiten citzayen desleyalqueriagatic.  
Aitaguiarrabarren aguindua Tamar-i esan citzayon; baña  
Tamar etzan malmelitu, alceratceco bidea escuan ceucala-  
co. Urcamendira ceramatela, gauza batzuec aitaguiarraba-  
ri bialtceco baimena escatu zuen; eta ceramazquienari  
esan cion; gauza oyec ematean, nere aitaguiarrabari esayo-  
zu; sabelean daucadana alaja oyen jabeagandic det. Ju-  
das-ec bereala berecotzat ezagutu estuen; contuan janci  
zan; aitortu zuen, Sela senartzat eman rai izan etciolaco,  
gaiztaqueria artara Tamar ecarri zuela, eta il gabe utci  
cion; Bederatci illabeteetan eman cituen bi seme biroqui,  
Farez eta Zara deitu citzayenac, ceñaen odoletic Jesu-  
Criste gure Jauna etorri zan. Jacob-ec zarzaro mingarria  
ceraman, bere echeoac alde gucietatic atsecabea eta atse-  
cabea ematen ciotelaco. José ez beste hume guciac aitar  
negar-bide andiac eman ciozcaten; eta José ona, eta aita-  
ren biotzeco maitea iltzat ceucan. Baña Jacob bere atseca-

be andiacquin erdiratcen utcita, orain José salduari garrizquion.

4. §.—*José Egipto-n.*

Ismael tarrac Egipto-ra eramán, eta Putifar soldaduen Aguintari nagusiari saldu cioten. Bere gorputz eder egoquiagatic batetic, lan guciac ondo eguiteco modu eta eraen onagatic bestetic, eta' gucién gañean Jaincoac artzaz ceucan contuagatic, laster bere nagusiari gogoan sartu citzayon; ceñac morroi onen cintzoa eta eraen onecoa icusiric, eheco gora beera, artu-eman guciaren contua eman cion, eta nagusiac etzuen utsegin. Amar urteren buruan, echea ondasunez betetcen cijoan demboran, José onaren garbitasuna iriscu andian arquiru zan. Ehecoandreari José-ganaco amorio galdua sartu citzayon, eta bere gogoa aguertu, ez ecic, etcion egun bat ere paquean uzten; baña José-e et, cion beñere lecuric ematen. Bein batean José bere eguitecoetara guelara joan zanean, ehecoandrea sartu citzayononez edo gaitzez berea eguiteco asmoan. Beste aldietan bezala beartu zuen; baña José, osotoró izuturic, iguesi irten zan, ehecoandrearen escuetan capa utcita.

Emacume galdu onec, icusiric etzuela nai zuenic eguindeadarrari eman ciou; bere otsacquin eheco morroyac bildu cituen, eta negarrez arqutu zuten, ciola ¡Ay ene sena; rraren zorigaiztocoa! berac catigu bat echean artu zuen-chit leyaltzat dauca; eta ezdaqui macur bat dala. Lotsaga-be onec galdu nai izandu nau, eta ni osca asi naizanean. capa au utci, eta igues-eguin dit. Nagusia echera sanean, emazte gaiztoac negarrez aurqueztu citzayon, esanaz, morroi billau gaiztoac galdu nai izan zuela. Emacume galgarri onec ain ondo esana edertcen jaquin zuen, non, berac eguin nai zuen gaiztaqueria Jose-ri egotciric, guciac sinistu cioten. Gueyago gabe, andrearen esan utsarequin, José ciegan sartu, eta catez ondo lotua, ipiñi zuten, Joséc-bere burua garbitceco, Jaincoa beste lecucó edo testiguric etceucan; baña arteraño gorde zuen Jaincoac, ciegan ere beguiratu cion.

José-c nagusiaren gogoa bezala, ciega-zai edo amabiarrena ere laster beretu zuen, eta catéac quenduric, beste preso gucien contua eman cion. José-c ciegan urte bete ceraman demboran, Erreguearen edontcizaya, eta oquin-nagusia utseguiteen batzuegatic berebat sartu cituzten; eta oyec ere, besteac bezala, José-ren contura jarriciran. Gau batean biac eguin zuten pensaquizun andiac eman ciezten amets bana. Ara cer, Edontcizai eio Coperuari iruditu citzayon, icusten zuela mas-mordo bat lembicí iru lorarequin; gueró iru bicorrequin; eta atcenean, iru bicor oyec eldutacoan lertu, eta zumua Erreguearen edanontcira botata zuela, Erregueari edaten esqueñtceco. Oquin-nagusiari berriz iruditu citzayon, bere buru-gañean iru sasqu irin cecarzquiela, eta oyetatic goenenecoan, orrez eguin-al citezquean janari guciac ceramazquiela, eta chortiac etorri, eta jaten ciotela. Biaramonean Jose-ri esan cioten. cer amets eguin zuten. José-c edontcizayari esan cion; zu iru egunen barruan lengo zure eguitecóra itzulico cera. Zure ametsac au esan nai du. Gauza bat escatcen dizut: lengo oñean jartcen ceranean, José-z aztu gabe, erruquitu zaitecela, ni ciega onetatic Faraon-i aleraerazotceco; bada, Egipto-ra saltcez ecarria naiz, eta emen bide gabe naucate. Oquin-nagusiari esan cion; iru egunen buruan Erregueac lepomoztuco zaitu; gurutcean cincilica ipiñico zaituzte, eta zure araguaia egaztiac jango date. Zure ametsac au esan nai du. Eguiaz, José-c esan bezala, gucia guertatu zan. Oquiña urcatu, eta edontcizaya lengo eguitecoetara joan zan; baña edontcizaya Erreguearen adisquidetasunera biurtu bazan ere, José-z etzan oroitu, eta au bere catibuan guelditu zan.

Andic bi urtera Faraon-ec berac izan zuen amets bat iñorc ecin asmatu zuena, eta buruauste andiac ematen ciozcana. Ara ametsa. Lotan icusi cituen zazpi bei guicenguicen Niloco ibaitic irteten, eta ur-ertzean jarri, eta jaten: bereala beste zazpi bei me-argal, ezur-utş eguiñaac ibai beretic irten, eta lembicico zazpi guicénac iretsi edo tragatcen. Izu-icaran esnatu, eta berriz ere loac-artu zuen: eta lo onetan icusi citueu zazpi galburu eder mardul, lasto

batetic cetocenac; eta gueró beste zazpi cimur, lembicico-  
 en edertazun gucia itsusitcen zutenac. Orobat icaratua es-  
 natu zan. Biramon<sup>an</sup>-goiz Erreinuco jaquintsuac berega-  
 na eracarri cituen: baña iñor etzan, amets ayec certara  
 eman ciequienic. Orduan edontcizaya Jose-z oroitu zan,  
 eta Erregueari esan cion: Niesquer gaiztoco bat naiz. Gue-  
 ró esan ciozcan, bera eta oquin-agusia ciegan ceudela,  
 izan cituzten ametsac: eta cer esan nai zuten, Jose-ec as-  
 matu ciela. Andic irteten zanean aren alde al-eguiña egui-  
 teco itza eman ciola; baña etciola bear zuenic eguin, eta  
 bein bera cateetatic irten ezqueró, an guelditu zanaren  
 conturic etzuela izan.

5. §.—*José-ren igotcea.*

Faraon-ec au aditu zuenean, bereala eracarri, eta bi  
 ametsac esan ciozcan José-ri, ceñacerantzun cion. Bi amets  
 oricc, Janna, gauza bat bera esan nai dute. Zazpi bei gui-  
 cenac, eta zazpi galguburu beteac abuztu oneco zazpi  
 urte, eta zazpi bei argal, eta zazpi galburu cimurrac abuz-  
 tu gabeco beste zazpi urte adierazten dituzte. Orain,  
 bada, Erregueac guizon jaquiatsu, eta acertaco bat autu  
 beza, Egipto co bazter gucietan bere ordecoac eta eraen-  
 tzalleac edo gobernatzalleac ipiñi, eta oyen bitartez, dato-  
 cen zazpi urteetan izaten diran laboreetatic bostgarrenac  
 erosi, eta ondorengo zazpi ez-urteataraco gambaraetan  
 gorde ditzan. Onela Erreinuac, goseac ondatu gabe, ira-  
 ungo du. Jose-ren esana Faraon-i ondo erori citzayon; eta  
 lambide artaraco José bera baño obeago eta adituagoric  
 ecin arquite citequeala pensaturic, aguindu cion, Erreinu  
 guciaren Buru eta Eraentzalle jarri cedilla; eta gende gu-  
 cia aren esanera egongo zala. Bere escualdi guciac eman  
 ciozcan: escuco erraztuna beatzean ipiñi cion; eta artcen  
 zuen aguintea adierazten zuten beste gauza asco ere eman  
 ciozcan: bere bigarren edo urreneco cochean sartu zuen;  
 eta atcenean aguindu zuen, José-ren arretic pregonari  
 bat ibiltceco, José-ren etorrera adierazten; eta ots au adi-  
 tcen zuten lecuan, guciac belaunicatu cequizquiola, eta

Egipto gueico Buru. Nagusi edo Gobernatzalletzat ezagutu cezatela.

José-c, anditasun eta escualdi onelara igo zanean, ogueita amar urte cituen. Lanari bereala equin cion. Erreiuco bazter gueietara joan zan; bere ordeco eraentzalleac or-emen ipiñi, eta gambara edo aleteguiac eguin cituen. Zazpi urte abuztu ugaria eman bear zutenac asi ciranean, José ere laboreac gambaraetan sartcen asi zan. Zazpi urte on oyec bucatutacoan, berebat zazpi ez-urteac ere asi ciran, Gendea cer janic etzuela arqutu zanean, Faraon-iesque jarri citzayozcan, eta Faraon-ec erantzun cien; José-gaua zoazte, eta herac esaten dizutena, eguizute. Gendea José-ri joan citzayon; gambárac zabaldu cituen; eta bear zuten gucia chit merque ematen cien.

6. §.—*José-ren anayaen joanera Egito-ra.*

Gosete izugarri au Egito-n, ez ecie, auzoetan ere sortu zan; beragatic Egito-coai bezala, atcerrietacoai ere Jose-c escua luzatcen cien, eta cijoazquion guciac, escalcen zutena, bere gambaraetan arqutcen zuten. Canaan-go alderdian ere gaitz au sortu zan; eta Jacob emen vici zana, norabait esque joan bearrean arqutu zan. Barreatu zan, cer jana Egito-n saltcen zala; eta Jacob-ec Benjamin gaztea echean utci, eta beste amar seméac gari-esque Egibto-raldu cituen. Jacob-en amar seme oyec beren anaya José-ri aurqueztu citzayozcan, eta bere aurrean belaunicatu ciran, ara cijoazquionac eguin oi zuten bezala, ceñaren bidez anciñaco ametsean José-ri iruditua eguin zuten. Nor ciran, José-c bereala ezagutu cituen; baña Benjamin anayachoa an ez icusteac atsecabe andia eman cion, berari-eguiña berra Benjamin-i ere eguin cioten bildurrac artu zuelaco. Gogorquiró itzeguiñaz, galdetu cien; ?ea nongoac ciran, edo nondic cetocen ? ; Ea Egibto-ra certara joan ciran ? Onelaco galde zorrótzac José-ren aotic aditu cituztenean, beren anaya zutela oartu edo contuan jauci gabe, beren buruac garbitu nai izan cituzten, erantzunaz, etzutela Egibto-ramo gaiztoric eramán; ezpada bacar-bacarric beren diru-

arequin gari-esque cijoacela. Esan cioten, nola aita eta anaya gaztecho bat echean utci cituzten; nola beste bat ere izanzuten, baña etzala agueri. Au gucia eguiaz esaten bazuten ere, José quezquetan cegoan, eta carcelan sarerazo cituen. Irugarrea egunean carcelatic atera cituen, eta esan cien, beretatic bat baituria edo prendatzat utci, eta besteac echera joan, eta anaya gaztea ecarri cizayotela. Orduan oartcen ciran, anaya José-requin cer eguin zuten, eta elcarrri ciotsaten; neque oyec guciac bidez daramazquigu, anayaren negarrac aditu nai ez guñituelaco. Ruben anaya zarrenac besteai esan cien; ?ez nizuten nic esan, anayari ez gaitzic eguiteco; Aren odola emen dabilquigu. Itzqueta au, etzuten uste José-caditcen zuenic, ceren Igipto garbi-garbi. ayen itzcuntza etciequienatzat ceucaten. Baña gucia aditcen cien, eta cupitoric, eta ecin beregan gorderic, bazter batera joan, eta negar-aldi lucea eguin zuen. Gueró itzuli zitzayen, eta esan cien, echera joan citecela, Benjamin ce-carten artean Simeon an gueldituta. José-c aldeguin zuen, eta bere morroyai aguindu cien, bederatci anayai zacuac gariz betetceco, eta zacuetan nori bere dirua isillic ipiñtceco. Morróyac onela eguin zuten, eta anayac tristura andian Canaan-era itzuli ciran.

Aitac bere ondoan icusi cituenean, bereala jaquin nai izan zuen, bide luce artan nola ibilli ciran. Seméac erantzun cioten, ango Nagusiac chit zorrotz artu cituela; zure eta senide gucién galdeac eguin, eta contuac escatu dizquigu, esan cioten aitari; eta gure esanac ez sinistu naye, Simeon presondeguian bere mendean guelditudu du, ezanaz, ez diotela irteten utcicò, eta guc ere ez degula aren aurrean berriz cer jarriric, alie eta Benjamin ari eramán arte-raño. Au esan, eta asi ciran zacuac uztutcen, eta norc bere dirua zacuan arquite zutenean, izu-icara gorriac artu cituen. Jacob-en biotza ere seméac emandaco berriac erdiratu znten; eta, seme gabe utci nazute, deadar eguin zuen: José il zan; Simeon catibu dago; eta zorain berriz Benjamin eramán nai didazute? Semeac etcioten bere lasatualdia artu artean, itzie erantzun nai izan: Jaboc cerbait be-  
ra zanean, Ruben-ec esan cion; Benjamin iguzu, eta nic



itzulico dizut. Ez orrelacoric, aítac erantzun cion, ez da, ez, nere semea zuecquin joango; ceren ezbearren bat oni etorri ezqueró, onen miñez illá nintzaque. Urtebetean semeac leyatu citzayozcan, baña beti alperric; etzuen alabañan, bere Benjamin mailea beguietatic quendu nai, Gueroanean, Egipto-tic eramandaco garia aitu, eta cer janic gabe arquitu ciranean, Jacob-ec semeai esan cien; Egiptora zoazte, eta jana ecarzute. Ori ecin daiteque, Judas-ec erantzun cion. Guizon arc esan cigun, baldin anaya au ezpaguenduen eramaten, il bearrac guiñala. Iguzu, eta bereala joango guera; Benjamin nere contura guelditcen da: nere viciac arenagatic erantzungo du, Jacob-ec, orduan, beste bideric etcegoala icusiric, bere seme mailea eramateco baimena eman cien. Aguindu cien, arquitu al-citezquean escueracutsiric obenac artu citzatela, guizon ari emateco; zacuetan eramandaco dirua ere, itzuli cizayotela, berriz erosteco bear zanarequin batean, Aítá ansiatuac, bada, azquen-agurra eguin cien, osotoró Jaunaren escuelan jarriric.

7. §.—*Bigarren joanera.*

Seméac Egipto-ronz abiatu ciran; eta José-c icusteco toquirá eldu ciranean, bereala Benjamin-i beguiac ezarri ciozcan, eta bidante oyec itzeguin cizayoten baño lenago, echeco contuartzalle edo mayordomoari aguindu cion, bazcari on bat ipiñi cezala, elcarrequin guciac jateco. Mayordomoac onguietorri andiarequin echean sartu cituen: baña amar anayac eche artan arquitu ciranean, icaratu ciran eta elcarri ciotsaten; zacuetan eraman guenduen diruagatic au eguiten zagu: lapurtzat erabillico gaituzte: galduac guera, Esturasun onetan mayordomoari escaratzean aibora joan, eta asi citzayozcan beren biruac garbitcen, esanaz, diru ayen berriric etzutela, zacuac ustutcean icusi cituzten arteraño; ayec eta orain erosteco bear zutena berequin zutela; beren usteetan gaitz edo culparic etzutela. Mayordomoac erantzun cien; paquea zuecquin, ez icaratu: zuen Jaincoac diru ayec zacuetan ipiñi cizquizuten. Gueró

ecarri cien catibu utci zuten anaya Simeon, ceñari lazlan gozoac eman, eta ayen biótzac lasatu ciran. Mayordomoac guela eder batera eraman cituen, eta esan cien, ichedon cezateia, alic eta Nagusia eguerdian cetorren arteraño.

Ordua iritsizanean, José sartu citzayen, eta senide guciac belaunicaturic, agur eguin, eta echetic ceramazquiten escueracutsiac esqueñi ciozcaten, José-c diosal chit lanotsua eguin, eta guero galdetu cien; ¿zuen aita zarra oraindic vici dezute? ¿ondo guelditu da? Bai, Jauna, erantzun cioten; zure servitzari gure aita onic guelditu da. Au esan, eta berriz ere belaunicaturic agur eguin cioten. Orduan Jose-c Bengamin-i beguiac ezarri, eta esan zuen; Jaincoac urruqui zaitzala, ene seme. Au esan, eta biotza autsi eta malcoac beguietara aguertu citzayozcalaco, alde eguin zuen. Bere guelan sartu, eta negarrari eman cion, eta negarrez urtulcen luzaró egon zan. Lasatualdia artu zuenean, irten zan, eta aguindu zuen, maya ipintceco. Senide guciac zarrenetic zarrenera esererazo cituen, eta bere escuz jana ematen cien chit ugari, baña Benjamin-i beti bestei baño bost aldiz gueyago. Senide guciac, cecustenarequin arrituric, jan-edan zuten, eta José-requin poz andian ceuden, nor zan ezagutu gabe. Bazcalondoan José jaiqui eta mayordomoari aguindu cion, ayen zacuac gariz bete citzala, eta lengo aldian bezala, nori bere dirua isillie zacura itzuli cizayola; eta Benjamin-enean José-ren edanontci cillarrezcoa sartu cezala. Aguindua mayordomoac eguin zuen.

Biamamonean senide guciac elcarrequin aita icusteco pozean bideari eman citzayozcan; baña etciequiten, ceren beguira ceuden. José-c oraindic obeto icusi nai zuen, arequin len eguin zuten lambide gaiztoaren damu eguiazcoa ote ceucaten, edo ez. Uritic irten ciranean, mayordomoari José-c aguindu cion, guizon ayei cerraiquiela, eta esan cizayola, ¿certaco ona gaitzarequin ordaintcen dezute? Daramazuten edanontcia nere nagusiarena da. Mayordomoac bidean iritsi cituen, eta zorrotz itzeguin cien; baña senide guciac beren buruac garbitu naye, cioten, etzutela bear etzan inoren gauzaric, eta menaz cebiltzala sinisterazotce-

có, esan cioten; ontci ori duenic gure artean bada, il bedi, eta besteoc catibu gueldituco guera. Ez, ezdet orrembeste nai, mayordomoac erantzun cien; asco da, hura daucana nerequin guelditcea; besteac beren bidean badijoazque. Bereala zacuac lurrera jautsi, eta norc berea zabalduric, mayordomoac aztertu eta icusi cituen, zarrenarenetic asi, eta gazteenarenañoco guciac, eta Benjamin gazteenarenan edanontcia arquite zuen.

Senide guciac lambide hura icusi zutenean soñecoac urratu, eta abereetan zacuac arturic, José-gana itzuli ciran, eta auzpez barcacio-esque jarri citzayozcan. José-ec becoqui illunarequin artu cituen, esanaz; ¿cergatic ori eguin dezute? ¿ez daquizute, gauza isillac asmatcen niri eramaten didanic iñor ez dala? José-ren aurrean guciac auzpezturic, isillic ceuden; eta Judas-ec gucien icenean, eta besteen artean nabarmenduric, esan zuen; ¿cer gure Jaunari erantzun dizayoquegu? Guc oben-culparic ezdegu; baña gauza bat dago, alacotzat eguiten gaituena. Len guc gaizqui eguin guiñion Jaincoac guisa onetan castigatcen gaitu. Ara zure mendean non gauzcazun, bai gu, eta bai edanontcia ceucana. Ez ori, José-c erantzun cion; Edan ontcia ceramana emen guelditu bedi; besteoc ceron aitari zoazquiete.

José-ren esanac Judas ecin gueyagoraño estutu zuen, eta erantzun cion; Jauna, itz bat esan nai dizut, eta ez aserretu. Lendabician etorri guiñanean, galdetu ciguzun ¿Aitaric edo anayaric badezute? Erantzun guiñizun, aita zarra, eta anaya chiqui zarzaroan jayo citzayona eta chit maite zuena guenduzcala; eta esan ciguzun; onara ecardazute; icusi nai del. Erantzun guiñizun, gure aita, semecho hura bere ondotic quendu ezqueró, illa guelditcen zala. Zuc esan ciguzun; ezbadezute ecartcen, ez nere aurrean gueyago jarri. Echera joan guiñan; zuc cer escatcen ceuden, aitari esan giñion, eta berri onequin naigabeturic, luzaró etcigun eman nai izan. Atcenean cer jana aitu, eta goseac larritu guinduenean, aillac esan cigun; Egipto-ra zoazte, eta gari pisca bat erosi ezazute. Guc erantzun guiñion, ecin onará anaya gazteena gabe etorri quintezquea-

la Aita chit ansiatuac erantzun cigun; zuec daquizute, nere Raquel maiteac etcirala seme bi baicic eman; bat nere re ondotic joan zan, eta esan cenduten pistibatec jan zuela, eta egundaño etzat aguerlu. Baldin orain au eramango bacendute, eta bidean ez-bearren bat izan, tristuran lurpetuco nazute. Orain, bada, Jauna, baldin gu aitagana joan, eta seme au gurequin ezbalijoa, miñaren miñez ilco lltzaque, eta gu zure serviltzarioc aren ezurrac penaz lurpera eramango guiñituque. Ni nerau onen orde zure mendeco izango ñaiz, itza emanic nagoan bezala; ni nerau emen gueldituco naiz, eta Benjamin bere anayacquin dijoala, Ni bera gabe nere aita guizañoagana ez noa, nere guraso ona iltcen ez icusteagatic.

Ontaraño José-c, nequez bederic, bere Jauntasuna, eta inguruan ceuzcanai beguiratuaz, negar gabe iraun zuen; baña ecin gueyagora zanean, an ceuden guciac irtenerazo cituen, eta guizon arrotz ciralaco ayecquin bera baccarric guelditu zan. Orduan negar-artean ots andi batequin itz labor oyec doidoi esan cituen: ¡José ni naiz! ¿Nere aita oraindic vici da? Eta mututu zan. Anáyac ere izuturic, etzuten ecer esateco quemenic izan. Igito-ac José-ren lantu eta negar-otsa aditu zutenean bereala iguerri cioten, cergatic izango zan; baita laster Faraon-i adierazo ere. José-c, berera edo contura zanean, esan cien; ni naiz zuen auayá, zuec saldu ninduzutena. Ez icaratu; zuen oneraco zuen aurretic Jaincoac Egipto-ra bialdu ninduen, eta Faraon-en aita-ordeco eta Egipto gucico Nagusi eguin nau. Zoazquote, eta nere aitari ezayozute; zure seme José vici da; eta aracer gazligatcen dizun. Jaincoac Egipto gusico Nagusi eguin nau. Bere bereala onara atoz. Gesengo alderdian vicico cerra, eta nere ondoan egongo cerate zu cerorí, zure seme, eta oyen humeac, abere, acienda eta dezuten guciarequin. Cer jana nic emango dizut, eta zure echea eta zure echecoric ez da galduco; bada, beste bost urtean gosete gogorrac iraun bear du. Ezayozute, bada nere Jauntasuna eta Egipto-n icusi dezuten gucia. Zoazte bereala, eta ecardazute. Itz oyec esan, eta Benjamin-i beso biacquin eldu cion, eta biac besarcaturic luzaró egon ciran laztanca, eta malcoac

ugari cerieztela. Beste senidéac ere laztandu cituen, eta guciai negar eguin cien. Orduraco José-ren anayaen etorberria eche gucian barreatu zan, eta Faraon eta bere eche-coac ere chit poztu ciran. Faraon-ec bereala José-ri atotsi, eta esan cion; abereac gariz beteta, anáyac echera bialdu citzala eta aita bere aide guciacquin eracarri cezala, eta bear zuten cer jan gucia berác emango ciela. Berebat aguindu cion, Canaan-dic Egipto-ra gauza guciac aldatceco bear ciran gurdiac ere eman cizayeztela.

Erregueac aguindu gucia José-c eguin zuen. Beste anayai biña, eta Benjamin-i bost soñeco, eta diru eta escueracutsi andiac aitarentzat emanic, Canaan-era bialdu cituen, Aitaren echera eldu ciran, eta guraso penatu onec Benjamin maitea icustearquin eta José ustez illa, Egipto-n Jauntasun andian vici zalaco berriarequin artuco zuen poza eta atseguña ¿ norc esan? Seméac etciran isillie luzaró egón; icusi orduco elcarren leyeen esan cioten: Zure seme José vici da, eta Egipto gucian aguintcen duela, dago. Jacob albista onequin sortua, eta esaten ciotena, ecin sinisturic jarri zan. Seméac obeto sinisterazotceco, Egipto-n guertatu gucia, semearen aguintea, eta anditasuna cearó esan ciozcaten; baña gauza oyec sinisteco aita uzcur ce-goan. Atcenean, seméac bialtzen ciozcan gurdi, diru, escueracutsi edo erregaloac eracutsi ciozcatenean, poz eta atseguñezco ots andi bat eguin zuen, ciola; asco det, ene Jaincoa, baldin nere seme José oraindic vici bazat. Joan-go natzayo, eta il baño lenago icusico det.

8. §.—*Jacob-en jaisquera Egipto-ra.*

Bideraco prestamenac bereala eguiñic, Jacob bere seme, illoba, mirabe, abere eta gauza guciacquin Egiptoronz abiatu zan. Canaan-go atceneco mugara zanean, etzuen lur promestu hura Jaincoaren berri gabe utci nai izan. Ofrendac eguin ciozcan, eta erregutu cion, cer eguin bear zuen, arren, eracusteco. Jaincoac Jacob-i gaüas itzeguin, eta esan cion; ez icaratu; Egipto-ra zoaz; eta erri andi baten buru an eguingo zaitut. Zure beguiac José-c ichi-

co dizquizu; zure ondorea bere demboran andic alera, eta promestuta daucadan lur autu onetara ecarrico det.

Baimen onequin Jacob Egipto-ra jachi zan, irurogueita sei lagun berequin cituela. José-ri aurretic Judas bialdu cion, bacetorquiola esatera. José-c berri au artu zuenean bereala cohean sartu, eta aitari bidera Gesen-en irten citzayon. Aldi onetan aita-semeen artean cer icusi zan, esateco, bat beguira egon biar litzaque; eta ala ere, oguei urteren buruan iltzat ceucan semea aitac, eta aimbeste neque eta gora beeraen ondoren aita semeac icustearequin artuco zuten poza eta atseguña, ez luque bear beza-la eta bear adiña aguertuco. José cochetic irten, eta aitari colcoan sartu citzayon; asco laztan eta musu eman ciozcan, ceriozcan malcoquin arpeguia bustitcen ciola. Jacob-ec ere bere seme ain ona eta maitagarria besarcatu zuen, eta escuetatic utci gabe, esaten cion; ene seme, orain, bai, atseguñez ilco naiz, zu icusteco poza bein izan dedan ez-queró. José-c beste aide guciai bereala itzeguin cien, eta egon-aldi gozo au eguin zutenean, Erregue-echera itzuli zan. Faraon-i esan cion, aita bere seme eta echeco guciacquin etorri citzayola, eta Gesen-en guelditu zala, Faraon-ec cer aguintcen cien beguira. Faraon-ec albista onequin chit atseguin andia artu zuen; eta José-gandic etorri citzayozcan mesede eta onac gogoan ceuzcala adierazteco, esan cion; Egip-to gucia cerequin daucazu; bazterric obena autu ezazu; eta Gesen-go alderdian vicitcea gogo badute, eman zayezu. Gueró laster José c aita zarra, eta bost anaya beste gucien icenean, Faraon-i aurqueztu ciozcan; eta bere oyecquin itzuli zan Gesen-era, non, abere eta aciendaentzat chit toqui ona eta eracoa zala icusirie, beren vici-lecuac eguin, eta vici izan ciran. José bere eguitecoetara biurtu zan, eta gueróz bere icusiac chit maiz ematen cieztan: eta goseleac iraun zuen ondorengo bost urteetan, eceren ere ez-izanic etzuten izan, bear zan gucia José c eratcen cielaco.

9. §.—*Jacob-en ilteea.*

Jacob-ec, Gesen-en jarri zanean, eunda ogueita amar ur-

te cituen, eta beste amazazpi urtean vici izan zan. Bitarte onetan bere semeetatic ondorengo asco sortu citzayozcan. Gueroenean, bere vici gucico neque gogorrac alde batetic easanda, eta bestetic zartuta, bere laster ill-bearra ezagutu zuen, eta ezurrai bere gurasoen ondoan lurra eman naye, José-ri deituric, esan cion; ez ni Egipto-n lurpertz, ezpada gurasoac dautzan lecura eramango nazu. Onela eguiteco itza José-c eman cion; baña ain laster aita ilco citzayonic uste etzuelaco, Erregue-echeco bere eguitecoetara itzuli zan. Egun guichiren epean aita chit gaizqui cegoalaco berria izan zuen, eta Manases eta Efrain bere bi seméac berequin arturic, aitari joan citzayon. José icusi zuenean, Jacob cerbait bizcortu zan, eta oyea eserita, Jaincoagandic icasi izan cituen gueroco berri onasco José-ri eman ciozcan. Manases eta Efrain bere semetzat artu cituen, eta beste semeacquin seni-partean berdin sartceco escubidea eman cien, eta bedeincatu cituen. Atcenean José-ri esan cion: dacusu, ene seme, nereac eguin duela, iltcera noala. Jauna zurequin izango da, eta zure gurasoen lurrera eramango zaituzte.

Josè-requin au eguin, eta beste seme guciac ere bere ondora eraman cituen, eta nori bere etorquizuna edo patua, illumpean bederic, adierazo cion, eta aitaren esánac seméac chit contuz artu cituzten, gueró norc bere echean gogoan iduquitceco, Atcenean Jacob-ec, len José-ri bacarric bezala, guciai batean aguindu cien, ildacoan aren gorputz-illa Canaan-era eramar, eta gurasoen ondoan obiatu cezatela. Itzaldi au eguinda, oyea zucendu zan, et lo-irudian jarriric, iltcen cegoanen antzic gabe, Jaunari contu eman cion. Aita illa José-c icusi zuenean, arpeguiz-arpegui jarri citzayon, laztandu zuen, negar-malcoz buztitcen zuela, eta beguiac ichi ciozcan, Jaincoac lenagotic esanic ceucan bezala. José-c negar-aldia eguin ondoan, gorputz-illa balsamatuerazo zuen; gueró noizbait Canaan-era eramateco.

Jacob-en il-berria Egipto guciau barreatu zan, eta bere seme eta echecoacquin batean irurogueita amar egunez Igiptoac Erregue berai bezain progu andia eta miña eguin

cióten. Oyen ondoren Faraon-en haimenarequin José-c, bere anaya eta Erreinuco andizquiac ceraizquiola, aita zaren gorputz-illa Canaan-era eraman, eta bere ait-ama Isaac eta Rebeca, eta asaba Abraham eta Sara-ren ondoan obiatu zuen, eta eraman cituen senide eta beste lagunacquin Egipto-ra itzuli zan.

#### 10. §, José-ren iltcea.

Aita il citzayonean José berroqueita amasei urtecoa zan, eta gueró ere beste berroqueita amálauean lenagoco anditasun berean bici izan zan, Erregueác eta beeragocoac chitasco nai ciotela, eta bere anaya eta oyen ondorengoaz contu eta ardura andia zuela. Baña zartu zan, eta bere laster il-bearra ezagutu zuenean, anayai esan cien; ni iltcen naitzanean, Jaincoac icusico zaituzte, eta Abraham, Isaac, eta Jacob-i promestutaco lurrera emendic igoerazoco dizute. Orduan nere ezurrac emen utci gabe, cerocquin eraman itzatzute. Au eguiteco itza senide guciac eman cióten; eta andic laster eunda amar urtecoa il zan. Gorputz-illa balsamatu, eta ontci batean sarturic, Israel-tarrac Egipto-n egon ciran bitartean beguirune andiarequin gorde zuten; eta irten ciranean, ibilli gucietan berequin erabilli, eta atcenean Canaan-en lurpetu zuten.

José-ren izaera asieratic atceneaño, guciz da miraritsua, eta cer esan andiac dauzcana. Aurtasunetic aguerta zuen ontasunac aitaren biotza beretu cion; eta senideen gaiztaquiac ecineramanac aitari salatu-erazo ciozcan: baña on-bearrez eguindaco lan onequin anayaen gorrotoa irabaci zuen, eta salteera ipiñi cituen. Ordea ¿Jaincoaren contra guizonen asmóac cer dira? Guizónac galdu nai izan zuten, baña Jaincoac zaintcen zuen. Neque bateticondo irten orduco, emacume galdu baten gogo gaiztoari gogor eguin bearrean arqutu zan. Aitaren echean bezain Jaincoaren bildurrecoa Putifar-enean zan; argatic echeoandre guizacoi lořagabeari etcion lecuric eman; eta mereci zuen sariaren orde, ciega illuna eta cate lodiac artu cituen. Oyetatic ere Jainco Contuartzalle onac atera, eta Jaunta-



sunic andienezan ipiñi zuen; eta il arteraño izaera onetan iraun zuen. Aitortu bedi, bada, etzayola on-eguiñ Jaincoari aztutcen; eta beste munduan, ez ecen, emen ere saristatcen, badaquiela.

## ZAZPIGARREN IRACURGAYA.

### 1. §.—*Egipto-co catibutasuna.*

José Egipto-ra joan zanean cegoan Erreguea, eta onen ondorengoaren demboran, Jacob-en seméac paque eta doatsuera andian vici izan ciran: baña José il zanetic laster, sartu zan beste Faraon bat, José iritsi edo esagutu e-  
tzuena, eta bere aurrecoac artutaco mesedéac aintzat etceuz-  
cana, ceñac asi zuen Jacob edo Israel-en humeac laroguei-  
ta amar urtean igaro bear zuten catibutasun negargarría.  
Urte guchiren buruan Israeltarrac asco ugaritu ciran: eta  
berri onequin, cerbait eguingo cioten bildurrac Faraon-i  
eman cion; eta bildur oni bidéac isteco, Israel-tarrac ez-  
arian beeratceco asmóac artu cituen. Isrrael-tarrac ugari-  
tu dira, cion, eta azpiratu ditzagan, guerra bat sortcen ba-  
da, gure etsayetara joan ez ditecen. Isrrael-tarrac edocein  
lanetan chit trebéac ciran, beragatic nai cituen bertan idu-  
qui, baña burarie goratu gabe. Lembici, guizon gogor ba-  
tzuen contura, bi erri eguiten ipiñi cituen. Adrillu eta bes-  
te lur-lanac eraguiten ciezteen, ¿nola ordea? nequeric go-  
gorrenarequin, guciac auldu, macaldu, arpeguiac oritu, eta  
ezur-uts eguiteraño. Ala ere Israel-tarrac ugaritcen cijoac-  
cen. Au icusirie, Faraon-ec guizonari gogoac eman al-di-  
zayoquean asmorie gaiztoena artu zuen. Israel-tar emacu-  
meai arguitemo orduan laguntcen ciezten emaguiñai  
aguindu cien, sabeletic irten, eta bereala aur-seme guciac  
il citzatela, alabac baicic viciarequin iñor utci gabe. Aguinte  
gogor au etzuten emaguiñac eguin nai izan, Jaincoari bil-  
dur citzayozcalaco. Beren buruac lambide artatic garbitce-  
co, erantzun cioten, ecen, Israel-co emacuméac etcirala,  
Igitoen antzeco iñoren bear ciranac, ezpada ayec joan or-  
duco, aurrac jayota ceudela. Aurcho ayenganaco urruqui-

mentu au Jaincoac ontzat artu cien, eta beren ondasúnac ugaritu ere bai. Baña uco onec Faraon aserre vician sartu zuen: eta Erriari aguindu cion, Isrrael-tarren aur guciac Nilo-co ibayera botatceco.

2. §.—*Moises-en jayotza.*

Jacob-en seme Levi-ren illoba Amram ceritzana, Jacobed-equin ezcondu zan, eta bederatci urteco alaba Maria eta bico seme Aaron ceuzcan, Faraon-en Israel-tarrac galdu-naya viciena zan egunetan, beste seme bat ere izan zuen, eta iru illabeteen echean gordeta ceucan. Gueyago ecin zuenean, zumezco sasquicho batean sartu, eta ibai-ertzean cañabera arteán utci zuen, aurra noratcen zuten, edo cer patu zuen icusteco, Maria-c contu artcen ciola. ¡Ala bearra! Faraon-en alaba jachi zan, ibayean mainatcera; eta sasquichoa icusi zuenean nescameari eracarrion, eta aurraren negàrrac cupitu zuten, eta beguira jarrita, esan zuen; Au Hebreo-tarren aurren bat da. Orduan arreba, aceloan cegoana, joan citzayon, eta esan cion; ?nai dezu, nic billatu dizazudan iñude bat, aur orri bular-eman, eta acico dizuna? Princesa biotz biguñecoac, bayez, esan cion; eta Maria bereala bere amagana joan, eta cer guertatcen zan, adierazo cion. Ama aurqueztu citzayon Faraon-en alabari, ceñac esan cion: aur ori artu eta aci ezazu: acitce-saria nic neronec emango dizut. Amac bere-bere semea artu zuen, beneric bazan bezala; eta aci zanean, Faraon-en alabari eman cion; onec bere semetzat artu eta deitu cion *Moises*, uretic aterea izan zalaco; bada, Egipto-co itzcuntzan *Moises-ec ura* esan nai du. Gueróz, berrogei urteco adiñera edo edadera artean, Faraon-en echean vici izan zan, alic eta Israel-tarrac catibutasunetic, ateratceco lanean asi zan arteraño.

3. §.—*Moises-ec Faraon-en ehetic igues-eguiten du.*

Ordu au iritsi zala, iguerri cionean, bere asmóac artu cion. Lan andi onetaraco autua zala, ezagutceco arguia

Jaincoac eman cion; eta Erreguearen echean ondo eta nayera guciacquin bacegoan ere, bere senide Israel-tarretara joan, eta oyei laguntceagatic, guciac utci cituen. Onetara-co aitortu zuen, Faraon-en alabaren semea etzala, ezpada Jacob-en odolecoa; eta Gesen-era joan zan, bere anayacquin nequetan vicitcera. Oyecquin cegoan bein batean Igipito bat icusi zuen, Israel-tarra jotcen eta bere lagunari laguntcera joan, Igitoa il, eta arepean sartu zuen. Moises-ec baciequien, gauza au eguiteco escubidea Jaincoac emanic ceucala, eta uste zuen, bere anayac oyen libratzalletzat eguimbide onetatic ezagutuco zutela; baña etzuten ala artu. Biaramonean bi israel-tar elcarrequin despitan icusi cituen, eta onez-onean esan cien; anayac cerate, ¿cergatic ori elcarri eguiten diozute? Oyetatic batec esana ontzat artu bearrean, erantzun cion, ¿gurequin cer eguiteco dec? ¿ni ere atzoco Igitoa bezala il nai nauc? Esan onec Moises izutu zuen, eta cion; ¿nola nic atzo eguin dedana zabaldu da?

Moises-ec ezaguturic vicia galtceco bidean cegoala, Egipto-tic irten, eta Madian-go alderdira iguesi joan zan. Emen iturribaten ondoan cegoala, Jetro ceritzan ango apai-zaren zazpi alaba ará joan ciran ardaí edanerazotcera. Ondoren cetocen artzai batzuec nescáchac gogorrean andic quendu nai izan cituzten, berenai aurrena edaten emateco; baña Moises nescachen alde irten, eta lagundu cien. Nescáchac echera ciranean aitari esan cioten, cer guertatu citzayen: eta alabai mesede eguin cien Igitoa aitac ezagutu nayerz, beregana eraman zuen, eta Jetro onen alaba Sefora-requin Moises ezcondu zan, eta izan cituen bi seme Eliecer eta Gersan. Bitarte onetan Egipto-co Israel-tarrac egunetic egunera gaizquiago cijoacen, eta neque gueyago eraman bearrean,

#### 4. — *Moyses-i Jaincoaren aguerquera.*

Egun batean aitaguiarrabaren ardi-zantzan cebillela, Horeb-co mendira joan zan, eta icusi zuen sasi bat, sua cersiona, eta erretcen etzana. Cer ote zan jaquiteco, alderagotice beguiratu nai izan cion; baña aditu zuen, esaten; ez ona-

ra urreratu; oñustu zaite, ceren lur au santa dan: Ni Abraham, Isaac, eta Jacob-en Jaincoa naiz. Orduan Moises-ec, Jaincoari beguiratcera venturatcen etzalaco, arpeguia estalli zuen. Israel-co seméac erruqui ditut, Jaincoac esan cion-eta eguin didaten otsac aditu dieztel; atoz; Faraon-gana bialdu bear zaitut nere erria Egipto-tic ateratcera, gueró bazter andi aberats batera eramateco. Moises-ec baciequien cer lanetaraco Jaincoac ceucan; ala ere, aditu zue-narequin larritu zan, eta uzeur cegoan alaco lambide bati eguiteco; eta erantzun cion; ¿ni noz naiz Faraon-gana joan, eta Israel-co seméac Egipto-tic aterateco? Jaincoac eracut-si cion cer eguin, eta Israel-co zarrai cer esan; baña Moises-ec erantzun cion; sinistuco ez didate. Quezca eta bildur oyetatic bein betico aterateagatic, ¿escuan cer dezu? Jaincoac galdetu cion. Zotz bat, Moises-ec erantzun cion. Lurrera bota ezazu, esan cion. Egotci zuen, eta suga biurtu citzayon. Isasetic elduzayozu, gueró esan cion. Eldu cion, eta zotz itzuli zan. Escua colcoan sar-ezazu, esan cion. Sartu zuen, eta ateratean, leguenez josia arquite zuen. Berriz sartu, eta osotoró garbitua atera zuen, Jaincoac esan cion, baldin lenengoarequin sinisten ezbacioten, bigarrenequin sinistuco ciotela; eta au ere asco ezbazan, cer eguin eracut-si cion. Guisa onetaco itz-aldi luze bat eguin, eta Jauna ezcutatu citzayon.

Moises ardiacquin aitaguiarrabagana joan, eta bere anáyac Egipto-n icusteco eresia aguertu cion; eta Jetro-c baimena emanic, Moises Egibto-ronz abiatu zan; eta Horeb-co mendi-ondora zanean, Aaron Egipto-n guelditu citzayon anayá, laguntzat emateco Jaincoac autua ceucana, topatu zuen. Berrognuei urte ciran Moises Egipto-tic irten, eta Canaan-en Jetro bere aitaguiarrabarequin vici zala, eta anaya biac elcar icusi etzutela. Bereala batat besteari, bitarte lu-ce onetan Egtp-to-n eta Canaan-en guertatu citzayen guciaren berri eman cioten. Moises-ec batezere, Jaincoac arequin eguin cituen mirari andiac, esan ciozcan, eta biac Gesen-en alcarrequin sartu ciran.

Moises eta Aaron-ec Israel-co zar guciac bildu, eta Moises-ec bere gañ edo contura cer lambide ceucan esan cien.

Esan au sinisterazotceco, escuco zotza suga biurtu zuen; suga au bereala zotz: gueró escua colcoan sartu, eta legue-  
nez betea atera zuen: berriz sartu, eta garbitu zuen; ceña  
Israel-tarrae icusiric, sinistu cioten, Jaincoaren escubideac-  
quin jancia cegoala; eta auzpezturic agur-eguin edo ado-  
ratu zuten.

Moises eta Aaron Faraon-i aurqueztu citzayozcan, eta  
esan cioten, Israael-en Jaincoac ara cer dion; Nere gende-  
ari utci zayozu joaten, baso mortuan ofrendac eguin dizaz-  
quidan. Faraon, itsumustuan eguindaco escaera onequin,  
chit aserretu zan, eta erantzun cien, ¿ea Jaincoa nor zan,  
aren esana arc eguiteco, eta Israel-i uzteco? Ez det, cion,  
ez det Jainco ori nic ezagutcen, eta ez diot Israel-i ere utci-  
co, joaten. Oyec eta onelaco bezte gauza asco, Jaincoari  
eta bere mandatariac etcegozquienac erantzun, eta bere  
beguietatic bialdu cituen, escatcen zuten baimena eman  
gabe.

Faraon-ec escaera au chit gaizqui artu zuen; eta Israel-  
tar-ari ipiñitaco contuartzalleai agundu cien, estnago artu  
citzatela; bada, aisian ceudelaco, escaera ayec eguiten ci-  
tuztela. Ipiñi cieten len aimbat adrillu egunoró eguin bea-  
rra, baña lastoric eta beste errequiñ eman gabe, ceñaren  
billan or-e-men neque andian berac ibilli bear ciran: eta  
beren sailla edo tarea ecin eguin zutenean, erasotcen cio-  
ten berriró, ecin gueyago eraman-al-eraño. Faraon-iqueju-  
racquin joan citzayozcan; alperric ordeac: etcien aditu.  
Gueró Moi-es-i itzeguin cioten, onec neque berrian ipiñ-  
cituela, arpeguian emanaz. Moises gendearen alde Jaincoai  
ri erreguca jarri citzayon; eta Jaincoac agindu cien, be-  
rriz ere Faraon-i itzeguiteco.

Moises eta Aaron Faraon-i bigarren aldian joan citza-  
yozcan, eta lendabico escaera bera eguin cioten. Faraon-  
ec Jaincoaren partetic cijoazquion ezagungarri batescatu  
cien. Au aditu zutenean, Aaron-ec Moises-en cigorra artu,  
eta lurrera bota zuen, eta suga eguin zan. Faraon-ec dem-  
bora artan erreinuan bacituen sorguin edo gaizquin ba-  
tzuec, Jaincoaren mirari eguazcoac guezurtatu nayez,  
deabruarequin bat eguinda, mira-ri irudiac, edo milagro-

antzac eguiten cituztenac. Deitu cien sorguin oyei, ceñac beren cigórrac lurrera bota cituzten, eta iransuga eguin ciran: baña Moises-en cigorretic sortu zan sugác bestéac iretsi edo tragatu cituen, eta cigor itzuli zan. Faraon etzan onela ere bigundu. Sorguñen cigórrac iransuga biurtceari iguerri bear cion, deabruaren lana zala; eta Moises-enác, bat bacarra izanic, beste guciac iretsitceac adierazten zuen, Jainco eguiazcoa noren aldetic zan; baña arguia icusteco itsutua cegoan; eta escatcen zuen baimena Moises-i etcion eman; eta Moises irten zan, sorguin guciac lotsaz utcita.

5. §—*Egipto-co amar zauriac.*

Jaincoac icusiric, mirari oyec etcirala ásko izan, Faraon-ec Israel-tarrai Egipto-lic irteten uzteco, Egipto-ra bialdu cituen amar zauri izugarri, emen bat-banaca laburquiró azalduco diranac.

1. *Zauria.* Moises eta Aaron Faraon-i irugarren aldian joan citzayozcan; eta Jaincoaren icenean aguindu cioten, Israel-tarrai irteten uzteco. Faraon-ec ucatu cien. Moises-ec esan, eta Aaron-ec escuco cigorrarequin ura jo zuen, eta Egipto-co ur guciac odol biurtu eta arrai guciac il ciran. Zazpi egunean urac onela iraun zuten. Bitartean lgiptoac, egarriac ilco ezbacituen, ibai ertzetan zuloac eguin cituzten, are-tartetic irteten zan ura edateco; baña au ere odoltsua celorquien, eta egarriac beartuta, edaten zutenean, oñace miñac artcen cituen. Sorguñac ere lan onen antze-co cerbaiteguin zuten, ez ordea guezurrezcoac cirala ez iguerritceco eran Zazpigarren egunean urac berera itzuli ciran: Faraon-en biotza gogor cegoan, eta Moises eta Aaron ecer iritsi gabe guelditu ciran.

2. *Zauria.* Moises Faraon-i laugarren aldian joan citzayon; ez ordea escatcen zuena Faraon-ec eman. Orduan Moises-ec esan, eta Aaron-ec ibaico ura jo zuen, eta Egipto gucia iguelez estali zan. Erreguearen eche, guela, oi, mai, eta janarietan etzan iguela baicic icusten: au bera Erreinu gucian ere guertatcen zan. Zauri nazcagarri onec aimbeste

estutu cituen, non, Faraon jarri zan Moises eta Aaron-i escacera, zauri artatic, arren, atera citzala eta Israel-tarrai utcico ciela irteten. Moises-ec Jaincoari escatu cion; eta iguel guciac bereala il ciran; baña Faraon gogortu zan, eta etcien irteteco baimenic eman

3. *Zauria*, Moises-ec, oraingoan Faraon-i aurqueztu gabe, Egipto gucia eštali zuen elcho edo euli chiqui mingarri guizon, abere, eta beste vicidun guciac gueyagoraño penatcen cituztenez. Egipto-co auts guciac elcho biurtu ciran; eta elchozco odei belz batec Erreinu gucia illuntcen zuen. Emen sorguiñac arqutu ciran, Jaincoaren escua cebillela, eta utci bearco citzayela joaten, aitortu bearrean; baña Faraon-en biotza arri eguiñic cegoan, eta etzuen nai izan.

4. *Zauria*. Moises Faraon-i bostgarren aldian joan citzayon baimen-esque; eta Faraon-ec ucatu cionean, euli andi pozonizcoac eracarri cituen, eta Erreguearen echetic Erreinuco bazterric chiquienerañoco gucia euli oyecquin bete ciran. Faraon-ec icusiric, beren ozcada miñacquin uqutu gucia pozonituric uzten zutela, Moises-i escatu cion, gaitz artatic libratu citzala, eta utcico ciela joaten. Moises-ec Jaunagandic mesede au iritsi zuen; ez ordea Faraon-en baimena; bere itza jan zuen, eta biotza gogortu citzayon.

5. *Zuaria*. Moises Faraon-i seigarren aldian joan citzayon, eta Faraon-ec, lenengoetan bezala, ucatu cionean, sortu zuen campoetaco abere gucietan gaitz-antz gogor bat, zaldi, idi, bei, azto, gamelu, ardi, eta beste acienda guciac il cituena. ¡Gauza arrigarria! Ez len aitatu diran zauriac, ez oraingoac, eta ez gueroacoac Israel-tarrai ecertan ere uqutu cieten. Faraon-ec galdetu, eta jaquin zuen; etzala Israel-co abere bat bacarric ere galdu, eta ala ere etzan bere biotza samurtu.

6 *Zauria*. Moises eta Aaron Faraon-i, zazpigarren aldian joan citzayozcan, eta Israel irteteco baimena aitatu gabe, Moises-ec autsa artu, eta cerurouz bota zuen, eta une be-rean guizon eta echeetaco abere guciac bete ciran zauri nazcagarri, eta usai gaiztoco, min eta oñace andiac ematen cieztenez. Escritura Santac ezdigu esaten, zauri onec

Faraon-i uqutu cionic: beintzat, bere mendecoac ceramaz-  
quiten oñaceac ecertan artu gabe, aren biotzac belico go-  
gortasunean cirañen.

7 *Zauria*. Moises Faraon-i zortcigarren aldian aurqueztu  
citzayon baimen-esque: eta Faraon-ec ucatu cionean, escu-  
co cigorra alchatu zuen; cerua odei illunez bereala estali  
zan, eta turmoi, eta inusturi izugarriac batetic, eta cazca-  
barra eta arria bestetic, asi siran, secular alacoric Egip-  
to-n icusi etzan eran. Campoan arqutu ciran guizon eta  
abereac il, landareac porrocatu, eta arbolac autsi ciran.  
Faraon-ec icusgarri onequin izuturic, Moises eta Aaron-i  
irugarren aldian deitu cien, bere gaizqui-eguiña aitortu,  
eta escatu cien, inusturi eta arriabar gaizto ayetatic libratu  
citzatela, eta utcico ciela joaten. Moises-ec Jaincoari erre-  
gnatu cion, eta inusturi eta besteac gueratu ciran. Baña  
arestian emandaco itza Faraon-i damutu citzayon, eta etci-  
en utci irteten.

8 *Zauria*. Moises eta Aaron Faraon-i bederatcigarren  
aldian aguertu citzayozcan, eta esan cioten: ara Hebreo-  
arren Jaincoac cer dion: ¿noizdañonic aguindua eguin nai  
ezdezu? Nere erriari utci zayozu joaten, ofrendac eguin di-  
zazquidan: bestela, bazter gucietara biar larrapote edo lan-  
gosta bialduco dizut, eta arriabarrac galdu etzuena, onec  
galduco du. Au eta onelaco beste cembat itz esan, eta Moi-  
ses-ec Faraon-en ondotic aldeguin zuen. Andic laster Mo-  
ses eta Aaron-ec Faraon-equin beste itzaldibatizan zuten;  
baña ez ecer atera; eta Faraon-ec beguietatic quendu citu-  
en. Orduan Moises-ec bere maquilla lurrean luzatu, eta  
sortu zan larrapote edo langosta deritzan pizti chezco sa-  
malda izugarri, Erreinu gucia, odei batec bezala, itzaldu  
zuena, eta lenagoco zaurietatic gueratutaco arbola, belar,  
landare, orri, eta cegoan beste guci-gucia ondatu eta arra-  
satu zuena. Egundaño alacoric Egipto-n etzan icusi, eta ez  
icusico ere. Echeac eta campoac, bazter eta lecu guciac  
pizti gogaicarri onequin bete ciran. Guizonai ozca eguin,  
eta oñace andiac ema ten ciezten, eta asco ilcen ere baci-  
ran. Faraon-ec ondamen au icusiric, Moises eta Aaron-i  
deitu eta bere becatua aitortu zuen, eta escatu cien, arren



gaitz hura quendu cezatela. Moises-ec Jaunari erregutu, eta bereala aice epel batec pizti guciac itsaso gorrira bota cituen, bat bacarric ere Egipto gucian utci gabe; baña Faraon gogortu zan, eta etzuen baimena eman.

9 *Zauria*. Moises-ec, oraingoan Faraon-gana joangabe, escua ceruronz jaso zuen, eta Egipto gucia illundu zan, ecer ere agueri etzala. Gau illun onec iru egunean iraun zuen. Egipto gucian iñore ere, batac bestea etzuen icusten. Illunac artutaco lecu eta oran, oñic ere aldatu gabe, egon ciran. Chimistaen antzeco argui batzuec noizean bein irteten ciran, eta oyen islara aurrean jartcen citzayezten abere zatar izugarri, eta icusteco icaragarriac, ceñac ez icusteagatic beguiac ichitcen cituzten. Piztien ayesca eta garrași tristeac aditcean, corde gabe guelditcen ciran. Itz batean Egipto guciac infernu vici bat cirudien. Iru egun negargarri oyec joan ciranean, Faraon-ec Moises eta Aaron-i otseguin cien, escatcen zuten baimena emango ciela, esatera; baña Moises-ec etcion artu, bear zan eran ematen etciolaco. Orduan Faraon berriz ere gogortu zan, eta esan cion, etcedilla aren beguietan gueyago jarri, eta baldin berriz bacijoaquion, ilerazoco zuela. Moises-ec erantzu cion: Ez det, ez, zure arpeguia osterac icusico; baña beguira Jaincoac cer dion: Gau-erdian abiatuco naiz Egipto-tic irteten, eta Egipto-co seme zarren Faraon-enetic beenecoenerañaguciac ilco dira, baita abereenac ere: eta Egipto gucian alchatuco da, secular izan eta izango ere ezdan bezalaco iscambilla. Orduan zure servitzari guciac jachico zazquit, lembaitlen nere gendearequin irten nadilla, esatera. Au esan, eta Moises Faraon-en aurretic chit aserretua irten zan.

10. *Zauria*. Oraindaño eguindaco aleguin guciac etciran ascó izan, Faraon-en biotz burnizcoa biguntceco: beti ucoan cegoan, Israel-tarrai bere mendetic irteten uzteco, eta Jaincoac bialdu nai izan cion atceneco zauria, lenagocoen azcarria, eta Igitoai negar andiac utci cieztena. Ara cer, eta nola. Moises-ec aguindu zuen, Israel-co guizon eta emacume zar eta gazte, andi eta chiqui guciac beren abere eta gauzacquin Gesen-en, Ramases-co erria, eta inguruan bildu citecela. Eracutsi cien, cer eguin gucia, esanaz:

Eche edo familia bacoitzeco burnac illaren amarrean artuco dezute urte barruco arcume mancha gabeco bana; eta au ecin bada, anchume bana; amalaüean Jaunari esqueñi edo sacrificatuco diozute; eta onen odolaquin norc bere eheco ataburua eta alboac igortcico dituzute; arcumequi au jango dezute, ez gordiña edo egosia, ezpada errea: eta jan gabe ecer guelditcen bada, sutan deseguingo dezute: arcumequi onequin legami gabeco oguia, eta urraza edo lechuga samiñac artuco dituzute: bitartean bideco janciacquin, zutic eta maqujllac escuan dituzutela, egongo cerate, noiz-nai abiatecco prest. Gueró esan cien, gau onetan Jaicoac Egipto-co seme zarren guciac ilco cituela; bñña arcume-odolez igortcitalco echeai uqutu etcietela. Gau gogoangarri au eldu zanean, Moises-ec esan cien bezala, Ainguerua cerutic jachi, eta Igitoen seme zarren guciac, bat bacarric ere utci gabe, il cituen; eta abereenacquin ere berebat eguin zuen. Ilquintza au asi zanean, etzan Egipto gucian, iltcen ceuden semeen ayesca eta garrañiac, eta seméac gabe guelditcen ciran gurasoen negar eta lantuac baicit áditzen. Gau au tristeagoa eta mingarriagoa izan cedin, abereac ere orroi eta marru izugarriac eguiñaz cebiltzan. Faraon-i ere etcitzayon barcatu: bere seme nagusia servitzari gucienacquin batean ilzan. Faraon-ec Moises-i ez gueyago aren beguietan jartceco esan izan bacion ere, negargarri hura icusiric, Moises eta Aaron-i gau berean deitu, eta Israel-tar guciac beren gauzacquin irteteco baimena eman cien: eta Igitoac ere aleguiña eguin zuten, bereala andic bialtceco, guciac ilda guelditu citecen bildurrez. Israel-tarrac, ecertaco ere lecu gabe, erdi-orratua ceucaten iriña burusietan sorbaldan artu, eta bideari equin citzayozcan.

¡Biotzaren gogorra Faraon-en biotza! Jaunac bere escu zorrotzarequin aibeste aldiz uqutu bacion ere, gogor iraun zuen, bere eta bereen ondamena ecarri arteraño. ¿Cembat, ote dira Faraon-i darraizquionac, eta Jaincoac asco alderata uqutu arren, beren becatuan diardntenac, alic eta eriotzaren cigorradac belico ondatcen dituen arteraño? Erregue gogor argan dácusquete, cer paturen begui-

ra dauden, Jaunaren dei biotz-onecoac ecertan artcen ez dituztenac.

### ZORTCIGARREN IRACURGAYA.

#### 1. §.—*Egipto-co catibutasunetic Israel-tarren irteera.*

Munduaren bi milla lareun eta ogueita emezortcigarren urtean, Jacob Egipto-ra joan zanetic berreunda amabostgarrenean bere ondorengo guciac, larogueita amar urteco morrontza gogorra eguin ondoan, Rameses-co erritic irten ciran, Jaincoac promestu edo esqueñitaco lurrera joateco. Sei eun milla bezalatsu ciran oguei urtez goitico guizon sasoicoac, zarrac sartu gabe. Oyec, ogueyez beecoac, emacumeac, eta batu citzayezten bertaco banaca batzuec eguiten zuten iru milloico copurua edo cembatea. Biaramonean egun-sentian, Igiloac beren illac lupertcen ari ciran bitartean, Egipto-co catibutasun gogorretic Israel-co gendetza andi au Jaincoac atera zuen. Bidean abiatu ciran abereac aurrena, oguei urtez goitico guizon armadunac urrena, eta atcenean gañeracoac. José zanaren ezurrac etcitzayozcan Moises-i aztu. eriotzaco orduan aguindu zuen bezala. Lenengo egunean Socot-era, eta bigarrenean Etán-era joan ciran. Jaincoac eracusten cien, nondic joan. Abiatu ciran ordutic, aurrean jarri citzayen odei andi, egunaz itzal, eta gañaz argui eguiten cien bat; eta odei au etoitzayen beguetatic qnendu, alic eta Canaan-go lur esqueñian jarri ciran arteraño. Etán-dic Firairot-era joan, eta emen guelditu ciran. Faraon-i esan ciotenean, Israel-tarrac irten cirala, eta non ceuden, utciac damutu, eta Erreinuco guerrari guciac arturic, Israel-tarreronz joan zan, eta itsas-gorriaren ertzean topatu cituen. Israel-tarrac bideric asco bazuten; Jaincoa beren alde zutela, eta lagunduco ciela ezagutceco: baña alde batetic itsasoa eta bestetic basomortua cituztela arquitu ciranean, erausiari eman citzayozcan, eta Moises-i esan cioten; ¿Egipto-n ez ote zan gure diña lurpe, onára erio-billan ecarri gabe? Moises-ec cecusan, uste guichico guizon ayec cein gaizqui mintzateen ciran; ala ere bildurrac erasaten ciela pensatu, eta erantzun cien: ez icaratu; orain

**Aurrean** dauzcazutenac ez dituzute berriz icusico; Jaincoac zuegatic eguingo du, eta isillic zaudete. Aguindu cien, bideari equiteco; eta orduan, aurretic cebilquien odeya, atelic bien erdian jarri zan, eta estali cituen, Faraon, eta bere gendeac ecin icusi citzaqueten eran.

2. §—*Ichaso gorria.*

Ur ertzera ciranean, Moises-ec, cigorra jaso, eta ura jotearequin bi aldeetara edo gora-beera erdiratu ciran, eta ichasoaren erdian bide leorra aguertu zan. Bost orduco bidets berri au Israel-tarrac gauaz igaro, eta goizeco irurataraco beste aldera iritsi ciran. Orduan Egipto-aldeco itsas-bazterretic odeya quendu zanean, Faraon oartu zan, Israel-tarrac iguesi joan citzayozcala. Bereala orpoz-orpo cerraizquiela, itsasoaren erdian idiquitaco bidean sartu ciran. Faraon eta bereen contra Jaincoaren eseu itz altsua emen aguertu zan, bai. Israel-tarren aldetic cegoan odeya bat-batetan lertu, eta bota cituen oñazcar eta inusturi izugarriac Igitto-ai ceramaten gucia ondatu, erre, eta quiscaldu cieten. Esturasun onetan deadar eguiten zuten: Israeldic otsemazute; bada, Jaincoa onen alde eta gure contra degu. Alperric ordea. Moisec-ec escua itsasora luzatu, eta urezco mendi goyen eta bean guelditu ciranac amildu, eta Igitto guciac ondatu, eta ito ciran. Faraon, bere Gortecoac, servitzariac, guerrariac, ceramazquiten gurdia, zaldia, osotoró guci-gucia itsasoan galdu zan, guizon bat bacarric ere bere erritarrai, cer igaro zan berria eramateco guelditu gabe. Israel-tarrac itsasora beguira jarri ciranean, icusi cituzten Faraon eta bere lagunen gorputz-illac itsasoac urbazterrera botatuac, eta ecin esan-al gauza on quendu ciezteen. Jarri ciran Jaunari esquérrac ematen, Moises guizonacquin, eta bere arreba Maria emacumeacquin, cancio gozo eder; *Jaunari cantatu dizayogun*; asitcen dana al dizca cantatuaz.

3. §.—*Baso-mortuco sarrera.*

**Biamamonean** odeya aurrean jarri citzayen, eta itsas-baz-

ter gogoangarria utciric, bideari eman citzayozcan; eta iru egunean ur gabe ibilli, eta Mará-n arquite zuten; baña chit samiña eta edaten gaitza. Israel-tarrac beren beguiacquin icusitaco mirariac aztuta, asi ciran Moises-gatic gaizqui, esaca, eta uric etceucatelaco asaldatcen, ciotela: ¿Cer edan bear degu? Moises-ec ceruronz escuac jaso, eta icusi zuen egur bat, ceña urera bota, eta urac guezagozolu ciran eta Israel-tarrac nai ambat edan zuten. Mará-tic irten, eta baso-mortu edo, eremuan hatera eta bestera ibilli, ciran, atsenden-aldiac or-emen eguiten cituztela.

Egipto-tic irten cirala illabete zan, eta an artutaco janac aitu citzayeztenean, Moises eta Aaron-en contra erausian asi ciran, esanaz; ¡Oñalla Egipto-co aragui-eltceen ondoan gueundenean, eta naico oguia jaten guenduenean il baguiña! ¿Certaco eremu onetara ecarri guinduzuten? Moises-eta Aaron-ec erantzun cieten ¿ea cergatic erausi artan ciardnten? Bada, itz ayec guciac ez ayen, ezpada Jaunaren contra cirala. Orduan Jaincoac odei eder batetic Moises-i esan cion, arratsaldean nai ambat aragui, eta biaramonean ogui, Israel-co seméac izango zutela.

#### 4. §.—*Maná.*

Esan eta eguin; arratsaldean aguertu zan gal-eper samalda chit andi, Israel-tarrac ceuden toquia estali zuena eta oyec erraz atsituta, nayera gucian jan cituzten. Biaramoneangoiz odehyetatic erori zan intzaren antzeco gauza bat, *Maná* deitu ciotena. Au icusi zutenean, arrituric, elcarrri galdetcen cioten: ¿au cer da? Moises-ec esan cion: au Jaincoac bialdu dizuten oguia da. Bereala Moises-ec aguin-du, eta mana onetatic buru edo persona bacoitzarentzat lacari bana bildu zuten. Gueroztic maná au larumbata edo zapatua ez beste egun gucietan erortcen citzayen; egunean egunecoa bildu bear zuten, eta ostiraletan bi egunecoa, ceren larumbata ez-eguna zan; egunecoa baño gueyago biltcen bazan, usteltcen citzayen: eta goizean-goiz bildu bear zan, eguzquiac jo ezqueró urtutcen zalaco. Janari gozo onequin Israel-tarrac, eremuan igarotaco berroguei ur-

teetan, bazcatcen ciran; etzuten iñoiz ere onen uts-uneric izan, alic eta lur promestuco gauzac jaten asi ciran arteraño. Jaincoac Israel-tarraí eremuan bialducien ceruco janari onen oroipena ondorengoac eguin cezaten, Jaincoac aguindu eta Moises-ec lacari bat maná urrezco ontci batean sartu eta gorde zuen, gueroago eguindaco Tabernaculoan ipintceco.

5. §.—*Horeb-co arcaitza.*

Aurretic ceucaten odehyac esaten cien, non guelditu edo nora joan. Egun batzuec egon-aldi onetan eguin, eta Sinico erremuronz odeya abiatu citzayen, eta Israel-tarrac ere bai oni cerraizquiola: eta Horeb-co mendi-ondoan cegoan erri *Rafidin* ceritzanera ciranean, guelditu ciran. Bañan Rafidin-en uric etceucatelaco, Israel-tarrac bereala Moisesi asi citzayozcan gaizqui-esaca, eta mormorioz, ciotela: ¿Cergatic Egipto-tic atera gaituzu, emen egarriac iltceco? Israel-tarrac ezquergabequeriaz betetzen zutenean, Moises Jaincoari jartecn citzayon, cer eguingo zuen galdez, edo ayen itzumenaren barcacio-esque. Oraingoan ere ala eguin zuen: eta Jaincoac cer eguin eracutsiric, Israel-co zarracquin Horeb-co mendira igo zan; escuco maquillarequin arcaitza jo zuen, eta sortu zan iturri ugari gozo, orduco egarria quendu, ez ecie, gueroztic ibilli gucietan, ura ugari zan lecura joan ciran arteraño, berari cerraiquiona.

6. §.—*Amalec-tarren guerra.*

Rafidin-en ceudela, Amalec-tarrac etorri citzayezten, Israel-tarraí guerra ematera. Moises-ec, Josue bere servitzari nagusienetacoari aguindu cion, guizonic bulardetsuenac berequin artu, eta Amalec-tarraí gogor eguiteco; eta garai-pena iristeco bear zan gucia berac eguingo zuela. Moises-en esana Josue-c eguin zuen, eta joan zan, arpegui ematera. Orduan Moises, berequin Aaron eta Hur arturic, igo zan mendi-tontor batera, nondic bi aldeetaco guerrariac agueri ciran. Erasoá asi zanean, Moises-ec maquilla escue-

tan zuela, ceruronz jaso cituen laguntza eta garaipen-esque, eta icusi zuen, escúac gora ceuzcan bitartean, Israel gueyago zala, eta beeratcen cituenean, Amalec. Onela bein batec eta bein besteac garaitcen zuen, eta gueroago eta gogorrago ari ciran. Moises-ec escuac goronz iduqui nai baña necatcen citzayozcanean, beeratcen cituen. Aaron eta Hur-ec au ezaguturic, arri batean esererazo zuten, eta biac beso banetatic elduta, guisa onetan escuac goronz cituela, eguzquia sartu artean iduqui zuten, eta Israel-ec osotoró garaitu zuen. Jaincoac Moises-i agundu cion, guertaera au escribatu cezala, Josue-ri esateco. Gueró aldare bat eguin, eta Jaunari esquerrac eman ciozcan.

Icusquera atseguíñezco bat Moises-ec emen izan zuen. Jetro aitaguiarrabac adituric bere suya cer eguitecoetan cebillen; Jaincoac cer eta cembat mirari onen bitartez eguiten cituen; bere alaba Sefora eta onen bi semeacquin joan citzayon Moises-i, ceñac bere emazte maitea eta seméac icustearequin chit pozandia izan zuen eta Israel guciac ere parte izan cezan, zar guciai bazcari andi bat eman cien. Jetro-c eta Moises-ec atcena icusi ciran ezqueroco berriac elcarri eman ciozcaten. Gueroenean Jetro-c ondoesan, edo conseju onac eman, eta echera itzuli zan, eta Sefora eta bi seméac Moises-equin guelditu ciran.

### 7. §.—*Sinai-co mendia.*

Egipto-tic irten ciranetic irugarren illeco iruan Rafidin utci, eta odeya belico beren guidari zutela. Sinai-co mortuan sartu ciran, eta beren etzauntzac emen eguin cituzten. Mendi au zar, Jaincoac mirariric andienac eguiteco autua ceucana. Moises bereala bacartu zan, Jaunari erregutcera, etan onetan cegoala, Jaincoac agundu cion, Israel-co semeai gogoraerazolceco, cer mirariacquin Faraon-en mendetic atera cituen; cer mesedeac gueroztic ere eguin ciezen, eta esateco, baldin aren agundúac gordetcen bacituzten-munduco gucien artean Jaunaren erri esleitua eta autua izangó cirala. Moises-ec gendeari adierazo ciozcan Jaincoac esandaco gauza guciac, eta erantzun zuten, gucia eguingo

zutela Oyen prestamen au icusiric, Jaincoac Moises-i, eta Moises-ec Israel tarrai aguindu cien, egun artan eta biaramonean janciac garbitu citzatela; ceren irugarren egunean icusi bear zuten Jaincoa mendi artara jaisten: ordea esan, cien, etzutela mendira cerigo, eta ez bere mugai uquituere; bada, iñor mugan sartcen bazan, naiz guizona, naiz aberea, ilda gueratuco zala.

Irugarren egunean goizean-goiz mendia odei illun batec artu zuen, eta asi ciran chimistac irteten, eta turmoya jotcen. Berebat aditcen zan trompeta-soñu zorrotz bat, gendea mendironz alderatceco, ciona: baña Isrrael-tarrac izu-icaturic, etzuten ceuden lecutic oñic aldatceco biotzie izan, alic eta Moises-ec mendi-ondoco celayera eraman cituen arteraño. Mendiari su eta quea ceriozcan; beguiratce utsac icaratcen zuen; eta turmoi eta trompeta-soñua bat, batean isildu zan. Orduan Jaincoa mendi-gañetic asi zan itzeguiten, gende guciac aditcen ciola: eta bere legueco-amar aguinte santuac bat-banaca esan cituen. Ara nola. Ni naiz zure Jaun Jainco Egipto-co neque-petic atera cindudana. Ez dezu iñola-ere nere aurrean ni beste Jaincoric iduquico eta adratuco. Ni naiz zure Jaun Jainco altsua, eta nere gloriaren Contu-artzallea. Ez dezu zure Jaun Jaincoaren icena aotan artuco, ceren Jaunac ez duen onelacoa castigu gabe utcico. Larumbat eguna Santutu ezazu. Sei egunean lan guciac eguingo dituzu: zazpigarrena zure Jaun Jaincoaren eguna da. Egun onetan ez dezute ez zuc, ez zure seméac, ez zure alábac, ez zure morróyac, ez zure nescaméac, ez zure aberéac eta zure echean vici dan arrotzác lanic eguingo. Zure ait-amac onra itzatzu, zure Jaun Jaincoac emango dizun lurrean luzaró vici izan zaitecen. Ez dezu iñor ilco. Ez dezu araguzco becauriceguingo. Ez dezu ostúco. Ez dezu zure lagun urcoagatic, guzurrezco asmacio edo testimonioric esango. Ez dezu zure lagun urcoaren echeá, ez emazteá, ez morroyá ez nescameà, ez idià, ez astoá, eta ez beste bere gauzaric guticiatuco.

Jaincoa itzaldi onen ondoren isildu zan; eta chimistac turmoyac, eta trompeta-soñua, len bezala, berriró asi ci-



ran. Mendia oraindic odeitua cegoan, eta garra eta quea ceriozcan. Gendeac, an egoteco biotz gabe, mendi ondo tic aldeguin zuen. Moises-i esanaz: zuc itzeguin zaguzu- eta guc adituco dizugu. Au cioten, ain itzaltzu aguertcen zan Jaincoaren itzeguiteac izuteen cituelaco. Moises-ec erantzun cien, etzutela cer icaratu: Jauntasun andi arequin Jaincoa aguertu nai izan zala, ayen biotzetan bildur santua sartu, eta gueyago oquerric eguin etcezaten. Gendea urrutian guelditu, eta Moises sartu zan, Jaincoarequin itzeguitera. Itzaldi onetan Jaincoac eracutsi ciozcan bere Erri autua nola eraendu eta gañeraco eguinquizunac. Gueró Moises gendeagana jachi, eta Jaincoac eracutsi gucia esan cien. Jaincoac emandaco legue eta icasiquizun guciac escribatu cituen. Bereala mendi-ondoan aldare bat eguin eta Jaunari ofrendac esqueñi ciozcan. Escribatu zuen liburua iracorri cien; eta eman cioten, osotoró Jaunaren leguea gordetceco itza, laster autsi bazuten ere, ondoren icusico dan bezala.

8. §.—*Jauna-ren gloria, eta bere leguearen arlosac.*

Israel-tarrac nor bere lecura itzuli ciran, eta Moises prestatu zan, berriz ere mendira igotceco. Biaramonean bere servitzari Josue arturic, mendironz abiatu zan: eta onen aldats batera ciranean, Jaunaren gloria mendi-gañean aguertu zan. Ara nola Mendia estaltcen zuen odeitartetic alchatcen zan su eta gar-antz eder bat, Israel-targuciac beren lecutic icusten zutena. Sei egunean Jaunaren gloriac mendian iraun zuen: bitartean Moises eta Josue bidean egon ciran, ez igo eta ez beeratu gabe: zazpi-garrenean Jaincoac deitu, eta Moises igo zan, Josue aldatsen utcita, Jaincoarequin itzeguitera; eta berrogei egun eta gañean an egon zan, ecer jan eta ez edan gabe.

Itzaldi onetan Jaincoac Moises-i eracutsi cion, non nola eta porc ofrendac esqueñi, eta beste eliz-gauzac egnin bear ciozcan. Eracutsi cion eliza edo Tabernaculoa cer eratan eguin bear zuen: atcenean eman ciozcan, bi arlosatan ezarrita, chimista eta inusturi artean lenagoco egun

batean ain anditasun arrigarriarequin Israel-tarrai itzez esandaco bere amar aguinteac. Baña ¡Israel-tarren ezquer gaiztocoac eta artutaco mesedeen azcorrac!

9. §.—*Urrezco chala.*

Moises-en mendico egoerari luceiritciric, aren anaya Aaron-en contra jaiqui ciran, eta jainco berriac escatu ciozcaten, nori jarraitu izan cezaten, Moises-ec cer eguin zuen etciequitelaco aitzaquiarequi. Aaron-ec etzuen escaera oni gogor eguiteco adiña copeta izan, bere vicia galtceco bidean jarrita ere eguin bear zuen bezala. Arpeguiz-arpegui ucatceco biotz gabe, eta ayecquicoa nola-ere-bait eguin nabez, emango etciotelaco ustean, emazte eta alabaen urrezco circillu edo belarrietacoac escatu ciezten, oyecquin jainco bat eguiteco; baña berác nai baño oparagoac arquite cituen. Escatcen cituenac bertatic eman ciozcaten: eta oyec artu eta urrezco chal bat eguin zuen; ceña Israel-tarrac jaincotzat ezagutu eta adonatu zuten. Biaramonean jainco oni ofrendac esqueñi, onen alabantzan jan-edan andiac artu, eta bere inguruan dantza eta jostaqueta asco eguin cituzten.

Israel-tarrac onetan cebiltzan unean, Jaincoac Moises-i adierazo cion, cer eguin zuten. Moises, berri onequin biotza illunduric, menditic jachi zan, leguearen bi arlosac escuan cituela. Mendi-aldatsean berrogei agunean ichedon cion Josue-requin batu zan; eta biac beeratu ciranean, Israel-tarren pesta-ots eta dantza-soñuac aditu cituzten. Moises-ec icusi cituenean, bacarric Jainco eguiazcoari zor zayozcan agur eta adoracioac, urrezco chal edo checor bati ematen, berez guizonic mansoena eta paquetsuena bazan ere, ecin eraman izan zuen, eta aserre santubatequin biotza iracequita, berequin cecarquiñ Jaunaren leguea escribatuta ceucaten bi arlosac lurrera bota cituen, eta puscatu ciran, nayago zuela au eguin, ezquer gaiztoco gende ari eman baño. Bereala chalagana joan, ipiñita ceucaten pillaretic artu, eta austu arteraño sutan iduqui zuen. Guerò aulsac urera bota, eta jaincotzat adonatu zutenai ura

bere autsaquin edanerazo cien. Onen ondoren bereala ayen artetic irten, eta cerbait aldeguin zuenean, otseguin cien: baldin Jaincoarequin or iñor bada, betorquit. Dei onetara joan citzayozcan Levi-ren seme, chalari emandaco adoracioan cutsutu nai izan etciran guciac. Oyei Jaincoaren icenean aguindu cien, ezpata bana escuan arturic, besteac ceuden toquian sartu, eta joan-etorri bat eguin cezatela, ezquer-ezcuira topatcen zuten gucia illaz. Egun onetan ogueita iru milla idolozale il ciran. Jaincoac are gueyago castigatu nai izan cituen; baña Moises-en erreguac guciac ondatcetic aren escu altsua atceratu zuen.

Lambide negargarri onen ondoren bete bear zan, Moises-ec cecarzquien legueco arlosac autsitcearequin utcizuen utsunea. Jaincoac aguindu cion, bada, berriz ere mendira igotceco prestatu cedilla. Lenagocoen antzeco bi arlosa eguin cituen, eta Sinai-co mendira gauaz iñor gabe igo zan. Jaincoa odei batean jachi citzayon, macurturic adonatu zuen, eta asi ciran itzeguiten. Berroguiei egun eta berroguiei gau oraingo aldian ere igaro cituen, ecer jan eta ez edan gabe. Jaincoac aldi onetan ondoreraco eguimbide eta gauza asco eracutsi, eta bere legueco amar aguinteac ere bi arlosaetan bere escuz escribatuac eman ciozcan. Moises, berroguiei egun oyec igarota, menditic jachi zan, bi arlosac berequin cituela; baña Aaron eta beste Israel-tarrac icusi zutenean, eguzquiac bezala argui eguiten zuen arpeguiarequin, etzuten urreratceco quemien eta indarric izan, eta atceronz abiatu ciran. Moises-ec etciequien atceratce au certatic cetorren; etciequien bere arpeguia eguzqui bat eguin zanic; eta otseguin cien cijoazquiela. Dei onetara Sinagogaco nagusiarequin batean Aaron joan citzayon, eta oyei itzeguin cienean, besteac ere alderatu citzayozcan, eta adierazo cien, Jaincoac mendian cer eracutsi cion. Au eguin, eta oyal batequin arpeguia eztali zuen, eta oyal au etzuen gueroztic, Jaincoarequin itzeguiteco baicic quentcen.

## BEDERATCIGARREN IRACURGAYA.

### 1. §.—*Lenengo Tabernaculoa.*

Moises-ec baso-mortuan edo eremuan Israel-tarracquin batean bere vicitza eguiten asi, eta laster tabernaculo edo eliza chiqui bat eraguin zuen, norá joan oi zan bere erre-gúac Jaunari eguitera. Tabernaculo onetan ipiñi cituen manà gordeta ceucaten urrezco ontzia eta legueco bi arlosac. Emen, bada, Jaincoarequin bere egonac eta itzaldiac eguiten cituen, eta gende gucia, nor bere ataritic, beguira cegoquion, nola sartu eta irteten zan. Israel-tarrac urrezco chala adoratceco lotsagabequeria izan zutenean, arteraño gucien erdian iduquitcen zuten lecutic Jaincoaren aguin-duz atera, eta beste lecu batera eraman cien; ceñaren aldaqueta au Israel-tarrentzat castiguric mingarriena izan zan.

Jaincoarequin bere egon-aldia eguin zuen bein batean, Israel-tarraí esan cien. Jaincoac mendian aguindu ciozcan gauzac eguiteco dembora zala, eta gauza oyen artean Tabernaculo edo eliza bat zala, izan cezaten, non Jaunari agur-eguin edo zor citzayon adoracioa eman: baña au eta oni cegozquion obrac, Jaunac eracutsi cion neurrietan eta eran eguiteco, urre, cillar, eta beste gai asco bear cirala; eta bacoitzac, gogoac aguintcen ciona, Jaunaren servitzo andi artaraco eman cezala. Israel-co guizon eta emacumeac bereala esqueñi andiac eguin cituzten, elcarren leyeen emanaz apainduraric baliotsuenac, urrezco erraztunac, belarrietaco circilluac, escuturretaco edergarriac, urre eta cillarrezco charroac, arri beguiragarriac, Setin-go zur ederrac, eun meac, larru zuri-gorri icusgarriac, eta onelaco beste gauza asco, bat-banaca ecin esan ditezqueanac, alaco moduan eta ugari, non, Moises arquituzan, gueyago ez eramateco aguindu bearrean. Obra andi oynec bear bezala eguiteco, Jaincoac, nor bere lanean, ecin obeto trebatu eta cituen, gucien buru eta maisutzaz Beseel eta Oliab aurtu cituen, naiz urre, cillar eta cobrean, naiz arri, zur, eun

eta oyalean edocein lan-modu eguiteco jaquinduri betea ematen ciela. Moises-ec bi oyen escuan ipiñi cituen, Israel-tarrac ain oparo emandaco gai guciac, eta chit ederqui eguin cituzten Jaincoac aguindu ciozean obra eta lan guciac, Oyec ciran Tabernaculoa, elcartasuneco sinisgaya edo testimonioa gordetceco cucha, urrezco candeleroa, lurrincayac edo usambelarrac erretceco aldarea, ofrendac ipintceco maya, eta beste chit contu andico gauza asco; ceintzuec Moises-ec icusitacoan, ontzat eman cituen, Jaincoac esan cion era here-berean eguiñac ceudelaco.

## 2 . §.—*Bigarren Tabernaculoa.*

Lembicico lana zan *Tabernaculoa*, ceña nolacoa zan emen esatea, bidezcoa da. Tabernaculo au zan eliza bat, Setin-go zur irauncorrez eguiña: zur oyec barrutic eta campotic urrez estaliac, eta cillarrezco oñ sendoen gañean ipiñiac ceuden. Lucean amabost cana, zabalean sei, eta goibe edo alturan bost cituen. Tellatua edo estalia amar cortina ederqui apainduac eguiten cioten; eta tellatu onen gañean zuen larruzco beste estali bat, egualdi gaiztoetan busti gabe gordetceco. Tabernaculoac bi zati edo guela cituen; lenengoac bederatzi cana, eta bigarren edo barrucoac sei cituen. Oni ceritzan, *Lecu guciz santua*. Emen elcartasuneco cucha eta propiciatorioa ceuden, eta apaiznagusia bacarric sartcen zan, eta au ere ez urtean bein baicic. Lenengo zatiari ceritzan, *Lecu santua*. Emen urrezco candeleroa, lurrincayen aldarea, eta ofrendaen maya ceuden; eta apaizac sartcen ciran.

Tabernaculoa Jaincoac eracutci bezala eguin, eta ondoren bereala *Cucha* ere eguin zuten. Elcartasuneco cucha ceritzan au zan Setin-go zur irmoacquin berebat eguiña, eta campotic eta barrutic urrezco azalacquin estalia. Lucean bost canalaurden, zabalean iru cana-laurden, eta goibe edo alturan beste iru cana-laurden cituen. Cucha au eguin zan Jaincoaren legueco amar aguinte, Jaunac berac escribatuta ceuzcaten bi arlosac gordetceco; ceñaren bidez Israel-tarrac chit beguirune andia cioten. Cucha onenga-

ñean cegoan *Propiciatorioa* edo mesede-toquia. Au zan urrezco baldi edo plancha, cucha gucia estaltcen zuena; eta baldi onen bi ertzetan ceuden, elcarri beguira, bi Querubin eder, beren egoacquin Jaunaren Gloriarri egon-lecu edo aulqui guciz icusgarria egiten ciotenac. Jaincoac emen, dic bere aguinduac eman eta mesedeac eguiten cituen. *Candeleroa* zan urrezco abe andi bat, sei besanga berebat, urrezcoac cituena. Besanga oyetan ipintcen citzayozcan sei argui; eta abearen gaildur edo buruan zazpigarren, besteac baño gorago irteten zana. Jaincoac aguinduta ceucan, gendeac contu andia izan cezalā, olioric obena argui-ontci oyetaraco esqueñi edo ofrendatceco. Zazpi argui oyec Apaiz nagusiac iracequi bear cituen, gau gucian Tabernaculoan argui eguiteco. *Lurrincayac erretceco aldarea* zan Setin-go zurez eguindaco mai bat, goibe edo alturan cana bat, lucean cana-erdia, eta zabalean bestecana-erdia zana: gucia urrezco azalez estalia cegoan, eta gañeco ertz gucian urrezco baranda eder bat ceucan. Mai onetan incensua eta beste urringai gozoac erretcen ciran. *Ofrendac ipintceco maya* ere Setin-go zuracquin eguiña zan. Lucean canabete, zabalean cana-erdia, eta goibean iru cana-laurden cituen. Au ere urrez estalia, eta gañeco ertz gucian urrezco barandarequin apaindua zan. Mai onetan ipintcen ciran Israel-co amabi eche, Tribu edo familiac Jaunari esqueñtzen ciozcaten amabi *Ogui proposicioaco* ceritzatenac. Ogui oyec iriñic obena, olioarequin orratuta, eguiten ciran. Mayaren bi aldeetan seinā urrezco ontci estalquidunetan ipintcen ciran. Apaizac baicic ecin iñore jan citzaquean, eta oyec ere lecu santuan bacarric, onela bere santutasuna adierazteco. Cuchāc, candeleroāc, aldareāc eta mayāc alboetan urrezco erraztun bina cituzten, Setin-go zurez eguindaco, eta urrez estalitaco abeac sartu, eta bidean ibilli bear ciranean, sorbaldan erabilli citzaten.

### 3. §.—*Ataria.*

Tabernaculoaren inguru gucian cegoan berroqueita amar cana luce, eta ogueita bost zabaleco atari, bost cana altu-

co iruroguei pillarec eguiten zutena; pillare oyec cillarrez estaliac, eta broncezco oñen gañean ipiñiac ceuden; eta pillare-bitarte gucietan sare ederrac zabaldua, oyetatic Jaina cegoan lecuia icusteco, eta bere Anditasuna alabatceco eta bedeincalceco. Atari onetan, Tabernaculoaren ate-aurrean, ceuden *Garbiquetaco ontci andia*, edo *broncezco itsasoa* ere ceritzana, eta sacrificioraco bear ciran gauza guciac ipintceco maya. Atariaz campotic estalpeac eguinta, Israel-co amabi Tribuac (guichienaz iru milloi) beren eran eta lau alboetan egoten ciran, Tabernaculoa erdian zutela, Jaincoa bere Erri autu aren erdian cegoala adieracitceco bezala. ¡Icusgarri ederra eguiatz, eta beguira cegozquion guciac arrituco cituenal

#### 4. §.—*Apaizac.*

Gauza guciac onela prestatuta, ofrendac eta beste lanac eguiteco Eliz-guizonac ere bear ciran. Lambide onetaraco Leviren Tribua edo echea ceucan Jaincoac autua, eta eche onetan Aaron eta bere seméac izan ciran apaizatzaraco esleituac, Aaron bera Apaiz-nagusi edo Aita santu zutela. Oyen janciac ere beren eguiteco andiari cegoquion eracóac ciran, batezere Aita-santuarenac, ceñac chit costu andico eta misteriotsuac ciran. Aita santuac bere eguneroco soñaren gañetic, beste zuri luce osoco edo joscura gabeco bat jazten zuen. Gueró beste nabar bat, ertzetan ezquilcho eta bola chiqui elcarri cichecatenacquin apaindua. Onen gañean ipintcen zuen *Efod* ceritzan, urrez eta colore ascorequin edertutaco janci labor beso gabeco, zati bat bularrera, eta bestea bizcarrera erortcen citzayona. Besaburuetan ceramazquien bi bertiste edo esmeralda, urrean sartuac, eta Jacob-en amabi semeen icenac, bacoitzean seinac escribatuta ceuzcatenac. Bularrean ceraman *Efod*-i urrezco bi caterequin erantsita, luce aimbat zabalzan cana laurdeneco baldi eder urrez josia, eta amabi arri baliotsurequin estalia. Arri bacoitzean Israel-co amabi Tribuetatic baten icena ceucan, eta gucien erdian itz oyec; *Icasiquizuna* eta *Eguia* eta ceritzan *Bularrecoa* edo *Pectorala*, Bu-

ruan ceraman arizeo chapela luce bat, aurre-aldetic beco-  
 quira urrezco baldi bat erortcen citzayona. Guisa onetan,  
 Aita-santuac bezala, gañeraco apaiz eta beste Eliz-guizonac  
 ere beren janci bereci chit baliotsuac cituzten.

Moises-ec, bada, icusi cituenean gauza guciac, Jaincoac  
 eracutsi cion bezala eguiñac, bedeincatu cituen; baita Apaiz,  
 nagusi Aaron ere consagratu zuen, olio santuarequin eta  
 ofrendaetaco abereen odolarequin igortciaz. Berebat  
 eguin zuen beste Apaiz eta Levitacquin, ceñac asi ciran  
 nor bere lecuac, Jaunari ofrendac esqueñtcen, eta beste eliz-  
 lanac, Moises-ec Jaincoari icasilā, eracutsi cien moduan,  
 eguiten. Aaron zan, Aita-santu bezala, lecu guciz santuan  
 sartu citequeana. Lecu santuraco ciran beste apaiz asco  
 aren ondorengoac; eta oyei laguntceco, atceragoco levitac  
 ceritzatenac. Jaincoac berac Moises-i eracutsi cion, norc,  
 eta nola, eta non agur-eguin eta adoracioac eman; eta neu-  
 rri oyetatic irtetea chit zorroztkuiró debecatu cion, adiera-  
 zoaz, etcegoquion lanean sartcen zanari, bere escu altsuac  
 laster uquituco ciola.

5. §.—*Nadab eta Abiud illac.*

Etzan luzaró egon bearrie izan, aguindu au eguiztatua  
 icusteco. Tabernaculoan Jaincoa incensatu bear zanean,  
 aguindu zuen, artaraco zan aldare gañean eguindaco su  
 bedeincatutic incensu-ontei edo incensonarioan ipiñi cedi-  
 lla. Aaron-en bi seme zarren Nadab, eta Abiud-ec aguindu  
 au ecertan artu gabe, beste su bat incensonarioan ipiñi,  
 eta incensatcen ari cirala, Tabernaculoan bertan ilda guel-  
 ditu ciran. Chimista cirudien su bat Jaincoac bialdu, eta  
 bi anayac illotzie utci cituen, gorputz eta jancietan uquitu  
 eta imurchi bat ere eguin gabe. Moises-ec, bat-batetaco  
 castigu izugarri au icusita, apaiz-guciac contuan ipiñi ci-  
 tuen, beren lanac, arren, ondo eguiteco, beste aimbeste  
 guertatu etcequiequen. Gorputz-illac beren janciacquin  
 Tabernaculotic campora aterazo cituen; eta Aaron eta bes-  
 te apaizac Tabernaculotic irtetea, eta naigabearen aditce-  
 rarie ematea debecatu cien, berac, ere il, eta beste gucien



gañera Jaunaren a serrea ecarri etcezaten, esanaz, negar eguitea ayei et cegoquiela, ezpada olioiz igortci gabeco, eta eliz-lanetan etceuden beste senide eta Israeltarrai.

Jaincoac Nadab eta Abiud-en iltecarequin Eliz-guizonen utceguiteac cein gaizqui artcen cituen eracutsi, eta gueró egun oyetan berebat adierazo zuen blasfematzalle, edo aren Icen santua aotan cerabiltenai cien gorroto eta igüina. Bi Israel-tar beren artean aserretu ciran, eta Jaunaren Icen santua batec aotan artu, eta gaizqui itzeguin zuen. Gaizqui-esale au Moises-i eramán cioten, eta itsian sarerazo cien, Jaunac cer nai zuen jaquin arteraño. Moises Jaincoari galdez joan citzayon, eta Jaunac aguindu cion, Israel-tarren artetic atera, eta arrica il cezatela. Ala eguin zuten. Castigu gogor onequin Jaincoac Israel-tarrai eracutsi nai izan cien, cein andia eta miña zan becatuarequin eguiten citzayon bidegalequeria, batezere mesederic andienac eguiten ari citzayozcan eguuetan; eta gueró ere cein bildur izan bear ciran.

6. §.—*Sina-co mendi ondotic irteera.*

illabete eta gueyago zan Tabernaculoa eta oni cegoz-quion gauzac consagratu, Jaunari ofrendac eta cacrificioac esqueñi, eta Moises-ec Jaincoagandic artutaco legue eta icasbideac eguiten ari cirala, odehyac adierazo cienean, Sina-co mendi gogoangarria utci, eta lur promesturonz abiatceco dembora bete zala.

Egniaz, Egipto-tic irten ciran bigarren urteco bigarren illaren ogueyea, Sina-co mendi-ondoan amaica illabete eguinda, gueró odeya, itzal eguiñaz egon zan Tabernaculoaren gañetic, aldatu zan bidean aurrena joan bear zan Juda-co Tribu edo echea cegoan toquira. Aldaqueta onequin ezaguta zuten, abiatceco ordua zala, eta prestatu ciran. Norc bere estalpe, etzauntza eta beste gauzac bildu cituen, Tabernaculoa ascatu edo desarmatu zuten: onen zati guciac Jaincoac eracutsita cencan eran estali cituzten, bidean aberi eta calteric izan etcezaten. Elcartasuneco eucha santa, candeleroa, maya eta aldareac berariaz

Ipiñitaco agaetatic Eliz-guizonac sorbaldan artu, eta abiatu ciran, Moises-ec beñere Cucha santa bere ondotic utci gabe. ¡Icusteco ederra, eta menturaz pareric munduan izan ezduena! Bi milloi eta gueyago lagun, sei eun eta gueyago milla armadunen artean cijoacen. Odeya ambat, gendea ere cijoan. Zar erori eta gazte bizcorrai, guizon sasoi oneco, eta sabelean edo besoan aurrac cituzten emacumeai, mutil guri-aci eta nescach mimerai, eri eta aurchoi, itz batean, guciai cegoquien donario ederrean cijoacen, odeya nora, ayec ará, lecuan-lecuan atsedenchocac, eguiten cituztela. Gautu edo illuntcean, odeya-lecuric obenean guelditcen zan; onequin aditcera emanaz, berac ere non guelditu bear ciran. Egunaz itzal bezala, gauaz argui eguiten cien, Janaz etzuten cer bururic autsi. Goizoró beren inguruan erorico citzayen maná gozoa biltcea asco zuten, nayerara bazcatceco. Ura beti sortcen citzayen. Oñetacoac, soñecoac, oyac, eta beste gauzac calte eta aberiric bidean etzuten. Gucien contua Jaincoac ceucan, eta Israel-tarrac bidade miragarri onetan etzuten donario onean bideari jarraitu baicic. Ala ere baciran cembat alper eta errazqueriari on-iriteita, guichic necatcen cituenac, eta lagunetatic aldeguin, eta Jaunaren contra erausiari eman citzayozcanac; baña-batean sortutaco suac erre eta quiscaudu cituen.

Ibilli-aldi onen irugarren egunean illunabarrean odeya guelditu zan, ondorengo egunetan an bertan egon bearco ciran ciñaleacquin. Beragatic Tabernaculoa eta oni cegozquion gauzac ipiñi cituzten, egon-aldi luceac eguiteco oi zuten eran, eta gendeac ere Tabernaculoaren inguruan estalpeac eguin, eta gauzac ipiñi cituen.

Etzan orainago aitatu dan cerutic jachitaco sua oraindic osotoró itzali, berriz ere Jaincoari aserretceco bideac ematen asi citzayozcanean. Israel-tarracquin batean Egipto-tic irtendaco cembat arrotz aurrena, eta oyen antzeco Israeltar esquerbageco batzuec urrena, asi ciran adierazten, Egipto-tic irtenaz damuturic ceudela: ango araguiac, arrayac, baberrumac, calabazac, porruac, tipulac, eta baratzurriac gogoratcen citzayeztela; au esan eta negar eguiten zuten. Moises-ec bide gabeco negar eta espadasun oyec adi-

turic, eta cerutic egunorò ceterquien janari gozoa ecertan artu gabe, Egipto-co ustel zatarrren eresia aguertcen zutela icusiric, bere onetic irten zan, esanaz; ecin au nic onean eraman det; gende onequin nic bacarric ecin dezaquet.

7. §.—*Sanedrin-en ipiñera.*

Jaincoa gende onen contra aserretu, eta Moises erruquitu citzayon, eta esan cion, irurogueita amar guizon elduenac autu citzala; bere eguinquizun andi gucietan languntceco; eta emendic dator Jesu-cristoren egunetan *Sanedrin* ceritzan batzarra, ceñac, Moises buru zala, langai andien guciac erabaquitcen cituen. Gueró Moises-i esan cion, maná miraritsuari esquerrie ematen etcioten ezqueró, biaramonean Egipto-co aragui-zaleai bialduco ciela gogoac ondo asetceco, eta aspertceco adiña aragui. Esan eta eguin; biaramonean ego-aice batec ilsasoaz beste aldetic gal-eper samalda izugarria eraman ciezten, eta Israel-tarren inguru gucian zabalduric, or-emen cebiltzan, buruetan alde-aldean uquitcen cietela, aisa atcitceco eran. Egazti-samalda ayec icusi cituztenean, nor bere estalpeetatic irten, eta egun artan, arratsaldean, eta biaramnean nai gucia atcitu zuten. Ondorengo illabetea vici izan ciran, gorde cituzten gal-eperren aragua janaz, Jaincoac Moises-i esan bezala, gogaitu eta goragaletceraño. Baña oraindic etcitzayen ortzetatic aragui-cutsua quendu, Jaincoac, ceruco janariaren truque Egipto-co zatarrac escatzen cituzten esquergaizto-co ayec, eriotza bat-batetacoarequin castigatu cituenean.

8. 2.—*Aaron eta Maria-ren espac, edo quejurac.*

Gueraldi onetan illabete eguin, eta Haserot-era joan ciran. Emen, nombait orainago icusi cituzten cigorrada gogórrac gogoan ceuzcatelaco, etciran morinorio eta gaizqui-esateari lecuric ematera venturatu: baña ala ere Moises-i etcitzayozcan naigabéac aitu. Aaron eta Maria asi ciran beren anaya Moises-en contra gaizqui itzeguiten, Moises-en emazteagandic oña arturic. Emacume au bere senarraren escualdi

andiac, eta Jaincoac eguiten ciozcan mesederic iensusita, bear baño gueyago, nosqui, arrotu zan: eta María eta Aaron-ec ecin eramamaz, esan cioten: ¿Cer bada? ¿Jaincoac Moises-i bacarri: itzeguin ote dio? ¿ezdigu guri ere itzeguin? Moises-en contra ere itzeguin izango zuten, ceren uste zuten emaztearenarroqueria etzuela bear bezala itzaltcen. Itzqueta onetan Maria gueyena nabarmenduco zan; beintzat, castigoric gogorrena berari etorri citzayon. Moises lurreco guizonic paquetsuena eta gozoena izanic, etzuen itzic ateraco, baña bere alde Jaincoa irten citzayon. Iru senidéac Jaincoac Tabernaculoronz deitu cituen, odei batean jachi citzayen, eta atean edo sarreran jarriric, adierazo cien, Moises, ayec ez bezalacoa, eta bere servitzarietan leyalena zala; argatic arpeguiz-arpegui, eta besteri ez bezala itzeguiten ciola. ¿Cergatic, bada, esan cien, cergatic etcerate icaratu nere servitzari Moises-en contra itzeguiten? Au esan, eta aserre vician aldeguin cien. Odeya ere ezcutatu zan, eta Maria leguenez edo lepraz josia arqitu zan.

Aaron-ec bere arreba ain nazcagarri icusi zuenean, Moises-i corrica joan citzayon, eguin cioten charqueriaren barcacioesque, eta esatera, arren, Jaincoarequicoa eguin cezala, lembailen arreba sendatceco; bada, dembora guichian gorputzaren erdia gaitzac jan ciola. Moises-ec bere arrebatic Jaunari erregutu cion; baña Jaincoac gaitzari gueyago jateco indarra quendu bacion ere, etcion orduan bereala leguenarra osotoró garbitu nai izan; eta gende artetic bazter battersa bota zuten, besteac cutsutu elcitzan, etalotsa gaizto onetan zazpi egunez egon bear izan zan. Castigu izugarri, guciac cecusten onec, Maria-ren arroqueria beeratu zuen; Aaron-i beguiac belico arguitu ciozcan; eta gañeracoac contuan ipiñi cituen, asco balio izan ezbazuen ere gaitz-icuste gucien azcor ayentzat. Aaron eta Maria-c etzuten gueroztic itz bat ere anaya Moises-en contra esan, eta bear zan beguirunearequin beti beguiratu izan cioten. Maria-c zazpi egun eguin cituen leguenarez josia, eta beragatic baztertua. Bitartean Israel-tarrac iñora gabe gueldi egon ciran; eta egun oyen buruan garbitu zanean, beretara artu zuten, eta odehyac adierazo cien abiatceco garaya zala.

¡Cein caltegarria dan inoren ona ecin eramana! Bi senide oyec cecusten Moises beren anaya Jaincoac mesedez belea; onore au ayei ere iristen citzayen; baña anayaren nagusitasuna ecin eramane, erausiari eman citzayozcan, Jaincoari aserrerazo eta castigu lotsagarri hura bialtcera ipintceraño. Eta ?Moises-ec charqueria au gogoanartu cieú?, ¡Cein guichi! Ayentzat harcacio Jaunari berac escatu cion eracusten digula besteren bidegabequeriac nola artu bear ditugun.

9. §—*Canaan-go berri-ecartzalleac.*

Langarren illaren bigarren egunean, odehyari cerraizquiola, Haserot-ic irten, eta arratsalde berean Canaan-go mugaco Retma ceritzan lecura joan ciran. Lur promestu artan sartceco atceneco prestamenac Jaincoac emen artu nai izan cituen; baña Israel-tar azcorrac Jaunaren itzac eta laguntza ecer guichian ceuzcaten, eta ango berriac lendanaz artu bear cirala, esan zuten. Escaera au Jaincoari etcitzayon ondo erori; aserretu zan: ala ere Moises-iguindu cion; amabi guizon zarren, amabi Tribu edo echeetatic bana, Canaan-go lurrera bialdu citzala, ango berriac ecartcera. Moises-ec ala eguin zuen; amabiac, bada bialdu cituen, aguinduric, ondo beguira cezatela, cer lur, eta cer guizon-modu ciran an vici ciranac; cer erri eta nola itsiac ceuden; lurra aberatsa eta ugaria ote zan. Oyec eta onelaco beste encargu asco emanic, atcenean esan cien, ango cembait jan-gauza ecarri citzatela. Mandatari oyec esana cintzoró eguin zuten. Canaan gucia nayerara icusi zuten: opa ciran berri guciac artu cituzten. Lambide onetaraco, beren aurrecoac lur artan vici izan ciranean, ango itzcuntza icasia eta semeai cerbait eracutsia, chit ondo etorri citzayen; eta beren contura artulaco lana ustez eguin zutenean, beretaronz itzuli ciran, berequin arturic picu andiac, mingrana edo granada ederrac, eta beste gauza asco: eta gucien azcarria zan mats-mordo izugarri bat, ceña agatzar batean ipiñita, bi guizonen artean eraman zuten. Lambide onetan berroquei egun eguin cituzten; eta be-

ren toquirá itzuli ciranean, Moises, Aaron eta Israel-tar guciai eracutsi ciezteen, cecarzquiten matz-mordo eta beste gauzac, ciotela, ¿ea cer izango zan alaco garañac eta frutac ematen cituen lurra? Moises guciac baño gueyago icusgarri ayecquin arritu zan; baña dembora berean atsecabe andia izan zuen, bi ez, besteac esan ciotenean, zorionecoac cirala, an sartu ezqueró; ordea ecin citequean asmoa zala, erri asco ceudelaco irmó eta sendó itsiac; eta guizon chit indartsuac gordetceen cituztenac. An icusi ditugu, cioten, Enac-en jatorrico guizon portitz izugarriac, ceintzuen parean euliac guñirudiñ, eta beguiratce utsac biotzie sendoenac icaratceen cituen. Ate eta sarrera guciac itsiac daude, eta inondic ere ecin dezaquegu bideric idiqui. Berri oyc artutacoan, Israel-tarrac asi ciran beti bezala gaizqui-esaca, eta asaldatceen. Orduan Caleb eta Josué beste amarrequin Canaan-en izan ciranac, esan oyc guezurtatu nai izan cituzten, ciotela, alacoric etzala; bide gabeco itzqueta eta icaratu-nayac cirala; ará joatea erabagui cezatela, eta jabe eguingo cirala; eta ogui-cerra bat jan bezain erraz eta aisa gucia menderatuco zutela: bada, Jaincoa beren alde izan ezqueró, inoren bear etcirala. Bi oycen esan-alac ecer etciran, beste amarrai arpegui emateco, ceintzuec deadar eguiten zuten, icusia icusiric, lur artzaz jabetcea ecin cezaqueten lana zala.

Atcenean Israel-tarren artean mormorio andi bat sortu zan; negarrari eman citzayozcan, Moises eta Aaron-i esanaz, obe zutela Egipto-n il baciran, edo beren ezurrac basomortuan utci, ecen, ez lur artara joanda, berac ganibataen aoan il, eta emazte eta humeac catibu guelditu. Elcarrri esan ere bacioten: Buru berri bat artu dezagun, eta Egipto-ra goacen. Moises eta Aaron-ec au entzun zutenean, Israel-co guciñen aurrean auzpeztu ciran, eta Caleb eta Josue-c gende asaldatu hura gozatu eta paquetceco, lengo aleguñac berritu cituzten; baña alperric. Berriró deadarrari eman, eta arrica erasotceco asmoac artu cituzten. Onetan cebiltzala, Jaunaren Gloria Tabernaculoaren gañean aguertu zan. Itzal eguñaz oi cegoan odeya sutu zan, adierazten zuela Jaincoaren aserre santua esquer gaiztoco ayen con-

tra, eta osó ondatu nai cituelaco antza. Israel-tarren griña zan, gaiztaqueriaren bat eguinda, Jaincoac ez-icusi eguiten cienean, lotsagabetuagotcecoa, eta bere escuác cerbait uquitcen cienean burúac macurtcecoa. Orain ere griña oni cerraizquiola, icusi zutenean odei sutu chingárrac cerioz-cana, orduco ayen otsac, quea bezala, deseguin ciran, eta nor bere toquirá ezcutatú zan.

### AMARGARREN IRACURGAYA.

#### 1. §.—*Jaincoac Israel ondatu nai, eta Moises-ec atceratcen du.*

Jaincoac icusiric, esquer gaiztoco gende arequin etce-goala ecer eguiteric, erabaqui zuen atcen-ondamena bial-teca. Moises-i esan cion, bada, izurrite batequin jo, eta ondatu bear zuela; baña bera gende hura baño andiago eta sendoagoaren buru eguingo zuela. Jaunaren esan onec Moises-i biotza illundu cion. Gaiztaqueria eta gaiztaqueria baicic gende arc eguiten ezbazuen ere, Guidari andi onec asco nai cion, eta bide onera zulentzea zan bere eresi gu-cia: argatic Jaunari berriró aren alde erreguca jarri citzayon, eta esaten cion, Igitoac icusi zutela, cer eta cembat mirarien bitartez Egipto-tic mortu artaraño, ecarti cituen; eta baldin Canaan-go lur anciñatic gurasoai esqueñi eta aguindulacoan sartcen ezbaciran, esango zutela, sartu ecin, eta eremuan il cituela, eta onelaco beste milla erausi eta berriqueta erabillico cituztela. Atcenean berriz eta berriz ere escatu cion, arren, bere erruquimertu andiari beguiratuta, beren becatua barcatu citzayela.

Moises servitzari leyal onen erregua Jaunari errayetan sartu citzayon, eta erantzun cion: gende onen becatua zure erreguacgatic barcatua dago: baña esan cion, bere Andita-suna eta mirariac Egipto-n eta eremuan icusi arren, aren esanic eguin nai izan ez, eta beraren contra itzeguin zutenetic etzala bat ere lur esqueñian sartuco. Esan eguiezu, bada, cion, zuen gorputz-illac bacardade onetan gueratuco dira; oguei urtez goraco nigatic gaizqui-esaca egon cera-

tenoc, etcerate vicilecutzat eman nai nizuten lurrean sartuco; baña bai, etsayen escuetan utci bildur ciñaten zuen semechoac, zuec on-iritei etciñioten baztera icusi dezaten. Zuen semeac baso-mortuan or-emen ibillico dira, gurasoen gorpútzac lurrác jan ditzan artean. Esana eguingo del: bacardade onetan auldu eta ilco dir i.

Moises-ec esan cienean, Jaincoac cer itzeguin cion, negarrari eman citzayozcan: ezagutu zuten, cigorrada hura ondo irabacia zutela, baña Jauna etzan atceratu; cer eguin, erabaquia cegoan. Lembicico jo cituenac ciran amar berri-ecartzalle, gendeari asaldaerazø-cioten ayec, ceintzuec gucien aurrean ill-otzie guelditu ciran. Colpe izugarri au emanda, uste izan citequean, Jaunaren escu itzaltsua gueldituco zala, bat-batetaco eriotzaric gueyago eman gabe; baña ez; asaldatu ayec berac beren iltcea aurreratu zuten. Lenago bildurti bezala, gueró ausardia gueyeguirequin Canaan-era joan nayenean aguertu ciran. Jaincoac Moises-en bitartez aguinduta, len sartu nai izan etciranac, gueró Jaunac nai etzuela, eta Moises-ec gogor eguiten ciela, indarrez sartu nai izan ciran; baña bereala etsimenarequin arquite ciran. Sartcen asi bezain laster, Amalec-tar eta Canaan-goen escuetan asco milla guizon il ciran, iguesari eman citzayozcan elbarri eta baldartu banaca batzuec baicic viciric guelditu gabe. ¡Orra cer dacarren Jaunaren laguntza bere alde ez izanac! Guertaera icaragarri onec negar andiac eraguin cituen, eta gucien biotzetan izu-icara gogorra sartu zuen. Egun batzuec artu cituzten, elbarri igueslari ayen zauriac sendatceco, eta naigabez eta penaz beteric baso-mortuaren biotzera itzuli bear izan ciran, bacardade illun artan beren egúnac igaro, eta milloi bat eta gueyago lagun Canaan-go lur atseguíñezcoaren mugaraño joan, eta sartceco escua beren gaiztaqueriacquin galdu zutenac, ezúrrac uztera.

Mingarria zan menaz, Jaincoac aimbeste mirarien erdian Egipto-co morrontzaric gogorrenetic atera, ain bide lucean lagundu, eta beren guraso antciñacoai esqueñitaco lur eder aren ateetara ezqueró, sartu gabe itzuli bearra. ¿Cergatic ote? Jaincoagan uste eta esperantzaric artcen e-



izutelaco. Gogo gaiztoz bederic, eremuaren erdira biurtu ciran bada.

2. §.—*Jayeco languillearen castigua.*

Isrrael-tarrac ogueita emezortci urte eremuaren erdian igaro cituzten. Bitarte luce onetaco gora-beerac eta guerlaerac esatea erraz ez da. Escritura Santac lembici esaten diguna, jai-egun bateco languillearen castigua da. Israel-tarrac Moises eta Aaron-iguizon bat eraman cioten, esanaz, jai-egunean egur-biltcen arquitu zutela. Itsian sartu zuten, eta guizon oni cer eguin etciequitelaco. Moises-ec Jaunari galdetu cion, ea cer eguin bear citzayon: eta Jaincoac erantzun cion, beren vicilecutic campora eraman, eta arrica il cezatela. Ala eguin zuten. Eguiquera onequin Isrrael-tarrac eracutsi zuten Jaunaren legue santa gordenaya gauza gucietan izan balote, Moises beren buruac etzuen aimbeste eramanquizon izango; baña onequin eman cioten pozac. etzuen luzaró iraun: bada, egun guichiren buruan, arteraño izan cituen naigabe gucien azcarria, sortu citzayon. Jaincoac ipiñiac ciran Moises Israel-tarren libratzalle eta buru, eta Aaron Moises-en laguntzalle eta Aita-santu; au gauza jaquiña, eta mirari scoren bitartez Israel-en icasia zan: baña lecu gucietaco gaitz aguindunaya an ere bazan; eta Coré, Datan, Abiron eta Han beste berreunda berroqueita amar lagun, nagusientsuen arlean eguñic, Moises eta Aaron-en contra jaiqui ciran. Datan eta Abiron-ec Moises-i nagusitza berentzat quendu nai cioten, ciotela: ?Nore gende oni aguintceco escua eman dizu? Oraindaño-coa asco da bada: zu ere, besteac bezala, aguinte gabe izan zaite. Coré-c apaizatza Aaron-i quenduta, beretzat nai zuen, hura ere Levi-ren jatorria zalaco; bada, cioten, odol onetaco guciac santutuac cirala.

Moises-ec asaldatce au icusiric, Jaunari auzpez jarri citzayon escatcen, esturasun artatic, arren, atera cezala. Jaincoac esquea aditu cion, eta uste oso-osoarequin jaiqui zanean, aurrean etzuen iñor icusi Coré bere berreunda berroqueita amar lagunequin baicic. Datan eta Abiron

berenarequin irteteco lagun gueyago eguitera joanac ciran; eta Han etzan ostera aguertu. Orduan Moises-ec Coré eta bere lagunai esan cien, biaramonean icusico zutela, Jaincoarenac edo languintza artaraco Jaincoac autuac cein ciran. Zu, Coré, eta lagunoc, esan cien, incensu-ontciac escuan artu, eta Jaunaren aurrean, incensua suan ipiñi ezazute, eta berac esango du, santuac cein diran.

Moises-ec ezagüeran sarerazo nayez, aleguiñac eguin cituen: Coré, eta bere lagunai berriz ere itzeguin cien, esanaz; ¿ea Jaincoac Tabernaculoan bere servitzoac eguiteco, eta gende guciaren aurrean egoteño autuac izatea ecer guichian ceucaten? ¿Cer? ¿Jaincoac bere ondoraño sartceco escua eman dizute, apaizatza bera ere gueró cerendu nayez ibiltceco, eta Jaunaren beraren contra alchatceco? ¿Cein da Aaron, zuec gaizqui-esaca erabiltceco? Baña eguinal oyec alperric ciran. Coré-c indarrez nai gucia eguin uste zuen; beragatic gortua cegoan, Moises-en ondo-esanac aditceco.

Moises-ec etsiric, etzuela Coré eta bere lagunacquin ecer eguiten, Datan eta Abiron-i beren egon-lecuetara mandatariac, bialdu ciezen esatera, etorri cequizquiola, eta ayen escaeraren gañean elcarrequin itzeguingo zutela; baña gaztigua elcioten ecertan artu. Ez goaz, erantzun zuten. ¿Moises-i guichi deritza eznea eta eztia ceriozcan Egipto-co lurretic emen baso-mortuan iltceco ateratzea, bere mendean ezbagauzca? Ez goaz, ez. Jaincoagandic artutaco mesede guciac oñ-pean artcen cituen erantzuera lotsagabe onec; Egipto-n izan zuten murrontza gogorrari eznea eta eztia deitzen cion erantzutera onec, Moises-en biotz goñoa osotoró lastu zuen; baña etzuen besteric eguin, ezpada Jaunaren escuetan bere ustea ipiñi, eta berriz ere Coré eta bere lagunai joan citzayen, eta esan cien, len itzeguiña eguitemeco prestatu citecela. Biaramonean Moises bere anaya Aaron-equin Tabernaculoaren atarira joan zan; baita Coré ere bere lagunacquin. Beste asco ere an bildu ciran, batzuec icusmirara, eta besteac asaldatu ayei, premia bazan, laguntcera.

3. §.—*Coré, Datan, Abiron, eta lagunen ondamena.*

Jaincoa bereala adierazo zan. Tabernaculoari itzal eguiten cion odeya bat-batean aguertu zan, arguia eta chimistac ceriozcala, eta ots batec Moises eta Aaron-i esan cien, billera artatic aldeguin cezatela, beste guciac ondatuac izan citecen. Moises eta Aaron auzpez jarri, eta Jaunari escatu cioten, etcitzala batzuec besteacgatic galdu. Jaincoac orduan Moises-i aguindu cion, Coré, Datan eta Abiron-en vicilecuetatic gende guciac quentceco. Israel-co guizon elduenac berequin Moises-ec artu, eta joan zan, Jaincoaren esana eguitera. Datan eta Abiron-en estalpe-ondoan jarri, eta cer guertateen zan icusi nayez, ará joan ciran guciai esan cien, andic aldeguin cezatela, eceri ere uqitu gabe, angoaquin batean galdu etcitecen. Atce guciac bereala igueseguin zuten, eta Datan eta Abiron beren eche-atarietan jarri ciran, iñor bacijoaquien gogor eguitoco asmoan: baña aucia etzuten Moises-equin, ezpada Jaincoarequin. Datan eta Abiron-en oñ-peco lurra, ots izugarri bat eguiñaz idiqui, eta vici-vicirie ondatu ciran bérac, beren emaztéac, seme-alabac, mirabe, abere, eche.... itz batean, cegozquien guciac, eta etzan Israel-en ayen aitamenic gueyago eguin. Ingurucoac ondamen izugarri au icusi zutenean, iguesari eman citzayozcan, nora eta nola etciequitela, lurrac jan citzan bildurrez. ¡Cer negargarria aimbeste lagun beren oben-culpaz galtcea! Baña Jaunaren escu zucena etzan onetan guelditu. Moises bereala Tabernaculora joan zan: eta Aaron eta beste apaizai bacarric cegoquien incensatzeco laguintzan, Coré eta bere lagunac asi ciranean, Coré lurrac iretsi edo tragatu' zuen, eta su izugarri bat-batean sortu zana, bere berreunda berrogueta amar lagunac quiscaldtu cituen. Guero Eleazar, Aaron-en seméac, gorputz icaztuen artean ceuden incensu-ontciac artu, eta ate-gañ batean josi cituen, Coré eta bere lagunai guertatua gogoan izan cezaten, eta etcegoquion elizlanetan sartu nai zuen beste edocein escarmentatu cedin.

Castigu izugarri oyec, Isaael-co guciac icusi cituzten;

eta berriz alacoric ez etortzeco bideac itsi bearrean, Moises eta Aaron-en contra itzeguileari berriró equin cioten. Biaramonean bi anaya oyec Tabernaculoaren atarira joan ciran, eta Aaron eliz-lanetan asteco bere apaiz-soñecoac janciric cegoala, aurreco egunean ildacoen aide eta adisquideac elcar-artu, eta Moises eta Aaron-en contra deadarri eman citzayozcan, ciotela; gure anayaen borreroac zuec cerate, eta gueratuco etcerate alic eta Jacob-en atce-neco odola isuri arteraño. Aide eta adisquideetatic gañeracoetara ere iscambilla zabaldu zan; nondic-nai etcetorren otsa eta dearra baicic: eta Moises eta Aaron iguesi Tabernaculoan sartu, eta Jaunaren escuetan jarri ciran,

Emen sartu orduco, odehyac estali zuen, eta Jaincoaren aserrea aguertu zan. Moises eta Aaron-ec ezagutu zuten, gende gaizto arentzat gauza onic etzala. Jaincoari bein eta berriz escatu cioten, arren, gende arren erraquimentua izan cezala: baña Jaincoac etcien aditcen. Moises-ec, bada, iguerriric atarian cerbait bazala, auzpez ceuden lecuán Aaron-i esan cion; jaiqui zaite, incensu-ontcian sua ipiñi, eta gende ari zoazquio, suaren erdian zar-zaite, eta beraren alde Jaunari esca-zayozu. Aaraon bere apaiz-janciacquin, incensu-ontcia escuan zuela, irten zan, eta gende gucia icusi zuen, su eta gar ceriola; il eta vicien erdian sartu eta sua itzali zuen; baña orduraco amalau milla eta zazpireun lagun quiscaldu ciran.

#### 4. §.—Aaron-en cigorra.

Esan diran guertaera negargarriacquin Jaincoac garbiró adierazo bazuen ere, apaizetaco autuac Aaron eta bere humeac cirala, are obeto ezagutu cedin, sinisgarri berri bat eman nai izan zuen. Moises-i aguindu cion, Israel-co amabi Tribuetaco nagusi edo Principeen escuetatic amabi cigor artu citzala, eta nori bere nagusiaren icena ipiñi cizayola: bere Tribucoarenarequin au bera eguin cezala: cigor oyec Tabernaculora elcartasuneco cucha-aurrera eramán citzala, eta apaizatzaraco autua cegoanaren cigorra loretuco zala. Moises-ec Jaincoac aguindua gucia eguin zuen: eta

iñore cer esanic izan etcezan, gau gucian contuartzalle asco zai egon ciran. Biaramonean Moises, guciac cecustela, Tabernaculoan sartu zan, eta Aaron-en cigorra bacarric arquite zuen ostoz jancia eta lorez betea. Cigor guciac atera eta nori berea eman cion, eta eraman cituzten: baña Aaron-ena Jaincoaren aguintuz Cucha santan gorde zan, beti jaquin cedin, apaiz-izatea Aaron eta bere jatorquiari, cegoquiela. San Ambrosio-ren iritecian cigor onec, Cucha santan egon zan dembora luce gucian, bere osto, lore, eta garatiacquin irauñ zuen.

5 §—*Israel-tarren Canaan-ondora itzultzea. Maria ren e-riotza.*

Israel-tarrac icusi cituzten castigu icaragarriacquin, noiz-bait bear da, cerbait centzatu ciran; ezdaquigu, beintzat, eremuan vici izan ciran beste oqueita amazapi urte eta gueyagoan, iscambilla berriric ipiñi zutenic. Bitartean Canaan-go lurgozoa ecertzat artu etzutengueyenac, ilccu cijoacen. Onela, Jaunaren itza betetceco ordua, bacetorren: eta Egiptotic irten ciranelic berroqueigarren urteco lenengo illean, Cades ceritzan Canaan-go muga-ondora itzuli ciran. Moises-ec emen naigabe andi bat izan zuen; bada, Maria bere arreba maitea il citzayon. Moises-ec iltece onequin cer atsecabea artuco zuen ezagutceco, ezdago beguiratu baicic, bere neque eta ibillera gogor gucietan cein lagun ona izan zuen. Eriotzatic Maria-c gorde zuen, sasquichoan sarturic ibai ondoan ipiñita: bere ama eguiazcoa inudetzat Maria-c eratu cion; Egipto-co neque gucietan Maria jarraitu, eta catibutasun gogorrean Maria-c lagundu cion: ytsaso gorria igaro zutenean, Jaunari esquerac ematen eta alabatcen, emacume gucien buruan Maria jarri zan: bera izan zan Igarta edo Profeta, Jaincoac gauza-isill asco aguertcen ciozcana, eta gaizqui-esale batzuen artean vicita, anayaren contra bein cerbait esan bazuen ere, umiltasun andiarequin castigua nocitu zuena: Maria izan zan, bada, doncellatasuneco vicimodu garbia lembici artu zuena: eta atcenean bere bi anayaen escue-

tan eunda ogueita amar urtecoa il zan, santa bezala.

Moises-ec atsecabe andi onen ondoren, etzuen izan ariñagoa, Cades-en Israel-tarrac berriró eman ciotena. Len-lengo erausi eta gaizqui-esateac berriztu cituzten, ¿Certaco Egiptotic ecarri guinduzun, Moises-i ciotsaten, ez picuric, ez matsic, ez mingranaric izaten dan, eta uric ere ematen ez duen lur elcor onetara? Moises eta Aaron, espadasun eta quejura oyec entzun cituztenean, Tabernaculoan sartu, eta auzpezturic, Jaunari ur-esque jarri citzayozcan, onequin aseta, isilldu citecen. Jaincoac entzun cien, eta Moises-i agindu ción, cìgorra artu, eta gende gucia bildu cezala: gueró berac eta Aaron-ec, arriari, guciac cecustela, itzeguiteco, eta ura aguertuco zala. Moises ec, bada, aimbeste mirari eguindaco maquilla Cucha santaren ondotic arturic, aurean ceucan arrian, bialdiz jo zuen, eta ur gozo ugariac eman cituen iturri bat sortu zan, eta asetceraño edan zuten.

Onequin orduco oyen erausiac isilldu ciran; baña Moises-ec Jaincoaren beguetan eguin zuen utseguite bat, bi anayai chit garesti irten citzayena. Jaincoac, bacarric esan cien, arriari itzeguiteco, ez jotcecoric: baña bein, ez ecic, birretan ere, beingoan uric eman etzuelaco, jo zuten, eta Jaincoac etcien ondo artu, ceren adierazten zuten, itzeguite utsarequin ura sortuco zanic etzutela uste. Gueró Jaincoac esan cien, cergatic aren agindua, arc esan bezala, eguin etzuten, lur gozo anciñatic esqueñian, etcirala sartuco. ¡Berri mingarria! Israel-tarren bi guidari ayec, Egipto-co catibutasunetic ateratceco lana beren contura eman citzayen ezqueró, izan cituzten neque eta eramanquizon guciac arinteen ciezen, noizbait ere atseguñetaco lur gozo artan sartuco ciralaco pozac: eta orain, arà gabe ilco cirala, Jaunaren beraren aotic entzuteac, bi anaya ayen biotzac osotoró illundu cituen: ala ere Jaunaren esanari burua umilquiró macurturic, arterañoco leyaltasun berarequin beren lambideari jarraitu citzayozcan.

6. §—*Aaron—en Eriotza.*

Moises—ec eunda oguei urte cituen, eta Aaron-ec iru

gueyago, lur esqueñian sartuco etciran berria artu zate-  
nean. Albista au Aaron-en aldetic laster eguiztatu zan.  
Israel-tarrac Cades-en iru illabete luceac eguin cituzten;  
laugarrenean Mosera-ra Hor-co mendi-ondora aldatu ciran  
Emen ceudela, Egipto-tic irten ciran berroqueigarren ur-  
teco bostgarren illaren lenengo egunean, Jaincoac Moises-  
i esan cion, Aaron eta onen seme Eleazar-equin Hor-co  
mendira igo cedilla, eta apaiz-soñecoac Aaron-i quendu-  
ric, Eleazar-i jazteco, eta Aaron an il bear zala, Moises-  
entzat bere anayaren iltcea naigabe andia zan: ala ere,  
Jaincoac aguindu ciona eguin zuen: eta Aaron-ec, ezba-  
zuen ere, ez bere osasunean, ez bere indarretan, eriotza  
berealacoaren aztarnaric ezagutcen, Jaunaren esana gogo-  
an artu, eta atcen-orduari paque oñean ichedon cion. Moi-  
ses-ec soñecoac aitari eranci, eta semeari janci ciozcanean,  
berealala anaya eta semearen escuetan Aaron il zan. Eun-  
da oqueita iru urtecoa zan; oyetatic larogueita iru Egipto-  
co morrontza gogorrean, eta beste berroqueiac Aita-santu  
lanetan, eta bere gende maiteari on-eguiten igaro cituen.  
Moises baño zarragoa bazan ere, anayari beti nagusizat  
beguiratu izan cion. Anaya il citzayonean, Eleazar Apaiz  
berriarequin Moises errira jachi zan; eta Israel-tarrac Aa-  
ron-en ilberria artu zutenean, negar-malco miñac isuri ci-  
tuzten, eta oqueita amar eguneco progua eguiñ cioten.  
Mendi berean, cegoquion onorearequin gorputz-illla lur-  
petua izan zan.

7. §.—*Arad-co Erreguea, eta bere ondamera.*

Israel-tarrac Moseran baceuden, bideari equiteco ode-  
yac noiz adieracico cien begira, izu-icara gogorra auzoe-  
tan zabaltcen zutela. Artu bear zuten lur edo bazter aye-  
taco Erreguéai, alaco gendetza eta aimbeste armadun  
ateetan idaquitceac buruaustericasco ematencien. Gueye-  
na bildurteen zana, Arad-co Erreguea zan, ceren bere  
erreinua zan, Israeltarrac arquitcen ciran lecutic lenengo  
cegoana. Erregue onec, bada, etsai portitz ura bere atari-  
tic quendu nayez, alda-aurrea arturic, Israel-tarraí eraso

cien, alaco gauzarie gogoan etceucaten garayean, eta lenngo sarreran goyartu cien edo venzutu cituen, eta cembat banaca atcitu ere bai. Orduan Israel-ec Jaunari, Cananeo-en erriac osotoró ondateco itza, eman cion, baldin aren escuan ipinicen bacituen. Jaincoac esqueñtza au ondo artu cien: erabaquita ceucan, alabañ, Canaan biurriaren ondore gucia galtcea, Sem, Abraham, Isaac, Jacob, eta oyen ondorengo Israel-tarrai, Sem asabaren aldetic leguez eta bidez cegoquien lurraz jabetu, eta besterenean vici ciralaco.

Eguiaz, Israel-tarrac Jaunaren laguntza berequin zutelaco uste osoarequin, Arad eta bere gendeari berriró eraso cieten; eta Erregue bera il, eta bideco erri guciac erre cituzten.

Andic egun batzuetara, odehyac abian ipiñi cituen, eta Seirco mendiac-beera Itsaso gorrironz joan ciran, or-emen ibilli batzuec eguiten cituztela; baña ceramazquiten bideac, opa zuten lecuraco laburrenac ez bide ciralaco, lengo erausi eta gaizqui-esateac berriztu cituzten. ¿Certaco Egipto-tic eremuan ilcera ecarri guindozun? Moises-i cerasaten. Emen ez oguiric, ez uric dago, eguneroco maná aulac gogoan jo gaitu. Moises-ec etzuen uste, aimbeste aldiz castigatuta, gueró erausi oyec berritceric; baña Israel-tarren grña certara zan icusia cegoan. Ala ere, aldi onetan artu zuten cigorradarequin, nosqui, centzatu ciran, edo len-lengo murmuratzalle guciac il ciralaco, edo berriac osotoró izutuac guelditu ciralaco; etciran, beintzat, gueyago erausietara.

8. §.—*Suguezco castigua.*

Jaincoac, bada, mingañ gaizto ayen castiguraco bialdu cituen, sua cerioten sugue taldeac, ceintzuen miztoac uquitzen zutena, quiscaidu eta illic gueratzen zan. Icusiric, epe laburrean guciac ilcera cijoacela, Moises-i joan citzayozcan, esanaz; Jaincoaren eta zure contra itzeguiten, gaizqui eguin degu. Moises Jaunari aurrean jarri citzayon gende damutu onen alde barcacioa esque, eta Jaunac bere



escaria entzun cion. Aguindu cion, metalezco sugue bat eguin cezala; eta sugue an icusten zuten guciac, beste pozonizeo ayec uquituta egon arren, sendatuco cirala. Moises-ec ala eguin, eta nondic-nai icusten zan lecu erpin batean ipiñi zuen: eta berari beguiratu utsarequin, ozcatu eta zauritu guciac sendatcen ciran. ¿Cer ordea? Metala urtu eta suguea eguin bitartean, lur esqueñian sartuco etcirala, Jaincoac ogueita emezortci urtez lenago esan cien guci-guciac, il ciran, Jaunaren esana cearó betelcen zala, eta orduco gaiztaquerian cutsutu gabeac, eta gueróztic jayoac bacarric guelditcen cirala.

¡Cein egoqui, lecu erpin batean ipiñitaco suguearequin, Jaincoac lenagotic adierazo zuen, noizbait gurutcean goratua izango zan munduaren Sendatzallea! Sugue ura icusiac, sugue pozonizeoen ozcada guciac gorputzetan sendatcearequin, eracutsi citzazquigon, Jesus gurutcecoac gure animaetan eguingo cituen sendatce miragarriac. Israel-tarrac etcioten, cer esan nai zuen, iguerri; baña guerózticusi zanarequin, garbiró ezagutu zan, certaco zan.

## AMAICAGARREN IRACURGAYA.

### 1. §.—*Balaan Profeta,*

Bete bide zan, Israel-tarrac beren lur esqueñira joateco, Jaincoac erabaquita ceucan ordua: irten ciran, beintzat, odehyac ala eracutsirit, aimbeste lagun illac uzten cituzten lecu gogoangarri onetatic. Laster arquitu ciran, Hesebongo Erregue Sehon-i eta Basán-go Og-i arpegui eman bearean, ceintzuec beren gende guciarequin batallan il, eta bi erreinnen jabe Israel-tarrac gueratu ciran. Balac Moabco Erregueac icusirie, bi aurrecoai Israel tarracquin cein gaizqui joan citzayen, bildortu zan eta etsi zuen, arentzat ere patu bera cegoala, Madian-tarracquin elcar-artcen ezbazuen. Esturasun onetan, bada, Mandian-tarraí bere asmoa aguertu cien. Madian-tarrac ceucaten azti ots andico bat, *Balaan* ceritzana, ceñac Madian-tarren usteetan, naiz bedeincatceco, naiz madaricatzecco escua bazuen. Balac

eta Madian-tarrac, bada, baturic, Balaan aztiari gaztiga-  
tu cioten, baldin Egipto-tic irtendaco gendedi bildurgarri  
hura madaricatcen bazuen, escueracutsi andiac emango  
ciozcatela. Balaan diruzaleguia zan, ain era ona nola-nai  
galtceco; baña icaratcen zan, Jaincoagandic aimbeste la-  
laguntza artutaco gendea madaricatcen, eta mandatariái  
esan cien, gau bat ichedon cezatela, Jaincoac cer nai zuen  
jaquin artean. Biaramonean esan cien, Jaincoac hura  
ayecquin joateric etzuela nai. Bi Erregueac ezezco au artu  
zutenean, escaera berarequin mandatari andizquiagoac  
berriró bialdu ciozcaten: baña Balaan-ec bigarrengoan  
erantzun cien, urrezco eta cillarrezco eche bat ematen ba-  
cioten ere, Jauna-ren itzic ecin autsi cezaqueala: ala ere,  
gau artan egon citecela; eta cer eguin, Jaincoari galdetu-  
co ciola. Balaan-ec baciequien, Jaincoac cer nai zuen; ba-  
ña galdez jarri citzayon, menturaz bere gogora erantzu-  
ten ote cion. Jaincoac utci cion, bada, nai zuena eguin ce-  
zan, eta diruác biotza beretu cion.

## 2. §.—*Balaan-en astoa.*

Biaramonean-goiz mandatariái esan cien, bacijoala, eta  
gaztigu onequin Erregueagana aurreratu citecela. Balaan  
bere asto-gañean donario andiarequin bacijoan, eta bide-  
ra irten citzayon aingueru bat, Balaan-ec icusten etzuená,  
astoc bai ordea; eta ezpatarequin aurrean jarrita, bidea  
isten ciolaco, astoa bidetic ceacatu zan, eta corricari  
eman cion. Balaan-ec joca zucendu nai izan zuen, baña  
alferric; eta paret-arte bat igarotcean, ainguerua berriz  
ere aurquez-aurque jarri citzayon, eta ecin bestean, astoa  
etzan zan, eta Balaan-ec are gueyago jotcen zuen. Orduan  
Jaincoac, oi-ez bezalaco, eta menturaz bestetan aditu ez  
dan miraria eguin zuen. Astoari itza eman cion, eta astoa  
nagusiari itzeguiten jarri citzayon, ciotsala; ¿cer eguin di-  
zut? ¿certaco jotcen nazu? Balaan-ec, guizonarequin itz-  
quetan bacegoan bezala, erantzun cion: cergatic mereci  
decan. Orduan Balaan-en beguiac zabaldu ciran, eta icu-  
si zuen bidea isten zuen ainguerua. Balaan auzpez jarri

zan, eta bere gaizqui-eguiña ezagutu zuen, eta aingueruari esan cion, Jaincoac nai etzuen ezqueró, etzala aurreronz joango. Zoaz oriecquin, aingueruac erantzun cion: beguirra, ordea, esan, nic eracusten dizudana baicic. Balaan aztia Balac Erregue eta bere lagunac chit ondo artu zuten; eta lembaitlen Israel-tarrac madaricatuac icusteagatic, eramua zuten mendi-gañ batera, emendic bere madaricacioa ezarri cizayen; baña Balaan, aingueruac eracutsi ciozcan esanetic, etzan irten: madaricatu ordean, bedeincatu cituen. Gueró etorquizun asco, bere beguiacquin icusiac bezala, asmatu cituen. Balac Erreguea Balaan-en contra chit aserretu zan, eta aguindutaco escueracutsi eta sari andiac ere etciozcan eman nai izan, eta Balaan batere gabe utsic guelditu zan.

Balaan dir izalea aberasteagatic edocein gauza eguingo zuena zan: ala ere, Jaincoac escua nola lotua ez daucan, etorquizunac asmatceco; doaya, onai baicic ez emateco; oi ezbadu ere, doai au oni eman cion, eta doai onen bitartez, gueroco urte eta demboraetan guertatu ciran gauzac asmatu cituen. Au Jainco eguiazcoaren icenean eta escubidearequin eguin zuen; baña deabrua ló etcegoan, eta madaricatceco escuric izan etzuen ezqueró, eraguin cion beste gauza bat, Isrrael-tarraí ondamer andia eman ciena.

### 3. §.—*Balaan-en eracutsi gaiztoa.*

Balaan-ec, bada, Balac Erregueari esan cion, Isrrael-tarrac arrotzacquin artu-eman gucia, batezere erlegioco gauzaetan, eta emacume atceacquin adisquide izatea, debecatua ceucatela; eta auzo bildurgarri argandic lasatu nai bazuen, Moab eta Madian-en arquite al-citezquean emacumeric ederrenac, ondo apainduta, ayec cebiltzan, edo icusi cizaqueten lecura bialdu citzala. Au eguin ezqueró, laster cutsutuco cirala, eta Jaincoac escutic utcico ciela, eta Jaincoaren laguntza gabe arquiteen ciranean, aisa ondatuco cituela. Moab-co Erregueac eracutsi biurri au eguin zuen; eta Israel-tarrac sarean laster erori ciran. Emacume eder ayec, cerbait saltceco aitzaquiarequin, Israel-eronz

joan ciran; Israel-tarrai beren jolas eta dantzactara deitu cieten; Isrrael-tarrac emacume ayen edertasuna icusiric, adisquidetasunac eguin cituzten; itsutu eta lilluraturic, lasaiquerian nastu ciran; eta atcenean Moab-co jainco guezurrezco Beelfegor-i, eguiazcoari bacarric zor zayon adoracioa, eman cieten. Moab eta Madian-goac Israel-co vicilecuetan sartu ciran, eta naste galgarri au Tabernaculoaren ondoraño zabaldu zan.

4. §.—*Gaiztaqueria onen castigua,*

Orduan Jainco guciz aserretuac Moises-i esan cion, Israel-co lenen edo Principe guciac eguzquitan cincilica ipiñi citzala. Jaunac aguindu au, nosqui, eman zuen. edo bérac cutsutu ciralaco, edo bestéac cutsutcea, bear bezala eragotci etzutelaco. Onezaz gañera aguindu cion, Israel-co Juezai esateco, norc bere lagun urco, gaiztaqueria artan cutsutua, il cezala. Moises eta beste Israel-tar onac negarez ceuden, ilquintza gogor oni beguira. Bitartean, Zambri ceritzan Israel-tar bat, guciac cecustela, borda-urde bateansartuta, Madiango Andizqui edo Principe baten alaba Cozbi-requin becatu eguiten jarri citzayen; eta Apaiz-nagusi Eleazar-en seme Finees-ec, lotsagabequeria ez-aditu au icusiric, ganibita artu, eta biac lurrari, cetzaten lecu berean, josi ciozcan. Finees-ec emandaco castigu onequin Jau-naren aserrea itzali zan, eta iltceari utci citzayon; baña orduraco ganibitaetan eta cincilica ogueita lau milla il ciran.

Onequin Israel-tarrac, beren gaiztaqueriari cegoquion castigua, artu zuten; ez ordea, oyei becatu eraguin cieten, Moab eta Madian-tarrac. Jaincoac, bada, Moises-i aguindu cion, Madian-tarrai beren cigorrada eman cizayela, eguin eta eraguin cituzten becatuacgatic. Escritura Santac ez dio Moab-coai, Madian-tarrai bezala, ecer eguiteco Moises-i aguindu cionic; lan au, nombait, gueroco utci zuen. Baña Jaincoaren aguinduz, Moises-ec lenago jaquin nai izan zuen, Canaango lurra irabaztera joateco, Israel-ec cembat armadun ceuzcan, eta icusi zuen, seieunda bat milla, zazpireun eta ogueita amar ceudela, guciac guizon

indartsuac, eta sasoiric obenecoac. Lan au eguinda, gueró Jaincoac Moises-i esan cion, Abarin-go mendi-gañera igo cedilla; eta ará zanean, eracutsi cion, Israel-tarrai eman bear cien atseguñetaco lur gozo ura; baña esan cion, Sin-go eremuan arriari itzeguiteco baicic esan ez, eta jotcearequin eguin zuen utseguiteagatic, an sartu gabe, il, eta bere anaya Aaron-en ondora joango zala. Berri onec Moises-i min andia eman cion: baña bere gaizqui-eguiña ezagutu zuen, eta gogo guciarequiú Jaunari jarri citzayon, artzaz eguin nai zuena artcera, Gueróz illabeteco vicia ceucan, eta bitarte au Israel bere lecura joateco zucemenac eguiten igaro zuen.

5 §.—*Josué-ren auquera. Madian-tarren cigorrada.*

Zucemen oyetatic bat bere ordeco uztea zan, artzai gabeco ardiac bezala, gueratu etcitecen. Jaunari, bada-escatu cion, arren, eguinquizun au ondo beteco zuen bat, autu cezala. Jaincoac Josué esleitu zuen. Au Moises, en adisquideric zarrena, lagunic maiteena, servitzariric leyalena, eta aguintariric adituena zan: eta onelaco doayez jancitaco ordecoa uzten zuela, jaquiteac, biotza zabaldu cion, ceren bere gende maitea ondo nai zuen icusi, eta onen ondo-izatea, baciequin, buru eta nagusiagan cegoala. Josué-c orduan larogueita amairu urte cituen: vici gucia Moises-en ondoan eguin zuen; beregatic Israel-tarrac eta oyen griñac ezagutcen cituen. Moises-ec, bada, esan cion, pozic iltcen zala, alaco oñordecoa utcita. Eracutsi cion, gueró bere gendearequin nola eta cer eguin bear zuen. Itzaldi luce bat gauza oyetan eguinda, Moises Tabernaculoan sartu zan Jaunari bere vicia esqueñtcera; baña Jaincoac aguindu cion, il baño lenago, Madian-tarrac castigatu citzala. Au eguiteco, amabi milla guizon armadunequin Finees bialdu zuen. Finees-ec Madian-go Erregueai eraso cien, gende chit ascoz gueyagorequin aguertu baci-tzayozcan ere, eta guciac osotoró ondatu cituen. Bost Erregueac il ciran; oyen artean, Israel-tarrarequin becatuan cegoala, Finees-ec il zuen nescach lotsa galduco aren aita:

baita Balaan azli biurri Madian-go alábac bialerazotcearequin, aimbeste calte negargarri Israel-en eraguin zuena ere. Errietan arqututaco abere, vicitza-gauza, eta gañeraco guciac artu cituzten. Ganibita epallea emacumeetaraño ere iritsi zan; bada, guizonic ezagutu gabeco nescach garbi eta aurrac baicie, etzan vicirie iñor guelditu. Lambide au gogorra bide zan; baña ondo irabacia, ceren bérac izan ciran, Israel-tarrai aimbeste gaiztaqueria eraguin ciezteenac. Egun guichiren epean bucatutaco guerra bateraco Israel-tarrae ondasun andien jabe eguin ciran; bada, bere quin eraman cituzten seieunda irurogueita amabost milla ardi; irurogueita amabi milla idi; irurogueita bat milla asto, ceintzuetatic erdiac Moises-ec eman ciezten Madian-en izan ciran guerrariai; eta beste erdiac beren lecuetan gueratu ciran gañeracoai, Tabernaculoraco eta Eliz-guizonentzat zati chiqui bat gordeta. Urre, cillar, janci, eta onelaco beste gauza guciac guerrariantzat guelditu ciran, Guizonacquin ibilli gabeco emacume, eta nescach gaztechoetic ere ogueita amabi milla catibu eraman cituzten. ¡Gauza arrigarria! Aimbeste guizon il, aimbeste emacume catibu artu, aimbeste diru, urre eta cillarrezco gauza, eta abere beretu, eta bérac guizon bat bacarric ere etzuten galdu, ceñaren berria Finees eta bere lagunac poz andiarequin Moises-i eman cioten, dembora berean belarrietacoetan, erraztunetan, eta beste edergarrietan artutaco urrea Jau-naren echeraco esqueñiaz. Moises-ec esqueñtza oyec gologic artu cituen, eta Eleazar Apaiz-nagusiari eman ciozcan; eta milloi bat, irureun eta berrogei milla erreal balio zuten. ¡Esqueñtza maitagarria, eta Jau-naren chit gogocoa, guerrariac beren odolarequin irabacita, berentzat gorde citzaqueten gauzaetic eguiña zalaco!

6. §—*Moises-ec irabacitaco lurren erdiratcea;*

*onen atceneco ondo-esanac.*

Madian-tarrai beren castigua eman citzayenean, Moises-ec, arteraño irabacitaco lurrac, bidezcoena ceritzanaí e-

man ciezten, Josué-ri eracutsiaz, gueróz irabazten cituzte-  
nac, nola erdiratu bear cituen. Bere il-bearra bacetorqui-  
on, eta Israeltar guciac bere ondora bilduric, beguiratu  
cien, eta Jaincoac Sina-co mendian bere legue santa a-  
guertu cienean, oguei urtez gora zuenic, etzuen Josué eta  
Caleb baicic iñor viciric arqitu; gañeracoac illac ciran: e-  
ta oraingoac orduan gazteac ciralaco, Jaunaren esan gu-  
ciac berriztu nai izan ciezten, jaquiñean egon citecen, E-  
san ciezten. Egipto-tic irten ciranetic arterañoco mirari  
andiac, Jaincoaren escuetatic artutaco mesedeac, izan  
ciozcaten esquergabequeric; Jaunac ipiñi ciezten aguin-  
teac, ceñac gordetzen bacituzten, cer bedeincacioac bere-  
tuo cituzten; bestela madaricacio gogorrác azpian artuco  
cituela. Eracutsi cien cearó, guerò eguin bear zuten gu-  
cia, zorionecoac izateco; eta oyen artean bat zan Canaan-  
tarracquin ez erruquiric izatea, ceña bete etzutelaco, ecin  
esan-al calte ondoreác izan zuen.

Lenago amargarren orrian esanda, Noe-ren seme Cam-  
ec bere aitarequin cer eguin zuen; nola onen seme Cana-  
an Jaincoac madaricatu zuen. Canaan au, eta onen ondo-  
rengoac beti gaizto-biurri Jainco eguiazcoren legue gabe-  
ac izan ciran, eta oyec ceucaten Adan eta beste Patriarcac  
landu izan zuten munduco lurric gozoena eta obena, eta Is-  
rael- tarrac Jaincoaren aguintuz orain artu bear zutena.  
Moises, Israel-tarren griña eta oitura ciequizquiena bezala  
bildur zan, etzutela oyecquin gauza onic eguingo; castigatu  
bearrean, bat-eguin, eta Jainco onari utciric, ayen guezu-  
rrezcoetara jarrico cirala. Argatic etzan aspertcen, esatez,  
arren, etcezatela gende onequin cupidaric izan: bestela,  
galduac cirala. Oyec eta onelaco beste eracutsi eta ondo-  
esan asco eguiten egun batzuec igarotacoan, guciai berriz-  
tuerazo cien, Jaunari leyalac izateco len-lenago emandaco  
itza: bedeincatu cituen: Tribu bacoitzari nori bere ondo-  
rengo patua adierazo cion. Eguin zuen *Deuteronomioa*  
deritzan liburua, ceñetan Jaunaren legue santa berriró eza-  
rri zuen, eta Apaizai aguintu cien, eicartasuneco cucharen  
ondoan ipiñi cezatela, eta zazpi urtelic zazpi urtera gende  
guciarri iracurri citzayotela; eta onequin bere lambide andi-  
ari buru-eman cion.

7. §.—*Moises-en eriotza.*

Onetan cegoala, Jaincoac aguindu cion, Nebo-co mendira igo cedilla, Israel-co semeai emango cien Canaan-go lurra icustera, eta emen ilco zala. Jaunaren aguindu au artu zuenean, bereala prestatu zan iltceco. Gende gucia berriró bere ingurura bilduerazo zuen, eta illoba Eleazar Apaiz-nagusia, eta bere icasle eta ordoñeco Josué alboetan cituela, Israel-co bere seme maiteai agur betico eguin cien. Gueró Eleazar eta Jousué-requin mēndira joan zan. Jaincoac Canaan-go lurra eracutsi cion, esanaz: orra Abraham, Isaac eta Jacob-i promeztu edo ezqueñi nien lurra: zure beguiac-quin dacusu, baña etcera sartuco. Jaincoac itz oyec esandacoan. Moises eunda oguei urteco adiñean, ez bere indarretan aultasunic, ez beguietan illuntasunic, ez ortzetan utsuneric, ezagutu gabe; Eleazar eta Josué-ren escuetan il zan.

Bereala, gorpuzá lurpetceco bear ciran prestamenac eguin cituzten: baña Jaincoac lan au munducoai quendu cien, ceru-tarrai emateco. Aingueru San Miguel-ec Moab-co mugapean lurra eman cion; ordea cein toquitán, egundaño ez da jaquin: Jaincoac, nombait, isillic gorde nai izan zuen, aimbeste mirari eguin izan cituen gorpuzá icusita, Jainco eguiatzcoari bacarric zor zayon agur-ona Israel-tarrac eman etcitzayoten.

Moises-en doai andiac bat-banaca esateco, dembora lucea bearco litzaque: asco da, bada, esatea, bere jayotzatic il arterañeco gucian besteric ez bezalacoa izan zala: Jaincoac Moises-i eta Moises-ec Jaincoari, bi adisquidec elcarri bezala, arpeguiz-arpegui itzeguiten ciotela. Israel-tarrac-negar andiac eguin ciozcaten, eta ogueita amar egunean proguan ibilli ciran. Egun oyec bucatu ciranean, Josué aren oñordecoac asi zuen, Jaincoac Abraham-i bosteunda berroqueita sei urtez lenago aguindotaco Canaan-go lurra-beretceco lana, laster icusico degun bezala.



AMABIGARREN IRACURGAYA.

1. §.—*Josué-c celatariac Jericó-ra bialtzen ditu.*

Moises il zanean, bere ordeco Josué-ri Jaincoac esan cion: Nere servitzari Moises il da; zu prestatu zaite. Jordan-go ibaya igaro, eta zu eta zure gendea lur promestura joateco: Nic neronec zuzaz contu izango det: bizcortu zaite: nere servitzari Moises-ec utci dizun leguea, autsi gabe gorde ezazu, eta gucia ondo irtengo zatzu; ez bildurric izan: nora-nai zoazela, Jainco zure Jauna cerequin izango dezu. Josué-c, Jaunaren aguindu au artuta, bereala Israel-tarrai adierazo cien, Jordan-go ibaya iru egunen barruan igaro bear zutela, lur promestuan sartceco, eta egun batzuetaco janarequin prestatu citecela. Gueró celatariac bialdu cituen, ibayaz beste aldetic cegoan, Jericó-co uria, cer eratan itsia cegoan, an vici ciranac cer asmotan ceuden, eta cegoquien beste gucia jaquitera. Celatari oyec alzan isillena joan, eta Rahab-en echean sartu ciran: baña ango Erieguéac bi oyen berri bereala izan zuen, eta esque guizonac bialdu cituen; alperric ordea. Rahab emacume galduaren icenecoa zan: ala ere, edo bere vicitza gaiztoa utcila ceucalaco, edo Jaincoac ordu artan biotzean uqitu ciolaco, Israel-tarrai, beintzat, chit arrera ona eguin cien. Gambaran liño-pe batean ezcutatatu cituen: eta oyen billan cijoacen Erreguearen mandatariac eche gucian beguiratuta, ecer topatu gabe itzuli ciranean, bi Israel-tarrai leyotic soca batequin jatsierazo cien, ceren bere echea uriaren ertzean cegoan, beragatic artaraco chit era onean; eta beren toqira bialdu cituen, nai cituzten berri guciac emanda, Mesede bat bacarra escatu cien: urian sartcea ciranean, artzaz, eta aren echecoaz oroitu citecela.

2. §.—*Jordan-go ibayaren igarotcea.*

Celatari oyec Josué-gana bigarren gañean itzuli ciran: ceará esan cioten, cer guertatu citzayen, nola igues-eguin

zuten; norc lagundu cien; onguille oni cer itz eman cioten, gañeraco beste berri guciacquin. Atcenean esan cioten, gende gucia bildurrez arri-eguiñic cegoala, eta aisa sartu eta jabetuco cirala. Josué-c bereala, Israel-tarrac bildu, eta esan cien, celatariaç cer albistacquin etorri citzayozcan, eta guciac pozac artula, biaramonean-goiz Jordan-go ibayera-bidean jarri ciran. Arratsalde berean ibai-ondora eldu, eta emen irugarren eguneraño egon ciran. Orduan ibaya igarotceari eman cioten, Jaincoac Josué-ri eracutsi cion eran. Ara nola, Apaizac Cucha santa sorbaldaetan ceramaten. Urrena Tabernaculoaren zati edo puscacquin Levita edo Eliz-guizon beeragocoac cerraizquien: Gueró legua laurden batez atcerago seieunda gueyago milla guerraguizon noiz-nai etsayari erasotceco prest cijoacen, eta oyer artean lenengo edo buruan, Moises-ec irabacitaco lurra eman cien ayetatic berroguei milla. Guerrarien ondoren elbarri, emacume, eta aurrac bere vicitza-gauza eta abereacquin cijoacen. Jordan-go ibaya chit vicia, eta neurrietatic irtena cetorren, marchoco illa izanic, mendietaco elurra urtu ciralaco. Apaizac ibayen sartu, eta oñac busti cituzten bezain laster, garaico urac aitz bat eguiñic gueratu eta beecoac itsasoronz joan ciran, ibayean bide zabal ederra uzten zutela Apaizac Cucha santarequin, eta Levitac Tabernaculoarequin ibai-erdira ciranen, emen guelditu, eta egon ciran, alic eta soldadu-taldea eta beste gende guciac beren vicitza eta abereacquin ibai gucia igaro arteraño. Gucitara iru milloi lagun baciran. Ibaye igaro zutenean Josué-c aguindu zuen, amabi Tribuetaco guizen banacac Apaizen oñetatic arri gogor bana artu, eta gendea cegoan aldera eraman citzatela, eta Israel-tar guciai esan cien, beren humeac edo ondorengoac galdeten zutenean, çarri ayec certaco ciran? erantzun cezatela, Jaincoac ibayaren erdian bidea nola idiqui cien adierazteco, ibayaren erditic atera, eta an ipiñiac cirala. Berebat aguindu zuen, beste amabi arri andi campotic eraman, eta Apaizen atsedent-lecu berean ipintzeco, leorteac urac chiquituta, arri ayec ondorengoac cecusquitenean, gogoratu citecen, ibayaren erdian Jaincoac bidea Israel-tarrai idiqui-

tecarequin eguin izan cien mesede andia. Lan oyec eguin-  
da, Apaizac Cucha santarequin gende guciaren aurrean  
jarri ciran, Tabernaculo- dunac eta amabi arriac ceramaz-  
quitenac ondoren cituztela: eta oyec leorrera orduco, guei-  
di ceuden urac amildu, eta ibai gucia len-lenago bezala  
estali zuten. Joan ciran, Jericó-ra legua bat bide cegoan  
toquirañõ, non guelditu eta estalpeac ipiñi cituzten, gue-  
roco egunetan an egoteco. Ibaitic aterataco amabi arriac  
Josué-c emen ipiñierazo cituen, eta berriz ere esan cien, be-  
ren humeai cer erantzun bear cieten, certaco ciran galde-  
tzen zutenean. Josué-c nai zuen, Jaincoaren escuetatic ar-  
tutaco mesede miraritsuac, beli gogoan iduqui citzaten.

### 3. §.—*Circuncisioa, eta Pazcoa-ren berritcea.*

Israel-tarrac beretcera cijoacen bazter ayetaco Erre-  
gueac, cer izu-icarak artu cituen esatea, erraz ez da, Indar  
andiac ceuzcaten: baña ¿certaco ciran Jaincoa alaco mira-  
riac eguiñaz, aurrean jarri citzayen auzo bildurgarri ba-  
tentzat? Erregue ayen bildur au Josué-c gogoan ceucala,  
bete nai izan cituen bi aguindu edo eguinquizon, aspal-  
dian utcita ceudenac, Circuncisioa eta Pazcoa. Jaincoac  
Abraham-i esan cionez, jayota zortcigarren egunean, Cir-  
cuncisioa eguin bear zan: baña dala sendatu artean gueldi  
egon bear zalaco, eta eremuan vici izan ciran demboran,  
ordu jaquiñic edo berenic etzutelaco, dala beste bideren ba-  
tez, etzan, beintzat, Egipto-tic irten ezqueró, aguindu au  
eguin. Beragatic Josué eta Caleb ez, beste guciac circun-  
cidatu gabe ceuden; eta egon aldi onetan eguin ciran; ce-  
ñaren bidez lecu oni deitu cioten *Galgala*.

Beste eguinquizuna Pazcoa zan. Israel-tarrac Egipto-co  
catibutasunetic irten ciranean, lenengoa eguin zan: geróz-  
tic etzan eguin, Sina-co mendi-ondoan ceudela. bein bai-  
cic. Oraingo guizonic gueyenac cer zan ere etciequiten.  
Pazcoa lenengo illaren amalagarren egunean asten zan:  
eta nola Israel-tarrac egun onec Jericó-co ondoan artu ci-  
tuen, Josué-c eguin nai izan zuen, Jaincoac aguinduta ceu-  
can bezala. Jaunari arcuméac esqueñi citzayozcan, eta orranz

gabeco oguiarequin jan cituzten. Galburu-metachoa ere, legueác cion eran, esqueñi bacitzayon, eta cegozquion beste gauzac eguin ciran; eta Pazco onec zazpi egunean iraun zuen.

4. §.—*Maná-ren aitcea.*

Gauza arrigarri bat egun oyetan guertatu zan. Israel-tarrac galburuac Jaunari esqueñi, eta lur artaco gariarequin eguindaco oguia, jaten asi ciran ezqueró, etcetorquien, eremuan igaro cituzten berroguiei arteetan, egunoró jatsi citzayen maná janari gozo hura. Jaincoac onequin Israel-tarraí adierazo bide cien, promestutaco lurrean bein sartu ciran ezqueró, etzutela cer uste izan, arteraño bezala cer jana cerutic bialduco cienic; ezpada berac lur artan billatu bearco zutela. Josué ere iritci onetacoa izan zan, eta bere lambideari equiten, bereala asi zan.

5. §.—*Jericó-ren endamena.*

Eraso bear cioten lembicico erria zan, andic ordu be-teco bidera cegoan Jericó, Canaan gucian erri-itsiric sen doena, murru lodiz. ingurutua, eta soldatu-talde andiac gordetcezn utena. Emen vici ciránac contuan ceuden, Israel-tarrac lembician berai erasoco cizayetala etsiric. Josué-c ere langai andi onetan ondo irteteco prestamenac artu cituen: baña ecertan ibilli baño lenago, nola cegoan, bere beguiacquin icusi nayeán, iñor-gabe bacar-bacarric Jericó-co ondora joan zan beguiratcera, eta onetan cebille-la, aurquez-aurque jarri citzayon, guizona zalaco bat, escuan ezpata zuela. Josué batere bildurtu gabe ondoratu citzayon, eta galdetu cion ¿ea etsaya edo bereetacoa zan? eta erantzun cion, ez batzuena eta ez besteena zala, ezpada Jaunaren soldadi edo ejercituco Lenena edo Principea: Josué-c an aditu zuenean, auzpeztu, eta Jaincoari agur andia eguin cion. Aingueru Principe onec aguindu cion, oñustu cedilla, lecu santuan arquiteen zalaco. Erri hura bere gauza guciacquin artecco ustea eman cion: onetara-

ço cer eguin eracutsi, eta Ainguernác aldeguin zuen. Josué-c, bada, gende guciari aditcera eman cion, cer guertatu citzayon, eta nola Ainguernác eracutsi cion, Jericó beretceco cer eguin bear zuten. Biaramonean-goiz prestatu, eta eguiteco onetan así ciran. Ara nola. Armadun guciac aurrelic jarri ciran: ayen ondoren zazpi Apaiz trompeta-soñua joaz: gueró lau Apaizec Cucha santa sorbaldan ceramaten: eta atcenean gañeraco gende gucia cerraiquien-Guisa onetan jarrita, lenengo egunean gira bat Jericó-co uri guciari eman cioten, trompeta-soñua beste otsic eguin gabe, guciac iñillic, eta uria-ingurututacoan, beren estalpeetan guelditu ciran. Sei egunean au bera eguin zuten, egunorò gira bat bacarra emanaz; baña zazpigarrenean zazpi inguru eman cioten, aldian-aldian urreragotuaz, eta trompeta-otsa ere goratuaz. Zazpigarrenean uria jotcera-ño alderatu ciran; eta trompeta-otsarequin batean, gende guciac deadar eta argamasa izugarriari emanic, uria isten zuten orma eta murru guciac así ciran erortcen, eta bereala ondatu ciran. Orduan Israel-tarrac ezpata eta ganibitacquin sartu, eta Erregue eta mendecoac, ganadu eta abere guciac il cituzten, ecer ere vicidunic utci gabe. Baña uri artaco gauzaric arteco Josué-c zorrotzquiró debecatu cien, eta cegoan gucia, uriarequin batean, bertan erre eta quiscaldu zan. Bacarric urrea cillarra, cobrea eta burnia gorde ciran Jaunaren ondasunteguiraco. Uria icustera joandaco mandatariac gorde cituen emacume Rahab-i eman citzayon itza, Josué-c gogoan zaucan, eta bi mandatari ayec bialdu ciozcan echera, eta onguille au bere guraso, senide, aide eta ondasun guciacquin atera, eta beste guciac bezala ondatcetic, gorde zuten. Gueró Josué-c uri doacabe au madaricatu zuen, esanaz; iñor berritcen asten bazan, seme zarrena il cequiola. Madaricacio eta birau au chit indar andicoa izan zan: bada, dembora guchiren epean, onen aldamenean beste uri bat icen berecoa eguin bazan ere, beraren oruan bosteunda gueyago urtean etzan astera iñor venturatu: eta gueró ere Hiel ceritzanac eguin nai izan zuelaco, il citzayon bere seme zarrena lenengo, eta guerò gañeracoac, alic eta guciac

il citzayozcan arteraño, bere setarequin irten nai izan zalaco.

6. §.—*Acan-en cigorrada.*

Josué Jericó-z jabetu zanean, guizónac bialdu cituen, Hai ceritzan urreneco erria ezagutcera. Berria ecarri cioten, erri hura artcen gaitz etzala, eta gende armadum gucia gabe ere, menderatuco zala. Uste oso onetan iru milla guizon bacárrac bialdu cituen; baña bere gogoaren contra gucia irten citzayon. Hai-tarrac indār eguiñic, Israel-tarrai eraso, abarraquitu, eta Sabarin-go ibarreraño atcera erazo cituzten, cembat Israel-tar bidean illic utcita. Uste gabeco guertaera onec Josué-ri biotza illundu cion. Cucha santaren aurrean Israel-co guizon andi eta zarracquin auzpez jarri zan, eta arratsalderaño onela egon ciran. ¿Cer? Josué-c Jaincoari esan cion: ¿cer esango det, ene Jauna, Israel etsayác iguesi bialdu duela icusita? Canaan-tar eta beste guciac jaquingo dute; gure contra batuco dira; ingurutaco gaituzte, eta gure icena betico galduco digute. Eta ¿zure icen andiaz cer izango da? Itz oyetan cegoala, Jaincoac erantzun cion, Israel-ec gaizqui bat eguin zuela; ayen artean bazala norbait, Jaunaren esana autsi eta Jericó-co urian cerbait artuta, gorde zuena; eta gaizquille oni cegoquin castigua eman artean, etzala Israel-equin izango.

Biaramonean-goiz Josué-c gende gucia bilduerazo zuen: Jaincoac ala eracutsita, zotz eguin zuten, nor zan jaquiteco: Juda-co Tribuari erori citzayon: gueró Tribu onetaco eche bati: eta atcenean Acan ceritzanari. Josué-c guizon au bereala artu zuen, eta esan cion; ene seme, ez niri ecer ueatu; esan zadazu, cer eguin dezun. Orduan Acan-ec erantzun cion: Jaunaren contra gaizqui eguin det: capa gorri ederra, cembat cillar diru, eta urre-zati bat icusita, oyen eresia etorri citzadan; artu eta nere etzauntzan gordeta dauzcat. Acan-en chaolara joan ciran, eta Acan-ec esandaco gauza guciac an arquitu cituzten. Josué-c icusi cituenean, bereala Acan bera, bere hume, abere, ondason, eta chaola bera, ceuzcan gauza guciacquin arerazo cituen;

Acor-en larrañera eramán, eta Acan arricatu zuten, eta atcenean bera eta bere gauza guciac erre eta quiscaldú cituzten.

7. §.—*Hai-ren ondamena.*

Castigu onequin Jaincoaren aserrea itzali zan, eta Josué-ri esan cion, etcedilla icaratu; Hai-co erria artuco zuela; eta ango Erregue eta bestéac escura emango ciozcala, Gericó-co Erregue eta uricoacquin eguiña, ayecquin ere eguin cezan. Josué-ec, bada, ogueita amar milla guizon bicañ erriaren alde batera gañaz bialdu cituen, aguinduric, gordeta egon citecela, arc siñalea eman arteraño, eta orduan errian sartu, eta gucia erre cezatela. Biaramonean gañeraco armadun guciacquin bera joan zan, beste aldetic erriari erasotcera. Hai-co Erregueac icusi zuenean, etzaya alderatcen, bere gendearequin bidera irten citzayon, gogor eguiteco asmoan. Josué orduan eremuronz itzuli zan, iguesi cijoalaco antzean, eta berac eta etsayac erritic cerbait aldeguin zutenean, jaso zuen escuco broquela, ceña aurreco gañean gordeta ceudeu ogueita amar milla guizon ayec icusi zutenean, errian sartu ciran, eta su eman cioten, Josué-ren ondoren joandaco Erregue eta bere soldadurac erria sutan eta quea ceriola icusi zutenean, itzulinaí izan ciran, sua itzali, eta errico gendeari laguntcera: baña su-emalleac bidera irten citzayezten, eta oyec aurretic, eta Josué-c bere gendearequin atcetic eraso cieten ain gogorquiró, non, guciac il ciran, bat bacarra ere viciric guelditu gabe. Bereala Israel-tarrac errian sartu, eta errico guciac ere il cituzten, Gneró ango gauzac beren artean, Jaiacoac Josué-ri esan bezala, erdiratceco arturic, erriari alde gucietatic su eman, eta osotoró auts eguin zan. Modu onetan Israel-tarrac beren icen on, eta onorearequin guelditu ciran, eta Acan-ec lotsa gorrian vicia galdu zuen, bere lapurretarequin Israel-tarrai aibeste calte ecarri cieztelaco.

8. §.—*Gavaon-tarren guezurra.*

Canaan-go Erreguéac, beren auzo Jericó eta Hai-co

Erregueen patu gaiztea, eta Josué-ren eguneroco aurrera-  
pen miragarriac icusi cituztenean, elcarganatu ciran, eta  
beren indar guciac bildu cituzten, Israel-tarrai arpegui  
emateco. Baña besteac onetan oebiltzala, Gavaon-tarrac et-  
zuten ayecquin bateguin nai izan; ezagutcen zuten, ala-  
bañan, Israel-tarren contra gogor eguiteric etcegoal; eta  
besteen contu gabe; ceterquien cigorrada gogorrari alde-  
guñic, beren buruac viciric gordetceco modua eguin zu-  
ten. Ara nola. Gavaon-go uria chit sendoa, eta Hai-coa ba-  
ño ere indartsuagoa zan: beste iru erri andi ere mendean  
ceuzcan. Hai-tic Gavaon-era bost legua bide baicic etcego-  
an, eta Israel-tarrac lembici erasoco ciotena. Lau errieta-  
co viztanleac, bada, bildu ciran, eta Josué-ri mandatariac  
bialdu ciozcaten, paquean eta adisquide izan nai cirala,  
adieraztera: baña mandatari oyec contu andia izan bear  
zuten, Josué-ri esateco, bazter urrutietacoac cirala, eta ez  
Canaan-goac, ceren baciequiten Josué-e arteraño etzuela  
Canaan-go lurrean iñor ere viciric utci, Rahab Jericó-co  
emacume hura bere ehecoacquin baicic. Guezur au Jo-  
sué-ri sinisterazotceco, oguierre-zar cascarnac, ardo-za-  
gui zulatu eta arabatuac, soñeco eta oñetaco urratuac era-  
man cituzten. Guisa onetan Josué-ri aurqueztu citzayoz-  
can, esanaz, Israel-tarracquin paquean vici nai cirala:  
ayen mirari andiac entzunda, bazter urrutietatic cetocela.  
Josué lenengoan uzcur cegoan, ayen esanera jartceco: ba-  
ña leyatu citzayozcan berriz eta berriz ere, eta esan cioten:  
echetic irten guñanean ogui erre-berri bero-beroac artu  
guñituen, eta beguira orain, cein gogorrac dauden; zaguia  
ere acatsic etzuten, eta arabatu bear izan ditugu: soñeco  
eta oñetacoac eguinda berealacoac ciran, eta orain ara  
nola urratuac dauden. Josué-c eta, onec bezala, beste  
aguintariac ere uzcurtasun gueyagori gaizqui iriteiric, Ga-  
vaon-tarren esan guezurrezcoac siniztu cituzten, eta Ca-  
naan-ez campocoac ciralacoan, Josué-c adisquide izateco  
itz ciñeztua edo juramentuaren azpicoa eman cien, eta Ga-  
vaon-tarrac echera itzuli ciran,

Iru egunen barruac Gavaon-tarren guezurra eta saldu-  
queria ezagutu zuten. Lambide onec Josué eta gañeracoai



naigabe andia eman cien, ceren bildur ciran etorquizuñ gaizloac ecarri citzan. Israel-tarrac beren gogoz Gavaongo, eta beste iru errietaco gende gucia ilco zuten; haña Josue-c eragotci cien, esanaz, bein emandaco itza gorde bear zala. Josuè bera Gavaon-tarrai joan citzayen, eta chit arrera ona eguin cioten. Guezur ura arpeguira eman cien; haña erantzun cioten, bildurrac eaulquierazo ciela: baciequietela, alabañan, bazter ayen jabe eguin, eta osotoró ondatuco cituztela, eta beren buruac gorde nayez, guezurra asmatu zutela: ala ere, bere escuan jartcen cirala. Josué-c bere itza gogoan ceucala, esan cien, etcitueta ilco; ordea Israel-co gendearen eta Jaunaren aldarearen servitzoan vici izan bearco cirala, bear zan egurra eguiñaz, eta ura ecarriaz. Onequin Josué-c Israel-tarren erausi-aci, eta Gavaon-tarrac il-nayac isildu cituen.

9. §—*Eguzquiaren guelditcea.*

Gavaon-go uria nola Jerusalem-dic urrean cegoan, emengo Erregue Adonisedec-i Gavaon-tarrac Josué-ren mendean jarriac min eman cion, eta erasotceco asmóac artu cituen: ezagutcen zuen, alabañan, auzo batec eguin zuena, besteac ere eguin cezaquetela, paquean utci ezqueró. Gavaon uri andientsu eta gende indartsua gordelari zuena zan, eta au artcearequin, Israel-tarrai Jerusalem-eraco bideacerbait catibutcen cien, eta dembora berean Gavaon-tarrac ere castigatu nri cituen. Langai onetan nai bezala ir-tetececo, auzoetaeo lau Erregueri mandatariac bialdu ciezten, escatcen ciela. arren, beren soldadu-taldeacquin lagundu cizayotela, ceren lan au gucien onean izango zan. Lau Erregueac Jerusalem goarequin batu ciran, eta Gavaon-eronz joanic, inguratu eta ichi zuten. Gavaon-tarrac ain estu eta galtceco bidean arquite ciranean. Josué-ri Galgala-ra gazligatu cioten nola ceuden, eta bost Erregue ayen indarraic cin gogor eguin cizayequetela, baldin ezipacien bere-bereala laguntcen. Josué, bere servitziari berri oyei on-eguiteagatic, prestatu zan laguntceco, lenago Jaincoari baimena escaturic. Gavaon-era bere gendearequin gallaz

joan zan; biaramoneco egun-sentian bost Erregaeai itsu-  
 mustuan eraso cien, eta Gavaon-en ondoan asco guizon il  
 cituen: gañeracoac erri ichi batzuetara iguesi cijoacela,  
 arritzar-jasa andi batec artu, eta lau orduco bidean calte  
 andiac eguin ciezten. Ala ere bost Erregueac eramandaco  
 gendea ugaria izanic. Josué-ren ganibitac, eta cerutic ja-  
 chitaco arri-abarrac uqitu gabeco asco viciric guelditu, eta  
 bazter gucietara zabaldu ciran. Josué-c nai cituen guciac  
 bein betico ondatu, baña ceucan baño egun-argui gueya-  
 go bear zuen, iguesi cebiltzanac, gañaren babesean gorde  
 gabe, atcitceco. Estura larri onetan, Josué-ren sinismen  
 andiari baicic iñori gogoac emango etciona, eguin zuen:  
 egnzquiari aguindu cion, bere bidean guelditu cedilla, eta  
 eguzquiac Josué-ren esana eguin zuen. Josué-c eguzquia  
 icusi zuenean bere esanera gueldituta, osotoró arrituric,  
 jarri zan mesede ez-aditu onegatic Jaunari esquerrac ema-  
 ten. Onetan cegoala, eraman cioten berria, bost Erregueac  
 Maceda-co leice-zulo batean gordeta arqitu cituztela. Be-  
 reala aguindu zuen, arriacquin leiceco ataca ondo ichi ce-  
 dilla, eta emen ipiñiric norc contu-eguin, gañeraco guciac  
 igueslarien ondoren joan ciran. Egun bat osoan eguzquia  
 gueldi egon zan; bitarte onetan Israel-tarrac, banaca ba-  
 tzuec ez beste etsai guciac, atcitu eta il cituzten, eta beren  
 lecuetara itzuli ciran, bat bacarric ere bereetacoric ez il,  
 eta odol-tantaric ere isuri gabe. Josué-c bere lana eguin  
 zuenean, bada, eguzquiac bere ibilliari eman cion; eta ala-  
 coric berriz ez gueró, eta ez lenago icusi da. Gattean gen-  
 deari atcedena eman, eta biaramonean Josue-c leice-zulo-  
 an gordeta ceuzcan bost Erregue ayec ilerazo, eta ipiñi  
 cituen bost agatan cincilica, non egun gucian egon ciran,  
 eta illunabarrean eratsiric, eraman cituzten ezcutatu nai  
 izan ciran leice-zulora, eta emen arriz ondo ichita, ondo-  
 rengo urteetan egon ciran.

Egun onetan berean Maceda-co uriari eraso eta arturic,  
 Erregue eta gañeraco guciac il cituen. Beste erri sendo as-  
 co eta Erregueacquin berebat gueroco egunetan eguin  
 zuen; eta erasotaco guciac garaituric, itzuli zan Galgala-ra,  
 non negu hura igaro zuen, eguin ciezten aimbeste mese-  
 deen truque, Jaunari espuerrac emanaz.

Castigu gogor oyec Josue-c eguin cituen, bazter aye-  
tacoac ezagüeran sartuta, Jainco eguiazcoágana jarri cite-  
cen, edo izuturic, berena etzuten lecutic igues-eguin ceza-  
ten, idoloziale ayecquin cutsutceco, Israel-tarraí bideric  
eman gabe. Jaincoac lur promestu hura garbiró gorde náí  
zuen; eta Josué-c Jaincoaren gogoco berri baciequien; ar-  
gatic etzuen iñor ere viciric uzten.

10. §.—*Josué-ren beste garaipénac.*

Canaan-go Erregue, Israel-tarraí gogor eguiteco elcar-  
artu zutenac, icusiric Josué-ren garaipen miragarriac, eta  
amaica Erregue beren lagunac illac, izutu citezquean; baña  
etzuten etsitcen, eta beren indar guciz andi paregabecoetan  
ustea ipiñita, Josué beartu zuten, udaberrian guerrara ir-  
tetera. Josué prestatu zan, eta bereala jaquiñic, etsáyac  
cein lecutan erasotceco asmoa zuten, isill-isillic ábiatu zan,  
itsumustuan bidera irtetececo ustean. Etsayetara urreratu za-  
nean, Jaincoac bizcortu zuen, esanaz, etzuela cer bildurric  
izan: biaramonean guciac escura emango ciozcala; náí  
zuena eguiteco. Ala guertatu zan. Guchiena alacoric uste  
zuten garayean sartu citzayen, eta Erregue alcar-artuac  
osotoró ondatuta, guizacume gucia il, eta gurdi eta ga-  
ñeraco guerraco tresna guciac erre cituen; eta ondamen  
onen bitartez, Canaan-go bazter gueyenen jabe bereala  
eguin zan, Erraz ez da esatea, cembat izan ciran etsaigal-  
duac, eta uri artuac. Cerbait ere ezagutceco, asco da ja-  
quitea, sei urteren buruan ogueita bederatci Erregue es-  
curatu, eta il cituela.

Josué-c icusiric, Canaan gueyena beretu zuela, eta pa-  
quea ematen citzayola, uste izan zuen, Israel-co Tribúai  
nori bere zatia, emateco ordua etorri zala, arteraño guciac  
batean bezala gueròztic bacoitzac berea zaindu, eta etsa-  
yari arpegui eman cizayon. Asi ciran zotz eguiten, eta  
Tribu batzuei beren zatia emanic, gañeracoac quicoa bes-  
te egun batean eguiteco utci zuten.

11. §.—*Galgala-tic Silo-ra Cucha santaren aldatcea.*

Lenago esan da, Canaan-go lurrean sartuta, bereala Cucha santarequin Tabernaculoa, gueró Galgala deitu citzayon lecuan, ipiñi zutela, eta oneninguruan, oi bezala, vici-toquiac eguin cituztela. Zazpi urtean Cucha santa emen egon zan, eta Israel-tarrac etsayai eraso-aldiac eguin ondoren, onaraitzultcen ciran atsedetera. Baña Galgala izanic Canaango ertz bat, Josué-c-pensatu zuen, egoquiago zala Cucha santa Canaan-en erdi-erdian egotea, Israel-targuciac erosoago joan citecen, eta beren lanac aisago eguin citzaten: Silo auturic, Cucha santarequin Tabernaculoa aldatu zuten, eta guerozco lareun urtean guichi gora-beera emen egon zan.

12. §.—*Canaan-en banatzea, eta partitcea.*

Silo-n ceudela, buru-eman nai izan cioten arestian aita-tu dan, Canaan-go lurra Tribu gucien artean banatceari. Onetaraco neurtzalleac alderdi gucietara bialdu, eta ama-bi pusca eguiñic, Jacob-en amar seme Ruben, Gad, Juda, Benjamin, Simeon, Zabulon, Isacar, Aser, Neptali, eta Dan-en, eta José amaicagarrenaren bi seme Efrain, eta Manases-en echéa edo ondoréac bana artu zuten; eta zafi oyei guciai, nori bere buru edo iturriaren icena eman cioten, eta gueróz icen onequin ezagutu izan ciran

Jacob-en semeetatic Levi-ren ondorea bacarric bazter bereci edo jaquin gabe gueratu zan: ala ere, besteac bezain ondo, edo obetò: bada, gañeracoacgauza gucien amarrenac, eta lembici edo primiciac zor ciozcaten, eta beste artubide ascorequin batean, berroqueita zortci erri, bere barrutiacquin Canaan gucian, or-emen banayatu edo zabalduac, bere-berac cituen. Caleb, Josué-ren lagun maiteac ere, zaticho bat artu zuen, bere leyaltasunagatic Jaincoac aguindu cion eran. Bacarric Josué gucien buru, eta aimebeste nequerequin gucientzat adiña irabaci zuena, ecer gabe guelditcen zan, eta bere gogoz etzuen egundaño es-

caluco ere: baña Israel-tarrac, berandu bederic, oroitu ciran, Jaincoac aguinduta ceucala, Josué-ri bere saria emaleco eta nayeneneco bazter bat esqueñi cioten, eta autu zuen Efrain-go Tribuan cegoan *Tamnath-Saraa* ceritzan erri chiqui ecer-ez bat, ezagutu cedin, bere eresi bacarra lambide gucietan Jaincoaren esana eguitea izan zala. Josué-c auquera au eguin zuen, Silo-tic guertuan cegoalaco, eta bere vicilecu onetatic Jaunaren echera noiz-nai erosó joan citéquealaco

13. §. — *Josué-ren eriotza.*

Urte batzuec Israel-tarrac paquean baceramazquiten, norc bere alderdian, eta Josué egunietan aurrera cijoan. Au ezaguturic, Israel-co Principe, aguintari, eta beste guizon elduenac bere ondora eracarri, eta esan cien: Zartu naiz, nere egunac badijoaz. Dacusute, Jaincoac zuen alde cembat eguin duen: lur andiac menderatu dituzute: ala ere, oraindic bazter chiqui batzuetan cer eguin badaucatzute: Jaincoac oyec ere zuen escuetan ipiñico ditu, aguinduric zauzcaten bezala; baña bere esanac contuz eguitatzute. Guero beste egun batean Israel-co guciac beregana bildu, eta Moises-ec dembora batean bezala, eracutsi cien, Jaincoa ondo servitceco cer eguin bear zuten: ala eguitoco itza eman cioter, eta atcenean guciai agur beticoa eguin cien. Andic laster Siquem-en il zan, eta Tamnat-Saraa-n berac prestatuco obian lur-eman citzayon. Israel-tarrac, aimbeste garaipen irabaci cituen buru eta aguintari bati cegoquion progua, eguin cioten. Il zanean eunda amar urte cituen. Egipto-n jayo, eta berroqueita amairu urte eguin cituen: beste berroquei eremuan: sei Canaango lurra berecten, eta atceneccoac paquean, eta Israel-tarrac eracutsi onac eguiten, eta gauzac zucentcen.

14. §. — *José-ren ezurren lurpetcea. Eleazar-en eriotza.*

Demboratsu onetan José-ren ezurrac ere Siquen-ondoan lurpetuac izan ciran, Lenago esan da, Patriarca andi onec

bere anayai aguindu ciela, contu izateco, bere ezúrrac Canaan-era eraman, eta emen lurpetcez. Il zanean gorputz-illa balsamatu, eta gorde zuten, Egipto-n egon ciran bilartean. Moises-ec, Egipto-tic irten ezqueró, beti berequin erabilli zuen: eta Moises il zanean, Josué jabe eguin zan: Galgala-n iduqui zuen, eta Canaan menderatu zuenean, Siquen-ondora aldatu, eta aita Jacob-ec echecho illac ipinteco Hemor-en semeai erositaco lurrean obiratu zuen.

Israel-tarrac Josué-ri eguin cioten progucio ogueita amar egúnac igaro baño lenago, Apaiz andi Eleazar ere il citzayen. Au Aaron-en semea, eta Israel-co bigarren Apaiz-nagusia zan. Eguinquizon andi gucietan Josué-requin beti ibilli izan zan, eta Finees bere semea oñordoco utci zuen Gabaat ceritzan errian lurpetu zuten.

### AMAIRUGARREN IRACURGAYA.

#### 1. §.—*Israel-co eraena edo governua.*

Josué-ren eriotzaquin Israel-ec aldaqueta andiac izan cituen. Josué-c etzuen oñordecoric utci, ezpada Israel-tarrac eraendu edo governatu bear ciran, Jaincoac antciñatic Moises-en bitartez eracutsiric ceucan eran. Ara nola, Canaan gucia amabi pusca eguin zan; oyec eman citzayezten amabi Tribu edo amabi eche, Jacob-en amabi seemeen icenecoai. Erri bacoitzat zuen batzar bat, guizonic zarrenac eguiten zutena; eta errico lanac oyen contura ceuden. Tribu bacoitzac erri andientsu batean berebai zuen bere batzarra, ceñetan guizonic elduenac eta echeetaco buruac sartcen ciran; batzar onetan Tribu gucico eguitecoac erabaquitcen ciran. Tribu gucien burua cegoan Tabernaculoa eta Cucha santa egoteco, Jaincoac aututcen zuen lecuan. Emen cegoan irurogueita amar guizon zar eta elduac, Apaiz-andia buru zala, eguiten zuten batzar nagusia. Tribuetan bucatu ecin citezquean despita eta au-ciac, batzar nagusi onetan erabaquitcen ciran. Baita ere emendic irteten ciran Israel guciaren oneraco ciran aguinte eta eguimbearrac, Premia zanean, edo eguiteco andia-

ren batzuec sortcen ciranean, Tribuetato Principe edo zarrac, Apaiz-andia nagusi zutela, Erri-buru onetan bildu o ciran, eta ecin erraz erabaqui citequean lanean, Jaincoari beren Jaun eta Erregueari bezala, gaddetcen cioten.

2. §.—*Cembat bazterren menderatcea.*

Modu enetan, bada, Josué il zanean, Israel guelditu zan. Buruzari jaquin<sup>su</sup>, eta biotz andico onec Canaan-tar guenyac menderatu cituen; baña banaca batzuec or-emen menderatzaca gueratu citzayozcan, eta Tribu bacoitzac, bere lurrean ceuzcanac, galdu bear cituen, Jaincoac esanda ceucan eran, Israel-co seméac garbi-garbi guelditceco. Eguiteco oni norc asiera emango cion erabaquitceco, bazar andia bildu zan, eta esan zuen, Juda-co Tribuari lenena cegoquiola. Prestaturic, bada, bereala, Benec-co uriari eraso cioten; escuratu zuten; eta emen arqitu ciran guciac il cituzten. Erregue Adonibezec campora igues-eguin zuen; baña ondoren jarraturic, atcitu zuten. Bertatic il cezaqueten, Josué-c bere aldian aimesterequin eguin izan zuen bezala; baña Jaincoac au ceucan, nerequico, auqueratua, onen bidez bere zuentasun andia aguertceco. Oñ eta escutaco beatz-punta gucioc ebaqui citzayozcan, eta Adonibezec-ec, bere burua errequi onetan icusi zue-  
nean, esan zuen: leguez eta bidezcoa da eguin didatena: irurogueita amar Erregueri nic neronec au bera eguin diet, eta nere mai-peco papurrac biltcen iduqui ditut. Nic. iñorequin eguin nuena, Jaincoac nerequin eguin du. Jerusalem-i erasotcera joan ciranean berequin eraman zuten, eta an il, zan.

Jerusalen ere, Jebus-co-gaztelua ez, beste gucia arturic, an arqitu ciranac il, eta uria bera erre zuten. Jerusalem-  
equin bezala, beste erri asco menderatu cituztenacquin ere eguin zuten.

3. §.—*Israel-tarrac idolo-zaletcen dira.*

Lánac oraindañocoan ondo cijoacen. Jaincoa Israel-ta-

rren alde beti aguertcen zan. Egunetic egunera serbait irabazten zuten; baña dembora berean callebide andiac gañera cetozquien. Jaincoac Egipto-n eguindaco mirariac aurtasunean eta gaztetan icusi cituztenac, illac ciran, eta gueró eremuan eguindacoac icusi izan cituztenac ere, erioac baceramazquien. Zar beneragarri oyec contu eta ardura cintzoarequin Jaincoaren esánac eta aguindúac bé-rac gorde, eta besteai gordeerazo oi ciezteen; baña oyec guichitu, eta mirari ayen oroipena ere atcendutcera zan. Gaztéac asi ciran, Jaincoari zor citzayon esquer-ona, ecer-tan ez artcen, eta aren esánac eguítcco zabartcen. Idolozale guciac, Jaincoac aguinduta ceucan bezala, ondatu bea-rrean, laguntzat artu, eta beracquin viciteen ciran: zar ba-ñaca ayec gaiztaqueria onen contra alperric otseguiten zuten: oyen ondo esanac baño gazte zoroac gueyago ceza-queten.

Zarren esánac ecer eguin etzutenean, Jaincoac beste bi-de bat artu zuen, centzatcen ote ciran icusteco. Israel gu-cia Silo-n cegoan bein batean, Aingueru bat aguertu citza-yen, eta gogoraerazo cien, nola Jaincoac Egipto-lic atera, eta Canaan-go lur gozoan sartu cituen, ayen antciñac gurasoai aguindu cien bezala: cer batasun eguin zuen, ayecquin beti izateco; baña eguin zuela, ayec Canaan-ta-rracquin ez cutsutceco itzean. Eta au onela izanic, ¿ea cer-galic Jaunaren esana austen zuten? Guisa onetan Aingue-ruác beren gaizqui-eguiña arpeguira eman, eta aldeguin cien. Israel-tarrac oquerra ezagutu zuten; negarrari eman cioten, eta eguin-al guciac eguin cituzten, Jaunaren ase-rra itzaltceco. Damu au aldi onetan eguiazcoa izan zan-bada, gueróz guizaldi arc iraun zuen artean, Jaincoari le:yalquiró jarraitu citzayozcan.

Baña etorri zan beste berri bat, Jaunaren mirari andiac icusi etcituena, eta gaiztaqueriari osoloró eman citzayona: Ez bacarric Canaan-tar idolozaleacquin artu-emanetan ibi-lli, eta adisquidetasuna eguin, ecen, seme-alabac ero elca-rrari eman ciezteen, eta Israel-co seméac idolozaleon alabac-quin, eta oyen seméac ayen alabacquin ezcondu ciran; eta ñaste onetatic etorri zan, Israel-tarrac, Jainco eguiazcoa utciric, guezurrezcoac artu eta adoratcea.



Jaincoa, Israel-tarren esquer beltza, eta gaiztaqueria icu-siric, itz eta queñadaetatic eguiñetara igaro zan. Cemaya edo amenazacquin centzatu nai izan etciranac, ipiñi cituen Mesopotamia-co Erregue Chusan Rasatain-en escuetan, ceñaren mende lotsagarrian, izanic bérac Erregueai aguintcecoac, vici bear izan ciran zortci urtez, gaiztaquerian igaro cituzten lenagoco zortcien truque. Catibutasun onetan ceramatén vicitza negargarri eta nequetaco onec beguiac idiqui cieztén; gaizqui-eguiña ezagutu zuten, eta biotz osotic Jaincoagana barcacio-esque itzuli ciran, Orduan Jaincoa bere erri maitez erruquiturie, Israel-tarrai eman cien, Chusan-en mendetic norc atera, eta au izañ zan Israel-co lenengo Jueza *Otoniel* ceriltzana,

4. §. —*Israel-co Juezen eraenmentua, edo gubernua.*

Lenago esan da, Josué il ezqueró Israel-tarrac nola eraendutcen edo gubernatcen ciran, beren arteco guraso eta guizonic elduenac buru cituztela, eta Jaincoa beste Erregue eta Jaunic etzutela. Gueró ere etzuten iñoren bearric izango, baldin Jaincoaren esánac zucén gorde izan bacituzten; baña esan oyec austen cituztelaco, Jaincoac escutic uzten citien, eta bereala iñoren mende gogorrean erortcen ciran. Guisa onetaco nequeetan arquitu ciran batean, Jaincoa asi zan, *Juezac* deitu citzayen libratzalleac Israel-i ematen. Juez oyec Israel-en escualdi andia zuten, eta bere aguinteac vici gucian irauten zuen. Bat iltcen zanean, bestea ipintceco contua, Jaincoac ceucan. Irureun urtean Juez oyecquin izan ciran: bitartean gorabeera asco izan zuten; baña asi gaitecen dembora onetan izan cituzten amabostai bat-banaca uquitcen.

5. §.—*Otoniel, lenengo Jueza.*

Arestian aitatu diran Canaan-tarrequico guerran, Israel-coac cebiltzala, artu zuten Davir-co uria escuratceco asmoa. Calob, gucien buru eguiten bide zuenac, otseguin zuen, Davir-en lembici sartu eta ondatcen zuenari, bere alaba Axa

emastetzat emango ciola. Etzan gueyagoren bearrie, guizonic bioztunenac elcarren leyea esqueñtceco. Otoniel, Caleb beraren illoba, urian lembici sartu zan, eta saritzat Axa emazte eguin zuen. Jaincoac Otoniel au lenengo Juezat Israel-i eman cion, eta Chusan-i eraso, il eta gendegucia ondaturic, Israel-tarrac zorteci urteco mendetasun gogorretic atera, eta paquean ipiñi cituen, eta gueróz Otoniel-en egunetan Jaincoaren bildurrean vici izan ciran.

6. §.—*Aod bigarren Jueza.*

Israel-tarrac asi ciran jainco gtezurrezcoac adoratcen, eta Eglon Moab-co Erregueác, beste auzoetaco ascoc lagunduta, azpian artu cituen, eta onen mende necagarrian emezorteci urte ceramazquiten, Jaincoa erukuquitu, eta Aod bigarren Jueza aguertu cienean. Aod-ec Israel-tarren izaera eta nequeac ecin eramanic, Eglon-i guelara joan citzayon, eta ceraman ganibita sabelean sartuta, illic utci zuen. Bereala iñor oartu baño lenago, iguesari eman cion. Gueró Israel-co guerrariac berequin artuta, etsai guciai eraso cien, eta etzuen atsedan, alic eta guciac il arteraño. Aod vici izan zan egunetan, Israel-tarrac beti gueróz Jainco eguiazcoari leyalac izan citzayozcan.

7. §.—*Sangar, irugarren Jueza*

Irugarren Juez onec Israel-en etsayai arpegui eman cien batez-ere Filisten-tarrai, ceintzuetacoac arre ortz batequin seieun il cituen. Au vici izan zan artean, Israel-tarrac Jainco eguiazcoari jarraitu citzayozcan; baña ilda laster, idolai agur-eguin eta iñoren mendean erori ciran. Israel-tarrentzat, ecer ere lotsagarriagoric etzan, Canaan-tar baten azpian egotea baño; baña Jaincoac esan izan cien bezala, Canaango-go guciac lenengotic ez ondatuarequin, etsai galgarri oni eman cioten burua goratceco bidea eta lecua; eta Jaincoac oyec berac billatcen cituen, ayen gaiztaqueriarri cegoquion castigua emateco. Josue-c il cituen Erregue ayetaco baten odoleco Jabin ceritzan batec, soldadu-talde andi bat eguin, eta Canaan-go Erreguearen icena artu zuen.

Onec ceucan aguintari chit aditu Sisara ceritzana, ceñaren contura bere gende andia ipiñiric, Israel-tarraí eraso cien bederatcieun gurdi-sega berequin cituela, eta bereala menderatu cituen, eta morrontzaric gogorreanean oguei urtez iduqui ere bai. Bitarte luce onetan eramau cituzten neque-penac, etciran asco izan, ayec centzatceco. Ala ere baciran Jaincoari bildur citzayozcan cembait on; eta Jaincoa erruquitu zan, eta emacume bat libratzalletzat eman cien.

8. §.—*Debora, Barác-ekin laugarren Jueza.*

Jaincoac eman cionean, bada, Debora-ri aditcera, Israel-tarrac, arquitcen ciran neque-petic aren bidez atera nai cituela, prestatu zan, Sisara eta bere gendeari erasotceco. Onetaraco Barác-i gaztigatu cion, nola Jaincoac Barác aguintaritzat aututa ceucan, eta arc gaztigatcen ciona, eguin cezala. Baña Barac, bildurrez, etzan Debora gabe joan nai izan: eta amar milla armadun arturic, biac Taborco meudira igo ciran. Sisara-c au jaquin zuenean, bederatcieun gurdi sega zorrotzez beteac, eta gerrari guciac arturic, Barác cegoan alderonz joan zan. Baña Barác bere amar millacquin aurqueztu citzayonean, etzuen biotzic izan, gogor eguiteco, eta eguin-al gucian iguesari eman citzayon. Barác bederatcieun gurdiaz jabetu, eta soldadu guciac, bat bacarric ere utci gabe, il cituen.

Sisara iguesi cijoala, Haber-en emazte Jahel ceritzanac icusita, bidera irten citzayon, eta bere chaolan sarerazo cion. Bideco nequeac aulduta, eta egarriac easan ciolaco, ur pisca bat escatu zuen eta Jahel-ec caica bat ezne emanic, mantuarequin estali zuen. Sisara-c esan cion, atean jarri cedilla, eta iñorc galdetcen bacion. barruan cein cegoan, erantzuteco, iñor etcegoala, eta ezne ase-beteta, loacartu zuen. Oraindano Jahel-ec eguin zuen gucia, igueslari errucarri bati on eguitea zan, ceren biotza erdiratu cion, ain errequi charrean Sisara bat icusteac; eta onen Erregue Jabin, Jahel-en aitarequin paquean cegoan. Baña pensatu zuen, Jainco eguiatzcoaren etsai bildurgarri baten vicia escuan ceucala, eta au galtcearequin. Israel-tarraí gaitz

gueyago eguileco bideac ichico ciozcala. Orrez ostean baciequien, Canaan-tarra zalaco, Jaincoac aguinduta ceucanez, iltcea mereci zuena zala. Gogoác eman cjon, bada, lo cetzan bitartean, il bear zuela. Ilce bat artu, eta malluarequin llotoquian sartu cion, eta lurrari josita Sisara ipiñi zuen.

Barác orpoz-orpo cerraiquionac icusi zuenean, bere etsai portiz hura emacume baten escuetan ilda, ezagutu zuen, Debora gabe Jabin-en contra irten nai izan etzaneco bere ecereza. Aitortu zuen, Jaunaren escua ibilli zala; Jaunari esquérrac eman ciozcaten, eta etsai guciac iguesi joan ciran, buru aditu hura gabe arquitu ciranean.

Garaipen onen gueroco oguei urteetan Barác eta Debora-c Israel-co gendea zaindu, eta ezagüeran iduqui zuten, Jainco eguiazcoa baicic aitortcen eta adoratcen etzuela. Bi oyec il ciran, eta Israel-tarrac beren gaiztaqueria jaquiñari bereala eman citzayozcan, eta Jaincoari aserrerazo cioten. Castiguz Madian-tarren escuetan erori, eta zazpi urtez mendetasun gogorrean vici izan ciran. Bitarte onetan gose andiac igaro bear izan cituzten: bada, Madian-tarrac udaberrian abuztoac sasoi eta aroric obenean ceuden eguntan, joan, eta gucia-oñ-petu eta soiltzen zuten, eta topatcen zuten abere gucia ere berequin ceramaten, ecer ere Israel-tarrai utci gabe. Atceneraco aimbeste ondamen, eta onec cecarren gosetea ecin eramane, mendietara igueseguin, eta gorde-lecuac eguinda, vicitcera beartu ciran. Noizbait bear da, ezagüeran sartu ciran; gaizqui-eguiña aitortu zuten; eta Jaunari erruquimentu-esque jarri citzayozcan. Jaincoa cupitu zan, eta bostgarren Jueza bialdu cien.

9. §.—*Gedeon, bostgarren Jueza.*

F Madian-tarren atzaparretatic gariac gordetceco asmoan, *Gedeon* larrañean garbiquetan ciardun bein batean, Aingueru bat aurqueztu citzayon, Madian-en mendetic Israel aterateco, Jaincoac hura aututcen zuela, esatera. Gedeon ec elzuen alaco berriric artu uste; eta osotoró arrituric, Aingueruari aguertu cion bere echearen beeratasuna, eta

izate umilla, adierazten ciola, alaco lambide baten contua artcea, ari etcegoquiola. Ni zurequin izango nazu, Aingueruàc erantzun cion, eta Madian gucia, guizon bat bacarra balitz bezala, zuc ondatuco dezu. Gedeon-ec Aingueruari siñale bat escatu cion, nor zan ezagutceco, eta, arren, etcezala andie aldegin, cerbait ecarri eta eman artean. Aingueruàc, emen ichedongo dizut, erantzun cionean, Gedeon bereala echera joan, anchume bat egosi, eta saldà eltce batean ipiñi zuen; gueró legami gabeco oguiac eguin cituen, eta guciac Aingueruari arte-pe batera eraman ciozcan. Aingueruàc aguindu cion, araguaia eta oguiac arri-gañean ipiñi citzala, eta saldà oyetara išuri cezala. Gedeon-ec ala eguin zuen; eta Aingueruàc escuco cigorrarequin arriari uqutu cionean irten zan suác, gucia deseguin zuen, eta Aingueruá ayenatu edo ezcutatatu zan.

¡Ay ene! Gedeon-ec deadar eguin zuen, itzeguin ciona Ainguerua zala, ezagutu zuenean. Israel tarrac sinisturic oi ceuden, Ainguerua bein icusi ezquerocoa, bereala il bear zala; eta bildur onec Gedeon-i biotza mindu eta laztu cion. Baña Jaincoac bereala poztu zuen, esanaz, etcedilla estutu; etzala ilco. Aguindu cion, Baal idoloaren aldarea deseguiteco; onen inguruco zuaiztia ebaquitceco, eta emengó egurra, sua sortu citzayon arriaren gañean eguin zuen aldarean, erretceco, eta bi cecen, bat zazpi urtecoa, esqueñtceco.

Gedeon bildurteen zuen, bere erritarac jaincontzat ceucaten, Baal-en idoloari eguindaco aldarea egunaz, guciac cecustela, botatceac, eta amar morroi arturic, gañaz joan, eta Jaincoac esana eguin zuen. Biaramonean Baal-en aldarea lur-joa icusi zutenean, abiatu ciran, norc eguin ote zuen, galdez; eta jaquin zutenean, Gedeon zala, Joas bere aitari seme-esque aserre vician joan citzayozcan, beren jaincoari eguin cion bidegabequeriagatic il bear zutelata. Joas-ec eteien eman nai izan, esanaz, gaizquille aren castigua Baal beraren contura utci cezatela, eta jaincoa bazan. bere icen onaren alde irtengo zala. Isecazco edo bur-lazco esan onequin guizon sutsu ayec palacatu cituon, eta Gedeon iltceco artu zuten asmoari, utci cioten.

Gedeon-ec icusi zuenean, bere erritarren jainco Baal-en

aldarea lur-jotceco izan zuen biotza eta atrevencia, cein ondo irten citzayon, eta cer pensatu andiac eman cieztela, al-eguin gucia eguin zuen, bere senide, eheco eta aide guciac Jainco eguiazcoagana itzultceco, eta eguni guchiren epean bere lambideraco lagunic obenac oyec cituen. Bitarte onetan Madiantar, Amalec-tar eta beste asco cebiltzan, lenagoco urteetan oi bezala, Israel-tarrai erasotceco asmoan, eta eunda ogueita amabost milla guizon, abere eta ganaduz ondo ornituac, Jordan-go ibaya igaro zuten, eta Jezrael-co ibarrean estalpeac eguin cituzten, Israel gucira andiczabaltceco; baña Israel-tarrac etciran lenac, ezpada beren gaiztaqueria ezaguturic, Jaunaren erruquimentua irabaciac.

Ceruco arguiz Gedeon heteric, eta Jaunaren laguntzaren ustearequin sendoturic, guerraco trompetari soñu-eraguin cion, eta auzotara ere mandatariac gende-esque bialdu cituen, eta egun guchiren epean ogueita amabi milla guizon guerrari bildu citzayozcan. Oyec guciac etsayari arpegui emateco guizonez-guizon guchi ciran; baña Jaincoaren laguntza e guizonen utsunea bete bear zuen. Au berequin zuela sinisteco señaleac, lenagotic artuta ceuzcan; ala ere bere ecerezari eta beeratasunari beguiraturic, aldats eguiten citzayon, lambide artaraco Jaincoac autua zala, uste izateco, eta uzcur cegoan. Quezca guciac, bada, berac utci, eta guerrari ayec ala zala, cecusaten, ceruronz beguiac goratu, eta Jaunari siñale berri bat escatu cion. Ara nola. Ille-zati bat larrañean ipiñico det, Jaunari esan cion, eta gañeco intzac illea busti, eta inguruco lurra leor uzten badu, ezagutuco det, nere bitartez Israel gordeco dezula. Gedeon-ec, bada, ille-zatia gañean larrañean utci, eta biaramonean arquitu zuen, berac escatu bezala. Escuacquin illea estutu, eta isuri citzayon zumua catillu batera artu zuen.

Onequin ere, obeto jaquin-eresia etcitzayon osotoró bete, eta Moises-ec beste aldi batean bezala, contrara icusi nai izan zuen. Jaincoari escatu cion, ille-zatia leor, eta ingurua intzez bustia guelditu cedilla. Jaunac au ere eguin cion. Biaramonean larrañera joan, eta arquitu cituen illea

leor-leor eta inguru guciac bustiac. Orduan osotoró eza-  
gutu eta sinistu zuen, bera zala Israel libratceco autua.

10. §.—*Madian-tarren ondamera,*

Urrengo gaüean, bada, joan zan bere ogueita amabi  
milla guizonacquin, eunda ogueita amabost milla Madian-  
tar ceuden ondora, erasotceco asmoan. Jaincoac Gedeon-  
en ustea icusi nai izan zuen, eta esan cion: Soldadu asco  
danzcazu: Madian ez da zure escuan jarrico, Israel arro-  
tu ez dedin, eta esan ez dezan; nere indarrez libratu nin-  
tzan. Guçiai esan egueizu, cer diodan: bildur dan icaratia  
itzuli bedi; eta ogueita bi milla guizon itzuli ciran, amar  
milla bacarrac Gedeon-equin gueldituta. Gedeon-ec igues-  
te andi au icusi arren, etzan batere icaratu, eta prest ce-  
goan, cituen banacacquin erasotceco. Jaincoac, berriz ere,  
icusi nai izan zuen, cer uste ceucan, eta esan cion: orain-  
dic soldadu asco dauzczazu: urera eramán itzatzu: eta nic  
aguintcen diodana, zurequin bijoa, eta besteac itzuli bitez.  
Gedeon-ec bere amar milla guizonac ur-ondora eramán ci-  
tuen, eta Jaincoac esan cion: Zacurren erara ura miazcatcen  
dutenac, alde batean ipiñico dituzu, eta ura edateco be-  
launicatcen diranac, bestean. Irureun izan ciran, ura es-  
cuan artuta, miazcatu zutenac, eta gañeracoac, edateco,  
macurtu ciran. Orduan Jaincoac esan cion, irureun ayec  
asco cituela, Madian-tarrai erasotceco, eta besteac beren  
etzauntzaretara itzuli citecela.

Jaunaren esanera Gedeon osotoró jarriric, eta uzcurta-  
sun gucia utsiric, prestatu zan, irureun guizonequin etsa-  
yari erasotceco. Urrengo gaüean Jaincoac esan cion, Ma-  
dian-tarrac ceuden ibarrera jachi cedilla, eta bacarric bil-  
durtcen bazan, Fara bere morroya artu cezala, eta Madian-  
tarac cer cioten adituta, bioztundu eta bizcortuco zala.  
Gedeon-ec, Madian-tarren alderonz joan, eta icusi cituen  
guizonac eulia abarascán, eta gameluác area itsas-bazta-  
rrean bezala. Bati alderatu citzayon, eta entzun cion, la-  
gunari esaten: amets eguin det, eta iruditu zat, su-azpian  
erretaco garagar-ogui bat Madian-tarreronz amilca ceto-  
rrela, eta etzauntzara eldu zanean, jo naüela, eta osotoró nas-

luric, lurrera naizala. Lagunác esan cien; amets orrec ez du beste gauzaric adierazten, ezpada Gedeon-en ezpata, ceren Jaunac Madian bere gendearequin aren escuetan ipiñi duen.

Gedeon-ec ametsa entzun zuenean, Jaincoa adoratu zuen: bereetara itzulizan, eta esan cien: ea jaiqui laster; bada, Jaunac Madian-tarrac gure escuan ipiñi dizquigu. Irureun guizónac iru soldotan banatu cituen: bacoitzari trompeta, eltce uts, eta argui bana eman, eta esan cien, berác cer eguiten zuen, ayec ere eguin cezatela. Gedeon eun guizonequin Madian-tarren ertz batera alderatu zan: beste berreunác ere bi ertzetan jarri ciran, eunda ogueita amabost milla guizon Madian-goac erdian artcen cituztela. Gañ-erdian Gedeon-ec trompeta jo zuen: eta beste guciac ere bai: eltce-joca bereala asi ciran, ots izugarri, arteraño alacoric inongo guerran entzun etzan eracoa, eguiten zutela. Eltceac autsi citzayozcatenean, eltceetan ceramazquiten arguiac ezquer-escuan, eta trompetac escuyan cituztela, al-zan otsic andiena eraguin, eta cerrauten deadarca, *Jaincoaren eta Gedeon-en ezpata*. Oñic etcera-billen, eta gueró baño gueró ciarduten ots andiangoac eguiten bein trompetarequin, bein deadarca, arguiac chit gorá cituztela.

Gañ illunaren erdian, deadar-artetic irteten zana beste argui gabe, eta alde gucietatic jotcen citzayen trompeta-sonu icagarria, eta Jaincoaren eta Gedeon-en ezpata, beste itzic entzuten etzutela, Madian-tarrac arquite ciranean, jarri ciran, non ceuden, cer guertatcen citzayen, eta cer eguin etciequitela. Iguesi abiatu ciran. elcar jotcen zuten; eta etsaya zalaco ustean, nore bere laguna, topatulaco lecuán iltcen zuen. Gañ gucia egun-sentiraño ilquintza negargarri onetan eraman zuten; eta ordu guichiren barruan Israel-co baster ederra Madian-tarren odolez gorritua gulditu zan, Israel tarren uquitu bat bacarra ere gabe.

Eguna zabaldu zanean, viciric gueratuac hacecusten ere, irureun beste etsairic inguruan etzutela, gañean sartu citzayen laborriac, etcien uzten lecu batean egoten, eta egun-arguiari esquerrác emanaz, alde gucietaronz iguesi zabaldu ciran, Jordan-go ibaya lembaitlen igaro naye



estropezuca, beren errietan vicia gordetceco. Baña ; Jau-  
naren ardura cintzoa ! Gedeon-ec echera bialdutaco oguei-  
ta amaica milla eta gueyago guizon bildurti ayec, jaquin  
zutenean, Madian-tarrac iguesi cer buruzpide charrean ci-  
joacen, bidera irten, eta abarraquitu cituzten. Gedeon-ec  
bere irurenequin, arguiac utcita, ezpatác arturic, igues-  
lariai orpoz-orpo jarraitu citzayen; auzoetara ere bereala  
gaztigatu zuen, ibayaren urme-uneac, orduric galdu gabe,  
artu citzaten, eta gucien artean eunda ogueita amabost  
millaetatic, ibaya igaro zuten amabost milla ez, beste guci-  
guciac ondatu, eta il cituzten. Efrain-tar urme-uneac artce-  
ra aurquez-aurque irten citzayeztenac, Madiango lau Erre-  
guetatic bi, Oreb eta Zeb, bat arcaitz-pean, eta bestea  
dolare batean topatu, eta biac il cituzten, eta burúac  
Gedeon-i eraman ciozcaten.

Gedeon-ec beguia igues-eguin cioten amabost milla aye-  
tara ceucan: eta berai erasotceco, etzuen artu nai izan  
bere lenagoco irureun guizónac baicic, ceintzuec, bat ere  
galdu gabe, osoric guelditu citzayozcan. Baña nequeác eta  
goseac chit auldulta ceuden, berriró equiteco: eta oyec  
cerbait zuzpeltu nayez, Socot eta Fanuel-en cer jana esca-  
tu zuen; ordea bi erri oyetaco esquer gaiztocoac, ez eman,  
ecen, isecaz bete zuten. Laburtasun eta lotsegabequeria  
au, aimbeste mesede eguinda gueró, icusiric, irurenac  
ipiñi cituen etsayaren ondoren, ecer artu gabe, aulqueri  
gucian, egun hura pozic igarotcera. Etsayac ceuden to-  
quira gañaz, iñor oartu gabe, sartu zan; itsumustuan era-  
so cien; eta ezpataz josi, eta guciac ondatu cituen: eta  
Zebec eta Salmana Madian-go beste bi Erregueac ere atci-  
tu cituen.

Biamonean atceman edo atcituacquin atceraco bidea  
artu zuen, eta urrengo egunean, eguzquia baño lenago,  
Socot-en ondoan cegoan. Emen sartu zan, eta orainago  
ogui-esque jarri citzayenean, eguin cioten isecacgatic iru-  
rogeita amazapi guizon andientsuen araguiac lar eta  
arantzacquin orraztu, eta ceaerazo cituen. Cueró Fanuel-  
era joan, eta aren bildurrez gazteluan gorde ciran errico  
burucái guciac il cituzten. Atcenean bi erri oyei cegoquien

castigua emanda, bereala Madian-go bi Erreguéac il cituen; eta Israel gucia paquean, eta etsayen bildur gabe guelditu zan.

Lambide oyec guciac eguin cituenean, Efra bere errira itzuli zan, irureun guizon leyal ayec berequin cituela: Israel-co andizquiac aurqueztu citzayozcan, onguietorria eguitera, eta Israel guciari ecarri ciozcan mesedeacgatic esquerrac ematera. Berac iritsitaco garaipénac ain andiac izanic, Erregue eguin nai izan zuten; baña etcien utci, esanaz, Jaincoa beste Erregueric etcezatela artu. Ala ere, uste izan etcezaten, ayen esqueñi oparoa aintzat artcen etzuela, esan cien, etsayari quendutaco belarrietacoac emateco. Bereala capa bat lurrean zabaldu, eta eman ciozcaten belarrietacóac, ez ecie, urrezco, eta sedazco beste edergarri asco, berreunda ogueita emezortci milla erreal balio zutenac ere. Beretzat ecer nai etzuen, eta gai oyecquin *Efot* eder bat eguin, eta bere echean ipiñi zuen.

Gueroco urteac Israel-co Juezaren eguinquisunac ondo betetcen, eta Israel-tarrac Jaincoa zucen servitceco, al-eguiñac eguiten, igaro cituen. Israel berroguei urtean eraendu zueu, eta Efra bere errian il zan, irurogueita amar seme utciric. Israel-tar onac, beren libratzalle gogoangarriari cegoquion eran, negar andiac eta progu lucea eguin ciozcaten.

11. §.—*Abimelec, seiyyarren Jueza.*

Gedeon vici izan zan artean, Israel-tarrac Jaincoari bildur izan citzayozcan; baña il bezain laster, guizon andi onen ondo-esanac aztu, idolo-zaletu, eta Jainco eguiazcori utciric, artacotzat Baal artu zuten, eta eguiguera onequin ain ondore negargarriac ecarri cituzten. Arestian esan da, Gedeon-ec irurogueita amar seme utci cituela; ceñac aitarren icen ona gordetcen zuten, cutsutu gabe baña oyezaz landara, zorigaitzean izan zuen bigarren mallaco emazte Siquem-tar bategan ere beste bat, Abimelec ce-ritzana, eta Israel-co seigarren Jueza. Bere aita ilda, seme zorigaiztoco onec Israel-tarrai iguerri cienean idoloetara

grinatnac, uste izan zuen beretzat cerbait eguiteco aldia orduan zala. Siquen-era joan, eta bere amaren senideai buruan sartu cien, obe zutela, batec aguinduac izatea, Gedeon-en beste irurogueita amarren mendean egotea baño, eta ipiñi cituen, Siquen-go guciai bere alde itzeguitera. Oyec entzun zutenean, ango odolecoa eta jatorria zala, Erreguetzaraco beguia ezarri cioten, eta Baal-en elizaco dirutza andi bat eman cioten ceñarequin cembait guizon galdu erosi, eta oyecquin aitaren echera joan zan. Ingurutu zuten, eta Joatan anaya gazteena ez, beste senide guciac alcituric, arrigañ batean il cituen. Irurogueita bederatci senide anaya batec ilda icusteac bazter guciac izutu cituen, eta arri-eguiñic guelditu ciran; baño aguinte-nayez biotza beteta ceucan Abimelec biurriari, ecer guichi citzayon, aimbeste odol isuriagatic.

Gogortasun paregabe au eguinda, bereala Siquen-era itzuli zan, sari-esque bacijoan bezala, eta Siquen-tarrac alaco guizon galdu bat igüindu bearrean, arte-te batera bildu, eta Erreguetzat artu zuten. Joatan viciric guelditu zan anaya bacar arc berri au aditu zuenean, Siquen-dic urrean cegoan Garicingo mendira igo, eta osea asi citzayen, itz estaliacquin arpeguira emanaz, aren aitagandic artutaco mesedeac, irurogueita bederatci seme il ciozcan bat. Erregue eguitearequin, cein gaizqui ordaintcen cituzten. Esan cien, baceritzaten ondo eguin zutela, poztu citecela; baño gaizqui eguin bazuten, Abimelec berac galdu citzala. Oyec eta beste gauza asco esan eta Abimelec-en iguesi Barà-ra joan zan.

Abimelec-ec Israel-co aguintean iru urte eguin cituen; eta Siquem-tarrac asi ciran, Abimelec-i eta bere lagun Siquem-go buruai gorrotoz eta igüiñaz beguiratcen: eta guizon odolguiro hura beguietatic bein betico quentceco, guizonac bidean isillic ipiñi cituzten, Efran-dic Siquem-eronz cetorrenean, itsumustuan artu, eta il cezaten; baño Abimelec-ec, certan cebiltzan oartu, eta berac aurea artu cien. Siquem-era joan, indarrez sartu, biztanle guciac il; erria erre, eta gatza erein zuen, seculan ecer eman etce, zan, eta inor vici etcedin. Ara nola bete zan Joatan-ec esan cien etorquizuna.

Siquem-go dorrean ceudenac, erria sutan icusi zutenean. sartu ciran Berit-en elizan, non Baal-i jaincotzat ezaguteco itza len eman izan cioten. Abimelec Selmon-go mendira igo zan; zuaitz bati besanga bat ebaqui cion, eta sorbaldan arturic, bere soldaduai esan cion, berebat eguin cezatela. Dorrearen oñera joan zan, su eman cion, eta dorrea, Baal jaincotzat ceucaten, eta emen arquitcen ciran milla guizon eta emacume erre cituen. Bereala Tebas-era joan zan, ceren au ere bere contra irten citzayon, eta emengo gendéac icusi zutenean, Abimelec cijoquiela, dorre chit goititu batera igo, eta afeá ondo ichiric, estali edo tellatu-gañera irten ciran, gogor eguiteco asmoan. Abimelec-ec erria iñor gabe arquite zuenean, dorrera joan, eta portitzquirò eraso cion. Atera alderatu zan, eta su emateco cebillela, dorretic emacume batec bota cion errotarri-pusca batec, muñac lertu ciozcan; bere burua iltcen icusiric, morroyari aguindu cion, il cezala; etzuela nai, alabañan, iñorc esan cezan, andre batec il zuela. Nagusiaren esana morroyac bereala eguin zuen, eta guertatu zan Joatan-en esana, cionean, aren galtzallea Tebas-tic irten cedilla.

Il zan, bada, lotsa gorrian emacume baten colpetic Abimelec biotz-gogor eta odolguiroa, adiñaren lorean, bere lagun eta adisquideric andienac ere gorrotatua, eta egüindua.

12. §.—*Tola, zazpigarren Jueza.*

Abimelec-en gaiztaqueriac Israel 'gucia gogaitu eta aspertua ceucaten; eta hura il zanean, beguira jarri ciran, nor izango ote zan, arc eguindaco calte andiac, eta ipiñitaco nasqueta negargarriac orbaindu eta zucenduco cituena, eta bereala autu zuten Tola, Gedeon-en illoba, guizon zucén Jaincoaren bildurrecoa, eta bere eguitecoai arpequi ondo eman ciena. Ogueita iru urtean Israel-co Juez izan zan. Samir-en il, eta lurpetu zuten.

13. §.—*Jair, zörtcigarren Jueza.*

Tola-ren urreneco Jair izan zan. Onec ere ogueita bi ur-

tean Israel eraendu zuen, eta Camon-en il zan. Atceneco bi Juez oyen demboran Israel-tarrac idoloetaraco eresi gogoric ez bide zuten aguertu: beintzat, Jaincoac etcien oi bezalaco castigoric bialdu. Jair il zanean, etzuten bereala aren oñordecoric autu; eta bai idolo-zaletu, alaco eran, non, ez da eder esatea, cer gaiztaqueric eguin, eta cembat jainco guezurrezcori belaunicatu citzayozcan; eta mingarriago dana, Jainco eguiazco bacarrari zor zayon agur edo adoracioa emateari ere utci cioten. Orduan Jaincoac, Israel-tarren gaiztaquericquin chit aserreturic, alde batetic Filistin-tarren, eta bestetic Amontarren escuan eta mendean ipiñi cituen. Morrontza gogor onec emezortci urte iraun cien; eta bitartean eraman cituzten neque látzac, berandu bederic, beguiac garbitu ciezteen, beren gaiztaqueria itsusiatic icusteco, eta Jainco Onguille ecin obeagoari eguindaco lotsagabequeric, ezagutceco. Jarri citzayozcan, bada, beren becatuen aitormenarequin Jaunari barcacio-esque. Lembician Jaincoac etcien aditu, arpeguira emanaz, lenago ere bein baño gueyagotan alaco esturasunetic atera izan cituela; baño on-eguiñac bereala aztuten citzayeztela, eta gogoac cien gucian uzten ciotela: eta jaincotzat artu cituztenai escari hura bera eguiteco. Israel-tarrac aguiraque edo erreprensic ain icaragarri eta bidezco onegatic etzuten cerbait iristeco ustea galdu. Berriz eta berriz leyatu citzayozcan, beren gaizqui-eguiña aitortcen, eta beste edocein castigu emango bacien ere, etsai circuncidatu ga beco ayen mendetic atera citzala, escatcen. Jaincoac oyen negárrac eta eguiazco damuaren beste adieragarriatic icusiric, cupitu citzayozcan, eta asi zan erruquiz beguiratcen.

Amon-tarrac urteoró etorri oi citzayezten, nai cituzten, laburtasun eta charqueric eguitera: eta Jaincoac lagunduco cielaco artu zuten uste onarequin prestatu ciran, arpegui emateco, lenagoco urteetan bezala, naizutenic eguiten utci gabe; baño burucari eta guiatzalleric etceucaten; etzuten, alabañan, Jair-i oñordecoa emateco conturicizan, eta urte ascoco iñoren mendean egoteac etcien mesede andiric eguiten, bear bezalaco guizon bat erraz arquitceco. Estorra larri onetan, bada, langai onetara bildu ciran Principe

guciac esan zuten, Amon-en contra lembici arpeguia aguertu, eta erasotcen, asten zana, buru eta aguintari izango zala. Gauza ain balio andicoraco auquera eguiteco artu zuten era au, cbit egoquia ez bide zan; baña Jaincoa cebillen, nosqui, argui-e-guilen; ondoreac, beintzat onac izan ciran.

14. §.—*Jepte, bederatcigarren Jueza. Abesan, amargarrera. Ahialon, amaicagarrena. Abdon, amabigarrena.*

Esan dan era 1 Jepte Juezetaco autua izan zan. Borta zan; baña bere aitac semetzat ezagutu, eta bere echean acia. Aita il zanean, anaya bidezcoac edo matrimoniocoac echelic bota zuten, esanaz, aitaren ondadean cer eguñic etzuela. Jepte nora bilduric etzuela icusi zanean, Manases-co bazter Tob ceritzan batera joan, eta emen vici zan. Berez guerraraco griñatua eta bulardetsua zan, eta non-naicoa, inguru ayetan ere baciran guizon cer galdu-gordeasco etzutenac, eta lembici aguertcen zan lanari eltcen ciotenac. Oyec, bada, Jepte-ri batu, eta cerraizquion, beren Erregue hazuten bezala. Jepte-c esan cien, gogoac ematen ciola, ayec nai izatera, Amon-tar-ren lurrera joan, eta Israel-tarren etsayac ciralaco, erasotcea. Bayezcoa bertatic eman cioten: eta Amon-tarretara bat-batean sartu, eta alcituzten aberé eta ondasunac arturic, beren toquira itzulcen ciran, osterá ere berritceco asmoan.

Jepte langai onetan cebillen egunetan, Masfat-en ceuden, aguintari bat, esan dan eran, autu bear zala, erabaquitcen; eta jaquin zutenean, Jepte asi zala, Amon-tarrai erasoac eman eta sarrerac eguiten, ezagutu zuten, auşe zala, Jaincoac Israel-tarren burutzaraco ceucana. Guizon ic elduenac eta nagusienac bereala Tob-era joan citzayozcan, Masfat-en bilduta ceuden armadunen aguintean jartceco, esatera Mandatari oyen artean arquituco ciran, Jepte-ren anaya echelic atera zutenac ere; beintzat, esan cien ¿ea ayec etcirran lenago gorrotoz beguiratu ciotenac? Baña quejura ayec aintzat artu gabe, escatu cioten, arren, ayecquin joan cedilla, Israel-co buru izan bear zalata.

Jepte Israel guciaren aguintean jarri zanean, aguertu zuen odolic isuri gabe auzoacquin paquéa eguiteco eresia; eta Israel-tarrai aimbeste eracusten cietcen etsai cital eta dollorrai, leguez eta bidez eraso bacizayequetean ere, Amon-tarren Erregueari oparic obenarequin mandatariac bialdu ciozcan, paquean egoteco bideac adieraztera; baña Amon-tarren Erregueac etcituen gaztigu oyec aintzat artu- eta bere asmo galduacquin guelditu zan. Bien artean desberdintza andia cegoan. Amon-tarren Erregueac armadun asco, eta ondo trebatuac ceuzcan; eta Jepte-c gazte gaitz-icusi gabeco banacac baicic etcituen: ala ere Jepte-c ezaguturic, garaipena, ez armadunen copuruan, ezpada Jaunaren laguntzan cegoala, etzan bildurtu: eta Jaincoa obeto irabazteagatic, eguin cion promes bat gueró estura larrian ipiñi zuena. Jaincoari esan cion, baldin Amon-tarrac escuratcen baciozcan, bere echetic onguietorria eguitera, lenengo irteten citzayona, zana zala, *holocaustoan* esqueñi edo otrecituco ciola. Promes au eguinda, bereala bere armadun banaca eta trebatu gabeacquin joan zan; Amon-tarrai eraso cien; eta oguei erritan chit asco il cietuen, eta Amon-en semeac Israel-enaen escuetan erori ciran.

Garaipen onen pozez Jepte echeronz Masfat-era bacetorren, eta bere echecoetic lembicico bere alaba bacarra aurqueztu citzayon, alegranza andian, eta soñua joaz dantzán, ceña icusi zuenean, soñecoac urratu cituen, ciola: ¡Ay ene alaba! Zuc esturan ipiñi nazu, eta cerori ere jarri cera, ceren Jaunari itzeman diodan, eta beste gauzaric ecin dezaquedan. Aita nerea, alaba on biotz andico onec erantzun cion, aita nerea, Jaunari itzeman badiozu, nizaz eguizu, promestu dezungucia, etsaya garaitu eta castigatu dezun ezqueró. Gauza baten esque nagoquizu; cere baime-na indazu, basora joan, eta lagunacquin nere garbitasuna bi illabetean negartceco. Aitac esan cion, cijoala; eta bi illac eguin cituenean, aitagana etorri, eta onec bere promesa bete zuen.

Lenago esan da, batec aurric ez izatea, Israel-en chit lotzagarría zala, ceren bere odoletic Mesias sortceco usteac

galtcen cituen, eta oroitze onec aita naigabez bete, eta alabari negar eraguiten cion. Eguia da, Israel-co doncellac jaquin bazuten. Mesias au, emacume baten sabelean, osotasuna galdu gabe, sortuco zala, Jepte-n alaba on onec negar eguin, ez ecen, chit poztuco zala, bere aitac Jaincoari esqueñi ciola, jaquitean. Mirari au ezagutcen etzuten, eta virgiña guelditcea lotsa anditzat baceucaten ere. promestua aitac eguin zuen; Jaunari esqueñi citzayon; beti garbi izateco itza eman cion, eta cintzó gorde zuen, nescach onen irmolasun eta vertute ederrae Israel-tar guciac arri-tcen cituela.

Jepte-ri, alaba bacarra ezcontzaca gueldituta, bere odoletic Mesias sortceco uste gucia galtceac cein ere atsecabe andia eman cion, are andiagoa artu zuen, arqutu zanean, ez etsayen, ezpada Israel-tarren odola isuri bearrean. Efrain-tarrac José Patriarcaren jatorricoac ciran, eta alde onetatic arroturic, uste zuten, gauza gucietan iñor ez bezalaco escualdiac bear cituztela. Beretacoa ez beste edoceñen ona ecin eraman zuten. Gedeon-i bere aldian buruauste andiac aurqueztu citzayozcan, arpeguira emanaz. ¿ ea cergatic ayec gabe Amon-tarrai eraso cien? Jepte-c eraz eran-tzun cien, eta bere eguimbidea garbituaz; alperrie ordea. Guerra nai zuten, eta eraso cioten. Jepte-c ain ondo jaquin zuen arpegui ematen, non, aurqueztu citzayozcanac abarraquitu, eta ondatu cituen. Egun bat bacarrean berroguita bi milla Efrain-tar il ciran. Ilquintza onequin, eta Amon-tarrai eguin cienarequin, Israel paque onean ipiñi zuen,

Gueróz vici izan zan, paque au gordetceco aleguiñac eguiten, Israel-tarrac idoloetara erori gabe, contu artcen, eta Jaincoa berac ondo servitu, eta besteai servierazotzen. Sei urte aguintean eguinda, il zan, eta cegoquion eran lurpetu zuten.

Amargarren Jueza Abesan, amaicagarrena Ahialon, eta amabigarrena Abdon izan ciran. Jepte-ren ondoren iru oyec, nor bere aldian, Juezetan sartu ciran, ceintzuec, iruren artean, ogueita bost urte igaro cituzten. Oyecatic beste cer esan andiric ez degu.



AMALAUGARREN IRACURGAYA.

1. §.—*Sanson, amairugarren Jueza.*

Abdon ilda, bereala Israel-tarrac Jaunaren aurrean gaiz-izquia eguin zuten; au da, Jainco guezurrezcoac adoratu cituzten, eta Jaincoac castigutzat Filistin-tarren mendean ipiñi cituen. Israel-tarrac len ere Filistin-tarren mendean egon ciran; baña Samgar eta Jepte-e ayen azpitic atera cituzten. Gueróz etciran Filistin-tarrac esturasunic ematera atrebilcen, Baña icusi cituztenean, beren gaiztaqueriagatic Jaunaren aserrean erori cirala, asi ciran berriró necaerazotéen, eta eunda berroqueita amar urtean, guichi gotabeera, etcieten paquean utci eta Israel-tarrentzat aculluric zorrotzenac berac izan ciran. Orregatic emen esan dezagun, Filistin-tarrac cer ciran.

Oyec etciran Canaan-tarrac, ezpada anciñaeran Egiptotic etorritaco jatorriac, ceñac Canan-tarrai itsas-ondoan lurzati bat quenduric, bost ballera edo Provinciatan zabal-duta, beren vicimodua ateratcen zuten. Bost ballera oye-tan, norc bere Principe edo Satrapa ceritzatenac, buru cituztela, beren gañ eraentcen ciran; baña campocoacquin despita edo aserreric bazuten, elcartu eta bat-eguiten ciran. Israel-tarrac Canaan-en sartu ciranean, bost ballera oye-tatic iru beretu cituzten, eta beste biac ere bai bear, ceren Jaincoac Israel-i aguintutaco lorra zan; baña Jaunaren esanaren contra, Canaan-tarrac beren artean utci cituzten guisan, Filistin-tarrai ere lecu eman cioten. Guerò beste iru ballerac ere galdu cituzten; eta oyec luzaró Israel tarren etsairic gogaicagarrienac, eta necagarrienac izan ciran.

Aldats eguiten da, Filistin-tarrac Israel mendean ceucata sinistea, contrara guertatu bear bide zanean; bada Filistin-tarren bazter gucia, Israel-tarren amargarren zatia etzan: beragatic Israel-tarrac eun milla guizon aisago ipiñi citzaqueten, Filistin-tarrac amar milla baño: ala ere, Israel-tarrac jainco guezurrezcoetara eman ciran ezqueró, Jaunaren laguntza, galdu zuten; bildurti eguin, eta macal-

du ciran, eta ecerlaraco quemenic etzuten. Filistin-tarrac Israel-tarren izaera au contuan arteen zuten, nai cietena-eguiteco. Guclaz ere, Israel-en baciran anima on eta Jaincoari bildur citzayozcanac, eta biotzac ceruronz zucenduric, Jaunari escatcen ciotenac, arren, erruquiz beguiratu, eta mendetasun lotsagarri artatic atera citzala. Jaincoacescari on oyec entzunic, eman cien libratzalle bat, *Sanson* ceritzana, eta Israel-co amairugarren Jueza.

Sanson ain ots andicoa, guraso on eta Jaincozcoen semea, Saraa-ondoan jayo zan. Gurasóac aur gabe luzaró vici izan ciran, eta amac aurric izateco uste guclac galduta ceuzcanean, Aingueru bat, guizonaren antzean, aurqueztu citzayon, eta itceguin cion onela: Leorra cera; baña seme bat izango dezu; ez edan ardoric, eta ez sagardoric, ez eta gauza loituric ere jan, ceren eguingo dezun seme bat, ganibitac buruan uquituco ezdiona, au da, illeric ebaquico etzayona.: bera asico da, Filistin-tarren mendetic Israel-larrac ateratcen.

Aingueruac, itzaldi au eguinda, bereala aldeguin zuen, eta senarrari emaztea joan citzayon, cer guertatu citzayon esatera: esan ere bacion, gadetu ciola, cein zan, nondicetorren, eta nola ceritzan; baña galdera oyei etciela eranzun, semedun eguingo zala baicic. Orduan Manué senarrac Jaunari escatu cion, mandatari bera berriz ere bialdu cezala, aur jayotcecoarequin cer eguin bear zuten, eracustera. Jaincoac escari au entzunic, emazteari aguertu citzayon, corrica joan zan, senarrari esatera. Senarra bereala Aingueruari aurqueztu, eta galdetu cion. ¿ea aurrarequin cer eguitea nai zuen? Erantzun cion, etcezala aurrac ardoric eta sagardoric edan, ez gauza loituric ere jan, eta emazteari esandaco guclia, eguin cezala.

Manué-c erregutu cion, anchume bat erre artean ichedoteco. Aingueruac erantzun cion, alperric leyatuco citzayola bada, etzuela jango; eta nai bazuen, Jaunari esqueñi citzayola. Manué-c etciequien, itzeguiten ciona Aingueruac zanic, eta galdetu cion, ¿nor zan? bada, jaquintsu egon nai zuela, arc ciona guertatcen bazan, bere esquer-eracutsia eguiteco. ¿Certaco nere icen miragarria jaquin nai dezu?

Aingueruác esan cion. Manué-c anchumea arri-gañean bere errequiñacquin ipiñi zuen, Jaincoari ofrenda ura esqueñtzen ciola; eta su emanda, garra goronz abiatuzanean, Aingueruá garretan sartu, eta igo zan. Beguira ceuden senar-emazteac, mirari onequin arrituric, auzpez jarri ciran, eta etzuten gueyago inor icusi. Orduan ezagutu zuten, guizontzat ceucaten itzlea Aingueruá zala. Manué-c bereaia larritasun guciarequin emazteari esan cion, il bearrac cirala; baña emazteác lasatu zuen, esaten ciola, baldin Jaincoac il nai izan balitu, etzuela ayen ofrenda onetsituco edo ontzat artuco, ez eman ere etorquizoneco berria. Lenago esan zan, Israel-tarren arteco sinismena zala, Aingueru bat icusi ezqueró, bereala il bear zala; argatic Manué larritcen zan, eta emazteác lasatu zuen.

2. §.—*Sanson-en lenengo ezcontza*

Eguiaz, emazteac uste oso-osea ceucan bezala, mundura zuen seme bat, *Sanson* ceritzana, eta aci ere bai. here bularrean, eta Jaincoac bedeincatu cion. Emezortci urte citueneraco, Jaincoac biotz, gauza andietaraco, sendo eta indartsua eman cion. Orduan Tamnata, Efrain-go erri batera, eguin zuen joan balean, icusi zuen Filistin-tarren alaba bat gogoan sartu citzayon, eta echera zanean, gurasoai aguertu cion nescach arequin ezcondu-naya; baña gurasoac erantzun cioten, zea beren aide edo erricoetan nescachic etzan, Filistin-tar circuncidatzacaetara joan gabe? Sanson aitari leyatu citzayon eresi berarequin. Gurasoac etciequiten, in artan Jaunaren escua cebillenic, eta semeác Filistin-tarrac ondateco bidea billatcen zuenic. Gueroe-nean artara jarri ciran; eta Tamnata-ronz gurasoac semearequin abiatu ciran, eta erri-ondoco mastietara ciranean, leoi gazte portitz bat irten citzayen, orroica; baña Sanson-en biotzean Jaunaren indarra sartu zan; leoyari itsatsi citzayon, eta anchume bat bezala, chiquitu eta ceatu zuen, gurasoac oartu gabe; etcien esan ere, cer eguin zuen. Errira ciranean nescachari itzeguin cion; gurasoac semearentzat escua escatu cioten, eta bayezcoa artutacoan,

gurasóac eta semeà itzuli ciran, emazte-gayaren echean eguin bear ciran ezlayetaraco gauzac prestatcera.

Egun batzuen buruan Tamnata-ronz, ezcontza eguitera, baciyoacen, eta Sanson-ec gurasoetatic aldeguin, eta lenagocoan il zuen leoyari, beguiratu cion, eta icusi zuen bere aoan erle-samalda andi bat, abaráscaac eguinda. Abarasca bat arturic, baciyoan gurasoetaronz, jaten, eta oyei ere esqueñi cien, nondic artu zuen, esan gabe. Errian sartu, eta Sanson, aitatu dan nescacharequin, ezcondu zan.

Onelaco egunetan oituraz ezcom-berrien aideac elcargana bildutcen ciran, eta ezcon-ondoco zazpi egúnac poz eta olganzan igarotcen cituzten. Bildu ciran, bada, Sanson-enac eta bere emaztearenac ere, Sanson-i erricoac eman ere baciozcaten ogueita amar mutil gazte, egun oyetan lagun izan citzan, Berebat oitura zan, gauza illon eta estaliac norc asmatcen cituen, aritcea, era onetan adiñac edo entendimentuac ascatu eta arguitceco. Sanson-ec oitura au ere gorde nai izan zuen, eta bere ogueita amar lagun gazte ayei esan cien, baldin arc esandaco itz batzuec cer adierazten zuten, asmatcen bazuten, ogueita asmar izareedo maindire, eta ogueita amar soñeco emango cieztela; baña asmatcen ezbazuten, beste aimbeste izare eta soñeco berari eman bearco ciozcatela. Filistin-tarrac baceritzaten, gai onetan cerbait bacirala, eta gucien aurrean erantzun cioten, gausa isill asmacai hura esan cezala. Ara, bada, Sanson-ec esan cien: *Jaleagandic janaria irten zan, eta sendoagandic gozoa*: asmaezazute.

Filistin-tar gazteac lenengo iru egunetan buruac austeco ibilli ciran, ecin asmatuz, Sanson-en emaztea ere bear-tu zuten, bere senarragandic isillie jaquiteco, batean loseinchan, bestean negarrez aleguiñac eguitera; baña Sanson-ec etcien ecer esan nai. Ondorengo egunetan ere, bai gaztéac, eta bai emaztéac, lan berean jarraitu zuten; baña alperric; etzuten ecer aurreratcen. Zazpigarren egunean gaztéac emazteari esan cioten, baldin senarrari ezbacion aguertuerazotcen, asmacai arc cer esan nai zuen, echeari su eman, eta bera bere aitarequin erreco zutela.

Emaztea Sanson-i negarrez cegoquion, ciotsala; maite

ez nazu: igüin nazu; orregatic, nere errico gazteai ipiñi diezun asmacaya aguertu nai ez didazu. Sanson-ec erantzun cion ¿ea bere ait-amai esan nai etciena, ari esango cion. Atcenean ere emaztearen negar eta espac ain miñac izanic, bere isill-gauza aguertu cion. Aditu bezain laster, gazteai contu ematera joan citzayen. Gazteac atceneco egunean, eguzquiac aldeguin baño lenago, Sanson-i, bérac asmatua bezala, esan cioten: ¿cer gauza gozoagoric ezlia baño, eta sendoagoric leoya baño? ¡Ah! Sanson-ec erantzun cien; ezbacenduten nere chalarequin goldeatu, asmatuco etcenduten: esango bacion bezala: nie izan ezbanu, paqueric ematen etcidan emazte bat, edo zuetacoa, asmatuco etcenduten; beragatic ez dezute saririe irabaci; ala ere apustuan esana, emango dizutet.

### 3. §.—*Sanson-en bigarren ezcontza.*

Sanson Israel-co Juez, eta Israel-tarrai beren escualdiac eta paquea emateco, Jaincoac aututa ceucana zan, eta Jau-naren indarrez sendoturic, Azcalon cerifzan Erri-burura joan, eta contu-artcen ceuden soldaduai eraso, eta ogueita amar-guizon il' cituen ceñaen soñecoac arturic, gazte asmatzalleai eraman ciezten, eta bere aitaren echera itzuli zan. Emazte desleyalac icusi zuenean, senarrac aldeguin ciola, oso beticó utci zuelacoan, ogueita amar gazte ayetatic batequin ezcondu zan. Egun batzuen buruan, itaite edo gari ebaquitetean Sanson emaztea icustera joan zan anchume bat berequin zuela; baña guelara sartcean, aitaguia-rraba irten citzayon, eta guelan sartceco lecuric etcion eman ciotsala, betico utci zuelacoustean, alaba adisqueide bati eman ciola; baña etzala ansi; gazteago eta ederrago bat bazuela, eta onequin ezcondu citequeala. Eguimbide onequin Sanson chit aserretu zan, eta ordutic erabaqui zuen, Filistin-tarrai cezaquean calteguciaeguitea, eta eguin cioten salduqueria nocierazotcea. Sanson etcegoan, lengo Juezac bezala, guizon-samaldacquin, ezpada bere indar utsacquin, erasotceco, autua. Itaitetaco egúnac ciran, eta, besteri ez bezalaco calte-eguiñera bat gogoratu citzayon.

Sanson-en alderdian aceriac chit ugari eta asco ciran: irureun escuratu edo atcitu, eta ipiñi cituen biñaca, elcarri isatsac lotuta, illeti sutu bana erdian zutela. Onela larrañ eta mastietara bialdu cituen; eta cembat azcarrago joan, ambat gueyago illetiac iracequitcen ciran, eta azeriai min ematen cieten. Guisa onetan or-emen cebiltzala, gari guciac, ebaqui, eta ebaqui gabeac, sutu cituzten; mastietarare sua zabaldu zan; eta ordu guchiren epean bazter guciac erre eta quiscaldu ciezen. Filistin-tarrac jaquin zutenean, nore eta cergatic calte andi hura eguin cien, Tamnataura joan, eta emazte eta onen aita erre cituzten. Sanson-ec gaztigatu cien, ayec, lambide au eguin arren, etzuela escua atceratuco, al-zan calte gucia eguin gabe. Gueró asco guizon il ciezen, eta gañeracoac osotoró izututa ipiñi cituen.

Sanson lan onen ondoren lecu ezcutu batera joan, eta Filistin-tarrac beren onera ciranean, Sanson-en billan abiatu ciran. Soldadu-talde andi bat bildu, eta Juda-co alderdira joan ciran. Juda-coac aimbeste guizon echean icusi cituztenean, bildurrac eman cien, eta ezaguturic, Sanson-en esque cijoacela, bérac jarri ciran, Sanson Filistin-tarraí ematera, beren burúac onela gordetceco. Iru milla Israel-tar elcar-arturic, Sanson gordeta cegoan lecura joan, eta esan cioten, ¿ea ala aserrera zotceco calteac certaco eguin ciezen? Sanson-ec erantzun cien, berari eguin ciotena, ordaintcea baicic etzuela eguin. Israel-tarrac esan ciotenean certara cijoacen, ez iltceco itza quendu cien. Soca lodiacquin lotu, eta ezcutuan cegoan leice-zulotic ateraric, esque cebiltzanen escuetan ipiñi zuten.

Filistin-tarrac aimbeste calte gogorren eguillea mendean artu zutenean, chit poztu ciran; baña gozoa laster mindu citzayen. Sanson-ec, lotuta ceucaten soca biac, ari ustel bat bezala eten cituen: an bertan sortu citzayon asto baten matrallazur batequin, lenengo uquituan milla Filistin-tar il cituen, eta gañeracoac, al-zuten toquira. iguesi joan ciran. Sanson etsai gabe arquitu zanean, lurrean etzan zan. Bere atsedenean cegoala, egarriac eman, eta etsayen escuetan erorico zan bildurrac artu zuen. Estura-

sun onetan ceruronz beguiac ipiñiric, Jaincoari esan ción: Zu cera, ni zure servitzari onen bitartez, garaipen andi au irabaci dezuna; baña Jauna, egarriac itolcer nauca, eta nere etsayen escuetan erortceco zorian nago. Jaincoa etcegoan Sanson-ez aztuta. Bereala matrall-ezurreco aguin batean iturri eder bat sortu, eta emengo ur gozoarequin egarria quenduric, bizcortu zan. Mirari onegatic gueróz lecu oni *Matrall-ezurraren* iturria ceritzan.

Filistin-tarrac etsi zuten, Sanson-i indarrez ecer eguiteric etcegoala, eta artu zuten itsumustuan edo saldoque-riaz galtceco asmoa, eta beti aren ibillien celatari cebiltzan, era ona topatceco. Dembora guichiren buruan Sanson Gaza ceritzan errira joan, eta ostatu batean sartu zan. Berri au erri gucian bereala banatu zan. Echea soldaduz ingurutu, eta errico atean contuartzalleac ipiñi cituzten, biaramonean, echetic irtetean, ilteco, Sanson, galbide onen contu gabe, lo cetzan, eta gauerdian esnatu zanean, echetic irten zan, iñor oartu gabe, edo, beintzat, ecer esatera, iñor atrebitu gabe. Errico atera joan, eta ichia arquite zuénean, atea bere albo, buru, morrollo eta ubalacquin sorbaldan artu, eta zama andi arequin mendigañera igo zan. Ateco contuartzalléac dieha anditzat ceucaten, guizon izugarri ura ayezaz oartu gabe, bere bidean joatea; eta erricoac biaramonean atea mendi-gañean icusi zutenean, jarri ciran, Sanson-ez cer esan etciequitela, eta Jaincoa guitzon-antcean, edo guizon utsa ote zan zalantzan.

Gorputzez etzan besteric baño gueyagoa. Etzuten icusten Bazan-go Erregue Og, lau cana eta erdi luce, eta bi zabaleco oya bear zuen, dembora bateco Centoi edo Gigantea bezalacoa. Ala ere, eguiten cituen indarrezco lánac-berez ecin citzaqueanac ciran: eta pensatcen zuten, bazuela ecer isillen bat, alaco indarrac ematen ciozcana, eta ayen eresi gucia aujaquitea zan. Onetaraco bidea zorigaitzean laster eratu citzayen. Sanson, Gaza-co atea mendira eramanda, gueró auzoan cegoan Sarec-co ibarrera joan zan. Emen vici zan Dalila ceritzan emacume Filistin-tar bat, ceñarequin adisquidetasunac eguin, eta emaztetzat artu zuen, San Gerónimo eta San Juan Crisóstomo-ren iri

tcian, Escritura Santac, maite zuela baicie, esatenezbadigu ere.

Filistin-tarren bost Principeac, Dalila-requin Sanson-en arteco adisquidetasuna jaquin zutenean, Dalila-ri etorri citzayozcan, esatera, baldin Sanson-i ateratcen bación, cerc alaco indárrac ematen ciozcan, dirutza andiac saritzat emango ciozcatela. Dalila-c, escatcen zutena eguiteco itza, eman cien. Sanson-i bereala galdez asi citzayon, ¿ea cerc ala indartsutcen zuen, eta cerequin lotu citequean, indarric ez eguiteco? Sanson-ec erantzun cion, ede-larruz edo este berriz eguindaco locarriacquin lotutcen bazuten, etzala bestéac baño gueyago izango. Andre desleyalac bereala Filistin-tarren Principeai gastigatu cien: isillic beren zazpi socacquin etorri ciran; Dalila-c lotu zuen; eta Filistin-tarrac echeco bazter batean gordeta ceuden, lambide ura certan guelditcen zan, edo nola irteten zan, icusteco. Dalila-c, Sanson-ec eguia esan ote cion, jaquiteco, deadar eguin zuen: Sanson. Filistin-tarrac gañean dituzu. Sanson-ec, ots onetara, socac mullo-ari samur bat bezala, eten cituen eta edoceñi gogor eguiteco eran jarri zan.

Dalila-c bere espac aguertu ciozcan, eguia esan etciolaco. Berriz ere escari berean leyatu citzayon; eta Sanson-ec esan cion; baldin zazpi soca ecertan erabilli gabecoacquin lotuco banindute, beste guizónac bezala, aul gueldituco nintzaque. Dalila-c, leneco aldian bezala, oraingoan ere eguin zuen; baño alperric: Sanson-ec socac eten, eta bere indarracquin guelditu zan. Dalila-c lenago baño ere espasun gueyagorequin guezurra arpeguian eman cion, esanaz, bein edo bein aguertceco escatcen ciona. Sanson-ec gogaica eta aspererazo nayez, berriz ere esan cion, baldin illea zazpi chiricordatan ipintcen bación, eta ilce batequin lurrcan josi, indar gabe gueldituco zala. Sanson lo cetzala, esan gucia Dalila-c eguin zuen: baño otsetara esnatuta, burua dantzatu utsarequin, len bezala jarri zan. Oraingoan Sanson bere ondamenera asco urreratu zan: illeen aitamenic etzuen eguin bear, ceren indar gucia oyetan ceucan; baño sarera ez-arian cijoan, gueró osotoró erortceco.



4. §.—*Sanson-en menderatcea.*

Aldi onetan Dalila-c aleguin guciac eguin cituen, Sanson-i aguerterazotceco. Esan cion, ondo ezagun zala, asco nai etciola: iru aldiz etzana esanda, engañatu zuela. Beti negarrez cegoquion. Sanson-ec asco ceraman, ez esan naye: baña atcenean Dalila-ren leya gogaicagarriac easan, eta biotza chit illundu eitzayon. Orduan emacume zorigaizto-coac berea eguin zuen, eta soldadu-talde andiac menderatu ecin zutena, azpiratu zuen. Sanson-ec aguertu cion, beregan beti gorde bear zuena, esanaz: Nere buruan egundano ez da burniric jarri, ceren nazarenoa naizan, au da, amaren sabeletic Jaincoaren servitzoraco esqueña: illea ebaqui ezqueró, indarrac igues-eguingo liquet eta beste guizonen guisan, aul izango nintzaque. Dalila-c Sanson-en-itzqueta onetatic ezagutu zuen, nai gucia ateraerazo ciola. Filistin-tarraí bereala gaztigatu cien: oyec etorri, eta ezcuan jarri ciran; baña Sanson-en zazpi chiricordac ebaqui eta burua moztutceac cer eguina ceucan: bildurtcen ciran, alabañan, gogoratcean, cer cerabilcen Sanson oartcen baczayen, Dalila eta onec eracarritaco Filistin-tarrac lembici ondatuco cituela. Irriscu gabe gucia eguiteco, bazcari andi, lo-belarrez ondo coipetua, maneatu cion, eta jan zueñean, lo pisu batec artu zuen, eta Dalila-c illea moztu, eta burua garbí-garbi utci cion. Gueró, beste aldietan bezala, ots-eguin cion. Sanson, Filistin-tarrac gañean dituzu. Eguiaz Filistin-tarrac gorde-lecutic irtenda, escuae ezarri ciozcaten, eta len bezala, bere burua gorde, eta etsayac galdu nayez, asi zanean, indar gabe arqitu zan.

Cateacquin bereala lotu zuten, eta beste lanetara baño lenago, bi beguiac atera ciozcaten. Onela burniz ondo loturic, eta beguiac gabe, Gaza-ra eraman zuten, icusi cezaten, errico atea mendira eraman cituen guizon indartsua menderatuta. Cer neque eta aztapoac bidean, eta isecac eta farrac errian eraman bear izan cituen jaquitea eta esatea, erraz ez da. Zar eta gazteac, andi eta chiquiac, guizon eta emacuméac elcarren leyeañ cijoazquion ciricatu eta neca-

lcera. Sanson-en eramankizunac etciran onetan guelditu. Ichian sartu, eta ipiñi zuten, astoa balits bezala, errotarriari eraguiten. Filistin-tarrac garaipen onen icenean pesta andiac eguin cituzten. Baña lenengo egunetan eguindacoac bear aimbat etceritzatelaco, erabaqui zuten, gende gucia batu, eta pesta gucizco bat gueroago eguita. Onetaraco bear ciran prestamenac eguin, eta illabete batzuen buruan Principe, andizqui, eta gañeracoac Gaza-ra bildu ciran. Dagon-i ere agur-eguin bear cioten, eta lan onetaraco jainco guezurrezco onen elizan sartu ciran. Onen bazter eta zulo gucietan etzan gendea baicic icusten; jan-edanac baicic eguiten. Gucien poza eta atseguña osotceco, Sanson eramán zuten, nai zuenac nai cituen iseca eta farrae eguitaco. Sanson-i buruco illeac orduraco aci citzayozcan, eta bere indarretan sartcen cijoan, Filistin-tarrai gogoac ematen ezbacien ere. Elizac erdi-erdian cituen bi pillare, estali eta eliza guciari eusten ciotenac. Oyen bitartean Sanson ipiñi zuten, isecaz ondo asetceco: eta berenbidegabequeriacquin gogaicaeraguin ciotenean, itsu-aurreco eguiten zuenari esan cion, utci citzayola pillareai uquitcen, atsedeteco aitzaquitan. Sanson jarri zan, bi pillareai uquitcenciela: Jaunari lenagoco indárrac escatu ciozcan, etsai dollor char guciac beingoan ondatceco. Jaincoac bere escaria entzun cion: bi pillaréac escu banáquin artu cituen: eta ni nerau il nadin Filistin-tarracquin batean: esanaz, biac elcarri joerazo cien, eta eliza gucia lurrera ezarri zuen, eta berá eta Filistin-tar guciac lertu ciran.

¡Eguiquera miragarri, Filistin-tarren bazter gucietara izu icara zabaldu zuena! Bost Provinciaetan etzan echeric, uqitu etcitzayonic. Principeac, andizquiac, eraentzalleac, gazteriric ederrena, pesta andi hura eguitera lecu gucietatic bildu ciranac, bat batean arri eta zabor-pean gueratu ciran. Sanson-en senidéac jaquin zutenean, Gaza-ra bereala joan, eta Sanson-en gorputza arturic, Israel-era eramán zuten, eta Juez bati cegoquion proguarequin, bere aita Manué-ren ondoan lurpetua izan zan.

Sanson bere etsayacquin batean il zanean, Filistin-tarrac guelditu ciran ecertaco quemén gabe, eta Israel-tarrac pa-

que andian: baña oyec etzuten jaquin, bear zana eguiten. Echeetan guelditutaco Filistin-tar banacac osoloró ondatu bear cituzten, bururic gueyago goratu etcezatzen, baña orduan, orduan bezala, inñori neque bideric emateco gai icusten etcituztelaco, paquean utzi cieten, eta oraingo utseguite augueró nocitu zuten.

5. §.—*Heli, amalaugarren Jueza.*

Egun guichiren buruan Sauson-en oñordecotzat autu zuten *Heli* ceritzana, eta Israel-co amalaugarren Jueza. Israel-tar-rac ondo joateco, beguñac erasolari eta eguille batengan Juezetaco ipiñi bear cituzten; baña autu zuten *Heli* guizon ona eta zucena, bai, baña biots illecoa. *Heli* demora berean Apaiz-nagusia zan: berrogueita emezortzi urte ceuzcan, eta alde onetatic ere, ez, pisu andi biac jasotceco, egoquiena. Ala ere, lambide bi oyec bere conturaluzaró iduqui cituen, zartuta ecin bestez, bere bi seme Ofni eta Finees, cerbait bera arintceco, lagun artu artean: eta lan onec *Heli*-ren echecho ondamera, eta Israel-en galbidea ecarri zuten.

*Heli*-c ecin eguin cezaquean auquera caltarquitsuagoric, bere semeena baño. Guizon gaizto legue gabeac, eta Escritura Santac dionez, Belial-en humeac ciran. Gaistaqueria eta gaiztaqueria cerabilten. Aita ecer eciñera zanean, len bere eguizunon zati bat ematen cien bezala, gueró elizatean aulqui batean jarrita, berac aisa eguin citzaquean lan banaca batzuec ez, beste guciac oyen escuetan ipiñi cituen, eta orduan lotsa guichiagorequin nai zan gaiztaqueria gucia eguiten zuten. Israel-tarrac ceramazquiten ofrendaetatic zati bat *Eliz*-guizonenzat zan; baña oyen gogóac etciran zati onequin asetcen; gueyago nai zuten, eta cembat aldiz Jaunari esqueñi ere baño lenago. Atcenic, Jaunaren echera agur-onac eta erreguac eguitera celocen andre vertutezcoac galdutceco ausardia ere artcen zuten. Israel-tarrac espaca ceuden. *Heli*-ri alde guciatic semeen contra quejúrac cetorzquion; ez-aditu edo ez-icusi eguin eta ondo-esan utsac semeai eguñarequin, gueyago gabe,

uzten cituen: dirudienez, etcien naigaberic eman nai izaten. Baña Jaincoac, aitaren biguntasunaz, eta semeen lotsaga-bequeriaz asperturic, Heli-ri Profeta bat bialdu cion, bere eche eta echecoen ondamera adieraztera. Esan citzayon, Egipto-tic irten ciranetic arteraño, Apaiz-nagusitzac aren jatorrian iraun bazuen ere, beste batera aldatuco zuela; echea eta echecoac ez-izanic gogorrénac artuco cituztela, eta bi seméac egun batean ilco cirala. Jaunaren esan zorrotz oyec etzuten Heli ipiñi, semeàcquin bear zana eguitera: eta Jaincoac bigarren aldian Samuel-en bitartez bere aserrea are arguiroago adierazō nai izan cion. Emen dacuscun, Samuel cein zan.

### AMABOSTGARREN IRACURGAYA.

#### 1. §.—*Samuel Profetaren jayotza.*

Elcana ceritzan Eliz-guizon on batec, orduco leguéac ematen zuen escuarequin, ceuzcan bi emazte, Ana eta Fenena. Fenena-c semeasco cituen; Ana-c batere ez ordea. Elcana urteoró Pazcoaz Silo-ra joan oi zan. Tabernaculoan Jaincoari agur-onac eguitera, eta sacrificioac esqueñtcera. Bein batean, eliz-lanac eguinda, guero jarri zan, bere bi emazteacquin bazcaltcen. Fenena-c, bere semeacquin arroturic, Ana-ri aurric ez izana noiz-nai arpeguira ematen cion, eta Ana-c, negarrez jarri, eta etzuen jaten. Elcana-c esan cion, ¿cergatic negar eguinda, jaten ez dezu? ¿Amar seme baño ni obe ez nazu? Ana, itzic esan gabe. otoitz-lecura joan zan, Jaunari erregulcen jarri citzayon, esanaz, baldin seme izateco mesedea eguiten bacion, bertatic bere servitzoraco esqueñico ciola. Heli-c, atean eserita cegoan aulquitic, icusi zuenean Jaunaren aurrean ezpañac erabiltcen, itzic esan gabe, uste izan zuen, ordituta cegoala; baña Ana-c erantzun cion, alacoric etzala, ezpada bere zorrigaitzac eraguiten ciola icusi zuena. Orduan Heli-c esan cion: paquean zoaz, eta Israel-co Jaincoac daguizula, escatcen dezuna. Ana Heli-ren diosal onequin pozturic, begui alayacquin senarragana itzuli zan, eta etcitzayon tristuratic gueyago sartu.

Egunen buruan izan zuen seme bat, eta icentzat *Samuel* eman cion. Iru urtean Ana-c berequin iduqui zuen, eta bularra quendu cionean, ait-amae aurrarequin joan ciran, mesede berri onen esquérrac Jaunari ematera. Oi cituzten esqueñi, eta ofrendac eguin ciozcaten; eta Heli-ri aurra aurqueztu cioten, Ana-c esanaz: Ni naiz, jauna, zure aurrean Jaincoari escariac eguin niozcana: aur onen esque negoquion; eta Jaunac eman dit, escatu niona; beragatic bere vici guciraco Jaunari itzultcen diot. Elcana eta Ana-c Jaincoa adoratu zuten; eta aurra Heli-ren escuetan utciric, echera pozez biurtu ciran.

Samuel, bada Jaunaren echean aci zan, ordu gucietan bere servitzoan cebillela, eta guciac arritceco adiña ontasun eta jaquinduria berecten zuela. Urteeta nsartu zanean, Heli-c eliz-soñecoac janci ciozcan, eta beti bere ondo in cerabillen. Jaincoac onen bitartez Heli-ri adierazo nai izan cion, semeen gaistaqueriac eta aitaren ez-icusia cein gaizqui artcen cituen, Gau batean Heli-ren ondoco guelan Samuel lo cetzala, esnatu zan, *Samuel, Samuel*-en ots batera; eta Heli-c otsegin ciolacoan, joan citzayon, cer nai zuen, galdez. Heli-c erantzun cion, etciola deitu; lo eguin cezala. Berriz ots berarequin esnatu zan; eta Heli-c berebat erantzun cion. Irugarren aldian esnatu zan, *Samuel, Samuel*-en otsarequin, eta Heli-ri joan citzayon, certaco deitcen cion, galdez. Orduan Heli-c ezagutu zuen, Samuel-i deitcen ciona Jaincoa zala, eta esan cion: zoaz, lo eguizu, eta berriz otseguiten badizu, erantzun zayozu; esazu, Jauna, bada, zure servitzari au aditcen dagoquizu. Samuel loacartu zuen, eta urrengo otsean esnatu zanean, Heli-ren esana eguin zuen. Orduan Jaincoac aguertu cion, Heli-ren contra ceucan aserre vicia, bere seméai bear zana eguin etcielaco, eta aren eheco gaciac ondatceco artu zuen asma.

Jaunarequin itz-aldi au eguinda, Samuel lotara zan, goizean atea idiqui artean. Samuel bildur zan Heli-ri esateco, Jaincoac cer cion; baña Heli-ren leya icusiric, guztia jaulqui citzayon, ecer ere estali gabe. Jaincoa da, Heli-c esan zuen, eta eguin beza eder zayona. Arritcecoa da

Jaunac bialdu nai ciozcan nequéac artceco, Heli-c eracutsi zuen biotz ona, ceñarequin, Elizaco gurasoen iritcian, Jaunaren aserrea cerbait itzali zuen, eta damu eguiazco bat artceco lecuá eman cion.

Samuel urteetan aurrera cijoan: Jauna berequin zuen, eta berari esan guciac, itzic ere galdu gabe, bete ciran: eta Israel guciac eguiazco Profetatzat ezagutu zuen. Gueróz Jaincoac Silo-n ascotan biotzera itzeguin ción, eta Samuel-ec, Heli-ri bere ondamena adierazteaz gañera, Israel-tarrai ere esan ciezten, beren gaiztaqueriacgatic cetozquitenac, laster icusi zuten bezala.

Lenago esan da, Filistin-tarrac cein guichi ciran, Israel-tarrai arpegui emateco, eta are guichiago cezaqueten, Sanson-equin bururic gueyerac eta gazteri indartsuena ilda gueró. Ala ere, Jaincoac oyen bitartez Israel-tarrac castigatu nai cituen, ezagutu cezaten, berarequin gucia, baña bera gabe ecer ecin cezaquetela. Israel-tarrac, bada, guichiena uste zuten egunetan, arqutu ciran Filistin-tarrac gañean cituztela. Beren lurrean itsumustuan sartu citzayeztenean, al-zan ondoena, eta lasterrena soldadúac bilduric, bidera irten citzayezten; baña igu-sari bereala eman cioten, eta or-emen, ará-onará cebiltzala, lau milla il ciran. Israel-tarrac arrituric, cer guertatcen citzayen ecin asmatuz, zarrac batzarrera bildu ciran, eta elcarri galdetcen cioten, ¿ea cergatic Jaincoac Filistin tarren aurrean onela castigatcen ote cituen? Erabaqui zuten, batalla eman bejzanean, Cucha santa berequin eramatea, onen babesean garaitu uste zutelaco. Icharopen edo confianza au ona zan; ordea Jaunaren aserrea itzaltceco bidéac, gaizqui, eguiñen damu eguiazcoarequin lenago garbitu bear cituzten. Etzuten au eguin, ezpada besteren contu gabe. Cucha santa Silo-tic artu, eta soldadúac ceuden lecura eramaz zuten.

## 2. §.—*Cucha santaren Galera.*

Cucha santa icusteac, Israel-tarrai poz andia eman cien, eta atseguñezco ots andiac eguin ere cituzten, ceñac Filis-

tin-tarrac adituta, asi ciran, galdez, Israel-en cer ote zan, alaco poza ematen ciena: eta jaquin zutenean, Cucha santa ecarri zutela, bildurrac artu cituen; oroitcen ciran, alabañan, Egipto-tic irten ezqueroco ibilleraetan, ayen lenagocoac artu izan cituzten cigorradaz. Ala ere, buru eta aguintariac ondo-esanaz, bizcortu cituzten, eta gogor eguiteco prestatu ciran. Elcarri eraso bezain laster, Israel-tarrac Filistin-tarren mendean erori ciran. Ogueita amar milla Israel-tar batalla-lecuan il ciran, eta gañeraco al-zutenac, norc bere bazterrera, igues-eguin zuten. Heli Apaiz-nagusiaren bi seme Ofni eta Finees aimbeste gaiztaqueria eguin izan cituzténac ere, Cucha santaren ondoan il ciran. Baña calte oyec etzuten Israel-en ain min andia eman, nola Cucha santa, irureunda berrogeita amar urtean berequin ceucaten, eta Jaincoac aimbeste aldiz itzeguin cien hura, Filistin-tarren escuetan uzteac.

Benjamin-go igueslari batec, berri mingarri au Silo-ra eramán zuen, eta esan cien; gucia galdu da, gucia galdu da: soldadúac ondatu dira, eta Jaunaren Cucha etsayen mendean dago. Guciac negarrari emari cioten, eta etzan Silo-co carricaetan ayescac baicic. Heli Tabernaculoaren atean eserita cegoan, batalla ematen zan alderonz beguira: Benjamin-tarra berri char arequin joan citzayon: esan cion, Israel ondatua zala, eta aren bi semèac il cirala. Heli berri oyec guciac entzuten, viotz andiarequin egon zan, gogoratuz, Jaunaren escua cebillela, merci izan zuten castigua ematen; baña esan cionean, Cucha santa ere etsayen escuetan cegoala, gueyago ecin zuen; gorputzac dardarizacio andi bat eguin cion; indârrac joan citzayozcan; aulquitic atceronz erori zan; lepo-ezurra autsi citzayon; eta Cucha santa galdua zalaco miñaren miñez il zan.

Etzan Heli-ren iltcea bacarric egun oyetan bere echean negar-eraguin zuena izan: bere errañ Finees-en emaztea aurgutuco bete-betea cegoan, eta aditu zuenean, Cucha santa galdu zala, eta senarra eta aitaguiarraba il cirala, sumiñac eman cioten, eta aurra mundura zuenean, bera ere il zan, aurrari *Ichabod* icena emateco beste lecu gabe.

3. §.—*Filistin-tarren cigorrada.*

Filistin-tarrac Cucha santa Azoto-ra eraman, eta Dagon beren jainco guezurrezcoaren ondoan ipiñi zuten. Biaramonean elizara joan ciranean, arquitu zuten Dagon-en idoloa, Cucha santaren aurrean auzpez cetzala. Bereala bere toquira itzuli zuten; baña urrengo egunean, ez auzpez bacarric, espada osotoró porrocatu, eta bere zatiac elizan banatuta arquitu ciran. Au bideric asco bazan, jainco hura guezurrezcoa zala ezaguteeco, eta Jainco eguiazco bacarragana jariteco: baña guertatu citzayena etzuten idolozaleac aintzat artu.

Jaincoac Israel-tarrai cegoquien castigua eman cien, icusi dan bezala. Cucha santa Filistin-tarren escuetan ipiñi zuen, eta gauza santa beronen bitartez Filistin-tarrac ere castigatu nai izan cituen. Icusiric, idolo vici gabecoan eguindaco castiguarequin etzuela ecer aurreratu, vicidunacquin asi zan. Lembici Azoto-arrai uqutu cien. Zauri viciz bete ciran: sabelac utci edo beeraco latz batec eman cien, eta egun guichiren epean, usai eta quirats nazcagarria ceriela, iltcen ciran. Onezaz gañera sortu citzayezten sagu-samalda izugarri, gauza guciac orchicatcen cituztenac.

Azoto-arrac icusiric, Israel-co Cucha santa berequin iduquitcetic, cer calteac cetozquien, artu cituzten andic bialteeco asmóac, Bost Provinciaetaco buru edo Satrapac bildu ciran: galdetu zuten, ¿ea Israel-co Jaincoaren Cuchari cer eguin bear citzayon? Eta Get-ecoen esagera erabaqui zuten, bost valleractan erriz-erri erabilteca, calte ayen eguillea cein ote zan jaquiteco; baña ayen zorigaitcean, Jaunaren escua toqui gucietan cebillen, eta ilquintza gogorra eguiten zuen. Acarontarrac icusi zutenean, ará ceramatela, gogor eguin, eta artu nai izan etzuten, besteai eguin cien, guertatuco citzayen bildurrez, eta esan zuten, bere toquira eraman cedilla.

Cucha santac Filistin-tarren lurtean zazpi illabete eguin cituen, eta etsi zutenean, au berequin zuten artean, ayen-



tzat onic etcegoala, erabaqui zuten, Israel-era bialtcea; baña nola bialduco zan asmatceac buru auste andiac ematen cieztēn. Gauza onen gañean idoloen apaiz eta aztiai galdéac eguin cieztēn; eta oyec erantzun zuten, etcezate-la Cucha utsic bialdu, ezpada escueracutsi eta ofrendacquin, beren gaitzetatic sendatu nai bazuten. Esan cieten, cer eta nolaco escueracutsiac eguin, eta nola bialdu bear zuten.

4. §.—*Cucha santaren itzulera Israel-era.*

Oyen iritcia arturic, era onetan abiatu ciran. Gurdi berri bati erantsi ciozcaten bi bei hume-eguin-berri, uzta rrian beñere lotu gabeac, ichian chàlac utcita. Gurdian ipiñi cituzten Cucha santa, eta onen ondoan ofrendac edo escueracutsiac, eta utci cieten, nai zuten toquira joaten. Aztiac esanda ceucaten, beyac onela ipiñita, Israel-co lenengo erri Betsameseronzco bidea artcen bazuten, sinistu cezatela, gaitz ayec guciac bialtcen cieztēna, Israel-co Jaincoa zala. Béyac zucen-zucen orroica eta marrumaz Betsameseronz cijoacen, Filistin-tarren Satrapac, cer eguiten zuten icusteco, ondoren cituztela: eta Betsames-co baten lurrera ciranean, gurdia guelditu zan. Betsames-tarrac icusi zutēnean, Cucha santa cijoahuiela, chit poztu ciran, eta guelditu zanean, béyac il, eta zatitu, eta gurdi-zutarequin sua eguiñic, Jaunaren icenean erre cituzten. Bost Satràpac lambide gucia icusi, eta beren errietara itzuli ciran.

Debecatua cegoan, apaiz etcirana Cucha santari, estali gabe cegoanean, beguiratcea, eta are zorrotzago, uquitzea. Betsames-tarrac venturatu ciran estalia quentcera, ez ecic, barrunen ceuden mana-ontcia, legueco ólac, eta, Aaron-en cigorra icustera ere. Jaincoac ausardi onegatic il cituen, cutsutu ciran guciac, eta gañeracoai bildur andia sartu citzayen, Cucha santa berequin iduquitceco. Betsames-tarrac, bada, Cariatiarin-goai gaztigatu cieten, nola Fillistin-tarrac Cucha santa ará ecarri zuten, eta berequin eraman cezatela. Cariatiarin-tarrac etciran, bestéac bezala, izutcen, eta aguinduta cegoan eran eta lagunácquin artu-

ric, beren errirá eraman, eta Abinadab ceritzan Eliz-guizon on baten echean, bere seme Eleazar-en contura ipiñi zuten, eta ogueita amar urtean emen egon zan.

5. §.—*Samuel, amabostgarren Jueza.*

Lenago esan da, Filistin-tarrac Cucha santa beretu zutenean, Heli eta onen bi semeac il cirala. Israel tarrac Juez gabe arqutu ciran, eta Heli-ren lecuraco Samuel, amabostgarren Jueza auto zuten. Samuel ain guizon ona, eta Jaincoaren bildurrecoa izanic, Israel-en eraena bere gañ artuta, bereala gáuzac zucentcera leyátu zan. Baña naigaberíc andiena ematen ciona zan, Israel-tarren artean Jainco eguiazcoa guezurrezcoacquin nastuta egotea. Gueyenac eguiazcoa ezagutu, eta aitortcen zuten; baña baciranasco, guezurrezcoac adoratcen cituztenac; eta oyec bide onera ecartceco aleguin guciac eguiten cituen. Beli baciardun esaten, jainco guezurrezcoai biotzean lecu eguiten cioten bitartean, etzutela onic izango. Onelaco ondo-esanaequin asco irabaci zuten, eta Jaincoa bere alde ecarrita, etsayen bildur andi gabe jarri zan. Filistin-tarrac bein bacarric eraso cioten, eta orduan osotoró ondatu cituen, eta Israel paque gozoan guelditu zan. Bere vician eraman cituen neque ardiac easanic, urtéac baño lenago zartu zan: eta irurogueita bat urtecoa zala, bere lanetan cerbait arindu naye, bere eguinquizunen alde andi bat bere bi seme Joel eta Abia-ren escuetan ipiñi zuen: baña seméac etcioten aitari erantzuten; etciran aita bezain onac seméac izan. Diru-zaletu ciran, eta diruaren truque bidegabequeria asco eguiten cituzten, eta eguinquizúnac ere etcituzten bear bezala betetcen. Israel-co zarrac au icusi zutenean, Samuel-i esan cioten, bera zartu zala, eta seméac etzutela gauza onic eguiten, eta emateco Erregue bat, aguinduco ciena, beste gendéac cituzten bezala. Escaera au Jainco beraren contra cijoan. Jacob-en ondorea bere Erritzat artu izan zuen ezqueró bera bacarric zan ayen Erregue, ayen contua ceucana, eta aldi gucietan beguiratcen ciena; eta orain Erreguea escatcea, hura utci, eta beste bat artu nai izatea zan.

Samuel-ec erantzun cien, Erreguetzat guizon bat artea-  
requin, etzutela ecer irabazten. Orduraño, aita batec bere  
humeai bezala, Jaincoac beguiratu ciela: bere biotz gozo  
biguñac ondasun andiac eratu izar. cieztela: oyen truquæ  
aren agundu arin-errazac beteteen leyalac izatea baicic  
escatu etciela. Inoiz nequetan arquitec baciran, oroitu ci-  
tecela, bérac beren gaiztaqueriacquin bidéac eman cituz-  
telaco izan zala. Baña Erreguearen mendean bein jarri  
ezqueró, bérac eta béren seme-alábac onen uzta-pean vi-  
ci bearco cirala, servitzo umill eta apalenac eguiten, eta  
Erreguearen anditasuna gordetceco, beren izanac eta on-  
dasunac ematen. Atcenean esan cien, Erregueaz ondo as-  
pertuta, Jaincoari escatuco ciotela, arren, aren mendetic  
ateratceco; baña Jauna gor-eguingo citzayela.

Oyec eta onelaco beste esan asco, Jaincoaren aldetic Sa-  
muel-ec eguin cieztenc, alperric izan ciran, Erreguearen  
eresiatic ateratceco; eta Samuel-ec Jaunari galdetu, eta Jau-  
nac erantzun cionean, cer eguin bear zuen, Israel-co zá-  
rrac, nor bere echera, bialdu cituen, lambide hura certan  
gueldituco zan etciequitela.

## AMASEIGARREN IRACURGAYA.

1. §.—*Israel-co Erregue-en asiera. Saul, lenengo Erreguea.*

Benjamin-go Tribuan, Gabaa-co errian vici zan guizon  
bat, Cis icena zuena. Guizon onec zuen seme bat *Saul* ce-  
ritzana, gazte eder liraña, eta sorbaldaz goicoa besteai  
eraguiten ciena. Aitari astacume bi galduta, Saul eheco  
morroi batequin asto billan joan zan; eta or-emen gira bi-  
ra asco eguin arren, etcituen topatu. Saul-ec morrayari  
esan cion: echera otsemazu, aita gure ibillerari lucetsita  
egon ez dedin. Morroyac erantzun cion: Ramata-co erri  
onetan bada Jaincozco guizon ots andico bat, eguiac esa-  
ten dituena; eta goacen, cer dion. Errian sartuta, carrican  
cijoacela, elcar topoz-topo eguin zuten Samuel-equin, ce-  
ña Saul-en bidera irten zan, lenagoco egunean Jaincoac  
esan ciolaco, biaramonean ordu berean Benjamin-go gui-

zon bat bialduco ciola, Israel-co buru eguin cezan. Samuel-ec Saul icusi zuenean, Jaincoac esan cion: Ori da atzo esan nizun guizona: orrec nere Errian aguinduco du. Saul-ec galdetu cionean, ¿ea non vici zan, gauza isillac eta galdúac asmatcen cituen guizon hura? Samuel-ec erantzun ción, bera zala, eta arequin joan cedilla: Saul-ec gogoan ceuzcan gauza guciac esango ciozcala, eta astacuméaz etcezala conturic izan; bada, aguertu cirala. Samuel-ec Saul jan-lecura berequin eramán, eta maiburuan ipiñizuen, eman cion berariaz arentzat gordeta ceucan araguaia, eta Saul-ec jan zuen. Galia elcarreqûm eguinda, biaramonean egun-sentian biac irten ciran, eta errico atera ciranean, Samuel-ec Saul-i esan cion, morroya aurrera bialtceco; bada, Jaunaren icenean bacarrean itzeguin bearra ceucala. Biac bacarric jarri ciranean, Samuel-ec olionticia artu, eta olioa burura isuri cion, esanaz, Jaincoac Israel-co Erreguetzat igortei zuela: eta Samuel-ec esana eguia zalaco siñaletzat, esan cion; argandic aldeguinda laster, Raquel-en lurpe-lecu-ondoan topatuco cituela bi guizon, esango ciotenac, astacuméac aguertu cirala, eta semea agueri etcizayolaco miñez, aita cegoala: gueró topatuco cituela beste iru ere, bi ogui esqueñico ciozcatenac. Andic laster icusico zuela Profeta-saldo bat, soñuera asco jotcen, eta etorquizonac aguertcen, eta berac ere, ayec bezala, gueroco berriac emango cituela; eta arquituco zala, guizon berri bat eguiñic: Galgala-ra jachi cedilla, eta zazpi egunean ichedon cezala, eta orduan joango citzayola, cer eguin zuen, esatera. Samuel-ec aldeguin zuen, eta Saul arqitu zan beste bat eguiñic, edo len etcituen doayez janciric. Arteraño etciequien, uztar-idi batequin soroco lánac eguiten baicic; arteraño, bérac aitortcen zuen bezala, aren echea Tribu gucian beeranecoa zan; beragatic bere esan-eguin, eta ibillerretan ez-jaquin, eta moldacaitz bat zan; baña gueróz Erregue bati dagozquion doai guciacquin jancita guelditu zan. Saul bere bidean joan zan, eta gucia, Samuel-ec esan bezala guertatu citzayon; eta eñhera zanean, bere oiturazco vicitzari equin cion, eta lur-lanetan ciardun.

Bitartean Samuel-ec gendea Masfa-ra bildu zuen, esca-  
tzen zuten Erreguea emateco; baña etzuen aguertu nai  
izan, Jaincoac nor ceucan artaraco autua, ontzat artuco  
etzuten bildurrez; eta esan cien, zotz eguin cezatela, edo  
suerteac bota citzatela, cein izango zan, jaquiteco. Samuel-  
en esana eguin zuten; eta zotza Saul-i erori citzayon. Ibil-  
tariric azcarrenac bereala beraren billan, joan eta gucien  
aurrera ecarri zutenean, icusi zuten, beste guciac baño  
ascoz luceago zala; bada, besteen neurritic sorbaldaz goi-  
coa gueyago zuen. Orduan Samuel-ec esan cien: Ara Jain-  
coac zuen Erreguetzat cein autu duen: eta erri guciac  
deadar eguin zuen: *Erregueá vici bedi*. Guerò joan ciran  
nor bere echera, eta Saul ere berera bai, soldadu-talde bat  
contuartzalle zuela. Saul-ec bere soro-lanetan baciardun,  
ecer izan ezbalitz bezala, Erregueari dagoquion anditasu-  
nie artu gabe: eta illabete ozta joan baño lenago, Amon-  
tarren Erregue Naas-ec Israel-tarrai eraso cien, Jabes Ga-  
laad-co ceritzan urian sartu naye. Uricoac cerequin ar-  
pegui eman etzutela, Naas-en escuetan erortceco zorian  
arquitu ciranean, aren mendeco izateco itzean paquea es-  
catu cioten; baña Naas arroac erantzun cien, etcegoala  
ayecquin paquea eguiteric, guciai escuico beguia atera  
artean.

Jabes-tarrac Naas-i zazpi eguneco toquia escatu cioten;  
eta Naas-ec, edo gogorrean equiten bildur zalaco, edo Is-  
rael-tarrac artu citzatequean prestaménac ecertan etceuz-  
calaco, edo Jaincoac bere asmasio miragarriac eguiteco  
itsutu zuelaco, escatutaco lecua, beintzat, eman cien. Ja-  
bes-tarrac Gabaa-coai gaztigatu cieten, cer esturasun la-  
rrian arquitcen ciran, eta, arien, laguntceco. Gabaa-tarrac  
beren auzoa nola cegoan jaquin zutenean, icaratu ciran,  
eta negarrari eman citzayozcan. Onetan sortu zan Saul,  
sorotic bere bi idiacquin cetorrela, eta esan ciotenean,  
cerc ala ipiñi cituen, bi idiac il, zatitu, eta Israel gucira  
zabaldu cituen, esanaz, aragui ayec bezala, zatitua izango  
zala, ari eta Samuel-i etcerraiquiéna.

Saul Erregue berriac agundua bertatic eguin zan, eta  
Jaincoaren bildurra Israel-tarren biotzetan sarturic, guciac,

guizon bat bacarra baciran bezala, bildu ciran; eta cembateturic, irureunda ogueita amar milla guizon armadun arquite cituzten. Seigarren egunean Jabes-tarraigaztigatu cieten, biaramonean eguzquiac berotceraco laguntza joango citzayela. Saulec gañean bere armadun guciac iru soldotan ipiñiric, Amon-tarrai isillic itsumustuan sartu citzayen, eta prestatceco lecuric ere eman gabe, iru orduan, eguzquiac indarra artu arteraño, iltcen aritu ciran. Jabes-tarrac beste aldetic eraso cieten, eta alaco eran ondatu cituzten, non, igues-eguin zutenac ere etciran elcarrequin bi guelditu, ezpada al-zuten lecura banaca joan ciran.

Garaipen onen ondoren bereala, Israel-tar guciac Saul Erreguetzat ezagutu zuten; eta len Masfa-n suertea eguinda, ari erori citzayomean, ezagutu nai izan elzuten ascoc ere, orain burua macurtu cioten, eta Saul-ec beren gaizqui-eguiña barcatu cien, debecaturic, orduan leyal izan citzayozcanac besteai gaitzic eguitea, gogoac eman cien bezala.

Ogueita lau urte ciran, Saul Erregue eguin zanean, Samuel Juez zala. Onec bere aguintea utci bear zuen, eta bere azquen-ondo-esanac Israel-tarraian eman nai izan ciezten. Gogoerazo ciezten, Egipto-lic irten ezqueró Jaincoagandic artu cituzten mesedéac; cein aita ona izan zuten; cein biguntasun andian Juezen bitartez eraendu cituen; ala ere cembat aldiz bere contra jaiqui ciran: izan citecela Juezen demboran baño Erregueenean leyalagoac, Erreguéac eta bérac zorionecoac izan nai baciran. Oyec eta beste ondo-esan asco eguinda, bere aguintea utci zuen, eta Israel-co Erregueena asi zan.

Saul Erregue jarrita, lembicico bi urte barruan Filistin-tar Amalec-tar eta beste etsayai eraso gogorrac eman ciezten, baita guciz ondaatu ere, Amalec-tarren Erregue Agag atcemanic. Saul-ec baciequien, Israel-tarrac beren etsayetatic gordetceco, Erregue eguiña zala: eta aldi batean lambide au ondo bete zuen; baño dembora berean utseguite andiac izan cituen, etcegoquion Apaiz-lanetan bein baño gueyagotan sartu izan zalaco, eta Jaincoac arguiró aguinduac bear bezala eguin etcituelaco. Beragatic Samuel-

en bitartez Jaunac gaztigatu cion, Israel-co Erreguetzac bere echean edo semeetan etzuela iraungo, ezpada bere gaiztaqueriagatic, bere egúnac joandacoan, beste batgana aldatuco zuela: eta au *David* izan zan. Baña onen vicitzari asiera eman baño lenago, deritzat chit egoqui izango dala, bere aurreco batzuen berri ematea, ezagutu dedin, cer jatorricoa zan.

2. §.—*Rut.*

Arestian aitatu diran Juezetatic baten demboran, Israel-en sortu zan gosete latz bat, gendea auzo-errietara zabaldu zuena. Ascoren artean Belen-go senar-emazte Elimelec eta Noemi ere bi semerequin Moad eco erreinura joan ciran. Senarra laster il zan, eta Noemi guelditu zan bi semecho Maalon eta Celion-equin. Noemi Moad-en bici izan zan, israel-era itzuli gabe, seméac ezcon-urteetara igo arteraño; eta ezconerazo cituen Moab-co bi nescah Rut eta Orfa-requin Amar urteren buruan bi anayec, ondorengoric utci gabe, il ciran, eta Noemi senarrà eta seméac gabe gueratu zan.

Bere burua icusiric ain izaera negargarrian, eta naigabe eta oroipen tristéac baicic Moad-en etzuela; eta jaquiñic, Israel-en goseteac aldequin zuela, artu zuen, bere errira itzultceco asmoa, bere aideen artean ezurrac uztera. Bi errañ Rut eta Orfa-c chit asco nai ciolen, eta aleguin guciac eguin cituzten, berequin Moad-en iduquitceco; baña amaguiarrabac nai etzuen, eta atcenean, ecin bestcan, erabaqui zuten, ama on ari bidean lagun-eguitea. Cerbait ibilli ciranean, Noemi-c esan cien echera itzultceco; zoazteene erranchoac, zuen ama onaren ondora, cion: Jaincoac erruqui zaitzatela, nere seme eta nizaz erruquitu ceraten bezala, eta senar on batzuec eratu dizazquizutela. Au esan, eta laztandu cituen. Orduan errañac negarrari eman citzayozcan, esanaz, zurequin zure errira joango guera. Baña Noemi-c erantzun cien, ecez; bada, arc etceucala beste semeric, senartzat emateco, eta ecin izan ere cezaqueala, eta etcituela gaizqui icusi nai. Guisa onetaco itzaldi lucea,

ren ondoren. Orfa echera itzuli zan; baña Rut-ec etzuen nai izan, eta osotoró jarri zan, amaguiarrabarequin Israel-era itzultcera.

¡Cer banacatce desberdiña aizpa bata eta bestearantzat! Orfa Moad-era jainco guezurrezcoac baicic ezagutcen ez diran lecura dijoa, eta belico ondameneco bidera: eta Rut, berriz, Jainco eguiazcoari agur-eguiten zayon Israel-era. Rut-ec, bere eche, aile, adisquide eta besteac utcita, Noemi-ri jarraitcearequin aguertu zuen, bide zucenean jartceco biotz ona, Jaincoac laster saristatu cion.

Noemi-c, Orfa itzultcen icusi zuēñean, Rut-i ere esan cion, aizparequin bere errira joan cedilla; baña Rut-ec erantzun cion: ez, ez naiz itzulico; zu norá, ni ará noa: zu guelditcen ceran lecuan, ni ere an gueldituco naiz. Zure Jaincoa ne-rea izango da. Zu ildacoan, artcen zaituen lurrác, ni ere artuco na. Noemi-c, Rut-en irmoa icusiric, etzuen gueyago beartu, errira itzultceco, eta bideari equinda, Belen-era iritsi ciran.

Berri au bereala barreatu zan, eta amar urte baciran ere, irten zala, aren ontasun eta ondasunaz oroitcen ciran, eta orain ecer gabe cecusatenean, Belen-go emacuméac otseguiten zuten: ¡Cer! ¿Au Noemi da? ¿Au anciñaco Noemi aberats hura da? Eta Noemi-c erantzuten cien, ez *Noemi* (ceñac ederra esan nai du), ezpada *Mara* (ceñac miña esan nai du), deitceco; ceren Jainco altsuac naigabez bete nauen, cion. Aberats irten nintzan, eta uts-utsic nator; au esaten cien, ondasun asco eta senar eta semeacquin aldeguin, eta orain guciac galduta, arquitcen zalaco.

Udá zan, Noemi Rut-equin Belen-era iritsi zanean, eta garagàrrac itaitutceco sasoya; eta Jaincoac emendic artu nai izan zuen, bere asmo andiac eguiteco oña. Noemi-ren senar Elimelec-ec, Belen-dic irten zanean, utci zuen aide ur chit aberats, eta asco cezaquean bat, Booz ceritzana. Rut-ec amaguiarraba icusiric, bien cer jana eratceco, cembat necatcen zan, bein batean esan cion, baimena ematen bacion, soro batera joan, eta uzten bacioten, iguitariai erortcen citzayezten garagar-buruac bilduco cituela. Zoaz, ene alaba, Noemi-c esan cion. Ala bearra: Booz-en sorora



joan zan, eta lanqueta berri onetan asita bereala, Booz agueru zan, eta iguitarien contuartzaleari galdetu cion, ¿ea nescach hura nor zan? Ori, Noemi-requin Moab-etic etorritaco bat da, erantzun cion: escatu cidan iguitariai erortcen citzayezten buruac bilteen, arren, uzteco, eta goiz ezqueró, echera ere gabe, orche dabil. Booz, au aditulacoan, Rut-i joan citzayon, eta esan cion, etcedilla andic inoratuaren nescachacquin batean garagar-buruac bildu citzala; eta egarriteen zanean ere, servitzariac edaten zuten lecuan edateco. Rut-ec, auzpez jarriric, agur andi bat eguin cion, esanaz; ¿Nondic datorquit onembeste mesede zuc niri eguitea, eta ni arrotz onen berri zuc izatea? Esan didate, erantzun cion, zure amaguiarrabarequin, alargundu zan ezqueró, eguin dezun gucia, eta zure aide eta erria utciric, onará etorri cerala. Jaincoac, bada, ordaindu zaitzala, eta sari on bat eman dizazula. Gueró, Booz-ec esanda, iguitariacquin bazcaldu zuen, eta guelditu citzayozcan oguicerra eta puzcac berequin artuta, lanera itzuli zan.

Booz-i biotza bete cion Rut-en bear-eguiteco eresiac eta morróyai esan ere cien, ez eragozteco, metaetatic artcen asten bazan ere, eta unelic unera, oartzaca bezala, garagar-buru batzuec bota citzatela, Rut-ec bildu citzan. Illonabartcera eguin zuenean, buru bilduac aletu, eta amar lacarirequin amaguiarrabari joan citzayon. Esan cion, señen so-roan ibilli zan, cein ondo Booz-ec artu zuen; eta berriz ere itaiteac cirauen artean joateco, esan ciola. Noemi-c erantzun cion; guizon ori, viciaz bezala, ildacoaz-ere erruquitu da: gure aidea da; eta obe dezu orren nescameacquin ibilli, beste batenera joanda, inore ecer eguin ez dizazun.

Israel-tarren artean emacume bat, aur gabe alarguntcen zanean, senar zanaren anaya edo aide batequin ezconteen zan, len esanda utci dedan bezala: eta Noemi-c legue au gogoan ceucala, artu zuen, Booz-equin ecer eguin ote citequean, icusteco asmoa. Booz-en ontasuna eta guisabidea bacecusan, baita errañ arrotz artzaz izan zuen biotz ona eta cupida ere. Rut-i esan cion, bada: ene alaba, nic eratuco dizut ondo izateco bidea. Booz ori gure aidea da; eta gaur arratsean larrañean garagar-aicelcea du. Apaindu,

urrin onez, edo usai gozoz igortci zaite eta, soñecoric one-nac jancita, ará zoaz. Contu eguiozu, baña arc zu icusi gabe, noiz jaten duen, eta noiz loetzaten dan, eta orduan isill-isillic zoazquio, eta oñetan jarrita, egongo zatzayo, cer eguin bear dezun, berác esaten dizun arteraño. Noemi-c etzuen lambide onetan gaitzic gogoan, ezpada senar zana-ren aide batequin ezcon-erazotcea. Rut, amaguiarrabaren esanaren larrañera joan zan, eta icusi zuen Booz, meta-on-do batean etzaten, eta loac-artu zuela, iguerri cionean oñetan jarri citzayon. Gaü-erdian Booz esnatu zan, eta norbaitez oartu zanean, deadar eguin zuen, ¿nor zaitut? Zure servitzari Rut naiz, erantzun cion: zure mantuarequin estali nazazu: esaten bacion bezala, nerequin ezconduzai-te, ceren nere aidea ceran. Jaincoac bedeinca zaitzala, Bo-oz-ec esan zuen, ez gazte, ez aberast, eta ez heartsu iza-teari beguiratu diozulaco. Ez icaratu. Zuc escatcen dezuna, nic eguingo det, eta erri guciac daqui, zu emacume on bat cerala. Ez dizut ucatcen, zure aide nazula: baña bada beste bat ni baño lenagocoa. Onec artu nai ezbazaitu, bioc ezconduco guera. Gaüa igaro zuten, Jaincoaren bildurreco batzuei cegoquion eran, eta gueró anega bat garagar eman cion, eta Rut Noemi-gana itzuli zan, eta cer guertatu zan, esan cion.

Israel-tarrac auciac erabaqui-lecuac edo Tribunalac errietaco ateetan iduquitcen cituzten, eta an biltcen ciran eguinquizon au cegoquion guizon zar-eldu, eta besteac. Booz larrañetic errico atera joan, eta aulquian jarri zan bere aldia cetorquion arteraño. Rut-en aide urcoago hura ere an igarotcen zan, eta Booz-ec otseguin cion, cer eguin bat bazuela, eta esererazo zuen. Errico amar zarri ere otse-guin cien; eta guciac eserita ceudela, bere aideari esan cion: Noemi, Moad-co alderditic itzuli danac, dauca gure senide Elimelec-en lur-erlo bat saltceco. Berri au, emen dauden jaun oyen aurrean, eman nai izan dizut. Erosi nai badezu, aide urragoa ceralaco, zuri dagoquizu, eta zure-tzat izango da: baña gogoac ezbadizu aguintcen, esan za-dazu, cer eguin nic, zure urrenecoac bezala, jaquiteco. Ai-de onec erantzun zuen, erosico zuela. Booz-ec esan cion:

lur-erlo ori erostecotan, ezcondu bearco cera gure aide zanaren alargun Rut Moad-coarequin, aren icenac odolean dirauen. Aide onec bereala erantzun zuen: gai onetaco nere escualdi guciac uzten ditut, eta nere lecuan zu sar-zaitte, gogo badezu.

Escualdi oyec batec uzten cituenean, oñeco abarca erantci, eta escualdian sartcen zanari ematen cion, eguindaco uztearen sinitsgarriztat, eta gueróz etcezaquean itzemana jan. Booz-ec bada, abarca escatu, eta besteac eman cion. Orduan Booz-ec, beguira ceuden zar eta erri guciari, esan cien: Dacusute, Elimelec-ec izan cituen gauza gucien jabe eguiten naizala; eta Maalon, aren seme zanaren alargun Rut Moad-coa emaztetzat artcen dedala, aren icena echean eta echeoetan beti gorde dedin: zala da? Bai, gueróc dacusgu, eguia diozula; zar eta erri guciac erantzun cioten. Jaincoac eguin beza emacnme onequin, Raquel eta Lia-requin eguin zuena, bere izena Belen-en gogoangarri izan dedin.

Booz eta Rut ezconduta, Jaincoac eman cien seme bat, Obed ceritzana, Isai-ren aita, eta Dabid-en asaba; eta onequin Noemi-ren gogo guciac bete ciran, eta aurre, inñude on baten antzean, acitcen amari lagundu cion.

Beguiratu batean badirudi, Rut-en joanera Booz-en oñetara irriscu andicoa zala, eta Booz-ec ere etzuela ontzat artu bear; baña ala Rut, nola Booz vertutetsuac, eta Jaincoaren bildur andicoac ciran, oquerric eguiteco: eta lambide onetan Jaincoaren escua cebillen; onela eche on artan bere Seme Jesu-Cristo-ren iralgui zorionecoa gorde teeco: bada, Jainco guizendu onen asabaen errencada lucean sarturic dauzcagu Booz eta Rut senar emazte gogoangarriac, ceintzuetatic dator, arestian aitatu dan bezala, Dabid aldi bateco lana emango digun Israel-co bigarren Erregue andia.

AMAZAZPIGARREN IRACURGAYA.

1. §.—*David, Erreguetzaco autua.*

Jaincoac David Erreguetzat igortciteco contua Samuel-i eman cion; baña Saul-i bildur citzayon, ceren, cer cerabilen, jaquin ezqueró, gaizqui beguiratuco cion. Ala ere, Jaincoari arguia escaturic, jarri zan, onec esana eguitera. Belen-era joan, eta Isai ceritzan baten echean sarturic, escatu cion, bere seme guciac eramateco. Zazpi zarrenac aguertu ciozcan; baña Samuel-ec Isai-ri esan cion, ¿ ea ayec besteric etzuen? Bai, Isai-c erantzun cion; badet beste bat ere, artzantzan dabillena. Eracarri zuen seme au, amabost urtetic amaseiracoa, eta David ceritzana. Samuel-ec, icusi zuenean, ceraman olioarequin David igorteci zuen, bere aita eta senidéac cecustela, certaco zan, esan gabe: eta Samuel bere erri Ramata-ra joan zan, eta David ere, bai, bere ardie-tara. Dabid ordutic cegoan Israel-co Erregue arturic; baña aguintean etzan jarri, neque asco eta gogorren bitartez bidéac idiqui cituen artean.

Olioz igortcite onec David bere doai gucietan aldatu zuen. Arteraño mutil gaztecho, artzantzan baicic etciequiena zan; baña gueróz guizon sendo, indartsu, argui, iztun eder, azcar, eta beste doai asco, bere aldian ondo aguertu cituenacquin guelditu zan. Ingurumai ayec guciac bere cancio gozo eta soñu pozgarriacquinzoraturic ceuzcan. Contrara Saul, Jaincoac utci cion ezqueró, eguin zan guizon biotz-gogor, izugarri, gozacaitz, infornutic irtena cirudiena. Erregue onen servitzariac, nagusiari, ain damurratia eta tristuraz betea icusiric, esan cioten, ecarrico ciotela soñulari bat, poztu eta alaituco zuena. Servitzariac Erreguearen vicitza atsecabezcoa onela arindu uste zuten; eta Saul-ec bayezcoa eman cienean, batec esan zuen, mendian icusi zuela Isai-ren seme bat, arpa chit ondo jotcen zuena. Saul-ec bereala mandatariac aitari seme-esque bialdu ciozcan. David etorri zan, eta Saul-ec bere escutari edo escudero eguin zuen. Onec Saul-i arpa jotcen cion, goza-

caitz-aldiac eta barrungo illuntasunac artcen zuenean, eta alaitu eta poztutcen zuen. Guisa onetan vici cirala, Filistin-tarrac abiatu ciran Saul-i eraso nayez, eta Saul ere bere aldetic prestatu zan, eta bidera irten citzayen. Filistin-tarrac Terevinto-co ibarrera joan, eta mendi goitu bat artu zuten. Saul ere beste batera igo zan, eta luzaró aurquez aurque menditic mendira egon ciran. Elcarri erasotceco bata edo bestea ordecara jachi, eta etsayaronz igo bear zan; baña lambide au perill andicoa zan. Onela ceudela, Filistin-tarrai gogoratu citzayen, alde bacoitzetic guizon bana ipiñi, eta garailari irteten zana, bazaren jabe izan cedilla.

## 2. §.—*Goliat.*

Filistin-tarrac ceucaten centoi edo gigante izugarri bat, Goliat ceritzana. Lucean iru cana eta laurden cituen. Indar andi eta beguiratu aserrecoa zan. Jaca edo amilla bost arroba eta erdi cobrerequin eguiña zuen; bernazaquiac ere cobrez estaliac cituen. Maquilla luce, amasei libra eta erdico eztena erpiñean zuena cerabilen. Onela jantci eta prestatric, Israel-tarrac icusi cezaqueten lecura irten zan, deadar eguiñaz: nai zuena, irten cedilla, ari arpegui ematera; eta viciric guelditcen zanaren aldecoac bestecoen nagusi eta buru izan citecela. Goliat-ec ots oyetan berroquei egun igaro cituen, eta Saul-ec, Filistin-tar onen iseca eta farrac ecin eramanaz, artu zuen, gendea prestatu eta erasotceco asmoa; baña soldadúac laborrian ceuden. Saul-ec au icusiric, esan zuen, baldiñ inorc Goliat-i gogor eguin, eta ventutceco biotzic bazuen, bere alaba emaztetzat, eta ondasun andiac emango ciozcala. David ordu artan Saul-equin etzan, ezpada bere aita Isai-ren ardiac zaintzera itzulia. Ala bearrez, aita bialdu zuen, bere iru anaya Saul-equin soldadu cebiltzanelara cerbait jan-gauzarequin, nola ceuden jaquitera. David arà zan unean, soldadu-talde gucia prest cegoan, Filistin-tarrai erasotceco. Ordu berean Goliat, len bezala, lagun-artetic irten, eta belico ausardi eta queñacquin deadarca ciardun. David-ec galdetu zuen, ¿ea ala cer zuten? ¿ea Filistin-tar hura iltceagatic, cer emango zuten?

Eliab bere anaya zarrenac itzqueta au adituta, esan cion, ¿ea an cer eguiteco zuen? eta ¿certaco arà joan zan? Ezagutcen zaitut, bai: guerratcen icusi nayac onará ecarri zaitu. David-ec anayagandic aldeguin zuen, eta bere itzean cegoan. Saul-ec jaquin zuenean, David-ec cer cion, beregana eracarri zuen. Saul-ec, noizbait bere morroi izan bazuen ere, etzuen ezagutu, artzai-soñecoacquin eta eguzquiac belztua cegoalaco. David-ec, bada, esan cion: Ez bedi Filistin-tar argatic iñor izutu; nic, joan, eta erasoco diot. Saul-ec erantzun cion, gaztehoa zala, guerran oituta Filistin-tar bati, arpegui emateco. Orduan David-ec arpeguico suarequin Saul-i adierazo cion, bere biotz andia, eta Goliat-i erasotceco ceucan eresia. Esan cion artzantzazan cebillela, otso edo leoyac ardia ceramayonean, ondora jcan, eta ilda quentcen ciola; eta bereronz abiatcen baci-tzayon, matraill-ezurrac autsi eta uzten zuela. Orain berean, cion, Filistin-tar orri joango natzayo, eta leoy eta otsoen atzaparretic atera ninduen Jaincoac, orren escuelatic gordeco nau. Saul-ec erantzun cion: Zoaz, bada, eta Jaunac lagun daquizula. Baña Saul-ec etzuen nai artzai-soñecoacquin joateric, eta guerraco janci eta armac eman ciozcan. David etcegoan alaco soñecoacquin oitua, eta oyec utciric, artu cituen artzai-soñecoa eta aballa bost arrirequin, eta Goliat-en aurrera joan zan. Goliat-ec icusi zuenean, maquilla eta aballarequin beste arma gabe, David cijoaquiola, deadar eguiten cion: ¿Zacurra naizala uste alde, maquilla utsarequin niganatceco? Ator, ator, muticoa, ire araguiac aireco egazti eta lurreco pistien janari laster izango dituc. David-ec erantzun cion, icusico zala, gueyago nor zan. Biac prestatu ciran, elcarri erasotceco. Goliat David-i bacijoaquion, bere lanza lucearequin lenengo uquituan sabela zulatceco ustean: baña David-ec, zorrotic arri bat artuta, aballarequin erabilli batzuec gora-beera eman ondoren, Goliat-i bota cion, eta becoquiaren erdi-erdian eman cion golpearequin, illotza lurrean ezarri zuen. David corrica joan citzayon, eta Goliat berari, guerrian ceucan ezpata, quenduric, burua ebaqui cion. Filistin-tarrac, beren lagunnic errutsuena ilda icusi zutenean, iguesari eman

citayozcan, eta Israel-tarrac orpoz-orpo cerraizquiela, il-  
quintza izugarria eguin cieten. David-ec Goliat-en burua  
Jerusalen-era eraman zuen, eta Filistin-tar guciac izu-icara  
andiac artu cituen, eta Israel paquean guelditu zan. Saul-  
ec bereala David-i lambide onegatic ondo-nai edo amorio  
andia aguertu cion, laster igüindu bazuen ere. Jonatas,  
Erreguearen semearequin ordu onetatic David adisquide  
eguin zan, eta escueracutsi asco ere Jonatas-ec eman  
ciozcan.

Israel guciari eguindaco mesede au Saul Erregueac go-  
goan artuta, David maite izan bearrean, bereala asi zan,  
gorrotoz beguiratcen. Filistin-tarr-en ondamen onen ondo-  
ren Saul-ec Jerusalen-en egun batzuec eguinda, gueró Ga-  
baá, bere errira joateco gogoa artu zuen, eta bidaje onec  
Saul-en viotzean David-ganaco ayercune vicia sortu zuen.  
Albo-errietatic Erregueari bidera irteten citayozcan ema-  
cuméac, pandero-soñuan cantatcen zuten: *Saul-ec milla  
il cituen, eta David-ec amar milla*. Itz oyec Saul-i etcitza-  
yozcan ondo erori, ceren uste izan zuen, David gueyago-  
tzat ceucatela, Erregue baño: eta ordutic izan ciran David-  
en eramanquizun andiac. Emacume ayec etcituzten itz  
oyec, Saul-i gaitz naita, esaten, ezpada adierazteco, Saul-  
ec millarequin baño, David-ec Goliat utsa illarequin, Filis-  
tin-tarrai calte gueyago eguin ciela, eta Israel-tarrac iraba-  
ci andiagoac izan cituztela; baña Saul-ec, dirudienez, gaiz-  
toenera jo zuen, eta etcion gueróz David-i begui onez be-  
guiratu.

Biaramonean Saul bere gozacaitz-aldiac artu, eta David  
arpa jotcen ari citayola, il nayez lanza egotci cion; baña  
David-ec colpeari aldeguin cion; eta ezaguturic, cer peri-  
llean cegoan, Saul-en echetic irten zan. Saul-ec bacecusan-  
David-ec Jaincoa bere alde zuela, eta bildur citayon: eta  
beguetatic bein quentceco, milla guizonen aguintea eman  
cion, eta aguinte oni cegozquion lanac cintzó eguinaz, Da-  
vid vici zan, Israel-tarren ondo-naya irabazten zuela, ba-  
ña berebat Saul-en gorrotoa anditcen zala.

3. §.—*Micol-equin David-en ezcontza.*

Saul-ec bere gogoz bertatic ilco zuen; baña aimbeste nai citzayon guizon bat, aguirian iltceac icaratcen zuen eta Filistin-tarren escuetan galerazotceco asmoa artu zuen. Onetaraco morroi batzuei deitu, eta esan cien, berez bacebiltzan bezala, David-i sinisterazotceco, Erreguea adisquidetu zala, eta aren sui eguin ere bacitequeala. David-ec erantzun cien ¿ea hura Erreguearen sui izateco nor edo cer zan? Morróyac esan cioten, etzala ansi ecer ez izana edo iduquia. Erreguearen sui-gayac izan cezaquean gauzaric gogocoena zala, eun Filistin-tarren guisa-siñaleen zatiac eramatea, Erreguearen etsayai cegoquien castigu, eman citzayela adierazteco. Saul etcebillen David-en onagatic, ezpada ea Filistin-tarren escuetan erortcen ote zan. David-ec esan au morroyai ondo artu cien. Bereala prestatu zan, eta bere contuco milla soldaduacquin Filistin-tarrai eraso, eta il cituen berreun, ceñai, guizona dan edo ez, ezagutcen dan lecutic zaticho bana quendu, eta Erregueari eraman ciozcan. Saul bere itza jan bearrean arquite zan, David-i alaba emaztetzat ematen ezbacion. Eta Merob lenengo alaba lenagoco aldian ucatu cion bezala, orain Micol ucatcea etcitzayon ondo iruditcen, eta, gogo gaiztoz bederic, eman cion, eta David Micol-equin ezcondu zan.

David zorionez betea cegoan: irabaci cituen garaipénac ots andia eguiten cioten: Erreguetzaco, isillic bederic, igortcia zan. Erreguearen alabarequin ezconduta cegoan; eta Micol-ec chit maite zuela, vici zan: baña zorion onec berac eramanquizon andiac cecarzquion: suyaren onac aitaguiarrabaren biótzean itzauteci andiac idiquitcen cituen eta suya ecin icusiac su ta su ematen cion.

Onetan Filistin-tarrac, David eta bere gendeari, ordaindu nayez, prestatu ciran, erasotceco. David bidera irten citzayen eta len bezala, aguintari aditu eta trebearen lanac eguin cituen. Orduan suyaganaco gorrotoac ecin eramannac Saul-i gañez eguin cion, eta ezcutuca ibilli gabe, bere seme Jonatas eta morroi batzuei aguindu cien, David il ce-



zatela. David-ekin Jonatas-en arteko adiskidetasunaren berririk Saul-ek etzuen. Jonatas-ek, bada, adiskide onaren aldetik David-i gaztigatu zion, aitak il nai zuela, eta ezcutatu cedilla. Aitari aren alde itzeguingo ziola, eta certan guelditcen ciran, adierazoko ziola. Jonatas-ek Saul-i itzeguin, eta esan zion, David-i, arren, ez gaitzik eguiteko: bera zala Erreguearen servitzaririk leyalena, oquerrik egin etzuen; Goliath il, eta Filistin-tarrak ondatuaz, mesede andiak egin zituen. ¿Cergatik, bada, aitari ziotan, culpa gabeko David-en odola isuri nai dezu? Jonatas-en itzak Saul-i ukitu zitoten, eta esan zuten; Jainkoak badaqui, ez dedala ilko. Jonatas-ek bereala David-i gaztigatu zion. David joan, eta len bezala, aitaguiarrabaren servitzoan jarri zan.

4. §.—*Saul-gandik David-en iguesak.*

Filistin-tarrak, berriz ere, Israel-tarrai eraso zitoten, eta David-ek, iguesi joandako banakak, ez besteak, il zituen. Garaipen onek len emandako itz zineztua, Saul-i azterazo zion; aserretu, eta berriró il nayezi asi zan. Bere guelan bein batean eserita cegoan, lanza escuan zuela. Zakar aldiak artu zuten; eta David bere arparekin gozatcen, eta alaitcen ari zitayola, lanza luzatu zion; baina David-ek gorputzari alderaguin eta lanza paretean josi zuten, David Saul-en ehetik irten, eta berera iguesi gaurerako joan zan. Saul-ek David-en echera contuartzalléac bialdu zituen, ondo ingurutu eta gorde cezaten, biaramonean ilteco asmoan. Micol leyaléac cer zan, iguerri zionean, senarrari esan zion; baldin gaur arratsean gordetcen ezbacera, biar il bearco cera. Atetik ecin irten citequean, ceren contuartzalléac zaintcen zuten; eta Micol-ek berak leyotik beera eratsi, eta David-ek igues-ekin zuten. Gueró cerzatequean ere, Micol-ek David-en oyezan ipiñi zuten zur pusca bat, buru-aldeak larru illetsu batekin, eta gaureracoa oi-janciacquin ondo estalita. Egun-sentian contuartzalléac David irten-zai cuden, ilteco, eta Saul-ek il-berria ez artzeari lucetsirik, berriró bialdu zituen, berealaxe cetzan lecuan, escúac ezartteco, aginduta: baina erantzun zitayon oyezan eri cetzala.

Berac ere icusi zutenean guizonaren antzean zura estalita, Saul-gana itzuli ciran, berri bera ematera. Saul gueyago sutu zan, eta agundu cien, orduric ere galdu gabe, bere oyarequin eraman citzayotela, bere beguetan iltceco. Joan ciran, eta maindirea quendu zutenean, David-er ordez, Micol-ec ipiñitaco zur puscarequin arquite ciran. Uste gabe-co eta farragarrizco berrionequin Saul-i ecin gueyagorano iracequi citzayon: Micol bereala eracarri zuen, eta esan cion; ¿ea cergatic ala aita isecatu zuen, eta David etsairic andienari igues-eguitenutci cion? Micol-ec aitaren becosco illuna icusi, eta itz aserreac aditu cituenean, etsi zuen, il bearco zala. Bildur onequin aitaren aurrean gue-zurrez bere burua garbitu nai izan zuen, esanaz, senarrac agundu ciola, igues-eguiten uzteco, bestela ilco zuela. Saul-ec onembestez utsi cion, eta Micol bere larritasun anditic irten zan.

Orduraco David-ec bideac eguin, eta Ramata-ra Samuel-gana joan zan. Profeta andi onec, Israel-co Erreguetzat igortci zuen ezqueró, chit asco nai cion; eta David-ec esan cionean arà cerc ceraman, obeto bearrez, Nayot-era bialdu zuen, emen eche ezcutu batean gorde cedin. Saul-ec bereala jaquin zuen, David noronz zan, eta morroyac bialdu cituen, arrapatu cezaten; baña Jaunac mirari baten bidez, gorde zuen. Gueró Saul bera joan citzayon; baña berebat guertatu citzayon. Bitartean David-ec igues-eguin zuen, eta Gabaa-ra Jonatas bere adisquide maitagarriagana itzuli zan, Saul-ec hura gal-teco cerabilzquien alegiñac adieraztera. ¿Nic cer eguin det, Jonatas-i esaten cion, zure aita nere viciaren billan ibiltceco? Ez orrelacoric, ez; Jonatas-ec erantzun cion; nere aitac ez du, niri esan gabe, ecer eguingo. David-ec esan cion, bien arteco adisquidetasuna aitac baciequiela, eta bere lana isillic eguin naico zuela, Jonatas-ec berriz ere esan cion, aren vicia bere contura artcen zuela, eta etzala galduco. David gai onetan beti bildurtiac, Jonatas-i esan cion, bi eguneco pestac biaramonean asten cirala. Bera etzala Erreguearequin bazatcera joango, eta David an etzala, Saul oartcen zanean, aserretcen bazan, gorrotoac bacirañela, eta

Jonatas-ec David-i gaztigatceco, onec bere bideac artu citzan. Ala eguin zuten; eta Saul-ec David, ez ecic, Jonatas bera ere, aren alde irten zalaca, iltceco asmoac artu cituen: eta Jonatas-ec au icusiric, echetic irten eta joan zanner guertatcen zan, David-i esatera. Etsiric, etcegoala Saul en biotza biguntceric, eta David-i cion iguiña ozlutceric, elcarri esan cioten; obena zala, David ez gueyago Saul-en beguietaratcea, eta laztan gozo eta diosal cariñozcoa batac besteari eguinda, banacatu ciran, Jonatas bere aitaren echera, eta David Nobe, Jaunaren Tabernaculoa cegoan errira, bien artean cer eguin zan, iñori ez esateco, eta elcarri beti-betico adisquidetasuna gordetceco itzean.

David Nobe-ra eldu zanean, Aquimelec Apaizari esan cion, Erreguearen aguindu estu batec bidean ipiñi zuela, Janic, eta armaric artceco ere beta gabe, ez beretzat eta ez bere lagun atcean utci cituementzat, eta escatu cion cerbait jaten. Aquimelec-ec, ala bearrez, etceucan *proposicio*co ogui santuac beste cer janic; eta David-i galdeturic, ea bera eta bere lagunac garbiac ote ceuden, batez ere, emacumeetatic; eta bayezcoa arturic, eman cion, beste erre-berriac ipintceco atceneco aidian quenduta ceuzcan ogui bedeincatuetatic jaten. Ogui oyec apaiz etzanac ecin jar citzaquean: baña Aquimelec-ec David-en estupena icusiric, eta onen ibillerac etorquizun andiac ecarri citzaquela, pensaturic. eman ciozcan. Gueró ezpata bat escatu cion, eta besteric etceucalaco, berac Goliat-i queuduta, an gordetcen cegoana. eman cion. Gauza oyec guciac eguiten beguira cegoan, zorigaitzean, Saul-en morroi cutun Doeg ceritzan, eta bost negar gueró eraguin cituena.

5 §.—*David-en joanera Get-era aurrena, eta queró Moab-era.*

David bere lagunetara itzuli, eta partitu cien Aquimelec ec emandaco ogui bedeincatua, eta lagunac Israel-co lurrean utciric, Get ceritzan Filistin-tarren erri urreenera joan zan, bere burua gordetcera. Get-en cerbait dembora eguin zuen, iñorc ezagutu gabe, Aquis Erreguearen soldadu

sartuta: baña egunen buruan, nor ote zan, surmurra asi zan, eta Erregueari esan cioten, aimbeste calte eguin izan cien Israel-co aguintari David, bere soldaduen artean cegoala. David oartu zan; icusten zuen, an egoteric etceucala ¿Nola, ordea, irten? Esturasun onetan gogoác eman cion, bere burua zoro eguin bear zuela; eta Erregue berác erritic zorotzat botaerazoco zuela. Jaunaren escua, beti bezala, bere alde zuen, eta uste au ondo irten citzayon. Erreguearen aurrera eramán zuten, eta icusiric, esan-eguin gucietan zoro garbi-garbia cegoala, Erregueac esan cien, ¿ea certaco icusgarri hura aren aurrera ceramaten? Aguindu zuen, aren beguetatic quendu, eta bere toquirá bialdu cezatela: bertan ere, alabañan, zororic asco izango cituztela, auzo-erricoac eta atceac gabe. Filistin-tarren artetic onela irten, eta Juda-co Tribuan Odola-co leice-zulo batean gorde zan.

Emen jarrita bereala, bere echeacoac eta aideac jaquin zutenean, joan citzayozcan, beste cembait adisquide arturiz, icustera. David-en odoleco edo adisquide zantzucoa izatea asco zan, Saul-ec gorrotatceco, eta neque gogórrac eramán-erazotzeco: beragatic Saul-en gogortasunarequin chit aspertuac ceuden, eta lareunen bat guizon batu citzayozcan, arc aguintcen cien eguiteco prestaturic. David-ec guizon oyec bere mendean icusi cituenean, auzo-erreinu Moab-co Erregueaga-na joan zan, eta escatu cion, Jaincoac artzaz cereguiten zuen, icusi artean, aren ait-amac lur artan vicitceco baimena. Moab-co Erreguea Saul-eguin gaizqui cetorren, eta onen mendetic iguesi cijoazquion guciai, arrera, ona eguiten cien. David, orrezaz gañera, auzoetan chit ots andicoa zan, Filistin-tarrai eman izan ciezten eraso latzen bidez, eta gaztelu sendo bat eman cion, nai zuen arteraño bere gendearequin gorde cedin.

Atce bati aimbeste escualdi ematea chit egoqui ez dirudi; baña Jaincoac guizon andi au gorde nai zuen; eta bere lurrean eta aitaguiarrabaren aldetic etzuena, erbestean eman nai izan cion. Emen cegoala, Jaincoac Gad Profeta-reu bitartez gaztigatu, cion, gaztelu artatic irten, eta Judara joan cedilla. David-ec ala eguin zuen, eta Haret-co ere-

man sartu zan. Saul-ec berri au artu zuenean, biotzeco su-aserreac bacira-quion, eta lanza arturic, eman cion deadarrari, eta bere seme Jonatas-gandic asita, beste guciagatic gaizqui esateari, guciac escuetan chiquitu nai bacituquean bezala. Beguira ceudenac, etcioten itzie truncatu. Bacar-bacarric morroi losenchari biotz gaiztoco battec itzeguin, eta su gueyago eman cion.

6. §.—*Jaunaren apaizen iltcea.*

Losenchari galgarri au zan Doeg len aitatu dana, eta ogui bedeincatua eta Goliat-en ezpata artcen, David icusi zuena. Doeg zorigaiztoco onec, bada, Saul-i esan cion, Nobe-n guertatu zan gucia. Saul-ec bere bereala Aquimelec eta onen odoleco apaiz guciac bere aurrera eracarri, eta Aquimelec-i esan cion: ¿Certaco zu, eta Isai-ren semea nere contra jaiqui cerate, eta oguia, eta ezpata eman diozcazu? Aquimelec-ec erantzun cion: ¿Cein David zure suya baño, Erreguearen servitzari leyalagoric? Ez nic eta ez nere echecóac gauzaric chiquiena ere zure contra eguin degu.

Aquimelec-ec arguitasun guciarequin itzeguin cion, David culpa gabea zala ciequielaco; baño etzuen Saul-en sua iracequitcea baicic eguin. Saul-ec Aquimelec-i esan cion: orainche bertan zu eta zure echeco guciac il bearrac cerate. Bereala ondoan ceuzcan soldaduai aguin du cien, Jaunaren apaizac iltceco, ceren David iguesi cebillela jaquinda, aditcera eman etcioten. Au guezurra zan. Aquimelec berac ere etzuen jaquin, David nola cebillen, ezpada uste zuen Erreguearen aguin duac eguiten cituela. Beste apaizac are guchiago ciequiten, eta batere obenic etzuten. Au gucia Erreguearen soldadua ezagaturic, etzuten apaiz ayen odolean escuric cutsutu nai izan, eta uco onequin Saul-i lotsa au ere eman cioten. Etzan ordea ansi: Saul-ec norc eguin bazuen. Doeg losenchari zorigaiztocoac ayen utsunea bete zuen, eta larogueita bost apaiz egun batean bere escuz il cituen.

Ilquintza izugarri onec guciac arri-eguiñic utci cituen ez ordea Saul bigundu. Bereala soldadua Nobe-ra bialdu

eta erri onetan vici ciran zar eta gazte guciac, bularreco aurric ere utci gabe, ilerazo cituen. Berebat eguin zuen abereacquin ere. Bacarric apaiz bat, guelditu zan, guciac galdu-zale zan Saul-en damuz bederic, Aquimelec-en seme Abiatar, ceñac berri negargarri oyec David-i eraman ciozcan. Davic-ec, berri oyecquin biotza erdiraturic, deadar eguin zuen: Ezagutcen nuen, bai, egun artan Doeg Tabernaculoan egon ezqueró, Saul-i esango ciola. Zure echeco odol- isurtce onen sustraya ni naiz; nerequin gueratu zaitte, ez icaratu; iñor nere viciaren billan badabil, zure esque ere ibillico da, eta nerequin batean gordeco cera.

Egun oyetan Filistin-tarrac eraso cioten David-en egonlecutic legua banaca batzuetara cegoan erri Ceila ceritzanari. David-ec jaquin zuen. Abiatar Apaiz nagusiaren bitartez Jaincoari galdetu cion, ¿ea Filisten-tarren contra joango ote zan? eta Jaincoac erantzun cionean, joateco, eta escuratuco cituela, bereala joan, eta ondatu cituen, igueseguindaco banacac, ez besteac, illaz, eta abere eta gauza guciac quendu ciezten, Gueró Ceila-n sartu zan, eta emengo biztanléac, garailari bati cegoquion guisan artu zuten.

Saul-ec David-en eguiteco andi au jaquin zuenean, su eta gar bere soldaduac bildu, eta David Ceila-n atciteco asmoan abiatu zan. David-ec, arestian bezala, Jaincoari galdetu cion, ¿ea Saul joango citzayon, eta Ceila-rrac bera eta bere lagunac Saul-en escuetan ipiñico cituzten?; eta Jaincoac, bayez, erantzun cionean, bere seieun guizonequin baso batera irten zan, eta or-emen cebiltzan, iñon egon-lecuric artu gabe. Saul-ec au ere jaquin cion, eta escua ezarri nayez, egunoró cerraiquion. Saul-en seméac jaquin zuen, David bere adisquidea nola cebillen, eta isillic joan citzayon, icusi bat ematera. Esan cion, ez icaratceco; Jaincoac aren aita gogorraren escuetatic gordeco zuela; Israel-co Erregue izango zala, eta Jonatas bera aren bigarren; au gucia Saul-ec baciequiela. Eta beren adisquidetasuna berrituric, Jonatas eehera itzuli, eta David Cif-co basoan guelditu zan.

7. §.—*Saul David-en billan.*

Cif-tarrac Saul-i bereala aditcera eman cioten. David non cebillen, eta escuratceco era ona esqueñi ere bai. Uste onequin Saul soldaduac arturic joan zan, eta David arcaitz batean jarri zan, gogor eguiteco asmoan. Saul-en lembicico lana izan zan, arcaitzari alde gucietatic contuartzalleac ipintcea, David-ec igues-eguin etcezan. Saul-en gendeac, ain andia izanic, mendi gucia estali zuen, eat David erpin batean cegoan, il edo vici, norabait irten bearran. Baña David-en biotza poz etzan, viciric irtenda ere ceren cecusan, nocitcen zutenac Israel-tarrac cirala, eta ez Israel-en etsayac. Esturasun onetan David cegoala-Saul-i gaztigatu citzayon, Filistin-tarrac Israel-en sartuta, topatu gucia erre eta ondancen zutela. Saul-ec David-i uztea min zuen: bere gogoz Filistin-tarrai, nai zutena eguiten, lenago utcico cien, David-i igues-eguiten baño; ez ordea Saul-en soldaduac. Jaquin zutenean, Filistin-tarren escuetatic, ayen anáyac cer ondamen ceramaten, cegoana cegoan lecuan utci, eta bideari eman citzayozcan, eta David Saul-en atzaparretara gabe guelditu zan.

David arcaitz-tontor artatic irten, eta Engadi-ra joan zan, eta emen cebillen, mendi onec cituen aitz-pe edo ar-zulo luce-zabaletatic batean etciteguia eguiñic. Saul-ec-Filistin-tarrequicoa eguinda, itzuli zanean, bereala David, en aztarna artu zuen; baña lengo aldian, ez ecen, orain, goan ere ezagutu zuen, Jaincoa David-en alde zala. Onen billan Saul cebillen bein batean, fracac ascatu bearrac eman cion, eta isillic eguin nayez, ar-zulo oyetatic batean sartu zan. David bere soldaduacquin jala bearrez! onen barruan cegoan; baña Saul-ec, arguitic illunera sartu zalaco, etzuen ñor icusi; bai ordea barrucoac Saul. Bereala soldaduac David-i esan cioten: Ara Jaincoac icentatutaco eguna, esan cizunean; etsaya escuan nie ipiñico dizut, gogoac dizuna eguiteco. David arqitu zan, cer eguin etciequiela. Soldaduac bein eta birretan ciotsaten, escuan ceucan ezqueró, ain ayer citzayon etsaya il cezala; baña aren odolarequin es-

cúac loitcea David-i gogor eguiten citzayon. David jaiqui zan, bada, eta Saul-en ondora joanda, au oartu gabe, soñean ceraman Erregue-janciaren ertza ebaqui cion, eta soldaduai itzuli citzayen, au escuan zuela. Soldadúac guichienaz uzte zuten, ilco zuela. Baña icusirie, ezez, nagusiaren orde, berac ilco zuten, baldin David-ec Jaunaren igortci bati soñecoaren ertz utsa ere quenduaz, damua aguertu ezbalie, eta bere ondo-esanacquin atceratu ezbalitu.

Saul ar-zulotic irten, eta David-en billan bacijoan. David ere Saul-en ondoren irten zan, eta atzaldetic osca jarrri citzayon: ¡Ene Erregue, eta ene Jauna! Saul-ec atceronz beguiratu zuen, eta David-ec, auzpez jarririe, agur andi bat eguin cion. Guero esan cion, ¿ea guizon guezurti eta losenchariai lecu-emanda, hura galdu navez cergatic cebillen? Esan ere bacion, aren vicia orainago escuan iduqui zuela, eta soñecoaren ertza bezala, bere egunac ebaqui litzazquioquela; baña etzuela nai izan, ezagutu cezan, Saul-en etsaya etzala, ezpada chitasco nai ciona. Saul-ec David-en itz-otsa aditu zuenean, galdetu cion: David ene semea, itz-ots ori zurea da? Au esan, eta Saul-ec negarrari eman cion, esanaz: ni baño obea cera. Saul aldi onetan, gogoz ezbazan ere, arquite zan, David-en biotz andia, eta arc etzuena, aitortu bearrean: beguietan ceucan, alabañan, vicia barcatu cion adieragarria. Saul-ec ezagutu zuen, eta aitortu ere bacion. Israel-co Erregue Davidizango zala, eta escatu cion, aren ondorengoac, arren, orduan ez ondatceco mesedea, David-ec gaitzie ez eguiteco itza eman cion; eta Saul Gabaa-ra itzuli, eta David basoan lecu ez-jaquin batean gueratu zan, Saul-i berriz ere damututa, galdu navez etcijoaquion.

8. §.—*Samuel-en eriotza. Nabal-en guertaera.*

Egun oyetan Israel-i Samuel illarequin calte andiac erori citzayozcan. Profeta santu au, aitatu degu, Israel-en cein onguille andia izan zan, eta beraren il-berria eraman ciotenean, David-ec ere negar andiac eguin cituen, ceren



esturasun gucietan onen bear izan zan, eta Israel-co Erre-  
g uetzan asten zanean ere, bere arguiacquin cerbait eguin  
uste zuen.

David-ec Faran-go basoetan egunac ceramazquien, Sa-  
ul-ec cer eguiñic eman gabe, eta inguruetaoac beretzat  
eta bere soldaduentzat cer jana emateñ ciotela, aren onta-  
sun, eta soldaduen doai onai beguiratuta, David-i bear zan  
gucia esqueñtzen cioten. Ala ere ascoren artean bazan  
guizon chit aberats bat, Nabal ceritzana, bañu guciz zurra,  
eta inori on eguiteco eutsia. David-ec egun batean aditu  
zuen, Nabal-ec Carmelo-co mendian ardi-mozqueta zuela-  
eta amar mutil gazte bialdu ciozcan, cer esñ eracutsita.  
Gazteac joan, eta Nabal-i esan cioten, David-en aldetic  
agur eguitera eljoazquiola. Aditu zuela, nola ayecquin ba-  
soan vici ciran artzàyac ardi-mozqueta zuten. Elcarrequin  
egondaco egunetan etciela gaitzic eguin, ez ecer ere artu,  
eta ain ondo eguin zuelaco, escura cetorquion cerbait es-  
catcen ciola. Nabal-ec arroqueria andian erantzun cien:  
¿David ori nor da? Gaurco egunean ez da icusten, nagusi-  
en ignesi dabilizan morróyac baicic, eta nongoa dan ezda-  
quidan bati emango diozcat mochalleentzat prestatu ditu-  
dan ogui eta ardiquiac? Erantzuera lotsa gabeco oni gaz-  
teac etcioten itzic trucatu, eta David-gana itzuli ciran-  
Nabal-ec cer cion contu-ematera.

David-ec baciequin Erreguetzat igortcia cegoala, ordu-  
raño artacotzat iñore ezbeceucan ere, eta mendeco batec  
ain ausardi andiarequin erantzutea, etcitzayan ondo erori;  
eta lareun guizon arturic, besteac tresnai contu eguiten  
utcita, Carmeloco mendironz abiatu zan, Nabal-icegoquion  
castigua ematera. David aserrez cijuan; baña Jaincoac  
eguin zuen gozatu eta paquetceco bidea. Nabal-en morroi  
bat aditcen cegoan, nagusi c David-en mutillai esan cie-  
ten itzac, eta Abigail Nabal-en emazteari aditcera eman  
cion. Esan cion, basoan chit onac izan cirala, bai David;  
eta bai bere lagunac; etciotela calteric chiquiena ere, on  
ezpada, eguin, eta Nabal-ec eguin cien beguitarte eta arre-  
ra charrac ondore negargarriac izan citzaqueala; eta ondo  
beguira cezala, Nabal-ec bere gozacaitz-aldian cer eguiñ

zuen. Abigail-ec morroyari gauza oyec entzun ciozcanean, senarraren isillie prestatu cituen ogui, ardo, ariqui, mats eta picu leorrac, eta janari oyec guciac astoetan arturic, bera beste batean jarrita, bacijoan. David icustera eldu zanean, astotie jachi, auzpez jarri eta agur-eguin cion, esanaz: Jauna, gaitz au nigana betor. Nabal zoroari ez beguiratu: burua nastua dauca, eta nie zure servitzari onec zue bialdutaco mandatariac ez nituen icusi. Oyec eta beste gauza asco ain egoqui eta jaquintsuró esan ciozcanacquin, David-en su gucia itzali zuen; eta David poztu zan, bidera irten, eta odol-isurtcetie -atceratu zuelaco. Abigail itzuli zanean, senarra osotoró orditua arqitu zuen, eta biaramoneraño etcion itcic esan. Burua ozlu, eta loac ardo eraman cionean, senarrari esan cion, bere lagunacquin jan-edanetan pozez cegoan ordu bcrean, cer perilletan arqitu zan, eta bere zurqueriagatic David-ec cer eguingo cion, baldin bidera irten ezbacitzayon, eta bere erreguacquin atceratu. Emaztearen esan oyec aimbesterañoco bildurra biotzean Nabal-i sartu cioten, non arri eta zur eguñic, gueratu zan, eta amargarren egunean il zan. David-ec Nabal-en il-berria laster izan zuen, eta ezaguturic, Jaunaren lana zala, esan zuen; Bedeincatua izan bedi, niri eguindaco lotsagabequeria bere escuz castigatu, eta cutsutu gabe gorde nai izan naüen Jauna.

*9. §. Abigail-equin David-en ezcontza.*

David-ec, Abigail-equin izan zuen itzaldi laburrean, ondo ezagutu zuen, doai ederrez jancitaco emacumea zala, eta gogoan sartu citzayon. David-ec len ere bacituen bi emazte, bat Micol, Saul-en alaba; baña aítac David-i quenduta, Falti ceritzan batequin ezconerazo zuena, onequin gaizqui ezconduta, Saul-ec icusi nayago zuelaco, arequin menaz baño. Bestea zan Aquinoan, ceñarequin paque eta amorio onean vici zan. Ala ere, legueác ematen zuen escuarequin, artu zuen Abigail-equin ere ezcontceco eresia. Nabal-en progucó egunac joan da gueró, David-ec mandatariac bialdu ciozcan, bere gogoa aguertcera. Abigail-ec

gaztigatu au artu zuenean, aitatu zuen bere beeratasuna, eta David baten diña etzala: baña ezcontcera jarri zan; eta mandatariacquin batean basora joan, eta David-equin ezcondu zan.

Faran-go eremuan David-ec iru urte ceramazquien, Saul-ec cer eguiñic eman gabe, Engadi-co ar-zuloan soñecoaen ertza quendu cionean bien arteco paqueac eguin ciran ezqueró. Aurrera ere ala izateco ustean, bere errira alde-ralceco asmoa artu zuen. Faran-go basotic Zif-cora aldatu zan. Uste zuen, Zif-tarrac iru urtez lenago icusiric mirari baten bidez David Ceruac gordetcen, paquean utcico ciotela; baña engañatu zan, eta bere biotz andia, berriz ere eracusteco bide onean laster arquite zan.

Zif-tarrac Saul-i gaztigatu cioten, David berriz ere ayen lurrera aguertu zala, eta Hachila-co arzuloetan ezcutatua cegoala. Saul iru milla soldadu auqueracorequin David-en billan joan zan. David-ec jaquin zuenean, celatariac bialdu cituen, Saul non guelditcen zan, jaquitera. Non cegoan, esan ciotenean, Abisai bere illobarequin, besteric iñor gabe, gautu zanean, isill-isillie jachi zan, Saul cetzan etzauntzara, eta Saul topatu zuen lo bete-betea, lanza burucoan zuela. Abner aguintari nagusia, eta soldadu guciac ere inguruan cetzaten. Orduan Abisai-c David-i esan cion: Jaincoac zure etsai ori escura eman dizu: orain, bada, lenengo colpearequin bigarrenaren bear gabe, lurrari josico diot. Ez orrelacoric David-ec erantzun cion: ez il: cergatic ce, ?norc Jaunaren igortci bati escua ezarrico dio, loitu gabe? David-ec Saul-en lanza eta edanontcia artu, eta itzuli ciran, iñor oartu gabe.

Cerbait aldeguin zutenean, David deadarca jarri zan, esanaz: ¡Abner! ¡Abner! Au otsera esnatu, eta aserrez erantzun cion: ¿Nor aiz Erreguea esnatcen osca agoen ori? Davd-ec esan cion, beguira cezala, Erreguearen contuartzalle batec cer eguin quizun ceucan, ¿ea nola zaindu zuen? ¿Ea bera eta bereac cergatic lo cetzaten, iñor contuan ipiñi gabe? Atcenean esan cion, norbait beren artean ibilli citzayela, Erreguea il nayez; eta au eguitzat artceco, esan cion: Beguira, Erregucaren lanza eta edanontci burucoan ceuzcanac, non

dituzun. Saul! ere berebat esnatu zan, eta David-en itz-otsa aditu zuenean, lanza eta edanontzia ibiñitaco lecura beguiratu zuen; baña elcituen arquite, eta ezagutu zuen, oraingoan ere aren vicia David-en escuan egon zala, eta barcatu ciola. ¿Orain entzuten dedan itz-ots ori nere seme David-ena ez da ? esan zuen. Bai. David-ec erantzun cion, nere otsa da, ene Jaun, eta Erreguea. ¿Cergatic, nere Jauna, ni bere serbitzari oni orrela darraikit? ¿Cer charqueria nic egnin det, nere vicia orrela galdu nai izateco? Jauna, ots, itz bat. Baldin Jaincoac nere contra ipiñi bazaitu, ara emen nere vicia; baña guizonac ipiñi bazaituzte, Jaunaren aurrean madaricatuac dira, ni nere Jaincoaren lurretic campora atceen artean vicitcera beartu nautenac. Gaizqui eguin det, Saul-ec esan zuen. Atoz, ene seme David, eta ez dizut geyago gaitic egingo, ceren nere viciari beguiratu diozun, eta zoro andi bat izan noizan. Orduan David-ec esan zuen: Arà emen Erreguearen lanza eta edanontzia; bat betor, jasotcera. Jaincoac nori bere dagocan saria emango dio. Eta nic gaurescuan neucan zure viciari beguiratu diodan bezala, Jaincoac nere gorde dezala, eta gaitz gucietatic atera nazala, Jaincoac bedeincazaitzala, ene seme; Saul-ec erantzun cion. Bereala banacatu ciran, David basoronz, eta Saul bere errira.

!Cembat, eta cein icasiquizun ederrac David-ec ematen ote digu, gure etsai diran, eta diralacoacquin izan bear degun egimbidearen gañean! Saul ilcen zan egunetic, Erregue aulquian eseri citequean: Jaincoac bi aldiz, ain ayer citzayon biotz gogorreco guizon hura, escuan ipiñi cion; eta ala ere, soñecoaren ertza, lanza eta edanontzia quendu utsarequin, beste gaizic eguin gabe, uzten du. ¡Ay, au gogoan beti bagenerabil!

10. §.—*David-ec Get-era bigarren aldian igues-eguinten du.*

David-ec etcien Saul-en adisquidetasuneco itzai sinismen andiric eman, eta Saul-en mendeco lurrean egon ezqueró, berriz ere esturasunen batean arquiteco bildu-

rrez, gogoac eman cion, Get-ero joatea, Artaraco Aquis an-  
 go Erregeari baimen-esque mandatariac bialdu ciozcan: e-  
 ta bayezcoarequin itzuli citzayozcanean, bere echeco eta  
 soldadu guciacquin Get-era joan zan, non sei urtez lenago  
 zorotzat erritic atera zutena, chit onore andian artua izan  
 zan. Saul-ec David Get-era joan zala jaquin zuen ezqueró,  
 etcitzayon esque ibilli. Cerbait dembora Get-en eguinda, E-  
 rregueari beste vicilecu bat escatu cion, eta Sicelec-era al-  
 datu zan. Emen David bere gendearequin vici zala, Filis-  
 tin-go bost Erregueac elcartu ciran, Isrrael-tarraí erasot-  
 ceco. David nola Get-ecoaren mendean, eta aguindura ce-  
 goan, naigabe andian arqutu zan, bere erritarrai eraso  
 bear cielaco; baña Jaincoac naigabe au quendu cion. Fi-  
 listin-tarrac, beren soldaduaquin batuta, David beren ar-  
 tean icusi zutenean, Get-eco Erregeari besteac arpeguian  
 eman cioten, cergatic Israel-tar hura an ceucan; eta etci-  
 oten besteacquin joaten utzi, cer zan David-en gogocoena:  
 eta aguindu cioten bere lengo lecuraitzuli cedilla. Bitarte  
 onetan Amalec-tarrac jaquinic, David Sicelect-ic aldeguña  
 zala, sartu, eta erria erre, eta emazte eta seme-alaba guciac  
 catibu eraman cituzten; eta beste ascoren artean David-en  
 bi emazte Aquinoan eta Adigail ere bai. David eta bere  
 lagúnac Sicelec-era itzulita, ondamen au icusi zutenean,  
 cer naigabea artuco zuten esatea erraz ez da. Gučiai uqui-  
 tu citzayen; baña David-i alderic garratzena erori citzayon.  
 Bere emazteac gabe gueratu, ez ecic, bere soldadua ere  
 arricatu nai izan zuten, berac neque ayetaraco bidea eman  
 izan balu bezala. David-ec, bada, alde gucietatic estura  
 larrian bere burua icusiric, Apaiz-nagusi Abitar-en bitar-  
 tez Jaincoari galdetu cion, cereguingo ote zuen; eta Jau-  
 nac erantzun cionarequin, bere seiean guizonequin Ama-  
 lec-tarren ondoren abiatu zan, eta ordu guichiren epean  
 Besor-co ibayera eldu ciran: Baña Sicelec-en negar egui-  
 teco adiña dembora baicic, atsedeteco artu etzutelaco, bi-  
 deco nequeac easan, eta berreun aunnaturic, ibaya igaro  
 gabe gueratu ciran. Beste lareunacquin David bacijoan,  
 etsaya non topatu etciequiela: baña Jainco Laguntzalle  
 belicoac David-i eratu cion, gucia jaquiteco, eta ondo ir-

tefecó bide ona. Arquitu zuten Igitó bat, bidean erdi-ille-  
an celzana. David-i eraman cióten, eta jaten emanic, biz-  
cortu zan; bada, iru egun ayetan etzuen ecer jan, eta ez  
edan. David-ec galdetu cion: ¿Norena cera, nondic zatoz,  
eta norà zoaz? Ni nerez, erantzun cion, Igitó naiz, Ame-  
lec-tar baten catibua, eta nere nagusiác orain iru egun,  
bidean utci ninduen, gašotu nintzalaco, Juda eta Celeb-  
eronz joan guiñan, eta Sicelec-co erriari su eman guiñion.  
David-ec esan cion, ¿ea eracutsico zuen gende zu-emalle  
hura non cegoan? Igitóac erantzun cion, baldin vicia bar-  
catcen bacion, eta nagusiaren escuetan uzten ezbazuen,  
esango ciola. David-ec bi gauzac itz ciñeztuaren azpian  
aguindu ciozcan.

11. §—*Amalec-turrac ondatuac.*

David-ec, guidari onequin cijoala, ordeca zabal batean  
icusi cituen jan-edanetan, eta pesta andiac eguiten, Sicelec-  
tic ceramazquiten ondasunen pozean: baña gozoa laster  
mindu cien. David bere gendearequin itsumustuan, arma-  
ric arteco lecuric ere eman gabe, sartu citzayen, eta arra-  
tsaldean asita, biaramoneco illunabarreraño iltcen aritu  
ciran, eta etzan iñor ere viciric guelditu, asieran gamelu-  
gañetan igues-eguin zuten laroun mutil gazte baicic. Emaz-  
te, seme-alabac, eta ondasun guciac, ecer ere galdu gabe,  
beretu cituzten. Orrez-gañera Amalec-tarren ardi eta bei-  
samalda andiac ere artu, eta Besor-en aulduta gueratuta-  
co lagunetara itzuli ciran.

Oyec David-i bidera irten citzayozcan, eta chit arrera  
ona eguin cien; baña David-equin ciran batzuei etcitzayen  
au ondo erori, eta esan zuten, beren emazte eta humeac  
baicic, etcitzayela eman bear; bada, besteai etcerraizquie-  
laco. Amalec-tarrai quendutaco gauzaric etcegoquiela. Ez  
dezute orrelacoric eguingo, David-ec esan cien, Jaunac  
escura digunarequin; eta joan ciran, eta etciran gucien  
artean, gauzac partitu cituen: eta Saul-en iguesi cebillen  
ezqueró lagunteen cióten beste guciai ere, beren zatiac  
bialdu ciezen. Gueròztic David-ec emen eguiña, Israel-en  
leguetzat artu, eta gorde izan zan.

David Sicelec-eronz abiatu zan goiz berean, Filistin tarrac ere Jezrael-era igo ciran; eta Saul, andie urrean cegoanac icusi cituenean, osotoró sustatu zan, eta biotza illundu citzayon. Bereala Jaincoari galdeac eguin ciozcan, baña erantzun etcion, ez ametsetan, ez apaizen, eta ez Profetaen bitartez. Orduan gucia aserreturic, egundaño eguin zuen gaiztaqueriaric andienean erori zan. Jaincoari utcita, deabruai deitu cien, nai zuena jaquiteco.

12 §.—*Saul Endor-co sorguñari galdezca jartcen zayo.*

Dembora guichiz onunztic Saul-ec sorguintza eta astitzan cebiltzan guciac bere mendetic quendu izac cituen, eta orain bere suan oyetara dijoa. Esau cioten, Endor-en bazala emacume bat, Piton, au da, deabrua berequin zuena. Erregue janciac bereala utcita, bi lagun arturic, emacume argana gailaz joan zan, eta esan cion, berac icendatcen ciona aurrera eracarri cezala. Emacume gaizquindu au escari onequin icaratu zan, ceren baciequien Erregueac debeatuta ceucala, sorguin eta aztiac Erreinuan egotea, eta etzuen iguerri, Erregue berarequin itzquetan cegoala; Sauec-ec gaitzic etorrice etcizayon itza eman cion, eta us. te onetan sorguñac esan cion: ¿Nor icusi nai dezu? Samuel, Erregueac erantzun cion. Andre gaizto arc baciequien, illac aguerteracitceco escuric etzuela; baña aurrean ceucanari cerbait esan bear, eta asi zan bere itz modu eta dei batzuec eguiten, eta arqutu zan !berac ust: baño gueyago; Samuel, aspaldian illa, aurrean zuela. Orduan ezagutu zuen, itzeguiten ciona nor zan, eta deadarca esan cion: Saul, ¿certaco engañatu nazu? Ez izutu, Saul-ec erantzun cion. ¿Cer icusi dezu? Icusi det, emacumeac erantzun cion, Jaincoa dirudien guizon bat, lurpetic irteten. ¿Cer arpegui du? Zar beneragarria eta mantuz jancia da. Ori Samuel da, Saul-ec esan zuen, eta auzpez jarriric, agur andi bat eguin cion. ¿Certaco ni onarà eracarrita, neucan paquea galdu didazu? Samuel-ec Saul-i esan cion. Estura larrian arquitzen naiz, Saul-ec erantzun cion, ceren Filistin-tarrac eraso didaten, eta Jaincoac utci nau, eta ez dit

aditu nai izan, ez Profetaen bitartez, ez ametsetan. Deitu dizut, bada, esan dizadazun, cer eguin bear dedan. Jaincoac eguingo du, nere bitartez esanic za izcana, Samuel-ec erantzun cion. Erreguetza zuri quendu, eta David zure lagunari emango dio, ceren Jaunaren esana etcenduen eguin, eta aren aserreac escatcen zuen eran Amalec-tarracquin etcinhan izan. Argatic zuri datorquizuna Jaunagandic da, eta zu eta Israel Filistin-tarren escuetan ipiñico zaituzte. Biar zu eta zure seméac nerequin cerate.

Samuel-ec aldeguin zuen, eta Saul erdi-illean luce-luce etzan zan. Sorguiña guelan sartu zan, eta egoera onetan icusi zuenean, jaten esqueñi cion, zuzpertz cedin, baña etcion artu. Gueró Saul-en bi lagúnac eta emacumeac ondo esanaz jaiquierazo, eta oyeen erazo zuten. Bereala batean andreac maneaturaco jana donario andi gabe artuta, gau gucia bidean eguiñic, egun-sentiraco soldadu taldea cegoan lecura eldu ciran. Erreguearen ibilleraz etzan iñor oartu, eta goiz berean gendea berac zucendu, eta prestatu zuen, batallaraco.

### 13. §.—Saul-en eriotza.

Filistin-tarrac lembician erazo zuten, eta Israel-tarrac gogor eguin cioten. Elcar ecin menderatuz, luzaró aritu ciran; baña gueroenean Israel-tarrac atceratceari eman cioten. Filistin-tarrac au ezagutu zutenean, gogorraco eta alde gucietatic eraso cieten. Orduan Israel-tarrac iguesi abiatu ciran, eta ondoren cerraizquien Filistin-tarrac ilquintza izugarria eguin zuten. Genderic indartsuena eta gueyena, Saul eta bere iru seme Jonatas, Abinadab eta Melchisua ceuden aldera sartu zan, eta Saul laster arqutu zan, zauriz beteta odola ceriola; eta ezagutu zuenean, etceucala gueyago viciric, bere morroi bati esan cion, iltecco, orpoz-orpo cetozquion etssáyac atcitu eta iseca eta farraz il etcezaten; baña morroyac, izuturic, etzuen naguciaren esana eguin nai izan. Orduan Saul-ec bere buruari ezpata sartcecco quemenic etceucalaco, ezpata zutic ezuceluz beera ipiñi, eta auzpez onen gañean etzanda, il zan.



Morroyac ere nagusia onela icusi zuenean, au bera eguin zuen.

Filistin-tarrac osotoró garaita zuten, eta ordu guichiren epean Jezrael-co bazter, eta Gelboe-co mendietan etzan gorputz-illac baicie aguferi. Erregue bera, onen iru seméac, bere aguintariric obenac, gordetzalleac, aideac, adisquideac.... guciac, igueslari banaca batzuec, ez besteac, il ciran, eta igueslari oyec alde gucietara izu-icara zabaldu zuten. Erri guciac inor gabe, eta Filistin-tarren mendean gueratu ciran. Ilquintza onen biaramonean gorputz-illen jantci eta gauzac bilteen cebiltzala Saul eta bere iru semen gorputzac Gelboe-co mendian illotzie arquitu cituztenean Saul-i burua quendu, eta beren erreinura bialduta, ipiñi zuten Dagon-en elizan, eta armac Astarot-enean. Lau gorputz-illac Betsan-go murruan centoi batzuetatic esequiedo cincilica ipiñi cituzten, eta beren errietara itzuli cirau.

Betsan-dic urrean cegoan Jabes-Galad-co bistanleac Saul eta bere semen zorigaitza jaquin zutenean, Amon-tarren Erregue Naas-en mendetic libratcearequin eguin izan cien mesede andiaz oroituric, naigabe andia artu zuten; eta cioten amorioagatic guizonic indärtzuenac bildu, eta Betsan-era gañaz joanda, gorputz-illac jachi cituzten: gueró erre eta ezurrac arte-pe batean ipiñi cituzten, eta Galaad-tar guciac beltzez jancita, zazpi eguneco baraüacquin progua eguin cioten.

David-ec Siselec-en bi egun ceramazquien, Amon-tarrac deseguinda itzuli ezqueró, eta etzuea Saul-ekin Filisten-tarren artean ecer guertatu zanic jaquin: baña irugarranean aurqueztu citzayon guizon bai, soñeco urratu, eta buru autsez betearequin, eta aupez jarrita, agur eguin ción. ¿Nondic zatoz? David-ec galdetu cion. Israel-dic igues-eguinda nator, erantzun cion. ¿An cer berri da? mintza zaite, Jauna, gende asco galdu da, eta oyen artean Saul eta bere seme Jonatas ere il dira. ¿Nondic daquizu, Saul eta Jonatas il dirala? Ustez-uste gabe Gelboe-co mendira nintzan, eta Saul ezpata-gañean cetzan, eta icusi ninduenean, otseguin eta esan cidan, etsayen escuetan erori baño lenago, il nezala. Orduan gañean jarrita, il nuen, eza-

gutcen nuelaco, ecin vici izan citequeala; eta arturic buru  
co coroa eta escuturrecoa, ara non dacarquizudan, ene  
Jauna. David eta bere lagúnac, berri au aditu zutenean,  
soñecoac urratu cituzten, eta negarrari eman citzayozcan,  
Saul, bere seme Jonatas eta gañeracoen iltceagatic. David-  
ec Amalec-tar berri-emalle ari esan cion ¿Cergatic Jauna-  
ren igortei bati escuac ezartceac izutu etzaitu? Bereala be-  
re soldadu bati otseguin, eta ilerazo zuen Amalec-tarra,  
berac cionez, Saul-en eriotzan cutsutu zalaco.

Bacirudien, eta Amalec-tar arc juste izango ere zuen,  
David-gandic sari andiren bat artuco zuela, leguez eta  
bidez cegoquion Erregue-aulqui Saul illarequin ustu zalai  
eta berac eseri baicic etzuelaco berria eramán zuenean;  
baña David zucén-onac etzuen era artan odoldutaco aul-  
quiric nai, eta are guichiago odol-isurle batgandic albista  
hura artceric: bada, David Israel-co Erregue eguiazcoa iza-  
nac etcion Saul iltceco escuric ñori ematen, eta escua eza-  
rri ciona, castigatu nai izan zuen. ¡Cein biotz onecoa etsai-  
ric andienarequin ere!

## EMEZORTCIGÁRREN IRACURGAYA.

### 1. §.—*David-en bigarren igortcitcea.*

Saul il zanean, David-ec ogueita amar urte cituen, eta  
amalan ciran Samuel-ec Erreguetzat igortei zuela. Au Da-  
vid-ec ondo ciequien, baña Jaunaren berri gabe etzuen  
ecer ere eguin nai: eta Jaincoari galdetu cion ¿ea norá  
joango zan? Jaunac erantzun cionean, Hebron-era joan  
zan bere bi emazte Aquinoan eta Abigail eta beste cembat  
lagunequin, gañeracoac Sicelec-i contu-artcen utcita. He-  
bron Juda-co uri sendo eta ondoena ornitua zan. Juda-co  
guizon eldu eta zar guciac onará batu ciran: Abiatar Apáiz-  
nagusiac berriró igortei zuen, eta Erreguetzat ezagutu zu-  
ten. Emen jaquin zuen, Jabes Galaad-tarrac Saul eta bere  
seméac lurpetceaz eguin zuten lambide ona, eta esquerrac  
eman ciezen.

Abner Saul zori gaiztacoaren soldadu gucien aguintar-

edo burua, Gelboe-co ondamenetic igues-eguin zuten guizon banacacquin, Manain ceritzan urira joan zan, bere burua emen gordetceco ustean, eta Filistin-tarrac beren toquira itzuli ciralaco, etzuen cer eguiñic izan, eta paquean gueratu zan. Saul-en lecuan beste bat bereala ipiñi nai izan zuen. Mifiboset Jonatas-en semeari, cirudienez, cegoquion; baña oraindic bost urte baicic elcituen, eta inudeac iguesi ceraman bein batean, erorico bat artuta, ancac elbarrituta ceuzcan.

Abner-ec, bada, oni utciric, Isboset Saul-en laugarren eta atceneco semeari beguiac ezarri ciozcan. Soldaduai aurqueztu cien, eta Erreguetzat ezagutu zuten. Israel-co erri guciac ere, Juda-co Tribuac, ez besteac, berebat eguin zuten; eta Juda-co Tribu onec, esan dan bezala, David Erreguetzat artu zuen, eta au izan esan beti despitan guero ibilceco bidea.

Israel-tarrac bertalic arqitu ciran bi Erreguearequin; ala ere bi urte paquean igaro cituzten. Bitartean Isboset bere alderdiarequin pozic cegoan, eta David-ec etzuen Israel guciaren aguintean sartu nai, Jaunac eracusten cion garai eta era baicic. Gueroenean ere baquearen edea eten zan, ez David-en, ezpada Isboset-en aldetic. Abner Isboset-en aguintari nagusiac, ezaguturic, urte batzuec paquean igarotcea asco zala, Isboset inor gabe guelditecco, ceren onen banderaco asco David-i egunorò cijoazquion, artu zuen erasotceco asmoa. David-ec laster jaquin zuen, Abner-ec cer cerabillen, eta prestatu zan, arpegui emateco. Beste guerrari on ascoren artean David-ec ceuzcan iru illoba, Sarbia bere arreba zarrenaren seméac, Joab, Ahsai eta Asael, ceritzatenac. Joac illoba zarrena eta soldadu gucien Aguintaria guizon aditua eta bulardetsua zan; ez ordea osaba bezain sotilla. Joab-i cegoquion guerra onetan aguintcea, David bera joan nai etzalaco, cirudienez, Israel-tarren odola elcarren artean isurtcen ez icusteagatic.

Joab, soldadu-talde bear aibat ceritzan bat arturic Gabaon-go putzu-ondora joan zan. Abner ere urreratu cit ayon, eta Joab-i esan cion, alde bacoitzetic mutil agazte zbatzuec irten citecela, eta elcarri bat-banaca gucien urre-

an eraso cizayeala. Joab bereala artara jarri zan. Alde bacoitzetic irten ciran amabi mutil gazte, ceñac, batac besteari itsatsiric, etcioten elcarri utci, alic eta oguei ta lau mutillac illotzac guelditu ciran arteraño, Batalla onec etzuen aucia erabaqui, Bereala bi Martiztiac betero izan zuten beste andiago bat, ceñetan Abner-en gendea chit abarraquitua izan zan; baña Joab-ec ere bere naigabea izan zuen. Asael, Joab-en anaya gazteena zan lastercari, izan diran obenetacoa; eta Abner-ec icusi zuenean berari orpoz-orpo cerraiquiola, itzulita, lanza sartu cion, eta il zuen Andic laster Joab-ec ere, anayari eguiña gogoan ceucala, Abner salduqueriaz il zuen, ceñaren berriac David-i biotza erdiratu cion, ceren etsayaren burua bazan ere, etzuen nai bere aguintari batec alaco bidegabeco langai negargarri-ric eguitea. Isboset-i ere Abner iltceac chit min eman cion, eta escúac illic gueratu zitzayozcan. Baña guertaera oyen gucien artean Isboset beraren eriotzac ondore negargarrienac izan cituen.

2. §.—*Isboset-en eriotza.*

Isboset Manain-en vici zan, eta bi Benjamin-tar Martiztian cerbait aguinte zutenac. Manain-era joan, eta Erreguearen guelan, atezaya zabartu zalaco, iñor oartu gabe, sarturic, oyea lo cetzala, il, eta lepoa ebaqui cioten; eta buruarequin Hebron-era joan, eta David-i aurqueztu citzayozcan, ciotsatela: Ara emen Isboset, Saul zure etsayaren semearen burua. Icuscarrri negargarri onec David-en biotza erdiratuta utci zuen. Bereala esan zuen; baldin Saul-en ilberria eraman zuenari, albista-saria artu-ustean, vicia quendu banion, ¿cembat bidezago izango zan, gaitzic eguin etcien Erregueari, cetzan lecuan. lepoa ebaqui ciotenai, au bera eguitea? Bere gordetzalleai, bada, aguindu cien, bere bereala il cizatela, eta escu-oñac ebaquiric, Hebron-go putzuan cincilica ipiñi cituzten. Isboset-en burua cegoqui-on eran, Hebron-en lurpetua izan zan.

Zazpi urte ceramazquien David-ec Juda-co, eta Isboset-ec gañeraco Israel gucico Erreguetzan. Lenengo bi urtee-

tan paquean egon baciran ere, beste bostetan autsi-oso andiac izan cituzten, ez David-ec bideric emanda; etzuen iñola ere odolice isuri nai: baciencien Israel gucico Erregue Jaincoac eguingo zuela, eta lambide au onen escuetan utcita ceucan, egunac betetcen ciranean, berác gucia eguingo zuen uste osobeteen: beragatic etsai baten il-berria cetorquionean, bereala garbitcen zan, adieraciaz, etzalla odol artan cutsutu; argatic, ez Saul-en, ez Isboset-en, eta ez onen aguintari Abner-en ilteric ezarri citzayon.

Israel gucia David-gana aspaldian etciña cegoan; baciencien, alabañan, Jaincoac Israel zaintceco autua zala. Bere doai andiac aguericoac ciran; Jaincoac lambide gucietan escutic cerabillen, eta Israel-co Erreguetzara ez-arian ceraman, Saul-i esan izan cion ezqueró, onen echetic David-enera aldatuco zuela. Isboset-en il-berria, bada, barreatu zanean, Israel-co buru eta andizqui guciac bildu ciran, eta David-i aurqueztu citzayozcan, esanaz, bera Erreguetzat ezagutcen zutela, eta bertatic bere mendeco jartcen cirala.

### 3. §.—*David irugarren aldiau Erreguetzaco iyortcia.*

Samuel-ec igortcita cegoan Israel guciraco; gueró Aviatarrec Juda-co Triburaco: eta oraingo aldiau berriró eta arguiró Israel guciraco igortcia izan bear zan, Lambide au, cegoqu'on anditasunarequin eguiteco, batu ciran, guizon eldu eta aguintea zuten guciac, irureunda berroguet milla soldadu, eta beste gende asco, eta gucien aurrean igortcia eta Erreguetzat ezagutua izan zan.

David, bada, Israel gucico Buru arquitu zanean, lembici equin cion lana izan zan, Sion-go gaztelua beretcea. Sion zan Jerusalem-go uriaren erdian cegoan mendi-tontor bat, ceñaren gañean Jebus-tarrac ceucaten gaztelu bat eguinda, eta emendic Jerusalem-en vici ciranai calte andiac eguiten ciezteen; eta lareun urte ayetan Israel-tarrac gaztelu au beretceco al-egiñac eguin bacituzten ere, alpe-rric necatu ciran: eta David, bereala asi zan, arterañocoac ecin izan zutena, eguiteco prestamenac artcen.

4. §.—*Sion-go gazteluaren artuera.*

Abner, Isboset-ec aguintaritzat ceucana, il zan ezqueró, etzan bere lecuan iñor jarri, eta David-ec Israel-co soldadu gucien artean zabaldu zuen, Sion-go gaztelura igota, lembicico Jebus-tarra iltcen zuena. Martizti guciaren buru eguingo zuela. Bereala elcarren leyeen irten cirao, sari andi bat irabaci nai zutenac Joab izan zan lembici sartu, eta Jebus-tarrac il cituena: onen ondoren bere lagúnac sartu ciran, eta Sion-go gaztelua berētu zuten: eta David-ec Abner salduqueriaz il zuen Joab au, bere Martiztiaren burutzat ipintcea gogo ezbazuen ere, bere itza bete bear izan zuen.

Gaztelu onen mendeceac David-en otsa bazter gucietara barreatu zuen, David-ec, berriz, aitor zueu Jaincoari bacar-ric zor citzayola, lareun urtean ecin izan zutena, ain aisa iristea. Gaztelu onetan eguin zuen erri berri bat, eche edergalantac inguruan cituena, eta deitu cion, *David-en Uria*. Onetaraco Tiro-co Erregue Hiran-ec, David-en lambide andiac adituric, bialdu ciozcan zur-gay onac, arotci eta arguin-zan ondo trebatutaco languilleac. Gauza oyec onela zucenduta, artu zuen Jaunaren etsai Filistin-tarrai erasotceco as, moa. Bi equin-aldi gogor eguin, eta bietan ondatu cituena eta izu-icara latza auzoetara bialduta, Israel paque gozoan jarri zan.

5. §.—*Jaunaren Cucha santa aldatcea.*

Jerusalen zan Israel gucico Erri burua, non David-ec vicilecua ipiñi zuen; eta pensatu zuen, egoqui zala Cucha santa Cariatiarin-dic onará aldatcea. Bere iritci au Israel-co Andiz-qui eta aguintariai aguertu cien, eta guciai David equin bat eguin ciran. Lambide au, cegoquion anditasuna-requin eguiteco, Israel-co gendeac bildu, eta Apaiz eta beste Eliz-guizon asco-arturic, joan zan, ogueita amar mila soldadu aurretic cituela. Cariatiarin-era, non arquicen zan Jaunaren Cucha santa Abinadab-en echean gordeta,

Filistin-tarrac Israel-i itzuli cioten ezqueró. Apaiz eta Levitac gurdi berri batean ipiñi zuten, eta abiatu ciran, Oza eta Ahio Abinadab-en bi seméac gurdi-zai cirala. Gurdia gende guciaren erdian ceramaten, David eta beste soñulari eta cantariac Cucha santaren aurre-aurretic cituztela, soñu-joaz eta dantzatuaz. Nacor-en larrañera eldu ciranean idiac osticoca asita, Cucha santa cearcatu zalaco, erori etcedin, Oza-c escua luzatu cion, eta Jaincoac castigatu zuen, bertan illaz; debecatua cegoan. alabañan, apaiz etzamac Cucha santari uquitcea, eta Jaincoac aguertu nai izan zuen, debecu au austeia cein gaizqui zan. Guertaera onec David-i naigabe andia eman cion. Jaincoari chit bildur citzayon; baña oraingoan, secular ez bezala icaratu zan, eta esan zuen: ¿Nola Jaunaren Cucha nic nere echean artu dezaquet? Argatic etzuen bere echera eraman, ezpada Obededon-enera.

Obededon guizon ona eta zucena zan; eta bere echean iduqui zuen iru illabeteetan, Jaincoac ondasúnac ugaritu, eta bedeincacioz bete zuen. Obededon-en zorion au David-ec jaquin zuenean, bereratceco asmoa artu zuen. Onetaraco Moises-ec eguindaco Tabernaculoaren ordeiz, berri bat eraguin, eta bere Errian ipiñi zuen. Israel-co gendea bilduta, apaiz eta Levitac berequin arturic, Obededon-en echera joan zan. Oraingo aldian etzuten, Cucha santa gurdian ipiñita, lenagoco utseguiteric eguin, ezpada Levitac sorbaldan artu zuten. Israel-co guizon eldu, Principe eta gende guciac Cucha santaren ondoan cijoacen, David, arizeco soñeco bat artuta, soñulari ascorequin soñu-joaz, cantatuaz, eta dantzan Cucharen aurretic zala. Sei pausotic seira idi bat eta bildots bat Jaunari esqueñi edo sacrificatcen citzayozcan, eta David-ec dantza-aldia eguiten zuen. Modu onetan Cucha santa Obededon-en ehetic David-enera aldatuta, David-ec prestatutaco lecu ederrean ipiñi zuten. David-ec, cerraiquion gende gucia, Jaunaren icenean bedeincatu zuen, eta atseguin andian echera zan; baña laster naigabe bat izan zuen. Nicol bere emazteac, Cucha santaren aurrean dantzan David ibiltce hura, etzuen ontzat artu, eta echera zaneco, arroqueriaz heteric, arpe:

guira eman cion, gauza lotzagarri bat eguin izan balu bezala. Baña David-ec erantzun cion; Zure aita eta aide guciac utciric, Jaincoac bere gendearen buru izateco autu ninduen, eta Jaunaren aurrean dantzatuco det eta, beeratuco naiz, lenago beeratu naizan baño ere gueyago: onore anditzat daucat mundu guciaren aurrean bee eta umill aguertcea. Onela David-ec bere emaztearen arroqueria beeratu nai izan zuen. Ezdaquigu, Micol-ec erantzuera au nola artuco zuen; baña bai emacume arro oni Jaincoac etciola aurric eman, bere andinaya nocitu cezan.

6. §.—*Eliza eguiteco asmoa David-ec artcen du, eta Jaunac eragozten dió.*

David biotz andicoa jarri zan, bera cer echetan vici zan, eta Jaunaren Cucha santa cer lecuan cegoan, beguira; eta egoqui etceritzan, beretzat aimbeste, eta Jaunarentzat ain guichi izatea, eta artu zuen Eliza andi-eder bat Jerusalem-en eguiteco asmoa. Bere gogo au Natan Profetari aguertu cion; baña Jaincoac Profeta onen beronen bitartez esan cion, etzuela Jaunarentzat echeric eguingo, ezpada hura ildacoan, bere lecuan ipiñico zuela bere seme bat, eta onec eguingo ciola. Bere asmoari, bada, utci cion, eta Jaunaren esanera gogoz jarri zan. Ezagutu zuen, Jaunac guerraraco ceucala autua, eta onen garaipenac gozalceco, eta biltcen cituen gayacquin Eliza eguiteco, semea zala icendatua.

7. §.—*David en guérrac.*

Abraham eta bere ondoreari Jaincoac promestutaco lurra, oraindic arrotz gucietatic osotoró garbitu gabe cegoan eta David-i gogoac eman cion, oyec guciac bota, eta Israel-tarrac uts-utsic guelditcea. Onetaraco Filistin-tarrai, Moabco eta beste Erregue ascori eraso cien, eta guciac menderatu eta ondatu cituen, eta oyei quendutaco urre eta gāneraco ondasun ugariac gorde cituen, demborarequin Eliza eguiteco. Baña beste guerra ascaren artean izan zuen



bat, chit calte andia eta bere egunetaco negurbidea ecarri ciola. Ara nola.

Israel-equin ondo etceuden guciacquin, David-ec eraso gogórrac izan cituen; ez, ordea, Amon-tarren Erregue Naas-equin. Oni asco zor cion, Saul-en iguesi cebillela, berari eta bere echecoai eguin izan cien arrera onagatic, eta mesede oyec gogoan ceuzcala, beti adisquidetasunean ce-goan. Naas il zanean, Hanon bere semea aitaren lecuan jarri zan. Naas-en il-berria artu zuenean, Hanon-i mandatariac bialdu ciozcan, bere damua adieraztera, eta semea aitaren lecuan jartceaz, arteen zuen alceguiña, eracustera. Erregue gazte onec, berez besteric eguingo bazuen era, aldamenecoen esanai lecu eman cien. Losenchari oyec, bada, sinisterazo cioten, David-ec etcituela, ari oado nayez, mandatariac bialdu, ezpada bere bazterrac nola ceuden, jaquitera, besteai bezala erasolceco. Erregue ecer-ez icu-siac aguindu zuen, mandatari oyec atcitu, eta bizar erdiebaquiacquin, eta guerriaz beeco soñecoac moztuta, beren Erregueagana bialtceco. Lotsagorrian echeronzabiatu ciran, eta David-ec jaquin zuenéan, cer guertatu citzayeen, aguindu cien, Jerico-ra joan, eta bizárrac luzatu artean, egon citecela, eta orduan Jerusalem-era itzulico cirala. Iseca onec David aserretu zuen, eta prestatu zan, cegoquien castigua, Amon-tarrai emateco.

Amon-tarraç ere prestamen andiac eguin cituzten, arpegui emateco, baña David-ec bialdutaco aguintari Joab-ec gueyago cezaquean, eta bereala iguesi bialdu cituen. Berriç ere etsaya, Siro-arrac lagun artuta, guerraraco prestatu zan, eta David-ec oraingoan elzuen iñor buru bialdu, ezpada bera joan zan, aguintcera: bai laster eracutsi ere norc aguintcen zuen. Berroquei milla oñezco, eta beste aimbeste zaldizco il, eta zazpieun gurdi amarna guizon guerrarirequin arta ciezen. Ilquintza izugarri au bacarriç Siro-arrac nocitu zuten, eta Amon-tarrai gueyago laguntceco gogo gabe guelditu ciran. David-ec Amon-tarrai ere beren cigorrada nai cien eman; baña negua alderatu zalaco, asmo aũudaberriraco utci zuen. Egúnac eldu ciranean aguintari Joab bialdu zuen, bera zorigaiztoan echean

gueldituta. Israel-tarrac bacijoacen etsaya escuratcen, eta Raba-n sarerazotcen, emen beren atcen-patua artceco. David bitartean echean vici zan, deabruari bidéac zabalten.

8. §.—*David-en eroricoa.*

Egun batean, bada, David bazcalondoco lo-susta eguinda, echeco barandan pasean zebilela, icusi zueu emacume eder bat, putzuan garbitcen ari zana, eta gogoan sartu citzayon. Nor zan galdetu, eta jaquin zuenean, Uriaz-en emazte Betsabee zala, echera eramanez, eta lotsagarri-zco becatuan erori zan. Betsabee-c bere buruari laster iguerri cion, aurdun zala; eta bere senarraz campocoacquin cebiltzanentzat ipiñita cegoan iltceco castiguaren bildurrez, Erregueari gaztigatu cion, galdua zala. Erregue ere esturasun larrian arquite zan, beren gaiztaqueria estaltceco, cer eguin ecin asmatuz. Iru illabete ciran Urias senarra Amon-tarren contra guerrara joan zala, Raba artu artean, echera ez itzultceco asmoan.

David-ec Joad-i gaztigatu cion, guerraco berri jaquite-co aitzakiarequin urias bialdu citzayola. Urias David-i aurqueztu citzayonean, itzaldia eguinda, Urias-i esan cion, echera joan, eta emaztearen ondoan atsedean cezala: bada, ezaguturic ceucala, arteraño cein asco eguin zuen. Urias Erregueagandic irten, eta echera gabe, Erregue-echeco ateetan guelditu zan, eta gordelariacquin batean lo eguin zuen, David-ec au jaquin zuenean, bereganaerazo, eta esan cion: ¿Cergatic echera etcera? Urias-ec erantzun cion: ¿Jaunaren Cucha, Israel eta Juda estalpe uts batean daude; Joab nere nagusia, eta nere Jaunaren servitzariac lurtean dautza, eta ni nere echean sartu, jan, edan, eta emaztearequin etzatera? Ez orrelacoric, ez. David-ec bertan gueldierazo zuen, biaramonean bialduco zuela, esanda. Bitartean bere mayean ipiñi zuen, eta eman cion edaten, burua nastuta, Jaunaren Cucha, Israel-co soldaduac, eta esan cituen beste gauzac aztu cequizquion, eta echeratu emaztearequin etzan cedin, onela bere gaiztaqueria estaltceco: baina Urias contu andicoa zan, nola-nai burua nastutceraño

edateco, eta Erregue-echetic irtenda, arratseco lecuán atee-  
tan guelditu zan.

David-ec icusiric ctzuela ecer aurreratcen, eguin-alac  
alperric cirala, guizon animotsu hura bere esanera ipin-  
tceco, eta Betsabee-ren aurduntza aguertcera cijoala, bia-  
ramonean Urias Martiztira bialdu zuen, Joab-entzat char-  
tel bat emanda, Chartel onetan Joab-i esaten cion, perillie  
andieneco lecu batean Urias ipiñi cezala, eta emen uzteco,  
etsayaren escuetan il cedin. David-ec esana Joab-ec eguin  
zuen, eta etsayac emandaco eraso-aldi batean, iñoren la-  
guntza gabez, Urias il zan. Urias-en iltcea David-i gazti-  
gatu cion, eta David, azaleticaguertu ezbazuen ere, barru-  
nen poztu zan. Betsabee-c senarraren il-berria artu zue-  
nean, oitura zan bezala, zazpi egunean negar eguin zuen;  
gueró proguco egúnac igarota, David-ec echera eraman,  
ozcondu, eta seme bat eguin zuen.

¡Cein lauso lodiác becatuac sortcen ditnen, bear bezala  
beguiratceco! David-en ga ztaqueriac laster barreatu ciran:  
Erregue onen erorico galgarria, an estaltceagatic eraguin-  
daco eriotza, bere gaiztaqueri-laguna echera eramanda,  
onen seme eguitea, Erreinuco eta auzoelacóac aotan cera-  
bilzquiten: bacarric David itsua cegoan; baña celzan itsu-  
menetic, Jaincoac mugonez atera nai izan zuen.

### 9. §.—*Natan Profetac itzeguiten dio.*

Becatua eguinda, urte beteren buruan Natan Profetaren  
aotic David-i itzeguin cion onela; Erri batean bi guizon ar-  
quitcen ciran, bat aberatsa, eta bestea beartsua. Aberatsac  
ardi eta idi asco cituen, eta beartsuac etzuen ardi bat ba-  
carra baicic, erosi eta echean semeacquin batean, bere  
oguitic eta edanontcitic jaten eta edaten emanaz, eta bere-  
quin etzanaz aci zuena, eta alaba bat bezala ceucana.  
Arrotz bat ostatur joan citzayon bein batean, bere ardi eta  
idiai utciric, aberats onec beartsuaren ardi bacarra artu, il,  
maneatu eta arrotzari jaten eman cion. David, izqueta au-  
aditutacoan, aberatsaren contra aserretu zan, eta Natan-i  
esan cion; Jaincoac barca daguidala, ori eguin duen gui-

zonac ilteca mereci du. Quendutaco ardi bacarra laurequin ordaindu bear dio. Orduan Natan-ec esan cion: Ori zu cera.

David guelditu zan, cer esan etciequiela; eta Natan-ec, Jaunaren icenean cijoaquionac bezala, zorrotzquiróitzeguin cion, esanaz: Beguira Israel-co Jainco Jaunac cer dion: Nic Israel-co Erreguetzat igortci cindudan; Saul-en escuetatic atera ere bai. Zure Jaunaren echea eta emaztéac eman nizquizun. Israel eta Juda-co Buru eguin zaitot; eta gauza cyec asco ezbadira, gueyago emango zatzu. ¿Cergatic, bada, nere esanac ostlicopetu dituzu, nere aurrean gaizqui eguiñaz? Urias ganibitaz josi, efa Amon-tarren ezpataz ile-razo dezu. Orregatic zure echean negarra beti izango da, utci nazulaco, eta ceren Urias-en emaztea ceretzat artu dezun. Zu cerorren echean, zuri gaitz eguingo dizuna sortuco da: Zuc cerorrec dacusula, zure emaztéac bestec artuco ditu, eta oyecquin eguzqui-arguitan etzango da, zuc isillic eguin cenduelaco: eta gauza oyec guciac Israel guciaren aurrean, eta egun-arguiz eguingo ditut.

David-ec, osotoró izuturic, etzuen izan itz oyec besteric esateco biotzic: Jaunaren beguietan gaizqui eguin det. Natanec, luzaró egon gabe, adierazo ción, Jaincoac David-en damua icusiric, becatua barcatcen ciola; bañs Israel guciari gaizqui itzeguiteco bidea eman ciolaco, bere gurari gaiztotic izandaco semea ilco citzayola. Natan-ec, gaztigu min au emanda, David-en echetic berera aldeguin zuen: eta David-i bereala esan cioten, bide gaiztoco semea gaiztzac artu, eta ilteco zorian cegoala. David lurrean auzpez jarri zan; barautu zuen, eta semearen onagatic Jaunari escatu ción; baña zazpigarren egunean aurra il zan.

David-ec bere becatuaren lenengo castigua artu zuen egunetan, Joab aguintariac Amon-tarracquico eraso aurrera ceraman, eta Raba-n laster sartceco bideac garbitu cituenean David-i gaztigatu cion, sarreraraco joan cedilla, garaipen onen icena Erregue berac eraman cezan. David, guerrari asco arturic, joan zan, eta egun guchiren epean artu zuten Raba-co uri sendo eta ondo ichia, non arquitu cituzten ecin esan aimbat ondasun: bada Erreinuco Andizqui, aberats, eta cerbait cezaqueten guciac, emen sartu

izan ciran, beren burúac gorde nayez; eta gucien artean beguiragarricoa izan zan Erreguearen coroa, ceñac laro gueita bi libra urre cituen, asco diamante valio andicoaz ndara.

Amon-tarrac, David-en mandatariari eguindaco isecacquin, Israel-tarrai eraguindaco gaiztaquerciacquin, eta eracarritaco calteacquin irabaci zuten castigu gogorra, artu zuten. David chit biotz andicoa zan; baña idolozale ayec Jainco eguiazcoari eguindaco bidegabequerciac escu zorrotza escalcen zuten, eta David-ec ondo nocierazo cien. Amon-tar guciac ezpataz josi, eta burnizco narra orzdunpean cheatuac izan ciran, garia larrañean trallatu edo irabiurten dan guisan. Onela Amon-tarracquico guerra bucatuac, David bere Martiztiarequin Jerusalem-era itzuli zan.

## EMERETCIGARREN IRACURGAYA.

### 4. §.—*Salomon-en jayotza.*

Garaipen onen ondoren Israel paque onean cegoan; lembicico lau urteetan David-ec etzuen eramanquizon edo ez-bear andiric izan. Uste zuen, bere penitenciarequin Jaunaren aserre zucena itzali zuela, eta Natan Profetaren birtartez eguin ciozcan cemaya edo amenazac, itz utsetan guelditaco cirala. Uste onetaraco asco laguntzen cion, alde gucietatic gauzac ondo cotorzquiola icusteac. Lau urte oyetan, Betsabee bere lengo becatu-lagun, eta orain eguiazco emazteagandic, lau seme izan cituen, eta oyetatatic atcenecoa *Salomon* ceritzana, eta Jaincoac Natan jberaren bidez *Jaunaren maitagarria*, deitu ciona. Aur onen jayotzac David-eu biotza zabaldu, eta pozez bete zuen, ceren beguiratcen cion bere onordeco, eta Israel-en buru gogoangarri izan bear zanari bezala. Baña laster asi citzayozcan, bere becatuari cegozquion castiguac, erortcen, eta Jaunaren esanac betetcen.

Amon David-en seme zarrenac, bere arreba-erdi Tamar ceritzanaganaco amorio galduari, biotzean lecu eman, eta

gogoa bete nayez cebillen. Egun batean eri-irudia eguinda, Tamar-en escuz maneatutaco sendagarrien bat artceco aitzaquitan, guelara eraman, eta doncella gaztea galdu zuen, eta arterañoco amorio loya gorroto biurturic, lotsa gorrian beguietatic quendu zuen. Tamar, Amnon-en echetic irten da, beste anaya oso Absalon-enera joan zan, negar-malcóac ceriozcala. Absalon-ec eguin-al gucian arreba alaitu nai izan zuen; baña Tamar ecin poztuz, eta artutaco lotsa burutic ecin quenduz, egun guichiren epean il zan. David-ec Amnon-en oquerra aditu zuenean, damu izan zuen; baña semeari atsecaberit ecion agüertu, chit maite zuelaco, eta cegoquion castigua Jaunaren escuetan utci zuen; Absalon-ec ez ordea; eta arrebari eguindaco bidegabequeria eta lotsaquizuna, lembici cetorquion era onean, berac noci-erazo nai izan cion; eta pensatu zuen, onetaraco orduric obena ardi-mozquetaco eguna zala. Asmo enetan bi urte joan ciran.

2. §.--*Absalon-ec Amnon iltcen du.*

Israel-tarrac onelaco lan-egunetan beren aide eta adisquidéac deitu oi cituzten; eta Absalon-ec ere Erregue eta senide guciai otsegin cien, bazcari andi bat eguitera. David-ec erantzun cion; ¿ea aidéac certaco cituen, eta costu ayec cergatic ciran? Eta etzan joan nai izan. Absalon-ec icusiric, aita etcitzayola joaten, esan cion: Zuc nai ez dezun ezqueró, Amnon nere anaya gurequin betor. Aita etzan beingoan jarri, Amnon-i joaten, uztera; baña Absalon-en léya ain andiá izanic, bere baimena eman zuen, eta Amnon eta beste senide guciac Absalon-en echera joan ciran. Absalon-ec Erregue bati dagoquion bazcari andi bat ipiñi zuen, eta bere morroyai esan cien: Contuan zaudete, Amnon-i ardoác burua noiz nasten dion, eta nic queñu eguiten dizutedan; orduan eraso, eta bereala ilco dezute. Nagusiaren esana morróyac eguin zuten. Beste senide guciac eriotza onequin arri-eguiñic, mandoetan jarrita, aitagana Jerusalem-era iguesi itzuli ciran.

Absalon-ec ere bere aitasaba Gesur-co Erregue Tolmai-

gana igues-eguin zuen. David-ec il-berri negargarri au ar-  
tu zuen, beste seméac eldu baño lenago; baño ez Amnon  
bacarra illa zala, ezpada onequin batean beste seme gu-  
ciac ere bai. Aita guizašoac soñecoac urratu, eta auzpez  
jarri zan: aldamenean ceuzcanac ere berebat eguin zuten.  
Estura larri onetan Jonadab biurri, arreba Tamar bere-  
tceco Amnon-i, cer eguin bear zuen, eracutsi cion conse-  
jari zorigaiztoco arc, David-i esan cion: Ez orrelacoric; Am-  
non da bacarric il dana. Itzqueta onetan ceudela, iguesi  
cetocenac sartu ciran: aita-semeac elcarganatu ciranean,  
negárrac eta ayéscac gueitu ciran: aitac guciac laztandu  
cituen: biotzic biguñenarequin beguiratcen cien: baño Am-  
non illa eta onen iltzalle Absalon etciran agueri. ¡Icusga-  
rri negargarria!

David-ec seme zarrenaren iltcea chit min zuen, eta are  
miñago beste semea iltzalle izatea; eta Absalon-i cein ere  
ondo nai cion, ezagutcen zuen, castigoric gogorrenaren  
diña eguin zala, eta au bear bezala emateco, Gesur-co  
Erregueari ascotan gaztigatu cion, bialtceco; baño bero  
artan etcion bialtcen. Onetan iru urte joan ciran: bitartean  
David-en sua cerbait epeldu zan; biotza bigundu citzayon;  
eta eman cion, Jerusalem-era etortceco baimena; ordea  
aren beguietan ez jartceco itzean. Jerusalem-en bi urte i-  
garo cituen, aita David en aurrera gabe. Izaera onezaz  
asperturic, Joab-i bi aldiz deitu cion, aitari bere alde itza-  
guiteco; baño Joab-ec etcion erantzun. Orduan Absalon-ec  
bere morroyai aguindu cien, Joab-en garagar-soroetara  
joan, eta su emateco. Joab-ec, bere morroyac esanda, ja-  
quin zuenean, Absalon-enac cer eguin zuten, Absalon-i  
joan, eta galdetu cion, ¿ea cergalic aren garagardiac  
erreerazo cituen? Absalon-ec erantzun cion, bi aldiz gaz-  
tigatu, eta etorri etcitzayolaco, morroyai lan hura aguindu  
ciela, orduan Joab-ec, gogo gaiztoz bederic, Absalon-en  
alde Devid-i itzeguin cion. Aitac semeari otseguin cion; se-  
mea aitagana sartu eta auzpeztu zan; aitac semea laztan-  
du zuen eta bien arteco paquéac eguin ciran.

3. §.—*Absalon-en Erreguetceco asmoac.*

Absalon-ec, aitaren adisquidetasunera itzuli zanean, bere gaizqui-eguiñaren damuric etcencan, aitac uste zuen bezala; ezpada bereala artu zuen, aitaren aulquian bera jarretco asmoa. Onetaraco asi zan bideac eguiten. Ipiñi cituen coche ederrac, eta servitzari asco, ceñacquin Erregue baten anditasunean irteten zan. David gana cerbaiten esque, edo auciren batequin cijoacenai leunquiró, eta loseincha andian itzeguiten cien, esanaz, aitaren lecuan bacegoan, etzuela iñorc gaizqui cer esanic izango: nori berea eman, eta guciai on eguiten, necatuco litzaqueala. Onelaco, leunqueria eta loseinchacquin Israel-tarren go-gòac irabaci eta beretu cituen.

Seme galdu onec ezagutu zuenean, cerbait cezaquetenac beregana ipiñi cituela, aitari Hebron-era joateco baimena escatu cion, erbestetuta cegoanean, Jaunari eguidaco promes bat betetceco aitzaquitan. David-ec gaitz-uste gabe, baimena eman cion, esanaz; Paquean zoaz. Jerusalem-dic irten bezain laster, Absalon-ec bazter gucietara mandatariac bialdu cituen, trompeta-soñua aditeen zutenean, Absalon Hebron-en Erregue jarri zala, ezagutu cezatela gaztigatcera. Hebron-era zanean, bereala bere burua Erregue eguin, eta trompeta-soñuarequin gende eta soldadu-talde andiac beregana batu cituen, eta gucien buru jarri zan.

4. §.—*David-en iguesa.*

David-ec jaquin zuenean, semeac Hebron-en cer eguin zuen, bere servitzariai esan cien: Emendic iguesi goacen, Absalon-en escuetan erori ezgaitecen. David Jerusalem-dic oñez irte zan, bere lau emazte lenengo mallacóac, seméac eta ehecóac artuta, uriaren contuartzalle guciac, eta Saul-en iguesi cebillenean, berequin izaten cituen seieun guizon indartsu ayec laguntcen ciotela. Beste amar emazte bigarren mallacóac echeari contu-arcen utci cituen. David bere lagunacquin negarrez eta ayescaz eremuronz bacijoan,



eta Cedron-go ibaya igarotcean, alderatu citzayozcan Sadoe eta Abiatar beste Levita guciacquin, Cucha santa berequin zutela, ceñac David chit poztu zuen: baña guerraco gora-beeraetan oquerrie izan etcezan, Sadoe-i esan cion, Cucha santa Jerusalem-era itzuli cezatela; eta bera Olivete-co mendira joan zan oñutzean, eta burua autsez beteta, Jaunaren aserre bidezcoa itzaltceco penitencia eguin nayer.

Baurin-go urira urreratu zanean, bidera irten citzayon Benjamin-tar bat, Saul-en aidea, eta Semei ceritzana, iseca eta burlaz betetcera; asi citzayon madaricatcen, eta atceneraco arrica ematen. Ez da itz lotsagariric, ao gaizto ari jaulquitcen etcitzayonic: Oa, oa, esaten cion, odolzale ori. Orain, orain, nocitu bear dec, Saul-en echean isurerazo ñen odola. Bide gabe eretu ñen erreinua, ire semearen escuetan Jaincoac orain ipiñi die. David-equin cijoan bere illoba Abisai-c aimbeste burla eta lotsagabequeria ecin eramanaz, Erregueari esan cion: ¿Cergatic guizon orrec Erregue nere Jaunari ain gaizqui itzeguin bear dio? Joanda, lepoa ebaquico dict. David-ec etcion utci, eta Abisai, eta beste lagunai esan cien: ¿Guizon orri cer nai diozute? Dacusute, ni neronen semea nere viciaren billan dabilleta, eta ¿Benjamin-tar batec ori eguitea, cer miresteco da? Utcizayozute, madaricatu nazan, Jaincoac utci don ezqueró. David bere aguinte guciaren bearrean arquitu zan, Semeiri gaitzie eguiten, bere lagunari eragozteco; eta nequez berderic, Baurin-en sartu ciran, eta atsedan zuten.

David-ec zuen adisquide leyal, eta esturasun gucietan iritecia escatcen cion bat, Cusai ceritzana. Cusai David-i bere iguesian jarraitu nai izan citzayon; baña Jerusalem-era itzuli zuen, esanaz, mesede andiac menturaz eguin litzazquioqueala. Cusai Jerusalem-en sartu zan, Absalon bere anditasun gucian sartcen zan ordu bere-berean, eta Absalon-i bereala joan citzayon, agur eguitera, eta bere servitzoac esqueñtcera. Absalon poztu zan; bere aitaren adisquide andi eta consellari aditu onec Erreguetzat eza gutcen zuela, icusita, ceren onen arguiatz uste zuen, bear orduetan baliatuco zala.

5. §.—*David-en emazteen galera.*

Absalon-ec bereala Aquitofel-i esan cion, Cusai-requin egon, eta itzeguin cezatela, cer eguin bear ote zan, asitaco lanean ondo irteteco, eta aita David-en coroa osotoró bere-tecco. Aquitofel guizon galdu biotz gaiztoco, eta eceri beguiratcen etciona zan, berea eguin ezqueró. David-en demboran Jaincozco edo vertutetsu eguiten zan, eta Absalon-egin icusico degu, infernuc iriendaco baten lanac eguiten. Absalon-i esan cion, bada, aitaren coroa beretu, eta sendotceco, bide obegoaric etzuela, aitac eche-zai utci cituen amar emazteac artu, eta galtcea baño. Au Israel-cogendéac icusten zutenean, ezagutuco zutela, aita-semeen arteco adisquidetasúnac betico autsiac cirala, eta bein artutaco aldeari jarraitcea beste bideric etzala, beren burúac gordetceco. Conselluric gaiztoena eta galgarriena zan; baño Absalon-ec, ez lotsari, ez cer-esanari, ez onoreari, ez concienciari beguiratcen cion. Aitaren amar emaztéac bere eche-gañeco lecu agueri batera eramazerazo, eta, guciac cecustela, an bertan galdu cituen, eta esan ere ecin ditezquean zatarqueria liquits eta loi guciac eguin ciezten. Israel gucia, icusteco negargarri onequin, arri-eguiñic guelditu zan, eta Aquitofel-ec esan bezala, Absalon Erreguetzal artu zutenac, jarri ciran, il edo vici, berari jarraitcera, aitagandic barcacioric izango etzala, etsita.

Aquitofel-ec loiqueria ez aditu au epeltasun andian bere beguiacquin ict si ondoren, Absalon-i joan citzayon esatera, on zala, armadunac bere-bereala bilduta, David-i ce-goan lecuan, prestatceco lecuric ere eman gabe, erasotceca. Nic neronec, esan cion, amar milla guizon bizcorrenac artuco ditut; gaur arralsean itsumustuan sartuco natzayo. bera eta bere lagúnac auldu eta necatuta dauden lecura; lagunac igues-eguingo diote; eta orduan Erreguea ilco det, eta gañeracoac ondatuco di. ut, eta zu paque oso-betean gueldituco cera. Aquitofel-en esana Absalon eta bere aldeco zarrai ondo iruditu citzayen; baño Absalon-ec, ordu onean, Cusai-ri ere iritcia escatu nai izan cion. Cusai-c

erantzunt zuen, Aquitofel-ec etzuela oraingo aldian ondo eracusten. Badaquizu, Absalon-i esan cion, zure aita, eta oni darraizquionac chit dirala bulardetsuac, bizcorrac eta biotzean min dutenac: gañera zure aita guerrari ona da, eta era onic galtcen ezdaquiena. Orain berean menturaz arzuloren batean ezcutatuta dago: eta zure etatic bat asieran galtcen bada, edoceñec jaquingo du, eta esango du, Absalon-en gende gucia ondatua da: eta biotzic andiena ere laborrian jarrico da. Nere iritcian obena litzaque, Israel gucia bildu, eta gucioc batean, zu erdian zaitugala, erasotcea, eta David, eta onen lagunai, bat bacarric ere utci gabe. escuac ezarrico dieztegn. Oyec eta onelaco beste gauza asco Cusai-c Absalen-i esan ciozcan, ez indar andicoac cirala, uste zuelaco, ezpada, bitartean David-i cer cerabiltcen gaztigatceco lecua izan cezan, jaquiñean jarri, eta presta cedin. Absalon eta onequin ciran zarrac Cusairen iritcia obeagotzat artuzuten, Aquitofel-ena baño, ceña, icusiric bere esanari beguiratu etcitzayola, echera joan, eta urcatu izan.

Cusai-c David-i bereala gaztigatu cion, semeac cer asmo zuen: eta David bere lagunacquin Jordan-go ibayaz beste alderonz joan zan, Absalon itsumustuan etcetorquion. Manain-era zanean, jaquin zuen, Absalon Martiztiarequin billan cijoaquioa. Seme baten contra ecer eguiteac min ematen cion: baña bearrean arqitu zan, Bere soldadu banácac iru zatitan, bacoitzari aguintari bana emanda, ipiñi cituen. Bera ere gucien buru joan nai izan zan; baña etcioten utci, esanaz, aren viciac beste guciac baño geyago balio zuela, eta gora-beera gucietan, etsayaren escuetan erori gabe, gorde bear zala. Martiztia, bada, Manain-dic irten zan, eta David errico atean jarrita cegoan, bere soldadu apurrac nola cijoacen beguira, eta aita zala aztu gabe, aguintariai, beste guciac dantzutela, esan cien, Absalon-en vicia, arren, gorde cezatela. Garaipena escuan baceucan bezala, David-ec itzeguiten zuen: baciequien ala bañan, Jaincoaren lana zala eta ondo irteteco indarrac emango ciozcala, eta etzuen utseguin.

6 §.—*Absalon-en eriotza.*

Absalon-ec bere Martiztiarequin Jordan-go ibaya ordu-raco igaro zuen, eta bi Martiztiac Efrain-go ordecan aur-quez-aurque jarri ciran: eta elcarri eraso bezain laster, ezagutu zan, Absalon-en Martizti andia David-enaren es-cuetan erorico zala. Iguesari eman citzayozcan, eta David-enac ilqtuintza izurgarria eguin zuten. Oguei milla eraso-lecuan, eta beste oguei milla eta gueyago urreneco basoan illotzac guearatu ciran. Absalon-ec basoronz igues-eguin zuen: eta David-en soldaduac, nola cijoan, icusi bazuten ere, elcioten ecer egnin nai izan, aitac aguindua gogoan ceucatela. Baña ¡cein patu gaiztoac ichedoten cion! Mando-gañean iguesi cijoala, arte-pe adar-tsu batean igarotcean, besanga edo adarrean buruco ille luceac nastuta, cincilica guelditu zan, eta mandoa corrica aurrera joan citzayon. Soldadu batec icusi zuen, nola airean cego: n, ez ceruraco eta ez lurreraco; baña etcion onec ere uqutu, aitaren esana-z oroituta; Joab-i joan citzayon berri ematera. Joab-ec esan cion: Icusi cenduen ezqueró, ¿cergatic lurrari josi etciñien, eta amar amar-errealeco eta guerrico eder bat emango nizquizon? Soldaduac erantzun cion: Milla cillar-diru escuan ipiñico baciñizquit ere, Erreguearen semeari ez nióque escuric ezarrico; bada, gucioc danzugala, zuri cerori, Abisai eta Etai-ri agundu cizuten, Absalon viciric gordetecco. Joab etzan aia leyala izan, bere nagusiaren esana eguitecco: eta soldaduari esan cion: nie neronec, zue nai izan ez dezuna, eguingo det; eta zure aurrean erasoco diot. Iru gueci edo ezten arta cituen, eta biotzaren erdian sartu ciozcan. Ala ere oraíndic ashasa bazuela icusita, Joab-en morroi batzuec joan, eta il zuten. Orduan Joab-ec gue-rra-soñua jota, iguestariac jarraitceari utci cion, odol gue-yago isuri etcedin. Bereata zulo bat eraguin zuen, eta emen Absalon-en gorputz-illa sartuta, arri-meta andi ba-tequin estali zuen.

Berri au ceramayon m ndatariac, soldaduac irten cira-nean, beguira jarritaco errico atean aita arqutu zuen, eta

David-ec bereala galdetu cion: ¿Absalon vici da? Bñti au gogoan ceucan: ezagutcen zuen, alabañan, lambide aye-tan cebillela, iltcen bazan, gorputzaren aldetic, ez ecen, animarenetic ere illa, eta secula gucian galdua zala, eta beraíc bezala, penitencia eguiteco lecuá opa cion. Mandatariac erantzun cionean, Absalon il zala, guela batean sartu, eta negarrari eman citzayon, ciolà: ¡Ene seme Absalon! ¡Absalon ene semea! ¡Ay zure vicia nerearen trunque erosi al-baneza! ¡Absalon ene semea! ¡Ene seme Absalon! Berri negargarri au soldaduetan barreatu zan, eta egun artan Martiztia errian etzan sartu, Erregueác bere negar-aldia eguiteco lecuá izan cezan.

7. §.—*Joab-en ausardia.*

Joab, Erreguearen esana ecertan artu gabe, Absalon-i vicia quendu cionac, aditu zuenean, David negarrez cegola, lotsagabequeria andian guelara sartu citzayon, eta ausardiz esan cion: Zure vicia, zure semeen eta emazteenac gorde dituzten zure servitzariai gaur biotzac illundu dieztezu, Igüintcen zaituztenac maite dituzu; eta maite zaituztenac igüintcen dituzu. Gaur arguiró adierazo dezu, zure soldadu eta aguintarien contu guichi daucazula; eta Absalon viciric guelditu ezqueró, gañeracoac il bagiña ere, ez bide cenduen naigaberie artuco. David-ec etcion itzie trucatu. Joab-en lotsa galdua etzan onembestean guelditu: are gueyago esan cion: jaiqui eta campora aloz, eta zure servitzariai aguertu zatzaquie, eta eracutsi, pozez zaudela, eta ayec eguiña ontzal ematen dezula; bestela. ala Jaincoac salva nazala, etzatzu bal bacarric ere gaur arralsean gueratuco. David, negar-malcoac utciric, errico atera jatsi zan; eta aguintari, soldadu, eta beste gendeguciac jaquin zutenean, aurqueztu citzayozcan; chit arrera biguña eta cariñotsua eguin eta beren leyaltasun eta bizcortasunagatic esquer-onac eman ciezten, eta elcarri diosal-eguiñic, nor bere lecura aldeguin zuen.

Absalon, eta oni cerraizquion asco il, eta gañeracoac iguesi joan ciranean, ezagutu zan, gáuzac beren bidean

cijoacela, eta Jaincoac David-i Erregue eguiazcotzat begiratzen ciola. Onec, bacirudien, Jerusalem-era bereala joan baicic etzuela; baña langai au donarioz artu zuen. David utcita, Absalon Erreguetzat ezagutu zuten guciac, bide zucenera itzuli citecen, esqueñi zuen baque ona, eta eguin ciozcaten bidegabequeria gucien aztu osoa. !Aren biotz andiac beste gauzaric ecin cezaquean; eta etzuen ecer galdu. Bereala Israel gucico mandatariac, Erreguetzat ezagutzen zuten berriarequin alderatu citzayozcan. Gende gucia bilduric, Manain-dic irten, eta Jerusalem-eronz abiatu zan, eta Jordan-go ibaya igarotañon, egonaldi edo atsedean luce bat eguin zuen, arteraño batu etcitzayozcanac etortceco lecuia izan cezaten, anditasun guciarequin Jerusalem-en sartceco.

8. §.—*Jerusalem-era David-en itzulera.*

Gueraldi edo atsedean onetan bere biotz andia certain eraculsi izan zuen. Absalon-en iguesi basora cijoala, bi-Je-an aimbeste iseca eta burla eguin, eta atcenic arrica eman izan cion Semei hura, oñetan barcacio-esque jarri citzayon eta David-ec bertatic gucia barcatu cion. Onetan eta beste cembat gauzaetan bere zuentasuna aguertu, eta Jerusalem eronzco bidean jarri zan; baña bidean cijoacela, Juda-co Tribuaren. eta Israel-coen artean despita gogor bat sortu zan, eta elcarrequin itz latzac trucatu cituzten, eta despita onetan izan zan guizon sutsu eta nasle andi bat, bere burua aguertu nai izan zuena. Seba guizon biurri onec soñu-joaz, Israel co guciac bildu, eta deadar eguin zuen, ayec David-egin cer eguiñic etcencatela, eta David utciric Juda-coac ez, beste guciac, Seba-ri jarraitu citzayozcan, eta David Jerusalem-en Juda-rraquin sartu zan. Sarrera au David-entzat etzan uste zuen bezain gozatsua izan despita berri argatic; eta are mingarriagoa izan zan, bere echera joanda, seme Absalon-ec galdutaco amar emazte ayec icusi cituenean, ceñac vicilecu ederretan ipiñi cituen. Erregue beraren mayetic jaten zutela, eta gueróztic vici-alargun izan ciran, eta David etzan gueyago ayecquin nastu.

Langai triste au onela erabaquita, asi zan bideco despi-  
tae banacatu cituen gendéac bateralceco prestamenac art-  
cen. Lambide oni bear bezala buru emateco, Joab baño  
aguintari obeagoric etzan: ordea guizon urgullutsu eta  
goi-zale onen arroqueric eta gaiztaqueric David gogai-  
tuta ceucaten, eta Martizliaren aguintea Joab-i quenduric.  
onen lengusu Amasa-ri emateco asmoa artu zuen.

Amasa Absalon-en aldecoa izan bazan ere, hura il ez-  
queró, David leyalquiró servitcen zuen; bideco despitan  
paqueagatic asco necatu zan, eta orain ere Seba jaiqui  
zanean, David-en alde aguertu zan. Amasa oni, bada,  
aguindu cion, Juda-co soldadu guciac iru egunen barruan  
bilduta, bera ayen buru jarri cedilla. Amasa irten zan, Erre-  
guearen aguindua eguitera; baño iru egun icendatuetan  
ecin eguin izan zuen; eta David-ec aren etorrerari lucetsiric,  
eta Seba-ri prestatceco lecu gueyago ematen bacitzayon,  
Absalon-ec bano ere cer eguin andiagoa emango ciola,  
bildurrác arturic, Abisai bialdu zuen Joab-en aguinteco  
soldaduaquin, Seba-ri erasotcera. Abisai-c, Gabaon-go  
arrocara zanean, topatu zuen Amasa gende-talde gogor ba-  
tequin cetorrena, gucien aguintea artcera.

9. §.—*Joab-ec Amasa iltcen du.*

Joab-ec usandu zuenean, Erregueác aguintean Amasa  
ipintcen zuela, galtceco asmóac artu cituen. Onetaraco  
ezpata zorotz bat guerrian ondo estalia ipiñi zuen. Amasa  
alderatu zanean, Joab eta Abisai-ri agur eguitera, Joab-ec  
•Agur ene anaya• esanda, escuyarequin ocozeco bizarre-  
tic eldu cion, laztantceco irudian. Amasa-c etzuen gaitz-  
pensatu, eta ez ezpalaric icusi ere; baño Joab-ec zorrotic  
aterata, colpez sayetsean sartu cion, eta erráyac lurrera  
erori citzayozcan, eta ecertaraco lecu gabe il zan.

Erregueác Martizliaren burutzat ipiñitaco guizona Joab-  
ec ain odol beltzean illarequin, ecer eguin izan ezbalu be-  
zala, gorpuz-illa, odola ceriola, bide erdian utziric, gucien  
buruan Seba-ren billán joan zan. Bidean jaquin zuen, bat-  
zuec Abeja-n, eta besteac Becama-n gorde cirala eta anaya

Abisai Becama-ra bialdu-ric, bera Seba-ren ondoren Abela-ra joan zan, au escuratu ezqueró, arterañoco biurqueri guciac Erregueari aztuco citzayozcalaco ustean.

Abela-ra urreratu zanean, erria ertsitu edo setiatu zuen, eta barrunen laster sartceco lanac aurreratu cituenean, emacume iztun eder bat m irru-gañera osca irten citzayon, eta esan ción: ¿Joab zu cera? ¿Certaco erri au galdu nai dezu? Joab-ec erantzun cion, etzuela alacoric nai, ezpad Erreguearen contra jaiqui zan Seba-ri cerraiquiola, eta onen esque cebillela: errian sartu zala, eta onen burua ematen bacioten, bere-bereala itzuli, eta paquea emango ciela. Emacume onec ain ondo erricoai itzeguin cien, esanaz, Seba-ren burua Joab-i eman bearrean ceudela, non-escuac ezarri, eta lepoa ebaquiric, burua murrutic beera bota zuten. Joab-ec icusi zuenean, Saba illa zala, anayari gazligatu ción, eta biac Jerusalem-era itzuli ciran, eta naspilla gucia zucendu, baquea eguin, eta Israel-co eta Juda-co guciac Erregue baten mendean jarri ciran.

David-ec gueróz etzuen alde onetatic cer eraman andiric izan; baña Israel-ec, Gabaon-tarren odola isuriaz, eguinda-co becatuaren zorra etcegoan oraindic osotoró quitatua, eta Jaincoac iru urteco gosete latz bat bialda zuen. Filistin-tarrac icusiric, Israel-tarrai cer guertatcen citzayen, lau aldiz eraso cieten; baña lauretan Israel-tarrac ondo irten ciran, eta Filistin-tarasco il cituzten. Lembicico eraso-aldian David irurogueita iru urteetan arquitcen zan: ala ere, Martiztiaren buru bera joan zan, eta guichic eguin zuen, etsayaren escuetan vicia ez uztea: bada, bere illoba Abisai-coñ-oñetan il cion, lanza sartcera cijoaquion Eraldoi andibat. Guerózcoetan etcioten David-i joaten utci, berriz ere galtceco bidean arquitu etcendin.

10. §.—*Cembat gende daucan, David-en jaquin-naya.*

Filistin-tarracquico guérrac bucatu ciranean, David-ec iñoren ere bildurric etceucan. Mendecóac beguirune andia cioten, eta pozez ceuden, gauza guciac zucen eraentcen cituelaco; eta atceac eta ruzoac etzuten burua jasotceco



alic, ceren David-en guerraraco arguia eta indarrac bacie-quizquiten. Egoera zorioneco onetan vici zala, gogoac eman cion, erreinuan cembat armadun ceuzcan, jaquitea. Gogo onec, berez, gaitz gabea cirudien; baña cerbait arroqueria edo antuste nombait hacerman; Jaincoac etción, beintzat, ontzat artu. David-cc aguindu zuen; baña servitziariac uzcur ceuden Erreguearen esana eguiteco: esan ere bacioten, lan ari uzteco, ceren ondo etcirudien. David leyatu zan, eta atcenean eguin bearrean arqutu ciran. Andizqui batzuec, bada, Israel-co bazterretan zabaldu ciran aguindua eguitera, eta Israel gucia icusiric, bederatci illabete, eta ogueigarren egunean Jerusalem-era itzuli ciran eta Erregueari esan cioten, Juda-n lareunda irurogueifa amar milla, eta Israel-en milloi bat, eta eun milla armadun, guciac guizon sasoicoac, eta guerraraco chit egoquiac ceudela, copuru onetan Lebi eta Benjamin-go Tribucoac sartu etcituztelaric, gogo gabeco lan onetan aspertu ciralaco.

11. §.—*Izurritea.*

Aimbeste armadun mendean ceuzcalaco berria Erregue baten gogo a bete, eta biotza zabalteco adiña bazan; baña David-ec etzuen poz andiric artu, Bereala ezagutu zuen, bere Jaquin-nai gucia autuste eta arroqueria uts-uls bat zala, eta Jaunaren beguetan icusquizuna eguin zuela. Eta Jaunaren aurrean jarriric, esan cion: Oquer-eguin det, eta barcacio esque nagoquizu. Jaincoac aditu cion, eta biaramonean-goiz Gad Profeta aurqueztu citzayon, Jaunaren icenean esatera: Auqueran iru gauza ipintcen zazquitzu: erreinu gucian iru urteco gosetea: etsayaren iguesi iru illabetean ibiltcea; edo iru eguneco izurria. ; Auquera negargarria ! David-ec, ambatic-ambatean, izurria autu zuen. Alde gucietatic naigabéac dauzcat, cion; baña obe del Jaunaren escuetan, guizonenetan baño, jarri. Etzuen gosetea autu, ceren Erregueen mayera ez dan iristen: ez iguez-ibiltcea, ceren etsayac biotz-gogorrac izan oi diran. Izurria aututcen du, ceren ain laster Erregueari, nola mendecoari uquitcen dion; eta bere burua esqueñcen du, Jaunaren

aserre vicia itzaltceco, aserrerazo diotenean lenengo bera dan ezqueró. Izurria sortuzan, eta Israel gucian lagun asco ceramazquien. Onetan David-ec Jerusalem-en gañean icusi zuen Aingueru ondatzallea, ezpata escuan zuela, eta colpea ezartcera cijoala, eta auzpez jarriric, Jaunari itzeguin cion: ¿Jauna ni nerau ez naiz erria cembatetceco a- guindu nuena? ¿Gende onec cör eguin du? ¡Ene Jaun eta Jaincoa! ¡Jo ni nerau, eta bestei utci! Jaincoac David-en itzac aditu cituen, eta Aingueruari etción Jerusalem ondat- cen utci; baña iru egunac bete artean, izurriac iraun zuen: bitartean Israel gucian irurogueita amar milla lagun il ci- ran eta, David-ec Jaunari ofrenda bat esqueñita, izurria guelditu zan.

12. §.—*Eliza eguiteco asmoa.*

Orduraco David-en egúnac aurrera cijoacen; eta gueròz gogoan etceucan, Jaunari eguin bear citzayon Elizaco lanac, aurreratcea baicic. Lenagoco urteetan gai asco bildu izan cituen; eta orain languilléac Jerusalem-era era- carri, eta nor bere lanean ipiñi cituen. Icusten zuen, bere oñordeco seme Salomon oraindic gaztea zala, eta utci nai izan ciozcan, mundu gucian otsa barreatuco zuen Eli- za bat eguiteco, bear cituen gai guciac ondo prestatuta. Salomon-i deitu, eta esan cion, Eliza eder bat eguiteco eresia izan zuela; baña Jaincoac etzuela nai, arc. ezpada semeác, eguitea; beragatic etcedilla lan andi ari equiten icaratu; Jaunac emango ciozcala bear cituen arguia eta jaquinduria aren bildurrean vici bazan. Bere ecerezean bildu, eta uzten ciozcala irureunda ogueita zortci milla arroba urre: iru milloi, berreunda larogueti milla arroba cillar: ecin pisatu-al cobre eta burni, eta beste gai asco. Equin, bada ciotsan, equin lanari, ni ilda berreala Erreguetcen cera- nean; Jauna zurequin izan bedi, Gueró Israel-co Andiz- quiai ere esan cien, lambide andi artan semeari lagunt- ceco.

Ondo-esan oyec semeari eta aldamenecoai eguinda- isildu zan, Etceucan gueyago itzeguiteco quemenic indar-

tsua eta sendoa izan bazan ere, nequeac, igues-ibilliac eta beste eramanquizúnac chit oztu zuten, eta iltceco zorian cegoala cirudien. Servitzariac nagusia onela icusi zutenean, elcarrequin itzeguin zuten, doncella gazte bat eman bear ciotela, bere zarzaroan berotu cezan. Emaztetzat artu zuen, bada, Suna-co nescach eder bat, Abisab, ceritzana, eta onequin etzaten zan, ezcontzac ematen cion escualdia emaztearen gorputzarequin artu gabe.

13. §.—*Adonias-en Erreguetceco eresia.*

Adonias David-en seme zarrenac icusirie, aitaren egúnac bacijoacelà, artu cituen, bera Erreguetzat ezagutuerazotceco asmoac: uste zuen, alabañan, zarren-izateac artaraco escua ematen ciola, Israel-co Erreguetza, ez jatorriz, ezpada Jaincoaren auñqueraz ematen zala, beguiratu gabe. Joab Martiztiaren burua, eta Abiatar Apaiz-nagusia ere bere alde cituen. Irten zan, bada, Jerusalem-dic urrean cegoan iturri-ondo batera, non bazcari andi bat ipini zuen, eta au jatera Salomon ez, beste senideac, Andizquiac, eta aintzat artcea mereci zuten guciac deitu cituen, menturaz Erreguetzat ezagutuco zutelacoan. Ala guertatu ere zan. Berri au David en echera bereala zabaldu zanean. Natan Profetac Salomon-en ama Betsabee-ri esan ción, David-gana joan cedilla, eta esateco: ¿Jauna, etziñidan itz ciñeztuaren azpian esan, zure ondoren nere seme Salomon Erregue izango zala? ¿Cergatic, bada, Adonias-ec erreinatzen du? Betsabee-c itzqueta onelan Erreguearequin ciarduela, Natan guelan sartu zan, eta Betsabee guelatic ir-tenda, David-i esan ción: Jauna, zuc eman dezu, Adonias zure ondorengo izateco, eta Erregue-aulquian jartceco itza? Beintzat bazcari andi batean Erreguetzat ezagutua izanda, eta otseguin dute: ¡Erregue Adonias vici bedi! David-ec icusi zuenean, cer guertatu zan, Sadoc Apaizari eta Natan Profetari aguindu cien, Salomon Israel-co Erreguetzat igortei cezatela, eta trompeta-soñua joaz, esateco: *Erregue Salomon vici bedi*. Orduric galdu gabe, David-ec aguindu gucia eguin zan.

Adonias eta bere lagúnac mayetic alchatuta, jaquin zutenean. Salomon Erreguetzat ezagutua izan zala, laborrrian jarri ciran; eta beren asmóac gaizqui irten citzayeztenean, igues-eguin zuten, norc bere al-zuen ezcuta-toquirá. Adonias elizara joanda, aldare-ertzari cichecala egon zan, alic eta Erregue berriac, bere gaiztaqueriaren barcacioa eman cion artean; eta Salomon-ec aguindu cion, gaitzic ez eguitea, baldin gueróz zucen eta leyalquiró vici bazan.

Salomon Erreguetzat igortzita icusi-ondoan, laster David-ec bere buruari iguerri cion, munduan luzarocó etcegoala. Seme oni deitu, eta lenagóco aldian eguindaco ondoesanac eta eracutsiac berritu ciozcan; baita Israel-co guizon eldú eta andizquiai ere. Atcenean len atcera egon bazan ere, Jaunaren leguea beteco bazuen, iru gauza aguindu bearrean arqutu zan. Badaquizu, semeari esan cion, Joab-ec Abner eta Amasa-ri cer eguin cien, odol otzean ilda: cere jaquinduriac eracusico dizuna, onequin eguingo dezu, bada: ez utci mundutic berez joaten. Absalon -en iguesi nebillela, Berzelai-ren seméac eguin cizquidaten mesedeaz ez aztu, eta cere mayean artuco dituzu. Ignesi berebat ninjoala, bidean madaricatu ninduen Semeiescuan daucazu. Jordan-go ibaya igarotacoan, aguertu citzadaco, nic ez ilteco itza eman nion; baña zuc castigu gabe ez utzi. Aguindu oyetatic batean bere esquer-ona eracusten zuen; eta beste bietan bere zuentasuna, eta bein emandaco itza gordetceco leyala; baña ezagutcen zuen, ce-goquien castigua, oyei ematea, chit bidezcoa zala, eta lambide au semearen contura utci zuen.

#### 14. §.—*Daviden-eriotza.*

Guerónean irurogueita amar urtecoa David Jerusalem il zan. Erreguetzan berrogueita bat eguin cituen; Juda-n bacarric zazpi, eta Juda eta Israel-en ogueita amalau. Guizon andi onec utci zuen munduaren atceneco egu-netaraño iraungo duen icena. Jaincoaren servitzari leyala izan zan; eta iñoiz becatuan erori bazan ere, bere umiltasun gogoangarri, eta penitencia latzarequin, barcacioa irit-

si zuen, eta Jaunaren adisquidetasun gozora itzuli zan. Erregue santu onen gorputz-illa bere seme Salomon-ec Sion-go mendi *David-en Uria* ceritzanean, Erregue andi bati cegoquion proguarequin, lurpetu zuen.

## OGUEIGARREN IRACURGAYA.

### 1. §.—*Salomon-en Erreguetza.*

Salomon Israel-co Erreguetzan sartu zan, eta laster bere arguitasun guciaren premian arquite zan, Erreguetzari eusteco. Adonias David-en vicitzan ere Erreguetu nayakan ibilli zana, ctceuzcan bere asmo galdúac utcita, aldarea-ren oñean barcacio esque jarrita, damu-irudia eguin bazuen ere. Erregue berriari bere ama Betsabee-ren bitartez emaztetzat escatu ción Abisag, David-ec zarzaroan ezcontzaz beretutaco doncella gazte hura, Adonias-ec, alabañan, uste zuen, onequin ezcondú ezquerò, biotza irabacico ciola, eta bere aldeco nai cituen gauzac esane-razoco ciozcala, David-i adituac bezala: guisa onetan gendea nastu, eta lecu eguingo zuela, bera Erregue jartceco. Salomon-ec bereala iguerri cion, ezcontza onen irudian gauza onic etcerabilela, eta oquer-eguin-nai onegatic Adonias egun artan berean ilerazo zuen. Salomon-ec lenagoco utseguitea barcatu bacion ere, gueró zucen itzateco itzean barcatu cion; beragatic castigu au bidezcoa izan, zan, Adonias-ec berac itza jan zuelaco. Berebat ilerazo zuen, David il zanean Martiztiaren buru utci zuen Joab, ots andico guerrari Abner eta Amasa odol otzean il cituen hura, ceñaren viciac cer eguin andiac Salomon-i ecarri citzazquioquean. Semei isecari eta madaricatzalle lotsaga-be arc etzuen oraindic bere cigorrada artu. Salomon-ec Jerusalem-era eracarri, éta aguindu cion, uri onetan eche bat eguinda, emen vici cedilla. Emen cegoan bitartean, etciola ecer eguingo, itza eman izan ción bezala; baña Jerusalem-dic bein irteten bazan, naita nai ez, il bearco zala. Jerusalem-en iru urte eguin cituen, eta iguesi joan zitzayozcan catibu batzuen billan Jerusalem-dic irten zala,

Salomon-ec jaquin cionean, beste biac bezala, ilerazo zuen. Guisa onetan aitaren atceneco aguinduac bete cituen, eta Jaincoari zor zitzayona, castigu oyecquin quitatu zan.

2. §.—*Jaincoac Salomon-i jaquinduria ematen dio.*

Salomon, gaitz eguin citzayoquetean guciac beguietatic quenduric, Erreguetzan irmotu eta sendotu zanean, Israel-co Aguintari, andizqui, eta cerbait cezaqueten guciac Jerusalem-era bildu cituen; eta berequin arturic, Gabaon-gomendira, Tabernaculora igo zan, eta Jaunari esqueñi eta ofrenda andiac eguin ciozcan. Salomon-en langai au Jaincoari chit oniritci citzayon, eta gauean ametsetan cetzala, esan cion, nai zuena escatceco. Salomon-ec ezagutu zuen, Erri andi baten buruan cegoana, doai ascoren bear zala, eta gucia ondo eraentceco, Jaincoari escatu ciozcan biotz umilla, auciac zucen erabaquiceco arguia, eta ona gaiztoagandic bereci eta banateco jaquindea. Jaincoac erantzun cion, escatu gucia ematen ciola ain ugariró, non, jaquindurian eramaten cionic etzan izan, eta ez izango ere: eta bere Erria ondo eta zucen eraentceco doayac baicic escatu elcioletalaco, egundano inore izan ez dituen ondasunac emango ciozcala. Albista au Jaunagandic artuta, Jerusalem-era jatsi zan.

Bere jaquinduria eracusteco bidea, laster izan zuen. Bi emacume galdu, elcarren artean despita artuta, aurqueztu citzayozcan, eta batec esan zuen: Jauna, andre au eta ni eche batean vici guñan, eta nic bion guelan seme bat eguin nuen. Irugarren egunean onec ere beste bat izan zuen. Andic laster biac oyea cetzatela, aurra ito citzayon eta illumpean isillic nerec bere colcora arturic, bere illa niri ipiñi cidan. Goizean bularra nere semeari ematen asi nintzayonean, aur illarequin arquite nintzan. Eguna arguitu zanean, ondo, beguiratuta, ezagutu nuen, nere errayetaitit irtena etzala. Orrelacoric ez da, besteac erantzun cion: illa zure aurra da, eta vici dana nerec. Guezurra da, lenengoac cion. Guisa onetan Erreguearen aurrean itzac trucatu citozten, aucia eraba-

quitceco, norc bere esana baicic, etzutela. Batác ciona, besteác guezurtatcen zuen; oyen esanean, aur vicia biena zan, eta illa iñorena ez. Salomon-ec, bada, jaquiunde andia-requin janciric, aucia erabaqui zuen, esanaz: Nere semea vici da, batac dio, eta illa zurea da. Ez, besteác dio, zurea il zan, eta nere a vici da. Ots, ganibita bat ecarzute. Eraman cioten; eta bere gordelariai esan cien: Aur ori artu, eta erdibitu ezazute, eta batéc erdi bat, eta besteác bestea eraman bezate. Ama eguiazcoa larritu zan, eta biotza erdiraturic, deadarrari eman ción: Jauna, arren, aurra viciric, eta erdibitu gabe eman bequio. Erditu bedi, besteác cion, eta ez bedi zurea, eta ez nere a izan. Erregueác orduan aguindu zuen, aurra erdiratcea nai etzuenari eman cequiola, ceren ama eguiazcoa bera zan. Erreguearen erabaquia Israel guciarioniritci citzayon, eta guciac ezagutu zuten, iñoren gogoco berri jaquiteco, eta nori berea emateco, Jaincoac eman cion argui andia. Eguiquera onec eta beste asco onelacoc, Salomon-en jaquinduria banatu zuten, eta aitortcen zan, munduan izan zan jaquintsunic arguiena Salomon zala.

### 3. §.—*Salomon-en aberastasuna.*

Jaquinduria bezain andiac ciran ondasunac eta beste zorionac. Neurriric eta mugaric etzuten, eta mendeco guciatara ere zabalteen ciran. Salomon-en anditasunari alde-ratcecoric etzan: lurreco beste Erregue guciac onen parean utsac ciran. Au ezagutceco ez da bere echean bear ciran jan-edanac eta beste gauzac gogoratcea baicic. Egunoró bear ciran eunda berrogeita amar anega ogui-irin obenecotic, eta irureun anega bastoseagotic: amar idi guicendu, eta oguei cebatu gabe edo larre-idi: eun chiquiro; eta mundutce bat egazti eta eice lurreco eta aireco. Oquelletan ceuzcan berrogei milla zaldi uztarrico, edo cochéac eramateco, eta amabi milla azpian erabiltceco. Guciai ordu jaquiñean garagarra eta lastoa contuz ematen citzayezten. Bere mendeco guciac paqueric gozoenean vici ciran; argatic *Salomon paquetsua*-ren icena ceraman. Ondasun

ecin esan aimbateco oyen, eta paque ecin obeagoaren bearra Salomon-ec bazuen, gogoan cerabillen Eliza ots andico hura eguiteco.

4. §.—*Jerusalen-go Elizaren asiera.*

Lambide gogoangarri oni asiera eman baño lenago, gai guciac ugari bildu nai izan cituen, alaco eran, non. Escritura Santac dionez, Jerusalem-en urrea eta cillara, arria bezala, eta cedrozco zur ederrac. basa-picuac bezala, ciran. Onetaraco Hiran Tiro-co Erregueari escatu cion. Liban-go cedroac ebaquierazo zitzala; baita zurguin edo arotzac ere bialdu citzayozcala bere mendecoacquin batean zuageac landu, eta apaintceco. Len-lenago auzoerrietatic etorrita, Israel-en vici cirametatic eunda berroqueita amairu milla guizon languille artu cituen. Oyetatic iruroqueita amar milla ipiñi cituen, gáyac bizcárrez batera eta bestera eramateco; laroguei milla, arrobian arria atera eta jlandutceco: eta beste iru milla eta sei eunac languilleai contu artceco. Gañera Israel-en bertacoac oqueita amar milla guizon autu, eta Liban-go mendira, illean amar milla, bialtcen cituen. Guizon-talde arrigarri onec guciac. Hiran Tiro-co Erregueac ipiñiaz landara, lan-eguiten zuen, bear zan gucia prestatceco.

Gauzac zucendu ciranean, munduaren asieratic bi milla, bederatci eun, larogueita amairugarren urtean, Egipto-tic irten ciranetic lareunda larogueigarrenean, Salomon Erregue zanetic laugarrenean; Jesu-Crisro jayo baño milla eta zazpi urtez lenago, Eliza eguiten asi ciran. Fliza au, Jaincoac berac eracutsia, Moises-ec eguin zuen Tabernaculoaren antz-antzecoa zan, andiagoa izatea beste desberdintza gabe. Cer ondasunac eraman cituen, esatea erraz ez da. Cerbait ezagutceco asco da jaquitea, *Lecu guciac zantua*, ceritzan zatiaren barruna estaltceco azal edo chapac milla, seieun larogueita emezortzi arroba urte eraman cituztela, eta ilce bacoitzac amar ontza eta erdi urte zuela. Gañeraco zati guciac ere guisa onetan eguiñac ciran: argatic ez du lembicico Eliza onec bere parecoric izan, guizo-



naren escuelatic irten ditequéan lanic oberena, eta ede-  
rrena zalaco. Elizari oña artcen asi ciranetic bucatu artean  
zazpi urte eta erdi igaro ciran, lenago gáyac zucentcen  
igarotaco bi urtéac contuan sartu gabe, eta Salomon-ec  
Erreguetzan ceramazquien amaicagarren urtean bucatu  
zan.

5. §.—*Elizaren donequida edo bedeincacioa.*

Salomon-ec, ain bere gogoco lan andi hura bucatu zue-  
nean, beraren donequida edo bedeincacioa eguin nai izan  
zuen, eta Jaunaren Cucha santa, aita David-ec ipiñi izan  
zuen Siongo menditic, onará aldatu. Lambide au, cego-  
quion anditasunarequin eguiteco, Israel gucia, batezere  
zarrac, Tribuetaco, Principeac, eta eche-jaunac deitu cituen  
eta guciac, egun icendaturaco Jerusalem-en batu ciran.  
Salomon gende guciarequin igo zan Sion-go mendira, non  
David-ec Tabernáculo berri bat eguinda, cucha santa ipi-  
ñita cegoan. Apaizac Cucha santa sorbaldaetan artu zuten:  
Lebitac ere; bai, Tabernaculoa, eta oni cichocan gauzac,  
eta guciac, nor bere endanan edo errencadan, jarrita, Je-  
rusalen-eronz abiatu ciran, David-ec Obededon-en echetic  
Sión-era aldatu zuenean bezala. Sadoc Apaiz nagusia  
eta beste eunda oguei apaiz cijoacen Cucha santaren on-  
doan cillarrezco trompetacquin soñua joaz. Cucha santa  
ceramatenen sei pausotic sei pausora, apaizac ofrendatcen  
edo ilteen cituzten, Salomon eta gáneracoac ceramazqui-  
ten ecin esan-al jauscañi edo victima, au, da abere.

Onela Eliza berrira eldu ciranean, apaizac Cucha santa  
Lecu guciz santuan sartu, eta bi Querubinen egoetan  
eguindaco jar-lecu edo trono chit eder batean ipiñi zuten,  
eta atea ichiric, irten ciran. Bereala odei illum batec Eliza  
gucia estali zuen, adieraciaz, Jaincoac eche santa hura be-  
retzat artu zuela, eta apaizac, Lebitac, cantari eta beste  
guciac icusteco onequin arrituric, guelditu ciran, ecer  
eguin ecin zutela, alic eta, dembora batean Moises-en Ta-  
bernaculoaren gañetic bezala, odehyac aldeguin zuen arte-  
raño.

Salomon-ec poz eta atseguin andia izan zuen, siñale aguerico onetan icustean, berac eguindaño egonlecu eder hura Jaincoac ontzat eman ciola, eta aldarera beguira be-launicaturic, eta escúac ceruronz jasic, Jaunari bere erregúac eguin ciozcan, Israel guciac cecusala: ¡Jauna, sinistecoa da, Jaincoa guizonacquin lurrean vici dala! Ceru guciac zu iduquitceco adiña ez badira, ¿nola nic eguin dizudan eche onetan egon al-zaitzque? Gueró escatu ción arren, aditu citzala, Israel guciac an eguingo ciozcan erre-gúac. Inoiz bere becatuacgatic cēruác euria ucatuta, ur, esque; goseteac artuta, ogui-esque; auzo edo beste atceaco etsai eguñic, erasota, laguntza-esque; becatuaren eguiaczo damuarequin barcacio-esque arà bacijoaquión, arren-aditceco, eta bere aserre bidezcoa atceratceco.

Gueró zutitu, eta gende gucia bedeincatu zuen. Bereala guciac asi ciran, Jaunari ofrendac eguiten, eta langai onetan arazoric andienarequin ciarduten demborac, cerutic sua jatsi, eta ofrenda eta jauscañi guciac erre cituen: Jaunaren anditasunez Elisa bete zan, eta apaizac gueratu ciran Elizan sartu eciñean. Israel-tar guciac auzpez jarri, eta Jaincoa adonatu zuten. Sua itzali, eta Jaunaren Gloriac aldeguin zuenean, ofrenda eta jauscañiac berriz ere esqueñi cituzten.

Amalau egun Eliz-gauza oyetan igaro ciran; bitarte onetan Jaunari esqueñitaco gauzac cembatic ez dute. Salomon-ec hacarric oguei milla idi, eta eunda oguei milla chiquiro ofrendatu cituen. Lan oyec bucatutacoan, nor bere echera, poz andian itzuli zan.

Jaincoac Salomon-i ametsetan laster adierazo cion, escariac entzun ciozcala, eta itzeman cion, baldin berac eta Israel-ec aren leguea ciutzó gordetcen bacioten, begui onez beguiratuco ciela, eta escalcen ciotena, irichico zutela; bestela gortuco citzayela, eta cigorradác joco cituela.

#### 6. §.—*Saba-co Erreguñaren etorrera.*

Dembora guichiren barruan, beretzat ere egain zuen eche eder galant bat, alde guciatic urrea ceriona, eta

beste gauza ascoren artean Erregue-aulqui bat, Escripturá Santaren esanean, ez edertasunean, eta ez valioan pareric izan duena. Oyecquin eta bestegauza icusgarriacquin bere icena, jaquinduria, eta aberastasunen otsa mundu gucian barreatu zan eta Erregue, Princibe eta Andizqui asco ce-  
tozquion, icustera, eta zoraturic itzultcen ciran. Oyen artean eresiric gueyena aguertu zuena, eta emen aitatcea mereci duena, Saba-co Erreguiña izan zan. Emacume ots andico au Arabia-aldetic Jerusalem-era etorri zan, Salomon-en jaquinduria eta izanac bere bequiacquin icustera. Anditasun guciarequin Jerusalem-en sartu zan. Salomon-*i* aurquezlu ciltzayon, eta esan cion, ará cerc ceraman; nola cijoan, aren anditasuna icusteco, eta ipiñico ciozcan cer-esan edo itz estali batzuec asmatcen ote cituen, jaquiteco eresiarequin. Salomon-ec galde-isill guciac asmatu ciozcan; eta Erreguiña onec icusizuenean, Salomon-en jaquinduria batetic, bere Eliza, eche, servitzari ontci, jan eta beste gauza gucien ederra eta ugaritasuna bestetic, arritu zan, eta Erregueari esan cion; Eguiac dira zure esan eta jaquinduriaren gañean nere lurrean aditu nituenac, eta ez nituen sinisten, alic eta nic neronec icusidituda ariteraño, eta orain ezagutcen det, erdiric ere etcidatela esan. Doatsúac zurequin dauden servitzariac, eta zure jaquinduria entzuten dutenac. Bedeinca tua izan bedi, zu Israel-co Erreguetzat ipiñi zaituen zure Jaun eta Jaincoa. Bereala eman ciozcan escueracutsitzac, ceramazquien irureun larogueita amairu arroba, eta amabost libra urre, diamante eta perla asco, eta seculan iñore icusi es dituen aibat usai gozo. Salomon-ec ere berebat erantzun cion, eta bere anditasunari cegozquion eraco emaitza edo erregalóac eguin ciozcan, Erreguiñac escatutaco gauza guciac emateaz gañera, eta emacume andi au bere echeronz itzuli zan, icusi zuenarequin chit arri-tua eta lilluratua.

7. §.—*Salomon-en eroricoa.*

Salomon-en anditasuna dembora onetan gañ-gañecoa

zan; baña laster asi zan gañez eguin eta macurtcen; arte-  
raño aguertutaco jaquinde miragarriaren arguia lausotcen-  
eta bere ondasun neurri gabeen distiocioa illuntcen. Sa-  
lomon-ec iruroguei urtean bide zucenean iraun zuen: bi-  
tartcan deabruaren eraso gaizto guciai gogor eguin cien;  
baña bestec ecin duena, iristen duen emacumeen eresi  
gueyeguicoan irristatu zan, eta erorico andibat artu zuen.  
Lenago Jaincoari cion amodio gucia, emacumeetaronz  
irauli zuen; oyetaraco eresi zoro bat sartu citzayon, eta  
oyec maitetetic jainco guezurrezcoac adoratcera jatsi zan.

Zazpieun emacume Erreguiñaen icenarequin, edo le-  
nengo mallaco emaztetzat artu cituen, eta beste irureun  
bigarrenecoac. Emazte-talde au andia izateaz gañera, gu-  
ciac ciran arrotzac, edo Israel-ez campocoac, idolozale edo  
jainco guezurrezcoac cituztenac. Emacume oyetara osoto-  
rò jarrita, alaco eran itsutu zan, non, aimbeste jaquindu-  
ri eta ondasun eman ciozcan Jaincoari utcita, emacume  
ayen guezurrezcoac eta idoloac, ayei atseguin emateagatic:  
adoratu cituen: eta mundua arritceco adiñaco lanac ar-  
teraño eguin izan cituen Salomon andia, jarri zan abere-  
returic, eta locazti liquits bat eguiñic. Au asco, ez ecic,  
ayen jaincoai ere elizac egiun ciezten. Emacume ayen go-  
gora jarri zalaco, agur eguin cien Astarte, Sidon-tarren  
jaincoari; Molot, Ammon-tarrenari; eta Camos, Moab-  
tarrenari.

Salomon-en eguiteco onequin Jaincoa chit aserretu zan,  
eta laster adierazo cion, etzuela castigu gabe utcico. Aguer-  
tu citzayon, eta esan cion, Nere esánac eta aguinduac cer-  
gatic gorde ez dituzun, zure erreinua erdiratuco det, eta  
quentcen diodan zatia, zure servitzari bati emango diot.  
Guciaz ere zure aita Davit-i beguiratuta, au zure vician ez  
det eguingo, ezpada zure semearenean, ceñari zure aita  
David eta Jerusalem-go nere Erri autuari diedan amodioa-  
gatic, zati bat utcico diot. Jaincoac Salomon-i itz oyec esan,  
eta bereala asi ciran beteco ciranen aztarnac.

8. §.—*Salomon-en cigorrada.*

Idumea-rrac eta Siria-rrac asi citzayozcan ciritcazen, eta

bere agundu-petic irten nayez; baña Salomon-i oyecgatic ecer etcitzayon, urruti ceudelaco, eta etzan esnatcen. Bereala alderagotic beste golpea izan zuen. Jeroban ceritzan Efraingo Tribu-co guizon bat Salomon-ec bere servitzoan ceucan: eta iguerriric guizon argui eta doai chit onetacoa zala, Tribu bateco agintean ipiñi izan zuen. Jeroboan-ec ezagutcen zuen, mendecoac len cioten amodioa, Salomon-ec- bere gaiztaquericquin asco galdu zuela; eta icusiric, anzoac ere asi citzayozcala gogor eguiten, uste izan zuen, Salomon-en coroa zalantzan cebillela, eta bera jabe menturaz eguin citequeala. Onetaraco bazuen bere aguinduco Tribucoac cerbait laguntza emango cioten ustea, Salomon-ec eguindaco bidegabequeriaren bat gogoan ceucatelaco. Joroboan asmo oyetan cebillen egunetan, Jerusalem-dic irten zan bein batean, Ahias Silo-co Profetarequin topo-topo eguin zuen. Profeta onec soñean ceraman capa berriberria escuetan artuta, amabi pusca eguin zuen, eta Jeroboan-i esan cion: Amar artu izatzu, eta beguira Israel-co Jaincoac cer dion: Nic erreinua Salomon-en escutic puscatuco det, ni utcita, Sidon-tarren, Moab-tarren, eta Ammon-tarren jaincoac adoratu dituelaco, eta nere esana, David-ec bezala, eguin ez duelaco, eta amar pusca zuri emango dizquizut, eta beste biac aren semeari utcico diozcat, Daviden icenac irauu dezan. Bide onean bazabiltza, eta nere esanac eguiten badituzu, David nere servitziariac bezalr, zurequin izango nazu, eta Israel-co Erregue izango cera. Au esanda, Ahias-ec Jeroboan-gandic aldeguin zuen. Jeroboan-ec etzuen gueyagoren bearric, Erreguetceco bere eresia aurreratceco; eta itzqueta au bien artean, isillic iñor gabe, izan bazuten ere. Salomon jaquintsun eguin zan, eta Jeroboan il nai izan zuen; baña Egipto-ra ignes-eguin cion, eta emen gorde zan, Salomon il arteraño.

9, §.—*Salomon-en eriotza.*

Guertaera onen cadoren laster, Salomon iruroguei urtecoa, berroguyetan erreinatuta gueró, Jerusalem-en izan, eta bere aita David-en Errian lurpetua izan zan. Salomon-ec asicra ona izan zuen; Jaincoaren bideari cerrai-

quion bitartean, mendecoac maite zutela, eta auzoac bildur citzayozcala, vici izan zan: baña gueró lasaiqueria igüingarrietan sartu zanean, campocoac ecertan etceucatela, eta erricoac gogaitua eta gorrotatua izaten zan, eta negar andiric ulci gabe, Jauuari contu eman cion, ordu onean eman cion edo ez, oraindaño inore ezdaquiela.

OGUEITABATGARREN IRACURGAYA.

1. §—*Israel-co erreinuaren erdiratcea.*

Salomon ilda bereala, Juda eta Benjamin-go Tribuac Roboan Salomon-en seme zarrena Erreguetzat ezagutu zuten: eta Israel guciac ere ezagutu cezan, Siquém-era joan zan Uri onetan lambide onetaraco gendetza andia bildu zan, baita Jeroboan ere Egipto-co bere gorde-lecutic. Roboan Erregue zanaren semea Jeroboan-ec, eta beste Israel-tarrac icusi zutenean, itzeguin cioten onela: Zure aitac uztarri chit astuna ezarri cigun: orain, bada, arindu zaguzu, eta servituco zaitugu. Roboan-ec erantzun cien: Orain zoazte, eta emendic iru egunera atozte.

Gendéac aldeguin zuenean, Roboan-ec aitren ondoana egon oi ciran guizon zar elduai iritcia escatu cien. ¿Cerderitzazute gende oni esan bear diodala? Zárrac esan cioten: Gaur gende orri gozotoró aditcen badiozu, eta escatcen duena eguin, bein betico escuaatuco dezu. Zarren iritci au Roboan-i etcitzayon ondo erori, eta berequin acitaco lagun gazte batzuei galdetu cien, cer eguingo zuen. Gazte oyec, ecer icusi gabeco eta munduco berri etciequitenac bezala, esan cioten: Cende orri au erantzungo diozu: Nere beatzic chiquiena nere aitarea guerruntza baño lodiago da. Nere aitac uztarri astuna ipini cizuten, eta nic astunagoa emango dizutet, Nere aitac cigorracquin ceatu cinduzten; baña nic ubal burnizco orz-dunacquin ceatuco zaituztet. Jeroboan eta besteac irugarren egunean joan citzayozcan, eta Roboan-ec erantzun cien bere lagun gazteac eracutsia. Icusiric, Roboan-ec etzuela escatcen citzayonic eguin nai, asi ciran esaten: ¿Guc David-eguin cer eguiteco degu? Israel-tarrac, ceron etzauntzaetara itzuli zaitzte, eta zuc David cere echean, nai dezuna, eguizu. Israel-tarrac joan ciran, eta Erreguetzat Jeroboan artu

zuten. Orduan Roboan-ec bere servitzari andientsu bat bialdu cien, itzeguitera; baña etcioten ecer esateco lecuric eman, eta arrica il zuten. Roboan-ec berri char au jaquin zuenean, iguesari eman cion, eta Jerusalem-en sartu zan. Eta egun au ezqueró, Jaincoac Abraham-i esqueñitaco lur eta bazter autua bi escuetan jarri zan, Amar Triburequin Israel-co erreinua eguin zan, eta beste biacquin Juda-coa. Jeroboan Israel-co Erregue guelditu zan, eta Roboan Juda-co.

Orain aurrera bear dan arguiarequin equiteco, on-deritzat Erregue bacoitzaren gañean banaca itzeguitea: lenengo Israel-co, eta gueró Juda-coacgatic. Eta emen guciac erabat ezarrico ditut, Salomon-gandic asita, Babilonia-co catibutasunerañocoac.

ISRAEL-CO ERREGUEAC

JUDA-CO ERREGUEAC.

## SALOMON.

1. Jeroboan lenengoa.	1. Roboan.
2. Nadab.	2. Abia.
3. Basaa.	3. Asa.
4. Eja.	4. Josafat.
5. Zambri.	5. Joran.
6. Tebni.	6. Ococias.
7. Amri.	7. Atalia.
8. Acab.	8. Joas.
9. Ococias	9. Amasias.
10. Joran.	10. Ozias.
11. Jehu.	11. Joatan.
12. Joacaz.	12. Acaz.
13. Joas.	13. Ecequias.
14. Jeroboan higarrena.	14. Manases.
15. Zacarias.	15. Amon.
16. Selum.	16. Josias.
17. Manaen.	17. Joacaz.
18. Faceia.	18. Joaquin.
19. Facee.	19. Jeconiao.
20. Oseas, Israel-co atceneco Erreguea.	20. Sedecias, Juda-co atceneco Erregua.

2. §.—*Joroboan, Israel-co Erregue lenengoa.*

Roboan Jerusalem-era iguesi joanda, Jeroboan-ec bere burua Israel-co Erregue eguiña icusi zuenean, esan cien, Ahas Profetarequin cer guertatu citzayon, eta guciac ezagutu zuten, langai artan Jaunaren escua cebillela, eta ordutic Jeroboan-ec bere Erreguetza sendotu zuen.

Roboan bereala asi zan Juda-co eta Benjamin-go gendegucia blitcen, eta eunda laroguei milla guizon armadun baturic, Jeroboan-gana joan nai izan zan, eta Israel gucia bere mendera ecarri; baña Jaincoac aguinduta, Semeias Profetac esan cion; Jaunac ara cer dion: Israel-tar zure anaya ez eraso: nor here echera itzuli bedi; ceren lambide au nic eguin dedan. Erreguèac eta soldaduac Jaunaren esana aditu zuten, eta echeetara biurtu ciran.

Jeroboan Israel-co lenengo Erregue onec, ecer utsetic Erreguetzara igotcearequin ain mesede andia eguin cion Jaincoari esquer onac eman bearrean, bide gaiztoai laster equin cien; eta Jaunaren aserrea beretu zuen. Israel-tarrac urtean cembat aldiz Jerusalem-era joan oi ciran, Jaunari Elizan ofrendac eguitera. Jeroboan-i buruan jarri citzayon, baldin bere mendecóac, len-lenago bezala, Jerusalem-era bacijoacen, aren erreinua David-en echera laster itzulico zala; Roboan Erreguetzat ezagutu, eta bera ilco zutela. Bildur au quentceco, uste izan zuen, bideric obena zala, erlegio eguiazcoa utcita, beste batartcea. Onetaraco urrezco bi chal eguin, eta bata Betel-en, eta bestea Dan-en, bi pillare-gañetan, ipiñi cituen; eta Israel-tarrai esan cien: Ez gueyago Jerusalem-era joan: ona Egipto-tic Israel atera zuten Jaincoac. Israel-tarrac idolo oyec icusi cituztenean, Jainco eguiazcoa utciric, artacotzat artu cituzten; eta oyec adoratcera, joaten chan.

Icusiric bere ustèac cein ondó irten citzayozcan, eguna icendatu zuen, Betei-en ipiñitaco chal idoloari pesta andi bat eguiteco. Gendea bildu zan, eta Joroboan ere bai. Erregue au asi zan, Jerusalem-go Elizan eguiten zan gucia eguiten; eta aldare-gañera igoric, incensu-ontcia es-



cuan artuta, idoloa adoraten ari zala, Jaincoac bialduta, Juda-tic cijo: n' guizon bat alderatu citzayon, eta deadar, eguin zuen: ¡Aldarea! ¡Aldarea! Ara Jaincoac cer dion: David-en echean jayoco da seme bat, *Josias* deituco dana ceñac zure gañean ilco ditu zu orain incensatzen zaituzten apaizac; eta gorputz-illen ezurrac zure gañean erreco ditu. Jaunaren icenean itzeguiten dedala icusi dezazuten, aldre ori puscato da, eta bere gañeco autsac zabalduco dira. Jeroboan-ec icusi zuenean, guizona onela itzeguiten, escua onengonz queñatu zuen, esanaz; Itsatsi zayozute: baña luzatuta ceucan escua igartu citzayon, eta guelditu zan ecin bereganatuz: Profetac esan bezala, aldarea puscatu zan, eta autsac bazterretara banatu ciran. Jeroboan-ec ezagutu zuen, castigu lotsagarri hura nondic cetorquion, eta Profetari esan cion, Jaunari aren alde, arren erregutceco. Esan eta eguin: Profetac escatu, eta Jaincoac Erreguearen escua sendatu zuen. Jeroboan-ec esquer onecoa aguertceco, guizon santu hura echera eraman nai izan zuen, bazcalcera, eta escueracutsiac eguitera; baña erantzun cion: Cere echearen erdia ere ematen baciñiquet, ez nintzaque zurequin joango: eta ez oguiric jan, eta ez uric emen edango nuque: Jaincoac, alabañan, bialdu nindueñean, au gucia debecatu cidan; eta esan ere bai, etorritaco bidetic ez itzultceco. Itz oyec esanda, Judaronz beste bide batetic joan zan.

Betel-en vici zan Profeta zar bati bere seméac gauza oyec guciac esan ciozcaten, eta galdetu zuen, ¿ea noronz artu zuen? Erantzun ciolenean, cein bideri eman cion, bere astoari igota, ondoren joan zan, eta arbola-pe batean topatu zuen. Profeta zar onec jaquin zuenean hura zala berac billatcen zuena, esan cion, aren echera joateco, berequin batean bazcalcera. Ori ecin dezaquet, besteac erantzun cion, bada debecatu zat. Profeta zarrac esan cion: Ni ere Profeta naiz, eta Jaunaren icenean aingueru batec esan dit, nere echera eraman zaitzadala, jan eta edatera. Gaitz-uste gabe sinistu cion; joan eta Profeta zarraren echean jan-edanac artu cituen, Oraindic mayean ceudela, Profeta zarrari Jaincoac belarrira itzeguin cion, eta

Profeta zarrac Juda-coari, esanaz: Cergatic Jaincoac debe-  
 catutaco lecuan jan eta edan dezun, zure gorputz-illa ez da  
 zure gurasoen obian lurpetuco. Eguiaz, Jaincoaren guizo-  
 na mayetic alchatuta, bere asto-gañean jarriric, echeronz  
 abiatu zan. Bidera leoi bat irten citzayon, eta il zuen. Gor-  
 putz-illa bidean bertan guelditu zan; baita leoya ere, ez  
 gorputz-illari eta ez astoari, gueyago uquitu gabe. Bide-  
 nabar an sortu ciran guizon batzuec icusi zulenean gor-  
 putz-illa, leoya eta astoa aldamenean cituena, berri one-  
 quin Betel-era joan ciran. Profeta zar arc bereala igue-  
 rri cion, guizon, illa nor izango zan, eta asto-gañean ja-  
 rriric, joan zan, icustera. Alderatu zanean, leoyac igues-  
 eguin zuen, eta gorputz-illa astoan artuta, Betel-era era-  
 man, eta bere obian lurpetu zuen. Proguco negar-egu-  
 nac igaro ciranean, semèai esan cien: Ni iltzen naizanean,  
 nere ezurrac Jaincoaren guizonarenac dautzan ondoan  
 ipiñico dituzute; bada, arc Jaincoaren icenean esana, Be-  
 telco aldareari guertatuco zayo. Aurrerago icusico dega,  
 Jaincoaren guizon arc nola asmatu zuen.

Gauza oyen berriac Israel gucian banatu ciran: ezagutu  
 citequean Jaincoaren escua cebillela, bide gaiztoac utcita,  
 onean jartceco; baña alperric: Jeroboan eta bere lagunai  
 biotzac gogortu citzayozcaten, eta idoloac adoratceari ce-  
 rraizquion. Jeroboan-ec bere gaizlaqueriaren castigua al-  
 deragoan ere laster icusi zuen. Bi seme ceuzcan, Abia eta  
 Nadab ceritzatenac. Abia gaizquitu zan, iltceco zorian jar-  
 tcerano. Aitac jaquin nai zuen, gaitz artan nola irtengo  
 ote zan; baña artu cituen jainco guezurrezcoai galdetcea  
 alperric zan; eta gogoac eman cion billatcea Ahias Profe-  
 ta, Erregutuco zala len-lenago asmatu ciona. Guizon onen  
 aurrean aguertceco arpeguiric etzuen, bere esquer gaiztoa  
 gogoratuta: eta emaztea bialdu cion, ezagutu etcezan,  
 iñoren soñecoac jancita. Baña Ahias-ec, orduraco itsutua  
 bacegoan ere, bereala iguerri cion, Jeroboan-en emaztea  
 zala, eta esan cion: Zu poz-billan zatoz; baña ni berri cha-  
 rraczuri emateco nago. Gueró aguindu cion, senarrari esate-  
 co cere ain esquer gaizlocoa izan zan, eta aimbeste mesede  
 eguin izan ciozcan Jainco eguiazco bacarra utciric, gue-

zurrezcoacartu cituen, aren eche zacurretarañoco gucia ondatua izango zala, iñor ere bere odolecoric guelditu gabe. Errian iltcen ciranac zacúrrac janác, eta campoan illac egaztiac iretsiac izango cirala. Zoaz esan cion, echera itzuli zaite, eta errian oñac sartcen dituzun ordu berean Abia ilco da, eta Jeroboan-en humeetatic au bacar bacarric lurpetua izango da. Ahias-ec esan gucia, cearó guertatu zan. Abia il zan. Jeroboan-ec bacecusan: bere gaiztaquericquin echeari cer buruzpide eman cion baña beguiac etcitza-yozcan arguitu, eguia ezagutceco; eta nola vici, ala il zan, gaizqui eguiñaren damuric adierazo gabe.

3. §.—*Nadab, bigarren Erreguea*

Jerhboan-en seme Nadab aita bezain gaiztoa, eta idolo-zalea Erreguetzan sartu zan; baña Basaa ceritzan batec, urte bete baño asco gueyago Erreguetzan eguin gabe, il zuen; eta onen iltcearequin Israel-eo Erreguetza beste eche batera aldatu zan, Ahias Profetac esan bezala.

4. §.—*Basaa, irugarren Erreguea.*

Basaa, Nadab-en iltzallea, etzan Jeroboan baño obea izan, eta gaiztaqueric jarraitu citzayon: argatic Jaincoac Jehu Profetaren bitartez adierazo cion, aren jatorria ere Jeroboan-ena bezala, deseguingo zuela. Basaa-c bere Erreguetza sendotu nayez, Jeroboan-en odoleco guciac il cituen: baita Jehu Profeta ere, onen itzeguite garbia ecin eraman zuelaco. Basaa, vizi bezala, il ere zan.

5. §.—*Ela, laugarren Erreguea; Zambri, bostgarrena Tebni, seigarrena; eta Amri, zazpigarrena.*

Ela, Basaa-ren semea, aitaren ordez sartu zan. Au ere aurrecoen bideetan ibilli zan, eta bere zaldizcoen aguintari Zambri ceritzana contra alchatu citzayon, eta il zuen. Zambri Erregue jarri zan, eta Basaa-ren odoleco guciac il cituen, bat bacarric ere viciarequin utci gabe, Jehu-ren bitartez Jaincoac esan bezala.

Egun ayetan Israel-tarrac Filistin-tarren contraco gurrari cebiltzan, eta Gebeton-go erria setiatuta ceucan Martiziac, jaquin zuenean, Zambri-c cer eguin zuen, Amri bere aguintaria Erreguetzat ezagutu, eta Zambri-ren esque abiatu zan: baña Zambri-c bere buruari iguerri cionean, ayen escuetan erortcera cijoala, echeari su eman, eta eche-co gauza guciacquin bera au erre zan. Erreguetzan zazpi egun bacarrac eguin cituen, eta bitartean Jeroboan-en bideai jarraitu citzayen. Onen aldecoac Erreguetzat Tebni artu zuten. Guisa onetan, balzuec Amri, eta besteac Tebni gorde näyez, elcarren artean despitan iru urtean ibilli ciran; eta alcenean Tebni ilda, Amri bacarra guelditu zan.

Onec eraguin zuen Samaria-co uria, gnerora Israel-co erreinuaren Erri-buru, eta Israel-co Erregueen vici lecu izan zana. Amabi urte Erreguetzan eguin cituen. Bitarteco onen gaiztaqueriac lenagocoenac baño areagoac izan ciran, eta, besteac bezala, gaiztaquerian il zan.

6. §—*Acab, zortcigarren Erreguea.*

Aitaren lecuac Acab sartu zan. Onen gaiztaqueriac lenagoco gucienen azcarriac izan ciran. Idolozalea zan, eta beste guciac baño becatu gueyago berac eguin, eta Israel-eraguin ciozcan. Eta gaiztoa izateaz gañera, bera bezain birri eta idolozale itsutu Jezabel ceritzanarequin ezcondu zan. Emacume urgullutsu, eta biotz gogorreco onec, ezcondutaco egunetic senarrac näi gucia eguin zuen, eta gaiztaqueria gucietan lagundu cion. Emacume zorigaizto-co au Acab-en echean sartu zan, Jainco eguiaczoaren ser-vitzari bat bacarra ere Israel-en ez uzteco, infernuac botataco baten antzean. Sidon bere erricoac jaincotzat ceucaten Baal en idoloa, beste gucien aurretic, Samaria-n ipi-ñi zuen, eta Baal-en icenean eliza eta aldare bat senarrari eraguin ciozcan; eta Erregueac eta mendecoac emen adoraczen zuten. Bacirudien Jainco eguiaczoac Israel-en adoratzalleric etzuela. Ala ere, Jaincoac Acab-i beguiratu na izan cion, bai ondo esanaz, eta bai castiguen bitartez, ceztaczen ote zan icusteco, eta onetaraco Elias-ez baliatu zan.

7. §.—*Elias Profeta.*

Galaad-co lurrean vici zan Profeta bat, *Elias* ceritzana. Jaincoac Acab-i, Erregue eguin zanetic laugarren urtean, Elias au bialdu cion, esatera: Israel-co Jaincoa vici dan bezain eguiaz, urte oyetan ez intzie, ez euriric eguingo du, nic esanda baicic. Gueyago ecer esan eta agurric eguin gabe, Erreguearen aurretic aldeguin zuen, eta Carit-co erreca-ondora ignesi joan zan, Jaincoac aguindu bezala. Profeta au Carit-co bazterretan vici zan, jan-edanen contu gabe; bada, goiz-arratsaldeetan ogui-araguiac beléac ecarten ciozcaten, eta errecaco ura edaten zuen: baña urte bete baño lenago erreca agortu zan, euriric eta intzie eguin etzuelaco. Orduan Jaincoac esan cion: Sarepta deritzan Sidon-tarren errira zoaz, eta an zaude; bada, ango andre alargun bati aguindu diot, zure jan edanen contua izan dezala. Carit Israel-co ertz batean, eta Sarepta bestean ceuden; beragati ibilliqaizun andia. Ala ere, Elias etzan izutu; eta Israel-en erdi-erditic bideari equin cion; eta Erreguearen mandatariac aren esque alde gucietan bacebiltzan ere, etzan Elias-ez iñor oartu.

Sarepta-ronz alderatu zanean, icusi zuen emacume alargun bat, egur-biltzen, cebillena. Deitu, eta esan cion; Ur pisca bat indazu, edateco. Andrea ur-esque abiatu zanean, Elias-ec atcetic otseguin cion: Ogui cerra bat ere ecarzu. Andreac erantzun cion: Jaincoac badaqui, etzadala oguiric arquitcen, ezpada eltce batean escua-bete irin, eta oliontcian olio apur bat: egur-billan emen nabil, oyec egosita, neronec eta nere semeac jateco, eta guerò bioc itteco. Israel-en sortutaco gosetea Jezabel-en erri Sidon-era ere orduraco zabaldu zan; argatic alaco etsi-penean emacumea mintzatu citzayon. Elias-ec esan cion: Ez icaratu; zoaz, eta esan dezuna eguizu; baña irin pisca orretatic suazpian erretaco opilcho bat lenago eguin zadazu; eta gueró zurequin zure semearentzat eguingo dezu; bada, ara, Jaincoac cer dion: Zure eltceco iriñac eta ontcico olioac, Jaunac euria eguin arteraño iraungo dute. Andre arc

Elias en esana sinistu zuen. Echera joan zan; ognuia eguin zuen; Elias-ec, berac eta bere semeac jan zuten, eta etciran iriña eta olioa gueróz guichitu.

8. §.—*Sarepta-co alargunaren aurra viztutcea.*

Andic laster emacume onen semea gaitz gogor batec artu, eta il zan. Ama gañoa naigabez beteric, Elias-i joan citzayon, eta esan cion: ¿Cer eguin dizut, Jaincoaren guizona? ¿Nere echera etorri zera, nerē becatuen oroipena berritoeco, eta oyecgatic nic nere semea galtceco? Seme ori indazu, Elias-ec esan cion, Elias-ec artuta, etzaten zan guelara eraman zuen: bere oyea luce-luce ipiñita, deadar eguin zuen: ¡Ene Jaun eta Jaincoa! ¿Ain atsecabe andia emango ciñion bada, ni bazcatcen bere eguin-al gucian ari dan alargun biotz oneco oni, bere seme bacarra quenduta? Au esanda gueró, oyea sartu zan, eta gorputz-illari gañean iru aldiz jarri citzayon, eta berriz ere otseguin zuen: ¡Ene Jaun eta Jaincoa! Gorputz oni, arren, bere anima itzuli zayozu. Jaincoac entzun cion, eta seme illa viztu zan. Elias-ec besoetan artuta, amaren guelara eratsi zuen, eta eman cion, esanaz: Orra cere semea viciric. Amaren poza cembat zan ezagutzeco, ez da seme bacarra gabe, guelditu zanean artutaco atsecabeari beguiratu baicic, Jauna, esan cion, ezagutcen det, Jaincoaren guizona cerala, eta Jaincoac zure aotic itzeguiten duela.

Elias-ec alargunaren echean bi urte ondo eguiñac cera mazquien, esan dan eran bazcatuaz; eta iru urte eta erdi urrean ciran, euriric eguin gabez, gosetéac ciruela. Dem bora onetan Jaincoac Elias-i itzeguin cion, esanaz; Zoaz eta Acab-i aurqueztu zatzaquio, nic euria lurrera bialdu dezadan. Israel-en sortutaco gosetea izugarri, eta asco eta asco mundutic ceramazquiena zan. Ala ere, Acab-i etcion onec buruco min andiric ematen; etzan guizonen jana nondic eta nola eratuco zuen, necatcen, ezpada onen arduraric andiena zan, bere zaldi eta mandóac bear zutena eratcea. Onetaraco Abdias bere ocendari edo mayordomoa putzu-billan, eta belar- esque alde batera bialdu zuen,

eta bera bestera joan zan. Egun negargarri oyetan ere Acab-en emazte Jezabel-en eresi eta pozic andiena zan, Jaunaren Profetaen billan ibilli, eta topatzen cituenac ilteea; eta bildur onequin Abdias mayordomo arc berac ere, biotz onecoa eta aurtasunetic Jaincoaren bildurrecoa izanic, eun Profeta bi arzulotan gordeac ceuzcan, bear zuten jana ematen ciela.

Elias-ec, alargunaren echetic irtenda, Acab-gana Samariara Jaincoaren aguinduz cijoala, topatu zuen Abdias abereentzat jan-edan-esque cebillela. Onec Elias bereala ezagutu zuen, eta auzpez oñetan jarri citzayon, esanaz: ¿Zu Elias nere Jauna etceera? Bai erantzun cion: zoaz, eta nagusiari esan zayozu, emen naizala. Abdias uzcur cegoan mandatu hura eguiteco: Acab-en berri, alabafian, baciequien, eta vicia galttez bildur zan: eta Elias-i esan cion, zugandic aldegniten dedanean, Jaunaren espirituac, nic ez daquidan lecura, eramango zaitu; Acab-i zure berriac ematera ni sartuco naiz, eta arquiteen ez bazaitu, ilco nau. Elias-ec eman cion, egun artan berean Acab icusteco itza, eta onequin Elias-en esana eguin zuen.

Acab-ec albista au artu zuenean, Elias-i bidera irten citzayon, eta esan cion: ¿Zu etcera Israel nastutcen zabiltzana? Ni ez, Elias-ec erantzun cion, ezpada zu eta zure aitaren echeco, Jaincoaren aguindúac utcita, Baal-i zarraizquionoc. Gueró esan cion, Carmen-go mendian Israel gucia bilerazo cezatu, eta Baal-en lareunda berroqueita amar profetae berebat aurqueztu citezela: Carmen-go mendian guciac batu ciranean, Elias-ec deadar eguin cien: ¿Noizdano bi aldetaco izan bear cerate? Nere Jaincoa eguiazcoa bada, oni zarraquizquio; eta Baal bada, orobat oni jarri zatzaquizquio. An ceudenac etcioten itzic atera. Elias-ec, isiltasun au icusirié, esan zuen: Jaunaren Profetaetic ni bacarra guelditu naiz, eta Baal-ec orra lareunda berroqueita amar non dauzcan. Bi idi eman bequizquigute; berac nai dutena artu, zatitu eta puscac egur-gañean su gábe ipiñi bitzate. Nic ere bestea artuco det, zatitu eta puscac egur gañean su gabe ipiñico ditut. Norc bere Jaincoari erregutuco diogu, eta ofrenda au erretceco sua bialteen

duena, Jainco eguiazcoa izan bedi, eta guciac es in zuten; Ondo da.

9. §.—*Baal-en profetaen ondumena.*

Baal-en profetaen lenengo asi ciran. I lia puseatu eta aldare-gañean ipiñiric, eguarte gucian beren jaincoari aritu citzayozcan osca: ¡Entzun zaguzu! ¡Entzun zaguzu! Baña Baal-ec etcien erantzuten: gorra eta mutua zan, alabañan, ayen otsac entzun eta erantzutceco. Elias farraz cegoan, lareunda berrogeita amar profeta ayei beguira, nola elcarri chanda eguin eta aldia emanaz, leyatcen ciran, gueroago eta ots andiagoac eguiten. Ots-ots gogotic, Elias-ec esaten cien: zuen jainco ori, menturaz, norbaitequin itzquetan, edo ostaturen batean dago, edo bidean dioa, bestela lo datza, eta aditcen ez dizute. Iensi zutenean arte-rañoco eguin-al guciacquin ecer etzutela atera, ganibitac eta eztenac arturic, beren gorputzac ebaqui, eta zula tcen cituzten odolceraño; baña gucia alperric. Baal sor eta gor cegoan.

Egüerdia eldu zanean, Elias-ec amabi arrirequin aldare bat eguin zuen, eta aldareari inguru gucian erreten bat idiqui cion: aldare-gañean egurra eta egurraren gañean idi puscatua ipiñi zuen. Gueró lau lusull-ur eracarri cituen, eta ur au egur eta idiquiari egotei cien. Bi eta iru aldiz au bera eguin zuen: atceneraco idiquia eta egurra osotoró busti, eta hura ceriela jarri ciran, eta isurteen citzayen urarequin, inguruan idiquitaco erretena ere bete zan. Garaya edo ordua zanean, Elias aldarearen aurrean belaunicatu zan, eta beguiac ceruronz cituela, asi zan, esaten: Abraham, Isaac, eta Jacob-en Jaincoa, gaur eracutsi ezazu, Israel-co Jaincoa zu cerala, eta ni zure servitza-ria, eta zure icenean au gucia eguin dedala. Eutzun, bada, Jauna.

Elias-ec escaera au eguinda bereala, cerutic sua jatsi zan, eta erre cituen aragui, egur, arri, eta lurrea, eta erretena ere leor-leor eguin zuen. Orduan gende guciac, auzpez jarrita, aitor bear izan zuen, Jainco eguiazcoa Elias-



ena zala. Elias-ec aitormen au icusi zuenean, esan cien: Baal-en profeta guciac, balere utci gabe, bere-bereala artu itzatzute. Escuac ezarri ciezteen, eta Cison-go ibayera eramanda, il cituzten. Acab Erregueac lambide oyec guciac cecusquizan, bitartean ecer ere jan gabe; eta luce cijoalaco, Elias-ec esan cion: Zoaz, eta cerbait ar- ezazu; bada, euri-jasa gogor baten otsa da. Acab jalera joan zanean, Elias ere Carmen-go mendi-lontorrera igo, eta eseri zan, burua belan-artean zuela. Egoera onetan bere erregu-aldia eguinda, morroyari esan cion: Zoaz, eta itsas-alderonz beguira ezazu. Morroyac beguiratu zuen, eta itzuli citzayon, esanaz: Ez da ecer agueri. Elias-ec beste egon-aldi bat, lenago bezala, eguin zuen: berriz ere morroya itsas-alderonz bialdu zuen: eta berri berarequin itzuli citzayon. Sei aldiz bialdu zuen, eta seiretan irauli citzayon, ciotsala: Ez da ece agueri. Zazpigarrenean bialduta, itzuli citzayon, esanaz, guizonaren ona cirudien odeicho bat itsasotie ceruronz irteten zala. Orduan aguindu cion, Acab-gana joan, eta esateco, bere-bereala gurdia prestatuta, echera cedilla, euriac artu etcezan. Gurdia prestaten ciardutela, aice-bolada bat irten zan, cerua odei illunez belztu zan, eta Acab gurdian jarri zaneco, euriari goyen-beean eraso cion. Elias, soñecoa guerriari lotuta, Acab-en aurretie Jezrael-eraño joan zan, bederatci orduco bidean euri guciacquin ere guelditu gabe.

#### 10. §. *Elias-en iguesa.*

Iru urte eta erdiren buruan ain euri gozoa Jaincoagandic iritsita, goseteari ateac ichitcen ciozcan onguille andi arc, ¿cer arrera ona, eta saríac uste bear etcituen? Ala cirudien; baña guciac contra jaiqui citzayozcan. Acab, Jezabel, eta gañeracoac gueyago beguiratu cioten Profeta guezurrezco ayen ilteari, euriaren bitartez celoquien ondasunai baño: eta Elias igues-eguin bearrean arquite zan, batezere Jezabel biozt gogorrecoaren escuetan ez erortceagatic.

Jezrael-dic irten, eta berrogueta amar legua-bide ceu-

den Bersabee-ra joan zan. Emen utci zuen arterañooco gucian cerraiquion morroyà, eta oraindic ere beste egun bateco bidea berac eguinda, basoan sartu, eta licibra edo enebro-pe batean eseri zan, Naig ibez beterie, eguindaco mirarianquin Israel-tarren biotzac bigandu, eta ezagüeran sartu etciralaco, Jaincoari itzeguin cion; Asco det, Jauna, eta mundutic quendu nazazu; eta-arbolaren itzalean etzanda loac-artu zuen. Onela cetzala, aingueru batec uquitu, eta esan cion; Jaiqui zaite, eta jan zazu. Elias esnatu zan, alboetara beguiratu zuen, eta etzuen inor icusi: baña bai bere buruco-ondoan su-azpian erretaco oguia, eta charro bat ur. Jan eta edan cituen, eta berriz ere loac-artu zuen. Aingueruac bigarren aldian uquitu cion, esanaz: Jaiqui zaite, eta jan zazu, ceren oraindic bideasco eguin bearra daucazun. Jaiqui, eta ogui-urac jan-edan cituen, Oyec ain indar andicoac izan ciran, non, besteric gabe, berroguet egunean eta berroguet gaiten basoz-baso beti iguesi ibilli zan, Jaunaren mendia ceritzan Horeb-cora joan zan arteraño. Emen arzulo batean gordeta, egon zan. Jezabel-en mandatari, esque cerraizquionac, atcitu etceza ten.

Arzulo onetan cegoala, Jaincoac adierazo cion, atacara irteteco, andic igaro bear zuelatu, Irten zan, arpeguia bere mantuarequin estaliric; eta Jainac esan cion; ¿Elias, or certan zaude? Zure amorez quiscaltcen naço, ene Jauna: Eilas-ec erantzun cion; ceren Israel-tarrac zu utci, zure aldareac deseguin, eta zure Profetac il dituzten, eta ni baccaric gueratu naizan, eta ni ere il nayez, nere billan dabitzan. Zoaz, Jaunac esan cion, ecarri dezun bidetic biurtu zaite, eta Damasco-n sartcen ceranean, igortcico dituzu Hazael Siria-co Erreguetzat: Jehu Israel-cotzat, eta Eliseo zure ordeco Profetatzat. Baiditor eguna, Hazael-en-ganibitari igues-eguiten diona, Jehu-c ilco duena; eta Jehu-ren escuac atciten ez duena, Eliseo-c ilco duena; eta Baal-i belaunicatu etzayozcan zazpi milla guizon Israel-en gordeco ditut.

11. §. — *Eliseo-ren auquera.*

Elias Israel-era itzuli zan, eta Jaunac esana eguin zuen. Topatu zuen Eliseo amabi uztar idirequin arean ari zala. Elias alderatu citzayon, eta bere mantuarequin estali zuen, Jaunac Profetatzaraco autu zuela, adierazteco, eta Elias-ec aldeguin zuen, Eliseo idiac utciric, ondoren joan citzayon, ciotsala: Ontzat ar-zadazu nere ait amaetara joatea, atzen-laztana ematera, eta gueró jarraitu natzazu. Zoaz eta itzuli zaite, Elias-ec erantzun cion; bada, Jaincoac aguintua ni; eguin det. Eliseo joan zan, gurasoai atcen-agur eguitera. Bere bi idiac artu, il, are-echearequin su-eguinda ego-si, eta bere erritarrai jaten eman cien, eta gueró cebillen lecu gucian Elias-i jarraitu citzayon.

Profeta bi oyec barcadadean vici ciran, otoitz, barau, eta beste gauza on ascorequin prestatcen. Jaunaren Icen santuaren alde, eta idolozaleen contra demboraz irteteco. Acab eta onen emazte Jezabel-ec ere Elias billatceari utci cioten, lenagoco eguin-al guciacquin topatu etzulenean aspertuta. Amar urte ciran Profeta oyec vicitza Jaincozcoan, eta Acab eta bere mendeco Israel-tarrac idoloac adoratcen ciardutela, Ala ere oyei Jaincoac bere deyac egin nai izan ciezten, itzultcen ote citzayozcan icusteco.

12. §.—*Benadad, Siria-co Erreguearequin Acab-en arteco guerra.*

Benadad Siria-co Erregueác, beste ogueita amar Erregue, beren guizon armadun eciu esan ad; ñacoacquin, lagun arturic, Acab Israel-coari eraso cion, eta itsumustuñ oartzaca ateetaraño sartu citzayon: eta aurrena urre eta cillar guciac, gueró beren emazte eta seméac escatu ciozcan. Acab, Jainco eguiazcoaren contra aibeste aldiz alchatu zanac, etzuen biotzic izan, Benadad-i esque oyec ucatceco, eta urre cillar, emazte eta seméac aguintu ciozcan. Biaramonean berriz mendecoenac escatu ciozcan baña Acab-ec oraingoan ucatu ciozcan, eta cembait itz

garratzequin uco au gaztigatu cion. Benadad-ec bereala Samaria-co uria setiatu zuen.

Acab-ec, esturason onetatic irteteco, Jaunaren laguntza beste bideric etceucan; ala ere, gogor cegoan idoloac utci-ta, Jaincoronz itzultceco. Jainco erruquiorrac oraindic ere biguntasunez beguiratu cion. Profeta bat bialdu cion, adieraztera, aurrean ceucan gendetza izugarria egun artan berean escura emango ciola, ezagutu cezan, Jainco eguiaz-coa bera zala. Acab-ec berri gozatsu oni etcion esquer an-diric eman. Ala ere, Jaincoac lagundu cion, eta Benadad-en gendea bere banacacquin abarricatuta; iguesi bialdu zuen. Berriz ere Profetac itzeguin cion, esanaz: Zoaz atse-den ezazu, eta ondo beguiratu, urte beteren buruan Siria-co Erreguea datorquizunean, cer eguin bear dezun. Eguiaz bigarren aldian Benadad bere gende andiarequin joan citzayon, eta oraingoan ere Jaincoac Profeta beraren bi-tartez esan cion, menderatuco zuela. Bi aldeetacoac zazpi egunean aurquez-aurque egon ciran, eta alcenean elcarri erasota, eun milla Siria-co eraso-leeuan bertan il ciran, eta viciric irtendaco ogueita zazpi milla. Afec-co urira, gorde naye, joan ciran, eta murruac, azpianartuta, lertu cituen. Benadad morroi batzuequin guela ezcutu batean gorde zan, eta Acab-i gaztigatu cion, ¿ea viciric utzico zuen? Acab-ec bayezcoa eman cionean, joan citzayon, eta ondo artu zuen. Gueró elcarren arteco adisquidetasunac eguin-da, Benadad bere errira bialdu zuen.

Jaincoac etcion lambide au ontzat artu. Benadad-ec, Jainco eguiazcoari eguin izan ciozcan bidegabekeriac-quin, eriotza ondo irabacia ceucan, eta Acab-ec, cego-quin castigua, Jaunac escuan ipiñi cion ezqueró, eman bear cion, echera joaten utci gabe. Baña Acab-ec Jauna-ren esanai guchi beguiratcen cien; eta alcenean Acab-ec Benadad-i eguin bear izan ciona, Benadad-ec Acab-i eguin cion, laster icusico dan bezala.

### 13. §.—*Nabot-en mastia.*

Aitatu diran bi garaipen oyec baciruditen, Acab ezagüe-ran sartu bear zutela, eman ciozcan Jaincoronz itzultceco,

eta esquérrac emateco; baña langai onen contu gabe, Acab-en gogo gucia zan, bere anditasuna nola aguertuco zuen. Jezrael-en ceucan jauregui edo eche eder bat, non vici izaten zan urte gueyenean, eta gueyago edertceco asmoa artu zuen. Onetaraco Nabot ceritzan bati deitu, eta esan ción: Zure mastia indazu, nere eche-ondoan baratzatza bat eguin dezadan, eta beste bat ohea truquean, edo balioa dirutan emango dizut. Jaincoac gorde nazala, nere gurasoen ondadea zuri ematetic, Nabot-ec erantzun cion. Jaincoac Israel-tarrai debecatua ceucan, beren asabaetic cetorquien lurra saltcea; eta Erregueac nai zuen Nabot beartu, debecu au austeru. Acab, uco onequin chit aserreturic, su vician guelara sartu, eta oyea etzan zan, eta bazturreronz beguira jarrita, etzuen ecer jan nai. Onela cegoala, Jezabel gogorra sartu citzayon, eta esan cion: ¿Au cer da? ¿cerc ezlututzen zaitu? ¿edo cergatic jaten ez dezu? Senarrac erantzun cion, baratza eguiteco, Nabot-i mastia escatu ciola, naiz dirutan naiz beste obeago baten truque; baña itzetic ortzera ucatu ciola. Emazteac esan cion: ¡Nombait chit guichi dezaquezu! ¡Israel-co zure aguintea ondo eracusten dezu! Ots, ea jaiqui, jan eta zure barrun ori lasa-ezazu, eta Nabot-en mastia nic eratuco dizut.

Emacume biurri au oitua cegoan, guizonac ecer guichigatic gaitcen, eta Nabot-equicoa ere laster eguin zuen. Au vici zan errico guizon zar eta elduai bialdu cien charrel bat, senarraren icenean eguin eta onen erraztunarequin sillatua, señetan esaten cien: Barau bat eguiteco agundu ezazute, eta errico lenen, edo andientsuen artean Nabot ipiñi ezazute. Guero irabacico dituzute bi guizon guezurti, esango dutenac, Nabot-ec Jaincoagatic eta Erregueagatic gaizqui itzeguin duela, edo Jaunaren Icen santua aotan artu eta Erreguea madaricatu duela. Guero erritic bota, eta arrica ilco dezute. Guizon gaizto eta Jaincoaren bildur gabeco oyec, Erregueac gaztigatua osotoró eguin zuten. Bi lecucó edo testigu guezurtiren esanaren gañean Nabot arricatua il zan. Jezabel-ec ilberri au artu zuenean, senarrari joan citzayon, esatera: Ea jaiqui, eta zoaz Nabot Jezrael-tarraren mastia ceretcera, ceren Nabot illa dan.

14. §.—*Elias-ec Acab-i itzeguiten dio.*

Nabot-en il-berriarequin, onen mastiaren jabe eguitera, Acab Jezrael-era rijoalə, Elias Profeta; Erregue arc aimbeste itzutcen zuena, eta aspaldian Jezabel-ec galdu nai izan zuen ezqueró icusi etzuena, Jaincoaren aguintuz bidera irten citzayon, eta esan cion: Nabot il dezu, eta onen mastiaren jabetcera zoaz: ara bada, Jaunac cer dion: Chacurrac Nabot-en odola millizcatu duten lecu ber-berean, zurea ere millizcatuco dute. Au eta onelaco beste etorquizun negargarri asco, Elias-ec esan cion, izango cituela. Bera, bere emazte Jezabel, eta bere odoleco guciac, bat ere utci gabe, ondatuac izango ciralə, Jeroboan eta Baasa-requin guertatu zan bezala.

Berri icaragarri oyec Acab ipiñi zuten penitencia-antz bat eguitera. Cembat egunean buru macurtu, soiñ urrat 1, eta damuaren beste siñaleacquin ibilli zan; eta umillatce au Jaincoac ontzat artu cion; baña Acab luzaró egon gabe bere lengo gaiztaqueriaetara itzuli zan, eta gueróz, viciac iraun cion artean, etzan ondu.

Acab-ec Jezabel-gandic bi seme cituen, Ococias eta Joran, eta emazte azcarrac biac bere Erregue-lagun arerazo ciozcan, iltcen bazan ere, bata bestearen urrena sartu cedin. Andic laster Acab eta Siria-co Erreguearen artean guerra sortu zan. Ara cergatic.

15. §.—*Acab eta Benadad-en arteco guerra.*

Benadad Siria-co Erreguea Açab-en escuetan, len esan dan bezala, erori zanean, echera joaten, utci cion, Ramot Galaad-co erria bereala emateco itzean; baña Benadad-ec iru urteren buruan ere erri au uzteco gogoric etceucan: eta Acab-ec emendic Benadad-i erasotceco oña artu zuen. Asmo oyetan cebillen demboran, etorri citzayon icusi bat ematera, Judaco Erregue Josafat bere gurasquidea, ceñaren seme zarren Joran Acab-en alaba Atalia-requin ezconduta cegoan. Elcarrequin ceuden batean, Acab-ec Jo-

safat-i esan cion, Siria-co Erregueari ematera cijoañ aucian, aren alde jarri cequiola. Josafat-ec bere laguntza bertatic aguindu cion.

Baña Josafat-ec, Jaincoaren bildur andico guizon on bat izanic, utseguiteric izan etcezan, nai zuen jaquin, ¿ea guerra hura Jaincoaren gogocoa izango ote zan? Josafat-en eresi au Acab-ec icusita, Jezabel-en mayetic jaten zuten lareun profetai deitu, eta galdetu cion, ¿ea Ramot-Galaad-cori erasotcera, joan zan, edo ez? Guciac erantzun cioten, bayetz, eta erria artuco zuela, Josafat-ec etzuen lareunen artean Jaunaren Profetaric icusten, eta Acab-i esan cion: ¿Jaunaren Profetaric emen ez dago, onen bitartez, cer eguin bear dan, jaquiteco? Bat bacarra guelditu da. Acab-ec erantzun cion, eta au Miqueas; baña igüin det, berri onic beñere ematen ez didalaco Josafat-ec orduan esan cion: Ez orrelacoric esan, ¡O Erregue!

#### 16. §.—*Miqueas Profeta.*

Acab-ec Miqueas-i mandatari bat bialdu cion, etortceco, esatera. Bitartean beste profetac etcioten paquean uzten, esanaz, Ramot Galaad-cora joan cedilla, eta beretuco zuela. Miqueas aurquestu citzayonean, Acab-ec galdetu cion: ¿Ramot Galaad-cora joan bear guera, edo gueldi-gueldi egon guera? Miqueas-ec erantzun cion: Ardi artzai gabe-coen guisan, Israel guciai mendietan banatua icusi nuen, eta Jaunac cion: Oyec guidariric ez dute. Nor bere echera paquean itzuli bedi. Orduan Acab-ec Josafat-i esan cion: ¿Ez nizun esan, Miqueas-en aotic ez nuela berri onic adituco, ezpada charrac beti? Miqueas onembesterequin etzan isildu: esan ciozcan beste gauza asco ere, Acab-i eta bere profetai min ematecoac; eta oyetic batec masallaco bat eman cion. Acab-ec, Miqueas-en esanac ecin eramana, aguinduzuen, ichian sartuta, ogui-urac beste gauzaric eman gabe, iduqui cedilla.

Acab-ec Jaunaren Profeta bat onela erabilitea, etzan ambat miresteco, cembat gauza ayec guciac Josafat-ec icusita, Acab-i jarraitcea: Acab-ec, alabañan, aitortcen zuen,

igüin zuela, eta bere itzenean cijoan; baña Josafat, lenago Acab-i gogor eguiteco biotza izan zuenac, etzuen orain itzie atera, eta jarri zan, guerra artan Acab-i laguntcera. Erregue biac Samaria-tic irten ciran, Ramot Galaad-coari erasotcera. Acab-ec gogoan cerabilquien Miqueas-ec eguindaco eriotzaren queñadac, eta bildur zan gueyegui sarteen: bestetic baciequien, Siria-co Erregueác aguindua ceucala, Acab beraren contra indarrie gueyena eguiteco, eta iñola ere al-bacitequean, gañeracoac uteita, ber-bera galteco.

Acab-ec, bada, berea gogoan ceucala, eta onore andibat ematen bacion bezala, Josafat-i esan cion, Erregue-janciac artu eta Martiztiari aguintcen jarri cedilla: eta Acab bera beste edocein aguintari beeragocoen antzean joango zala. Josafat-ec etciequien Acab-en gogoco berri, eta gaitzuste gabe Erregue-soñecoac jancita, buruan coroarequin lenengo gurdian sarturic, asi zan erasolcen. Siria-rrac icusi zutenean, Erregue Acab zalacoan, beste guciai uteita, alde gucietatic ingurutu zuten, eta Siria-rran escuetan erortceco zorian Josafat arquite zanean, Jaincoari escatucion, laguntceco: eta eguin zuen deadarretic ezagutu zuten, etzala billatcen zuten Acab, eta onen esque, Josafat-i uteita, beste alderonz joan ciran. Guisa onetan eriotzaren amutic Josafat irten zan, Jaincoac Siria-rrai adierazo ciela-co, Acab etzala. Onec bitartean ustez bere burua ondo gordea ceucan: baña Siria-r batec menturara largatutaco gucia edo flecha batec jo zuen, eta bularrean sartu citzayon. Bereala Acab-ec ezagutu zuen, ecin gaizqui ce-goan, eta bere gurdi-zai edo cocheroari aguindu cion, lagun-artetic atera, eta aibo batera eraman |cezala; eta illunabarrean il zan. Josafat-ec Martiztia atceraerazo zuen, eta nor bere lecura, itzuli zan, eta Josafat bera ere bai bere soldaduacquin Jerusalem-era. Siria-co Erregueác ere Acab-en ilberria artu zuenean, lambide ari utci cion, eta soldadu guciac echeetara bialdu cituen.

Acab Samaria-ra eraman, eta bere gurasoen obian lurpetua izan zan. Bularreco idiquitic irtendaco odolez, gurdia eta ubalac busti ciran, eta chacúrrac miaztu cituzten,



Elias-ec leenaz esan zuen bezala. Erreguetzan oguei urte eguin cituen.

## EGUEITA BIGARREN IRACURGAYA.

### 1. §.—*Ocociaz, bederatcigarren Erreguea.*

Acab-en aulquian bere seme Ococias eseri zan. Ait-amaen bide ber-berac artu cituen, eta ayen gaiztaqueriaetan bereala erori zan. Aita ilda, aguintean bera bacarric jarri zanetic illabete guchiren epean, echeco baranda goi bate tic erorita, gatzquitu zan; eta bera sendatceric guizonetan etcegoala elsiric, Acaron-go jainco Belcebú-ri mandatariac bialdu ciozcan, viciric irtengo ote zan, galdetcera. Jaincoaren Ainguernác esanda, Elias mandatari oyei bidera irten citzayen, eta esan cien: ¿Israel-en Jaincoric ez da, Belcebú Acaron-goagana galdèac eguitera joan gabe? Zoaz eta Erregueari esayozu: Israel-co Erregueari Jaincoac ara cer dion: Cergatic mandatariac Belcebú-ri bialdu diozcasun, galdetcera, zautzan oyetic etcera irtengo: naita nai ez, il bear cera. Au esanda, Elias bere bacarrera itzuli zan; eta mandatariac ere bai, Ococias-gana. Onec icusi orduco, esan cien: ¿Certaco itzuli cerate? Erantzun cioten: Guizon bat bidera irten zagu, eta esan digu, biurtceco. Gueró cearó esan ciotenean; guizon arequin cer itzqueta izan zuten, galdetu cien: Cer tajucoa zan, edo cer janzquera zuen, topatu dezuten guizon orrec? Illez jancia, eta ubal batequin guerrian lotua, esan cioten.

Ococias-ec Elias-en antza bereala eman cion, eta berrogueita amar soldadurequin aguintari bat aren esque bialdu zuen. Aguintari onec Elias mendi-tontorrean icusi zuenean, esan cion: Jaincoaren guizona, Erregueac aguintcendu jatsi zaitecela. Jaincoaren guizona banaiz, Elias-ec esan zuen ceruco suac zu eta zure berrogueita amarrac erre zaitzatela. Ordu berean sua cerutic jatsi, eta guciac quiscaldu cituen. Erregueac, berriz ere, beste berrogueita amar guizonequin aguintari bat bialdu zuen: lenagocoac bezala, Elias-i itzeguin cion; eta cerutic berebat jatsi zan

suac, guciac erre cituen. Erregueac irugarren aldian beste berrogeita amarrequin aguintari bat bialdu zuen: baña oraingo aguintaria bestéac baño buru obeagocoa izan zan. Mendiaren oñera zanean, bere lagnacquin belaunicatu, eta Elias-i erregutu cion onela: Jaincoaren guizona, ni eta nere lagun belaunico gauden zure servitzarioc, viciric gorde gaitzatu.

Orduan Jaincoaren Aingueruac Elias i esan cion: Guizon oriequin zoaz, eta ez icaratu. Elias menditic jatsi, eta Samariara joan zan. Ococias-i aurqueztu citzayon, eta esan cion: Cergatic mandatariac bialdu ciñituen, Acaron-go jainco Belcebúri galdéac eguitera, Israel-en Jaincoric ez balitz bezala, zautzan oyetic etcera irtengo: barcacio gabe ilco cera. Au esanda, Elias-ec aldeguin zuen. Andic laster Ococias Erreguea il zan; eta Joran bere anaya Erreguetzan sartu zan.

Gueróz etzan Elias ere munduan luzaró egon. Au ondo ezaguturic, bere icasle Eliseo-requin Galgala-tic irten zan, eta bide zati bat biac eguin zutenean, Elias-ec Eliseo-ri esan cion: Emen guelditu zaite: bada, Jaunac betel era bialtzen nau, Eliseo-c iguerri cion, mundutic bacijoala, eta an egoteco esaten ciola, nola cijuan icusi etcezan. Icasle leyal onec erantzun cion: Etzaitut, ez, utzico. Betel-era biac jatsi ciran, eta emen vici ciran Profeta-seméac Eliseo-ri esan cioten: ¿Ez daquizu, zure maisu gabe guelditcen cerala? Badaquit, erantzun cien: Isillic zaudete. Emen ere Elias-ec aldeguin nai izan cion; baña Eliseo eruai cebillen eta etcion utci, Emendic Jericó-ra joan ciran, eta emengo Profeta-seméac ere Eliseo-ri berri bera eman cioten, eta esan cien, isillic egoteco. Elias-ec Eliseo-ri irugarren aldian esan cion: emen guelditu zaite; bada, Jannac Jordan-era bialtzen nau; baña Eliseo-c oraingoan ere, lengo bietan bezala, esan cion, etciola utzico.

Elias-ec icusiric, Eliseo-ren leya beguetatic ez uzteco, eta nora-nai ondoren cerraquiola, biac Jordan-go ibai-ondora joan ciran: Elias-ec capa tolestatu, eta onequin ura jozuen, eta ibayaren erdian idiqui citzayon bide leorretic, biac beste alderonz igaro ciran, ondoren cerraizquion Pro-

feta-seméac atzean utcita. Emen Elias-ec Eliseo-ri esan ción: Cer nai dezun, escatu zadazu, zugandic aldeguin baño lenago, eguin dizazudan. Eliseo-c erantzun cion: Zure bi espirituac nai ditut. Espiritu bi oyec, Santo Tomàs-ec dionez, etorquizúnac asmatceco, eta mirariac eguiteco escua ciran. Asco nai izatea da, Elias-ec esan cion: guciac ere, zugandic aldeguiten icusten banazu, bi gàuzac izango dituzu; bestela ez.

2. §—*Mundutic Elias-en ezcutaquera.*

Moab-co celayetaronz biac itzqueta gozo-gozoan cijoa-cela, bat-batetan aguertu citzayen suzco gurdi bat, berebat suzco zaldiac cerabiltena, eta Elias gurdi onetan sartuta, ceruronz igo zan. Eliseo-c cecusan, nola Elias gurdiac ceraman, eta atsecabez beleric, deadar eguin cion: ¡Ene Aita! ¡Ene Aita! ¡Israel-co gurdia eta bere itzaya!!! Baña Elias ezcutatu zan, eta eliseo-c etzuen gueróz icusi.

Eliseo bere maisu on Elias gabe arqutu zanean, negarrari eman citzayon, eta lantu eta cispuruz cegoala, jatsi citzayon Elias-ec erortcen utcitaco capa, eta Eliseo-c eza-gutu zuen, escatu ciozcan bi escualdi, etorquizúnac asma-tceco, eta mirariac eguitecoac, berequin cituela. Capa au artuta, Jordan-era itzuli zan, eta bere maisuac bezala, Jordan-go ura jo zuen; baña bideric etcitzayon idiqui. Orduan deadar eguin zuen: ¿Elias-en Jaincoa orain non da? Berriz ere jo zuen, eta urac bi aldeetara zabalduric, bidea idiqui citzayon: eta ibaya oñleorrez igaro zuen.

Profeta-seme Jordan-go ibayeraño Elias eta Eliseo-ri lagundu cietenac, ayetatic banacatu ezqueroco eguiguera oyec guciac cecusquiten, eta Eliseo bereetaratu citzayene-an, esan zuten: Elias-en espiritua Eliseo-ri sartu zayo; eta auzpezturic, agur eta arrera chit andia eguin cioten. Eliseo Jericó-ra joan zan, eta erri onetacoac escatu cioten, ango urac, arren, ondu citzala: guciz ciran, alabañan, gaiztoac, edale asco il, eta lurra elcortcen zutenac. Jericó-coac escatua eguinda; Beteleronz abiatu zan. Errira urreratu zanean, mutillac irten citzayozcan, buruan illeric et-

zuelaco, iseca eta farra eguiñaz, ciotsatela: ¡Atór, buru zurial ¡ator, buru zuria! Eliseo-c beguiratu cien, eta Jaincoaren icenean madaricatu cituen. Bereala basotic bi artz izugarri irten ciran, eta berroqueita bimutil triscatu cituzten. Eliseo emendic Samaria-ra joan zan.

3. §.—*Joran, amargarren Erreguea.*

Israel-co a nargarren Erregue Joran-ec, anaya Ococias ilda, arestian esan dan bezala, Erreguetzan sartu zanean bereala, artu zuen Acab bere áita zanaren mendetic irten nabez, abiatu ciran Noab-tarraí erasotceco asmoa, Joran-ec Juda-co Erregue Josafat, eta Edon-goá bere al le cituen. Iru Erregue oyec Eliseo Samaria-n sartu zan egunetan, lambide artaraco elcargana batu ciran; eta Jordan-go ibaya igarotcea baño, leorrez joatea aisago izango zutelacoan, Moab-co Erreguearen billan Idumeaco bascotatic abiatu ciran. Bidean zazpi egun eguin citaztenean, ura aitu citzayen, eta egarriac zaldi asco ilteen ciezten, eta guizonac ere ilteco zorian ceuden. Estura larri au icusiric, Joran asi zan bere jaincoacgatic gaizqui esaca, eta espa miñac aguertcen. Baña Josafat-ec besteric eguin zuen. ¿Eimen ez da, galdetu zuen, Jaunaren Profetaric emen ez da, bere bitartez ura escatceco? Israel-co Erreguearen morroi batec erantzun zuen: Elias-en servitzari Eliseo emenche da. Ori Jaunaren profeta da, Josafat-ec erantzun zuen, eta iru Erregueac joan citzayozcan. Eliseo-c aurrean icusi cituenean, Joran-i esan cion: ¿Nic zurequin cer eguinquizun det Zure ait-amaen profetaetara zoaz. Joran-ec bere quejurac aurrera ceramazquien, esanaz: ¿Certaco Jaincoac iru Erregueoc emen bildu gaitu, Moab-coaren escuetan erortceco? Joran-en esaquera onequin Eliseo aserreturic, erantzun cion; Baldin Josafat-i diodan beguiruneagatic ezbalitz, ez nizon, ez, entzungo, ez eta beguiratuco ere. Gueró esan cien: Erreca onetan erre-ten-zulo batzuec eguizquizute. Aiceric eta euriric ez dezute icusico: ala ere, Jaunac urez beteco ditu: eta gañera Moab escuratuco dizute. Biaramonean gucia guertatu zan, Eliseo-c esan bezala. Erreten-zuloac urez bete ciran, eta guizon eta aberéac, nai adiña, edan zuten.

4. §.—*Eliseo-ren mirariac.*

Moab-tarrac beren lurreco sarrerara irten citzayezten, arpegui ematera. Baciequiten, bazter ayetan aspaldian uric etzala; eta erreten-zuloetaco urac icusi cituztenean, eguzquiaren goizeco irleeraco arguira, gorritaracoac iruditu citzayezten, eta esan zuten: Odola da: Erreguéac elcarrequin aserretu, eta escuetara dira. Moab-tarrac bereala joan ciran, bestéac gogor eguiteco eran etceudelacoan; baña chit gaizqui irten citzayen. Illac il, eta gañeraco gucia iru Erreguéac aurrean artu, eta etciran guelditu, alic eta igues-eguin cezaqueten banàcac beren Erreguearequin Moab-en sartu ciran arteraño.

Eliseo-c esan guciac guertatu ciranean, Samaria-ra itzuli zan; eta andre alargun bat aurqueztu citzayon, esanaz, senarra ilda, guelditu citzayozcan bi seme, artcecodun batec quendu nai ciozcala, zorta quitatu artean, bere morrontzan iduquitceco. Eliseo-c esan cion: ¿Cer nai dezu, bada nic eguitea? ¿Echean cer daucazu? Andreàc erantzun cion: Nic ezdaucat ecer ere, iltcen naizanean nere gorputza igorecitceco olio apur bat baicic. Zoaz, Eliseo-c esan cion, eta al-dituzun auzoetaco ontci guciac bildu itzatzu, eta olio apur hura ontci oyetan sar-ezazu, eta gordeco dituzu. Eliseo-c esana andreàc eguin zuen, bere seméac laguntzen ciotela, eta olio apur arequin ontci guciac bete ciran. Mirari andi au icusita, Eliseo-ri joan citzayon, esatera; eta Eliseo-c aguinta cion, zorra pagatu, eta gañeracoarequin bera eta bere seméac vici izan citecela.

Eliseo-c bere escualdi andia eracusteco bidea, berriz ere, laster izan zuen. Bere maisu Elias ibilli izan zan bezala, erlegioco gauzac eracusten, eta Jaunaren bildurra biotzetan sartzen, cebillen bein batean, Siria-co emacume Israel tar on baten echean ostatuz guelditu zan. Emacume biotz oneco onec Eliseo-ren ontasuna ezaguturic, senarrari esan ción. Jaincoaren guizonen bat zala, eta chit ondo ceritzala guelacho bat bere oi, aulqui, mai eta beste gauzacquin ipintcea, cetorreanean, nai zuen eran, emen egon cedin.

Senarraren baimenarequin emazteác ala eguin zuen.

Ibilli-aldiac eguinda, eche onetan sartu zan bein batean echeoandreari esquerrac eman nayez, deitu, eta guelaco atera zanean, esan cion, ¿Ea Erregueariedo soldadu-aguintariari aren alde itzeguitea nai zuen? Andreác erantzun cion, errian paquean vici zala, eta iñori itzeguin bearri etceucala. Bigarren aldian Gieci bere morroyarequin gazingatu, eta atera igo citzayonean, esan cion: Gaur urtebete ordu onetan berean, seme bat eguingo dezu. Ez zure servitzari oni orrelaco losenchaqueriaric eguin, erantzun cion Lenago aurric izan etzuen, eta senarra urteetan aurrertua zan; ala ere, andic urtebetera, Eliseo-c esan bezala, seme bat izan zuen.

Seme au acitcen cijoan, eta egun batean aitagana, iguitariacquin ari zan sorora, bialdu zuen, eta egúzquiác burua artuta, esan cion, buruan min zuela; eta aitac bereala morroi batequin echera bialdu zuen. Echera zanean, il zan, amaren eguin-alac ecer irichi gabe. Ama on hurabere semea gabe arqitu zanean, astoan jarriric, Carmelo-ra joan, eta Eliseo-ri auzpez jarri citzayon, oñetatic itsatsita. Gieci Eliseo-ren morroyari etcitzayon ondo erori, oñetan ala egotea, eta qrendu nai izan zuen: baña nagusiác eragotci cion, esanaz; utzayozu bere barruna penalan daucanari. Negar-malcoz oñac bustiaz bere miña aracusten cion eta Jaunagandic semearen viztutcea irichitceco ceucan eresia, aguertcen cion. Eliseo aurra cetzan lecura joan zan, ama ondoren cerraiquiola. Guelan sartu, eta atea ichi zuen Aur illa icusiric, oyezan sartu zan, eta gañean etzan citzayon musuz-musu, aoz-ao, beguiz-begui, eta escuz-escu, eta aurra asi zan berotzen. Oyetic jaiqui, eta echean oronzononz bacebillen. Eliseo berriz ere oyeratu zan, eta aurra-ri gañean etzan citzayon. Aurra aozabalca asi zan, eta zazpigarren aozabalcarequin batean, beguiac idiqui cituen. Eliseo-c bereala amari otseguin, eta seme vicia eman cion.

5. §.—*Naaman Siria-coaren sendatcea.*

Mirari oyec, eta onelaco beste asco eguiten Eliseo cebi-

llenean, Siria-co lapur batzuez, Israel-en eguindaco sarrera batean, catibu eramán zulen Israel-co nescach gazte bat, ceñoren ederra eta arguia icusita, Naaman-en emazteac nescametzat artu zuen Naaman zan Siria-co Erreguearen Martiztietaco aguiotaria, guizon aditua, bere erriari on asco eguin izan ciona, aberatsa, eta Erreguearequin Siria-gucien biotzac bere cituena; baña leguenar edo lepraz josisia, eta arteraño artutaco sendagarri, guciac ecer eguin etciotena. Nescach catibu onec bein batean echecoandreari esan cion: !Ah, Samaria-n vici dan Profetagana nere nagusia joanizan balitz! Dudaric gabe onezqueró sendatuta cegoan. Emazteac bereala senarrari aitalu cion, nescamea c ciona, eta Naaman eguitera jarri zan. Erregueari joan c - tzayon, esanaz; Nere nescachac au eta au dio; eta baimena escatu cion. Erregueac baimena, ez ecic, Israel-co Erreguearentzat chartel bat eman cion, ciotsala: Chartel au artcen dezunean, jaquingo dezu, nola Naaman nere servitzaria bialcen dizudan, leguenarra sendatcera. Israel-co Erregueac, chartel au artu zuenean, soñecóac urratu, eta deadar eguin zuen: ¿Vicitza eta eriotza escuan dauzcadan Jaincoren bat ni al-naiz, guizon onen gaitza sendatu deza-dala, niri gaztigatceco? Beguira, bere servitzariai esan cion, Erregue au apuco billan dabil, niri erasotceco.

Eliseo-c jaquin zuenean, Israel-co Erregueac cer eguin zuen, gaztigatu cion: ¿Certaco soñecóac urratu dituzu? Naaman nigana betor, eta jaquin beza, Israel-en Profeta badala. Naaman joan, eta Eliseo-ren eche-atarian guelditu zan. Eliseo c arpeguiric eman gabe, morroi batequin Naaman-i gaztigatu cion, Jordan-go ibayean zazpi aldiz garbitu cedilla, eta sendatuco zala. Naaman-ec elcion, bera aguertu gabe, gaztigu an bialcea, ontzat artu, eta aserre vician atceronz bacijoan, esanaz; Nic uste nuen, guizon ori aurquestuco citzadala; bere Jaincoari erregutuco ciola-eta nere gaitza escuz uquituta, sendatu zuela. ¿Cer? ¿Damasco-co urac Israel-coac baño ni garbitceco obeac ez dira? Morróyac icusi zutenean, echeronz bacijoala, esan cion: Baldin Profetac gauza gogor eta nequez bat agundu izan balizu, osasunagalic eguin bearco cenduen. ¿Cerga,

fic, bada, eguingo ez dezu arc aguintaco gauza erraz ori, nola dan ibayera joan, eta garbitcea? Naaman-ec ezagutu zuen, morroyac ondo esaten ciotela. Jordan-go ibayera jatsi, eta zazpi aldiz garbitu zan, eta leguenar gucia, joan citzayon, bere aragui-azal gucia, aur jayo-berri batena bezain leuna eta ederra, guelditcen zala.

Naaman-ec bere burua onela garbitua eta sendatua icusizuenean, bere lagnn guciacquin Eliseo-ri joan citzayon, eta esan cion: Orain ezagutcen det, Israel-coa beste Jaincoric lurrean ez dala. Bereala esqueñi ciozcan berequin ceramazquien urre, cillar, eta valio andico janci asco: baña Eliseo-c artu nai izan etciozcan. Naaman, berriz eta berriz ere leyatu citzayon, artceco; Baña alperric. Gerroenean, bi mandoz eraman-al lur eramateco baimena escatu cion, esanaz, aldare bat eguiteco cituela, eta egundano Jainco eguiazco bacarra baicic etzuela ezagutuco; eta agur andi bat eguinda Eliseo-gandic Naaman-ec aldeguin zuen.

### 5. §.— *Giesi lepraz betea.*

Onec aldeguin bezain laster, Giesi Eliseo-ren morroyac beregan esan zuen: Nere nagusiac Naaman-i ez dio ecer artu nai izan: baña ni ondoren banoaquiola, eta, esqueñtceñ didana, artuco diot. Naaman-ec icusi zuenean, Giesi bere roncz cijoquiola, bidera irten citzayon. Giesi-c esan cion; Nagusiac bialdu nau, zuri esatera, Efraingo bi mutil gazte Profetacumeac etorri zayozcala, eta talentu bat diru, eta bi soñeco emateco. Naaman-ec bat baño bi obe cituela esan, eta bi talentu eta bi soñeco bi zacutan sarturic bialdu zuen, bere bi morroi jasalletzat emanda. Giesi illunabarrean echera itzuli zan; gorde cituen, eta morroyac nagusiagana biurtu ciran.

Giesi, ecer eguin ezbazuen bezala, Eliseo-ri aurqueztu citzayon, eta nagusiac galdetu cion: ¿Nondic zatoz? Zure servitzaria ez da inon izan, erantzun cion. ¿Cer? nagusiac esan cion, ¿nere espiritua beguira etcegoan Naaman bidera irten citzazunean? Orain, bada, olivadiac, mastiac,



ardiac, idiac, eta morroi-nescameac erosteco asmoan diru eta soñecoac Naaman-gandie artu dituzun ezquerò, Naaman-en gaitza ere zurequin eta zure ondorengoacquin beti izango da: eta Gieci, bereala Eliseo-ren ondolic leguenez edo lepra zuriz osatoró josia, irten zan. Gueróz ezdaquigu, Eliseo-c bere servitzora artu zuenic; ondorengo berrogueita amar urteetan, beintzat, ez da aren aitamenic eguiten.

Dembora onetan Israel-co eta Siria-co Erregueen artean guerra agueroric ezbazan ere, Israel-coac eta Siria-coac beti elcarri asco charqueria eta dollorqueria eguiten cebiltzan. Eta oyec guciac beingoan bucatceco, Siria-co Erregueari gogoac eman cion, bideric obena zala, Israel-coari escuac ezartcea. Jaquin zuen, noiz eta nora bere egurastuac artcera, eta ibilli-aldiac eguitera, irteten zan. Alde oyetara celatariac bialdu cituen, aguinduric, contuan egon citecela, Israel-co Erreguea cijoanean atcemateco.

Eliseo illabete batzuez lenago Galgala tic Dotan-era aldatu zan, eta Israel-co Erregueari Siria-coaren asmo gaizto guciac Dotan-dic salatzen ciozcan, eta Siria-rrac zabalteen ciozcaten sare guciac, ecereztutcen cituen, Siria-co Erregueac uste izan zuen, bereetacoren batec saltcen zuela, eta bein batean chit aserreturic, bere servitzari nagusiai esan cien: ¿Certaco aguertcen ez didazute, Israel-co Erreguearen alde salduqueriaz dabilquidan ori? Ez dago, ez-Jauna, emen salduqueriaric, batec erantzun cion. Israel-co Profeta Eliseo-c salatzen diozca, zue zure bacarrean esaten dituzun itzie isillena ere. Siria-co Erregueac salati au nor zan jaquin] zuenean, eta Dotan-en cegoala; soldadu zaldizcoac bear ciran prestamen guciacquin bialdu cituen, erria inguratcera. [Gaitiaz joan, eta Dotan alde gucietatic setiatu edo esitu zuten.

☞ Biaramonean egun sentian Eliseo-ren morroi bat eche-tic irtenda, inguru gucian soldadúac icusitacoan, nagusiarri joan citzayon, esanaz: ¡Ay, ay, ay, Jauna! ¿Cer eguin bear degu? Eliseo-c orduraco iguerri cion, cer zan, eta erantzun cion: Ez icaratu; bada, ayecquin baño gurequin gueyago dira. Bereala jarri zan, Jaunari erregutcen eta escatcen, arren, morroyaren beguiac arguitu citzala. Morro-

yác mendi bat icusi zuen, eta onen erpiñean Eliseo bera zuzco gurdi eta zaldiz inguratua. Eliseo bere morroi bizcortu onequin Samaria-ronz irten zan; baña Siria-arren artean laster sartu zan. Eliseo-c orduan Jaunari escatucion, arren, Siria-rrren beguiac illundu citzala, eta guciac bereala jarri ciran, ecer ere ecin icusi zutela. Itsumen onetan ber-berari galdetu cioten, ¿Eliseo non zan? eta erantzun cien: Eliseo arquitceco lecoa au ez da: nerequin atozte, eta nic eracutsico dizutet, non dagoan; eta Samaria-raman cituen. Errian sartu ciranean, Eliseo-c escatuta, Jaincoac beguiac arguitu ciezten; eta icusi zuten, Eliseo bera zala ará eraman cituena, eta Samaria-n beren etsayen erdian ceudela.

Israel-co Erreguéac il nai izan cituen; baña Eliseo-c ecicion utci; eta jaten eta edaten emanda, beren toquirabialdu cituzten,

#### 7. §.—*Israel-co gosetea.*

Siria-rrac Israel-en icusi zuten guizabide andi onec, baddirudi ordain ona mereci zuela; baña Siria-co Erreguéac etzuen aintzat artu. Andic laster Samaria setiatu zuen. Jaincoac Israel-i bialdutaco gosete izugarriac bostgarren urtea ceraman, eta setio luce onequin Samaria-rrren estura eta gosetea are gueyagotu zan. Ango jan-gauzaen ezizana cembaterañocoa zan, ezagutceco, ezdago beguirateca baicic, asto-buru batec seieunda ogueita amir erreal eguiten cituela, eta guisa onetan beste gauza guciac ere saltcen ciran. Baña ara beste guertacari bat, esan dana obeto eguizdatceco. Egun batean Erreguea murrugañean cebillen, bazterrac nola gordeta ceuden, icusten, eta emacume batec atctic deadar eguin cion: ¡Ene Jauna eta Erreguea! gorde nazazu. Erreguéac erantzun cion: Jaunac gordetzen ezbazaitu, ¿nola nic gorde zaitzaquet? ¿Cer nai dezu nic eguitea? Emacumeac esan cion: Onaco andre onec esan cidan; Zure semea gaur jan dezagun, eta gueró nerea jango degu. Egosi eta jan guenduen; orain esan diot, berea ere jan dezagula, eta ez du nai, eta ezcutatu

du. Itzqueta izugarri eta gogor onec Erregueari biotza erdiratu cion, eta etzuen ecer erantzuleco quemenic izan. Soñecoac urratu cituen, eta erricoac icusi cioten, burni zorrotzez eguindaco atorra edo cilicioa araguiari sartuta ceramana: ezagutcen zuen, alabañan, Jaincoa aserreturic cegoala; ordea penitenciaren siñale oyec eman arren, Jau-naren sua itzaltceco bidean etcebillen; eta gaitz guciac Eli-seo-ri ezarri ciozcan, eta au ilerazo nayez, borrero bat bialdu zuen, topatcen zuen lecuan lepo-moztutceco, aguinduta. Jaincoac Elisiori aguertu cion, Erregueac cer aguindu zuen, eta bere lagunai esan cien, nola iltcera guizon bat ceterquion, eta alea contuz ichi cezatela, sartu etcedin, eta Erreguebera erendoren ceterrela, len aguindua eragoztera.

Erreguea Eliseo-ren guelan sartu zanean, Eliseo-c Erregueri hura iltceco emandaco aguinduaren gañean itzeguin gabe, esan zuen: Biar ordu onetan Samaria-co atean iriñic obena lacaria errealean salduco da. Erregueari es-cua laguntceco ematen cion batec, Eliseo-ri esan cion, Jaincoac cerutic eurijasaren guisan garia bialduta ere, e-tzala alacoric guertatuco. Profetac erantzun cion: Zure beguiac icusico dute; ez dezu, ordea, jaingo.

Dembora onetan lau lepradun Samaria-co ateaz campora egon oi ciran, miñantz onetacoac errian vicitcea, debe-catuta cegoalaco; eta aimbesteraño gosetea zabaldu zan, non, iñorgandic ere laguntzaric etzuten, eta elcarri esan: cioten: ¿Certaco erioaren beguira emen egongo guera? Siria-rretara goacen. Viciric uzten bagaituzte, vicituco guera, eta iltzen bagaituzte, ezda ansi, emen ere demboraz il bear gueran ezqueró. Illunabar batean irten ciran, eta Siria-rren etzauntzaetara alderatu ciranean, Siria-rren artean, Jaincoac ala naita, sortu zan ost icaragarri, soldadu-talde andiac beren zaldi gurdi eta tresnacquin eguin oi duen antzecoa, eta Siria-rrac iscambilla hura entzun zutenean, uste izan zuten, Israel-co Erreguea, auzocoac lagun artuta, gañean zutela, eta cegoana cegoan toquian utziric, gau illunean iguesari eman citzayozcan.

Lepradunac chaola batean sartu ciran eta jan-edanac, urrea, cillarra, eta beste gauzac chit ugari arquitu cituzten.

Beste batean ere sartu ciran, eta berebat gauzaz betea, eta iñor gabe, topatu zuten. Bereala errico atera itzuli, eta Erregueari gaztigatu cioten, cer guertatcen zan. Guizónac bialdu cituen, eguia zan edo ez, jaquitera, eta berri onacquin biurtu ciranean, Samaria-rrac joanda, Siria-rrac utcitaco ondasun guciac, artu cituzten ain ugari, non, lacari iriña errealean saltcen zan. Gauzaz beteta cetorren gendea errian eraz sartu ce lin. Erregueac atean contu-artcen ipiñi zuen, aurreco egunean Eliseo-ri sinistu nai izan etcion guizon aguintaria, eta urduriquerian sartzen zan gende-talde batec azpian artu, eta lertu zuen; eta Eliseoren esana bete-betea guertatu zan: Zure beguiac icusico dute, ez dezu, ordea, jango,

Aitatu diran gauza miragarri oyec baciruditen, Israel-co Erreguea eta Israel-tarrac centzatceco bear adiña; baña ondu bearrean beren bide galduari cerraizquion, eta idolo-adoratceari uzten etcioten. Andic laster Eliseo Damasco-ra joan zan, eta Benadad Siria-co Erregueac Hazael servitzari nagusia escueracutsi ascorequin bialdu cion, galdetcera, ¿ea oaluta ceucan gaitz, eta miñantz artatic sendatuco zan? Eliseo-c Hazael-i erantzun cion: Erregueari esayozu, sendatuco dala; baña Jaincoac adierazo didanez, laster ilco dala. Au esan, eta arpeguia zuricaturic negarrari eman cion. Hazael-ec galdetu cion, ¿ea certaco negar eguiten zuen?; Daquidalaco, erantzun cion, Israel-co semeai gaitz andiac ecarri bear dieztezula. Gueró atcenean esan cion, bera Siria-co Erregue izango zala, eta Eliseo-c aldequin zuen.

Hazael au anciñatic cegoan, Elias-ec Erreguetzat isillic igortcia, eta orain Eliseo-c emandaco albistarequin, bertatic Erregue izateco guticiac artu zuen. Mandatua eguinda, Erregue Benadad-gana itzuli zan, eta Eliseo-c cer erantzun zuen, esan cion. Biaramonean Erreguea icusteco aitzaquitan, guelan sartuta, oestalqui busti-busti batequin arpeguia estali cion, eta itzic ere esateco lecu gabe, ito zuen. Benadad onela ilda, bereala Hazael bera onen lecu jarri zan, eta andic urteetara eracutsi zuen, Eliseo-eguín daco negarra, cein bidezcoac izan ciran.

8. §.—*Israel-co Erregueac Siria-coariemandaco guerra.*

Joran Israel-co Erreguea Siria-rrai beti ayer citzayen, eta uste izan zuen, erasotceco eraric obena, Erreguea odol otzic ala ilda, onen aulquian iltzallea jarritaco orduan, zala; etcirala, alabañan, gogor eguiteco egongo. Asi zan Hazael-i erasotcen, Ramot Galaad-coa setiatuaz. Onetara-co Ococias Juda-co Erreguea laguntzat artu zuen, Lembicico erasoetan Joran-ec cembat zauri artu, eta Jezrael-era itzuli zan, sendatcera, Juda-coa ere gueroago joan citzayon, icusi bat ematera, bitartean bere lecuan utciric Jehu, ceña guerrari aditua eta arguia zan, eta bere vicilecua emen artu zuen.

Egun oyetan Eliseo-c Profeta gazte bati esan cion: Olion-tci au artuta, Ramot Galaad-cora zoaz: Jehu-ren echean sartuco cera; guela ezcutu batera eramango dezu; eta olio a u burura isurico diozu, esanaz; Ara Jaunac cer dion: Israel-co Erreguetzat igortci zaitut. Au esanda bereala, atea idiquico dezu, eta iguesi joango cera. Eliseo-c agundua Profeta gazteac eguin zuen, esanaz: Jaunac au dio: Israel-co Erreguetzat igortci zaitut: Acab-en echea ondatuco dezu. Gueró adierazo cion, Jezabel-en odoleco guciac, sabeleco aurrai ere barcatu gabe, Jehu beraren bitartez Jaunac ondatu nai cituela, aren Profeta eta servitzari asco ilerazo cituelaco: Jezabel-en gorputz-illari norc lur-emanic izango etzala: Jezrael-co campoan zacurrac jango zutela. Gauza oyec guciac esanda, igues-eguin zuen. Jehu bere lagunetara itzuli zanean, oyec galdetu cioten: ¿ea zoro huracertara joan citzayon? Idolozale ayec Jaunaren Profetari icen au ematen cioten. Jehu-c aguertu cien, Profetac esan eta egundaco guci-gucia; eta bereala Jehu-ren oñpean capac ipiñita, Erreguetzat ezágotu zuten.

Jehu arguia eta lendanic gauzai beguiratcen ciequiena zan, eta lembicico lana izan zan, Jezrael-en ceuden Iraél-co Erregue Joran eta Juda-co Ococias-en aurrean jartceco, ondo prestatcea. Bera baño lenago besteric joatea debecata zuen, cer guertatcen zan, esan etcezan, Mendean ceuzcan soldadu guciac artuta, Jezrael-eronz bacijoan.

Uritic icusi zutenean, gende-samalda andi bat alderatcen zala, Joran-ec iru mandatari, elcarren urrena, edo bal-banaca, bialdu cituen, jaquitera, ¿ea guisa artan cer ce-carten? Baña iru mandatariac berequin guelditu, eta Jehu; eguin-al gucian, aurrera cijoan. Orduan ezagutu zuten, Jehu zala. Bereala Joran eta Ococias, nor bere gurdian, bidera irten citzayozcan. Joran-ec Jehu-ri, icusi orduco, esan cion: ¿Jehu, paquea degu? ¿Cer paque?, Jehu-c eran-tzun cion. Jezabel zure amaren lasaiqueria eta liquitsque-riac bere oñera diraute. Joran-ec au entzun zuenean, igues-eguin zuen, eta Ococias-i deadar eguin cion; ¡Ococias, sal-duac guera! Onetan Jehu-c guecia edo flechari utci cion, eta Joran-i bizcarraren erdi-erdian biotzeraño sartu citza-yon; eta illotza erori zan. Bereala gurditic artuta Jehu-ren morroi Badacer-ec Nabot-en larrañera bota zuen.

Ococias Juda-co Erreguéac ere, Joran-en patua icusita-coan, igues-eguin nai izan zuen; baña ondoren cerraizquio-nac zaurituta iguesca cijoala, Magedo-n il zan, Bere morró-yac gurdian artuta, Jerusalem-era eramán, eta bere gura-soen obian lurpetu zuten.

### 9. §.—*Jehu, amaicagarren Erreguea.*

Ona emen Jehu Israel-co amaicagarren Erreguearen sarrera eta asiera: sarrera odolezcoa, asiera gogorra; ba-ña gueró isurerazo cituen odolezco ibayen parean, iturri chiqui eta tantaca baicic etceriona, laster icusico degun bezala.

Jehu, bada, Joran eta Ococias ilda gueró, Jezrael-era cijoala, Jezabel Joran-en ama biotz gogordun arc jaquin zuenean, beguiac belurrituric, eta burua ederqui apaindu-ric, leyo batean jarri zan, Jehu-ri beguira, esanaz, ¿Pa-queric ecarri dezaque, Zambri-c bezala, bere Erreguea ilda, datorren orrec? Jehu-c beguiac leyoronz jasota, esan zuen: ¿Andre ori nor da? Jezabel-ec berequin ceuzcan morró-yac agur eguin cioten, eta iguerri cionean, Jezabel zala, aguindu cien, leyotic beera botatceco. Bereala bota zuten; colpearequin gorputza lertu zan; inguruco pareta

guciac odolez gorritu ciran, eta gorputza zaldiac oñazpian erabili zuten. Jehu Jaureguian sartuta, bere lagunaquin bazcalcen cegoala, Jezabel-ez oartu zan, eta morroyai esan cien: Zoazte eta emácume madaricatu hurra lurpetu ezazute: nolabaitecoa izan bada ere, Erreguearen alaba zan, Joan ciranean, etzuten buru-ezurra, oñac eta escuco beatzac besteric arqutu; bada, gañeraco gucia orduraco zacurrac jan zuten. Berri onequin morróyac Jehu-ri itzuli citzayozcanean, esan zuen; Jaunac Elias-en aotic esana, guertatu da.

Jezabel iltzea asco etzan: Acab-en odoleco guciac berebat il bear ciran, Jaincoac esanda ceucan bezala, Acab-en irurogueita amar seme Samaria-n arqutcen ciran; eta Samaria-co andizqui eta aguintari guciai Jehu-c chartel bat bialdu cien, esanaz; Nereac bacerate, eta nere esana eguin nai badezute, biar ordu onetaraco zuen Erreguearen seme gucien buruac onará ecarzquidazute. Aguindu gogorra eta buruco illeac zutitceco adiñacoa zan: baña cioten bildurrác beartcen cituen, eguilera, Acab-en irurogueita amar semèac ilerazo, eta oyen burúac sasquietan ipiñiric, Jehu-ri Jezrael-era bialdu ciozcáten. Errico atera ciranean, ceramazquitenac emen guelditu ciran, eta Jehu-c gaztigatu cien, buru guciac erriaren sarreraco bi alboetan bi metatan ipiñi citzatela. Biaramon-goizean Jehu bera atera joan, eta icusteco negargarri arc ará eraman cituen guciai esan cien: Zuec lan onetan icusquizunic ez dezute. Baldin ni nere Erreguearen contra alchatu banintzan, eta il bannen, ¿nor oyec guciac il ditu? Ezagutu ezazute, bada, Jaincoac Acab-en echearen contra esandacoric, ecer ere eguin gabe utci ez dala. Itz oyecquin eracutsi nai izan cien, Jaunaren escua zala, arren esanac aintzat artu gabe, gaiztaquerian vici nai ciranac castigatcen cituena. Etzan onembesterequin guelditu.

Jezrael-en ceuden Acad-en odoleco eta eheco guci-guciac ere ilerazo cituen. Ilquinza au eguinda, Samaria-ronz cijoala artzai-chaola batean arqutu cituen, arestian il zuen Ococias Erreguearen berrogueita bi illoba, eta berebat il cituen. Samaria-ra zanean, Jezrael-en bezala, Acab-en ja-

torrico guciacquin lambide bera eguin zuen. Guerò errico gende gucia bere ondoan artu, eta esan cien: Baal-i ofrenda andi bat eguin, eta Acab-ec baño obeto adoratu nazuela. Onetaraco Israel-en ciran jainco guezurrezco onen apaiz guciai, viciaren azpian aguindu cien, egun icendatuan, Samaria-n egoteco. Apaizac bilduta, elizan ofrendac eguin cituztenean, eliz-atarian lendanaz ipiñita ceuzcan laroguei guizon armaduni, aguindu cien, barrena sartu, eta guci-guciac, batere utci gabe, jil citzatela. Ala eguin zuten, eta gorputz-illac campora botarie, guciac icusi citzaten, eliza errerazo zuen: eta guisā onetan Jehu-c ondatu zuen, Acal bere aurrecoac Israel-en zabaldutaco Baal-en adoratcea.

Jaincoac bereala adierazo cion, lan andi au cein gogocoa zuen, esanaz, Israel-co Erreguetzac aren ondorengoe-tan laugarren belauneraño iraungo zuela. Baña Jehu-c gauza on bat eguin bazuen ere, Baal bere apaiz eta ser-vitzariaquin ondatuaz, etzuen bear zuen gucia osotoró eguin. Baal-ez gañera, Israel-en urrezco idolo asco ciran, jaincotzat artu, eta Israel-tarrac agur eguiten cietenac, eta Baal-ena bezala, oyec botalceco, Jehu-c biotzie izan etzuelaco, gueroco vici gucian Jaunaren escu zorrotza bere gañean icusi zuen.

Hazael Siria-co Erregueac Eliseo-ren esanac eta negárrac eguiztatu cituen. Soldatu-talde andiacquin Jehu-ri eraso cion, eta bazter andiac quendu ciozcan, alde gucielatatic sua, eriotza eta ondamera ereinda; eta Jehu-c naitanai-ez, icusi bear izan cituen, erri ederrac erreta; mutil gazteac burniz josita; aurrac arri-pean lertuta; emacuméac sabelean cituzten aurracquin ganibitaz erdiratuta: eta izaera negargarri onetan, Hazael-ec nai gucia eguiten ciola, vici izan zan, ogueita zortci urte Erreguetzan bete artean, eta Samaria-n il zan, eta gurasoen obian lurpetu zuten.

10. §.—*Joacaz, amabigarren Erreguea; eta Joaz, amairugarrena.*

Joacaz bere semea aitaren lecuan sartu zan. Au ere Je-



roboan-en bideai jarraitu citzayen: jainco guezurrezcoac, adoratu cituen, eta il zan, Erreguetzan eguindaco amazazpi urteetan, bere errian asco eracutsita.

Bere lecuán Joas utci zuen. Au ere aitaren antcecoa izan zan, eta oberic etzuen eguin, eta jainco guezurrezcoac beren oñean iraun zuten. Biac ciequiten, eta ezagutcen zuten. Jainco bacarrari baicic iñori agur-eguin bear etcitayola; baña munduco izánac galtceco bildurrác atceratcen cituen, guezurrezco jainco ayec Israel-en osotoró galtetic.

### 11. §.—*Eliseo-ren eriotza.*

Dembora onetan Israel-tarrai etorri citzayen, neque-pena gucien erdian poztu oi cituena, galdu bearra. Eliseo, Jaincoaren Profeta andi, eta Israel-tarren alde aimbeste mirari eguindacoa, atceneco eguetara alderatu zan. Gaitz gogor batec artu zuen; Joaz Erreguea, icustera, joan citzayonean; bere atceneco itzetan cembat etorquizun esan ciozcan, eta eunda gueyago urtecoa il zan. Vicitzan ain mirari andiac eguin izan zituenac, ilda gueró ere eracutsi zuen, cein escualdi andiac Jaincoac eman izan ciozcan. Guizon il bat ceramaten lurpetcera, eta illoi-zaleac icusi cituztenean, Siria-co lapur-lister batzuec alderatcen, oyen bitdurrez, gorputz-illa Eliseo-rena cetzan lecura bota zuten, eta onen ezurrai uqitu bazain laster viztu zan.

Eliseo-c Joas-i adierazo ciozcan etorquizunetatic bat zan, Siria-rrai ondamen-aldi andiac emango cietela, eta Joas-ec esan au gogoan arturic, Siria-rrai eraso, eta lenago Siria-co Erregueac Israel-coari quendutaco bazter andiac beretu cituen. Gueróz Joas-ec Israel cintzó eraendu zuen, eta il zan, Erreguetzan amazazpi urte eguinda.

### OGUEITA IRUGARREN IRACURGAYA.

#### 1. §.—*Jeroboan, amalaugarren Erreguea.*

Joas aitaren aulquian Jeroboan semea eseri zan, eta be

froqueita bat urtean aguindu zuen. Bitarte onetan beretu cituen lenagoco Erreina-aldietan Israel-i auzoetacóac quendu izan ciozcaten bazter guciac; baña munduraco lan andiac eguin bacituen ere, idolozealea zan, eta bere demboran gaiztaqueria asco Israel-en eguiten ciran.

2. §.—*Jonas Profeta.*

Alde guciac gaiztaqueriaz beteta ceuden egun oyetan, Eliseo-ren ordez, Jaincoac Jonas sortu zuen. Profeta andi onec bere esan eta eraculsi onacquin Israel-tarrac centzatu, eta gaiztaquerietatic atera nai izan cituen; baña bere al eguin guciac alperrie ciran, eta naigabe onequin cegoala, Jaincoac aguindu cion. Ninive ceritzan errira joan, eta Jainco eguiazcoaren legue garbia eracusteco; bada, Ninive-tarren biurriqueriac belarriac bete ciozcatela. Jonas-ec etzuen aguindu au ontzat artu: bildur zan, alabañan, erri gaizto Jainco eguiazcoric ezagutcen etzuen batera lambide arequin joaten, eta Jaunari igues-eguin nayez, Jope-co portura joan, eta Tarsis era cijoan ontci batean sartu zan. Ontcia abiatu zan, eta itsas-erdira zanean aice-bolada batequin itsasoa aserretu, eta ontcia galtceco bidean jarri zan. Mariñelac icaratu ciran, eta norc bere jaincoari escatcen cion, arren, estura latz artan gorde citzala. Traste eta gauza asco urera bota cituzten, eta egin-alean guciac necatcen ciran, ontcia arintceco; baña Jonas onciaren bebeco zoruan lo cetzan, Ontciquidaria joan citzayon, esnatcera, eta esan cion: ¿Ain lo gozoan nola zaude? Jaiqui laster, eta zure Jaincoari esca zayozu, guzaz oroitu dedin, eta gorde gaitzan. Jonas bere etzauntzatic irten zan, eta Jaunari erregutu cion, baña alperrie; eta itsasoa anditcen cijoan. Mariñelac eta gañeraco ontcian cijoacenaic, vicirie irteteco, cer eguin ecin asmatuz, cebiltzala, gogoac eman cien, zotz eguitea, esturasun artan norc ipiñi ote cituen. Zotza edo suertea Jonas-i erori citzayon. Orduan ontcicoac galdetu cioten: ¿Perill onetan cergatic gaude? ¿Nongoa cera? ¿Cer laguintza dezu? ¿Norouz zoaz? Jonas-ec eranzun cien: Ni ceruetaco Jaun, itsaso, eta lurraren Eguillea-

ri bildur natzayon, eta iguesi nabilquion Hebrear bat naiz. Itsas-guizonac icaratu ciran, eta esan cioten: ¿Certaco au eguin dezu? Cer eguin bear dizugu, itsasoa ontceco? Urra bota nazazute, eta itsasoa gozatucoda, ceren ni naizan ecaitz oni bideac eman diozcadana, esan cien.

Itsas-guizonai gogor eguiten citzayen, inor urera botatcea, eta ontciarequin or-emen bacebiltzan, ur-ertzera eramalen ote zuten icusten, leorrean uzteco; baña ecaitza gueroago eta gogorrigo zan, eta alperric necatcen ciran. Atcenean Jonas urari eraso cioten, eta itsasoa bere neurrietara bereala zan. Jonas-itsas-ondarrean bale batec iretzi edo tragatu zuen; eta arrai portiltz onec sabelean iru egun eta iru gañean iduquita, itsas-basterrean leorrera bota zuen.

Jaincoac, berriz ere, aguindu cion, bere legue santa Ninive-n eracutsi cezala, Ninive zan munduco erriric andienetic bat, oguei leguaco ingurua zuena. Jonas erri zabal onetan sartu, eta egun gucian osca ibilli zan. *Gaurtic berroguei egunera Ninive ondatua izango da.* Itz bacar oyec ain indar andicoac izan ciran, non, Ninive-arrac bereala beren gaiztaqueriaen damu eta miñez, negarrari eman citzayozcan. Erregue berac, Erregue-soñeco enordez, zacu zar bat janciric, autsetan eserita aguindu zuen, bere mendeco guciac barautu cezate.a, eta zacuz estalita, ibilli citecela, eta debecatu zuen abereai ere jan-edanic ematea, esanaz: Norc bere aldetic Jaunari barcacioa escatu bizayo: ¿Norc daqui, Jaincoa guzaz erruquitu, eta barcatuco badigu ere?

Errico zar eta gazte guciac, Erregueari jarraituaz, barautu zuten; negar andiac eguin cituzten; gaiztaqueria guciac utciric, bide onean sartu ciran, eta Erregueac uste bezala, Jaincoa erri artzaz erruquitu zan, eta gañean ceucayeten escu zorrotza, atceratu zuen.

Jonas Ninive-n bere predicua eguinda, erritic irten zan, eta campoco chaola batean egon zan, berroguei egunac igarotacoan, cer guertatcen zan icusteco. Egunac joanda, icusi zuenean, aren esanac bete etcirala, Jaincoari bere espa miñac aguertu ciozcan, esanaz, bera eta bere Profeta Jaincoaren icenean itzeguiten zuten guciac, guezurtitzat

iduquico cituztela; baña Jaincoac mirari batzuec eguiñaz, eracutsi cion, etzutela; cergatic esparic artu; Jaincoaren zuentasunari cegoquiola, becatari eguiaz damutuai barcatcea. Jonas Israel bere errira joan zan, Ninive-arrai cer guertatu citzayen, esateco asmoan, berri onequin Jaunaganonz itzultcen ote cituen, icusteco; baña aren esan-eguiñ guciac alferric izan ciran; eta Jainco eguiazcoa beñere ezagutu gabeco Ninive-arren biotzetan gueyago eguiñ zuen, Israel-co Jaunaren Erri autuarenetan baño.

Jeroboan Erreguéac, eta onen eracutsira bere mende-coac, Jonas eta beste Profeta, Jaunac bialdu cieztanen esanai beguiratu gabe, gaiztaqueriai cerraizquien, eta bideac idiqui ciezteen, gueroago etorri bear citzayezten gailz eta ondamen negargarriai.

Dembora onetan Asiria-co Erreguéac Israel-coari Samaria-aldean eraso cion, eta Jeroboan-ec Jezrael-co ibarrean batalla emanaz, gogor eguiñ nai izan bacion ere, ondatqa izan zan; eta Asiria-co Erreguéac atcemandaco Israel-tarasco, berequin calibu eraman cituen, eta gueròz Israel-co Erreinuac etzuen onic izan. Andic laster Jeroboan ill zan, eta bere lecuan Zacarias semea utci zuen.

3. §.—*Zacarias, amabostgarren Erreguea; Selum, amaseigarrena; Manahen, amazpigarrena; Faceya, emezortcigarrena; eta Facee, emeretcigarrena.*

Zacarias amabostgarren Erreguea, aita il citzayonean, ~~chit~~ gaztea zan, eta aguintceco urteric etzuelaco, Israel-co Andizquietan despita andiac sortu ciran, eta amabi urtean iraun zuten, norc bere cutuna aguintean iduqui naye. Gueroenean Zacarias-en aldecoac garaitu zuten; baña seigarren illabetean Selum-ec il, eta bera amaseigarren Erregue jarri zan. Selum-i ere Manahen-ec au bera eguiñ cion, eta Erreguetzan sartu zan. Manahen Israel-co amazpigarren Erregue izan zan. Onec bere aguinteari odol-isurtee izugarri batequin asiera aman cion. Tapsa-co erriac Erreguetzal ezagutu nai etzuelaco, atea icht ciozcan; baña Manahen-ec bere indar guciacquin eraso, eta iudarrez

beretu zuen; eta errian vici ciran guciac iltzea asco, ez ecic, aurguitecò ceuden emacumèac erdibitu cituen.

Manahen-ec Tapsa-co erriaren gogor eguitetic ezagutu zuen, Israel-tar guciac bere alde etcituela, eta guichièna uste zanean, norbaitzuec contra jaiquico citzayozcala. Mentienta onetan, bere aguintea irmotu nayez, Asiria-co Erregueari laguntza escatu cion, eta onec dirutza andiaren truque eguiten cion babesean, amar urtean aguindu zuen, eta il zan, bere eriotzarequin min andiric utci gabe Faceya bere semea aitaren lecuan sartu zan, ez Israel-tarren gogoz, ezpada Asiria-co Erreguearen itzalean; baña au il zanean, Facee contra alchatu citzayon; il zuen, eta Faceya ren ordez, Facee bera sartu zan.

Facee-c aguintcen zuela, Teglafalasar Asiria-co Errregueac Israel-i eraso cion; bazter andiac beretu, eta Israel-co gendearen erdia eta gueyago Asiria-ra catibu eramau zuen. Facee onec ere, besteri emandaco patu bera, izan zuen. Osee-c Facee ilda, Erreguetza beretzat artu zuen.

4. §.—*Osee, Israel-co oqueigarren eta atceneco Erreguea*

Osee au ere aurrecoen antzean, idolocoya zan, eta jainco guezurrezcoai agur-eguin cien, eta Israel-en gaiztaqueria andiac eraguin cituen. Onec bere oyecquin, bestee-nacquin batean, Jaunaren erruquimentuaren neurriari gañez-eguin, eta beretu zuen catibutasun lotsagarri, Israel-co Erreguetzari betico buru eman ciona. Osee-c, icusi nai etzuten asco, izan cituen, Erreguea bere escuz ilda, coroaz bera jabetu zalaco. Erregue zanaren adisquidéac etcioten zortci urtean paqueric eman, baña atcenean ere, etsai oyegaraitu cituen; aguintean heteró jarri zan, eta beste bederatci urtean iraun zuen.

Bitarte onetan erricoac aisa escuratcen bacituen ere, Salmanasar Asiria-co Erregueac nai gucia eguiten cion eta dirutza eta escueracutsi andiac ceuzcan, urteoró eman bearrecoac. Mendetasun lotsagarri onetatic irteteco, Sua Egipto-co Erregueari gaztigatu cion, Asiria-coari eman uste zuen aucian, lagundu citzayola; baña Salmanasar-ec Osee-

ri, asmo oyec usandu ciozcanean, aurre-arturic, soldadutalde andiacquin eraso cion; erri andi guciac quendu ciozcan; bazter guciac soildu cituen, eta samaria esitu eta ichición, Erreguea, irteteco lecuric, ere eman, eta utci gabe. Samaria zan Israel-co Erri-buru-nagusia, gosez baicic, indarrez ecin artu citequena; baña au artu ezqueró, Erreinu gucia menderaturic cegoan. Salmanasar-ec au ondo ezagaturic, erri oni eraso cion, eta esituta iduqui zuen iru urteetan, eguin-aldi latz ascoren ondoren, Osee n Erreguetzaco bederatcigarren urtean menderatu zuen: eta Erreguea, gañeraco guciacquin, bere errira catibu eraman zuen.

Ara cer patu lotsogarria izan zuten, bada Israel-co amar Tribu berreunda berrogneta amalan urtez lenago, Salomon-en semea bide gabe utcita. Erreguetzat beste bat artu zutenac. Bitarte luce onetan gucian etzuten onic izan; ez gauza zucenic ere eguin: Jeroboan lenengo Erregueac eguindaco jainco guezurrezcoac etcituzten beñere utci; eta atcanean beren gaiztaqueria eta billauquericquin Jaincoa beartu zuten. Erreina osoloro galtcera, eta arrotz gogorren mende igüingarrian ipintcera. Israel gucian etzan, necazari eta mastidun banaca batzuec baicic, gurratu, eta oyec ere demborarequin Asiria-ra catibu eraman dituzten, Salmanasar-ec Israel-tarren lecura, oyen ordez, bialdu cituen Asiria-rrac, ceñac beren jainco guezurrezcoasco berequin eraman cituzten, eta urte guchiren epean, Jainco eguiazco bacarra, aimbeste mirari eta gauza arri-garri eguin izan cituen bazter autu artan, chit atcendu zan. ¡Orra certara ciran Israel-tarren idolo-nayac, eta gaiztaqueric! Baña oyec beren catibutasun lotsagarrian utci, eta cerbait derragun *Job* santu pacienciaco maisua-ren gañaan.

#### 5. §.—*Job santua.*

Guizon andi au jayo, eta vici izan zan, Hus ceritzan Judaco Tribu-ondoco erri batean. Noiz mundura zan esaten, jaquintsunac bat ez datoz. Batzuec diote, Jacob-en humeac

Egipto-co morrontza gogorrean sartu baño lenagocoa da: la: besteac, Osee-n demboran Israel-tarrac Asiria-rrer mendean erori bear ciran aurretic, izan zala. Gai onetan dana dala, Jaincoac, beintzat, bialdu zuen, bere paciencia andi eta paregabearequin lurreco nequéac nola eraman bear diran, eracustera; eta badirudi, Israel-tarrai egun oyetan aguertu citzayela, Asiria-n, edo beste icenez *Babilonia-n*, igaro bear cituztenac eramaten, eracustera.

Guizon ona, zucena, eta Jaincoaren bildur andicoa zan. Jaincoac zazpi seme, eta iru alaba eman ciozcan. Lurreco ondasun eta izanetan besteric ez bezalacoa, eta iñor baño aberatsagoa zan. Bera ona izanic, seméac ere Jaunaren bildur onean aci cituen.

Zazpi seme oyec oraindic ezcongai ceuzcan, eta cergatic ezdaquigu, zazpiac banaca, nor bere echean eta bera beste eche batean, iru alabac berequin cituela, vici zan. Zazpi anáyac aldizca, norc bere chandan, bazcaria ipiñi, eta zazpiac eta iru arrebac elcarrequin jaten zuten; eta guciac aldia eguindacoan, aitac echera deitu, eta Jaunaren aurrean izan citzaqueten ats gucietatic, garbitzen cituen. Guisa onetan aberastasan eta zorion gucien erdian vici zala, bein batean morroi bat etorri citzayon, esanaz: Jauna, idiac arean ari cirala, eta astòac larrean cebiltzala, Sabeo-arrac etorri dira, eta guciac berequin eraman dituzte, ni ez, beste morróyac, illic utcita. Berri negargarri au ematen ari citzayon bitartean, beste bat etorri zan, esanaz: Oñazcar batec ardiac eta artzayac quiscalduric utci ditu, eta ni bacarric gueratu naiz, berri au zuri emateco. Bereala beste bat etorri citzayon, esanaz: Caldearrac, iru samaldatan zabalduta, morróyac il, eta gamelu guciac eraman dituzte; bacarric nic igues-eguin diet, zur. gaztigu au emateco. Au esaten ari zala, laugarren mandataria aguertu zan, eta esan cion: Zure seme-alabac zarrenaren echean bazcaltcen ceudela, bat-batetan sortu dan aice-bolada batec echearen lau esquiñac oñetic atera, eta eche guciac lur-jo du, eta zure amar seme-alabac azpian lertu dira: nic bacarric igues-eguin det.

Job egon zan lenengo berri mingarri ayec entzuten,

Itzic ere eguin gabe, eta semèac il citzayozcala, esan cio-  
nean, jaiqui zan, soñecoac urratu cituen, illea moztu zuen.  
eta lurrean auzpez jarrita, Jaunaren eguiñac adoratu ci-  
tuen, esanaz: Amaren sabeletic larrugorrian irten nintzan,  
eta larrugorrian itzulico naiz. Jaunac eman cidan, eta  
Jaunac quendu dit: Jaunac nai zuena, eguin da: Jaunaren  
icena bedeincatua iza bedi. ¡Cer eraman miragarria! Esan  
diran Job-en neque-penac, dudaric gabe, andiac eta mi-  
ñac ciran, ez ordea atcenecoac: berriac ichedoten, cioten  
Gorputz gucia, oñ-puntatic bururãño, zauriz bete citzayon,  
eta guelditu zan aragui vici-vician, zorna alde gucietatic  
ceriola. Guisa onetan bere burua icusirie, cimaurtegui ba-  
tean vici bearrean arqutu zan, bere quirats eta gaitz  
itsascorragatic gende artean ecin egon citequealaco, eta  
cimaurretan egoten zan, tella latz batequin, zaurietatic,  
ceriozcan zorna eta ciquiñac, quenduaz.

Oraindañocoac bear adiña badirudite, guizon baten  
eramana gaindutceco; baña Job, gueyago icusteco, jayo  
zan. Emaztéac, dirudi, neque oyec arindu bear ciozcala;  
baña etcion mindu baicic eguiten. ¿Oraindic cere chora-  
quericquin zaude? emaztéac esac cion. Ots, bada, Jai-  
coa madarica ezazu, eta etsi-etsian il zaitte. Emaztearen  
itzquuta au Job-ec etzuen ondo artu: biotzean chit min  
eman cion; etzan beretic irten; eta donario ederrean  
emazteari esan ciozcan itz oyec: Emacume zoroen antze-  
an mintzatu cera. Baldin Jaunaren escutic onac artu ba-  
ditugu, ¿cergatic gaitzac artuco ez ditugu? ¡Esan gogoan-  
garria, neque-artean poza nai duenarentzal!

Job-en izaera errucarria auzo-errietan banatu zan, eta  
iru adisquide, Elifaz, Baldad, eta Sofar ceritzatenac, joan  
citzayozcan, icustera. Lembicico beguiratuan et zuten eza  
gutu; ain antz charrecoa, alabañan cegoan: eta alhora jo  
anda, icusi zutenean, zauri bat eguiñic, cimaurretan ce-  
tzala, eta ceriozcan zorna eta guesal ciquiñac tella pusca  
batequin quentcen cituela, negarrari ema citzayozcan, bu-  
ruac autsez bete cituzten, eta Job-en ondoan lurrean jar-  
rita, zazpi egun, eta zazpi gau igaro cituzten, itzeguiteco  
biotz gabe. Atcenean Job bera asi citzayen itzeguiten;



Jaunaren lambide guciac adoratu cituen, eta esan ciezen itz estali asco, bere miñaren anditasuna adierazteco. Itz-quera onec, bacirudien, ecin eramanaç erasaten: ciola: Elifaz iru adisquideetatic batec ere ala uste izan zuen; eta atceratu nayeç, esan cion, berác besteri iñoiz emandaco ondo-esanaç, beretzat ar-citzala, eta asco lagunduco ciotela, neque ayec Jaunaren icenean eramaten.

Arterañoco Elifaz-en itzquetac, gogorcho esana bazan ere, etcion Job-i miñic eman; baña esan cionean, Jaincoac munduco nequeác becatuacgatic bialteen cituela, eta cer eguin ote zuen, barruna ondo aztertu cezala, aren esanaç ecin eramanaç gañez eguin cion, eta asi citzayon, bere burua garbitcen: esan cion, Jaincoac becatariari, penitencia eguin dezaten, ez ecic, onai ere, nequeac bialtzen cieztela, Jaunaren beguietan irabaci gueyago izan cezaten, eta onean areagotu citecen: ascotan becatariac lurrean ondasuuez beteac daudela: onac menturaz cer janic gabe arquitcen diran aldi berean, eta mandu au ez dala, obra onen saria artceco. Oyec eta onelaco beste gauza asco esan ciozcan, eta alcenean adierazo cion, argala eta erorcorra bazan ere, arc uste zuen gaiztaqueriaric etzuela eguin.

Baldad beste adisquidea ere bereala asi citzayon, guisa berean itzeguiten, edo are gueyago esaten: arpeguira eman cion, bere izaera hura, eta semeen eriotza bere gaiztaqueriacquin nombait ecarri cituela. Sofar irugarrenac ere berebat eguin zuen. Baña Job-ec jaquinduri andiarequin iruai erantzun cien, eracutsiaz, Jaincoac certaco nequeac bialtzen dituen, eta nola igaro bear diran. Iru oyec isilldu orduco uztez uste-gabe an sortutaco guizon gazte, Eliu certizanac, bestéac bezala, lotzagabequeria andiarequin eraso cion: eta icusiric iru adisquide ayei esandacoacquin etzuela ecer aurreratu, uzte izan zuen, obena isillic egotea zala, eta Eliu-ri, esan-alguciac, aditu ciozcan, itzie ere trucatu gabe.

Alcenean Job-en umiltasunaz eta eramana onaz Jaincoa erruquituric, alde irten citzayon, eta Elifaz-i esan cion: Zu eta zure bi adisquideacquin aserretu naiz, Job nere servi-

tzari leyalac bezala, ondo itzeguin ez dezutelaco. Zoazte, eta zazpi idi eta zazpi ari arturic, Job-gana itzuli zaitezte, eta zuen oneraco esqueñi edo ofrenda zazquidazute. Job nere servitzariac zuecgatic erregutuco dit, eta adituco diot, zuen erguelqneria aintzacotzat artu ez dizazutedan, Jaincoac guizon itsu oyei onela eracutsi cien, cein gaizqui itzeguiten zuten, eta Job-en esanac ontzat nola artu cituen Jaincoac aguindua eguin zuten. Job-i, bere adisquideen alde eguindaco escaerac, aditu ciozcan, eta echeronz itzuli ciran, gueroco geuza asco Job-i-icasita.

Job-en izaerai, eta urtebetean igaro cituen nequeai Jaincoac buru eman cien. Zauri eta gaitz guciac bat-batetan orbaindu citzayozcan, eta cetzan cimaurteguitic biurtu zan bere echera, non bere senide, aide eta adisquideac onguietorri andia eguin cioten. Jaincoac bereala eman ciozcan len izan cituen ondasun guciac, beste aimbeste gueyagorequin. Izan cituen zazpi seme eta iru alaba, lenago il citzayozcanen ordez. Oyen hume eta langarren belaurerañoco ondorengoac icusi cituen; eta brrreunda amar urtea il zan ondasun asco, eta ontasun ederraren erdian, gueroco guci-ai neque-penac eramaten, icasteco escola eta ispillu chit egoquia utciric.

## OGUEITA LAUGARREN IRACURGAYA.

### 1. §.—*Juda-co Erregueac. Roboan lenengoa.*

Jeroboan, Israel-co lenengo Erreguearen gañean 219-garren orrian itzeguiteman, esan zan, Juda-co Erregue Roboan-i Jaincoac aguindu ciola, Israel-coari ez ecer eguiteco, eta Roboan bere soldaduacquin echera itzuli zala. Roboan bere Erri-buru Jerusalem-en jarrita, bereala asi zan, erri berriac eguiten; zarrac berritcen, aguintari onac oye-tan ipintcen, eta beste prestamen asco, auzoac erasolcen bacioten ere, artcen.

Jeroboan dembora berean leyatcen zan, Israel-en idoloac eguiten, eta jainco guezurrezco oyei agurrac eraguiten. Israel-tar onai debecaturic, Jainco eguiazco bacarra

adoratcera, Jerusalem-era joatea. Israel-en oyetaco asco ciran, eta Jainco eguiazcoa ez ucatceagatic, Juda-ra aldatu ciran. Levi-co Tribucoac lembicico joan ciran, beren ondasunac Israel-en utcita, nayago zutelaco Jainco eguiazcoa ucatu baño, ecer gabe gueldita, Tribu onen, eta oni cer-raizquion beste ascoren aldatceac, Juda-co Erreinua asco irmotu zuen, eta Roboan Erregueac chit ondo artcen cituen. Lembicico iru urteetan Erreguea eta mendecoac David asabaren bideetan ibilli ciran, eta bitarte onetan gauza guciac nayerara cetozquien: asieran bi Tribu baicic etcituen Erreinu chiqui bat, batu citzayozcanacquin acizan, eta bere itzala auzotara ere banatcen zuen; baño zorion eta doatsuera onec berac laster galtceco bidea eman cien. Erreguea andrecoitu zan, eta onen gaiztaquerian mendecoac ere cutsutu ciran. Gueró jainco guezurrezcoac artu cituzten, aldaréac eguin ciezteen; oitura on guciac illundu ciran; eta Juda-co Erreinua jarri zan naspillaric negargarrienean eta liquitsqueria izugarrienac eguiten cirala

Jaincoac Juda-rren becatua castigatu nayer, Sesac Egiptoco Erreguea Soldadu-talde andiacquin bialdu cien: bideco erri guciac artu, eta Jerusalem-goari eraso cion. Roboan Judaco Erreguearequin batean Andizqui guciac. Sesac-en igucsi joanda, an sartu ciran, murruean babesean gorde-tceagatic. Emen Roboan-i aurqueztu citzayon, lenago Israel-i paquean uzteco, esan izan cion Semeias Jaunaren Profeta, eta esan cion: Ara Jaunac cer dion: Zuec utci nazuten ezqueró, nic ere Sesac-en escuetan utcico zaituztel. Berri au aditutacoan, Erregue eta Andizquiac esan zuten: Jaunac ez du bide ez danic eg jiten. Gaizqui-eguiña aitor-tu zuten: Jaunaren aurrean umillatu ciran; eta Jaunac Semeias beraren aotic esan cien, etcituela galduco, etzala Jerusalem-en odolic isurico; baño Sesac-en mendeen egon bearco cirala, ezagutu cezaten, Jaun Cerucoa servitcetic. Erregue lurrecóac servitcera, cer desberdintza cegoan. Sesac Jerusalem-en sartu zan; baño etcien, ez beren buruetan, ez izanetan gaitzic eguin: Elizari eta oni cichecan eceri etcien uqitu: bacarric artu cituen, David eta Salo-

mon-en demboran ara bildutaco ondasunac, ceñacquin Sesac Egipto-ra itzuli zan.

Roboan-ec bere becatuen damua aguertu zuen; len-lenago bezala, Elizara joaten zan; Andizqui eta gañeracoac oquerrean bezala, onean ere cerraizquion: Eliz-lan guciac, egundaño bezain ondo, eguiten ciran: idoloac ere quendu cituen; eta jainco guezurrezcoai agur-eguitea atceratu zuen. Baña aldaqueta eta damuonec etzuten luzaróiraun. Berriz ere idolozaletu zan, eta gueróz etzan ondu, eta il zan Erreguetzan amazapi urte eguinda, eta Jerusa-len-en bere gurasoen ondoan obia eman cioten.

2. §.—*Abia, Juda-co bigarren Erreguea.*

Abia Roboan-en semea Juda-co bigarren Erregue izan zan. Onec bere soldaduac prestata cituen, aitag Jeroboan-equin asitaco guerra-lanari equiteco. Joan citzayon, eta Jeroboan-en soldaduai ondo-esanac eguiten ari zan bitartean, atcetic inguratu zuten eta etsayen escuetan bere gende guciarequin eroriceco zorian icusi zanean, Jaunari bere laguntza escatu cion, eta Israel-tarren artean bat-batetan aln izu-icara andia sortu zan, non, iguesari eman citzayozcan, eta Abia-c ondoren erasota, bosteun milla guizon indartsuenac il cituen. Garaipen au batzuec eta besteac centzatececo adiña bazan: baña, ez Jeroboan-ec ezagutu zuen bide gabe Erregue eguin zala, ez Abia-c Jaunari leyalquirò servitcea, zor ciola. Jeroboan len bezain idolocoya guelditu zan: eta Abia, aita bezain gaiztoa eta esquergabea. Iru urte betetzaca Erreguetzan eguinda, Jerusalem-en il zan.

3. §.—*Asa, irugarren Erreguea.*

Asa bere semea Juda-co irugarren Erregue sartu zan. Bere aguinteari asiera ona eman cion. Jainco guezurrezcoai eguindaco aldare guciac quendu cituen, eta zorrotz aguindu zuen, Jainco bacarraren leguea Erreinu gucian cintzó gorde cedilla. Paquean luzaró vici izan zan, Errei-

nuco gauza guciac ondo eguiñaz, Etiopia-co Erregue Zara-c guerra eman cion; artean. Onec indar andiacquin eraso cion baña Asa-c claster ondatu zuen; eta Zara-ri quendutaco ondasunacquin, Jerusalem-era garailari itzuli zan.

Asa eta bere mendecoac zorionez alde gucietatic beteac vici ciran; eta Israel-tarrac au icusita, Juda-ra samaldaca cetocen, Asa-ren babesean vicitcera, Israel-co idolo-gosea eta oitura galduac ez icusteagatic. Baasa Israel-co Erregueac aldaqueta au ecin eramanic, Juda-ri erasolceco asmoa artu zuen. Asa-b icusi zuenean, Baasa-c Rama ceritzan nria artu ciola. eta onequin Israel-tarrai Jerusalem-era joateco atéac ichitcen cieztela, bildurrac eman cion. Asa-c bideric asco bazuen, Zara-ren contraco guerran lagundu cion Jaincoagan, aurrera ere, uste osoa iduquitceco; baña ala eguin bearrean, Siria-co Erregueari diru ascoren truke laguntza escatu cion: eta onec bialdutaco indar andiac, Israel-coac icusi cituenean, atceratu zan, eta Juda-ri paquea eman cion.

Langai au Asa-c ustez ondo eguin zuen: baña Jaincoac Profeta baten aotic erriertan eman cion, berari utcita, idolo-zale bati laguntza-esque jarri citzayolaco. Profetac esan ere bacion, andic aurrera guerran beli izan bearco zala. Asa-c, itz oyec aditutacoan, asaba David-ec, Natan-ec itzequin cionean bezala, gaizqui-eguiña ezagutu, eta barca-cioa escatu bear cion: baña etzuen, nombait, uste, iñore itzie trucatu edo ecer esan bear cionic, eta Profetaren esanac ausardizat arturic, cepo batean ipiñierazo zuen. Jaincoac gaizqui artu cion, bere mandatari bati dollorqueria au eguita, eta oñetaco oñace guciz miñac artu, eta iru urtean asco eracutsi cion. Gueróz, Profetac esan bezala, Baasa Israel-co Erreguearequin etzuen paqueric izan, eta Erreguetzan berroqueita bat urte eguinda, Jerusalem-en il zan.

Asa guizon ona, eta Jaunaren legue santagatic asco beguiratu zuena izan zan: beragatic, aitatu dan utseguita atcenean izan bazuen ere, sinistecoa da, bear dan damutasuna artu zuela, eta Jaincoagandic barca-cioa iritsiric, zorionean il zala. Jerusalem-en berac eraguindaco obian lurpetua izan zan.

4. §.—*Josafat, laugarren Erreguea.*

Josafat laugarren Erreguea bere aitaren aulquian jarri zan. Bere gurasòac emandaco aciera onari ondo erantzunda, Josafat guizon zucena, Jaunaren bildur andicoa, eta erlegio eguiazco bacarragatic cinzó beguiratu zuena, izan zan. Idolo guciac quenduerazo cituen. Misiolariac Erreinu gucian zabaldu cituen, Jaincoren legue santa eracustera, oiturac ontzera, eta gende gucia escolatcera. Erri asco murru eta dorre andiacquin sendotu cituen, eta Martiztia ere chit oñ oñean ipiñi zuen. Bere mendean milloi bat eunda iruroguei milla guizon, bost taldotan ipiñiac, eta gauza guciac ondo ornituac, ceuzcan. Auzoetaco Erregueac, indar andi oyec icusita, bildur citzayozcan, eta etzan inor, oni ecer eguitera, venturatcen. Auzo ascoc escueracutsi andiac bialtcen ciozcaten. Guisa onetan Josafat lembicico emezortzi urteetan zorion eta doatsuera gucian vici izan zan.

Baña dembora onetan eguin zuen bear etzan gauza bat, vicia laburtceco bidean ipiñi zuena, eta bere ondo-rearen chit nocigarria. Joran seme zarrena ezconduerazo nai zuen, eta Israel-co Erregue Acab-i, Atalia ceritzan alaba, escatu cion; eta Joran eta Atalia ezcondu ciran. Josafat izanic, Jainco eguiazco bacarraren servitzoari ain eresi andiarequin beguiratcen ciona, uste izan bear degu, ezcontza hura, on andiac ateratceco asmoan baicic, eguin etzuela; baño utseguin zuen. Gazteac ezcondu ciranetic urte batzuetara, Samaria-ra joan zan bere gorasquide Acab icustera; eta Acab oneñ gañean 234-garren orrian itzeguitean, esan zan, Josafat-en vicitza icusi onec cer perillean ipiñi zuen. Jaincoac bere servitzari leyal au viciric gorde nai izan zuen; baño bere aserrea aguertu cion.

Ramot Galaad-cotic echeronz cettorrela, Profeta batec bidean Jaunaren icenean esan cion: ¿Siniste gabeco bati laguntcen diozu, eta Jaincoari gorroto diotenacquin adisquidetcen cera? Jaunaren aserrea mereci izan dezu; baño gauza onac eguin izan dituzu, eta Jaincoa billatceco bio-

tza prestatu dezu. Josafat Jaunaren aguiraca edo errepreñ-  
sio onequin asco lotsatu zan. Gaizqui-eguiña ezagutu zu-  
en: Jaunari barcacio-esque jarri citzayon; eta Jerusalem-en  
sartu zan, lenago baño ere gogo gueyagorequin Jaincoa  
maite izateco, eta aren legue santa berac gordetceco, eta  
besteai gorderaguiteco. Onetaraco lendanaz misionatcera  
bialduta ceuzcan apaizaz gañera, bera ere irten zan, eta  
bazter guciac ibilli cituen, Jaunari cer eta cembal zor ci-  
tzayon, eta nola servitu bear zan, eracusten; ceñaren bi-  
dez, galduta cebiltzan guciac, Jaincoarentzat irabaci cituen,

Erreinu gucia girabiratu zuenean, Jerusalem-era itzuli,  
eta paquean vici zan, gauza guciac bear bezala eraenduaz.  
Onetan cegoala, Jaincoac icusi nai izan zuen, Josafat-ec ar-  
gan ceucan uestea cembeterañocoa zan. Moab, Ammon,  
Idumea, eta Siria-rrac bat-batetan eraso cioten, eta gende-  
tza andiac Engadi-n jarri citzayozcan. Josafat-ec, usteca-  
beco berri au artutacoan, aguindu zuen, Erreinu guciac  
barautu cezala, eta Jerusalem-era Jaunari erregutcera,  
etorritaco guciacquin Elizan sartu, eta Jaunari escatu  
cion, estura larri artatic, arren, bera eta mendecóac atera  
citzala. Escari au eguiten ciarduela, Jaaciel, Zacarias-en  
seméac, Jaunaren icenean esan cion: Ez icaratu: oraingo  
aucia, ez zuena, ezpada Jaincoarena da: biar jatsi zatza-  
quizquie, eta Jaunaren laguntza icusico dezute, Josafat eta  
gañeracoac auzpeztu ciran, eta Jaincoa adonatu zuten.

Biaramonean Josafat gende guciarequin etsayareu bi-  
llan irten zan, eta cerbait bide eguin zutenean, guelditu  
ciran, eta Josafat-ec gucien erdian zutic jarrita, esan cien:  
Zuen Jaun Jaincoagan sinistu ezazute, eta gordeco cerate:  
bere Profetai sinistu zayezute, eta gucia ondo irtengo za-  
tzute, Gueró soldadu-taldeen aurrean cantariac ipiñi ci-  
tuen, eta bideari eman citzayozcan. cantatuaz: *Jaunari  
gloria, ceren bere erruquimentua beticoa dan;* eta ga-  
ñeracoac au bera erantzuten zuten. Onela Jaincoa lauda-  
tuaz eta alabatuaz, bidean cijoacen bitartean, etsayac el-  
car ilteari eman cioten: Gain balera ciranean, icusi zuten  
aurre gucia gorputzillez estalia, bat bacarrie ere viciric  
guelditu gabe, Bereala iltoquira joan, eta iru egunean bil-

du cituzten ondasun andiacquin, Jerusalem-era itzuli ciran; Jaunari esquerrac eman ciozcaten, eta paquean jarri ciran.

Andic laster Ococias Israel-co Erreguéac gaztigatu cion, on izango zala, saldu-erosiaren gañeco elcartasun bat eguitea: eta Josafat beretcen erraza izanic, artara jarri zan. Itsas-ontci andiac eguin cituzten, Salomon-ec demborra batean bezala, urre eta cillar-esque bialtceco; baña ontciac itsasoan-barruna cijoacela Josafat-ec uste zuen garayean, Jaunaren Prefeta batec esan cion: Cergatic Ococias-eguin adisquidetasuna eguin dezun, Janicoac zure lanac ondatu ditu. Ontciac Tarsis-era baño lenago puscatu dira. Josafat-ec berri au Jaunaren cigorradatzat artu zuen; eta etzan, Ococias-en esanera ontciac berriz eguiteco jarri nai izan. Beste elcartce bat ere Josafat-ec eguin zuen, Joran-en gañean itzeguitean 237-garren orrian esan zan bezala; baña oraingo au Jaincoac ontzat artu cion; eta emen icusi diteque, cembat nayera servitzari on oni aguertu cion. Josafat dembora guichiren epean il zan, Juda-co Erreinua ogueita bost urtean zucen eta cintzó eraendata, eta bere aurrecoen ondoan lurpertia izan zan.

5. §.—*Joran, bostgarren Erreguea.*

Josafat-ec bere lecuan Joran semea utci zuen, ez ordea aita bezain ona eta zucena. Juda-co bostgarren Erregue onec aitaren eraculsi onai etcitzayen jarraitu, ezpada bere emazte idolocoi Atalia-ren gogoeta eta gurari gaiztoai. Aitac Joran doai andietaco semetzat ceucan, hura vici zan artean bere biotz galdua isillic estali zuelaco. Aitac, il baño bi urtez lenago, seme zarrena zalaco, Erreguetzan lagun artu zuen; eta beste bere sei semeai erri andi bana eta ontasun ugariac eman ciezen, Erregue andi baten semeac bezala, nayerara vici izan citecen; baña aitac beguiac ichi orduco, Joran asi zan, bere biotz galdua aguercten. Sei anayéac eta oyen adisquide on guciac il cituen: idoloetara jarri zan: aurrecoen erligio santa utci zuen; jainco guezurrezcoai aldaréac eguin ciezen; eta are lotsagarriago zana, Jainco eguiazcoaren Eliz-ondoan Baal-i ere



beréac alchatu ciozcan. Gaiztaqueria oyec guciac ceruari osca cegozquion, Acab Israel-co Erreguearen echea bezala, Joran Juda-coarena ere ondatu cezala; baña Jaincoac David-i onen odolean Erreguetzac irauteco itza, emanic ceucan, eta autsi nai etzuen.

Jaincoac Joran-i bere deyac eguin ciozcan. Idumea-rrac asi citzayozcan, mendetic irten nayez, eta Joran-en eguin-alai gogor eguinda, bere-gañ jarri ciran. Gueró Erreinuuan bertan Lobna-co uria bere inguru guciarequin alchatu citzayon, eta Erregue idolocoyari utciric, orobat bere-gañ jarri zan, eta Juda-co Erreguearen mendera itzuli etzan, Joran-en huméac iraun zuten bitartean. Colpe oyec Joran ezagüeran sartceco ciran; baña etzan centzatcen. Oraindañocoac alperric cirala icusiric, Jaincoac Elias Profetari esan cion, itz oyecquin escribatecco: Jaincoac ara cer dion: Zure aita Josafat, eta asaba Asa-ren bideetan ibilli etceralaco, eta bai Israel-co Erregue-enetan, eta Juda-n eta Jerusalem-en vici diranac gaiztotu, eta zure senide, zu baño obeac, il dituzulaco, Jaunac zu cerori, zure erriari, zure seme eta emazteai, eta dezun guciari gaitz andi bat bialduco dizute; zu sabeleco ur-min gogorrác artuco zaitu, eta erráyac egunean pisca-bana irtengo zazquizu. Ordura-co Elias mundutic ezcutatua zan: baña batzuec diote, chartel au lendanaz eguiña utci zuela: besteac, Profetaren bati aguertu, eta eman ciola: gai onetan dana dala, Joranec, beintzat, Elias-en chartel au artu zuen; baña gogor topatu zuen; etzan ondu, eta asi ciran, chartelac esaten cituenac, eguiztaten. Filistin-tarrac eta Arachia-rrac laster eraso cioten; Jerusalem-en sartu citzayozcan; bere eheco ondasunac artu cituzten, eta eraman ciozcaten emazte eta seméac, Ococias seme gaztechoa utcita, ceña bacar bacaric viciric gueratu citzayon. Ondamen onec ere Joran-en biotza etzuen bigundu. Ur-miñac artuta, sabel gucia urez bete citzayon, eta bi urtean iraun zuen barrun gucia pisca-ca ceriola, oñacez ecin egon zala, eta botatcen zuen usai liquitsagatic iñor ecin alderatu citzayola. Atcenean izeararic lotsagarrienean, ogueita emeretcigarren urtean il zan, zazpi eta erdi Erreguetzan eguinda. Etcioten proguric

eguin, bere aurrecoai oitu bezala, eta uquitce utsac ere nagatcen cituen; eta lurpetua izan zan David-en Urian, ez ordea, Erregueen obian.

6. §.—*Ococias, seigarren Erreguea.*

Jerusalen-tarrac Ococias Juda-co seigarren Erreguea aitaren lecuán bereala ipiñi zuten. Joran-en gaiztaquiacquin aspertuac ceuden, eta Erregue berri onequin cerbait aurreratu uste zuten; baña laster icusi zan, semea, aita bezain gaiztoa, zala. Bere ama Atalalia-ren esanetara osotoró jarri, eta Erreguetzan eguindaco urte bateco dembora laburrean, etzuen gaiztaqueria baicic eguin. Bitarte onetan Siria-co Erreguearequin Israel-coac cerabilen guer-ran, oni laguntceco elcartasuna eguin zuen, eta Joran Israel-co Erreguearen gañean itzeguítan, 247-garren orrian esan zan bezala, iguesi cijoala, etsayac eguindaco zaurietatic il zan.

7. §.—*Atalia, zazpigarrena.*

Atalia Ocociaz-en ama, semearen ordez, Erreguetzan sartu zan. Atalia bere aurtasunetic zan gaizqui acia, eta Jezabel Israelco Erreguñña zorigaiztocoaren escolan icasia. Bera idolozalea eta guciz biurria izateaz gañera, Joran senarrari, eta Ococias semeari bere gaiztotasuna itsasi cien. Emacume gaizto onec, semea il citzayonean, Erreguetza artu zuen, eta escualdi onetan norc aucia emanic izan etcezan, eta bera bacarric gueratceagatic, escuratu citzaquean bere seme Ococias zanaren hume guciac, ilerazo cituen. Lenago esanda, Joran-en bere senide guciac il cituela. Arabia eta Filistin-tarrae ere Joran-ec seme. Ococias ez, beste guciacquin, orobat eguin zuten. David-en ondorengoric etcegoan Ococias-en humeac beneric; bera-gatic oyeo guciac il ezquerò, David-en odolac, Jaincoac esanic ceucan bezala, *Mesias* munduratcen zan artean, ecin iraun cezaquean: baña ondamen negargarri onetan Jaincoac berac izan zuen, bat gordetceco contua, eta au Joas Juda-co zortzigarren Erreguea zan.

8, §.—*Joas, zortcigarren Erreguea.*

Josabet, Ococias-en arreba-erdiac, icusi zuenean, bere anayaren aur guciac iltceari Ataliac-c eman ciola, cetzan seascatic Joas aurra artu, eta bere inudearequin Elizaren bazter ezcutu batera eraman zuen. Atalia, Erreguearen hume guciac ustez il cituenean, gaiztaquerian lenago baño ere gogozago asi zan. Idolo edo Jainco guezurrezcoac lecu aguiricoetan ipiñi cituen, eta Juda gucia ondatsen cijoan Lambide negargarri onetan sei urte ceramazquien, eta Juda-rrac negarrez beguiratcen cioten, inondic ere pozic us-te etzutela; bada, aur gorde onen berriric etzuten, eta etsita cenden, David-en odoleco guciac il cirala.

Aurra Joyada Apaiz nagusiaren contura cegoan, eta ar-dura guciarequin acitcen zuen. Juda-c ceraman ondamera eta errequi gaiztoa icusiric, artu zuen, leguez eta bidez ce-goquion David-en aulquian, aur hura ipintceco asmoa. Ir-riscu andico lana zan; baña uste izan zuen Jaincoac la-gunduco ciola, eta bere gogozco asmoan etzuen utzeguin Erreinuco Levita edo Eliz-guizon, eta beste bere gogoco guciac egun batean Elizara bilduerazo zitueu. Aguertu ci-en, buruan cer cerabillen. Eracutsi cien, norc cer eguin bear zuen; eta guciac bere endanan ipiñiric, Ococias-en se-me zazpi urteco aur ezcutuan ceucana, aguertu zuen. Erre-gue-coroa eta soñecoac janci ciozcan, eta otsegin zuen: Er-reguea vici bedi, Guciac poz andiarequin erantzun cioten: Erreguea vici bedi: David-en jatorria vici bedi: Joas Ococi-as-en semea vici bedi. Berri au Eliz-inguruan, etaurian berea la barreatu zan, eta alde gucietatic gendeac Elizaronz ci-joacen, Erregue berriari agur-onac eguitera.

Atalia ere goardatzallez inguratua joan zan, eta icusi zuenean Erregue berria Erregue-aulquian eserita, guciac agur eguiten ciotela, deadar eguin zuen: ¡Salduqueria, sal-duqueria! Bereal il nai izan zuten; eta ain ayer citzayozcan emacume gaizto hura, ilco ere bazuten, baldin Joyada-c utci izan bacien; baña aren odolarequin Eliza ez cutsutcea-gatic, aguindu zuen, Elizatic atera, eta cerraizquion guciac-

quin, il cezatela. Ala eguin zuñen, eta andre gogor galgarri hura bere eche-atarian illa izan zan.

Joyada-c icusiric, bere lana cein ondo irte citzayon, gende guciari Erregue berriaren alde itzeguin eta leyalac itzateco itza quendu cien. Bereala Atalia-c eraguindaco Baalen elizara joan, eta idolo eta gañeraco gauza guciac bota eta ondatu cituzten. Gueró Erregue-echera guciac joan ciran, eta Erregue berria emen ipiñiric, Jerusalem eta Juda gucia paquean jarri ciran.

Joyada-c Erregueaz contu andia ceucan: eta onec ere Apaiz onguille maitagarriari beguirunez beguiracen cion, eta biac elcarri lagunduaz, Atalia gaiztoaren aguinte aldian Erreinuac izandaco ondamen negargarriac ordaindu cituzten; batezere Jerusalem-go Eliza, ceñari escu galgarri arc, gueyena uqitu cion, eta galdua utci zuen.

Gauzac ondo cijoacen; baña Joyada zartu zan, eta eunda ogueita amar urtecoa il zan, Juda gucian negar andiac utcita, eta Erregueen obian lurpetua izan zan. Joyada ilteac Juda-co Erreinuari calte asco ecarri ciozcan. Apaiz-andi au vici izan zan bitartean, Joas bide zucenetan ibilli zan; baña il zanetic laster, Erreinuco Andizquiac losencha eta leunqueriacquin beretaronz itzuli zuten, eta Erreinu gucian idoloac ipintzeco baimena quendu cioten, eta idoloac adoratceari berrirò eman citzayozcan.

Lambide onequin Jaincoa chit aserretu zan: adierazo ere bacien, baldin ezbacituzten gaiztaqueria ayec uzten, castigu latzac etorrico citzayeztela. Castigu oyecquin Profeta bialdu cituen; baña alperric; Jaunaren dei ondo-naicoac etcituzten aditcen. Orduan Hazael Siria-co Erreguea Get-eco urian indarrez sartu zan, eta asiera on onequin arroturic, Jerusalem ere menderatceai equin cion. Jos-ec Erreguetzan ceramazquien ogueita amar urteetan, etzuen guerra-guizonic icusi; guerra cer zan ere etciequien, eta aurrera guisa bereco paquean vicitceagatic, Elizan eta bere Jauregui edo echean lenagocoac ipiñitaco ondasun andiac artu, eta Hazael-i bialdu ciozcan; ceña, aberastasun oyecquin, Jerusalem artceari utciric, bere echeronz itzuli zan. Castigu au, ezagutu citequean, Jaincoagandic cetorre-

la; baña, ez Joaz Erreguea, ez Erreinua, centzatu ciran.

Ostera ere Jaincoac Profétac bialdu cieztan, eta oyen artean beguirune andico Zacarias Joyada-ren semea, cer eguin bear zuten, eracustera; baña idolocoi gogor ayec, beste Profetac ecertan artu ez, eta Zacariaz-en contra alchatu ciran, eta etcioten arrica il artean utci. Juda-ri aimbeste mesede eguin izan cion Joyada Apaiz-nagusiaren semeac onela vicia galdu zuen, eta Juda-rrac beren gaiztaquerian jarraitu zuten, Jaincoaren deyacgatic oñic atceratu gabe.

Andic urtebetera Siria-co Erreguearen soldaduac berriz ere eraso cieten; Jerusalem-en sartu ciran; Andizqui guciac il cituzten, eta Joas Erreguea, zauri bat eguiñic, utcizuten, oñace asco gueròz eraman bearrean. Oñace-min oyecquin iru urte igaro cituen, eta atcenean bere servitzariac, cetzan oyea, il zuten. Erregue onec asiera ona izan zuen: Joyada Apaiza guidaritzatiduqui zuen artean, zucen ibilli zan, baña gueró gaiztaqueria asco eguin, eta eguiteco lecu eman zuen. Etcioten Erregueen obian lurpetcea opa izan.

9. §.—*Amasias, bederatcigarren Erreguea.*

Amasias. Joas-en semea, aitaren lecu jarri zan. Erreguetzan sartuta bereala, bere aitaren eralle edo itzallea il cituen, ceñaren bidez uste izan zan, gueró ere bide zuc cenean ibillico zala; baña lenengo urteetan on asco eguin bazuen ere, guerora oquertu zan. Ara certatic. Lenengo urteetan paque onean vici izan zalaco, ipiñi zuen soldadutalde itzaltsu, combat etsairi arpegui emateco adiñacoa. Oroitcen zan Idumea-rrac Joran asabaren mendetic irten, eta gueróz bere-gañ vici cirala, eta gogoac eman cion oyec beretcea. Juda eta Benjamin-en bildutaco irureun milla guizon guerrari, asco izango etcituelaco bildurrez irureunda ogueita zortci arroba cillarren truque. beste, eun milla Israel-tar erosiac, artu cituen: baña eun milla oyec Jainco eguiazcoari utcita, idoloetaronz etciñac ciralaco, Jaincoac etcion lambide au ontzat artu, eta Profeta baten bitartez esan cion, Israel-tarren ustean etcedilla guerran asi; garaipena etzala beti guiza-indarrean izaten.

Gaztigu au biotz onarequin artu, eta Israel-tarrac bertatic echera bialdu cituen, ceñac itzuli ciran Juda-co Erregue eta mendecoen contra aserre vician. Amasias-ec bereala bere uts utsacquin Idumea-irai eraso cien, eta batzuec il, besteac atceman, eta gañeracoac, osotoró abarraquituta, basoronz iguesi bialdu cituen. Baña garaipen au Amasias-entzat chit calletsua izan zan. Etsayari artutaco gauza ascoren artean, Idumea-rren idoloac arqitu cituen: eta Jerusalem-era eramanic, berac ere agur-eguin cien, eta onen ondoren beste gaiztaqueria ascoñan erori zan.

Jaincoac Profeta baten bitartez adierazo cion, idolóac adoratcearequin cein gaizqui eguin zuen: baña Jaincoaren deya ontzat artu bearrean, arestian esandaco garaipenarequin illarrañduric, Profetari erantzun cion, ?ea Erreguearequin cer eguiteco zuen? Aren beguetatic bereala quendu cedilla, il nai ezbazan. Profetac aldeguin cion, esanaz, eguindaco gaiztaqueriagatic, Jaincoac erabaqui zuela, aren egunac laburtcea. Gueróz onic etzuen izan. Israel-co Erreguearequin guerra gogor bat sortu citzayon, eta aren mendean jarri zan. Israel-co Erreguea Jerusalem-en sartu zan; muru-zati andiac bota cituen, eta ondasun asco eramanciozcan, Amasias lotsa gorrian utciric. Atcenean erricoac ere contra alchatu citzayozcan; eta Laquiz-era iguesi joanda, il zuten. Erreguetzan ogueita bost urte eguin cituen, eta gurasoen obian lurpetua izan zan.

10. §.—*Ozias, amargarreu Erreguea.*

Ozias, Juda-co amargarren Erreguea. Amasias bere aitaren lecuan amasei urteco sartu zan, eta bere aguinteac berrogeita amabi urtean iraun zuen. Ozias-ec bereala aguertu zuen, Jaunari atseguin emateco, eta gauzac ondo eguiteco gogoa; eta Jaincoac Zacarias Profeta, beste Zacarias-en seme eta Joyada Apaiz-andiaren billogaban guidari on bat eratu cion. Ozias-en lenengo lana izan zan, Jerusalem pareta sendoz inguratcea, uria eta Eliza etsayaren crasoetatic gordetceco. Maasias eta Hananias-en contura soldadu-talde andiac gordetzalle ipiñi cituen. Armateguiac

eguin, eta beste prestamen asco, bear ciraneraco, artu ere bai. Bere ardura cintzoa Erreinu gucira zabaldu zuen, eta non-nai ezagutzen zan.

Bere aita zanaren eta Ienagocoen demboran galdutaco bazterrac, beretceco asmoa artu zuen. Idumea, Filistin, Arabia, eta Ammon-tarrai eraso cien, eta guciac escuratu, eta beartu cituen, batzuec bere mendean izatera, besteac cegozquiten urteoroco escueracutsi eta pechac ematera. Lambide oyecquin jarri zan, Erregue batec opa dezaquean izaeraric onenean; baña asi zan macurtcen, eta erorico andi bat eman zuen.

Ozias-en maisu nagusi, urte ascoan cer eguin eracutsi ciona Zacarias Profeta zan, ceñaren eriotzac Ozias-i galmena ecarri cion; eta Joas bere asabari, Joyada il zanean, guertatu citzayon ber-bera, Ozias-i ere guertatu citzayon, Aimbeste zorionequin arquite zanean, biotza üanditu citzayon, eta arrotu zan, Jaincoaren aguinduai contra eguin nai izateraño. Nai zuena eguinda ere, etzuen uste, inorc ecer esan bear cionic, eta are guichiago, eragozteric. Uste onetan Elizan sartu, eta asi zan, apaizac baicic, ecin cezaqueten lambidea eguiten, incensua lurriñen aldarean erretcen. Azarias Apaiz-andia, eta beste laroguei apaiz joan citzayozcan, esatera, hura etzala aren eguitecoa, ezpada Aaron-en ondorengo Eliz-guizonena. Lecu santutic irten zaite, esan cioten, eta gure esanac ecer guichian ez artu, ceren Jaunac ontzat eramango ez dizun. Ozias apaizen contra sutu zan, eta incensu-ontcia escuan zuela, queñadatcen cien, adierazoaz, ez-eguitecoren bat eguingo zuela, Baña ¡Jaunaren escua cein andia dan! Ozias-i becoquian lepra nazcagarri bat bat-batetan aguertu citzayon, eta Azarias eta bere lagunac beartu ciran, Elizatic bere-bereala ateratcera eta Ozias bera ere, Jaunaren escu zorrotzac icaratuta, iguesi abiatu zan.

Gueroco lau urteetan leguenar ciquin nazcagarri onegatic gende-artetic aldeguinda, eche bacar batean vici izan zan, bere becatuari cegoquion penitencia eguiten; eta il zanean, etcioten Erregueen obian lecuric eman, lepratsu il zalaco.

11. §.—*Joatan, amaicagarren Erreguea.*

Ozias-en seme Joatan, amaicagarren Erregue izan zan, ceña bai aitaren gañoan, bai gueroco amasei urte Erreguetzan eguindacoetan, chit zucena, eta Jainco eguiazcoaren servitzari leyala izan zan. Il zanean Erregueen obian lurpetu zuten. Juda-rrac negar andiac eguin ciozcaten, eta are andiagoac eta miñagoac izango ciran, ordeco cer seme usten zuen, jaquitera.

12. §.—*Acaz, amabigarren Erreguea.*

Au Acaz amabigarren Erreguea zan. Erreguetu zanean, oguei urte cituen. Etzuen Joatan aitaren ontasunic, ez David aurrecoaren antzic, ezpada gaiztaqueria andiai lecu eman cien. Idoloac eguin, eta mendi-tontor gucietan ipiñi cituen. Baal eta Moloc jaincotzat adonatu cituen, eta bere eracutsi gaiztoarequin mendecoac ere, lan bera eguitera, ecarri cituen.

Jaincoa, aimbeste gaiztaqueria icusita, aserretu zan, eta Rasin Siria-co Erregueaz baliatu zan, Acaz castigalceco. Rasin itsumustuan Acaz-i bere lurrean sartu citzayon, eta Acaz, gogor eguileco, necatu bazan ere, Rasin-ec ondatu zuen, eta Siria-rrac, Juda-n calte andiac eguinda, ondasun andiacquin beren lecuronz itzuli ciran.

Etzan Acaz cigorrada onequin centzatu; eta Fasee Israel-co Erreguearen semeac soldadu-talde andi batequin eraso cion: egun bat bacarrean eunda oguei milla guizon guerrari, eta, oyen artean, Acaz-en seme Maasias il ciozcan: eta ondamen negargarri onen ondoren berreun milla emacume, mutil eta nescach gašte catibu artuta, ondasun andiacquin Samaria-ronz itzuli zan.

Egun oyetan Samaria-n arquitcen zan Obed Profeta, bidera irten citzayen, eta esan cien Jaincoaren gogocoa izango etzala, emacume eta aur erru gabeco ayec catibu iduquitcea, eta bialdu citzatela. Ala eguin zuten. Gañoac erdi-billosac, goseac aulduac, eta bideco nequeac chit ma-



calduac arquitcen ciran: jaten eman, jantci, eta abereetan ipiñiric, Jericó-ra beren senideetara biurtu cituzten, eta bérac Samaria-ra joan ciran. ; Ispillu arguia, guerran ga-raillari irteten diranac, cer eguin bear duten, icasteco!

Bi cigorrada oyecquin Acaz etzan ezagüeraz janci; bere gaiztaqueriai cerraiquien, eta uzte zuen, etzuela, aurrera cer bildur izan. Baña, lenagoco aldian banaca bezala, orain-goan Rasin eta Fecee-c batetan eraso cioten, eta Jerusalem-ondora joanic, uria inguratu, eta setiatu zuten. Bere bu-rua estura onetan icusi zuenean, Acaz asi zan, gogor egui-teco prestamenetan. Jaunaren Elizan eta bere echean ci-ran urre eta cillarrac, bildu cituen, eta Asiria-co Erregue Teglafalasar-i bialdu ciozcan, esanaz, cein estu arquitzen zan, eta laguntzeco. Teglafalasar-ec esque onequin atse-quin andia artu zuen, cecusalaco, iru Erregue ayen aucia aren onean izango zala; eta bere laguntza esqueñi cion; baña iruai cerbait demboran utci cien, elcar zatituaz, ar-galdu citecen.

Urtebeteren buruan Teglafalasar soldadu-taldearequin Samaria-co Erri-buru Damasco-ronz joan zan topatcen zuen gucia, ondatuaz. Siria-co Erregueac berri negargarri au artu zuenean, Jerusalem-i utciric, joan zan, bere echeari contu artcera. Asiria eta Siria-co Erregueac elcarri eraso cioten, eta Siria-coaren soldadu-taldea osotoró galdua, eta Erreguea bera ilda gueratu. ciran. Orduan Teglafalasar Erreinu guciaren jabe egin zan; Damasco-n sartu, eta emengo biztanle eta gauza guciac Cirene-ra eraman cituen. srael-co Erreguea ere dembora berean, Jerusalem-go sei-Itioa, cegoan oñean utcita, bere echeronz itzuli zan, Erre-nuari contu arteco asmoan, alperric bederic; bada, Te-glafalasar-ec Israel-co gendearen erdia eta gueyago men-deraru, eta berequin eraman znen.

Acaz poztu zan, bere etsáyac paquean eman ciotelaco; baña etzuen ezagutu, mesede hura Jainco eguiazcoari zor ciola; ezpada Teglafalasar-en escuac gorde zuela; eta Er-regue oni Damasco-ra joan citzayon, esquerrac ematera. Emen icusitaco idoloen aldareaz lilluraturic, aguindu zu-en, beraren antzeco bat eguiteco, eta Urias Apaiz-andiari

Jerusalen-go Elizacoaren aurrean ipiñierazo cion. Damasco-lic Jerusalen-era itzuli zanean, ofrendac esqueñ, eta beste lambide asco eguin cituen, Jainco eguiazcoari utcita, guezurrezcoetara jarri zala, adierazten zutenac. Urias Apai-zac, bere eguinquizunari beguiratu gabe, Acaz Erregueari lan oyec guciac ontzat ematen ciozcan. Gueroeneraco Elizbarruan aldare andiac eraguin cituen, Jaincoac ain ar-guiró debeatuta ceucanaren contra.

Teglafalasar-en garaipen andiac cecusquizan, eta uste zuen, aren jaincóac laguntcen ciotela, eta bera ere jarri zan ayec adoratcera. Jerusalen-go Eliza ichi zuen; Erreinu gucian idoloac eta oyen agur-emalleac ipiñi cituen, eta guisa onetan cebillela, Jaunaren aserre gucia gañera ecarri zuen.

Teglafalasar, Jerusalen-i bere icusia emanda, ondasun andiacquin echeronz zanean, Idumea-rrac Juda-n sartu ciran, eta calte latzac eguin cituzten. Filistin-tarrac berebat sartu ciran, eta bazter zabalac beretu eituzten. Ondamen oyen erdian etzan Acaz-en biotza biguntcen, eta, bere gaiztaqueriaetan ondo josia cetzala, bere erreinaldiaren amaseigarren urtean il zan, mundu guciac gorroto ciola. Jerusalen-en lurpetu zuten; ez ordea, Erreguecn obian.

13. §.—*Ezequias, amairugarren Erreguea.*

Acaz-en lecuán bere seme Ezequias amairugarren Erreguea sartu zan. Aita gaiztaquerian aurreratua bezala, semea oneraco griñatua zan. Erreguetzan sartu zanean, ogueita bost urte cituen. Onen lembicico lana Jerusalen-go Eliza, cegoquion oñean ipintcea, izan zan. Aitac ichitaco atead idiqui, garbierazo, eta aitaren demboran quendutaco gauzac eguin cituen. Jerusalen-go carri caetan ipiñitaco idolo, eta oyen aldare guciac quendu cituen: eta Janari zor citzayon agur eta adoracioa obeto emateagatic, bere Erreinuco, eta Israel-co guciai otseguin cien, Pazcoa, eguiteco asmoan, Gendetza andia batu zan, eta lambide onetan egun asco igaro cituzten, Erregue eta mendecoac, norc bere aldian, Janari ezqueiñtza andiac eguiten ciozcatela.

Erregue prestu onec Jainco eguiazcoaren ezagüera eta sinistea Erreinu gucian zabaldu, eta erlegio santa bere aita baño lenagoco oñera itzuli zuen. Onen gogoa Eliz-gauza-etan bacarric etzan. Erreinucoetan ere chit ardura eta contu andia zuen, eta bere eraen cintzoarequin etsayari gogor eguiteco oñean jarri zan. Dembora onetan Asiria-rrac cebiltzan Israel-co Erreinua beretcen, eta Israel-co guciac catibu arturic, echeronz ciranean, ezagutu zuen, Filistin-tarrac escuratceco eraric obena cetorquiola. Eraso cien, eta equin-aldi gucietan garaituric, bazter guciac berriz quendu ciezten, eta utci cituen, bere ondorengoai buru-auste andiric ez emateco eran.

Ezequias-ec onean ecin eraman zuen, bera eta bere Erreinua Asiria-eo Erreguearen zordun bezala egotea, eta urteoroco escueraculsia eguin bearrean arqultcea: eta artu zuen, lolsa gaizto au quentceco asmoa. Senaquerib Asiria-co Erreguea, auzoacquin orañago izandaco guer-racgatic, chit eroria, eta iñori gogor eguiteco quemen gabe cegoan, Ezequias-ec, au gogoan ceucala, urteoró bide gabe escatu oi cion dirutza, ucatu cion, eta urte batzuetan uco onetan, ecer eman gabe, vici izan zan. Baña Senaquerib cerbait ornitu, eta lenogoco guerraetan galdutaco indárrac, ordaindu cituenean, Ezequias beartu nai izan zuen, len bezala, cerbait dirutza ematera.

Asmo onetan eunda larogueita bost milla guizonequin, guichienez, Juda-co Erreinuán sartu zan: Laquis-co gaztelu sendoa setiatu zuen, eta eraso-aldi latzac ematen ciozcan. Ezequias-ec etzuen odolic isuri nai, eta eresi onequin, escatu gucia Senaquerib-i esqueñi cion, baldin bere eche-ra itzuli, eta paquean uzten bacion. Bayezcoa eman cion, eta Ezequias-ec Eliza eta bere echecho diru guciac bildu cituen; baña icusiric oyecquin etzala osatcen, Eliz-ateai, berac jositaco urrezco azal edo chapac, quendu ciezten, eta Senaquerib-i, gaitz-pensatu gabe, diru gucia bialdu cion. Senaquerib-ec diru au artuta, echeronz joan bearrean, utsune guciac onequin estali cituén, eta Laquis-i gogotica-go eraso cion, Jerusalem-i gueró bereala equiteco asmoan.

Onetan Ezequias gaitz batec artu zuen, eta Isayas Pro-

feta joan citzayon, esatera: Echecho eguitecoac zucendu itzatzu, ceren zureac eguin duen. eta il bear ceran. Itz oyec esanda, gueyago gabe, Isayas itsuli zan. Berri onequin Ezequias-ec naigabe andia artu zuen, ez aimbeste iltcen zalaco, cembat seme edo ondorengoric uzten etzuelaco; eta cetzan oyea, bazterreronz jarrita, esan zuen: Jauna, oroi-tu zaite, arren, zure aurrean menaz, eta biotz dolezgabearquin ibilli naizala, eta zure gogoco gauzac eguiten sayatu naizala. Au esanda negar-ots andi bat eguin zuen, eta isilldu san. Isayas atariara baño leuago. Jaincoac ala aguin-duta, Ezequias-gana itzuli zan, eta esan cion, sendatu, eta irugarren egunean Elizaara igoco zala: beste amabost urte-co vicia baceucala, eta Asiria-rric etzala urian sartuco. Gauza oyec guciac sinisteceo, Ezequias-ec Isayas-i siñale bat escatu cion. Isayas-ec erantzun cion: ¿Ea aren aita Acaz ec ipiñitaco eguzqui-erlojuan errañoa aurreratcea, edo atceratcea naizuen? Naiz bata, naiz bestea mirarizcoac ciran; eguzquia mirari gabe ecin aurreratu, ez atceratu citequen. baño Ezequias-ec esan cion, itzala atceratcea nayago zuela. Orduan Isayas-ec Jaunari erregutu cion, eta eguzquia amar mallaz sort-alderonz atceratu zan, eta eguzqui-erlojuaren itzala amar mallaz atcerago jarri zan, eta egun hura amar orduz luceago izan zan. Ezequias egun berean sendatu, eta irugarrenean Elizara igo zan.

Ezequias jarri zan, bada, Jaincoac gañeracoa ere eguingo cion uste oso-ssoan; baño bera ere eguin-alean necatu nai izan. Jerusalem sendotceco prestamenac artu cituen. Bere ondo-esanacquin mendecoai biotzac bizcortu ciezten. Senaquerib-ec, ostera, Laquis-co lánac aurrera ceramaz-qui, eta Jerusalem-era mandatariac bialdu ere bacituen, gueroco beguira egon gabe, aren escuan jarri citecela, esatera.

Ezequias-ec iguerritcen cion, Senaquerib-en aldetic cein eraso latza cetorquion, eta Elizaco aldare-aurrean jarric, Jaincoari erregu umill bat eguin cion: baita Isayas-ec ere orobat bere bacarrean; eta Jaincoac bi servitziari on oyen escariac aditu cituen. Isayas-ec Ezequias-i gaztigatu cion, ez bildurric izateco: Jaincoac aditu ciola etsa-

ya Jerusalem-en etzala sartuco, ez urreratuco ere, eta ecarri zuen bidetic, Senaquerib itzulico zala.

14. §.—*Senaquerid-en ondaxmena.*

Berri onequin Jerusalem-tarrac poz eta atsegniñez jostaquetan cebiltzala, Senaquerib-en soldadu-talde gucia lo cetzan gau batean, Jaincoaren Aingueruac, iñor ere oartu gabe, eunda larogueita bost milla guizon utci cituen, lepomoztuta. Biaramonean Senaquerib-ec icusi cituenean bere soldadu guciac, itzic esateco, eta ayesca bat ere eguiteco lecu gabe, ilda, iguesari eman cion, cer eguiten zuen, edo noronz cijoan, etciequiela: Nnive-n itsumustuan sartu zan; eta dembora guichiren buruan Nesroe bere Jainco guezurrezcoaren elizan, bere bi semeac ganibitaz josita, soldadu guciac ilda icusteco Jaincoac utci cion vicia, quendu cioten.

Jerusalem-tarrac biaramonean egun-sentian gorputz-illac cetzaten lecura joan ciran, eta artu cituzten, ez baccarrie orañago Ezequias Erregueac paquean uzteagatic etsayari bialdutaco dirutza andia, baita beste ondasunecin neurtu aibat ere, ceñacquin estali cituzten Erreinuac etsayac eguindaco calte guciac. Esequiaz ere chit aberastu zan. Jerusalem-go Eliza edertu, uria sendotu, eta beste gauza icusgarri asco eguin cituen, ceñaen bidez bere icena alaco eran auzoetara barreatu zan, non, gendéac urrutietatic Jerusalem-era millaca cetocen, onen inguruan guertatutaco mirari arrigarriac entzunda. Ezequias lambide onequin, opa citequean mallaric goenenecora, igo zan; baña anditasun Onec berac arrotu, eta ipiñi zuen amilttegui picoan, eta bere ecereztasuna aguertu zan. Ara nola.

Beroda-Baladan Babilonia-co Erregueac aditu cituenean Ezequias-en sendatce mirarizcoa, eguzquiaren bat-baletaco atceratcea, aibeste milla guizon gauaz, iñor oartu gabe, iltcea, eta onelaco beste gauza asco, escueracutsi ascocquin mandatariac bialdu ciozcan, aren on eta atsegniñetan cer poza artcen zuen, adieraztera. Ezequias-ec man, datari oyei bere ondasuntegui andiac aguertu ciezten-

berac gucia eguin bazuen bezala, Jaunaren escu, zorion gucien iturria, ecertan artu gabe. Andic laster Isayas Profetac, Jaunaren icenean, Ezequias-i zorrotz itzeguin cion, bere arroqueria arpeguira emanaz, ciotsala, gauza oyec guciac, berac eguiñac bacituen bezala, eracustearquin, etzuela ondo eguin; etorrico zala eguna gauzac, ez ecen, seme-alabac ere, Babilonia-ra eraman, eta ango Erreguearen servitzoan eta morrontza lotsagarrian egongo cirana.

Gogor-itceguite edo ereprentio onen ondoren Ezequias-i bere arroqueria damutu citzayon, eta Jaunaren aurrean umilduric, barcacioa iritsi zuen, eta gueróz vici izan zan, Jauna alic ondoena servitcen. Berroqueita amalau urtecoa, oqueita bederatci Erreguetzan eguinda, il zan. Ezequias-ec Jaunaren gogoa eguin zuela, eta David bere asabaren videdetan ibilli zala, Espiritu Santuac dio. Mendecóac il-berri onequin negar andiac eguin ciozcaten: eta progu onratsuaren ondoren, gorputz-illa, beste guciac cetzaten baño, goratuagoco obian ipiñi zuten.

15. §.—*Manases, amalaugarren Erreguea.*

Manases, Ezequias-en semea, amalaugarren Erregue izan zan. Aita on baten izaera icusita, seme gaizto batena aitatu bearra, neque eguiten da: baño cerbait esan dezagun. Erreguetzan sartu zanean, amabi urte cituen, eta berroqueita amabostean aguindu zuen. Oquerrean bereala asi zan. Arterañoco guizónac sortutaco idolo guciac adoratu cituen. Aldaréac alchatu ciezten, eta adora-lecuac eguin cituen. Auzoerrietaco azti, sorguin, eta deabruacquin bat-eguindaco asco eracarri cituen, oyen bitartez gauza isillac jaquiteco. Bera gaiztoa izateaz gañera, Erreinu gucia, eta Jerusalem bera gaiztotu cituen. Ain biotz gogorrecoa zan. non, Jainco eguiazcoa ez ucatceagatic, aren bide gaiztoai etcerraizquienac, neque ascoren ondoren, iltcen cituen.

Joel, Oseas, Nahum, eta beste Profetac, batezere Isayas-ec, Jaunaren icenean zorrotz itzeguiten cioten; baño alperric: etzuen ecerc ere icaratzen, eta bide gaiztoatic atceratcen; eta Profetac, esan oyen saritzat, eriotza artcen zuten. Isa-

yas-i berari, diotenez, vicia quenduerazo cion, zurezco cerra batequin burutic beera erdiratuta.

Jaincoac icusiric, itz utsac Manases etzuela centzatcen, eguiñetara zan. Asiria-co Erreguearen aguintari batzuec bialdu cituen, eta Manases atcemanic, eta guirgilluz eta catez ondo loturic, Babiloniara eramán, eta ciega illun batean sartu zuten. Orduan beguiac zabaldu cituen, noiz-bait bear da, bere gaiztaqueric ezagutceco: Jaunari barcacio-esque jarri citzayon, eta biotz umilldu eta damutua-requin Jaunaren erruquimentua irabaci zuen. Emen ciega illun onetan zucendu zuen *Manases-en oracioa* deritzana; eta Jaincoac, escariac ondo arturic, Jerusalem-era laster itzuli zuen.

Jerusalem-era zanean, Jerusalem-tarrac uste izan zuten, ez seme Manases, ezpada aita Ezequias cijoquiela: bada, bereala asi zan aitaren lanetan; bere lenagoco oquer-eguiñac zucentcen, eta eguindaco calteac orbaintcen. Deabru-ari ereguitaco aldaréac bota, eta idoloac autsi cituen. Eli-za garbitu, eta beste gauza on asco, eguin cituen, Errei-nua Jaunaren bide zucenera ecartceco, eta zor citzayozcan agur-onac eguiteco. Itz batean bere lenagoco oguei urte-etaco ondamen guciac, atcencoco ogueita amairuetan or-baindu cituen, eta irurogueita zazpi urtecoa Jerusalem-en il zan. Bere baratzan lurpetu zuten, nerequico, berac ala aguinduric, Erregueen obian etzatea bere gaiztaqueric-gatic etcegoquiolaco umilltasunez.

Demboratsu onetan Ninive-n bere egunac bucatu cituen Tobias santuac ere; ceñaren vicitza emen ezartcea, derit-zat egoqui izango dala.

## OGUEITA BOSTGARREN IRACURGAYA.

### 1. §.—*Tobias.*

Munduaren iru milla berreun irurogueita batgarren ur-tean Neptali-co urian Tobias jayo zan. Gurasoac il citzayozcan, gaztechoa zala; baña beti gogoan iduqui cituen, aurtasunean eman izan ciozcaten icasbide eta eracutsi

onac Israel-co Erregue Jeroboan-ec eguindaco urrezco chalach adoratcera, besteac cijoacenean, Tobias Jerusalem-era cijoan, eta Jainco eguiazcoari agur-onac eguiten ciozcan, eta, Jaunac aguindu gucia, contuz gordetcen zuen.

Salmanasar Asiria-co Erregueac Israel-tarrac catibu eramán cituenean, Tobias ere bere emazte eta seme Tobias gaztearequin eramana izan zan Ninive-ra, non bere lan onai cerraquien, len bere echean bezala; eta etzan cuntsuten, Israel-tarrai eraguiten citzayezten gauza debecatuetan.

Beren echeetatic irten ciranean, Salmanasar-ec utci cien, nori bere cezaquean ondasuna, eramaten, guero cerequin vici izan cezan. Tobias-ec ere eguin-alean artu cituen; baña izan oyec, esan diteque, beretzat baño beste-reuzat obeto eramán cituela; bada, cezaquean gucia, beartsuetan eta oneguiten zabalten zuen. Salmanasar-ec Tobias-en ontasuna icusiric, bere gogoan artu zuen; escueracutsiac eguiten ciozcan, eta noro-nai joateco, eta nazuena eguiteco escua eta baimena eman cion. Escubidei onequin catibutic catibura cebillen, lagúnac icusten, laguntcen, eta ondo-esanac ematen.

Bein batean joan zan Ragues-co urira, non Gabelo bere erritarra eta aidea topatu zuen, eta esturasun larri batean icusiric, berequin cituen diru guciac eman ciozcan, bere escuz eguindaco aguri baten azpian. Egun ayetan Salmanasar ilda, Senaquerib sartu zan; baña semea ez aita bezain biotz onecoa catibu ceudenentzat, eta icusi ere nai etcituena.

Tobias-ec trucaera onequin lengo escubideac galdu, eta etceucan bere senide eta lagunai cerequin lagundu: baña, ala ere egunoró cebillen, icusten, eta piscan ere, beartsuai cerbait laguntcen; goseai jaten eman; billosac janci, eta illac lurpetcen cituen. Senaquerib Erregueac, Jerusalem-ondoan izan zuen ondamen andiaren ondoren, bere echera iguesca joan zanean, catibu asco iltcen cituen, eta Tobias-ec oyec lurpetceco contu andia ceucan. Senaquerib-ec lambide au jaquin cionean, zuen gucia quendu cion, eta aguindu zuen, il cezatela. Orduan Tobias bere emazte eta



semearequin, asco nai ciotenetic baten echean, ezcutatu zan, eta gorde zan, alic eta Senaquerib, berroqueita boslgarren egunean, bere semeac il zuten arteraño.

Il-berri onequin Tobias bere ezcuta-lecutic irtenda, echera joan zan, eta gauza guciac izuli citzayozcanean, len bezala, erruquizco lanai equin cien, eta onela beste amasei urte paquean igaro cituen.

Jai batean bazcari aundi bat ipiñi zuen, erritar batzuequin jateco, eta ayen billan bere seme Tobias bialdu zuen. Bidean cijoala, Israel-co guizon bat ilda topatu zuen, eta echera ilzulita, aitari esan cion, cer icusi zuen. Aita mayean lagunac utcita, illagana joan zan, sorbaldan artu eta bere eheco zulo batera eramane zuen, guero lurpetceco asmoan. Lambide aulagunac eta aideac etcioten ontzat artu, eta esan cioten, len ere gauza argatic galtcer jarri zala, eta ¿ea orain cergatic artan asten zan? Baña Tobias, Erregueari baño, Jaincoari bildurrago citzayon, eta ayen esanac contuan artu gabe, guizon illa illunabarrean lurpetu zuen; eta guero ere lambide berean jardun zuen, catibuen contra berriro jaiquitaco eresi edo persecucioac galcen cituen gorputz-illacquin.

Goiz batean illac lurpetcen chit necatua echeratuta, pareta baten babesean atsedeten cegoala, loac-artu zuen, eta gañeronz cegoan enada-cabi batetic, cirin berri apur bat beguetan sartu, eta itsututa utci zuen. Jaincoac neque berri au bialdu nai izan cion, aren eramana cembateraño-coa zan, icusteco, beste demboran batean, Job-ena bezala, Tobias, bada, arqutu zan izaeratic negargarrienean, eta besteri eguin oi ciozcan mesedeac, berac artceco premian. Ecer gabe, nola irabaci etzuela, eta osotoro itsutua cegoan, eta ala ere Jaunaren contra etzuen ilzic eguiten, eta neque guciac aren icenean artcen cituen.

Aideac asi citzayozcan gaizqui-esaca, eta utci zuten baztertuta, eta aren galderic ere eguiten etzutela: eta Tobias jarri zan, Ana bere emazteac eunetan ateratcen zuen irabaci piscaren beguira, jateco, Guisa onetan iru urte cermazquen, eta bein batean emazteac bere lanaren truke, edo erosita edo norbaitec mesedez emandaco anchume bat

viciric echera eraman zuen. Tobias-ec anchumearen beeca-otsa aditu zuenean, emazteari esan cion, beguira cezala, anchume hura ostua ote zan, eta jabeari itzultceco, ala izan ezqueró; bada, gauza osturic etcezaquetela jan, Ana-c arterañoco nequéac onean eraman bacituen ere, orain neurria gañeztu citzayon, eta senarrari asco lotsagabequeriarequin eraso cion.

Tobias-ec icusiric, emaztea ere besteen antzean asi citzayola gaizqui-esaca, eta eguimbide zucen aren contra itzeguiten, negarrari eman cion, eta Jannari escatu cion, arren, Jaunaren contraco aimbeste gauza ez icustegatic, mundutic quendu cezala.

Egun onetan berean, eta andic urrean, Rages-en vici zan Raquel-en alaba Sara ceritzanari, naigabe andi bat guertatu citzayon. Sara onec zazpi senar, bat-beraren urrena, izan cituen; baña Asmodeo deabruac zazpiac il ciozcan, berari uqutu baño lenago. Aitaren nescame batec senarraren ilte onequin arpeguian eman cion, aditcera emanaz, senar gabe beregaizto-izanagatic guertatu zala. Sara-c zorrotz artu zuen, eta erreprentio gogor bat eman cion; baña nescameac lotsa-gabe gueyagorequin erantzun cion: Ez aldizugu, arren, seme edo alabaric seculan icusico, senar-iltzalle orri. Nescamearen lotsa galduco itz oyec Sarari naigabe andia eman citen, eta echecoguela ezcutu batean iru egun, eta iru gau eguin cituen, ecer jan eta ez edan gabe, Jaunari escatcen, arren, lotsabide artatic berrizco quendu cezala: au da, ondorengo bat izateco modua eguin cezala, eta mesede au conveni ezbacitzayon, mundutic eraman cezala; lan au aren escuetan uzten cio-la; bada, lenagoco senarrac ere etcituela, araguiari beguiratuta, artu, ezpada beraren servitzoraco.

Jaincoac Tobias-en eta Sara-ren escariac dembora bat-berean aditu cituen: eta Tobias-ec au ezaguturic, bereala il bear zalacoan, Tobias semea beregana eracarri zuen, eta guraso Jaincozco batec eman ditzazquiquean ondo esanic obenac eman ciozcan: eracutsi cion, aita ilda, onen gorputzarequin cer eguin bear zuen; cer bere amarequin; eta gañeraco Jaincoaren bidean ibil-

tecco eguin bear zuen guci-gucia. Atcenean esan cion, semea oraindic gaztechoa zala, Rages-en vici zan Gabelo-ri diru batzuec eman ciozcala, eta Rages-era joanda, artecco.

Semeac eman znen aitac aguindu gucia eguiteco itza; baña esan cion, etzuela Gabelo ezagutzen: Gabelo-c ere, ez Tobias, eta bideric ere etciequiela. Guclaz ere aitaren esana eguitea gatic, Rages-eronz abiatu zan. Bidean jarrita, laster topatu zuen galai eder bat, bideantea cirudiena, eta diosala eguñic, galdetu cion, ?ea nondic cetorren? Israel-co semeetatic, galayac erantzun cion. ¿Medos-eronzco bidea badaquizu? Bai, galayac erantzun cion. Bide oriee ascotan ibilli ditut; Rages-en gure senide Gabelo-ren echean egon izandu naiz. Tobias-ec esan cion: Pisca bat ichozu, berri oyec nere aitari eman artean. Aitac bereala semea itzuli zuen, galayari escalcera, aren echera joan cedilla. Galaya gaztigu oyecquin Tobias-i aurqueztu citzayonean, esan cion: Atseguitan beti izan zaitecela. ¿Cer atseguin izan dezaquet, Tobias aitac erantzun cion, ichututa nagoan, eta ceruco arguia icusten ez dedan onec? Biotz on, galayac esan cion: bada, Jaincoac laster sendatuco zaitu. Tobias-ec escatu cion, aren semeari, arren, contu eguin, eta Gabelo-ren echera-bidea eracusteco. Galayac bayetzcoa eman cion, eta bideraco anoya edo jana prestaturic, biac abiatu ciran.

Amac icusi zuenean, semea bidean jartcen, negarrari eman cion, eta senarrari asi citzayon, esaten, nayago zuela, diru hura seculan icusi izan ezbalu; beintzat, semea beguetan beti iduquico zutela, eta neque guciac onequin aztuco citzayeztela, eta orain semea joatearequin poz gabe gueratcen cirala. Senarrac emaztea ondo-esanaz isildu zuen, eta ondo itzulico zan uste oso-betea eman cion.

Tobias eta bere laguna lenengo egunean Tigris-co ibayera alderatu ciranean, Tobias asi zan, onac urean garbitcen, eta arrai izugarri batec eraso cion, iretsi nayez. Tobias-ec deadarrari eman cion, laguntza-esque. Lagunac esan cion, egatsetic elduta, leorrera atera cezala. Tobias-ec ala eguin zuen, eta arraya, bereala il zan. Orduan lagunac esan cion, biotza, beazuna, eta guibela ateratecco, eta

noizbait ondo etorrico citzayozcala, cembat miñanz sendatecco. Aragui zati bat erre zuten, bereala jateco, eta gañeracoa gacituric, artu zuten bideraco.

Sartu ciranean Rages ceritzan erri, ez Gabelo vici zanean, ezpada icen bereco beste batean, Tobias-ec lagunari galdetu cion, ¿ea gau hura non eguin nai zuen? Lagunac erantzun cion, erri artan vici zala Raquel ceritzan guizon Tobias-en Tribu eta odolecoa; onec Sara ceritzan alaba bacarra zuela, guizonezco edo beste emacumeric gabe, eta onen izan guciac leguez Tobias-i cegozquiola, eta Sara-requin ezcondu cedilla. Aitari alaba escatcen bacion, etciola ucatuco. Tobias lagunaren itzqueta onequin icaratu zan, eta erantzun cion; aditu izan zuela, emacume arc zazpi senar bat-banaca artu, eta zazpiac deabruac il ciozcala, eta berari ere au bera guertatceaz bildur zala eta onela guertatu ezqueró, gurasoac, beste semeric etzute laco, naigabe andia artu, eta zarzaro negarrezcoaren beguira jarrico cirala. Orduan lagunac erantzun cion, etzuela cer bildur izan: Jaincoaren bildurrean ezcontcen ciranetan, deabruac etcezaquela gaitzic eguin, eta lenagoco zazpi senar ayec patu hura izan zutela, araguiaren gurari gaiztoacgatic ezcondu ciralaco,

Tobias-ec lagunaren ondo-esan oyec adituric, Raquel-en echera biac joan ciran. Raquel-ec chit beguitarte ona eguin cien: elcarri aditcera eman cioten, nor ciran, eta Raquel-ec Tobias bere aidea zala, ezagutu zuenean, laztandu zuen. Bereala afari on bat maneaerazo zuen; baña Tobias etzan mayean jarri nai izan, esanaz, eche artan etzuela, ez jan, eta ez edango, alie eta Raquel-ec Sara emazteztat aguintcen cion artean. Escaera onec Raquel izutu zuen, ceren bere alabaren beste zazpi senarrai guertatua gogoan ceucan; baña Tobias-en lagunac esan cionean, aren alabaren senartzat Jaincoac hura ceucala autua, eta ez besteric, jarri zan, emateco. Tobias eta Sara bereala ezcondu ciran, eta aideagatic ipiñitaco afaria, eztai-afari biurtu zan. Ezcontza, guciac ontzat, artu zuten, eta lan artan Jaincoaren escua cebillela, aitortu zuten, Tobias eta Sara ezcomberriac, lagunac lendanaz esana ceucan bezala, elcar-artu,

eta lenengo iru galiac igaro cituzten otoitzean, eta ezcontza ona izateco gracia eta mesedea Jaincoari escatcen. !Cer icasbide ederra cembat cristau gentillen guisan ezcondu, eta vici diranentzat; Raquel eta bere emazteac biaramonean cer aditu bear zuten bildurrez, Tobias eta Sararen guelara servitzari bati beguiraerazo cioten, eta biac lo cetzatelaco albistarequin pozturic, Jaunari esquerrac eman ciozcaten, ceren lengo zazpi senarren patua Tobias-ec izan et zuen.

Tobias ait-amaguiarrabaen echean chit ondo icusia eta maitetua cegoan; baña bere ait-amac ere gogoratcen citzayozcan, eta ezagutcen zuen, aren itzulerari luceiritciric, nequetan egongo cirala, eta quezca min onetatic atera nai cituen.

Oraindic eguin gabé ceucan, bidean ipiñierazo zuen lambide nagusia, ceña zan Gabelo-ren dirua beretcea; eta au eguiteagatic laguna, bideco prestamenac emanic. Gabelo-gana bialdu zuen diruac artu eta Gabelo-ri bere aguiria itzulic ion; Tobias-en ezcontza eta gañeraco guertaera guciac esan ciozcan, eta laguna eta Gabelo biurto ciran, eztai-ondóac oraindic cirautela, Gabelo-c icuci zuenean bere onguille Tobias zarraren seme Tobias gaztea, laztandu zuen, eta negar-malcoac ceriozcala, Jaincoa adonatu zuen, eta ezcomberriac bedeincatu cituen, ondore luce-lucea opa ciela.

Tobias gaztea bildur zan bezala, bere ait-amac quezca ascorequin ceuden semearen etorrerari luceiriteita. Semea agueri etzanean, negar eguiten zuten. Aitac beregan cion: ?Cergatic nere semea ez ote dator? Ama gañoac berriz, !Ay ene semea; deadar eguiten zuen. ?Certaco bialdu cindugun erromes baten guisan, gure beguien arguia, gure zarzaroco laguntza, gure victzaren pozgarria, eta gure ondo-rearen ustea; !Ez guinizun, ez, utci bear, gugandic alde-guiten; Tobias beti eraman andico, eta neque guciac Jaunaren escucotzat artcen cituena, jarri zan emaztea poztutcen, esanaz, etcedilla estutu: semea ondo zala, lagun ona eraman zuela; baña ama ecin alaituric, bazterric-bazter cebiilen, semea noiz aguertuco citzazon, beguira

Bitartean Tobias gaztea eta Sara prelatu ciran, bideari equileco. Raquel-ec bere izan gucien erdia eman cien, eta ait-amac alaba maitea laztanduric, utci cioten, senarrarequin joaten, esanaz, ait-amaguiarrabac onratu citzala senarra maite izan cezala; ehecoac zucen aci citzala; echea cintzó eraendu cezala, eta gauza guciac barruco quezca gabe eguin citzala.

Ezcomberriac beren lagun, servitzari, abere eta beste gauza guciacquin irten ciran, eta bide zati bat eguin zutenean, lagunac Tobias-i esan cion: Badaquizu cer guisatan zure aita utci ceuden. Ondo baderitzatu, aurrera goacen, eta emaztea, morroi-nescameac, eta gañeracoac ondoreu donarioz etorrico dira. Bidean biac cijoacela, Tobias-i esan cion; Echean sartcen ceranean, zure Jaincoa adoratuco dezu ezquerrac emanaz; cerequin daramazun arrai-beazunarequin aitari beguiac igortci zayozcazu, eta arguituco zayozca.

Tobias-en ama mendi-tontor batean cegoan, semeac eramandaco bideronz beguira, eta nequez bederic, icusi cituenean bi guizon, Ninive-ronz cetocenac, gogoac eman cion, semea eta laguna izango cirala. Gueyagoco gabe joan citzayon senarrari berri-ematera, eta ama orduco chacurra sartu zan, eta nagusi zarrari itsatsarequin palaoa asi citzayon, Onetan ceudela, Tobias eta laguna sartu ciran; Jaincoa adoratu zuten; semeac aitari beguiac beazunarequin igortci ciozcan, eta arguitu citzayozcan, eta bere semea lenengo icusi zuen. Bereala berac eta an baturic ceuden aide eta adisquide guciac, Jaunari esquerrac eman ciozcaten.

Tobias gazteac cearó eta bat-banaca esan ciezten, ehectic irten zanetic itzuli arteraño lagunac eguindaco mesede guciac eta miragarriac, eta poz onetan ceudela, zazpigarregunean Sara bere servitzari, abere eta gauza guciacquin osasun onean iritsi zan. Sarac cer beguitarte izan zuen ezagutceco, ez da esatea baicic, Jaincoac Tobias-en emaztetzat autua ceucan bati cegoquiona eguin cietela. Aide eta adisquideac elcarrequin zazpi egun igaró cituzten, Jainoagandic artutaco mesedeen pozean, eta bitarte onetan Tobias-en laguna ere an egon zan, gucien buru eguiten

zuela: baña oni, bere lanac eguinda, aldeguin bearra etorri citzayon.

Orduan Tobias aitac semeari bazterrera otseguñic, esan cion, ¿ea lagun on ari cer emango cioten? Aitac, ez ecic, semeac ere etciequien, galayac eguindaco mesedeac cerequin saristatu. ¿Cerequin bere mesedeac ordaindu? semeac cion. Berac osasunarequin eramana eta ecarri nau: berac Gabelo-ren dirua escuratu ciran: berac emaztea eratu dic; berac onen echelic deabrua ayenatu du, eta gurasoac poztu ditu: berac arrayaren ortz-aguiñetatic gorde ninduen: berac zuri; ene aita, beguiac arguitu dizquizu; eta berac ondasun andien jabe eguin gaitu. ¿Cer ordain eman dizayoquegu? Ecarri ditugun gauza gucien erdia esqueñi dizoyogun. Semeac itzaldi au eguinda, beretaronz otseguin, eta esan cieten, gauza ayec, arren, artu citzala.

Galayac isillic belarrira erantzun cien: Ceruetaco Jauna guizonen aurrean bedeincatu, eta alabatu ezazute, ceren erruquitu zaituzten. Gueró esan cion, Tobias zarraren erruquico lanac, Jaincoac cein ontzat artu cituen; eta neque oyec izan cituela, cembaterañoco eramana zuen icusteco. Jaincoac bialdua zala, hura sendatcera, eta icusi cituzten gauzac, eguitera. Atcenean esan cien: Ni Rafael Ainguerua naiz. Itz oyec aditu cituztenean, aita-semeac izutoric, auzpeztu ciran; eta Ainguerua «Paquea zuecquin» esanda, ezcutatu citzayen, eta etzuten gueyago icusi.

Tobias zarra gueró ere beste berroqueita bi urtean vici izan zan, belico lan onac eguiten, eta Jaincoaren bildurti. Bere semearen humeac icusi cituen; eta ezagutu zuenean, bere laster-il-bearra, bere ondora guciai deitu, eta aditcera eman cien, mundutic bacijoala. Esan cien, Jaincoa ondo servitceco cer eguin: esan cien, Ninive-ri ondamera bere gaiztaqueriacgatic bacetorquiola, eta ama iltcen zanean, aitaren ondoan lurra eman, eta bazter ayetatic igues-eguin cezatela. Au esan, eta bereala Tobias il zan, eunda bi urtecoa. Emazte Ana ere dembora guichiren buruan il zan.

Tobias gasteac, eriotzaco orduan aitac esana gogoan ceucala, ama il citzayonean, Sara eta ondorengo guciac arturic, ait-amaguiarraben echera Rages-era joan zan, non

elcar maitetnaz, eta atseguin andian urte batzuec igaro citazten; eta larogueita emeretci urteetan il zan, vicitzan izan zan bezain Jaincoaren bildur andicoa. Ondore luce eta ona utci zuen; eta bere ontasun eta doai ederrai cegoquien eran lurpetuzuten.

Jaincoaren cein gogocoac ciran Tobias-en illac-lurpetce eta beste bearrac! Jabe andi ari ecer ere oartzeca ez dijoaquio: ez du ecer ere ordain gabe uzten. Tobias izaeraric samiñenean jarri zan; baña atceneraco gauza guciac oneratu citzayozcan, eta vicitzaric doatsuenean arquitu zan.

2. §.—*Judit.*

Escritura Santan Tobias-en vicitzari Judit-ena darraiquio; beragatic emen cerbait cearó ezarri nai det, esanaz, asiera nondic izan zuen. Mebo-arren Erregue Arfaxad-ec bazter andiac menderatu, eta eguin zuen uri eder bat, Ec-batanes ceritzana. Oraindañocoacquin aren biotza etzan ase, eta Nivive-n Asiria-co Erregue Nabucodonor-i erascion, hura onec venzutu, eta il zuen, eta aren mendeco erri guciac beretu cituen. Garaipen onequin Nabucodonor arroturic, artu cituen auzo guciac bere escupera ecartceco asmoac. Bere soldaduen buru nagusi Holofernes-i otseguin, eta esan cion, gogoac ematen ciola, bazter guciac beretu, gucien nagusi jarri, eta bera besteric jaincotzat ez ezagutcea, eta aguindu cion, soldadu-talde andi baten buruan jarri cedilla. Holofernes-ec artu-ric eunda oguei milia guizon oñezco, eta amabi milia zaldizco, bear ciran guerraco imincio eta gauza guciacquin, bere lambidean abiatu zan. Alderdi andiac eta Provincia osoac menderatu cituen; gaztelu ascoren jabe eguin zan, eta cebillen lecu gucian ondamera ereintcen zuen, Erregueac aguindu bezala.

Juda-rrac eta Israel-en guelditutaco ondarrac izutu ciran, ain etsai gogorra eta gaiztoa alderatcen icusita, ceren ezagutcen zuten, baldin Jerusalem-en sartcen hazan, Jainco eguiatzcoaren Eliza ondatuco zuela, Nabucodonor bacarric jaincotzat ezagutceco. Eliacin Apaiz-nagusiac alde gu-



cietara mandatariac bialdu cituen, norc bere aldetic Jaincoari escatceco, esatera; eta gaztigatu zuen, Holofernes sartu citequean aldeco gañ guciac artu citzatela. Holofernes, prestamen oyen berriarequin, jarri zan su eta gar ceriola, eta Moab, eta Ammongo aguintari guciai deituric, galdetu cien, ¿ea hura cer gende zan, ari gogor eguiteco? Aquior Ammon-tarren aguintariac erantzun cion, esanaz, Israel-tarrac cer ciran; Egipto-tic asita, gueróz Jaincoac oyen alde eta onean eguindaco mirariac; Jaincoarequin ondo cenden aldietan, irabaci izan cituzten garaipen andiac; eta gañeraco Israel-i guertatutaco gucia. Atcenean esan cion, baldin gende hura bere Jaincoarequin ondo ezbageoan, menderatuco cituela; bestela, alperric erasotcea zala; etzuela ecer eguingo.

Aquior-en itzqueta au Holofernes eta beste aguintariai etcitzayen ondo erori; bereala il nai izan zuten; baña viziric utci cioten, gueró Israel-tarracquin batean ayen ustetan il cedin: onetaraco Betulia-ronz eramanic, zuaitz bati lotuta utci zuten, Isrrael-tarrae cetocenean, eramanezaten. Oyec guizon hura guisa artan lotua icusi zutenean, Betulia-ra eramanezaten, eta Holofernes-equin cer guertatu citzayon, esan cien. Gende guciac Aquior-i chit beguitarte ona eguin cion, eta poztu zuten, esanaz, ayen Jainco eguiazcoac ayecquin batean gordeco zuela.

Holofernes-ec Betulia setiatu zuen, eta ur-bide guciac ichi ciozcan, barrungoac egarriac ito citzan. Oguei egunean, gordeta ceuzcaten urac, urritu ciran, eta uricoac Ozias beren nagusiari esan cioten, obe zutela, Holofernes-en escuetan jarri, berac, beren emazte eta humeac, egarriac itotcen icusi baño. Ozias-ec erantzun cien, Jaincoagan uste osoa ipiñi cezatela, eta esturasun latz artatic berac ateraco cituela. Beste bost egunean, esan cien, ichedon ezazute, eta bitartean laguntzaric inondic ezbadator, zuec diozutena eguingo da.

Betulia-n vici zan emacume alargun chit aberats, eta arpegui ederreco bat, *Judit* ceritzana. Iru urte eta erdi ceramazquien alargunduta, echecho lecu bacar batean, bere nescameacquin baicie itzeguin gabe, vici zala. Jayac ez

bēste egun gucietan barautcen zuen; gorputza zalitcen zuen; guerria zurdazco soca latzacquin lotcen zuen, eta Jaincoaren bildur andian vici zan, ecertan ere maišiatceco eta gaizqui-esateco bideric eman gabe, guciac beguirune ora ciotela. Emacume onen belarrietara zan, bost egunen barruan laguntzaric ezbacetorquién, uria Holofernes-en escuetan ipintceco, Ozias-ec eman zuen itza. Errico zar edo buru Chabri, eta Charmi-ri deituric, esan cien: ¿Certa-co Ozias-ec eman du Asiria-rren escuetan erria ipintceco itza, bost egunen barruan laguntzaric ezbadator? ¿Zuec cer cerate Jauna tentatceco? Jaunaren erruquia neurtcea, zuen eguitecoa ez da. Ar-ezazute, bada, gaizqui-eguin onen damua; eta Jaunari bere laguntza eta erruquimentua escatu dizayogun. Becatariac guera, eta gure becatuac esturasun au ecarri digute. Oyec eta onelaco beste esan ascorequin, ayen biotzac lasatu cituen, eta Jaincoac lagun- tceco ustea eman cien, baldin umiltcen bacitzayozcan.

Bere itzaldia Judit-ec eguiteraco, Ozias ere sartu zan, eta onec eta gañeracoac esan cioten, chit ondo mintzatu zala; baciequitela, cein emacume ona eta Jaincoaren bildurtia zan, eta Jaunari, arreu, oyecgatic escatceco. Judit-ec esan cien, erritic bacijoala; baña etcitecela ibilli galdez, cer eguin-asmu zuen, eta Jaunari erregutceco, gogoan ce-rabillena ondo irten cequin.

Ozias eta bere lagunac irten ciranean, Judit auzpeztu-ric, jarri zan Jauari erregutcen. Bere otoitz-aldia eguinda-coan, soñecoric ederrena janci, illea poliqui chiricordatu, burua apaindu, belarrietacoac eta escumuturretacoac ipi-ñi, eta jarri zan al-zuen ederrena; eta nescamea jan-gauza batzuecquin arturic, Betulia-tic egun-sentian irten zan, be-re edertasunac, cecusten guciac, arritcen cituela. Holofer-nes-en soldadu erriaren urrena ceudenac bereala artu zu-ten, eta galdeturic, nondic cetorren edo noronz cijoan, erantzun cien, ayen aguintariari arpeguiz-arpegui itzeguin nai ciola, cembat gausa isill aguertceco. Holofernes-i era-man cioten, eta onen aurrean jarri zanean, agur andi bat eguinda, esan cion, bere erritarrac utcita, cijoala, beren becatuacquin Jaincoa aserretu zutelaco, eta Jaincoac bial-

dua zala, ari cembat gauza isill aguertceco, Oyec itz estaliacquin esan ciozcan: baña Holofernes Judit-en edertasun eta itzqueta arguiarequin lilluraturic, etzuen gaitz-pensatu; eta aguindu.zuen, bere guelatic obenera eramán, eta Holofernes beraren mayetic jaten emateco. Judit-ec esan cion, ango janariac ecin artu citzaquela: cer-jana berequin zuela, eta ez artara beartceco. Eta dacarquizun jan-gauza oriec aitcen bazazquitzu, ¿cer eguingo dezu? Holofernes-ec esan cion. Ez orrelacoric, ez; dacarzquidanac jan baño lenago, Jaincoac nic asmo-dedana, nere escuz egingo du; erantzun cion.

Judit-ec Holofernes-i escatu cion, bere Jaincoari otoitz eguitera campora irteteco baimena. Onequin illunduta-coan Betulia-co ibarrera joanda, arpegui, escu, eta oñac garbitcen cituen, eta Jaunari escatcen cion, bere asmoan ondo irteteco mesedea. Gueró guelara itzuli, eta etzan, beriz, urrengo gaueraño irteten.

Laugarren egunean Holoferne-sec adisquideai afari andibat eman cion, eta Judit ere mayean cegoan; baña etzuen, ecer ere, nescameac ematen ciona baicic, artu. Holofernes-ec, Judit aurrean ceucalaco pozean, iñoiz ere baño gueyago jan eta edan zuen, eta osotoró ordituric, oera bestec eramán bear izan zuen. Adisquideac ere mayetic erdi-ordituac jaiqui, eta, nor bere etzauntzara, joan ciran. Judit Holofernes-en guelan sartu zan, eta biac bacar-bacarric utcita, morroyác atea ichi zuen. Judit-ec nescamea esana ceucan, guelaco ate-ondoan contuan egoteco; eta iguerri cionean, orduric obena zala, lenengotic gogoan cerabilen, eta Jaincoarequin bacarric jo zuen lambide andia eguiteco, beguiac ceruronz jaso cituen, eta malcoac ceriozcala, bere biotzean Jaunari esan cion: Israel-co Jaun eta Jaincoa, indarra indazu, eta Jerusalem-go zure erria libratceco nere escuac eguitera dijoacen lan oni beguira zayozu. Au esan, eta ilcetic cincilica cegoan Holofernes-en ezpata escu batean arturic, eta buruco illeetatic bestearrequin elduric, bi colpetan lepoa ebaqui cion Gorputza zorura bota, eta buruarequin guelatic irten zan; ate-ondoan celatan cegoan nescameari zacura eman cion; eta biac lenagoco iru

gauetan joandaco bidean joan ciran, bere otoitz-aldia eguiteco aitzaquitan. Betulia-co ateetara eldu ciran, cer eguinda cijoacen Asiria-rrac oartu gabe; eta atean ceuden soldaduai otseguin cien: Ateac idiqui itzatzute, ceren Jaincoa gurequin degun, eta bere escu altsua Israel-en alde aguertu duen. Bereala errico buruai gaztigatu cieten, Judit atean cegoala Otsa barreatu zan, eta gend<sup>3</sup> gucia zuzi-arguitan joan citzayon, icustera. Errian sartu zan, eta lecu goitu batetic itzeguin cien, esanaz, Jauna alabatu cezatela, eguin cien mesede andiagatic. Gaur arratzean. cion, bere erriaren etsaya nere escuz il du; eta burua zacutic ateraric, esan cien; Ara emen Holofernes-en burua. Lambide andiau eguin det, Jaincoac lagundu didalaco nere gorputza ecerequin ere loitu gabe. Esquérac, bada, berari eman zayozcazute, ceren erruquiz beguiratu dizuten

Aquior eracarri zuten, eta Judit-ec esan cion: Jacob-en Jainco, bere erriaren etsáyac ondatuco cituela, ezan cenduen arc, gaur arratsean nere escuz sinits-gogor guciai burua ebaqui die, eta eguia diodala, dacusun, ara emen, Israel-co Jaincoa ecertan etceucan, eta zu il nai izau cinduen Holofernes arroaren burua. Aquior-ec, icaraturic, lur-jo zuen, eta berera zanean, Judit-i oñetan auzpez jarri citzayon, eta alabatu zuen. Bereala Jainco guezurrezco guciac utcita, eguiazco bacarra aitortu zuen, eta gueróz Israel leyaltasun andiarequin servitu zuen.

Judit-ec bein asitaco lana bere bidean eramateco, esan cien, prestatu citececela, bieramoncan-goiz Asiria-rrai, ceuden toquian, Holofernes illa icusita, bere ordecoa ipintceco lecuric eman gabe, erasotceco. Ala eguin zuten, eta Judit-ec esan bezala, eguzquia arguilceraco, prestatu ciran. Arma-ots, eta iscambilla andian erritic irtenda, Asiria-r soldaduac icusi cituztenean, beretaronz cijoazquiela, agintarien esque itsumustuan abiatu ciran. Holofernes-en guela-aurera joan ciran; otseguiten zuten, beste gauzaric bezala, ceren esnatcea debecatuta ceucaten; baña eceren zantzuric etzan: etsi zutenean, etzala irteten, eta etsaya aurreratzen zala, Holofernes-en morroya etzauntzan sarerazo zuten; oyerá beguiratu zuen; eta ecer icusten etzuenean, be-

larria ipiñi cion asnasa-otsic ote zan; bañá etzan aditcen. Atcenean burtina edo cortina quendula, nagusia lurrean lepo-moztua cetzala, icusi zuenean, negarrari eman cion. Judit-en guelara beguiratu zuen, eta ecer topatu etzuenean, deadarca irten zan, eta aditcera eman cien, Holofernes Israel-co emacume arc ilda utci zuela.

Berri mingarri onequin Asiria-rrac, cegoana cegoan lecuán utcita, asnas bacarrean beren errironz iguesi joan ciran. Isrrael-tarrac ere Asiria-rren etzauntzaetan sartu ciran, ondoren jarraitu citzayezten, escuratcen cituzten guciac illaz, eta gañean ceucatenguerra gogor ondagarria, gaüetic goizera bucatu zuten. Asiria-rren etzauntzaetan ondasun andiac artu cituzten. Holofernes-berarenac Judit-i eman ciozcaten, eta egun ascoan erabilli zuten, noraño alchatu etciequitela. Guerõ Jerusalem-era Jaunari esquerrac ematera joan ciran, eta Elizari escueracutsi andiac eguin ciozcaten. Holofernes-i artuac Judit-ec Elizari utci ciozcan; eta guciac, nor bere echera, paque gozoan itzuli ciran.

Judit ere bere bacarrera joan zan, eta gueróz len-lenago-co eran Jaincoaren servitzo onean beti vici izan zan, nescameac-quin baicic itzeguin gabe. Jai-egunetan bacarric lecu aguiri-cora aguertcen zan, artara bearteen zutelaco, gendeac icusi cezan. Onela vicitu, eta eunda bost urtecoa il zan. Erregueai cegoquien progua eguinda, ondoren lurpetua izan zan. Emacume andi onec Israel-i paquea eratu cion, eta luzaró etcion iñorc cer eguiñic eman.

## OGUEITA SEIGARREN IRACURGAYA.

### 1. §.—*Amon, amabostgarren Erreguea.*

Tobias, eta Judit-en vicitza eta mirari andien aitamena eguiteagatic, utci guenduen Juda-co Erregueen sallari, orain garraizquion. Amon, amabostgarrena, bere aita Manases ilda, sartu zan. Amon chit biurria izan zan, eta lenagocoac eguindaco gaiztaqueria gucietan erori zan, eta Jaincoac mundutic quendu zuen, bi urte bacarrac Erreguetzan eguinda, bere becatuen damuric, aitac bezala, artutaco siñale gabe.

2. §. —*Josias, amassigarren Erreguea.*

Josias zortci urteco semea Amon-ec bere aulquian utci zuen, eta ogueita amaica urtean aguindu zuen, Jaincoaren bidetic beñere aldeguin gabe. Irureun urtez lenago, Israel-co lenengo Erregue Jeroboan-en vicitzan aitatu zan bezala, esana cegoan, David-en echean jayoco zala *Josias* ceritzan bat, bere demboran lan andiac eguingo cituena; eta etzuen guezurlatu.

Erreguetzan sartu zanean, oraindic gaztea bazan ere, Jaincoa ondo servitu-naya laster aguertu zuen. Juda-co Erreinuan ezagutcen ciran idolo edo jainco guezurrezco guciac quendu, oyec adoratcen erabilli oi cituzten ontciac puscatu, aldareac porrocatu, eta oyetan incensua esqueñtzen zuten apaizac, aldare-gañean ipiñita, erre cituen. Ido loen onran utcitaco baso eta zuaiztiac ebaqui, eta quiscaldu cituen. Ido loen aldeco gauzaric chiquiena ere eguitea debecatatu zuen. Jerusalem-go Eliza garbitu, arterañoco Erregue gaizto guciac eguindaco oquerrac ordaindu, eta Juda-co Erreinaua, Jainco eguiazcoa baicic ezagutcen etzuela, chit oiñ onean piñi zuen. Gueró Israel-en ere, catibutasunera joan gabe guelditutaco banaca eta ondarracquin. Lambide oyec guciac aguin cituen: bada, leguez eta bidez ayen Erregue zan aldetic, biotzie obenarequin beguiratu cien, eta Jaincoa servitceco bide zucenean ipiñi cituen.

Josias-en gogoa etzan onembesterequin bete. Juda eta Israel-co gende andiac Jerusalem-en bilduric, egun ascoan eguin zuen Pazcoaco pesta, lenagoco Erregueac iñoiz ere eguin izan zuten andiena. Lambide oyec guciac pozic andienarequin eguiten cebillela, Jaincoae Holda Profetizaren bitartez adierazo cion, Juda eta Israel-en gañera gaitz andiac eta castigu mingarriac erori bear cirala, beren gaiztaqueriac onela mereci zutelaco; ez, ordea, Josias vici zan artean; bada, bere ontasun eta doai ederracgatic paquean utcico ciola.

Josias-ec aguintean ogueita amaica urte ceramazquien, ustez-uste gabeco il-bearra etorri citzayonean. Ara nola.

Necao Egipto-co Erregueac Nabucodonosor Asiria-coari guerra eman cion. Necao Nabucodonosor-gana bideric, galdu babe, zucen joateagatic, Josias-en lurretic ibiltceco asmoa artu zuen; baña Josias-i etceritzan utci cizayoqueala ceren. ez batarequin, eta ez beztearequin, zuen cer eguiñic; eta bestetic bildur zan, Necao-ri lecu eman ezqueró-Nabucodonosor aserretuco citzayola, eta calte andiac eto rri ere bai. Prestatu zan bada, Necao-ri, gogor eguiteco baldin bere lurrean sartcen, asitcen bacitzayon. Necao ren gaztigua ecertan artu gabe, Josias-ec bere soldaduac quin Magedo-co celayetan eraso cion, etaguecia edo flecha batec jo, eta bereala il zan. Eriotza onec Juda-r guciai min andia eman cien, eta progu ederrac eguiñic, Jerusalem-en lurpetu zuten. Josias cein ona eta Jaincozcoa zan jaquiteco, ez daucagu aditu baicic, Espiritu-Santuac cer dion: Josias baño lenago, dio, ez da izan oni cirudien Erregueric eta Jaincoagana biotz, guciarequin, anima guciarequin eta indar guciacquin jarriric eta Moises-en leguea, onec bezala, gorde zuenic, eta gueróz ere bere parecoric etzuen izan. Argatic aimbeste negar eguin cioten, eta areagoac eguingo ciozcaten, bere eriotzac cer gaitz eta calteac cecarzquien, jaquin izan balute.

3. §.—*Joacaz, amazpigarren Erreguea.*

Josias-ec lau seme utci cituen Joanan, Joaquin, Sedecias, eta Joacaz. Arteraño icusi zanez, Erreguetza Joanan seme zarrenari cegoquion; baña Erreinuco Andizqui eta buruac Joacaz gazteenari beguia ezarri cioten, nai zutena eguiteco escuracoyagoa izango zan ustea artuta; eta aitaren aulquian ipiñi zuten. Erreguetzan igarotaco iru illabeteetan etzuen oquerra baicic eguin. mesedeguille biurri ayen gurariai cerraiquiela.

Necao Egipto-co Erregueac, Magedo-co eraso ezqueró, nai zuena eguin, bere escuan ceucanac bezala, bide gabe Erregue eguin zalaco aitzaquitan, gaztigatu cion, bere bereala aurqueztu cequiola. Joacaz joan citzayon, eta catez ondo loturic, Egipto ra eraman zuten, eta etzan Juda-ragueyago itzuli.

4. §.—*Joaquin, emezortcigarren Erreguea.*

Necao guerò Jerusalem-era joan zan, bere echera baño eragozpen gueyago gabe, ceren nai gucia eguiteco eran cegoan, eta Josias aita eta Joacaz anayaren lecuan, Joaquin seme bigarrena ipiñi zuen, eta etcion iñorc itzie atera. Juda-co Erreinuari dirutza andi bat escatu cion; eta au arturic, Egipto-ra itzuli zan.

Joaquin-ec, erreguetu zanean, ogueita bost urte cituen. Berez chit macurra eta oitura gaiztoetacoa zan, eta bereala asi zan, bere len-lenagocoen antzean, gaiztaqueria eta gaiztaqueria eguiten. Idoloen adoracioa Erreinu gucian zabaldu zuen, eta iñorc itzie trucatu edo ecer esaten bacion, neque-penaric gogorrenac eman eta ilerazotcen cituen. Profetac otseguiten cioten, Erreinuari cer castigu latzac cetozquion, baldin becatuan baciarduten; baña ots oyei sor eta gor eguiten citzayen. Beste ascoren artean Urias Profeta il zuen, onequin gañeracoac icaratu, eta isillduco ciralacoan; baña bataren lecuan bestea aguertcen citzayon, eguiac esatera.

5. §.—*Jeremias Profeta.*

Berri-emalle oyen artean lenengo lecua mereci duena, Jeremias izan zan. Profeta andi onec Jaunaren mandataritza Josias-en demboran asi zuen. eta Erregue on oni asco lagundu cion. Urias il zutenean, berriró aguertu zan, eta Jaincoaren icenean adierazo zuen, Juda eta Juda-coai castigu andi eta latzac cetozquiela, baldin ondu eta Jaunaren esanera jartcen ezbaciran; baña becatuai utci ezqueró, Jaunaren escua atceratuco zutela. Profeta guezurti eta cembail apaiz gaizto osca irten ciran, esanaz, Jeremias, ittea mereci zuen guizon bat, zala. Erreinuco Buru edo Principeac artu zuten; baña ezaguturic Jaunaren icenean itzeguiten zuela, etcioten gaitzie eguin. Iru urte igaro cituen, gaztigu icaragarriac ematen; baña alperric: Joaquin Erreguea eta bere mendecoac egunetic egunera cijoacen



gaiztotcen. Jaincoac, eguia aditceco Juda-rren gogorlasu-  
na icusita, erabaqui zuen, catibutasun latz batequin casti-  
gatcea, eta onetaraco Nabucodonosor Babilonia-co Erre-  
guea autu zuen.

Erregue onen eta Egipto-coaren arteco despitaç aspal-  
dian cirauten: biac indar andien jabe ciran, eta elcar ecin-  
icusi gogorra ceucaten. Juda bien erdian cegoan. Joaquin  
emengo Erreguea len eguindaco paque eta elcartasunaga-  
tic, Egipto-coaren erdi-mendean edo zordun arquitcen,  
zan. Nabucodonosor-ec anayatasun au ecin eraman zuen  
eta castigatu nayez, Jerusalem, Juda-co Erreguearen vicile-  
cuari, eraso cion, eta asco necatu gabe, menderatu zuen,  
eta Joaquin Erreguea, eta Cortecò Andizqui batzuec artu-  
ric, Babilonia-ra catibu eraman, eta Erreguea ondo lotuta,  
presondegui estu batean ipiñi zuen.

Jeremias etzan isiltcen, Juda-rrai otseguiten, arren, gaiz-  
taqueriai utciric, ondu citecela, eta Jaincoaren erruquia  
beretuco zutela: bestela, cecusten Erreguearen eta onen  
lagunen catibutasuna, asiera baicic etzala; Juda gucia on-  
datuco zala; eta Nabucodonosor-en morrontza gogor eta  
lotsagarrian iruro-gueita amar urte eguin bearco cituzte-  
la. Baña Jeremias-en esan guciac alperric ciran. Juda rren  
biotzac oquerrean gogortuac ceuden, Profeta santuaren  
esanac aditceco. Bitartean Nabucodonosor-ec Joaquin  
Erreguea urte betean catibu iduquita, Juda-ra bialdu zuen,  
dirutza andiac ari emateco; Egipto-co Erregearequin ez  
berriz adisquide izateco; eta beste cembat gauza, arc  
aguinduac, eguiteco itzean. Erregueac bacarric Juda-ra  
itzulita, gañeraco bere lagùnac Babilonia-n guelditu ciran,  
emandaco itzaren segurantzaraco.

Jaincoac Erregue biurri oni urtebeteco catibutasunare-  
quin bear aimbat adierazten cion, cer castigüen beguira  
cegoan, ez oncecotan; baña joan bezain gaiztoa edo gaiz-  
toagoa itzuli zan. Jeremias-en contra losenchariac bereala  
itzeguìn cioten, esanaz, guizo n onec gendeari itzeguiteco,  
escua izatea, conveni etzala; nastu baicic alabañan, etzue-  
la eguiten. Erregueac ichian sarrerazo zuen eta profeta  
guezurtiai onequin indar andia eman cion, eta gendea  
beretaratcen zuten.

Gauzac onela ceudela, Jeremias-ec itzeguin edo predi-  
catceco baimen eta escuric etceucan ezqueró, bere icasle  
Baruc-i liburu bat eraguin cion, ceñean, maisuac eracutsi  
ta, ipiñi cituen Juda-ri cetozquion castigu izugarriac, bal-  
din ezbazan ontcen. Baruc-i aguindu cion, Elizara joan,  
eta gende-bilduric andiñean liburua iracurricezala, guci-  
ac Jaincoaren esana aditu cezaten. Baruc, Urias Profetari  
cer egin cioten icusita, uzcur cegoan; baña Jeremias-ec  
esan cionean, etciotela ecer eguingo, liburu gucia Elizan  
iracurri zuen: bereala barreatu zan, cer eguiac esan cituen.  
Erregueac liburua eramanagerazo zūen, eta iracurtcen asi  
orduco, aditcen zuena; ecin erananz, liburua erre, eta  
bere morroyai aguindu cien, Jeremias eta Baruc arrapatu,  
eta lotu citzabela; baña Jaincoac ezcutatu cituen, eta ar-  
quitceco Erreguearen eguin-alac alperric izan ciran.

Jaincoac Jeremias-i aguindu cion, len bezalaco beste  
liburu bat, berriró eguin cezala, eta Erregueari aurquez-  
turic, esateco: Ara, zuc erre cenduen, Babilonia-co Erre-  
guea onará laster etorrico dala, eta gucia, guizonic eta  
abereric utci gabe, ondatuco duela; cion liburua. Beguira,  
bada, Jaincoac Joaquin Juda-co Erregueagatic cer dion:  
David-en eser-lecuan jarrico dan ondorengoric ez du  
izango, eta bere gorputz-illa egunaz eguzquitan, eta gau-  
az izoztcetan egongo da. Gaztigu icaragarri au Erreguea-  
ri eman cion ezqueró, Jeremias-ec izan zuen, gendeari  
eguiac esateco, lecuac; beintzat, Escritura-santac ez digu  
esaten, Erregueac gaitcic eguin cionic; baña etcioten adit-  
cen.

Urte batzuec onela igarota, Joaquin aspertu zan, urteo-  
roco dirutza esquiñia Nabucodonosor-i ematez; ucatu cion  
eta jarrizan gogor eguiteco prešt. Nabucodonosor uco  
onequin chit aserretu zan: baña aspaldian izan cituen  
gora-beeracquin, etcegoan nai zuena eguiteco; eta beste-  
ric ecinean, Caldea, Siria, Moab eta Amon-go cenbat litsa-  
rrero bialdu cituen, cezaqueten caltea Juda-ri eguitera: eta  
dollor oyec gucia ondatcen zuten, lendanaz Profétac, Jau-  
naren aldetic, esanic ceucaten bezala.

Erreinua guisa onetan utciric, Joaquin ogueita amaica

urtecoa il zan, bere vicitza gaiztoaren damu gabe, eta beré lenagocoac cetzaten lecuric, mereci etzuelaco, gorputz-illa zaldi, asto eta zacur ustelduen ezurtoquirá bota zuten.

6. §.—*Jeconias, emeretcigarren Erreguea.*

Jeconias aitaren lecuan, Juda-co emeretcigarren Erregue jarri zan, eta iru illabete eta amar egunean aguindu zuen. Bitarte labur onetan, aitac bezala, idoloac adoratu cituen. Jeremias ec eracutsi cion, cer eguin bear zuen: baña alpe-rric. Atcenean esan cion, erbestera joan, eta an ilco zala.

Joaquin ilzan egunetan, Nabucodonosor-ec Egipto-co Erreguearequin cerabillen guerra bucatu zuen, eta arqui-tu zan, nai-gucia eguiteco lenago baño era obean. Joaquin aitac orañoago eguin cion ucoa gogoan ceucala, Jeconias se-mea aguintean sartu zanean, soldadu-talde andi batequin Jerusalem sitiatu zuen, Barrungoac gogor andiric eguin ga-be, Erreguea, bere ama, aideac, andizquiac, eta servitzariac Nabucodonosor-i barcacio-esque aurqueztu citzayozcan. Erregue ouec gozacaitzqueria andian artu cituen. Guero Jerusalem-en sartu zan, eta Elizan eta Erregue-echean arqututaco urre, cillar, eta beste ondasun guciacquin, Erre-gue, bere echecho, andizqui eta guerrari guciac arturic, Babilonia-ra catibu eraman cituen, ecer guichi zuten bear-tsuonac baicic, Jerusalem-en utci gabe. Bereala Judaco Erre-getzatic Jeconias quenduta onen osaba Sedecias ipiñ zuen, Nabucodonosor-en mendeco izateco, eta dirutan cerbait ondo emateco itzean.

7. §.—*Sedecias, Juda-co atceneco Erreguea.*

Sedecias-ec ogneita bat urte cituen, eta amaican aguindu zuen. Bitartean, anaya Joaquin-ec eta illoba Jeconias-ec be-zala, idoloac adoratu cituen, Jeremiasen otsac ecertan artu gabe, eta mendecoac ere gaiztaquerian buruari ce-rraizquion: etzan itsusiqueriaric, an eguiten etzanic: Eliza berá ere, lotsaric gabe, loitcen zuten. Jeremias isiltzaca be-ti ciardun, esaten, Jaincoronz itzuli citecela; bestela, gal-duac cirala: Babilonia-n catibu laster arqutuco cirala; ba-

ña etcioten aditcen. Sedecias-ec auzoetaco Erregueacquin isillic adisquidetasunac eguin cituen, Nabucodonosor-i gogoreguitco, asmoan. Uste zuen, profeta guezurrezcoac ala eracutsita, indarrez ezcuratuco zutela; eta Jeremias-ec: Jaincoaren partetic esan arren, etcezateta alaco lanic artu, eta ala Jerusalem-entzat, nola Juda-rentzat, chit callitsu izango zala; ceterquien jasa bildurgarria beren becatu eta gaiztaqueric cecarquietela; Babilonia-ra joan, eta emen irurogueita amar urte bete artean, ascotan esan izan cien bezala, egon bearrean cirala, sinisten etcioten

### 8. §—*Ezequiel Profeta.*

Jeremias, Jerusalem eta Juda-n vici ciranai, au esaten eta eracusten ciardun demboran. Ezequiel Profeta ere Babilonia-n bere bat cebillen, catibu ceudenai adierazten, arren Jainco eguiazcoa servitu cezatela, guezurrezcoai agurric eguin gabe; bestela, arquitcen ciran catibutasuna gogorragoa izango zutela. Nabucodonosor-ec Jerusalem artuta Joaquin eta beste ascorequin Babilonia-ra catibu joan zan Ezequiel, ceñari catibutasunaren bostgarren urtean Jaincoac Profetaren eguinquizuna eman cion. Onen bitartez bada, bere lagunai etorquizunaren gañian itceguiten cien, Jaincoaren bildur santuan iduquitceco. Jerusalem-gatic ere chit berri negargarriac eman ciezten, ciola, Jaincoac eguindaco besteri ez bezalaco mesedeac ecertan artu gabe, ain lotsa guichirequin aren aguinduac autsi cituztelaco, castigu icaragarriac bialduco cituela: baña Jaunaren Profeta guciac ecer etciran ayen biotzac zuentceco, eta atcenean Jaincoaren aserreari beren gaiztaquericquin gañez-eraguin cioten, eta atceneco colpea erori citzayen.

Sedecias, Erreguetzan ceramazquien zortcigarren urtean Babilonia-co Erreguearen contra jaiqui zan, auzoaquin, batezere Egipto-coarequin, eguindaco adisquidetasunarequin, Nabucodonosor-i arpegui emateco adiña bazala sinisturic, eta urteoró eman bearra ceucan dirutza ucatu cion. Nabucodonosor-ec uste gabeco berri au artu zuen, Juda-co Erreinuari alde gucietatic eraso: cion. La-

quis eta Azeca ez, beste erri guciac, artu cituen, eta oyel contu eguiteco adiña gende utcita, Jerusalem-era joan, eta setiatu zuen. Sedecias-ec esturasun larri onetan Jeremias gaztigatu cion, Jaunari, arren, ayecgatic escatceco. Jeremias-ec, aurquez-aurque jarrita, Jaincoaren partetic erantzun cion, etzuela gauza onic cer uste izan. Guciac Babilonia-ra catibu joan, eta Jerusalem erre bearrean cirala. Sedecias-ec orduan bere mendecoacquin batean ondu-irudibat eguin zuen, Jaincoac aguindutaco cembait gauza eguiñaz; baña ez biotzetic, ezpada bildurrac estututa.

9. §.—*Jerusalem eta Jerusalem-goien ondamera.*

Egipto-co Erreguea abiatu zan, jerusalem-goari laguntcera, eta Nabucodonosor-ec, bidera irtenda, erasoric, porrocatu, eta iguesi bialdu zuen. Garaipen onen ondoren bereala itzulizan, Jerusalem setiatu eta inguru gucietic ichitcera. Bitartean, Jerusalem-tarren lenagoco on-irudia eguiazcoa izan etzala, adierazo zuten; bada, etsayac aldeguin bezain laster, jolas eta jostaquetari eman citzayozcan, berriz cer icusiric izango etzutelacoan: Jeremias, eguiac beti esaten ciezten Profeta, ichian sartu, eta asco neque eracutsi cioten, eta beste gaiztaqueria eta oquer andiac eguin cituzten. Jeremias-ec esaten cien: Zuei laguntcera cetozten soldaduac, beren errironz itzulico dira. Caldearrac, berriz ere, onará badatoz, eta erri au erreco dute. Ez uste izan, Caldearrac echeronz itzulico dirala, ez, ez; elbarri banaca batzuec ez, beste guciac, ondatuco bacinituzte ere, elbarri oyec asco izango dira, erri au erretceco. Jeremias-en esan guciac cearó guertatcen ciran. Nabucodonosor-ec cembait estutuagotu, barrungoac ambat larriago ceuden. Oyen nequeac cein gogorrac ciran, ecin bear adiña adierazo diteque. Erri doacabe eta zori gaiztoco artan etzan gosea, egarria, gaitza, izurritea, liquitsqueria, eta iltcea besteric agueri. Nola ceuden, cerbait antz-emateco asco da esatea, amac sabeleco aurchoa jayo beguira cendela, bereala il, eta jateco, eta neque oyec guciac beartsuac, ez ecen, aberatsac ere haceramazquiten.

Sedecias-ec, gauza onic etcegoalaco etsimenarequin, bere seme, eta echecoac arturic, ate isill batetic gañaz igues-eguin zuen; eta atcenean Nabucodonosor urtebete eta gueyagoren buruan Jerusalem-en sartu zan. Onen soldaduac cegoan gucia artu, eta guizon eta emacume, zar eta gazte guciac il cituzten; eta Jerusalem eder arc, illen lurpe-lecu edo ezurtoqui bat baizic, etcirudien.

Bereala Erreguearen esque irten ciran, eta Jericó-co celayetan atcitunga, bere seme eta servitzariacquin Nabucodonosor-i eraman cioten: Onec seme eta servitzariac, aita beguira cegoala, Rablata-n illerazo cituen, eta aitari beguic aterata, Babilonia-ra eraman, eta ichian ustelteen iduqui zuen, il arteraño.

Orra cer patua Sedecias Juda-co ogueigarren eta atceneo Erregueacizan zuen. Jaunaren Profétac ascotan e sanizan cioten, cer guertatuco citzayon; baña ayen deada rraisor eta gor eguiten citzayen, eta atcenean Babiloni-an ilzan, Babilonia, Ezequiel-ec aurrez esan bezala, icusi gabe.

Lambide oyec guciac eguinda, Jerusalem-gatic lenaz esanac bete bear ciran. Onetaraco Nabuzardan aguintariari aguindu cion, Jerusalem-era joan, eta soldadúac lenago aldian sartu-berrian eguindaco ondamenetic gorde ciran gauza guciac, artu citzala, Elizaco eta Erregue-echecoai ere, lenago bezala, barcatu gabe; eta erriari eta Elizari su emateco. Nabuzardan-ec nagusiaren esanac cintzó eguin cituen. Elizaco urre eta cillar-gauzac, Erregue-echeco eta gañeracoguciac atera cituen, eta ece-igarrai su emanic, guciac quiscaldu, eta autsegin zuen, zaborrac, eta pareta erre-zarracatuac baizic utci gabe.

Nabucodonosor-ec, nai gucia eguin zuenean, edo obeto esateco, Jerusalem eta Juda-ri cer ceterquien, Jaunaren partetic Profétac esandaco gucia bete zanean, bere erriroz itzultceco asmoa artu zuen; baña ondo etceritzan; Juda bezain alderdi gozo-guri, gauza guziac emateco ain ugaria, iñor gabe uzteari, eta combat guizon beartsu lurlanean trebatu ipiñi cituen, beren icerdiarequin cer jana atera cezaten, eta, bidenabar, berari ere escueracutsi batzuec eguin cizayozcaten. Buru eta nagusitzat eman cien-

Godolias Jerusalem-go semea, eta Jeremias-en esanari beguiratuta, ignes-eguin zutenetacoa: eta inõre charqueriaric eguin etcizayon, bear ambat soldadu utcita, Nabuzardan Babilonia-ra joan zan.

Nabuzardan Jerusalem-en sartu zanean, Jeremias ichian cegoanaz, etzan aztu: cate-petic atera zuen, eta eman cion, Godoliase-quin gueldilceco baimena, eta cerequin vici: Profeta Santu oni, alabañan, nai cion, Jerusalem-tarrac, odolic isuri gabe, Nabucodosor-en escuetan jartceco, alperric berderic, eguin cituen aleguiñacgatic. Nabuzardan-en arrera on onezaz baliatu zan, Ramata-ra joan, eta andic Babilonia-ra catibu cijoaeen bere lagun maiteai atcen-agur-eguin eta nola vici bear eiran, eracusteco. Gueró Jerusalem-era itzuli zan, beste eguiteco andi batera. Ara cer.

10. §.—*Jeremias-ec Elizaco cembat gauza gordetcen ditu.*

Jerusalem-go erria auts-eguin bear zan aurrean, bere gogoco eta Jaincoaren bildurreco apaiz batzuec, beregana deitu, eta Jaunaren partetic aguiudu cien, Elizan ceuden elcartasuneco Cucha, Tabernaculoa bere Qerubinacquin, beti cicecan sua, eta beste cembat gauza artuta, berác icentatu cien lur-zulo batean gorde citzatela. Apaizac ala eguin zuten; eta Jeremias-ec orain, Nabuzardan-ec necazaritzan eguiteco utcitaco guizon Jaincozcoenac berequin arturic, bada, apaizic batere gueratu etzan, lu-zulora joan zan, eta su iracequia emen bertan utciric, beste gauza gogoangarri ayec guciac guizonen sorbaldaetan eraman cituen, eta lagunai alde eraguiñic, berac bacarric zulo batean sartu cituen, eta atea edo sarlecua ichi cion, inõre ecia iguerri cizayoquean eran, eta lagunai esan cien: Lecu au ez da ezagutua izango, Jaincoac bere erria bildu, eta adisquidetu arteraño: eta gaur dan eguneraño coba eta cobaco gauza miragarri ayen berri inõre ezdaqui.

Jeremias-ec, bere lanac eguinda, Jerusalem-era itzuli zanean, cer neque-penac eta naigabeac izango cituen esatea, erraz ez da. Erri ots andico mandu guciaren burua, edertasunean besteri ecer zor etciona, Jainco eguiazcoa

**Eliza** bere erdian ceucana, Jaincoac Israel-tarren alde eguindaco mirari eta mesede paregabeac aguertcen cituzten gauza guciac beregandic aterata, Jauregui, eche eta gañeraco guciac auts eguinda, alde gucietatic bacardaderic mingarriena iensita, ¿nor Jeremias-en biotz illuna eta miña adierazo? Orduan ipiñi, edo zucendu cituen, *Jeremias-en negárrac edo lamentacioac* deritzaten itz triste, aste santuco Eliz-lanetan iracurri oi diranac eta biotzie gogorrena ere erdiratu gabe ecin aditu ditezqueanac.

Gueró Jerusalem-dic Masfat-era, Godolias-en ondora, juan zan, eta bere lagun banaca ayecquin vici zan, guciai Jaunaren bide zucena eracutsias: baña laster izan zuen, cergatic berriró negar eguin. Asi ciranean beren burúac, sacabanatuta, gorde situzten banácac auzoetatic Juda-rabilcen etorri zan guizon bat, Ismael ceritzana, eta Godolias-en nagusitza ontzat ecin eraman zuena. Onec afaltcen ceuden batean, Godolias il zuen, eta Amon-tarretara iguesi joan zan. Lagunac guelditu ciran, cer eguin etciequitela, edo Babilonia-ra barcacio-esque, edo Egipto-ra iguesi joatea, ecin erabaquiz, zalantzan. Jeremias-ec esan cien. ez bata eta ez bestea eguin cezatela, ezpada Judan bertan egoteco, eta etciela iñorc gaitzie eguingo. Jeremias-en esan guciac alperric ciran, eta arteraño bildutaco andi eta chiqui guciac arturic, Egipto-ra iguesi joan ciran. Jeremias ere berequin eraman zuten; eta emen vici izan zan, Juda-r desleyalai beren billauqueríac arpeguira ematen, eta Jaunaren esanac ecertan artu etcituztelaco, ceozquien castigulatzac adierazten: eta atcenean Profeta santu au arrica il zuten.

Ismael eta bestéac Juda-tic aldeguin zuten ezqueró, or emendic Jerusalem-ondora cembat Juda-r bildu ciran vicimodua ateratceco asmoan; baña Nabuzardan-ec artuta, Babilonia-ra, lenagocoac bezala, catibu eraman cituen, eta Judaco Erreinu ederra soll solla gueratu zan, necazari banaca batzuec baicic gabe. Egipto-ra igues-eguindacoai ere maquillada iritsi citzayen. Nabucodonosor-ec auzotaco Erregueacquicoa eguin, eta menderatu cituenean, Egipto-coari ere eraso cion, eta eguin zuen ilquintza an-



dian, Juda-co igueslari asco erori ciran, eta gañeracoac eraman cituen Babilonia-ra beren sende eta erritarrac lenagotic ceuden toquirá, non morrontza gogorrean sartu ciran, Profeta santúac aurreeraz esan izan cioten bezala.

## OGUEITA ZAZPIGARREN IRACURGAYA.

### 1. §.—*Babilonia-co catibutasuna.*

Juda-rrac beren burúac catibu icusi cituztenean, etsi zuten, izaera onetan igaro bearco cituztela, Jeremias Profetac esan izan ciezen irurogueita amar urteac. Ezagutu zuten, neque ayec guciac beren gaiztaqueriác ecarri cieztela, eta Jaunari eguindaco irain edo ofensaen damua bertatic aguertu zuten, eta asi ciran Jainco eguiazco aibataldiz Judan baztertu zutena, eguiaz adoracén, eta cezaqueteneraño servitcen. Onetaraco asco lagundu cieten Jeremias-en lenago ondo-esanac gaztiguac; eta onen icasle Baruc. Ezequiel eta beste profetaen eracutsiac.

Juda-rrac necazaritzan eta edocén eñcu lanetan chit azcarrac eta arguiác ciran; eta beren icerdiarequin cerjana atera cezaten, Nabucodonosor-ec lur-erlo andi eta bazter zabálac oparóeman ciezen, maneatu, laboreac ereñ eta abuztu onac izan citzaten. Onela urte batzuetan vici izan ciran. Bitartean Nabucodonosor-ec Persia-co Provincia bi beretu cituen, eta oyetaco gendéac Juda-ra bialdu, eta Babilonia-n ceuden Juda-rrén erdiác Persia-n, ipiñi cituen, eta trucaera onen bidez, erdiác arqutu ciran Babilonia-n eta bestéac Persia-n non berriró asi bear izan ciran, eman citzaiezen bazterretan necalcen, eta vicia ateracén; eta bi lecuetan Jaincoac beguiratu cien erruquiz, eta mesede andiac eguiñaz.

### 2. §.—*Daniel Profeta.*

Arestjan esan da, Juda-rrai Babilonia-n asco lagundu cietela Profeta santúac, ceintzuen artean Daniel ipiñi bear da. Daniel oraindic gastechoa zala, Joaquin Juda-co Erre-

guearequin batean eramana izan zan Babilonia-ra, non Joaquin Erreguea echera itzuli arren, beste catibuacquin gueratu zan, eta Juda gucia ará zanean, an vici zan. Onen icen andia laster aguertu zan, eta beguira cergatic.

3. §.—*Susana.*

Susana, Helcias-en alaba, eta Joaquin ceritzan guizon aberats baten emaztea zan. Guciz ederra eta moduzcoa izateaz gañera, gurasoac eman cioten aciera onari cintzo erantzunda, Jaincoaren bildur andicoa zan, eta ez mun duac nai duen, ezpada Moises-en legueác escatcen zuen eran, vici zan. Joaquin-ec bere eche-ondoan ceucan baratza eder batean Juda-rrac biltcen ciran egurastu-aldiac artcera. Urte artan Jueztzat bi guizon zar-eldu ipiñi cituzten, eta Juez Oyec eta cer esana zuenic bazan, Joaquin-en echean batu, eta ezdabaida edo auci guciac erabaquitcen cituzten. Gendeác aldegiten zuenean, Susana baratzara irten, eta ibilli oi zan, egurastutcen. Andre onen edertasunác zar ayec lilluratu cituen, eta Susana ronzeo amorio zorroa biotzetan sartu citzayen; eta, nor bere aldetic, erabillan cebiltzan, elcarri beren barrungaldua, eta zoramena aguertu gabe. Bero andia eguindaco bein batean, Susana baratzaco putzuan mainatu nai izan zan, eta ain beguirtua izanic nescaméac baratzatic campora bialdu cituen, putzuan cegoala, icusi etcezaten, eta atea bere aldetic ichi zuen.

Guizon zar ayec eguinquizunetatic irtenda, elcarri echeraco agur eguiñic, ustez banacatu ciran; baña nor bere aldetic, isillic baratzan sartu, eta elcar laster topatu zuten. Orduan batac besteari bere eresi galdua aguertu cioten. Lecu ezcutu batean jarri ciran, Susana bacarrean alcitceco eraren zai, beren gurari liquisa asetceco. Oartu ciranean, Susana baratzan bacarric guelditu zala, biac joan citzayozcan, eta beren gogoa aguertu cioten, esanaz: Ateac ichita daude; inore ezgaitu icusten; eta gue nai degunera jarri zaitte: bestela, gue gueroc esango degu, galai batequin ceundela, eta onequin gozaroago egoteagatic, nesca-

méac baratzatic atera dituzula. Itzqueta lotsagabe au aditu zuenean, ayescamin bat eguin zuen, ciola: Alde gucietatic estu nago; zuen esana eguiten badet, anima ilco zat, eta ezbadet, gorputza ilco da: baña obe det, zuen escuetan il, Jaunaren aurrean utseguin baño.

Itz oyec esanda, laguntza-esque deadar eguin zuen. Zàrrac ere osca asi ciran; baratzacoatea idiqui zuten eta Susana-ren morròyac otsetara beguiratu zutenean, echecoandrea bi zar ayen erdian, chit antsiatua, eta itz gabe, icusi zuten. Zar liquitsac, beren gaiztaqueria besteri ezarri-nayez, guezurra ceriotela asi ciran, eta morròyac lotsaturic, etzuten biotzie izan, esateco baizie alaco gauzaric eche-coandreagatic seculan etzala aditu.

Susana garbia echera itzuli zan, nescaméac laguntcen ciotela, eta etciric, munducóac etciotela gauza onic eguingo, Jaunaren escuetan jarri zan, eta escatu cion, aren garbitasunari, arren, beguiratceco. Susana-ren senar, guraso eta ezagunai aldats eguiten citzayen, onelaco gauza bat Susana-c eguin zuela, sinistea; baña zar berdeac lana aurrera ceramaten; era Susana-c icusiquizunic ez izan arren, lecuco edo testigúac esan esqueró, Juda-rren legueari cegocanez, arrica il bear zan.

Biamamonean oi bezala Joaquin-en echean batu ciran, auciac icusi, eta erabaquitcera. Susana bereala eracarr zuten, eta escuac oni buruan ipiñic, zartzar ayec esan zuten: Emacume au, atzo baratzan guembiltzala, bere nescameacquin sartu zan: nescachac bereala bialdu, eta atead ichi cituen: gueró galai bat, ezeutatuta cegoan lecutic, irten citzayon, eta biac gaiztaquerian ibilli ciran. Guc galaya atcitu nai izan guenduen; baña gu baño gueyago zalaco, ignes-eguin cigan, eta oni elduric, galdetu guñion, cein zan, eta etcigun esan nai izan. Guc gueroe au gucia icusi guenduen. Bilduta cegoan gendeac, zar ayec ciotena, sinistu zuen, guezurric esango etzutelacoan, eta erabaqui zan, il cedilla.

Susana-c etzuen itzic atera, eta biotza ceruronz jasic, Jaunari onela erregutu cion: Ene Jainco betico, gauza isillac ezagutzen, eta eguin baño ere lenago daquizquizuna;

badaquizu, eguin ez dedan gaiztaqueria, ezarri didatela, eta oyec nigalic esan dituzten guezurragatic, iltcera noala. Jaincoac entzun cion, ez ordea guizónac ecertan artu. Lotu zuten, eta urcameñdira ceramatela, Daniel gazteac deadarrari eman cion, esanaz; Ez naiz ni andre onen odolean cutsutceñ. Itz oyec aditu cituztenean, Daniel-i ingurucocac esan cioten: ¿Orrela cer diozu? Daniel ec orduan esan cion: ¿Burutic jauciac alzaudete, gueyagoco gabe eta icusiquizunic ez duen gauza bategatic, Juda-co alaba bat iltceco? Itzuli zaitozte, eta gauzari ondo beguiratuta, berriro erabaqui ezazute: andre oni ezarritaco gucia, guezurra da. Erabaqui-lecu edo Tribunalera itzuli ciran; gendeac Daniel erdian artu zuen, eta bere iritcia escatu cioten. Daniel-ec erantzun cion, zalatzalleac banacatu citzatela, eta arc bere galdéac biai bat-banaca eguingo cieztela. Banacatu ciranean, Daniel-ec bati otseguin, eta galdetu cion; ¿Cer arbola-petan galayarequin emacume ori icusi cenduen? Leguelchorra-pean, salatzalleac erantzun cion, Daniel-ec esan cion: Ori cer guezurra. Gueró besteari deitu, eta galdetu cion, ¿ea Susana eta galaya cer arbola-petan icusi cituen? Arte-pe batean, bigarren onec erantzun cion. Cer guezurra diozun, oni ere Daniel-ec esan cion. Aditcen cendenac icusiric, esanetan biac bat etcetocela, ezagutu zuten, guezurretan cebiltzala, eta Susana-ren alde jaiqui ciran, esanaz, oni nai cioten eriotza bera, agure guezurti ayec mereci zutela. Susana ascatu zutén; zar salatzalleac lotuta, urcalecura eraman, eta arrica il cituzten. Daniel ceruetaraño alchatu zuten, eta onen azcartasun argia bazter gucietara barreatu zan: eta Susanaren garbitasuna ere aguirian gueratu zan: gueróz len-lenago-co beguirunea gorde cioten: emacume on eta Jaincozcotzat iduqui zuten, eta oraindaño aitortu, eta secula gucian aitortuco da, deabruaren amuetatic gorde nai diranen maisu eta ispillu garbia dala.

Susana-ren contu au guertatuta laster, Nabucodonosori gogoac eman cion, ain aguinte andia ceucan Erregueari cegoquion Gortea, edo servitzari asco ipintcea, oyetatic bere anditasuna ezagutu cedin. Mendean ceuzcan Errei-

nuetaco mutil gazte ederrenac; bere echera eramanezazo cituen, bere mayetic jan eta edanaz, eder eta galant aci citecen; eta Caldearren itzcuntza eta escola icasita, gueró echean servitu cezaten. Juda-rren artean Daniel, Ananias Misael, eta Azarias onetaraco autuac izan ciran.

Daniel bereala bildurrac artu zuen, ematen citzayen janarian, izango ote zan cerbait, Moises-en legueac debecatu, edo idoloai esqueñi edo ofrendatua, eta ecertan ere ez cutsutceagatic beren aguintari edo contuartzalleari esan cion, beste jan-gauza batzuec emateco. Beingoan beste janariric etcien eman nai izan, erantzunaz, baldin jan gabez, gañeracoac baño ubelcheagoac baceuden, Erregueac ari nocierazoco ciola, eta ecin eguin cezaquean gauza, escatcen ciola. Daniel-ec etsi etzuen: bigarren contuartzalle Malasar-i mesede bera escatu cion, esanaz: Amar egunean baberrumac jaten, eta ura edaten iguzquizu, eta gueró beguira zaguzu, Erreguearen mayetic jan dutenac edo gu ederrago gueran. Malasar-ec ala eguin zuen; eta amar egunen buruan besteac baño ederrago eta galantago arquite cituen; eta iru urte, artaraco icentatuetan, baberruma, eta ur utsarequin vici izan ciran; eta Malasar ere onela ondo cijoan, ceren Erreguearen mayetic cetozquion jan edanac saldu, eta oyen dirua beretzat zuen. Bitarte onetan, gorputceco edertasuna, ez ecen, jaquinduria eta gauza isillac asmatceco doaya ere lau gazte ayei, batezere Daniel-i, Jaincoac eman ciezten.

Iru urteen buruan, norc bere contucoac, Erregueari aurqueztu ciozcaten, eta Erregueac icusiric, ederrenac Daniel eta bere lagunac cirala, eta itzquetan ere arguienac, bertalic bere servitzora artu cituen.

#### 4. §.—*Nabucodonosor-en ametsa.*

Andic cerbait demborara, Nabucodonosor-ec gau batean amets izugarri bat eguin zuen, eta esnatu orduco, aztu citzayon, cer zan. Erreinuco sorguin, azti eta asmatzalle guciac bildu cituen, eta aguin du cien, cer amets eguin zuen, asmatu, eta cer esan nai zuen, azaldu cezatela; bes-

tela, ilerazoco cituela. Azti oyec ecin zuten asmatu, cer amets zan; eta erantzun cioten, munduan au cezaqueanic etzala, eta asi ciran, guciac iltcen. Daniel eta bere lagunac ere asmatzalletzat ceuzcaten, eta besteac bezala, billatcen cituzten iltceco. Orduan Daniel Erregueari aurqueztu citzayon, eta esan cion, baldin epea edo lecu ematen bacion, asmatuco ciola, Itz onetan Daniel bere lagunacquin jarri zan, Jaunari erregutcen, eta Jaincoac naico gucia aguertu cien. Bereala Erregueari joan, eta esan cion: ¡O Erregue! Zu jarri cera, ondoren cer datorren pensatcen, eta gauza isillen berri duenac, etorquiñac aguertu dizquizu. Niri ere adierazo dit, zure ametsac cer esan nai duen. Guciac beguira jarri citzayozcan, eta guisa onetan itzeguin zuen.

¡O Erregue! Sumbil edo guiz-antz beguiratu icaragarri-co bat zure aurrean icusi dezu. Burua urrezcoa, bularra eta besoac cillarrezcoac, sabela eta isterrac cobrezcoac, bernazaquiac burnizcoac, eta oñac erdi-burni eta erdi-lurrezcoac cituen: eta zu beguira cengoquiola, amildu zan arcaitz batec, oñetan jo, eta gucia porrocatu zan: urre, cillar, eta beste gayac, aiceac daraman autsa bezala, ayenatu ciran; baña arcaitza mendi eguin zan, eta mundu gucia estali zuen, Zure ametsa au da. Erregueac ezagutu zuen, Daniel-ec eguia ciola, eta ecertan ere utseguin gabe, amets gucia asmatu zuela.

Onen ondoren azaldu cion, cer adierazten zuen, esanaz urrezco buruac bere erreinaldia aditcera ematen zuelacillarrezco bular eta besóac gueró sortuco zan beeragoco erreinaldi bat; cobrezco sabel eta izterrac irugarren erreinaldi mundu gucian zabalduco zana; eta burni eta lur nasteco bernazaqui eta oñac laugarren erreinaldi erdibituco zana. Atcenean arcaitz arcadierazten zuela, lau erreinaldi oyen buruan sortuco zala beste bat, gañeraco guciac deseguiten icusi, eta berac beti iraungo zuena.

Daniel-ec itzqueta onetan gueroco berriac eman cituen. bere beguiacquin icusitacoac izan balira bezala. Nabucodonosor en aguintearen ondoren Medo edo Persa-ena izan zan: gueró Grecia-irena; atcenean Erroma-irena. Eta oyen gucien ondoren eta buruan Jesu-Cristo gure Jaunac ipiñi

zuen bere Elizaco Erreinu, beti iraungo duena, eta gañeraco gucien gora-beerac, eta autsi-osoac icusico dituen.

Nabucodonosor Daniel-en azcartasun eta arguiarequin arritu zan, eta auzpeztu citzayon, adonatu eta incensua esqueñi nabez, baña Daniel-ec eteion utci, esanaz, agur hura Jainco eguiazcoari bacarric zor citzayola, Ordutic Daniel goeneneco mallan jarri, eta Erreguearen lenengo servitzariaren aulquian eserizan, dembora batean Egipto-n José egon izan zan era ber-berean; eta Daniel-en lagúnac ere Erregueac aguintean ipiñi cituen

### 3. §.—*Nabucodonosor-en guiz-antza.*

Nabucodonosor-ec Daniel-en eracutsi onacquin Erreinuco gauzac chit zucen eraentcen cituen; eta Israel eta Juda-co catibu guciac ere beren erritar, ain gora cegoanaren babe-sean, lasaitasun andian eta eseurantza ascorequin bici ciran. Baña urte asco baño lenago, ecin icusiac lecu eguin zuen, Babilonia-rrac onean ecin eraman zuten, Daniel eta bere lagúnac, arrotzac izanic, alaco escubideac izatea, eta asi ciran Nabucodonosor-i igüinerazotcen. Erreinuco lambideetan eta eraenean nondic elduric etzuten arquitcen, eta erlegioaren aldetic sartu ciran. Erregueari esan cioten, lenago izandaco amets arc mereci zuela, ondorengoai oroipen bat uztea, eta eraguin cezala, lotan irudita citzayonaren eraco guiz-antz bat, gucia urrezcoa, eta Erreinuco andizqui guciac, hura adoratcera, beartceco.

Erregueac esan au ondo artu cien, eta eraguin zuen urrezco guiz-antz bat, ogueita amar cana luce eta iru zabal zana, eta Dura-n ipiñi zuen. Erreinuco andizqui eta buru guciac Dura-n bildu, eta guiz-antz oni belaunicatu citzayozcan; baña icusi zutenean, Daniel-en iru lagun Sidrac, Misac, eta Abdenago-c etzutela, besteac bezala, egin, Erragueari salatu cioten, iru gazte ayec etzutela aren agüindua ecertan artu, eta guiz-antzaren aurrean ez ere belaunicatu.

Nabucodonosor-ec beregana otsegin, eta esan cien;

¿Eguia da, nere jaincoai ez diezutela agur egiten, eta nic eraguin dedan idoloa adoratcen? Orain, bada, baldin ez-badezute nic aguintua egin nai, labe goritu batean sare-razoco zaituztet: eta ¿cein Jaincoc nere escutic ateraco zaituzte? Gazte santu oyec, Jaincoaren amorioarequin suturic, esan cioten: Ez dagoquigu gai onetan zuri ecer erantzutea, ceren gure Jaincoac labe goritule, eta zure escuetatic ateragaitzaquean; eta au eguin nai ezbalu ere, jaquin ezazu ¡O Erregue! ez diegula agurric zure jaincoai eguingo ez zure idoloric adonatu ere.

6, § *Daniel-en lagúnac labe gorituan.*

Mundu guciac, bayetz; esaten oituta cegoan Nabucodonosor arroac, ez da cer esan, erantzura au nola artuco zuen. Beguiratu zorrotz bat eguinta, berai itzie esan gabe aguintu zuen, labe bat sutu cedilla, bestectan baño zazpi aldiz beroago jarlceraño, eta iru gazte oyec, ondo loturic, botalceco, erre eta auts-egin citecen. Servitzariac ala eguin zuten, eta ain goritua ipiñi zuten, non, garra ogueita lau cana eta erdian igoteen zan, errequiñac ematen ari citzayozcan guciac erietcen cituela. Iru gazteac garretara bota cituzten, eta lotura guciac Aingueruac ascaturic, labe gorituan, celai eder batean bezala, or-emen cebiltzan, Jaincoa alabatcen, acatsic chiquiena ere suac eguin gabe.

Nabucodonosor-i au esan cioten, eta bere beguiacquin mirari au icusteagatic, labe-ondora joanda, beguiratu cien eta esan zuen: ¿Au cer da? ¿Ez dituzute iruac, ondo lotuta, labera bota? Ala ere nic neronec dacusquit, locarri guciac ascatura, batera eta bestera dabiltzala, Jaincoaren semea dirudien bat lagun dutela. Nabucodonosor arqutu zan, cer eguin edo cer esan etciequiela. Gueroenean labera alderatu citzayen, eta otseguin cien: Jainco andiaren servitzari onac, irten zaitetze, eta atozte. Langarren lagun Aingueruac bereala aldeguin zuen, eta iru gazteac gar-artetic irten ciran. Erregue, andizqui eta gañeraco guciac arrituric guelditu ciran, icusi zutenean ille-izpi bat ere eteitzyela erre: eta Nabucodonosor-ec aguintu zuen, bal-



din Sidrac, Misac eta Abdenago-ren Jaincoagatic inõre gaizqui esaten bazuen, il cedilia; bada, beste Jaincoaric ez da, cion, labeco su-garretatic onela gorde ditzaqueanic. Len-lenago baño ere gueyago alchatu cituen, eta oyec ecin icusiz, eta galdu nayez cebiltzan biotz dollorrecoac, lotsaturic gueratu ciran.

Mirari onen ondoren urte batzuetara, izan zuen beste amets bat chit icaragarria, eta lenagocoa baño obeto go-goan gueratu citzayona. Bazter gucietan ceramazquien garaipenacquin arroturic, etzuen uste, bera aibat inõre zanic, eta Jaincoac urgulleri au beeratu nai izan cion. Lotan iruditu citzayon, cecusala, zuaitz edo arbola bat ceruraño iristen, eta munduaren lau ertzetic icusten zana. Orri chit ederrac, eta fruta asco cituen. Lurreco abereac onen itzal-pean, eta aireco egaztiac adarretan egoten ciran. Cer jana guciai ematen cien. Nabucodonor amets onetan cegoala, contuartzallea cerutic jatsi zan, eta otseguin zuen: Arbola ori ondotic ebaqui, adarrac autsi, orriac astindu, frutac barrayatu edo zabaldu, abereac bere itzaletic, eta egaztiac adarretatic iguesi joan bitez; baña epait-ondoari lurrean utci bequio, burnizeco eta cobrezco cateacquin lotuta, belar-artean, intzac busti dezan. Guizon-biotza, biotz-basati itzuli bedi, eta guisa onetan zazpi dembora edo urte igaro bitza. Ametsa au zan.

Cer esannai ote zuen jaquiteco, Erreinuco sorguin eta azti guciai Nabucodonor-ec deitu cien, baña etcion inõre azaltcen. Atenean Daniel-i otseguin, eta onec aguertu cion, Ara nola. Arbola ori zu cera ¡O Erregue! Daniel-ec esan cion. Zure anditasuna ceruraño igo, eta zure aguintea mundu gucira zabaldu da. Gañeraco, iruditu zazquitzun arbola-ebaquitce, adarauste, eta besteac, ara cer adierazten duten. Guiza-artetic botaco zaituzte, etalar-abereacquin vicituco cera, belarra idiac bezala janaz, eta intzac bustitcen zaituela, eta guisa onetan zazpi urte joango zazquitzu, Jaun Cerucoac guizonen aguinteac escuan dauzcala, eta nori-nai, ari ematen diozcala, ezagutu dezazu artean. Epait-ondoa bere sustrayetic uzteco esateac adierazten du, zure Erreina zurelat izango dala, escualdi

gucia cerutic datorrela ezagutzen dezunean. Nere esana orain ar-ezazu: zure becatu eta gaiztaqueriaen truque limónnac eguin itzatzu, beartsuai lagunduaz, eta Jauna menturaz zuzaz erruquituco da.

Nabucodonosor-ec albista onequin icara andia artu zuen, eta Daniel-ec esandaco gauza onai equin bearrean, guerraco iscambillacquin cerbait aztutcen ote citzayon icusteco, Egiptoco, eta auzoetaco beste Erregueai indar andiacquin eraso cien, eta guciac nayerara menderaturic, Babilonia-ra itzuli zan, arroqueriaz beteta, mundu guciaren jabetzat bera burua ceucala.

### 7. §.— *Nabucodonosor abere eguiña.*

Garaipen oyen ondoren, Daniel-ec ametsa azaldu cionetic amabi illabetera, egun batean echean egurastutcen cebillela, Babilonia-co erri ederrari beguirajarri zan, esanaz: ¿Cer? Babilonia-co uri eder au ez da, nere anditasun gucian vicitutceco nic eraguin nuena? Itz oyec esan orduco, Cerruco ots bat aditu zuen, ciola: Zure erreinua zugandic badijoaquizu: guiza-artetic irtenda, abereetara zoaz. Daniel-en esanac bereala asi ciran guertatcen, Barutic jaucitaco amorratu baten eran, uste du aberea dala, eta abereen grñac artcen ditu; soñecoac urratcen ditu, itzeguin nai ez du, eta idiac bezala, *muu* eguiñaz, lau-oñean abiatcen da.

Echetic irtenda, guizonetatic igues-eguin zuen; basora joanda, sasiteetan sartu zan, eta, lar-abereen eran, belarra jaten zuen; eta guisa onetan zazpi urte igaro cituen, izotz eta inciarrac, eguzqui eta euriac, cazcabar eta beste ecaitz guciac araguiartuaz: larrua cascartu, eta illea, egaztai lumac bezala, aci citzayon, gorputz gucia estaltce-raño; azcazalac lucetu, eta cacotu citzayozcan. ¡Gauza icaragarria! Mundu gucia bere mendean jotcen, eta anditasunean iñor alderatcen ere etzitzayola, uste zuen Nabucodonosor, bere arroqueria, antuste, eta urgulleriac basabere biurtcen du,

Bitarte onetan biotza ceruronz jaso zuen, eta ezagutu-

ric, Jaincoa dala ceru-lurren Jabea, eta Erreinu guciac nori-nai eta noiz-nai eman eta quentcen dituena, alabatu eta adonatu zuen, eta aitormen onequin guiz-antzera itzuli zan. Daniel contuan cegoan, zazpi urteac noiz betetcen ciran, eta orduan; onen gaztiguz, Erreinuco andizqui guciac baturic, Erregue bere echcan artu zuten, eta egundaño baño goratasun andiangoan jarri zan. Jaincoac arequin eguindaco mirari andiac aitortu cituen, oyec adituta, bere aguinte-be gucian Jainco eguiazco bacarra adonatu cedin. Andic bi urteren buruan il zan, Jaincoagana menaz biurtu zalaco ezagunbide eta aztarnac utciric; len-lenagoco arrotasunic, benic-bein, etzuen aguertu, eta Jaun Cerucoari lurreco gucien Buru eta Jabetzat beguiratu izan cion.

Aitaren lecuan Babilonia-co Erregue Eviomerodac sartu zan, eta bereala adierazo zuen, Daniel-i eta onen catibulagunai aitac bezain beguiramendu ona ciela: chit paque onean, eta Jaincoac nai zuen arteraño, erbestean egon bearra, beste nequeric etzutela, vici ciran. Erregueac begui onez beguiratcen cien dembora berean, berac ere al-eguiñean etcioten iñori gaitzic eguiten, eta naigaberic ematen, eta ardura guciarequin Jainco eguiazcoaren legueá osotoró gordetcen zuten.

Joaquin Juda-co Erregueac cateetan oqueita amazpi urte ceramazquien, Nabucodonosor bildur citzayolaco, berri-ere odol-isurtceren bat eraquin cezan: baño Eviomerodac semeac, aguintean sartu zancco, aimbeste urtean ichian usteltcen cegoana, atera zuen; bere echcan vicilecua ipiñi cion, eta bere mayean artu zuen; baño etciran luzaró elcarrequin egon; bada, Eviomerodac urtebeteren buruan, eta Joaquin andic laster, lenago ezbazan ere, il ciran,

Eviomerodac-en seme Baltasar aitaren aulquian eserizan; baño oraindic aurra zalaco, bere ama Nitocris-ec aguintea artu zuen, Emacume au: ain arguia eta azcarra izanic, oqueita lau urtean eraenduta, semeari escua eman cion, Bitarte onetan Juda-r catibuac, lenagoco erreinaldietan bezala, beren izaeran ondo cijoacen: eta au bera, esan dezaquegu, Persia-n ceudenai ere guertatcen citzayela.

OGUEITA ZORTCIGARREN IRACURGAYA.

1. §.—*Ester eta Mardoqueo Persia-n.*

Lanago esan da, catibutasunean ceuden Juda eta Israel tarren erdiac, Nabucodonosor-ec, Persia-z jabetu zanean, bazter oyetara bialdu cituela. Beste ascoren artean Mardoqueo zeritzana joan zan. Mardoqueo Juda bere erritic Babilonia-ra, Erregue Joaquin-equin eramán zuten, eta Persia-ra aldatu zanean, Susa-co urían vici zan, Ester ce-ritzan illoba bat bere ondoan zuela. Mardoqueo guizon zucena eta Jaincoaren bildurrecoa izanic, aita ilda, ume-zurtz gueratutaco illoba bere contura ceucan, eta chit oitura onetan aci zuen.

Mardoqueo onela vici zala, izan zuen amets bat, cerpensatu andiac eman ciozcana, eta, etorquizuna icusi artean, igueri etciona. Lo cetzala, iruditu citzayozcan ots, iscambilla eta inusturiac; lur-icara eta zambuluac: guerò icusi cituen bi eren suguetzar, elcarri eraso navez cebiltzanan. Oyen chistueta, on gucien contra gendéac jaiqui ciran, eta mundu gucian izuicara latza sortu zan. Onac ere icaratu ciran, eta Jaincoari otseguin cioten. Orduan icusi zuen iturcho bat ibai andi eguin, eta ur asco ceriona. Eguzquia eta illarguia aguertu ciran, eta umillac goratu, eta arro urgullutsuac ayen azpira erori ciran. Ametsa au zan.

Dembora onetan Percia-co uri Susa-tic Asuero Erregueac eunda ogueita zazpi Provincia bere mendecoetan aguintcen zuen: eta arestico Mardoqueo-ren ametsetic urtebetera, bere anditasun eta izanac eracusteco, eman zuen bazcari bat, egundaño icusi dan andiena. Eunda ogueita zazpi Provinciaetaco buru eta aguintariac, Erreinu gucico Erregue-guizon eta andizquiac bere echera bildu cituen, eta eman cien bazcariac eunda laroguei egunean iraun zuen: bitarte luçe onetan eceren ere utsunerie icuci etzan. Janedanac eta beste gauza guciac, lenengo egunean bezala, atcenecoan aguertcen ciran, mundu guciac Asuero-ren anditasun eta aberastlasuna jaquin cezan.

Bazcari au bucatutacoan, Susa-co guizon guciai ere beste zazpi eguneco bat eman cien. Onetaraco aulqui, mai eta bear ciran beste tresna guciac, echeatarian ipiñierazo cituen, eguzquiac jo etcitzan, urrea eta cillarra ceriozquien cortina ederracquin estalpeac eguinda. Atcenean, gucia erabat joan cedin, nai izan zuen, bere emazte Vastic ere Susa-co emacume guciai bere beste eche batean beste zazpi eguneco bazcari bat eman cizayen.

Atceneco egunean, Erregue Asuero-c, ardoz cascoa ondo berotuta ceucala, Erreguiñari gaztigatu cion, cituen soñeco eta edergarriric obenacjanci, eta coroa buruan zuela, aurqueztu cequiola, an ceuden guciac aren edertasuna cecusatzen. Erreguiñac etcion gaztigu au ontzat artu, eta etcitzayon joan nai izan, debecatua cegoalaco, aren eraco emacuméac atceen beguietan jartcea. Sénarra chit aserretu zan, eta alboan ceuzcan ondo-eracusleai galdetu cien, ¿ea Erreguiñac cer castigu mereci zuen? Emaztearen erantzueraz bidezcoa zan; baña ondo-eracusle losenchariac etcioten Erreguearen suari errequiñac emateari baicic beguiratu. Mamuchan-ec, gucien icenean, Erregueari erantzun cion, Vasti Erreguiñaren ucoac Erreguearen onoreari, ez ecic, Erreinu guciari ere uqitu ciola. Vasti-ri ecer eguin gabe uzten bacitzayon, bazter gucietan barreatuco zala; emazte guciac jarraituco citzayozcala, au bera eguiñaz, eta sénárrac nai zutenic ecinean arqutuco cirala: beragatic Erreguearen aserrea bidezcoa zala, eta baldin ondo baceritzan, aguindu cezala, aren echean Vasti ez gueyago sartceco, eta bezte emazte bat artu cezala. Lambide au Erreinu gucian zabaldu cedilla, eta senarraren aguindúac emaztéac chotillago eguingo cituztela. Esan au Erregueac ondo artu zuen, eta Erreinu guciari gaztigatu cion, cer neurri artu zuen.

Asuero-c, andic laster burua oztu eta ardoaren indárrac beeratu citzayozcanean, ezagutu zuen, aguindu hora ematen izandaco arintasuna, eta Vasti-c, atceen aurrean jartceco uzcurtasunarequin, eracutsi zuen onestasuna: baña legueac debecatzen cion, bein utci ezquerocoa berriz artea; eta bere eracusleac buruan sartu cioten, Vasti zan

baño ere nescach ederrago bat emazte eguin bear zuela Aguinu zuen, Erreinu gucian arquitcen ciran nescachic ederren eta moduzcoenac bildu, eta bere echera ecarri citecela. Nescach oyec Egeo-ren contura ipiñi cituzten, eta beste ascoren artean Mardoqueo-ren illoba Ester. Urte be-tean Erregue-echean iduqui cituzten, edertcen; eta guciac bat-banaca Erregueari eraman ciozcatenean, Ester-ec be-guiac bete ciozcan; ederrentzat autu zuen; eta coroa bu-ruan ipiñi cion, ceñac adierazten zuen, emazte nagusi edo lembicico zala. Ezcontza onen berria Erreinu gucian be-reala eman zan; eztai andiac eguin ciran; eta ezcontza onequin Erreinu guciac mesede bat izan cezan, emanqui-zunac guchitu cituen.

Mardoqueo, bere illobari chit nai ciolaco, beti Erregue-eche-atarian cebillen, erac aguintcen cion gucian, Ester-i bere icasbideac emanaz. Ester ezcondu zanetic iru urteren buruan, Erregue-echea atean contu eguiten zuten biri, Mardoqueo c iguerri cien; Erreguea iltceco asmoan cebil-tzala, eta Ester-i esancion, senarra contuan ipiñi cezan. Gaztigu onequin asmo gaizto guciac aguertu ciran; eta bi guizon biurri ayec il cituzten. Mesede paregabe onegatic bacirudien, Asuero-c Mardoqueo-ri ondo beguiratuco cio-la; baña escueracutsi labur batzuec baicic eguin etciozcan, eta aguinu cion, etcezala Jauregui-ondotie aldeguin. Jain-coac Mardoqueo-ren saria gueroa gordeta ceucan; eta bi-tartean Asuero-c bere penzudea edo confianza gucia etsai-ric gaiztoenean ceucan, eta au Aman zan.

Aman, Asuero-c goeneneco mallan ceucan servitzaria-eta Erregue beraren urreneco zan Arestian esan dan, Erre-gue iltceco asmo artan, Aman-ec cer-icusia bazuen, Lidia-co Erregue Aman-en aidearequin. Asuero-ren illoba Me-dia-co Erregueac cerabillen guerran osaba illobaren alde zalaco: bada, Esuero il ezqueró, Aman-en aideac ondo ir-teleco ustea ceucan; eta badira diotenac, Asuero galtceco, Susa-ra joan zala. Ala ere, Aman-ekin Asuero itsutua ce-goan, Jaincoari eguiten citzayozcan agur berac, Aman-i eguiteco, aguintceraño.

Aguindu onen bidez, Erreguearen eche-atariratcen za-

nean, Mardoqueo ez, beste guciac belaunicatcen citzayozcan, eta adoratcen zuten. Aman-i esan cioten, Mardoqueo-e etzuela, besteac bezala, eguiten, eta bere beguiacquin icusi zuenean, salatu ciotena eguia zala, artu zuen Mardoqueo eta onen lagun Juda eta Israel-co guciac ondatceco asmoa; eta Mardoqueo-ren argui eta leyaltasunac Asuero viciric ceucala, gogoratceac lambide onetaraco su gueyago ematen cion.

Aman-ec Asuero-ri sinisterazo cion, bada, catibu ayec Persia-n ceuden bitartean, gauza onic etcegoala; asco ugaritu, eta indar andia artu zutela, eta Erreinu gucia nastu, eta paquea austeco zorian cebiltzala. Asuero-c, servitzari gaizto onen esanai belarriac idiquita, aguindu zuen, egun jaquin batean guciac il citecela, eta Provincia gucietara aguinte au bialtceaz gañera, Iecu aguirietan chartelac ipiñi ere cituzten.

Juda eta Israel-tarrac berri min au artu zutenean, negarrari eman citzayozcan; zacu eta penitenciaco beste soñecoac janci cituzten, gorputzac zatitu, cilicioacquin necatu, barañac atera cituzten, eta estura larri artan, cer eguin, etciequitela cebiltzan. Mardoqueo ere Erreguearen eche-atarian osca bacebillen, bere miña Ester-i adierazo nabez. Mardoqueo guisa onetan cecustenac, baciequiten, Ester-en chit adisquidea zala, osaba zanic, jaquin ez arren, eta aditcera eman cioten, nola cebillen. Ester-ec ignerri cion, naigabe andiren batec artaratuco zuela, eta soñeco bat bialdu cion cerabillenaren orde z jancita, joan ce quion, Ester-ec lan au eguin zuen, alaco janzquerarequin Erreguearen echean sartceco escuric iñorc etzuelaco; baña Mardoqueo-c etzuen aldatu nai izan. Geroenean Ester-ec bere morroi Atac bialdu cion, cer lambide estu eta larrian bera eta lagun guciac arquitcenciran, eta Erregueagana sarturic, escata cizayola, arren, aguindu gogor gura atceratceco.

Erreguearen guelan iñor, Erreguecàc gaztigatu gabe, sar tcea viciaren azpian debecatuta cegoan; eta osabari erantzun cion: ¿Nola eguin dezaquet, zuc diozuna, baldin oguei ta amar egun oyetan ezbanau deitu? Osabac esan cion:

Ez uzteizan, ez, Erreguearen echean zaudelaco, zu bacarra viciric gueratuco cerala, beste Juda-r guciac ilda: bada zu orain isillic bazaude, Jnda-rrac beste bideric izango dute, ondo irteteco; orduan zu eta zure aitaren jatorriac ilco dira. Eta ¿norc daqui, zu Erreguñatzara igo ote ceran esturasun lalz onetan gu gordetceco? Alcenean oyec eta onelaco osabaren beste esan ascorequin, aurrenetic uzcur bacegoan ere, jarri zan, Erregueagana aguertcera, Onetaraco osabari gaztigatu cion, Susa-n arquitcen ciran Judaco guciac bilduric, iru egun eta iru gaüean barautu cezalela; berac ere bere nescameacquin ala eguingo zuela; Jaincoari gogoz ezcatu cizayotela, bere lanbidean ondo irten cedin.

Ester-ec gaztigatua Mardoqueo-c eguin zuen; biotza Jaincoronz jasoric, escari au eguin cion, Jauna, Jauna, Erregue guciz Altsua: gauza guciac zure escuan dituzu, eta zure nayari gogor eguin dizayo queanic ez da. Cerulurren Eguillea zu cera; gauza gucien Jabea zucera, Badaquizu Aman-ec nai zuen agurra ez diodala nere arroqueriaz, eta ecertan ezdaucadalaco, ucatu: Israel-en oneraco ala bear izan ezqueró; beraren oñ-pean pozic jarrico nitzayon; baña zuri bacarriczor zatzuna besteri emateac bildurtcen ninduen, Orain, bada, Abrahamen Jaincoa, zure erriaz erruquitu zaite; dacusu, etsayac il nai gaituztela.

Ester-ec ere escari bera Jaunari eguin cion, eta iru egun negar eta nequecoac igarotacoan, prestatu zan; soñecoric ederrenac janci cituen; gorputza urre gorritz eta arri distiatuz apaindu zuen; eta nezcame batec besotic eutsi, eta besteac mantuaren ertza jasotcen ciola, senarra Erregueaulquian eserita cegoan lecura, sartu zan. Erregueac, gaztigatu gabe sartu zalaco, eguin cion beguiratu zorrotzac, desganatu zuen, esta corde gabe lurrera jauzi zan.

Guisa artan Ester icusteac, Asuero-ren biotza bigundu zuen eta aulquitic jaiquiric, eldu cion, esanaz: ¿Ester, cer eguin zatzu? Ez icaratu: legea ez da zugatic ipiñi, ezpada bezteacgatic. Atoz eta urrezco coroa janci ezazu. Eeter-ec etcion itzie eguiten: eta senarrac coroa buruan ipiñi cion, esanaz: ¿Cergatic itzeguiten ez didazu? Ester, itz oyec



adituta, berera zan, eta Erregueari esan cion: Jauna uste izan del, Jaincoaren aingueru bat zugan icusten nuela, eta nere biotza zure anditasunac icaratu du. Berriz ere desgatanu zan, eta itza etorri citzayonean, Asuero poztu zan, eta esan cion: Ester ¿cer nai dezu? Erreinuaren erdia escatcen badezu ere, emango zatzu. Ester-ec erantzun cion: Escatcen dizudana da, nic nere guelan prestatuta daucadan bazcari bat, zuc eta Aman-ec jan dezazutela. Itza bereala eman cion: Asuero eta Aman guelara joan ciran, bazcaltcera; eta Asuero-c, ardoz cerbait berotu zanean, berriz ere galdetu cion: ¿Cer nai dezu, edo cer escatcen dezu? Ala bear bada, Erreinuaren erdia emango zatzu. Ester-ec erantzun cion; Zure gogoa bada, gaur bezala, biar ere atozte, nere guelan bazcaltcera.

Aman poz andian irten zan, eta echera zanean, bere adisquideac deitu cituen, eta esan cien, Erregueac cer goratasun andian ceucan, cer ondasunen jabe zan; nola egun artan berean Erreguñaren guelan, bestec ez, eta Erreguearequin bazcaldu zuen; eta biaramoneraco esanda cegoala; baña zorion oyec guciac ecertan etceuzcala, Mardoqueo Judarra Erreguearen echeco ateetan cecusan bitartean: etción, alabañan, orduan ere, gañeracoac bezala, agurric eguin.

Zarez bere emazteac eta adisquideac esan cioten, ogueita bost canaco centoi bat prestaerazo, eta Erregueari aguinduerazo citzayola, centoi onetatic cincilica Mardoqueo ipintceco, eta onela biaramonean pozago joango zala, bazcaltcera.

Asuero-c gau hura igaro zuen esnai, eta iracurtcen ciozcaten bere Erreinaldiari cicheocan gauzac aditcen, eta iracurri ciotenean, Erreguea itceco ateco contuartzalleac artu izan zuten asmo gaizto, Mardoqueo-c aguertu zuena, galdetu zuen: ¿ea cer sari leyaltasun aregatic Mardoqueo-ri eman citzayon? Ecer ez, servitzariac erantzun cioten. Itz queta onetan ciardutela, Erregueari guela-aurrean norbait iruditu citzayon, eta galdetu zuen ¿nor zan? Aman guizon biotz gogorrecoa cebillen Erregueagana sartu nayez, Mardoqueo cincilica ipintceco Erregueari aguindu erazotceco

asmoan; baña Mardoqueoren contua Jaincoac ceucan, eta Aman-ec aren contra ecin zuen ecer eguin. Erantzun ciotenean, bada, Aman zala, guelan sarerazo, eta galdetu cion: ¿Erreguéac onratu nai duen bali cer eguin bear zayo? Aman-ec uste zuen, bera onratu nai zuela, eta erantzun cion; Erregueac onratu nai duenari, Erregue-soñecoac janci, Erregue-coroa buruan sartu, eta Erreguearen zaldiric obenean ipiñiric, Erreinuco Principe eta Andizqui gucietan lenengoac zaldia bridatic duela, lecu aguiricoetan erabilli bear da, otseguñaz: Erregueác onratu nai duena, onela onratua izango da.

Eguizu, bada, ecer ere utci gabe, Erregueác esan cion, atarian eserita dagoan Mardoqueo Juda-coarequin. Asuero-c aguindu gucia Aman-ec eguin zuen, eta echera lotsaturic biurtu zan, negar-malcóac ceriozcala. Emazteari esan cion, cer guertatu citzayon, eta emazteac erantzun cion, baldin Mardoqueo Judua bazan, e in arpegui emango ciola, eta erorico zala.

Senar-emazteac itzqueta onetan ciardutela, Erreguearen morróyac Aman-i esan cioten, Erreguiñaren guelara bazcalteera joan cedilla. Iruac bazcaldu-ondoan, Asuero-c Ester-i galdetu cion: ¿Cer escatcen didazu? ¿Cer eguitea nai dezu? Ester-ec erantzun cion: Baldin ni zure gogocoa banazu. ¡O Erregue! ni eta nere erritarrac viciric utci gaitzatu. ¿Norc il nai zaituzte, edo zuen etsai ori nor da? Erregueac chit su viciarequin galdetu cion. Gure etsaya Aman ori da, Ester-ec erantzun cion. Erreguea aserre vician jaiqui, eta baratzara asnasbaccarrea joan zan. Aman-ec bereala iguerri cion, arentzat gauza onic etzala, eta Ester-i barcacio-esque jarri citzayon. Asuero-c, guelara itzuli-zanean, Aman arquitu zuen Ester-en eser-aulquian bere burua botata, eta deadarra eman cion: ¿Cer? ¿Nere echean bertan ere Erreguiñari gogor eguin nai dio? Itz oyec esan orduco, Aman-en esque bazcalteera etortceco, esatera joandaco morroi batec esan cion, nola Aman-en echean icusi zuen centoi luce bat, Mardoqueo cincilica ipintceco jarria; eta Erreguéac esan zuen: Centoi orretan cincilica Aman bera ipiñi bedi. Ala eguin zuten, eta Aman-ec

eraman zuen, Mardoqueo ørrugabeari eman nai izan cion patu bera.

Egun artan berean Erregueac Mardoqueo beregana eraman zuen, ceren Ester-ec esan ción, osaba zuela. Bereala Aman-en lecuan bere lenengo servitzari edo Ministrotzat ipiñi zuen. Juduen contra lenago emandaco aguindu odoltsuac quendu cituen; eta berri onequin mandataria bazter gucietara zabaldu cituzten, eta Juduen negarrac isildu ciran. Orregatic cer-eguin guciac batetan aitu etciran. Persia-co leguean bein aguindua eguin bear zan; eta Aman-en adisquidéac, egun jaquiña etorri zanean, onen demboran aguindutacoa eguin nai izan zuten, eta asi ciran Juduac iltcen: baña Juduac ÷orduraco bizcortu ciran, ata gogor eguiteco prestaturic ceuden, eta Aman-en aldeco asco il cituzten, eta oyen artean Aman-en amar seme il, eta aitaren guisan cincilica ipiñi cituzten.

Guertacari andi onegatic, catibu ceuden Juda-co eta Israel-co guciac, pesta andiac eguin cituzten, Jaincoac ain arguiró gorde cituelaco, Aman-ec guciac galtceco artu zuen asmo gaiztolic; eta egun onen oroipenac beti iraun cezan, aguindu zorrotz batequin beartu ciran, urteoró vezperan barüacquin, eta egun berean eta biramonean pestacquin berritcera. Gueróz Persia-n chit paque onean vici izan ciran. Asuero Ester-eguin ezcondu zanelic amar urtera il zan. Escritura santac ez digu Ester noiz il zanic esaten; baña etzan andre andi gogoangarri au, nerequico, luzaró vici izan. Asuero-c bere lecuan utci zuen Dario, ceñac aitari cerraiquiola, Juduai asco nai izan cien, eta bere servitzari leyalenecotzat Mardoqueo berequin beti iduqui zuen.

## OGUEITA BEDERATCIGARREN IRACURGAYA.

### 1. §.—*Babilonia-co guertaerac. Baltasar-en afaria.*

Persia-n, esan diran gauza oyec guertatcen ciran bitartean, Babilonia-n ere cer icusi eta esan bazan. Lenago esan degu, Babilonia-co aguintea eta Erreguetza Nabucodonosor-en seme Baltasar-ec artu zuela. Onec etzuen, be-

re gogo gaiztoac nondic eta nola beteco cituen, ibilli baicic eguiten. Arterañocoac asco ezbacirar bezala, gau bateraco afari andi bat prestaerazo zuen, eta au jatera deitu cien Erreinuco milla andizqui, ceintzuecquin mayean ce-goala, eracarri cituen aitasaba Nabucodonosor-ec Jerusalen-go Elizatic eramandaco urre eta cillarrezco ontciac, berac, andizqui, emazte, emazte-ordeco eta beste emacume galdu, an ceuden ascoc, ontci oyetatic ardoa edaten zuten.

Poz eta atseguñic andienez mayean jaten eta edaten ciardutela, aguertu ciran guizonaren escuco beatz-antz batzuec, paretean cerbait escribatcen zutenac. Erregueác au icusi zuenean, izutu eta icaratu zan: Erreinuco sorguin eta aztiac sarerazo cituen, asmatzalleari sari andiac esqueñita; baña etcion iñorc, ez iracurri, eta ez asmatu, cer esan nai zuten. Naigabez onela heteric, eta biotzac chit illunduric ceudela, ama Erreguiña sartu zan, eta seme Baltasar-i esan cion: Ez icaratu, ¡O Erregue! Babilonia-n bada zure aita Nabucodonosor-en demboran gauza isil asco asmatcen cituena, eta guizon au Daniel da; otseguiozu, eta escribu oriec azalduco dizquizu.

Daniel afal-toquian sartu zan, eta Erregueari esan cion: Jaun Cerucoac zure aita Nabucodonosor-i Erreinua, anditasuna, eta aberastasuna eman ciozcan, eta erri eta gendeguciac beguirune andia cecarquioten: nai gucia eguiten zuen: biotza uanditu citzayon, eta bere arroqueriác basorra bota zuen, zazpi urtean lar-abereen guisan vicitutcera, Jaunaren almena edo escu altsua ezagutu zuen artean. Zuc, Baltasar, zure aitari guertatu gucia baciñiequien, eta ala ere umildu bearrean, Jaun Cerucoaren contra jaiqui cera: bere echeco edanontciac eracarri dituzu, eta afari onetan oyetatic edan dezute, eta beste gaiztaqueria ascori lecu eman diezu.

Beragatic paretean itz oyec escribaerazo ditu: *Mane, Tecel, Fares*; ceñac ara cer esan nai duten. *Mane*: Jaincoac zure Erreinua neurtu du, eta bucatu da. *Tecel*: Pisatu zaitu eta bear baño ariñago arqutu cera: erioa gañean dezu. *Fares*: Zure Erreinua erdiratu du, eta Media eta Per-

sia-rrai emango die. Azalduera onen ondoren bereala Daniel-i, Erregueac saritzat aguindutaco janci ederrac ipiñi ciozcaten, eta Erreinuco irugarren guizontzat ezagutu zuten. Baltasar gau artan berean illa izan zan, eta icusi cituzten gauza miragarri oyecquin, guciac arri-eguiñic gurratu ciran.

2. §.—*Dario, Babilonia-co Erreguea.*

Baltasar-ec etzuen semeric utzi, eta onen lecuan bereala Dario Babilonia-co Erreguea sartu zan, ceñac poz andia artu zuen Daniel Juduari arestian emandaco goratasun andiarequin; eta gañera Erreinuco aguintaritza goitu bat bertatic eman cion.

Daniel, lenagoco erreinaldietan asco icusia, eta Erreinuco gauzaetan ondo trebatua zan; beragatic Erregueac lambide gucietan iritcia escatcen cion, eta chit egoqui erabaquitcen cituen. Ceucan baño ere escualdi gueyago Erregueac eman nai cion, bere doai ecin obeagoacgatic, eta onec berac beste andizquietan Daniel ecin icusia, eta galdu-naya sortcen zuen. Daniel-ec etzuen gaizqui esateco eta elteco bideric ematen: baño biotz dollordunac berritu zuten, Nabucodonosor-en demboran eguin izan zuten lanaren antzeco bat.

Dario-ri aguinduerazo cioten, oqueita amar egunean etcezala iñorc, ez Jaincoric, eta ez guizonic, Dario baicic adonatu, eta aguindu au austen zuena, leoyetara bota cedilla. Daniel-ec, Jerusalem-eronz beguira jarrita, egunean iru aldiz, ototz edo oracioa eguin oizuen. Dario-ren aguindu onen berria artu zuenean, bere oitura ona etzuen utci, ceren, cion, bere eguinquizunac betetcelic etzuela ecere alceratuco. Bein batean, bada, guelan sartu zan, eta bere etsayac celatatu zuten, eta belaunicatuta cegoan toquiran, sartu citzayoz-can. Erregueari bereala esan cioten, Daniel certan arquitec zuten, eta Erregueac, uzcur eta gogo gaiztoz bederic, aguindu zuen, leoi-artera bota cedilla, eta beguietatic bialdu zuen, esanaz: Zuc beti adoratcen dezun Jaincoac gordeco zaitu.

Daniel leoi-artera bota, eta atea ichi cioten. Dario-c gau gucia, beguiric ichi gabe, esnai eguin zuen, eta biaramonean Daniel-i joan citzayon, eta icusi zuenean, leoyac uquitu etciotela, chit poztu zan, eta bere-bereala zulotic aleraerazo zuen. Aguindu zuen, Daniel galdu nai izan zutenac, aren lecuan bota citezala; eta berac, beren humeac eta emazteac arturic, bota cituzten, eta lurrera alderatu ere baño lenago, zuloco leoyac atzaparrac ezarri, eta ezur eta mami ceatu cituzten.

Orduan Dario-c Jaincoaren escu altsua icusiric, aguindu zuen, etcedilla Daniel-en Jaincoa bēstheric ezagutu eta adoratu. Aguindu onequin Israel-co eta Juda-co catibu guciac chit atseguin andian eta nayera gucian jarri ciran. Dario epe laburrean il zan, eta bere lecuan Astiages semea utci zuen; baño au ere zortci edo bederatcigarren illean il, eta onen ordez Persia-co Erregue Ciro sartu zan. Ciro bere bi aurrecoen bideai jarraitu citzayen, Daniel eta beste Juduacquin, ceñac paquean vici ciran, bai Babilonia-n, eta bai Persia-n, beren errira itzultzeco ordua lembaitlen icustea beste opa gabe,

### 3. §.—*Ciro Persia-co, eta Babilonia-co Erreguea.*

Ciro-c servitzari nagusitzat Daniel artu, eta jaten bere mayean iduqui oi zuen, eta lambide gucietan onezaz beartcen zan, eta Daniel-ec ere Erreguearen amorioari leyalquiró erantzuten cion. Ciro-gan utsune negargarri bat icusten zuen. Jainco guezurrezcoetara etciña zan, eta Daniel-ec artu zuen, Erregue berri au legue onera ecartceco asmoa. Neque andiac ecarri ciozcan lanari equin cion: baño atcenean ere ondo irten citzayon.

Ciro-c, Babilonia-ra etorri zanean, topatu zuen idolo bat *Bel* cerritzana, eta Babilonia-rrac chit beg jirune andian ceucaten. Ciro-c ere agur eta adoracioac egunoró eguiten ciozcan; Daniel-ec ez ordea. Ciro-c bein batean Daniel-i galdetu cion; ¿Cergatic Bel ez dezu adorartcen? Daniel-ec erantzun cion, etzuela arc guizonac eguindaco jaincoric ezagutcen, ezpada ceru.lurac eguin cituena,

eta gauza guciac escuan dituen Jainco vicia. ¿Cer bada. Erregueac esan cion: ¿Uste dezu, Bel jainco vicia ez dala? ¿Ez dacusu, egunoró cembat jan eta edaten duen? Idolo onentzat egunean milla eta laroguei libra ogui, berroguet ardi, eta emezortci arroba ardo bear ciran. ¡O Erregue! Daniel-ec, farra asal batequin, erantzun cion, ez itsutu, eta guezur ori sinistuta egon; bada, Bel orrec mamia lurrezcoa, eta azala broncezcoa du, eta ez du ecer jaten. Daniel-en esan onequin Ciro suac artu zuen; Bel-en apaizac deitu, eta esan cien: Baldin ezbadidazute aguertcen, Bel-i egunoró ematen zayozcan gauza oyec nor jan eta edaten dituen, il bear zaituztet; eta sinisterazotcen badidazute, Bel berac jaten dituela, Daniel ilco da, ceren Bel-gatic ain gaizqui itzeguin duen. Daniel-ec Erregueari esan cion: Zuc diozuna eguin bedi.

#### 4. §.—*Bel-en apaizac.*

Bel-en apaizac aldare-pean ceucaten ate-isill bat, ustez iñore etciequiena. Ate onetatic apaizac beren emazte eta humeacquin gauaz sartu, eta Bel-i egunaz ipintcen citzayona, jaten zuten. Apaiz oyec Erregueari esan cioten, Bel-en aurrean jan-edanac ipiñi citzala, eta eliz-atea bere silluarequin ichitceco, eta biaramonean icusico zuela, nola ipiñi-gucia Bel-ec jan zuen.

Apaizac elizatic irten ciran, eta Erregueac cecuzala, Daniel-ec eliza gucian galbayarepuin autza zabaldu zuen, certaco zan iñori esan gabe, eta Erreguea eta Daniel elizatic irtenda, atea ichi zuen, eta Erregueac bere silluarequin ipiñi cion. Lan au, iñore, biac bestec, etciequien. Apaizac beren echecoacquin ate-isilletic oi becela gauaz sartu ciran, eta arquitu-guciac jan cituzten, cer amutan erortcen ciran, gaitz-pentzatu gabe. Biaramonean Erregue eta Daniel-ec atea bere silluarequin, illunabarrean utcitaco eran, topatu zuten, andic iñor sartutaco antz gabe, Eliza idiquita. Erregueac aldarera beguiratu zuen, eta ecer icusi etzueanean, deadarrari eman cion ¡O Bel, andia cera, bai, eta ez dezu, ez, guezurric! Daniel-i farra joan citzayon, eta sartu

etcedin, besotic eldu, eta Erregueari esan cion: Lurrera beguira. Erregueac erantzun cion: Nic emen, guizon, emacume eta aurren oñ-arrastoac dacusquit. Bereala ezagutu zuen, au gezurra baicic etzala: apaizac artu cituen; beren isill-lana aguertu zuten, eta ilerazo cituen. Bel Daniel-i eman cion, nai zuena eguiteco: eta Daniel-ec puscatu, eta eliza arras ondatu zuen.

Babilonia-n bazan erensugue edo dragoi andi bat, Babilonia-rrac jaincotzat ceucaten: eta Bel galduta ondoren, Erregueac Daniel-i esan cion: Orra jainco Dragoya, Babilonia guciarequin nic ere adoratceñ dedana. Ecin ueatuco dezu, ori, benic-bein, jainco vicia dala. Zuc ere adora ezazu. Nic, Daniel-ec erantzun cion; Nic nere Jaun eta Jainco vicia adoratcen det. Dragoi ori Jainco vicia ez da, eta zuc nai badezu, nic, maquilla eta ganibita gabe, ilco det. Gogoac dizuna eguizu, Erregueac erantzun cion. Daniel-ec bainen onequin, piquea, seboa eta illea batean guciac egosi, eta opilcho batzuec eguin cituen; Dragoyari aoan sartu ciozcan, eta bereala ler-eguin zuen. Ara, emen, zuen jaincoa, Daniel-ec esan cion; eta Erreguea lotsaturic guelditu zan. Babilonia-rrac Bel eta Dragoya Daniel-ec ondatu cituela icusi zutenean, machinada gogor bat sorta zan: Erregueari escatu cioten, Daniel emateco; bestela berà eta echecho guciac iltcera cijoacela.

##### 5. §.—*Daniel leoi-zuloan.*

Erregueac, gogo gaiztoz bederic, Daniel eman cien, eta escuac bereala ezarriric, bota zuten zazpi leoitza gosetu cenden zulora, oyen ortz-aguiñetan trisquillatu cedin. Baña lenagoco aldian, ez ecic, oraingoan ere Jaincoac bere Profeta leyalaren ardua baceucan. Egun oyetan Habacuc Profeta Juda-n vici zan, eta iguitarientzat elzecari eta oguiarequin soroa cijoala, Jaunaren aingueru bat aurqueztu citzayon eta esan cion, janari hura leoi-zuloan cegoan Daniel-entzat Babilonia-ra eramateco. Jauna, ni Babilonia-n egundaño ez naiz izan, eta leoyac non dauden ere ezdaquit, Profetac erantzun cion. Aingueruac bereala illeeta-



tic eldu cion, eta beguien ichi-idiqui batean, irureun leguaz aparte cegoan Babiloniara eramán zuen, eta leoi-zulo gañean ipiñi zuen. Habacuc Profetac otseguin cion: Daniel Jaincoaren servitzaria; Jaunac bialdutaco jan au ar- ezazu. Daniel-ec, ceruronz beguiac zucenduric, esan zuen: ¡Nizaz oroitu cera, ene Jaincoa, eta maite zaituztenac, aztu etzazquizu! Jaiquita, jan zuen. Gueró aingueruac Habacuc illeetatic elduric, itzuli zuen Jnda-ra, artutaco lecura.

Erreguea zazpigarren egunean Daniel-gana joan zan, ilda egongo zanez, etsita; baña ¡cer miraria! iensi zuen Daniel leoyen erdian eserita. Biotzac pozez gañeztu cion, eta deadar eguin zuen: ¡Daniel-en Jainco Jauna, andia cera! Bere-bereala ateraerazo zuen, eta Erreguearen aguin- duz, Daniel galdu nai izan zutenac, bota cituzten, eta leoi gosetuac bat-batetan iretsi edo tragatu cituzten, Erregueac cecusala. An bertan aguindu zuen, Daniel-en Jainco mi- raritsua mundu guciac aitortu, eta adoratu cezala.

6. §.—*Babilonia-co catibutasunren bucaera.*

Daniel-ec, icusiric, mirari oyecquin Ciro-ren biotza Jain- co eguiazcoronz griñatu zala, eta ezaguturic, bere lagun Juda-r eta Israel-tarrac, Jaincoac profetaren bitartez icenda- du izan ciezten iruroguita amar urte catigutasunecoac bete cituztela, asi citzayon ez-arian esaten, Jaincoaren voron- datea zala, bere mendean, bai Caldea-n, eta bai Persia-n ceuzcan catibuai, beren lurrera itzultceco escubidea ema- tea. Isayas-ec berreun urtez lenago aditcera eman zuela, nola lambide andi onetaraco Jaunac Ciro Erreguea eslei- tuco zuen; argatic Caldea eta Persia-co Erreguetzac escuan ipiñi ciozcala. Escari onec Cirori, dudaric gabe, atsecabe latza emango cion, ceren bere mendeco gucietan etzuen calibu oyec baño leyalagoric, edocein gauzataraco arte- tsuagoric, eta ¡cer eguin guichiago bere erreinaldian, ez ecic, lenagocoetan ere eman zuenic. Ala ere, ezaguturic Jaincoac ala nai zuela, beren toquira itzultceco baimena eman cien.

Onen ondoren laster il zan Daniel, aimbat mirari

eguin cituena, eta aimbat eguia Erregueai esan, eta cer eguin, ain ondo eracutsi izan [ciena.

7. §.—*Israel-tarrac prestatcen dira, Israel-era itzulceco.*

Israel-tarrac Erreguearen baimen au jaquin zutenean, asi ciran, bideraco prestamenac eguiten. Beren atcerapen eta eragozbideac baciduzten, bere-bereala irteteco. Bazter ayetan egondaco irurogueita amar urteetan, bertaco eguiñac ceuden: beren vicia ateratceco erac, batzuec necazaritzan, besteac saldu-erosian, norc bere guisan artuta ceuzcaten, eta guciac cerbait cer-galdu-gorde zuten: Baña Jau-naren vorondatea ala izanic, eta Jerusalem-go Eliza berrilceco eresian, erabaqui zuten, bideari equitea. Etcegoquien guciac batean abiatcea, ezpada chandaca, guelditcen ciranac, irten ciranen gauzai, buruzpidea emateco.

Juda eta Benjamin-go Tribuetacoac lembicico prestatu ciran, Jaincoac onela adierazoric. Buru edo guidaritzat artu cituzten Josué edo Jesus, Aaron-en ondorengo edo odolecoa: eta Zorobabel, Josias Erreguearen seme zarren eta Erreinuco naspillacgatic Erregue izan etzan Joan-en billoba edo semearen semea. Beren lecuratcen ciranean, Jerusalem-go Eliza berriró bereala eguin bear zuten. Onetaraco erbestean guelditcen ciranac urre eta cillartza andiac eta beste gauza asco eman ciezteen. Erregueac ere, Nabucodonosor bere lenagocoac Jerusalem-go Elizatic Babilonia-ra eramandaco ontci guciac itzuli ciezten. Ara cembat: ogueita amar catillu urrezco, eta milla cillarrezco; ogueita bederatci ganibita cillarrezco escudun; ogueita amar copa edo edanontci urrezco, eta lareunda amar cillarrezco, eta beste milla ontci, chiqui ascoz gañera; gucitara hosi milla eta lareun edanontci edo baso urrezco eta cillarrezco baciran.

8. §.—*Babilonia-tic Jerusalem-eraco irteera.*

Abenduaren lenengo egunetan irten, eta marchoaren atceneçoetan beren lurrera irichi ciran, Babilonia-tic Jeru-

salen-eraco irureun leguac lau illabetea eguiñic. Bideante oyen buru Josué Apaiz-nagusia, eta Zorobabel Principea ciran. Berequin ere cituzten Esdras, Nehemias, eta ots andico Mardoqueo, Ester Erreguiñaren osaba, ceñac beren buru zuritu eta zartuacquin guizalde andi hura edertcen zuten.

Juda-co lurrean oñac ipiñi cituztenean, auzpez jarrita, Abraham, Isaac eta Jacob-en Jaincoa adonatu zuten, eta esker-onac eman ciozcaten. Gende gucia bereala cembatetu edo contactu zuten, eta berrogeita bederatzi mila, seienda laroguita amabost arquite cituzten, emazte eta aurra copuru onetan sartu gabe, ceñacquin eun mila ondocho baciran.

Jerusalen-en sartuta, zaborrac eta ondaquiñac baicic icusi etzutenean, negarrari eman citzayozcan: gauza batec biotzac cerbait lasatcen ciezen; noizbait berritceco usteac. Ofrenda edo esqueñtza andiac eguinda, itzuli ciran, nor bere echeoacquin, anciñaco beren erri eta bazterretara: baña aspaldian lur ayen jabe eguiñic, vici ciran arrótzac etcieten eman nai izan, berentzat nai etzuten baicic, eta labaquiari joaz eta otadiac ocuntzatuaz, luzarò chaolaetan vici izan ciran, alic eta erriac eguin, eta echeac jasotcen asi ciran arteraño.

Josué, Apaiz-nagusia bere aideacquin, eta Zorobabel errico burua David-en ondorengoacquin Jerusalen-en guelditu ciran; estalpeac eguin cituzten, ecaitzetatic beren buruac gordetceco, Elizaren orua garbitceari bereala equin cioten, Aldarea eguiteco; eta egun guichiren buruan cerbait moldatu, eta asi ciran, Jaunari ofrendac esqueñtzen.

Israel-tarrac poz eta atseguin andia zuten erlegioco gauza oyec eguiten, ceren, gueyenac erbestean jayoc ciralaco, etcituzten egundaño icusi, eta zarrac ere atcerrian igaro cituzten irurogeita amar urtean, etzuten alacoric eguin.

### 9. §.—*Elizaren berritcea.*

Bereala Eliza berritceco languilleac eta gayac biltceari equin cioten, eta urtebeteren buruan gucia zucendu zuten.

Bigarren urteco bigarren illean asi ciran cimenduac ateratcen. Elizari oña ipiñi ciotenean, Israel gucia Jerusalem-en batu zan, eta egun asco igaro cituzten, Jauna alabatcen. Baña lanari jarraitceco eragozpenac laster sortu citzayezten. Israel-coac Babilonia-ia joanda, Israel eta Juda-n jarri ciran arrotzac etzuten Jerusalem-go Eliza berritcea ontzat artu, ceren, cioten, Israel-tarrac an jarri ezqueró, beren lenagoco lurrac artu naico cituztela, eta gueroenean guciac-quin jabetuco cirala.

Ciro Israel-tarren onguillea vici izan zan artean, etsai oyec etzuten nai gucia eguin, osotoró eragozteco; baña Ciro il zanean, onen ondorengoagandic atera zuten aguin-de bat, Jerusalem-go uria paretaz ichitcea, bacarric debecatcen zuena. Languilléac berri onequin Elizaco lanari ere utci cioten, eta Eliza erdi-eguiña guelditu zan. Zorobabel eta beste guidariac eraguin nai zuten, esanaz, Eliza eguiteco debecuric irten etzala, baña bildurtu ciran; eta Elizari utciric, asi ciran lur-lanetan; eta echeac berentzat eguiten,

Jaincoac lambide au etcien ordo artu, eta bost urte oni dorengoetan etzuten abuztu onic izan, eta neque guciac alperric eguin cituzten. Ceruac etcien euriric bialtcen, eta lurrac ere, iñongo obena eta goñoena izanic, etcien elcorrenac baño gueyago ematen. Ala ere etzuten gaitz onen sustraya ezagutcen. Andic laster Jaincoac Ageo Profetaren bitartez Zoro-babel-i esan ción: Erri onec dio Jannaren echea eguiteco dembora oraindic ez dala. ¿Cer bada? ¿Zuec eche ederretan vicitceco dembora noiz-nai da, eta nerea erorita egongo da? Escua colcoan ipiñi ezazute, eta icusico dezute, zuen laboreric-eza eta beste neque negargarri, aspaldian daramazquizutenac, nere echea eguiteari uztetic datoquizutela. Mendira igo, bada, zurac ecarri, eta echea eguin zadazute, eta gogoan artuco dizutet.

Zorobabel-ec Jaunaren gaztigu au guciai adierazo cien, eta ezaguturic, chit gaizqui eguin zutela, ajmbestez lanaruzten, eta gueldi-aldi onetaco nequeac ondo irabaciac cituztela, Eliza eguiteari herriró equin cioten, bucatu artera, ño ez gueyago uzteco asmoarequin, Orduan ere etsayac

etciran zabartu eragozteco. Dario Babilonia-co Erregueari gaztigatu cioten, Jerusalem-en cer lambideetan ari ciran; baña Dario-c ez debeatu, ecic zorrotz aguindu cien, aren icenean languilleai, bear zuten gucia, emateco. Ageo profetae Zorobabel-i berriz ere itzeguin eta esan zion, Eliza hura lenagocoa baño gogoan-garriagoa izango zala. Gende guciaren *Opatua*-c beteco zuela. Ala guertatu zan, bada, munduaren Salvatzalle Jaincoaren Semea Eliza onetan egon zan, eta bere vicitzaco mirari andiac emen eguin cituen.

10. §.—*Jerusalen-go Elizaren bucaera.*

Bost urteren buruan Eliza bucatu zan, eta Israel gucia Jerusalem-en bilduta, Eliz-gauza edo funcio andiac eta pes-ta asco eguin cituzten, eta gueróz Jainco eguiazeoa emen onratcen zan.

Esdras, Zorobabel-equin batean Babilonia-tic Jerusalem-era joan zana, Babilonia-ra itzuli zan, eta emen gueratuta-co catibu-ondarrac arturic, Jerusalem-era biurtu zan. Uri onetara ciranean, esqueñi cituzten, Babilonia-tic ecarritaco ofrenda andiac, eta beren lagunacquin poz andian bildu ciran. Esdras-ec langai au eguinda laster, ezagutu zuen, Israel-tar ascoc beren odoleco etciran emacume atceac, emaztelzat artu cituztela, eta berri onec naigabe andia eman cion, ceren leguéc debeatcen cien arrotzacquin ezcontcea: beragatic errico zar eta buruac bilduric, erabaqui zuten; emazte oyec guciac seme-alabacquin beren toquira bialtcea, eta Israel-tar uts-utsac guelditu ciran, iño-requin ere nastu gabe.

Eliza eta Eliz-inguruco lanac eguin cituztenean uria ere berritu nai zuten; baña Babilonia-co Erregueac, noren mendean oraindic ceuden, debeatuta ceucan, eta onec atsecabe andia ematen cien: icusten zuten, alabañan, Jerusalem-go uri santa zaborraz eta pareta erdi-errez betea, eta Elizan ceuzcaten ondasun andiac, etsaya etorrita, galteco bideari; eta artu zuten baimena escatceco asmoa.

Nehemias Juda-rra dembora artan Babilonia-co Erre-

guearen echean cegoan, eta Erreguearen chit cutuna izan-  
nic, escatu cion, emateco, arren, bere errira itzuli, eta be-  
re gurasoac cetzaten Jerusalem-go uria berritu, eta pare-  
taz sendotceco escua. Erregueác baimen au ez ecic, eman  
ere baciozcan bideraco contuartzalleac, eta Israel-co aguin-  
tariantzat bere aldeco cartac, esaten ciela, Nehemias i es-  
turasun gucietan laguntceco.

11. §.—*Jerusalen-en isquera.*

Jerusalen-era zanean iru egunean atsedean, eta nriari ertz  
gucietara gauiaz isillic beguiratu cion, eta gogoan artu  
zuen nola eguin. Bearren-bearrenecoa auzoelaco etsayac  
oartu baño lenago, urico paretac aurreratcea zan: onelara-  
co languilleai lanean asi ciranetic etcien atcedeten utci, eta  
arierazo cituen, escuric ere quendu gabe. Etsayac aleguin  
asco eguin zuten, eragozteco; baño alperric: eta berroguet-  
ta amabigarren egunean Jerusalem gucia pareta eta mu-  
rru lodiz inguratua, eta ate sendoacquin ichia, aguertu  
zan. Bitarte onetan languilleac escu batean achurra, eta  
bestean etsayari arpegui emateco arma zuten; edo batzuec  
lanean ari ciran bitartean, bestéac contuan ceuden, etsaya  
bacetorquien, gogor eguiteco; benic-bein, Nehemias-en az-  
cartasun eta arguiac etsai guciac arrituric utci cituen, eta  
arguiró iguerri cioten, Jaincoaren lana zala, eta bere escu  
altsua cebillata.

Lan andi oyec eguindacoan, Israel co eta Juda co gende  
guciac Jerusalem-en bildu ciran, egun ascoan Eliz-gauza  
edo funcio andiac eguin cituzten, Jacob-en ondorengo Erri  
autuari Jaincoac eguin izan ciezen mesele miragarrien  
oroipenean.

Ogueita seigarren iracurgayen, 300-garren orrian, esan  
zan, Jeremias-ec Jerusalem-go Elizatic atera, eta lur-zulo  
batean gordeta ceuzcan gauza santac, Nebo-co mendira  
eraman cituela, su santua ez beste guciac. Eliza eta uria  
berrituta gueró, arestian aitatu diran Eliz-gauzaetan cebiltzan  
egunetan, Nehemias-ec lur-zulo artara suaren billan bialdu  
cituen, eta neque asco eguinda, lur-zuloa topatu zuten, ez

ordea sua, ezpada ur arrezco putzua. Nehemias-ec ur pusca bat eracarri zuen; eta ur onequin aldare gañeco egur eta jauscañi edo victimac busti cituen. Gueró eguzquiac, odoi-petic irtenda, uqitu cieneco, iracequi citzayen, eta egur eta beste gauzac erre ciran, eta su au guelditu zan, lur-zuloan arqutu ecin izan zuten suaren ordez. Jerusalem-en batutaco Israel-co seme guciac, mirari onequin arrituric, Jaincoa alabatu zuten, eta ezagutu ere bai, bere Erri autuari bezala, beguiratzen ciela, eta artu zuten gueróz leyalac izateco asmoa, eta eman cioten bere aguindu guciac cintzó gordetceco itza.

Gauza onela prestaturic, Nehemias-ec esan cien, chit conveni zala, Jerusalem gendez jaztea, eta amarretatic bat emen guelditu, eta gañeracoac Israel gucian zabaldu citezquela. Nor guelditu zotz eguin zuten, eta guciac pozez gueratu ciran, bai lenagoco beren lecuac utciric, Jerusalem-en vici bear ciranac; eta bai nor bere toquira joan ciranac. Uri gucia bedeincatu zuten, eta norc bere lan eta vicimoduari equin cion,

## OGUEITA AMARGARREN IRACURGAYA,

### 1. §.—*Macabeo-en condaira, edo historia.*

Icasi degu, Nehemias, Persia-co Erreguearen servitzoa utciric, Jerusalem-era bere lagunacquin etorri zala; eta orduan Erregueari emandaco itza betetceagatic, lenagoco eguinquizunera itzuli zan, non urte batzuec igaro cituen. Erreguearen chitgogoco. Jerusalem-en guelditu ciran Israel, tarrac ezarian cijoacen Jaincoari leyalac izateco itza jaten, eta Nehemias-ec berri au artu zuenean, utciric ain maite ceucaten nagusiác, Jerusalem-era biurtu zan, eta zucembi-deac artu cituen.

Oyec eta beste gauza asco eguinda, Nehemias Jerusalem en il zan; baita bere lagun maite Esdras eta Zorobabere, ceñac, esan dan bezala, catibutasunetic etorrita, berritu cituzten Eliza santa, eta Jerusalem-go uria; Israel gucian vicilecuac eguin cituzten, eta Jaincoaren Erri autua

chit oñ onean utci zuten. Gueróz irureunda gueyago urle-  
an Israel-tarrac Persia-co Erreguearen babesean aurrena,  
eta Grecia-coarenean gueró, bere-gañ vici izan ciran,  
iñore ere gaitzic eguiten étciela, eta Jaincoaren escu altsua  
beren alde arguiró cecustela.

Baña paque gozoaren mingarria uste etzuten aldelic  
izan zuten. Simon ceritzan Elizaco burua, auzo-erri Siria-  
co Erregue Seleuco-ri jòan citzayon, esatera, Jerusalem-go  
Elizan dirutza andiac eta aisa artu citezqueanac ceudela.  
Erregue au, Juduai (\*) ondo nai cielaco, uzcur cegoan,  
gaztigu onequin nai zana eguiteco; baño geroenean dirut-  
za aren esque Heliodoro bere servitzaria bialdu zuen.

Heliodoro, Jerusalem-en sartu zan, emen iñore gaitz-  
pensatu gabe; baño bere asmo galdua aguertu zuenean,  
guciac, Onias Apaiz-nagusia aurrena zutela, negarrari  
eman citzayozcan. Apaizac aldare-aurrean, eta besteac al-  
zuten lecuan, Jaunari escatcen cioten, arren, escu lapurti  
ayetatic bere eche santa gorde cezala. Jaincoac aditu cien.  
Esan-al guciac Heliodoro etzuen atceratu, Elizan bere oñ  
ciquiñac ipintcetic, eta Jaincoac bere almena eracutsi cion  
Heliodoro Elizan sartu zanean, lagunac icusi zuten zaldi  
eder bat zalduntzar izugarri bat gañean zuela, ceñac be-  
re ancacquin joaz, Heliodoro lurrean ezarri zuen. Bi gazte  
eder, aldi berean, alboetan jarri zitzayozcan, eta zatitu eta  
bana-banaten zuten, erdi-illean uzteraño. Bereala eldu,  
eta campora atera zuten, Elizan il etcedin. Juduac mirari  
au icusi zutenean, Elizan sarturic, Jaincoari esquerrac eman  
ciozcaten, eta arestico negarrac leortu ciran.

Heliodoro-ren lagunac, nagusia iltcen icusiric, Onias-i  
esan cioten, arren, aren osasuna Jaunari escatceco. Onias  
erreguan jarrita berealaxe, len zatitu zuten gazte ayec,  
alboetan aguertu citzayozcan, eta osotoró sendatu zuten,  
eta esan cioten; Zure vicia Onias-i zor diozu, eta Jaincoaren  
escubide andia ezagutu ezazu. Au esan, eta ezcutatu zitza-

---

(\*) *Judu*-en icenean emendic aurrera sartuco dira  
Israel-co eta Judaco bi Eerreinu izandacoetacoac.



yozean. Heliodoro bere errironz itzuli zan, Jaincoac arequin eguindaco mirariac barreatuaz. Erregueari guci-gucia esan cion, eta berriz diru-esque inor bialtceac, alceratu zuen: baña Simon salduac etzuen bere asmo gaiztoa utci. Bere igünin gucia Oniasen contra aguertu zuen. Jerusalem-tarrañi sinisterazo cion, Heliodoro Onias berac eracarrizuela, eta onelaco beste guezur ascorequin geudea nastu zuen, Onias il nayeñan abiatceraño; eta arqutu zan Seleuco-gana joan, eta naste ayei, ez, arren, escuric emateco, escatu bearrean. Seleuco-c chit beguitarte ona eguincion; baña nai ciran zucembideac artu baño lenago, il zan etabere lecuan sartu zan anaya Antioco guizonic errebesena eta biurrienetacoa.

## 2. §.—*Antioco.*

Onias-ec icusi zuenean, Antioco cein guizon gaiztoa zan eta ecer irichico etzuenez etsita, bazter balera bacartu zan eta etzan ostera Jerusalem-era Itzuli, gucyago nastutceco oña artu elcezaten,

Jason, Onias-en anaya, ez ordeñ oituraetan anayaren antzecoa, bereala asi zan anayaren ordeñ Apaiz-nagusitzan sartu nayeñ. Antioco-ri diru ascoren truque laguntza escatu cion, Antioco-c beste gauzaric nayago etzuen, eta pozic lagundu cion. Jason-ec, bera gaiztoa izan, ez ecic, besteac ere gaiztotu cituen; baciequien, alabañan, eguiazco Apaiz-nagusia etzala, eta iraungo bazuen, indárrac naspillatic etorri bear citzayozcala. Erregue Antioco-ren laguntzarequin Gentil edo idoloñale-en legueac Jerusalem-en ipiñi cituen; eta urte guichiren buruan, gucia gora-beeratu zuen, eta Jerusalem-go gende zucena eta Jaincozcoa, lenagoco antzic ere etzuela, ipiñi zuen,

Antioco, Juduen gogoco berri jaquin nayeñ, Jerusalem-era joan zan, eta chit beguitarte andia-eta gozoa eguincioten. Jason, bâtezere, eguinalgucian necatu zan, Erreguea onratceeo, eta Erreguea bere errironz bereala itzuli zan.

Icusi au Jerusalem-i eman cionetic iru urteren buruan, Jason-ec, len bezala, urteoroco emanquizuna bialdu cion,

arestian aitatutaco Simon zorigaiztocoaren anaya Menelao-requin. Onec ezagutaric, Erreguearequicoa cerbait diru gueyago eman ezquerò, eguin cezaquealá, Apaiz-nagusitzagatic esqueñi bat eguin cion. Antioco artara jarri zan eta Jason-i quenduric, Menelao-ri eman cion, Apaiz-nagusitza eman edo quentcea bere eguitecoa bazan bezala.

Menelao Jerusalem-era alderatu zanean, Jason-ec Amon-tarretara igues-eguin zuen, oroituric burniarequin iltcen duena, burniac ilco duela, dion esaeraz: eta Menelao jarri zan Apaiz-nagusiaren icenean, ez ordea izatez, ceren etcegoquion. Menelao-c bereala eracutsi zueo, urteoroco dirutza emateco uzcurra. Au Erregueac gaizqui artu cion, eta Menelao-ren lecuan Lisimaco ipiñi zuen. Onela Apaiz-nagusitza escutic escura cebillen, eta guciac ciran, cein baño cein, gaiztoagoac eta biurriagoac, eta oitura guciac galtceco, Elizaco ondasunac ostutceco, eta gucia naspillatceco egoquiagoac. Gora-beera oyetan salduqueriaz il zuten Onias Apaiz-nagusi gogoangarria, Jaunaren alde eguiac esatera, bere bacarretic irten zalaco. Juduac ezagutu cezaqueten, naspilla guciac certatic cetozquien; baña etzuten ontceco asmorice artcen. Egunetic egunera gaiztotcen cijoacen.

Dembora onetan Jerusalem-en gañean aguertu ciran, eta berroguet egunean airean icusi cituzten zaldisco guizon -samalda aundi urrez janciac, elcarri esrasotcen ciotela, eta armaots icaragarriac eguiten cituztela; ala ere Jerusalem-go biotzac etciran biguntcen. Odeyetao señaléac uquitcen etcieten ezqueró, lurreco cigorrada gogorrác jo cituen.

Antioco-ren il-berria guezurtiren batec Jerusalem-en barretu zuen, eta eguia zalacoan, chit poztu ciran, ceren bildur citzayozcan. Antioco-c aditu zuenean, berri onec cer poza eman cien, soldadutalde andiarequin eraso cien, eta Jerusalem-en indarrez sartuta, chiqui eta aundi, escuratcen cituztenguciac, ilcituzten. Ilquintza onec iru egunean iraun zuen; bitartean larogueti millac viciac galdu zuten. Itzez asperturic, berroguet milla atceman, eta beste berroguet milla catibutzac saldu cituzten.

Ain ilquintza izugarria, eta aimbeste odol isurtceren ondoren, Antioc Elizan sartu zan, eta urrezco aldare eta candeleroa, urrezco eta cillarrezco ontzi eta beste gauza guciac artu cituen, eta Antioquia-ra itzuli zan, bots milla eta bederatzi eun arroba eta gueyago urre eta cillar Elizacoacquin chit arrotu eta tianditua. Ilquintza eta lapurreta oyecquin etceritzan, oraindic ere Jerusalem-en nai adiña ondamen eguin zuela. Urte biren buruan ogeita bi milla guizecquin Apolonio bialdu zuen, eta jai-egun batean Elizan otoitz-aldian ceudela, Jerusalem-tar gucia il cituen. Carricae-tara irten ciran, eta guizon larri guciac ere il, eta arquite gucia ostu zuten; echeric obenac erre, eta uriaren inguruco paretac bota cituzten, eta Jerusalem osotoró ondaturua guelditu zan.

Andic laster aguindu zuen, etcedilla Grecia-rren jainco Jupiter baicic adoralu; eta aguinte au bazter gucietan betecceco, bialdu cituen mandataric gogorrenac, eta, eguin nai etzuten guciac, iltecco prestatuac. Juduetatic, cembait artara jarri baciran ere, ascoc nayago izan zuten vicia galdu, eta beste ascoc baso eta eremuetara joanda, neque-pelalzean vici, Jainco eguiazco ucatu baño. Jerusalem-go Elizaberean jaincotzat Jupiter ipiñi zuen, eta lasaiqueria eta urdaqueriaric itsusienac lecu santuan eguiten ciran. Baña ¿Nore esán Antioco biotz gogorreco arc cein estura larri eta negargarrian Juduac ipiñi cituen? Amac, aurchoac bularrean cituztela, carricaz-carrica erabilli, eta marrutic beerra botata, ama-humeac lertcen ciran, Jaincoaren legueac aguindua eguin nai zutelaco. Beste asco viciric erretcen cituzten. Jainco eguiazcoaren onran cerbaiteguitea asco zan, celatariac bereala icusi, eta vicia quentceco. Inor ozta menturatcen zan. Juda-coa zala esatera ere.

### 3. §.—*Eleazar-en irmotasuna eta eriotza.*

Biotzac alde gucietatic naigabez beteta ceuden demborra onetan, Jaincoac eman cien, beste ascoren artean, icasbide edo egemplo eder bat, bildarti guciac lotsatu citzaqueana. Eleazar ceritzan guizon zar jaquintsu, eta aditu

bat Jerusalem-en vici zan. Oni aguindu cioten, legueac de-  
 becatcen ciozcan gauza batzuec, jan citzala; aoa indarrez  
 zabaldua, janerazo nai izan ciozcaten; baña guizon sendo  
 eta Jaincozco onec etcien nai zutenic eguin, eta nayago  
 zuen, eriotza on bat artu, becatuaren truque gordetaco  
 vicia baño. Urcaberara baceramaten, eta adisquidéac erru-  
 quituric, esan cioten, debeatcen etcitzayozcan jan-gauza  
 batzuec eramango ciozcatela, eta idoloai esqueñitaco gau-  
 zac jan-irudia eguin cezala. Baña etzuen au ere eguin nai  
 izan, eta erantzun cien: Nayago det vicia galdu, zuec dio-  
 zutena eguin baño: guezurrezco irudipenic nere adiñari  
 ezdagoquio: ondorengo gaztéac ez dute esango, Eleazar  
 larogueita amar urtecoac, vicia gordetceagatic, legueac de-  
 becatua, eguin duela, eta emendic oña artu, au bera egui-  
 teco, ez: gaur guizonen escuetatic irtenda ere, Jaincoare-  
 netatic, ez viciric, eta ez ilda, irtengo naiz; nere zarzaroa  
 ez det illundu nai: beragatic biotz andiarequin erioa ar-  
 tcen badet, adierazoco det, nere buru zuriari dagoquiona  
 naizala, eta gazte guciai eracutsico diet, Jaincoaren legue  
 santa eta zucenagatic vicia onrosó galtcen.

Itz oyec entzun ciozcatenean, así citzayozcan maquilac-  
 quin ceatcen, ezúrrac aguertceraño. Atceneco asnasa eman  
 baño lenago, deadar min bat eguin zuen, eta itz oyec esan  
 cituen: ¡O Jaun, gucia daquizuna! Dacusu, vicia gorde ne-  
 zaqueala, iltura edo tormenturic gogorrenac daramazqui-  
 dala; baña pozic daramazquit, zure bildor naizalaco. Au  
 esan, eta agure santu hura il zan, secula gucian vicitceco,  
 zarrai ez ecen, gazteai ere irmotasunaren eracutsi ederra  
 emanaz.

4. §.—*Ama batequin zazpi semeen eriotza.*

Antioco-c uste izan zuen, bere esanera Eleazar etzala ja-  
 rri; bera beguira etcegoalaco, eta artu zuen urrengoan be-  
 guira egoteco asmoa; eta era laster izan zuen. Ama bat,  
 zazpi semerequin, aurqueztu cioten, Aguindu cien, aragui  
 debeatúac jan citzatela; baña guciac erantzun cioten,  
 etzutel: Jaunaren legueric autsico, eta aguindu zuen idi-

cillacquin ceatceco. Seme zarrenac orduan esan cion ¿Gugandic cer nai dezu? Ilceco prest gaude, Jaincoac gure gurasoai emandaco legueá ez austeagatic. Erantzuera onequin Antioco su eta gar eguiñic, burnizco zartaguiac eta cobrezco elteac gorituerazo cituen, garra ceriela: bitarlean seme zarren, itzeguin zuenari, mingaña ebaqui cioten, burua larrutu, eta oñ-escuetaco béatzac mostu ciozcaten, ama eta anáyac cecustela; gueró zartagui eta elte-gorituac eracarrita, chigortu eta pregitu zuten, il arteraño. Lenengo itzeguin zuen seme zarrena, onela iltcen cegoala, ama eta beste seméac elcar poztu, eta bizcortcen zuten, patu bera artceco. Chanda iritsi citzayenean, beste bost semec eriotza bera izan zuten, Jaincoaganaco amorioric iracequierna aguertcen zutela.

Gañeracoac ilda, Antioco-c zarpigarrena onez-onean artu zuen, eta itz leun eta losenchacquin asi citzayon berekten; baña Jaincoaren legue santagatic vicia galtceco, bestéac bezain irmo arqutu zuenean, amari deitu, eta esan cion, aren esanera ipiñi cezala. ¿Lecu onean cebillen! Ama paregabe arc semechoari belarrira itzeguin cion, ez Antioco-c nai zuena eguiteco, ezpada Jaincoaren legue santagatic vicia galtceco, gueyago eta gueyago irmotceco eran. Amaren esan onac aditu orduco, semea deadarca asi zan, ciola; ¿Cer nai dezute? Nie Erreguearen esanic ez det eguingo, eta bai Moises-ec eman cigun Jaincoaren legueà. Antioco-c zarpigarren au, besteac baño ere gógortasun gueyagorequin, ilerazo zuen. Atcenean seme guciac bizcortcen aritu zan ama, ilerazo zuen, eta onela eche bat osoa ondatu, eta zortci doatsu cerura bialdu cituen.

##### 5. §.—*Matatias Apaiz-nagusiaren irmotasuna.*

Martiri oyen, eta beste ascoren odola Juda gucian chirrian cijuan, eta Israel-tar eguiazcoac icusgarri negarrezco au ecin eramanañz vici ciran. Oyen artean eta gucien buru arquitcen zan Matatias Apaiz-nagusia, ceña, odol-isurtce onequin biotza erdiraturic, Jerusalem-dic irten, eta Modingo mendietara joan zan, bost seme eta cembait adisquide be-

requin arturic, baso bacarrean vicia igarotcera. Muño batetic beguira jarrita, negarra ceriola, cion, ¡Ai ene errucarría! ¿Certaco jayo nintzan, nere erriaren galmena eta uri santa ondatua, eta etsayen mendean icusteco? Gauza santac arrotcen escuetan eta Eliza, guizon desonratua bezala. daude. Guacia galdua dago ¿Certaco gueyago vici? Eta soñecoac urratu, eta negar-eguiten zuen bere semeacquin batean.

Bere negar-aldiac eguinda, ondo etceritzan mendiai bacarric bere miña adieraztea: Modin-go urira jatsizan, emengoac bere esanacquin sendotu, eta Jainco eguiazcoaren alde, eta onen legue santa aitortcera, ipintceco asmoan. Modin-tarrac poz andia eman cioten, aren esana eguiteco prest ceudela aguertcearequin, eta elcar bizcortu zuten, Jaunaren etsayen erasoai arpegui emateco, eta premian laster arqitu ciran.

Antioco-c, jaquin zuenean, Matatias eta Juda-co beste asco Modin-en batu cirala, aguintari bat bialdu cien, beren Jaincoaren leguea utcita, Antioco-rena aitortu, eta adonatu cezatela, esatera. Antioco-c eta onen aguintariac baciequiten, Matatias eta bere lagunacquin gogorrean etzutela ecer eguingo; eta asi citzayon losencharó itzeguiten, eta escuratceco eguin-al guciac eguiten: baña guizon santu onec erantzuten cion, beste guciac Antioco-ren esanera jartcen baciran ere, bera bere seme, eta lagúnac etcirala, Jaunaren leguea austera, jarrico.

Itzqueta onetan ceudela, Juda-co galdu bat aguertu zan, idoloari ofrenda eguitera. Matatias-en biotza suac artu zuen, eta guizon gaizto hura escuetan artuta, aldaregañean porrocatu zuen. Bereala Antioco-ren aguintariari ere escuac egotci, eta il zuen, onela Jaincoaganaco amorioa eta onratu-naya aguertuaz. Lan oner ondoren etceritzan, Modin-en egon citequeala, eta bere bost seme Juan, Simon, Judas, Eleazar eta Jonatas eta beste lagunacquin eremura edo basora igues-eguin zuen; eta Antioco eta Matatias, nor bereacquin, ordotic elcarren contra jarri ciran, eta sortu zan, Israel-tarrac Jainco eguiazcoaren alde, eta Antioco-c guezurrezcoac ipintceagatic, erabilli zuten gue-

rra gogor, aimbeste odol-isurtce ecarri zuena.

Modin-dic Jerusalem-era Antioco-ri laster joan zitzayozcan mandatariac, Matatias-ec cer eguin zuen, eta basora nola iguesi joan zan, esatera. Antioco-ren soldaduac beren errabia bereala aguertu zuten, eta jai-egun batean otoitzaldia Elizan eguiten ceuden toquian, milla Jerusalem-tar il cituzten. Matatias-ec ere bildu citzayozcan banacac trebatu cituen, etsayari erasotceco, eta asi zan berearequin ir-  
teteco, zucembideac artcen. Erriz-erri cebillen, Jaunaren leguea eracusten, eta bide zucenean irauteco sendotcen. Idoloen aldareac bota, idoloac puscatu, eta onelaco beste gauza asco eguin cituen. Baña lambide onetan artutaco nequeac auldua eta guelguetua cegoan, eta ezagutu zue-  
nean, iltcera cijoala, bost semeac oeaurrera deitu, eta ondo-esan asco eguin ciezten. Eracutsi cien, nola iraun bear zuten; Judas anaya burutzat ezagutu bear zutela; eta onen esanac eguin, eta onen mendean ibilli citecela; eta onela beste gauza asco bere semeacquin jo, eta chit zartua il zan, eta Modin-go bere errian lurpetu zuten.

6. §.—*Matatias ilda, Judas-en aguintea.*

Judas Macabeo-c, aita ilda bereala, aitac utci ciozcan soldadu banacac copuratceari eman cion: onetaraco errietan sartu, eta Israel-tar eguiazcoai otseguiten cien, eta dembora guichiren epean sei milla guizon bizcor zucendu cituen, eta prestatu zan, etsayari arpegui eman, eta gogor eguiteco, aurrena Jaincoari biotz biotzetie indarra eta laguntza escaturic.

Lembicico batalla, Jerusalem-en aimbeste guizon Elizan ildaco biotz gogorreco Apolonio-requin, izan zuen, ceñari lagun guciac abarraquitu, eta bera ilda, quendu cion ezpata, gueróz eraso gucietan escuan oi cerabillen. Onen ondo ren are soldadu-talde andiagoarequin Seron aguintaria aurqueztu citzayon, Apolonio-ren utseguiteac zucentceco uste oso-osoa, eta gichiagoraco etzan, bi aldeetaco gendeen desberdintzari beguiratu ezqueró. Seron-en soldadutaldea aguertu zanean, Judas-i lagunac esan cioten: ¿Nola

guc, ain guichi izanic, eta banaca oyec ere barauac maccalduac, arpegui eman dizayoquegú? Judas Macabeo-c erantzun cien, ansi etzala: Jaincoaren aurrean guichic aibat cezaquetela, cembat ascoc: etsai asco cetozquiela, bérac, emazléac huméac eta zuten gucia ondalcera; baña Jaincoaren legue santaren al le cebiltzan ezqueró, etzutela cer bildur izan; Jaincoac lagunduco ciela. Itz oyec esanda, Seron-en gendeari eraso cioten; zortzi eun il cituzten, eta gañeracoac iguesi joan ciran.

Antioco-c Seron-en ondamenaren berria artu zuenean, Nicanor Erreinu gucian goeneneco andizqui, eta Gorgias guerra-guizon adituari deitu cien, eta oqueina milla guizon emanic, prestatu cituen, Juduai erasolceco. Garaipena aiu escuan ustez ceucaten, non, iltas-erri gucietara gazligatu zuten, mercatariac joan citecela, Judu catibuac eros-tera, chit merque salduco ciozcatelaco itza emanda.

Judas Macabeo-c bere soldaduai bereala esan cien, nola etsaya indar andiacquin cetorquion. Etzuela soldadu bildurtiric nai, eta baldin bereetan iñor bildur zanic bazan, andic joan citequeala. Sartu-berri banaca batzuec irten zitzayozcan; eta guelditu ciranai bere itzqueta onarequin, ayen lenagocoai Jaincoac eman izan ciezten indarrac, eta eunda laro gueita bost milla soldadu Senaquerib-enac illaz, eguindaco mirariac, eta dembora gucietan bereservitzariai emandaco laguntza andia gogoraerazoaz, biotzac chit bizcorturic, prestatu ciran, etsayari arpegui emateco, Jaincoaren leguea zaintceagatic, eta beren eche eta erriac gorde-tceagatic.

Zazpi milla soldadu, orduraco ceuzcanac, Judas Macabeo-c anayaen contura ipiñi cituen, nori bere samalda emanda, eta berac ere saldo bat artuta. Etsayari eraso cion, *Jaunaren laguntza*, otseguinaz, eta Nicanor eta bere lagunac bereala ondatu ciran; batzuec il, eta besteac igues eguin zuten; eta ozta bat bacarra viciric irtengo zan, baldin Macabeo-ren soldadúac jai-eguna sartu zanari beguiratu ezbiacioten, ceñagatic etciran igueslarien ondoren gue-yago joan nai izan.

Juduac garaipen onequin ondasun andiac beretu, eta gu-



cien, eta batezere beartsuenen artean zabaldu cituzten. Andic laster Timoteo eta Baquides aguintari aditúac soldadu-talde andiacquin aguertu citzayezten, erasotcera; baña asi bezain laster, lenagocoen patua izan zuten. Berebat eguin zuten, Lisias aguintari ots andico eta beste ascorequin ere: eta atceneraco garaipena garaipenaren ganean irabacita, etsai guciac Juda-tic bialdu cituzten, Antiocoren soldadu-ezurrez baztérac ondo ereinda.

Judas Macabeo Juda gucico buru eguiñic, eta etsayac gaitz andiric eguiteco bildur gabe jarrita, bere gendearequin Jeru-salen-era joan zan. Baña ¿Cer naigabea soldadu bizcor eta Jaunaren legue santagatic aimbeste neque artu, eta garaipen irabaci zuten ayec, izango zuten, Jerusalem-go ondamen negargarria icustearequin? Uria Gentil banaca batzuec baicic gabe, Eliza loitua, aldarean idolotzar bat ipiñita, Eliz-ateac erreta, apaiz-echeac lur-jota, Eliz-inguruac sasituta, ondasunac ostuta, itz balean, gucia ondatua cegoan, eta alderatu ciranean, negarrari eman citzayozcan, zacuz janci ciran, burúac autsez bete cituzten, auzpez jarri ciran, malcoac cerieztela, eta beste era ascotan biotzeco miña eta damua aguertu zuten.

Bereala auturic apaizic obenac, eta Jaincoa ondoena servitcen zutenac, Eliza garbitu, idoloa ceucan aldarea quendu, berria eguin eta bedeincatu zuten: Eliz-barruco eta atarico gauza ondatu guciac berritu cituzten, eta atcenean gucia zucendutacoan, zortci eguneco pestac eguin cituzten, Jaunari esquérrac ematen, eta bere Echesanta gueróz alaco ondamenetic gorde cezala, escatcen eta erregutcen. Oyen ondoren, auzoac cer eguiñic eman etcizayen, eta Jerusalem-go Eliza eta uria etsayen erasoetatic gordetceagatic uria pareta sendoz berriró ingurutu zuten; unetic unera gatzelucac jaso cituzten, eta edoceñi arpegui emateco eran jarri zan. Andic aurrera ere Judas Macabeo auzoacquin guerra asco eguin bearrean arquitu zan; baña Jaincoaren laguntzarequin beti garaipentsu irteten zan, eta Israel-en etsai guciac laborrian ipiñi cituen.

Antioco, aguintariac Juda-n utciric, Judas Macabeo eta lagunai eraso, eta uztez galtceco adiña genderequin, Per-

sia-ra joan zan, diru eta ondasun andiac andic aterateco asmoan; baña Persia-rrac ere, iguerri ciotenean, certara cijoa, gogor eguin, eta lotsa gorrian estieragin cioten. Gauzac Persia-n uste ez bezala irteten citzayozcan egunetan, artu zuen bere gendeari Judas Macabeo-c emandaco ondamenaren berria, eta Jerusalem cer oñ onean ipiñita cegoan albista; eta su eta gar eguiñic, Judu guciac galtceco itza eman zuen, eta Jerusalem-eronz abiatu zan. Baña ¡Jaincoaren contu andia! Une berean sabeleco miñac eman, eta etcion paquean uzten. Ala ere etzan bigundu, eta bere asmo gaiztoarequin bacijoa.

7. §.—*Antioco gaizquitua.*

Azcar baño azcarrago Jerusalem-eratceagatic, cochean corrica cijoala, erorita, ezur guciac porrocatu citzayozcan, eta cerúac baño gorago igo nai zan guizon arro bura, andetan ibilli bearrean arqutu zan: Jaincoaren escu andia, eta guizonen ecereztasuna mundu guciari eracusten ciola. Gorputza usteldu, eta arrac ceriozcala jarri citzayon. Oñacez ecin cegoan, eta gorputzeco usai gaizto eta quiratsa ingurucóac ere ecin eraman zuten. Aragui ustelduacquin nazcaturic, errietan sartcera ere menturatu gabe, guelditu ciran Persia-co baso eta bacardadeetan, non egon zan, il arteraño. Biotzeco illuntasun eta tristurac artu zuen, lanac ondo irten etcitzayozcalaco, eta oñazeac batetic, eta tristura bestetic, etcioten atsedeten ere uzten. eta bere escuz ilco zan, baldin gauza izan balitz.

Guisa onetan cetzala, bere adisquideac deitu, eta itz languiacquin esan cien: Loac igues-eguin dit, biotza tristuraz betea daucat, eta cordea badijoaquit. ¡Ah, ene adisquideac! Orain gogoratcen zazquit, Jerusalem-en eguin nituen oquerrac; ostu nituen urre eta cillarrezco ontciac eta diruac: Judu guciac bide gabe iltcera, mandatariac bialdu nituela. Ezagutcen det, orain daramazquidan gaitzac, andic datozquidala. Beguira ene adisquideac, nola lecu arrotzean, tristuraz josiric, iltcen nagoan. Arroqueriác artu pinduen, eta orain dacust guizonà Jaincoaren mendean

egon bear dala, eta lotsagabequeriaric beltzena dala, guizon ilcorra Jainco beticoaren parean jarri nai izatea.

Antioco ecin gaizquiago cegoan: ala ere vici-eresiac, eta ceraman lotsa andia quendu nayac, cerbait bigundu zuen, Jaincoari erregutcera; Baña Jaincoac baciequien, aren damu-antz edo irudiac etcetocela eguindago gaiztaqueriaen aldetie, ezpada egoera arcematen cion miñetic; eta etcion vicia luzatceco usteric ematen, Antioco-c nai bezala. Gauzac bere bidean cijoacen, eta ezagutu zuenean, iltcen zala, bere adisquide Filipino oe-aurrera eracarri zuen, eta eman cion, Antioco bederatci urteco semea adiñeratzen zan bitartean, Erreinuan aguintceco escua. Esan cion, baldin aren illoba Demetrio-c Erreguetzan sartceco asmorice artcen bazuen, gogor eguin, eta Erreguetza semechoarentzat gorde cezala.

Beldur zan, Juduac aitaren gogortasunarequin asperuric, elzutela semea naico, eta au gogoan ceucala, bialdu cien carta bat itz oyecquin: «Antioco Erregueác Judu onai, osasuna, vicitza ona, eta zorion gucia. Chit atseguin izango det, zuec eta zuen huméac ondo izatea, eta gauza guciac nayerara zuei irtetea. Persia-tic nentorrela, ustez-uste gabe artu ninduen gaitz andi batequin eri banago ere, uste det nere eguitecoa dala zuen onagatic beguiratcea, ez, sendatuco ez naizan etsimena artu dedalaco; bada, oraindic sendatu uste naiz; ezpada nere aitac Provincia goyetan cebillenean, erabaqui zuelaco, nor aren oñordeco izan bear zan, ez-bearren bat edo guertaera gaiztoren bat izanda ere, noren mendean guelditcen ciran jaquin gabez, paquea utsi etcezaten. Beguiraturic gañera auzóac ere eraren zaia daudela, berentzat cerbait eguiteco, Erreguetzat aututcen det nere seme gazte Antioco, ceñaren conturautci cinduztedan goi-errira joan nintzanean. Beragatic escatcen dizutet, norc bere aldian, nigandic artu izan dituzuten mese-deen truque, nere semea nagusitzat ezagutu dezazutela; bada uste det, chit sotilla izango dezutela, eta niri darraiquidala, arpegui onarequin beguiratuco dizutela.

Guezurrez eta losenchaz betetaco carta oni bere sillua ezarrita laster, amabi urte Erreguetzan eguinda, ilzan An-

tioco biotz-gogorreco, bere mendeco eta gañeracoen gorroto eta igüña bere gaiztaquericquin irabaci zuena Antioco cein gaiztoa eta gogorra izan zan, ecin esan ditekuean gauza da. Etzuen odol-isurtcea beneric gogoan; eta vicitzari cegoquion eriotza izan zuen: gorputz ustelduaren alde gucietatic zorna ceriola, iñorc bere quiratsa ecin eramanciola, basoan er-bestean, eta lotsa gorri-gorrian ilzan.

8. §.—*Antioco gaztea.*

Aita Antioco il zanean Antioco gazte, icengoitiz *Eupator* ceritzana, Erregue jarri zan. Eupator aurra zalaco, Lisias Juduen contra aspaldian aguertu eta ezagut iac, aguintea artu zuen. Judas Macabeo-ri erasolceco aleguñac bertalic eguin cituen. Lisias-en aguintari Gorgias eta Timoteo ere gai onetan etciran atceratcen: baña Judas-ec Jaincoaren laguntzarequin gogor eguin, eta ondatcen cituen.

Judas Jerusalem-era zan bein batean, jaquin zuen, Timoteo guerra-guizon aditua soldadu-talde oñezco eta zaldizcoacquin cetorquiela. Len ere Judas-ec astin-aldi latza eman izan cion; baña oraingoan, iñoiz ez bezalaco gendetza bilduta, alderatu citzayon, erasotcera. Judas bere soldadu guciacquin Elizara joan, eta guciac buruac autsez beneric, Jaincoari aldare-aurrean laguntza-esque jarri citzayozcan. Prestamen onequin etsayaren bidera irten ciran. Elcarri erasota, estuen-estuenean ari ciran demboran, bost aingueru, guizon-irudian, urrez apaindutaco zaldi ederren gañean Judas Macabeo-ri óndoan jarri citzayozcan eta botatcen cituzten dardu edo ezten zorrotzacquin, Timoteo-ren soldaduetan ondamen izugarria eguin zuten. Oguei milla eta bost eun oñezco, eta sei eun zaldizco illotzic guelditu ciran, eta Timoteo-c Gazara-ra igues eguiñ zuen, Gaztelu onetan bere burua gordetcera; baña egun guichiren epean Juduac gogorrean sartu, eta beste lagun ascorequin batean il zuten.

Lisias-ec berri au artu zuenean, laroguei milla oñezco eta cembat milla zaldizco, elefante ascorequin artuta, joan zan Betsura, Jerusalendic urrean cegoan uri-ondora Juduai

erasotceco asmoan, Judas, beti bezala, Jaincoari erregutu-  
 ta prestatu zan; eta Jerusalem-dic irten ciranean, Lisias-  
 gogor eguiteco asmoan, aguertu citzayen zaldizco bat zu-  
 riz jancia, urrezco armacquin, eta lanzac distiatcen ciola.  
 Icusteco onequin sendoturic, otsoac ardiari bezala, Lisias-  
 en gendeari eraso cioten, eta beguien ichi-idiqui batean,  
 amaica milla oñezco, eta milla eta sei eun zaldizeo il-ci-  
 tuzten, gañeraco guciac lotsa gorrian iguesi bialduric.

Lisias-ec ezagutu zuen, Juduen contra etcegoala ecer  
 eguiteric, Jaincoaren escua beren alde zuten bitartean, eta  
 pozic ascorequin, izan cituen eraso-aldietan, viciric irten  
 zalaco, Judas Macabeo-ri gaztigatu cion, paquea nai zuela,  
 eta gueróz adisquide izateco eresia ceucala. Judas ere gue-  
 rra-billan etcebillen, Jaincoaren gauzaetan iñor sartcen ez-  
 bacitzayon, eta erriaren onari beguiratuta, jarri zan pa-  
 queac eguiteco.

9. §—*Judas-ekin Antiocoren agintari Lisias en arteco  
 paque-eguitea.*

Judas-ec contu andia izan zuen, Juduai escubide gu-  
 ciac uzteco, beren erlegio eta legue santaren azpian vici  
 izan citecen, oyec debeatcen cieten gauzaric eguitera,  
 iñorc beartu gabe; eta bérac ere eman zuten, gañeraco  
 gauzaetan, Siria-co Erreguari ez contra eguiteco itza: eta  
 elcartasun onequin, cirudinez, paquean jartcen ciran: baña  
 Juduac Siria-rren itzetan bildur ciran, eta billatu zuten,  
 bein emandaco itza, norc gorderazo, eta esana eraguin;  
 eta Erroma-rrai babesa escatu cieten, asegurantza gueya-  
 gorequin elcartasun hura eguin, eta gueró vici izateco.

Juduac utseguñac etcijoacen, Siria-rren itzetan uste  
 osoa ez iduquitcen. Laster icusi zuten, ayen itzac aiceac  
 eraman cituela. Dembora asco baño lenago soldadu-talde  
 andiacquin alde gucietatic eraso cieten; baña Judas Maca-  
 beo-c bere soldadu bañacacquin gogor eguin, eta mende-  
 ratu cituen. Eraso oyetatic batean icusi zuen, etsayac oi-  
 baño guizon gueyago galtcen ciozcala, eta illac lurpetcen  
 asi zanean, arqitu cien cembat gauza idoloai esqueñiac,

eta garaipen-aldi batean Siria-rrai quenduac. Emendic ezagutu zuen guizon-galtce, eta garaipenac oi baño gueyago luzatcea, izan zala, debecatuta ceuzcaten gauza ayec artu cituztenac, Jaincoac castigatu nai izan cituelaco. Lagunai esan cien, ildacoen alde Jaunari escatceco, erruquimentuz beguiratu, eta beren utseguña barcatu cizayen. Agundu zuen, illen oneraco proguac eta erreguac eguin citecela, eta guisa onetan Judas Macabeo-c eracuisi zuen, illac viztuceo diran sinismena

10. §—*Sion-go gaztelua artceco prestamenac.*

Lambide oyetan cebillela, Jerusalem-dic gaztigatu cioten, etcegoala uri onetan vicitceric, Sion-go gaztelua quendu edo menderatu gabe. Gaztelu au elsáyac ceucaten, eta uricoen zabar aldiric chiquienaren beguira ceuden, itsumustuan jatsi, eta calte gogorrac eguiteco. Eliza ere noiz-nai inguratu, eta etcioten iñori sartcen uzten, Judas, bada, gaztigu onequin, cegoana cegoan eran utcita, Jerusalem-era joan zan, eta gayari cegozquion prestamen guciac artu cituen, gaztelua setiatu eta menderatceco.

Gaztelucoac ain estura larrian icusi ciranean, Antioco Eupator beren Erregueari gaztigatu cioten, eta Erreguea eun milla soldadu oñezco, oguei milla zaldizco, ogucita amabi elefante guerra lanetan trebatu, eta irureun gudiarma arturic, Jerusalem-eronz abiatu zan. Judas bidera irten citzayon, iru eguneco barañacquin Jaincoari laguntza escatuta, eta izan cituzten eraso-aldietan, Judas-ec guizonasco galdu ciozcan. Baña Antioco eta bere gendea, gueyengueyena arritu cituen gauza izan zan, Judas-en anaya Eleazar-en atrebindea, elefante bacoitzac gañean ceramazquien gaztelu oso bana, eta ogueita amabiña guizon. Eleazar-ec icusi zuenean, elefante gucien artean bat, bestéac baño andiagoo, Erregue-armaz estalia, eta guizonasco contuartzalle cituela, iruditu citzayon, Erreguea elefante onec cecarrela, eta gucien oneraco, bere vicia naiz galdu, etsayen artean sartu zan, ezquer-escuira topatcen cituen guciac illaz, eta elefantearen azpian jarrita, lantzarequin sabela zulatu

cion, eta lurean illotza ezarri zuen, eta berac ere abere portitz aren azpian ler-eguin zuen, Sanson-ec dembora batean bezala. Eleazar-ec lambide au Erregue Eupator an zalacoan eguin zuen; baña ustea uts irten citzayon: Erreguea beste batean cebillen.

Au eta onelaco beste colpe callitsu ascorequin, Judas Macabeo-c etsayari cembat milla guizon quenduta ere cecusan, ildacoen lecuan berriac bereala sortcen citzayozcala, eta Jerusalem-eronz atceratu zan, etsaya Betsura-ondoan utcita. Orduan Antioco-c Betsura-co gaztelua beretu zuen, elcarri gueroco itzac emanda. Onen ondoien Jerusalem-era alderatu, eta uria eta Eliza setiatu cituen.

Egun oyetan Judas Macabeo egundaño baño estura larriagoan arqitu zan. Inguruan, etsai gogorra eta eguin-alguciac eguiten cituena, ceucan: barruan ere beticoan chit necatúac, eta gosèac erdi macalduac ceuden: baña Judas Macabeo beti cegoan, Jaincoac lagunduco cion uste osoan, eta berac escatu, eta besteai ere escaerazotzen cien, eta icharopen onequin iritsi zuen estura larri artatic ustecabecean irtetea. Ara nola.

Antioco zarrac il-aurrean Erreinuco aguintea seme Antioco-ren aur-demboraco eman cion Filipino-ri, ceña Persia-n vici zan, Antioco-ren icenean Lisias-ec Antioquia-n aguintcen zuen bitartean. Filipino, Persia-co eguitecoai buru emanda, Antioquia-rajoan, eta leguez eta bidez cegoquion aguintean jarrita zan. Lisias Antioco Erreguearequin Jerusalem-en arqitcen zan, eta Filipino-ren etorrera jaquin zue-nean, Erregueari sinisterazo cion. Jerusalem utcita, Antioquia-ra Filipino-ri gogor eguitera joan obe zala. Erreguea artara jarri zan. Judas Macabeo-requin paquéac eguin cituen, eta oni bere legue-pean vicitceco escubidéac utciric, Antioquia-ra joan zan; Filipino venzutu zuen; eta Antioco gaztea jaun eta jabe, eta Lisias onen ordeco gueldita ciran.

Poz onec Antioco-ri etcion luzaró iraun. Garaipen onetatic urte betera, Demetrio bere lengusua, Erroma-n amairu urtean egonda, guizon banaca batzuecquin Antioquiaronz joan zan, eta gaüetic goizera Antioco-ri Erreguetza, eta vicia quenduric, aren aulquian bera jarri zan.

11. §.—*Demetrio Erreguea.*

Demetrio Erreguetzan sartu zanean, Alcimo Judu, bere legue eta erligioaren ucatzalle biurria, aurqueztu citzayon, eta guezurrez Erregue Juduen contra su eta gar ipiñi zuen. Soldadu-talde andiacquin aguintaririe adituenac Juda-ral bialdu cituen, Judas eta onen lagúnac escuratcera. Ilquin-tza andiac eguin cituzten, salduqueriarie beltzenac ere lam-bide onetaraco utci gabe. Beste ascorequin batean, bialdu zuen Nicanor aguintari aditua, ceñac lenengoan Judas-i chit ondo beguiratcen bacion ere alceneraco Erreguearen esana eguiteagatic, etsairie gogorrena bezala jarri citza-yon. Soldadu-talde andiacquin eraso cion, Jerusalengo uria eta Eliza ondatceco queñadac eguiñaz. Judas-ec bere soldadu apurracquin arpegui eman cion, eta eraso-aldi ba-tean Nicanor eta bere ogueita amabost milla guizon il ci-tuen, ceñaren bidez Judas-en icen andia barreatu zan, eta Israel-en etsai guciac izu-icara latzac artu cituen, eta Ju-duac nai adiña lecu artu zuten, aspaldico neque gogorre-tatic atsedeteco.

OGUEITA AMAICAGARREN IRACURGAYA.

1. §.—*Erroma-ren aguinte andia.*

Demboratsu onetan Errroma-rrac munduan chit aguin-te andia ceucaten; Erreinu osoac mendean ceuzcaten; eta etzuten, bein erasotacoric, escuratu gabe uzten. Demetrio Siriaco Erregueari Judas Macabeo bildur citzayon, Nica-nor eta onen soldaduac ondatu cituelaco, eta noizbait eguingo cionez, etsita cegoan. Artaraño, ain arguiró icusi izan zuen Jaincoaren laguntzari beguiratuta, etzuen lurre-coenic escatu; baña oraingoan cerbait itsutu zan, eta Erro-ma-rrai gazligatu cien, oyen babesean jarri nai zala, bal-din beren indar andien itzal-pean artu nai bazuten. Erro-ma-rrac, bayetzcoa, bereala eman cioten, eta bien arteco elcartasuna eguin zuten, eta beartuac guelditu ciran, erri-biac elcarri-estura-aldietan laguntceco.



Demetrio-c Judas-en contra soldadu-talde andi bat bialdu zuen; eta bi aldeetacoac Jerusalem-en ondoan aurquezaurque laster arquite ciran. Oyec chit izu-icara andiac artu cituen, ayen copura andia icusita: eta bi milla eta berreunenec Judas-i igues-eguin cioten, eta guelditu citzayozcan zortzi eun bacàrrac ere, ezurretaraño bildurra sartuta ceuden. Obe degu, esaten cioten, gure lagunetara joan, etsayari arpegui emateco guichi gualaco. Ez ori, Judas-ec erantzuten cien; Jaincoari nai ezdaquiola, guc gure etsayen aurretic igues-eguitea. Ordua bete bazagu, gure anayacgagatic garboz il gaitecen eta gure icen ona illundu ez dezagun.

2. §.—*Judas-en eriotza.*

Judas-ec esan on oyecquin, eta Jaincoagan iduqui bearzan icharopenarequin, bizcortu cituen, eta gáuzac prestatuic, elcarri eraso cioten, eta goizetic arratsalderaño aritu ciran, elcariltcen: baña ¡O miña! Judas Macabeo, garaipena escuan zuela uste zan unean, illotza erori zan, eta gañeracóac iguesari eman, eta batalla bucatu zan, Jonatas eta Simeon-ec, anaya maite Judas-en gorputza artuic, Modin-era eraman zuten, eta emen progu andiarequin lurpetua izan zan. Judas-en ilteac Juda guciari negarbide andiac eman ciozcan, eta deadar eguiten zuten; ¿Israel-co gordetzalle indartsua nola galdu da? ¿Leguearen zaintzalle, eta Jaincoaren onra, eta bere Erriaren onagatic aimbeste irriscatcen zana, cer eguin du? ¿Eraso-aidi gucietan ondo irteten zana, norà da? Onelaco esan ascorequin adierazotcen zuten, cer alsecabe eta miña eman cion, Judas aguintari biotz andicoaren ilteac. Guizon gogoangarri onen oroipena Escritura Santac itz oyecquin eguiten du: Judas-en beste guerrac, vertuleac, eta biotzaren anditasuna esribatuac ez daude, chit asco eta andiac izan ciralaco.

Judas ilda, Juduac, ecin esan ere ditequean izaera negargarrian, guelditu ciran, artzai gabeco artalde otsos ingurutuaren antzean, eheco legue-ucatzalleac, eta auzoetaco etsai gaizto guciac nondic-nai erasotcen ciotela. Ain

estura larrian beren burúac icusita, Judas-en lecuan aguintaritzat anaya Jonatas artu zuten, ceña aleguin guciacquin prestatu zan, etsayai arpeguia eracusteco. Onetaraco Judas-i sacabanatu citzayozcan guciac, billerazo cituen: Juan anaya bialdu zuen auzo adisquideetara laguntza-esque, eta cembat lagunequin echera cetorrela, salduque-riaz bidean il zuten. Gauzac onela prestatuta, lembicico erasoetatic bat izan zuen Baquides aguintari adituarequin, ceña, guizon asco galduta gueró, beartu zuen, Jonatas-i paque ematera. Jonatas eta Baquides adisquidetu ciran, eta elcarri gaitzic ez eguiteco itza emanic, Baquides Antioquia-ra itzuli zan, Juduai cer egiñic gueyago ez emateco asmoan.

Paque onec Jonatas-i lau urtean iraun cion. Bitartean lenagoco guerra eta gora-beerac utcitaco naspillac garbitu, eta eguindaco caltéac ordaindu, eta gauza guciac era onean ipiñi cituen: batezere Jainco eguiazcoari cegoquion agur eta adoracioa emateco lanetan chit necatu zan, eta iritsi zuen, aspaldian ez bezala, Jauna adoratcea eta bere legue santa gordetcea.

### 3. §.—*Antioco-ren seme Alejandro.*

Dembora onetan Antioco-ren seme Alejandro Demetrio-ri, Erreguetza quendu nayez, irten citzayon, eta ezaguturic, baldin Jonatas Alejandro-requin adisquidecten bazan, calte izango zuela, aurrea artuta, bere adisquidetza escatucion, soldadu-taldeac ipintceco, eta armac eguiteco escubidea esqueñiaz. Aguindu ere bazuen, Sion-go gazteluan ceuzcaten atceman guciac, eman cequizquiola.

Jonatas-ec, baimen eta esqueñtza oyec icusita, bere itza ecertaraco Demetrio-ri eman gabe, equin cion Jerusalem-go uria sendotu, guerraraco guizonac eguin eta trebatceari, eta egun guchiren epean jarri zan, edoceñi cer-pensatu emateco, eta gogor eguiteco bidean. Alejandro-c ere bere aldeiduinai zuen, eta gaztigatu cion adisquide izan nai zala, eta siñaletzat janci eder bat, eta urrezco coroa bialduco ciozcala. Demetrio-c ere esqueñtza asco eta an-

diac eguin ciozcan; baña Jonatas eta onen lagúnac, Demetrio-c Israel-i eguindaco calteac gogoraturic, Alejandro-ren alde jarri ciran. Onec, laguntza berri onequin sendoturic, Demetriori eraso cion, eta au il, eta gende gucia ondatu zuen, eta Erreinu guciatz jabetu zan.

Alejandro-c Tolemeo Egipto-co Erregueari Cleopatra alaba emaztetzaraco escatu cion, eta eguin cituzten eztaiegunetan, Jonatas chit onra andian erabilli zuen, arestico guer-ran eguin izan cion mesedeagatic. Gueroco iru urteetan Siria-n eta Juda-n etzan guerraric izan. Bitartean Jonatas etzan zabartu, bere gendea eraentceco; oñ onean ipintceco; eta Jaunaren bildurra biotzetan iracequitceco; baña iru urte oyen buruan aguertu bearrean arqutu zan.

#### 4. §.—*Demetrio Erreguea.*

Batallan ildaco Demetrio-c bi seme utci cituen, eta zaren, aita bezala, Demetrio ceritzanac, artu zuen, Alejandro-ri Erreguetza quentceco asmoa, eta or-emen cembal soldadu bereturic, bere lurrean sartu citzayon, eta estura larrian ipiñi zuen, eta Jonatas Alejandro-ri lagundu bearrean arqutu zan.

Alejandro-ren aguintari Apolonio, bere nagusia salduta, Demetrio-ren alde eta onen soldaduen aguintean jarri zan. Jonatas-i gatzigatu cion, odolice isuri gabe, argana jarri cedula; bestela gaizqui ibillico zala; baña Jonatas-ec etcion aditu, eta bere adisquide eta onguille Alejandro-ri laguntcera, zor cion bezala, irten zan, Azoto-co celayetan elcarrri eraso cioten, eta Jonatas eta bere anaya Simon-ec Apolonio-ren gende gucia ondatu, eta Apolonio ipiñi zuten, gueyago onen icenic ez aditceco eran. Alejandro-c mesede au chit gogoan artu cion, eta Jonatas-i onra andiac eguin ciozcan.

#### 5. §.—*Tolemeo Egipto-co Erreguea.*

Tolemeo Egipto-co Erregueac, bacirudien, iñore baño obetó Alejandro bere suyari lagundu bear ciola, eta antz onetan, itsasoan are bicor aimbat guizonequin, Greciaronz abiatu zan. Alejandro-ren mendecóac ere bazter gucietan

chit arrera ona eguin cioten, eta gaztelu guciac idiquitcen citzayozcan, gogoác cion bezala, sartceco. Baña Tolemeoren asmóac beneric ciran; eta gucia escu-pean on-irudian artu zuenean, bere salduqueria eracutsi zuen.

Seleucia-co urira zanean, suyaren etsai Demetrio-ri gaztigatu cion, arà joateco; Alejandro-requin alaba ezcondua damuturic cegoala, eta oni quenduric, emaztetzat ari emango ciola. Demetrio joan citzayo: alaba eman cion, eta Erreguetzan ipiñi zuen. Alejandro une artan, eguin-quizunac ala aguinduta, beste alde batean cebillen, alaco gauzaric gaitz-uste gabe, eta aitaguiarrabaren salduqueria jaquin zuenean, cezaquean gende gucia bilduric, Antioquia-ronz joan zan: elcarri eraso cioten, eta Alejandro-c gende gucia ondatua icusiric, igues-eguin zuen Arabia-ronz, non guizon dollor batec il zuen, eta Tolemeo ere, batallan artutaco zauri batequin, irugarren egunean il zan. Demetrio Siria guciz jabetu zan, eta Tolemeo-c Egito-tic ecarritaco soldatu-talde andiac, Egiptoronz bialdu cituen, bere esana eguin nai izan elcioten guciac lenago ilda, eta bera bacarra aguintean jarri zan.

Bitarte onetan Jonatas, bere baztarraren jabe zan bezala, bacebillen bere gendea nola obeto eraenduco zuen. Cecusan, Jerusalem-en cegoan Sion-go gazteluac cembatcer-eguin eta buruauste Israel-i ematen cion: eta aita Matias eta anaya Judas-en eresiari cerraiquiola, menderatceco asmoa artu zuen, costaco zana costaric.

Lambide onetan asita, cerbait aurrera ceramanean, Siriaco Erregue berri Demetrio-c gaztigatu cion, langai ari utciric, Tolemaida-ra joan cequiola; bada, itzaldi bat eguin bearra ceucala. Jonatas-ec bereala iguerri cion neque hura nondic cetorquion; ezagutcen zuen, bere artecoac cirala, aren eguimbideac onean ecin eraman cituztenac; eta galdu nayez, guezur ascorequin Demetrio Jonatas-en contra aserre ipiñi zutela. Beragatic uzcur bacegoan ere, atce-  
nean erabaqui zuen, bere erria utcita, joatea. Cembat Apaiz eta guizon eldu berequin artu cituen, eta bere uste eta icharopena Jaincoaren escuetan ipiñita, Tolemaidaronz abiatu zan.

Demetrio-c, uste baño arrera ohea, eguin cion, eta galdu nai izan zutenac, aldi onetan atsecabe andia artu zuten. Biac elcartasun vicia eguin zuten: Demetrio-c escubide andiac eman ciozcan; baño Sion-go gazteluari paquean uzteco itzean, esanaz, berac aguinduco ciela, ez Jerusalem-tarrai gaitzie eguiteco. Demetrio-c Jonatas eta Juduacquin adisquidetasunac onela eguinda, soldadu gueyenac echeetara bialdu cituen, bearric izango etzuelacoan; baño lam-bide onec bere ondamera ecarri cion.

6. §.—*Antioco.*

Alejandro-c il zanean, utci zuen semecho bat, Antioco ceritzana: eta Emalcuel-ec isillie Arabia-n ceucan, acitcen. Trifon Alejandro-ren servitzari batec seme onen berri baciequien; eta nequez bederic, Emalcuel-i emanerazo cion, Erreguetzat aitaren lecuari ipintceco asmoan. Demetrio-c echeetara bialdutaco soldaduac chit quejatiac ceuden, Erregueac guisa artan utci cituelaco; eta beguien ichi-idi-qui batean eunda oguei milla guizon bere contra, eta il nayez, Antioquia-n alchatu citzayozcan. Esturasun latz artan Jonatas-ec bialduta-co iru milla Juduen babesean vici-ciric gorde zan, eta alchatu ciran guciac il, eta menderaturic, Jonatas-enac Jerusalem-era itzuli ciran.

Mesede andi au Demetrio-ri laster aztu citzayon: Jonatas-i itzuli ciozcan, bere burua gordetececo utcitaco soldaduac, eta asi zan Juduai emandaco itz guciac jaten. Trifon arestian aitatu danari, Demetrio-requin Jonatas-en arteco autsi-osoac ondo etorri citzayozcan. Echeetaratutaco soldaduac erraz bildu cituen; Erreguetzat Antioco ezagutuerazo cien, eta Erregue berri, eta gendearequin Antioquiaraco bidean jarri zan. Demetrio ere batu citzaqueanacquin irten citzayon, erasotcera; baño gende gucia abarraquituric, iguesi joan zan, eta Antioco Antioquia-n garailari sartu zan.

Trifon-ec, bere asmoac ondo irten citzayozcanean, bereala iguerri cion, lanic obena Juduac bereganonz ecartcea zuela, eta Jonatas-i bere eresia gatzigatu cion. Jona-

tas jarri zan, Antioco-requin elcar arteera; eta asi eitzayozcan alde batetic, eta Simon anaya bestetic, laguntzen; eta Antioco-ren etsai indartsuai erasoric, garaitu cituen, eta Jonatas Jerusalem-era itzuli zan.

Gueróz Juduac chit era onean arquitzen ciran, beren leguéac gordeaz, vicitceco. Etsáyac bildur eitzayezten. Baccaric Sion-go gazteluac cer eguin eta pensatu asco ematen cien. Judas-ec asitaco lana, beren gogoz aurreratucozuten; baña Antioco-c bein aserrerazo ezquerò, icaratzen cituen: eta gogoac eman cien, Erroma-rracquin aurrena, eta Lacedemonia-rracquin guêró, adisquidetasunac ezarian eguita, premian arquitzen baciran, oyen babesean arpegui emateco. Erroma eta Lacedemonia-ra mandatariac isillic bialdu cituzten, eta elcartu ciran, nori bere bear-orduan, laguntceco itzac emanaz.

Jonatas-ec, adisquidetasun oyec eguinda, pensatu zuen, paque onean eta escurantza guciacquin vicitceco bideric obena, Juda gucian or-men gaztelu eta murru sendoac eguita zala. Guizon zar eta elduai bere eresia eta iritcia aguertu cien, eta guciac bat cetocelaco, lanari bereala equin cioten.

#### 7. §.—*Jonatas-en Tolemaida-ra joanera.*

Trifon-ec artu zuen, Antioco ilda, berà Erregue izateco gogoa. Lambide onetaraco eragozpenic andienecotzat Jonatas eta onen gendea ceuzcan; eta Jonatas videtic quendu, eta galtceco asmoa biotzean isillic ceucala, soldadu-talde andi bat artu zuen, eta Juda-n sartu zan. Jonatas-i gaztigatu cion, itz-aspertu bat eguin nai zuela, eta Tolemaida-ra-joan cequiola. Jonatas uzcur cegoan; baña aren losenchac adituta, Tolemaida-n sartu zan, milla guizon berequin artu, eta beste bi milla campoan utcita. Tolemaida-rracatéac bereala ichi cituzten, eta ecertaraco lecuric eman gabe, escúac ezarri ciozcaten. Trifon dollor biotz-tolezturazcoac escupean ceuzcan Antioco Erregue eta Jonatas bildur eitzayona, eta bere gogoa betetceco, eraric obenean arquitu zan.

Juduac jaquin zutenean, Jonatas-i guertatua, uste izan zuten, illa zala, eta negarrari eman citzayozcan. Simon anaya, gaztelu eta murrnac eguiteari utcita, Jerusalem-eronz joan zan, eta Juduen biotz eroriac alchatu nayez, onela itzeguin cien: Badaquizute, nere aita, anáyac eta ni cembat necatu gueran, gure leguéac eta gauza sántac gordetceco, eta cer naigabéac izan ditogun. Nere anáya guciac lambide onetan il dira; ni bacarra guelditu naiz; baña Jaincoari nai ez daquiola, neque-pena onetan gauden bitartean, nere viciari barcatcea; bada, ni nere anáyac baño ohea ez naiz. Guciac itzqueta onequin bizcortu, eta etsayari erasotceco prestatu ciran.

8. §.—*Jonatas eta bi semeen iltcea.*

Trifon Tolemaida-tic irtenda, Juda-ronz abiatu zan, Juduac bere alderatcearequin izutuco ciralacoan; baña icusi zuenean, Simon-ec gogor eguin nai ciola, oña atceratu zuen. Simon-i gartzigatu cion, baldin aren anaya Jonatas-ec zor utcitaco dirua, eta bere bi seméac bialtzen baciozcan, Jonatas-i emango ciola, nai zuen gucia eguiteco escurantza. Simon-ec Trifon-en esqueñi guezurrezcoari iguerri cion; baña mendecoac uste izan etcezatzen berecoya zala, eta diruric ez emateagatic, etciola escatua eguinten, dirua eta Jonatas-en bi seméac bialdu ciozcan. Trifon-ec oyec artu bezain laster, itza janda, Juda-ri soldadu-talde andiacquin eraso cion, eta Simon-ec gogor eguindaco batean, Jonatas eta bi seméac Trifon-ec il cituen, eta Antioquiara itzuli zan. Simon-ec anaya eta bi illobaen gorputzillac artu eta ederqui apaindutaco obian Modin-en lurpetu cituen. Trifon gaiztoac Antioco Erregue gaztea ere salduqueriaz il zuen, bera onen lecuan sartceagatic.

Simon jarri zan, anayaren ordez, Israel guciaren buru, eta aleguin andiac eguin cituen, bere alderdiac sendotceco, eta oñ onean ipintceco; eta gauzac cerbait zucendu cituenean, Demetrio Siria-co Erregue eroriarequin adisquidetasuna berritu zuen, laguntceco itza ematen ciola. Bereala indarrez Gaza artu zuen, eta idoloziale guciac botaric, Jain-

co eguiazcoa adoratceco eran ipiñi zuen. Andic laster era-  
so cion, bere aita eta anayac aimbeste aldiz artu nai izan  
zuten, Siongo gazteluari, eta gueroenean beretu zuen, eta  
Jerusalen-i quendu cion, cembat calte eguin izan ciozcan  
auzo galgarri au, eta Israel-tarrac, gaztelu onetan sartu-  
taco egunean, pesta andiac eguin cituzten, eta gueró ere  
urteoró bere oroipena eguiten zuten.

Israel gucia paque andian jarri zan, eta lambide gucie-  
tan chit aurreratzen zuten; baña autsi-oso negargarri bat  
demboraz izan zuten. Arestian-aitatu da, Demetrio jaiqui  
zala, Siriaco Erreguetzatic Trifon quendu, eta leguez eta  
bidez cegoquion lecuan eseri nayez. Auci onetan bereare-  
quin irteteco, gende billan cebillela, Media-co Erregueac  
alceman zuen, eta catibu ceucan. Antioco anayac berri  
au artu zuenean, cembat guerrari bildu cituen, eta gogor  
eguiñic, Trifon il zuen, eta Siria-co Erreguetzan jarri zan.

Simon eta Israel guciari zor ciezen mesede andiac, oso-  
tororó aztuta, asi zan, Juda esetsi edo perseguitcen, eta  
soldadutalde andi bat ere bialdu zuen, Juda-co baztérac  
beretcera, Simon-ec abela au icusiric, eta bere zartasunez  
ecertaco ere etcegoala, ezaguturic, Judas eta Juan bere bi  
seméac bere lecuan soldaduai aguintcen ipiñi cituen. Oyec  
bereala Siriarren aguintari Ceudebeo-ri arpegui emanic,  
ondatu zuten, eta batzuec il, eta besteac iguesi bialdu ci-  
tuzten.

Juduac garaipen onen ondorengo bi urteetan etzuten  
neque andiric izan, baña guertacari izugarri batequin izae-  
ra doatsu au laztu citzayen. Simon-ec iru seme eta alaba  
bat cituen. Adiñera zanean, bere queraco Tolemeo ceri-  
tzan batequin alaba ezcondu zuen. Tolemeo berez abera-  
tsa, eta Apaiz-nagusiaren sui eguiñic arquitu zanean, bear  
baño gueyago arrotu zan, eta aitaguiarrabaren aguintean  
sartceco asmoa artu zuen. Simon, Judas eta Matias bere se-  
meacquin, bazcari bat emateco aitzaquitan, suyac eraman  
cituen, *Doc* ceritzan gaztelu chiqui batera, non bere ego-  
naldiac Tolemeo-c eguin oi cituen. Aita-semeac mayean  
ipiñi cituen, eta pozic andienean ceudela, Tolemeo irten;  
gordeta ceuzcan guizon-iltzalle batzuecquin bazcaltoquirá



itzuli zan, eta aitaguiarraba, coñatoae, eta cembat zervitzari il cituen. Beste seme bacar Juangana ere iltzalleac bialdu cituen; baña Juan-ec jaquiñic, Tolemeo-c cer eguin zuen, eta mandatariac certara cijoacen, aurea artu, eta il cituen. Juduai, Simon eta bere semeen iltceac, min andià eman cien. Bereala aitaren lecuan Apaiznagusitzat ezagutu zuten seme Juan Hircano, ceñac bere asaba, osaba eta aitaren doai on guciac eracutsi cituen.

9. §.—*Juan Hircano.*

Israel eraentcen asi zanean, Siria-co Erreguéc eraso cion; baña arpegui beltza eracutsiric, bien arteco paquéc eguin cituzten. Gueróz Israeli alderdi andi eta asco beretu ciozcan; bere aguintea zabaldu zuen, eta il zan Jesu-Cristo mundura baño eunda bi urtez lenago.

Juan Hircano ilda, onen aguinte eta Apaiz-nagusitzan Judas Aristobulo semea sartu zan; baña anditasun oyec etciran, nerequico, aren gogoa betetceco adiña, eta artu zuen Erreguearen icen, lenagoco bost eun urteetan iñorc izan etzuen. Bereala ama eta senidéac ichian sàrtu cituen. Ama gosez il zan; Antigonon anaya ilerazo zuen; eta beste senidéac ichian iduqui cituen, vici izan zan arteraño. Erreguetzan urte bete eguin zuen, eta sabela lerturic, odola ceriola il zan.

Alejandra emazteac senar zanaren senidéac ichitic atera cituen, eta Alejandro ceritzan senide oyetatic batequin, ezcondu zan. Alejandro onec ogueita zazpi urte aguintean igaro cituen, eta bitarte luce onetan bere anaya bat eta mendeco asco milla il cituen. Odol isurtcea baicic gogoan etzuen, eta alcenean bera ere, ordituta, il zan.

Alejandra-c senarra ilda, aguintea artu zuen. Bi seme cituen: bat Hircano, asaba bezala, ceritzana, Apaiz-nagusi ipiñi, ata bestaa Aristobulo ceritzana, Erreguetzaco lanetan laguntceco artu zuen. Alejandra irurogueita amairu urtecoa il zan, eta bere lecuan Hircano, seme nagusia, utci zuen. Emacume au il zan urtean, jayo zan *Mesias* mundura zanean, Juda-co Erregue eguiten zuen Herodes, Antipatro-ren semea.

Bi anaya oyen artean auci gogor bat sortu zan, Aristobulo-c Apaiz-nagusitza, ez ecic, Erreguetza ere beretzat nai zuelaco. Elcarri erasota, lembicico batallan Aristobulo garailari irten zan, eta anayari Apaiz-nagusitza quenducion, eta Apaiznagusi eta Erregue guelditu zan. Anayaren charqueria Hircano-c icusitzuenean, Erromarren aguintari Pompeyo-ri Damasco-ra bere espasunacquin joan citzayon. Pompeyo-c bidez-cotzat artu ciozcan, eta bere soldaduacquin Juda-n sartu zan. Jerusalem-eronz abiatuzan; baña Aristobulo-ren adisquidéac gogor eguin, eta etcieten urian sartzen utci, alic eta iru illabêtean seliatuta iruquiric, indarrez artu zuen arteraño. Apaiz-nagusitzan berriró Hircano ipiñi zuen; baña etcion Erreguetzaric eman nai izan, eta Juda-co alderdi gucia Erromarren mendeco eguin, eta Herodes-en aita Antipatro buru eta eraentzalle ipiñi zuen. Eta Aristobulo Erregue eroria, onen seméac eta beste asco catibu arturic, Pompeyo Erroma-ronz itzuli zan.

Aristobulo-ren seme Alejandro-c Pompeyo-ri bidetic igues-eguin cion, eta Juda-n guerra berriró iracequi zuen baña Gavinio soldadu-aguintariac bereala sua itzali zuen, eta Alejandro eta lagunac menderatu cituen.

Gavinio-c orduan Juda gucia bost zati eguin, eta bacoitzari aguintari bat ipiñi cion. Lambide onen ondoren laster. Pompeyo Erroma-co aguintaria il zan, eta Cesar. Pompeyo-ren ondorengoagandic, Juda gucico aguintaritza Antipatro-c iritsi zuen. Jerusalem-era joanda, Hircano-ri Apaiz-nagusitza itzuli cion, Bere bi seme Faseló eta Herodes Jerusalem-go eta Galilea-co aguintean ipiñi cituen. Galilea-co aguintari Herodes-ec bere biotz gogorra bereala aguertu zuen, asco guizon oben gabecoac ilerazotcearequin. Au eta onelaco beste gauza ascogatic, bazter ayetan igüin latza artu cioten, eta aguintearen gañeco naspilla andiac sortu ciran, eta urte guichiren epean gai onetic odol asco isuri zan. Herodes Erroma-ra igues-eguin bearrean arquitu zan, vicia gordetceco.

Erroma-n Talde-aguintzaco jaunac bere alde ipiñi cituen, eta Juduen Erregue eguin zuten, eta Tolemaida-ra

joanda, emen arquitecen ciran Erroma-co soldaduac lagun artu cituen. Oyecquin Jerusalem-i eraso cion, an aguintcen zuen Antigono quenduta, bera jartceco, Lambide onec luzaró iraun zuen; baña gueroenean ere indarrez sartu zan, eta Antigono ilerazoric, onen lecuari jarri zan.

Erreguetzat artceco Judúac uzeur jarri citzayozcan, arro-tza zala, ciequitelaco, eta oqueita amaica urtean gogo gaiz-toz onen mendean vici izan ciran. Bitartean Herodes-ec Juduen uzcurra icusiric, eta oyen gogoan sartu nabez, Jerusalem pareta andiacquin berritu zuen, Eliza edertu zuen, eta ayen gogoco ceritzan beste gauza asco eguin cituen; baña alperric: eta atcenean gogorrean asi zan. Bere aita-ren adisquide andi Hircano Apaiz-nagusia, eta Erregueen odoletic cetocen guciar il cituen: baita Batzar nagusi edo Sanedrin-go iruroqueita amar Juézac ere, beste ascorequin balean.

Judúac, aimbeste gogortasunequin asperturic, oqueita amaica urteren buruan, jarri ciran Erreguetzat Herodes eta onen odolecoac ezagutcera, eta oraindic vici izan zan guero-co beste sei urteetan, etzuten Herodes-en contra ecer eguin, eta paquetsu egon ciran; eta Erregue arrotz au ezagutcea zan, munduaren Salvatzallea laster etorrico zan siñalea, dembora guichiren epean icusi zan bezala.

10. §.—*Joaquin eta Ana-ren ezcontza.*

Joaquin ceritzan Judu, eta David-en odoleco guizon vertutetsua, oquei urteetan ezcondu zan amasei urteco nescach Ana ceritzan batequin. Urte ascoan seme gabe egon ciran; eta gueroenean izan zuten alaba bat *Maria* deitu ciotena. Alaba pareric gabe au, Nazaret ceritzan errian, jayo zan munduaren iru milla bederatci eun eta larogueita laugarren urteco agor-illaren zortcigarren egunean. Jayotza onequin Ceruac poztu ciran, cein zan ciequitelaco; ez ordea mundua, nor etorri citzayon, oartu etzalaco. Iru urte cituenean gurasoac Jerusalem-go Elizan Jaunari bere serviotzraco esqueñi cioten, eta aurrac berac ere garbia izateco itza, eman cion, eta gueróz Elizan, gauza onac eguiten vizi izan zan.

11. §.—*José eta Maria-ren ezcontza.*

Dembora berean David-en odoleco guizon, *José* ceritzana, Nazaret-en sortu zan. Erregueen jatorria izanda ere, Israelarren artean lotsaric etzan, bere escuco lanarequin vicimodua ateratcen. Oyetalic bat *José* zan, eta arotciarequin bere oguia irabazten zuen. *José*, ogueita amarren bat urteco adin edo edaderaño ezcontzaca egon zan; baña icusi zuenean, Joaquin eta Ana bere aidéac alaba bat izan zutela, gogoac eman cion, onequin ezcontcea ondo cetorquiola. Israel-tarrac, aidéen artean ezcóntzac eguita, oituraz zuten. Bestetic ezcondu gabe guelditcea, lotsa andia zan, Mesias mundura emateco ustea, onela galtcen zalaco. *Maria*-c garbia izateco emanic ceucan itza, Jaincoac bestec etciequien. *Maria*ren contua ceucatenai ere gogoac eman cien, *José*-requin ezcontcea, eta *José* eta *Maria* ezcondu ciran; eta guisa onetan prestatu zan, Jaunari garbiac izateco itza, eman izan cioten senar-emazteen arteco ezcontza zorioneco, lau milla urte ayetan ichedoten zuten Jainco guizon eguiña, mundura eman bear zuena.

12. §.—*Maria eta José-ren Adan-ganañoco asabac.*

*Maria* eta *José* zorioneco eta paregabeco senar-emazte oyec aitatuta ditugun ezqueró, deritzat chit egoqui dala, beren aurrecoen errencada lucea, Adan-gandic asita, emen ezartcea, Escritura Santac dacarren eran, jaquin dedin, lenengo guraso argandic munduaren Salvatzalle Jesu-Cristo nola datorren.

Adan-ec sortu zuen Set.  
 Set-ec sortu zuen Enos.  
 Enos-ec sortu zuen Cainàn.  
 Cainàn-ec sortu zuen Malaleel.  
 Malaleel-ec sortu zuen Jareb.  
 Jareb-ec sortu zuen Enoc.  
 Enoc-ec sortu zuen Matusalé  
 Matusalé-c sortu zuen Lamec.

Lamec-ec sortu zuen Noe.  
Noe-c sortu zuen Sem.  
Sem-ec sortu zuen Arfaxad.  
Arfaxad-ec sortu zuen Cainán.  
Cainan-ec sortu zuen Sale.  
Sale-c sortu zuen Heber.  
Heber-ec sortu zuen Faleg.  
Faleg-ec sortu zuen Ragau.  
Ragau-c sortu zuen Sarug.  
Sarug-ec sortu zuen Nacor.  
Nacor-ec sortu zuen Tare.  
Tare-c sortu zuen Abraham.  
Abraham-ec sortu zuen Isaac.  
Isaac-ec sortu zuen Jacob.  
Jacob-ec sortu zuen Judas.  
Judas-ec sortu zuen Faréz.  
Farés-ec sortu zuen Esron.  
Esron-ec sortu zuen Arám.  
Aram-ec sortu zuen Aminadab.  
Aminadab-ec sortu zuen Naasón.  
Naasón-ec sortu zuen Salmon,  
Salmon-ec sortu zuen Booz.  
Booz-ec sortu zuen Obed.  
Obed-ec sortu zuen Jessé, edo Isai.  
Jessé-c sortu zuen David.  
David-ec sortu zuen Salomon.  
Salomon-ec sortu zuen Roboám.  
Roboám-ec sortu zuen Abias.  
Abias-ec sortu zuen Asá.  
Asá-c sortu zuen Josafat.  
Josafat-ec sortu zuen Jorám.  
Joram-ec sortu zuen Ocias.  
Ocias-ec sortu zuen Joatám.  
Joatám-ec sortu zuen Acáz.  
Acáz-ec sortu zuen Ecequias,  
Ecequias-ec sortu zuen Manasés.  
Manasés-ec sortu zuen Amón.  
Amón-ec sortu zuen Josias.

Josiac-ec sortu zuen Jeconias.  
Jeconias-ec sortu zuen Salatiel.  
Salatiel-ec sortu zuen Zorobabél.  
Zorobabél-ec sortu zuen Abiúd.  
Abiúd-ec sortu zuen Eliacim.  
Eliacim-ec sortu zuen Azór.  
Azor-ec sortu zuen Sadóc.  
Sadóc-ec sortu zuen Achim.  
Achim-ec sortu zuen Eliud.  
Eliud-ec sortu zuen Eleazár.  
Eleazár-ec sortu zuen Matán.  
Matán-ec sortu zuen Jacob.  
Jacob-ec sortu zuen Josè María-ren senarra.  
María-gandic jayo zan munduaren Salvatzalle  
Jesu-Cristo.

Escritura Santac sorterro edo genealogia luce onnetan emacumeric sartcen ez du; eta María-ren senarrac José zala esatearequin sallari uzten dio; baña orañago esan dan bezala, Israel-tarrac oituraz edo leguez, aidéen artean ezconzác eguiten cituzten; beragatic José María-ren senarra zala esateac, adierazotcen digu, biac aideac eta odol batecoac cirala. Oyen bien artean cer aidetasun dan esaten, eracusleac bat ez datoz. Batzuec diote, José-ren asaba Matán, María-rena ere berebat zala, bitartean José-c Jacob; eta Mariac Joaquin besteric izan gabe; beragatic José eta María lengusuac cirala. Bestéac diote, José-ren amargarren asaba Zorobabél-en lenengo seme Abiúd-gandic José datorrela; eta bigarren seme Ressagandic María. Beste asco gorago dijoaz; baña guciac bien iturri edo sustraitzat David jotcen dute; eta ecin ueatu ditéque, Erregue andi oní Jaincoac itza eman izan cion bezala, David-en odoletic datorrela Jesus-en Ama María guciz Santí; baita bere senar José ere.

María emacume andi, aimbeste Erregueren ondorengo onec, bada, prest ceucan, Isayas Profetac esandaco Virgñatasuna autsi gabe semea eguingo zuen sabel garbia, Jaincoaren Semea, Jaincolasuna utci gabe, Mariaren errai garbian guizon eguitera bacetorren. Jainco guizondua,

guizonen artera etorri, eta guizonacquin itzeguiteco dem-  
bora alderatu zan; baña lambide oni utci dizayogun, legue  
zarrari buru eman, eta berriari bigarren zatian asiera  
emateco.

**TESTAMENTU ZARRECO CONDAIRAREN ATCENA.**







---

## TESTAMENTU BERRICO

# CONDAIRA EDO HISTORIA.

---

### LENENGO IRACURGAYA.

#### 1. §.—*Mesias-en esqueñera.*

**J**aungoicoac asieran ceru-lurrac guizonaren servitzoraco eguin cituen; eta guizona Jaincoaren servitzoraco: baña guizona bere Eguillearen contra bereala jaiqui zan, eta ordutic Ceruari aserrerazo cion, eta, cerequin paqueac eguin etzuela arquitu zan. Jaincoa erruquitu zan, eta Bitartecotzat bere Semea esqueñi cion, eta onen bitartez jarri zan barcacioa iristeco bidean. Jaincoac, gueró ere, mesede andiac eguiten ciozcan; baña onec guciac azta, eta bere gaiztaquericquin Jaincoa beartcen zuen, castigu gogórrac bialtcera. Atceneraco guizónac ain gaizlotu ciran, non, Jaincoa ipiñi zuten, beretzat Erri bat aututcera. Erri au prestatu zuen esqueñitaco Bitarteco andia bere odoletic eman cezan. Eracutsi ciozcan etorquizúnac, cer eguin, eta nola vici: eta eraman zuen Bitarteco andi onec guizónac erosi eta erremediatu bear cituen lecura. Erri autu au, aimbeste mirari eta gauza arrigarri icusita gueró, jartcien da Erregue arrotz baten mendean; eta izaera onec adierazten zuen, lau milla urte ayetan esqueñita cegoan, Patriarca Santúac ichedoten cioten, eta Frofétac eracusten zuten *Mesias* munduan aguertceco dembora.

#### 2. §.—*Mesias-en Berri-emalle Juan Baupista.*

Egunac betecten ciran Jaincoaren Semea guizon eguite-

co, munduari Erremediatzallea emateco, eta arterañoco Profetaen berri onac eguiztatceco; baña Jaincoac aguintuta ceucanez, aurretic izan bear zuen Berri-emalle bat, bidéac garbituco ciozcana, eta guizónai aditcera emangociena. Berri-emalle au zan Zacarias, eta Isabel-en seme Juan, zortci eun urtez lenago, Isayas Profetác *eremuan otseguiten duena*, eta Malaquias Profetác Isayas-gandic irureun urtez gueroago, *Jaunaren Aingueru bere aurretic bidea prestatcera bi/ldua*, deitu ciotena.

Zacarias eta Isabel Aaron-en jatorricoac ciran; beragatic Zacarias Apaiza zan, eta Jerusalem-go Elizan bere chandac Jaincoaren servitzoan eguiten cituena. Guraso zorioneco oyec Juda-co basoetan Jaincoaren chit bildur andian vici ciran; baña aurric etzutelaco atsecabearequin. Zacarias Jerusalem-era jatsita, Elizan incensua aldarean prestatcen ari zala, Aingueru San Gabriel aldarearen escuico aldean aguertu citzayon. Zacarias izutu zan, eta Aingueruác esan cion: Zacarias, ez icaratu; bada, zure erregúac adituac dira, eta emazte Isabel-ec emango dizu seme bat, *Juan* deituco diozuna. Atseguin artuco dezu, eta bere jayotzan asco poztuco dira, ceren Jaunaren aurrean andia izango dan. Ez du ardoric, ez beste edari orditcecoric artuco, eta amaren sabeletic Espiritu-Santuz betea izango da Israel-co seme asco Jaunagana ecarrico ditu. Oyec eta onelaco beste berri asco adituta, Zacarias-ec Aingueruari esan cion; ¿Certatic berri oni iguerrico diot? Ni zarra naiz, eta emaztea egunetan chit eldua da. Aingueruác orduan erantzun cion: Ni Gabriel Jaincoaren aurrean nagoana naiz, eta, zuri berri on au ematera, nator: zu mututuric gueratuco cera, eta nic esan gucia bete bitartean, ez dezu itzie izango, sinistu nai izan ez didazulaco.

Gendea Zacarias-en Eliz barruan incensua ipintceco lecutic, ez irteteari lucetsita cegoan, eta irten zanean icusi zuten mututua, eta cer guertatu citzayon, queñuz baicic, ecin adierazo ciela Zacarias echera joanda, Isabel laster aurdun eguin zan, eta zarzaroan onela jarri zala esaten, uzcurtasun edo lotsa-antz bat ceucalaco, bost illabete ezcutuan eguin cituen.

3. §.—*Jaincoaren guizon-eguitea.*

Bitartean María guciz Santa, San Joaquin eta Santa Anaren alaba pareric gabea, Israel-co Virgiña, egunelic egunera cijoan ontasunean aurreratzen, eta lurreco batec dezaqueneraño, Jaincoaren semea bere errayetan arteco prestatzen. Eldu zanean mirari ez-icusi au, eta Jaincoaren escuetatic irtendaco lanic andiena, eguiteco egun, lau milla urte ayetan mundua beguira cegoquiona, Jacob-en ondorengo alaba bat, virgiñatasuna galdu gabe, ama eguin, eta Jaincoac, Jaincotasuna utsi gabe, guizatasuna artu bear zuena, San Gabriel Ainguerua María-ri joan citzayon Nazaret ceritzan Galilea-co errira, non vici zan San José-requin ezconduta. Bere otoitz edo oraciolecuan bacarrean cegoala, Ainguerua sartu citzayon, eta diosal au eguin cion: Agur, María, graziaz betea, Jauna zurequin da, andre gucien artean bedeincatua cera.

María, berez ecin umillagoa izanic, nastu zan, diosal arc cer esan nai ote zuen, ecin iguerriz. Aingueruac orduan esan cion: Ez icaratu, María, bada, Jaincoac bere gogocoa zaitu. Sabelean sortu, eta izango dezú Seme bat Jesus deituco diozuna. Andia izango da, eta Jaincoaren Semea esango zayo. Jaun Jaincoac David bere aitaren Erregue-aulqui edo Tronoan eserico du; Jacob-en echeari aguin-duco dio, eta bere aguinteac atcenic izango ez du. Berri oyec Daniel-ec bosteun urtez, eta Isayaz-ec zortci eunez lenago esanac ciran, eta ala guertatu zan. ¿Ori nola dateque, María-c erantzun cion, baldin nic guizonic ezagutcen ez badet? Espiritu-Santua etorrico zatzu: onec itzal-eguingo dizu; argatic zugandic jayotcen dan Semea Jaincoaren Semea izango da. Berri au obeto sinistu cezan, beguira, esan cion; beguira, zure aide Isabel-ec bere zarzaroan sei illabeteco semea nola dacarren, ceren Jaincoarentzat ecin ditequeanic ez dan. Ona emen, Jaunaren servitzaria, María-c erantzun cion. Zuc diozuna nigan eguin bedi. Aingueruac bereala aldeguin zuen.

Jaincoa María-ren baimenaren zai cegoan bere errai

garbietan guizonaren lan gabe, eta Espiritu Santuaren indar utsez guizontceco. Mariac-itzeguin zuen une berean, Ama eguin zan. Espiritu-Santuaren virtutez gorputz bat sortu zan; ecerezetic anima eguin zan; Jaincoaren Seme Irutasuneco bigarren Personac gorputz eta anima oyec beregana artu cituen, eta gueratu zan, Jainco izateari utci gabe, guizon eginda.

¡Cer anditasuna Maria-rena! Guizonaren alaba uts bat Jaincoaren Ama eguiñic arquitecen da: ala ere, ez da arrotecen, bere burua eceretzat dauca: dan gucia Jaincoari zor diola, aitortcen ¡du. ¡spillu ederra munduco cerbait anditasun iritsi orduco, üanditu eta arrotu nai dutenentzat! Ceru-lurren Jabearen Ama izanic, beste edoceñ baltiz bezala, artcen du Juda-co mendietara joan, eta bere lengusu Isabel-i icusi bat emateco asmoa.

#### 4. §.—*Isabel icustera Maria-ren joanera.*

Nazaret Maria-ren erritic Isabel-enera cegoan lau eguneco bidéac, etzuen Maria atceratu. Certara cijoan, iñori ere esan gabe, Isabel-i joan citzayon, eta diosala eguin bezain laster, Isabel-ec sabelean ceucan aurra saltoca asi zan, eta amác pozez beteric, ¡otseguin zuen: Andre gucien artean bedeincatua cera, eta zure sabeleco frutua bedeincatua da. ¿Nondic datorquit nere Jaincoaren Amac icusteco zorion au? Beguira, bada, cer guertatu zadan. Zure diosala aditu orduco, errayetan daucadan aurra pozez saltoca asi zat.

Maria-c orduan Jaunaren gloriaráco esan cituen *Magnificat* deritzan cancio eder aren itzac, esanaz: Nere animác Jauna alchatcen du, eta nere barruna Jainco nere Salvatza llearequin poztutcen da, ceren bere servitzariaren chiquitasuna icusi duen; gaurtic aurrera, bada, adin guciac zorionecoa deituco naute, Altsua dan, eta guizalditic guizaldira bere erruquimentua, bildur zayozcanetan, zabalduco duen guciz Santuac, nigan gauza andiac eguin dituelaco. Itz oyec esanda, isildu zan. Maria-c Isabel-en echean iru illabete eguin cituen, sabelean cer ceucan Zacarias-i eta

besteri, esan gabe; baña Isabel-ec, Jaincoac ala adierazota baciequien, beragatic bere ondoan luzaroago iduqui na izan zuen; Maria, ordea, Nazaret-era itzuli zan.

5. §.—*San Juan-en jayotza.*

Andic laster Isabel-ec semea eguin zuen: alderdi gucian barreatu zan; eta guciac jayotza miragarri onequin poztu ciran. Zortcigarren egunean aur jayo-berria circumcidatcera aide eta adisquidéac bildu ciran; eta despita sortu zan cer icen emango citzayon. Aide guciac, aitari bezala, Zacarias deitcea nai zuten; baña ama, Aingueruác esanic ceucalaco, leyatcen zan, Juan ipintceco. Ecin erabaquiz ceudela, aitari asan cioten, queñuz bedere, adierazo cezala, cer icen ematea nai zuen. Olcho bat artuta, ipiñi zuen: *Icena Juan du*: eta guciac arrituric gueratu ciran. Ordutic itzeguiten asi zan, aimbeste illabetean mutututa egon zan Zacarias, eta esan zuen, *Benedictus* deritzan cancio ederra, ceñetan esan cituen Mesias eta onen Berriemalleari cegozquien gueroco gauza asco.

Bereala ezagutu zuten, Juan jayo-berria Jaincoác doayez jancia zala, eta gurasoác ere chit contu andia izan zuten, aciera ona emateco. Urte asco baño lenago eremura joan, eta vicitza latz eta nequezcoarequin prestatu zan, Mesias ondoren cetorquionaren berriac munduari ematera irten bear zaneraco.

6. §.—*Maria-ren vicitza Nazaret-en.*

Maria guciz Santa, Isabel-gandic irten ezqueró, bere errí Nazaret-en vici zan bere senar José-requin batean, lurrean alditequean vicitzaric obena eta Jaincozcoena eguiñaz, sabelean ceraman semea noiz jayoco citzayon beguira: baña ordua betetceraco, naigabe min bat izan zuen, eta José-ri ere cer pensatu andia eman cion. Illetan aurre-ra cij Joan, eta San José-c ere, naita-nai-ez, iguerri cion, nola cegoan. Senarrac baciequien garbia edo Virgiña zala eta cecusanez, etzan. Emazteac etcion esan nai, Jaincoác

isillic eguin ciozcan mirariac, eta Jaunaren escuetan utcita ceucan, Langai au cegoquionean adieraztea. Senarra, leguez eta bidez, ecin vici citequean ezcontzaco leyaltasuna autsi zuelaco emaztearequin, eta San José, au eguin bearrean, arquitcen zan, emaztearen egoerari beguiratu ezqueró, Jaincoaren lana zala jaquin gabez; baña dembora berean ecin zuen alaco gauzaric bere emaztearen ontasunean sinistu. Zalantza edo duda onetan luzaró egonda, erabaqui zuen, isillic aldeguitea, cergatic cijoan iñori esan gabe.

7. §.—*Aingueruác María-ren izaera José-ri aguertcen dio.*

Asmo oyetan cebillela, Jaincoaren Aingueruác San José-ri ametsetan esan cion, etcedilla icaratu: emazteac sabelean ceucana, Espiritu-Santuac eguiña zala; eta jayotcen zan semeari, *Jesus* deitutceco. Esnatu zan, eta lengo quezca guciac utci, eta jarri zan Jaincoari esquerrac ematen, emazte ain zorionecoaren jabe eguin zuelaco. Emazteari, lengo berezco ontasun eta doai ederraz gañera, berri pare gabe au artu zuen ezqueró, cein begui onacquin beguiratuco cion esatea, erraz ez da.

8. §.—*José eta María-ren joanera Belen-era.*

Anciña-anciñatic esana zan, munduaren Salvatzallea, ez Nazaret-en, ezpada Belen ceritzan Juda-co Urian jayoco zala, eta Jaincoac gáuzac zucendu cituen, aurrez-esan au betetceco eran. Erroma-co Aguintari Cesar Augusto-c aguindu zuen, bere mendeco gucien icenac, nori bere aurrecoac nondic cetozquion, erri artan arteco: eta Cesar Augusto-ren mendecoa Nazaret izanic, eta San José eta María guciz Santa Belen-go jatorriac, beren anciñaco asaba David-en aita Isai emen jayoa zalaco, onará bearrean arqitu ciran. Juda eta Galilea-co eche-jaun edo familiaetaco buru guciac bidean cijoacen, norc bere lecuan, icena uzteco. Senar-emazte zorioneco oyec ere, bestéac bezala, Belen-eronz abiatu ciran. María aurguiteco bete-betea ce-

goan; ala ere ogueita amar leguaco bidea chit ondo eguin zuten: baña Belen-era eldu ciranean, ostatic gabe arquite ciran. Eche guciac orduraco beteta cendelaco, iñon etzuten echaleorric topatu, eta atcenean estalpe batean guelditu ciran. ¡Lecu egoquia Ceru-lurren Jabea jayotceco! Baña gurutcean guizonagatic il nai izan zan Jaincoaren Semeac estalpe char bat jayo-toquitzat aututcea, mirestecoa ez da.

9. §.—*Jesus-en jayotza.*

Munduaren asieratic lau milla urtera, eta Cesar Augustoren aguintearen berrogeigarreneco abenduaren ogueitabostgarren egunean gauerdian Maria guciz Santa estalpe onetan arguiten jarri zan, eta munduari eman cion bederatzi illabete ayetan bere errai garbietan cecarren Jaincoa-ren semea. Emacume pareric gabeco onec etzuen bestac bezalaco suminic eta onaceric izan; beragatic aurchoa escuetan artu, zapichoetan bildu, eta seascaric etzuelaco, gambela batean ipini zuen. Berri pozgarri au laster barreatu zan. Belen-go inguruan cebiltzan artzai batzuei. Ainguerua aguertu citzayen, eta esan cien: Ez icaratu; berri on batequin natorquizute. Jaquizute, David-en Urian munduaren Salvatzallea gaur jayo zatzutela. Ara nondic iguerrico diozuten. Zapietan bilduta, gambela batean aur bat arquitez dezute. Itz oyec esan orduco Aingueru-samalda ingurutu citzayen, eta guciac asi ciran esaten: Gloria Jaunari goyetan, eta baquea guizon biotz onecoai lurrean. *Gloria in excelsis Deo et in terra pax hominibus bonae voluntatis.*

Artzayac arri-eguin ciran, eta cerbait berera ciranean, el carri esan cioten: Belen-era goacen, eta, eman zagun albista dacuscun. Corrica joan ciran, eta estalpe batean arquite cituzten Maria guciz Santa eta San José, aur jayoberria gambelan zutela. Belaunicatu ciran, Jaincotzat ezagutu zuten, eta ceramazquiten escueracutsi biotz onecoac emanic, ardiatara itzuli ciran, eta aditu eta icusi gucia, bereala zabaldu zuten.

10. §.—*Jesus-en Circuncisio a.*

Legueác aguintcen zuen zortzigarren egunean seméac circuncidatceco. Aur Jainco au aguindu onen azpian etcegoan, culpa gabeco garbi-garbia zalaco; baña odola isurtcen lenengo egunetatic asi nai izan zan. Zortzigarren egunean, bada, circuncidatu zuten, eta eman cioten Aingieruac Amari eracutsitaco icen *Jesus*, ceñac Salvatzallea esan nai du. ¡Icen gozoa! ¡Icen maitagarri, beti aolan erabilli bear genduqueana! ¡Icen zoragarri, gure illutasunac arguitu, naigabeac poztu, nequeac arindu, negarrac leortu, eta gaitzac sendatcen dituen!

11. §.—*Iru Erregueen adoracioa.*

Berri pozgarriac Belen-inguruan, ez ecen, urrutietan ere barreatu ciran. Eguzquiaren sort-aldeco iru Erregueri izar eder batec adierazo cien, Jesus jayo zala, eta izarrari cerraizquiola, Jerusalem-era eldu ciran Circuncisiotic bosgunen buruan; eta galdetu zuten: ¿Juduen Erregue jayo berria non da? Bere izar-a sort-aldean icusi degu, eta adoracera gatoz. Herodes, Jerusalem-go Erregue eguiten zuena, Erri guciarequin batean, albista onequin izutu zan, eta Apaiz-nagusi, eta Legue-jaquintsúac bilduric, galdetu cien; ¿ea Cristo non jayo bear zan? Juda-co Belen-en, erantzun cioten, Iru Erreguéac bereala artuta, galdeac eguin cieztan, izarra noiz aguertu citzayen, jaquiteco, eta esan cien, Belen-era joanda, Aurra billatu cezatela, eta gueró argana itzulceco; bada, berac ere adonatu nai zuela.

Iru Erreguéac Herodes-i agur-eguinda Jerusalem-dic irten ciranean, berrirò aguertu citzayen, Urian sartutacoan ezcutatu citzayen izar eder, lenago bidea-eracutsi cien. Oni bacerraizquion Aurra cetzan estalpe-gañean jarri citzayen arteraño. Bereala iguerri cioten, billa cebiltzana non cegoan. Estalpean sartu eta arquite zuten Ceruetaco Erregue Aurchoa zapi char batzuetan bilduta, Ama gastea eta aita-usteco guizon eldu bat beste lagun gabe. Cetzan po-



brezari beguiratu gabe, Jaunac emandaco arguiarequin, Aurra Jaincotzat ezagutu zuten: auzpez jarri citzayozcan, eta urrea, incensua, eta mirra esqueñi ciozcaten. Lan au eguin zutenean, echeronz abiatu ciran, eta Aingueru battec esan cien, Jerusalem-era gabe, beste bide batetic echera itzultceco.

12. §.—*Maria guciz Santaren Eliz-sartcea.*

Erregue oyec icusi au emanda gueró, aurquite-ondoco berroguet egúnac igaro artean Belen-en egon, eta Jerusalem-era igo ciran, legueac aguintcen zuen bezala, Amaren garbitcea eta Semearen aurqueztea, edo berebat dana, Eliz-sartcea eguitera. Onelaco bearric ez batat eta ez besteac zuten, ceren Ama chit garbia, eta virgíñatasuna, ez len, eta ez gueró, autsi gabea zan, eta Semea guizon eguin zan unetic cegoan Aita Beticoari esqueñia; baña eguin nai izan zuten gañeracoai eracusteco. Ama guciz Santac Aurra besoetan ceraman, eta Eliz-atera ciranean, apaizari ofrendan bi usacume eman ciozcan. Beartsua edo pobrea zalaco, etcion arcumeric esqueñi baña an ceraman, munduco becatuac quentcera cetorren Bildots garbia. Elizan sartu orduco, Simeon zar guizon on eta Jaincoaren bildurrecoac ezagutu cituen, ez munduco berriric zuelaco, ez pada Ceruac argui-eguin ciolaco. Aurra besoetan artu, beguiac ceruronz jaso, eta otseguin zuen: Noiznai orain emendic eraman nazazu, ceren zure ona icusi dedan. Au cion, Jaincoac esanic ceucalaco, Israel-co Poza icusi gabe etzala ilco. Simeon-ec onetan ciardun bitartean, Ana Profetiza an aguertu zan. Emacume on onec larogueita lau urte cituen, eta senarrarequin zazpi urte eguinda, alargundu zan ezqueró, Elizatic aldeguin gabe vici zan, egunez eta gañez Jaincoa barau eta oracioacquin servitcen zuela. Munduaren Salvatzallea an cecusanean asi zan Simeon-egin batean Jauna alabatcen. Simeon-ec Aurra Amari itzulita, bere] lecura joan zan. Ana ere bai, esanaz Mesias mundura etorri zala.

Lambide au Elizan lagun guichiren artean igaro bazan

ere, bereala olsa barreatu zan, eta Herodes-ec aditu zuen. Erregue onec Aur au iltcea beregan erabaquita ceucan, sort-aldeco iru Erregue edo Mago ayec adierazo cioten ezqueró; argatic esan cien, itzuli cequizquióla icusita gueró, baña aguertu etcitzayozcanean, uste izan |zuen, guezurretan ibilli cirala, eta lotsaz beste alde bateticitzulico cirala. Orain otsa berriró zabaldu zanean, pensatu zuen, ari ez esateagatic igues-eguin ciotela, eta su eta gar eguiñic aguindu zuen, bi urte ezqueró Belen eta ingurumai gucian jayotaco aur seme guciac iltceco, Aur Jaincoa-ere besteacquin batean atcituco zuelacoan; baña guizonaren aleguiñac Jaincoarentzat indar gabeac dira.

Familia santa au, Eliz-lanac eguin cituenean, ez Belen-era ezpada Nazaret-era itzuli zan: eta emen Aingueru battec San Jose-ri bereala ametsetan esan cion: Aurra eta bere Amarequin Egipto-ra zoaz, eta nic esan-artean, an zande: bada, Herodes Aurraren billan abiatuco da, iltceco. Berri onequin San José, Ama-Semeac artuta, Egipto-ra joan, eta Herodes il artean, an izan zan.

### 13. §.—*Aur culpa gabeen iltcea.*

Arestian aiatu dan Erreguearen aguindu gogorra Belen eta inguruan erruqui gabe eguin zan, bi urtez beeco aur guciac illaz. Aitaen deadarrac, amaen ayescac, senideen garrañiac, aideen negàrrac batean ciran; baña alperric: aur gañoai cerien odolác bazter guciac gorritcen cituen. Herodes, aguindu gogor au eman zuen Erreguéac, cegoquion saria, artu zuen. Gaizquitu zan. Gorputza usteldu citzayon, àrrac ceriozcala, eta viciric jaten zutela. Bere quirats lizunac etcion iñori ere alderatcen uzten; eta atcenean ernegacioan luzaro onela egonda, il zan.

Herodes ilda bereala, Aingueruac San José-ri esan cion, Aurra eta Ama arturic Israelera itzuli cedilla; bada, Aurra galdu nai zutenac, il cirala. Egipto-n egon ciran, Jesus zazpi urteetara iritsi bitartean. Orduan Israel-eronz abiatu ciran: baña San José-c jaquin zuenean, Herodes-en lecuan Arquelao semea jarri zala, icaratu zan, eta Aingue-

rúac esanda, Jerusalem-aldea utciric, Nazaret-era joan zan, eta beren vicilecua emen artu zuten.

14. §—*Jerusalen-go Elizan Semearen gueratcea.*

Nazaret-en vici cirala, Jerusalem-go Elizara urteoro oituzaz joaten ciran, Pazcoaco pesta eguitera. Aurrac amabi urte cituenean, besteetan bezala, joan ciran: eta Eliz-gauzac eguiten zazpi egun igarotacoan, Nazaret-eronz gurasóac itzuli ciran. Uste zuten Aurra berequin zutela; baña egun bateco bidea eguin ezqueró oartu ciran. Semea etceramatela. Badirudi gurasóac cerbait zabartu cirala, Semea gabe irteten; baña lan artan Jaincoa berá cebillen. Erromeri oyetan guizónac samalda batean, eta emacumeac bestean ibilli oi ciran. ¡Ah, orain ere au eguingo balitz! Aurra oraindic gaztea izanic, batzuen eta besteen artean joan citequean. Aitac uste zuen, Amarequin zala, eta onec Aitarequin; eta illuubarrean bildu ciranean, contuan jauci ciran, Semea ez batarequin, ez bestearequin zala; eta atsecabeturic, aide eta adisquideen artean galdez asi ciran, eta arquitcen etzutenean, Jerusalem-go bideari eman citzayozcan. Irugarren egunean Elizan topatu zuten, Jaquinsuen erdian eserita, eguiten ciezen galde eta ematen [ciezen erantzueraguciac arritcen cituela. ¡Ay ene Semea! Ama espatsuac icusi orduco esan cion: Cergatic garequin batean etorri etzatzagu, naigabe andi au guri eman gabe? ¿Etcinequiten, Jesus-ec erantzun cien, Nic nere Aitaren lanac eguin bear ditudala? Jesus Elizatic irtenda, irurac Nazaret-era joan ciran, eta ogueita amar urte bete artean, emen gurasoen mendean vici izanzan. Bitarte luce onetaco Aur onen beste berriric es degu: bada, Evangelio Santuac gai onetan ez digu ecer esaten, gurasoen mendean egon zala baicic. ¡Cer umiltasuna, senar-emazte beren escucolanaz irabacitaco oguiarequin vici diranean esanera dagoan Ceru-lurren Eguille eta Jabearena! ¡Cein egoqui eta arguiró eracusten digun, guizonagatic ecereztu zala!

## BIGARREN IRACURGAYA.

### 1. §.—*San Juan-en predicua.*

Munduaren Salvatzalleac bere lan andia asitceco dembora eldu zanean, bere Berri-emalle San Juan Bauplista-cere berari equin bear cion. Jesus-ec ogueita bederatci urte, eta sei illabete cituen, eta San Juan-ec ogueita amar urte, au, aspaldian eremuan ceraman vicitza isilla eta bacarra utcita, asi zanean, gendea penitenciaco bidetic prestatcen, Jauna artceco. Eguinquizun onetaraco San Juan baño erazcoagoric arquitea, erraz etzan. Eremu bacarrean gamelu-illez eotaco soñeco zatar batequin gorputza estaltzen zuen; larrapote edo mendilangóstac eta bas-eztia janaritzat, eta ur pisca bat edaritzat cituen: eta urte ascoan onela vicitu zan, Jaincoac aren contura ipiñitaco lambide andia, dembora zanean eguiteco.

Eremutic irtenda, Jordan-go ibai ondora jatsi zan, eta guciai otseguiten cien, becatuac uzteco, eta Jaunagana itzultceco. Jerusalem eta inguruetatia gendéac samaldaca cijoazquion icustera eta aditcera; eta onen vicitza gogor eta latzac guciac arrituric uzten cituen; eta eguiazco damuarequin aguertcen citzayozcanac, batayatcen cituen, ez Jesus-ez gueró ipiñitaco batayoarequin, ezpada onen antza baicic etzuenarequin eta aldaurrez adierazteco, Jesus-ec gueroago munduari emango ciona.

Guizon andi onegan cecusten ontasuna ain andia izanic, uste izan ere bazuten, *Mesias* zala, eta mandatariac joan citzayozcan. galdetcera: ¿ea Mesias zan? San Juan-ec erantzun cien, etzala, ez. Ni Mesias ez naiz, cion. Niri darraiquit ni baño gueyagocoa, ceñaren oñetaco locarria ascatceco gai ere ez naiz. Nic urez batayatuco zaituztet; baña arc Espiritu-Santuarequin batayatuco zaituzte. Oyec eta onelaco beste esan ascorequin eracusten cien, Mesias alderatcen citzayela.

2. §.—*San Juan-ec Jesus batayacen du.*

San Juan-ec lambide onetan sei illabete ceramazquien, eta Jesus Nazaret-etie irtenda, aurqueztu citzayon batayo-  
esque. San Juan-ec etzuen Jesus egundaño icusi: ala ere,  
aurqueztu orduco, ezagutu zuen. San Juan uzcur cegoan,  
Jesus batayatceco, eta gogor eguiten cion, esanaz; ¿Cer?  
¿Zuc ni batayatu bear, eta Zu batayo-esque niri zalozquit?  
Baña Jesus-ec esan cionean, Nic diodana, zuc eguizu; ba-  
da, ala conveni da; bereala Jesus-en esanera jarri zan, eta  
Jesus batayatu zuen. Au eguindacoan, Ceruac idiqui ciran;  
Espiritu-Santua uso baten antzean gañean jarri citzayon,  
eta aditu zan ots bat, ciona: Au da nere Seme maitea, ce-  
ñagan nere atseguin gucia dedan. Jesus batayoa artuta,  
baso illun batean sartu zan, eta bacar onetan berroguet  
egun eta berroguet gau oteitcean eguin cituen, ecer ere  
jan eta edan gabe.

3. §.—*Deabruác Jesus tentatcen du.*

Berroguet-aldi onen ondoren deabrua alderatu, eta ten-  
tatcen asi citzayon. Jaincoaren Semea bacera, esan cion,  
arri oyec ogui eguin itzatzu. Jesus-ec erantzun cion: Gui-  
zona oguiác bacarric ez du vici, ezpada Jaincoaren aotic  
datorren itzac. Etcion onembestez utci. Deabruác artu, Je-  
rusalen-era eraman, eta Elizaren galyurrean ipiñi zuen  
eta esan cion: Jaincoaren Semea bacera, ortic beera zoaz-  
bada escribaturic dago, Aingueruác zuri contu artceco dau-  
dela, arriric jo ez dezazun. Baita cre escribaturic dago, Je-  
sus-ec erantzun cion: Ezdezu cere Jaun Jaincoa tentatuco.  
Deabruác etzuen orain ere etsi. Muñatz goitu batera era-  
man zuen; munduco Erreinu gucien edertasuna eracutsi  
eta esan cion: Au gucia enango dizut, baldin auzpez ja-  
rrita, adoratcen banazu.

Lambide oyec guciac deabruac eguin cituen, Jesus Jain-  
co eguiac coa zan edo ez, jaquiteco. Lembicicoetan Jesus-  
ec gozotasun gucian erantzun cion; baña aditu zuenean,

adoratu cezala, esaten, ecin gueyago eramanez, esan cion: Satanas; beguetatic quen-aquit: escribatua ceagoc: Ere Jaun eta Jaincoa adoratuca dec, eta au baicic servituco ez dec. Deabruác orduan igues eguin zuen, eta Ainguerúac etorrita, Jesus-i jaten eman, eta lagundu cioten.

Jesus gueró Galilea-co Uri Cafarnaum-era joan zan, eta au vicilecutzat artu zuen. Emendic irteten zan, bere ondo esanac eguitera, eta Escritura Santac eracustera. Ain jaquinduri andiarequin galdeac eguin, eta erantzuten cien, non, asi ciran, Mesias zala, esaten: baña osotoró sinistetic atceratcen cituen, ecer gabeco guizon guraso bear batzuen Semea zala icusteac; eta etcitzayozcan chit jartcen. Irteera oyetatic batean ibai-ondo batera joan zan, eta San Juan Bauplista-ren bi icasle Andres eta Juan Evagelista alderatu citzayozcan, eta bere maisuari utcita, itcic esan gabe, cerraizquion. Jesus-ec galdetu cien, ¿ea ceren esque cebiltzan? Jauna, ¿non vici cera? esan cioten. Atozte eta icusico dezute, Jesus-ec erantzun cien. Aldameneco erri chiqui batera joan, eta berarequin gueratu ciran. Elcarrequin eguindaco itzaldiac, biac ipiñi cituen gañeraco guciari lagata, Jesus-equin ibiltcera, eta aleguin gucian lagúnac eguitera.

Andres-ec lembicico topatu zuena, Simon bere anaya zan, eta esan cion: ¿badaquizu Mesias arquitu degula? Biaramonaren zai egon gabe, bertatic Simon Jesus-i joan citzayon, eta Jesus-ec icusi orduco bera Elizaren Buru gueró izango zan Apostolo andi hura, esan cion: Zu Jonasen seme Simon cera; zuri Cefas, auda, *Pedro* deituco zatzu Biaramonean guciac Galilea-ronz cijoacela, Felipe topatu zuten, eta Jesus-ec esan cionean, nerequin atoz, joan citzayon. Andic laster Felipe-c bere adisquide Natanael-i Mesias-en berria eman cion, eta Natanael-ec ere Jesus-i jarraitcea erabaqni zuen. Jesus guisa onetan cijoan icasleac eguiten, oraindañocoan atoz uts bat esatea bestea beste gabe; baña andic irugarren egunean eracutsi nai izan zuen, bere escu altsuac cembat cezaquean.

4. §.—*Caná-co eztoyac. Jesus-en lenengo mirari aguiricoa.*

Caná ceritzan Galilea-co erri batean ezteyac eguiten ciran, eta María guciz Santa eta bere Semea eztei oyetara deitu cituzten. Orduraco San José senar doatsua illa zan: beragatic, batzúec diote, Ama zorioneco au Nazaret-etic Caná-ra vicitzaz aldatu zala: besteac Nazaret iru orduz apart eguiten zanean oraindic vici zala: gai onetan dana benic bein dala aidetasunez, dala bere ontasunagatic, guciac ondo beguiratua eta icusia zalaco, nai izan zuten ará eraman. Semearen icena ere orduraco barreatu zan, eta bere icasleacquin deitu cituen. Jan edánac ugari ipiñi bacítuzten ere, atceneraco ardoa aitu citzayen, eta ezconberriac chit lotsa andian arquitcen ciran, Amac Semeari belarrira esan cion: Ardoric ezdaucate. Eta ¿zuri eta niri cer dijoaquigu, ó Emacumea? Semeac erantzun cion: Nere ordua oraindic ez da bete. Jesus-ec orduraco erabaquita ceucan cer eguin; baña etcion esan Amari bereala eguin nai izan, gañeracoac ardoaren ez-izanaz oartu citecen, eta eguingo zuen miraria, obeto ezagutu cezaten, Semearen erantzuerac etzuen Ama isildu. Mai-servitzariai esan cien, Jesus-ec aguindu gucia eguin cezatela.

Juduac apaletan ontci andi batzuec iduquitcen cituzten, garbiquetac eguiteco, Jesus-ec jan-toquian icusi cituen sei ontci ogueita bostna pichar ardo cabitcen cituztenac, eta morroyai esan cien, urez betetceco. Gueró aguindu cien, mai-buru eguiten zuenari eramateco. Onec edan zuen; eta bereala asi zan, esaten, secular iñore edandaco ardoric obena baño obea zala. Icusi zuten, morróyac ontcietara ura bota zutela, eta ur hura, Jesus-en esanera, ardo eguin zala cecusatenean, guciac arritu ciran, eta Jesus-i beguirune edo beguiramentu chit andia artu cioten; eta au izan zan Jesus-ec aguirian eguindaco lembicico rairaria, edo beintzat munduac artacolzat artu zuena:

5. §.—*Jesus-en igoera Jerusalem-era.*

Caná-tic Cafarnaum-era jatsi zan. Emen egun batzuec

eguinda, Jerusalem-era joan zan, Pazcoa eguin bear zuten egunetan. Jesus-ec etzuen Uri onetan arteraño bere burua aguertu. Baciequin, etzutela beti-beti ondo artuco; baña asi nai izan zan, cein zan, munduari eracusten. Elizara bere icasleáquin igota, icusi cituenean. Eliz-atarian idi, ari, eta usoac sacrificioetaraco saltcen, eta diru-trueatceco mayac ere baceuz-catela, aserretu citzayon, soca bat artu zuen, eta guciai colpeca eraso cien, eta salcari, eta saltzalle guciac andic quendu cituen, ciosala: Ez nere Aitaren echea sal-eche eguin.

Jerusalem-en egon zan Pazcoaco egun oyetan, mirari asco eta andiac eguin cituen: argatic asco eta asco jarri citzayozcan, berari jarraitcera; bada, eguiten cituen gauza arrigarriac sinisterazotcen cieten, eguiazco Mesias zala. Oyen artean bat zan, Nicodemo ceritzan Legue-jaquintsu eta Sanedrin ceritzan Batzarrecoa. Guizon andi au Jesus-i gañez isillic joan citzayon, esatera; Badaquigu, Jaincoagandic etorritaco Maisua cerala; bada, zuc eguiten dituzun mirariac, ecin ditzaque Jaincoa berequin ezduenac. Mene-menetan esaten dizut, Jesusec erantzun cion, berriz jayotcen ezdanac, Jaincoaren Erreinna ez duela icusico. Nicodemo-c itz oyec azaletic artu citen, eta esan cion: Guizona bein urteetan aurreratu ezquerò, ¿nola amaren sabelera itzuli diteque, jayo-berritceco? Mene-mene-tan esaten dizut, Jesus-ec erantzun cion: Ura eta Espiritu-Santuarquin jayo-berritcen ez dana, ecin Jaincoaren Erreinnan sartu diteque. Nicodemo, bere jaquinduri guciarequin ere, etzan gauza oyec bear bezala aditceco edo igueritceco gai. Jesus-c esan cion, jayotza berri au batayoaren bitartez eguin zala; eta egon ciran itzaldi luce onetan Jesus-ec beste gauza asco ere Nicodemo-ri eracutsi ciozcan; ceñac adituta, uzcurtasun gucia utciric, osotoró jàrr<sup>l</sup> zan Jesus Mesiazat amorioric vicienarequin ezagutcera, eta onen legue santa gau eta egun eracustera.

Guizon andi au beretuta, Jesus Jerusalem-dic irten zan, eta bazter-errietara bere icasleacquin joan. Emen Jerusalem-en baño gende sinistecorragoa arquitu zuen. Bere eracutsi on, eta amoriozco ondo esanacquin asco irabazten cituen;



eta gogoz eta menaz jartcen citzayozcala, iguerritcen cie-  
nac, bere icasleai batayatu erazotcen ciezten: eta Sacra-  
mentu santu batayoco onec asiera emen izan zuen.

6. §.—*Samaria-co Emacume arequin Jesus-en itzaldia.*

Eguiteco oyetan egun batzuec igarota, Galilea-ronz abiatu  
zan. Bidean, Jacob anciñacoac bere seme José-ri emanda-  
co lurretic urrean cegoan, Sicar. ceritzan Samaria-co erri  
bat. Emengo putzu-ondo batean eseri zan, bideac easan  
eta egarritua. Icasléac jan-billan errira joan citzayozcan  
bitartean, emacume bat ur-esque etorri zan, eta Jesus-ec  
esan cion: Edaten indazu. Samariar emacume onec eran-  
tzun cion: ¿Nola zu Judu orrec ni Samaria-r oni ur-esque  
zagozquit? Juduac eta Samaria-rrac Erlegioco gauza asco-  
tan bat etcelocen; beragatic elcarrequico artu-eman eta  
adisquidetasun andi gabe vici ciran; eta emacumeac au  
gucia gogoan zuela, guisa onetan erantzun cion; baña  
etzuen ezagutcen norequin ciardun: eta Jesus-ec esan cion;  
;Ay, ene emacumea! Baciñiequi, nore esan dizun; edaten  
indazu, zue cerorrec menturaz escatuco ciñioque, eta ur  
vicia emango lizuque, Samaria-r lenago baño ere arritua-  
goac, Jauna, esan cion, ura chit bean dago, eta cerequin  
ateraric ez dezu: ¿ur vici ori, bada, non dezu? ¿Cer? Gure  
aita Jacob bere semeacquin emen edan, eta guri ura utci  
ciguna baño gueyago cera? Jesus-ec erantzun cion: Ur au  
edaten duena, berriz ere egarrituco da: baño nic emanda-  
co uretic edaten duenac, ez du egundañ egarriric izango.  
Ur ori indazu, emacuméac esan cion, berriz egarritu ez  
nadin, eta onará etorri bearri izan ez dezadan.

Jesus-ec escara oni ecer erantzun gabe, esan cion, se-  
narragana joateco, eta biac itzulteco. Senarric ez det,  
erantzun cion. Alasé da, senarric ez dezu, Jesus-ec esan  
cion. Bost izan dituzu, eta orain daucazuna zurea ez da.  
Erantzuera au emacume arentzat chi miña zan, ceren se-  
nartzat, etzana, ceucan, eta bere vicitza gaiztoa arpeguira  
ematen cion. Ala ere, ontzat artu zuen, eta esan cion: Jau-  
na, zu Profeta cera, nosqui. Bere viciera asmatu ciolaco,

Profetatzat artu zuen, eta bere eguitecoen gañeco galdeasco eguin ciozcan. Jesus-ec biotz andiarequin eracutsicion, cer eguin, eta atcenean esan cion, hura zala Mesias aspaldian ichedoten zutena. Emacuméac etzuen biotzic izan, gueyago ecer erantzuteco, eta gueratu zan, cer eguin etciequiela.

Onetan ceudela, errira jan-esque joandaco icasléac, itzulli ciran, eta Jesus icusi zutenean; oi ez bezala, emacume batequin itzeguiten, arritu ciran; baña etzan iñor venturatu galdetcera, ¿ea cergatic emacume arequin itzquetan ce-goan? Emacuméac, Jesus bere icasleacquin utciric, aldeguin zuen, erricoai esatera, Mesias icusi zuela. Bitartean icasleac Jesus-i esan cioten: Maisua, jan ezazu. Baciequiten, alabañan, cein auldua utci zuten, errira joan ciranean: baña Jesus-ec erantzun cien: Nic, zuec ez daquizuten cer-jana daucat. Au aditutacoan icasleac elcarri esaten cioten, emacume arc cerbaitjaten ecarrico ciola; etzuten, bada, uste, Maisua lurreco gauzaetatic cerucoetara igotcen zala, eta iguerri etcioten, cer janari zan, aitatcen cien. Nere janaria, cion, bialdu nañenaren naya eguiten da.

Itzqueta onetan Maisu-icasleac ciarduten bitartean, emacume Samaria-rra errian osca cebillen: Atozte eta icusico dezute, eguin ditudan gauza guci-guciac asmatu dizquidana. Ots onetara errico asco Jesus-i joan citzayozcan, eta erreguz Sicarera eruman zuten, eta bi egun igaro cituen, gende guciari eracusten, eta asco bereganonz ipintcen.

7. §.—*Jaun baten semearen sendatcea Cafarnaum-en.*

Sicar-dic Caná-ra joan zan, eta emen cegoala, Cafarnaum-go Jaun bat aurqueztu citzayon, escalcera, gaño ceucan seme bat sendatcera, arren, joateco. Etzuen nombait uste Jesus-ec urrutitic, echera joan gabe, sendatu cezaqueanic; benic-bein, joateco escatcen cion: Zoaz, zure semea vici da. Aita pozez echeronz abiatu zan, eta morroyac bidera ir-tenda, esan cioten, semea sendatu zala; eta eguin ciezten galdeacquin, iguerri cion, Jesus-ec zure semea vici da, esandaco ordu bere-berean, gaitzac semeari aldeguin cio-

la. Mirari onequin aitac bere seme eta eheco guciacquin Jesus Mesiaszat ezagutu eta aitortu zuen.

8. §.—*San Juan Baupista ichian sartua.*

San Juan Baupista arestian utci degu: Judea-n eracusten; baña norc gaizqui icusi izan zuelaco, aldeguin bearrean arqitu zan, eta Judea utciric, Galilea-ra joanda; Salimgo eremu bacarrean jarri zan. Emen bere vicitza on, eta eracutsiacquin gende gucia berari beguira ipiñi zuen. Herodes alderdi artaco Tetrarca edo Aguintariac ere asco nai ción; baña Profeta andi onen esánac ecin eramana biotzean laster sartu citzayon. Ara cergatic.

Filipo, Herodes onen anayá, Judea-co Tetrarca Aristobulo-ren alaba Herodias- equin ezconduta cegoan, Herodes hura emacume onezaz lilluratu zan, eta anayari quenduta, emaztezat berác artu zuen. San Juan-ec etcion paquean uzten, esanaz; Zure anayaren emazte ori ecin dezaquezu ceretzat iduqui. Herodes-ec gaztigu au aditcen bación ere, etzuen aintzat artcen; bai ordea, Herodias-ec. Emacume lotsa gaizloco onec San Juan-en esana onean ecin eramane, galtceco asmoac artu, eta era-zai cebillen. Herodes-ec, batetic, bacecusan, gendeac San Juan-i cembat nai ción; bestetic, emazte zalacoac, hura beguietatic quendu nayez, erasotcen cion; eta atcenean aguindu zuen ichian sartceco.

Orañago esan dan miragarrizco sendatcearen ondoren Jesus Cafarnaum-go Sinago-go edo Elizara joan, eta arqitu zuen guizon bat gaizquiñac cituena. Jesus gendeari bere eracutsiac ematen ciarduela, deabruác guizon areu aotic olseguin zuen: Jesus Nazaret-ecoa, utci zaguzu: ¿gurequin cer eguiteco dezu? ¿gu galtcera zatoz? Badaquit cein cerao: Jaincoaren Santua cera. Jesus-ec esan cion: Guizon orregandic oa: eta gaizquiña bereala irten zan, oju izugarriac eguiñaz. Beguira ceadenac arrituric, cioten: ¿au cer da? Deabruai aguintcen die, eta oyec aren esana eguiten dute.

Mirari oyen otsera, Cafarnaum-tarrac inguratcera cijoazquion; baña jai-eguna zalaco luzatu zuten, eta bitartean

Jésus bere icasle batzuecquin Pedro-ren echera joan citzayen. Pedro-ren amaguiarraba miñez oatua cetzan, eta Jesus-ec, aurrean jarrita, gaitzari aguindu cion aldeguiteco, eta eria sendatu zan, eta Jesus eta onen icasleai bazcaltcen berác eman cien. Jai-eguna joan orduco, gaño, elbarri, itsu, mutó, gor, eta beste miñantzic ceucan gucia Jesus-eronz abiatu zan, osasun-billan, eta guciac sendatu cituen. Jesus-ec icusiric, hura icusteagatic artcen cituzten nequéac, esan cien, ez iñora ibiltceco, bada erri andietara, ez ecen, bazter-errietara ere joango zala, eta poz onequin echeetara itzuli ciran.

## IRUGARREN IRACURGAYA.

### 1. §.—*Zortci zoriontasunac aguertuta.*

Andic egun batzuetara bacijoan bere vicilec ira, beste ecin esan-ala gende cerraiquiola, eta cusiric berari aditceco cein eresi andiarequin cebiltzan, mendi-muño batera igo zan, eta guciac aditceco eran eserita, eguin cien *Zortci zoriontasunen Sermoya* deritzana, onela esanaz:

1. Zorionecoac gogozco beartsuac, bada ceruco Erreinua oyena da.
2. Zorionecoac asaldatcen ez diran mansoac, bada lurraren jabe dira.
3. Zorionecoac negar-eguiten dutenac, bada poztuac izango dira.
4. Zorionecoac zuentasunaren gose eta egarri diranac, bada atseguin andiac artuco dituzte.
5. Zorionecoac biotz beraac, bada erruquituac izango dira.
6. Zorionecoac biotz garbicoac, bada Jaincoa icusico dute.
7. Zorionecoac paquetsuac, bada Jaincoaren semeac deituco zaye.
8. Zorionecoac zuentasunagatic nequéac daramazquitena, bada ceruco erreinua oyentzat izango da.

2. §.—*Jesus-ec Apostoluai aurrena, eta besteai gueró bere icasbideac ematen diezte.*

Salvatzalleac baciequien, eramankizun gogorren beguira egongo ciran Evangelioaren eracustzalle eta Jaunaren Ministroac; argatic atceneco zoriontasunean onela itzeguin cien. Gueró au obeto eracusteco, bere Apostolu icasleai esan cien: Zorionecoac izango cerate, guizónac gorrotatcen zaituztenean; beren artetic bota, eta edocein gauza zuen contra darasaten. Egun artan pozlu zaitezte, ceren zuen saria ceruan andia izango dan: baña zuen eguitecoan contuz zabilzate; bada, iurreco gatza cerate, eta gatzac gacitasuna, galtcen badu, ¿cerequin gacituco da? Ecertaraco ere gueró balio ez du, campora bota, eta osticopean ebalitceco baicic. Munduaren arguia cerate. Mendi tontorrean dagoan erria ecin ezcutatu diteque; eta arguia ez du iñorc biztutcen, lacari-pean ipintceco, ezpada zutargui edo candeleroan, eheco guciai argui daquien. Zuen arguiac guizónen aurrean onela argui-eguin bear du, zuen obra onac dacusquiten, eta zuen Aita ceruetan dagoana gloriatu dezaten.

Gueró esan cien: Ez uste izan, natorrela, leguea eta Profetac quentcera, etorri naiz, ez quentcera, ezpada betetcera; bada, eguiaz esaten dizutet, ceru-lurrac dirauten bitartean, nere legueari tilde bat ere quenduco etzayo, eta gucia eguin bearco da. Nere aguinduetatic chiquiena ere austen duena, eta guisonai onelaeracutsi, Ceruetaco Erreinuan chiquia deituco da; baña nere aguinduac eracutsi eta gordetcen dituena, Ceruetaco Erreinuan andia deituco da. Are gueyago diotsuet. Escriba eta Fariseoac baño zucenagoac ezbarerate, Ceruetaco Erreinuan sartuco etcerate. Escriba eta Fariseoac azaletic zucenac ciran; au da, gauza aguiricoetan on-irudia eguiten zuten; baña Ceruan sartuco dana, barrunen ere garbia izan bear da, eta becatu ezcutucoric ere ez eguin. Gueró esan cien. Aditu cenduten anciñacoai esan citzayela; ez dezu ilco: Nic berriz diotsuet: bere lagun urcoaren contra aserretcen dana, juiciora eramana izango

da: burlaca edo siñuca dagoquiona, batzarrearen aurrera joan bearco da; eta buru-gabea edo zoroa deitzen diona, infernucó suaren diña izango da.

Zure etsayarequin ondo jarri zaite, bidean ceran bitartean, onec juezaren aurrera eramán, eta juezac bere morroyai emanda, ichian sartua izan etzaitecen: bada, eguiac esaten dizut, atceneco ardita pagatu arteraño, andic irten-go etcerala.

Aditu cenuten anciñacoai esaten: iñoren vici-lagunarequin nastuco etcera: bada, nic esaten dizutet, emacume bati beguiratcen dionac cuticiatceco, bere biotzean becatu eguin du. Jesus-ec emen gurari gaiztoen contra itzegin nai izan cien, eta garbitasuneco doaya atscorra bezain bearre-coa izanic, Ceruan sartceco, esaten die, munduco gauza guciac lenago galdu bear dirala, hura baño. Baldin escuico zure beguiac, dio, gaiztoraco bidea ematen badizu, aterra ezazu; bada, obe dezu, begui bacarrarequin Ceruan sartu, birequin belico sutan baño: eta zure escuico escuac becatura bazaramazqui, ebaqui ezazu; bada, obe dezu, alderdi bat galtcea, zure gorputz gucia infernucó sura bialcea baño. Lurreco gauza guciac lenago galdu bear dira, anima baño; eta Jesus-ec emen eracutsi nai izan ciena, auzan. Gueró esan cien: Esan izan zan; baldin iñore bere emaztea uzten badu, aldequigoa edo banacatutaco aguiria eman bizayo: baña nic esaten dizutet; bere emaztea, leyal-tasuna galdu diolaco ezdala, uzten duenac, ezcontza loitceco bidea ematen diola; eta onela utcitaco artcen duenac, berea ez dana, artcen du.

Dembora batean, emazteac ezcontzaco leyal-tasuna austen zutenean, legueac eragozten etzuen, aguiria emanda, uztea; eta beste guizon batequin ezcondu citequean, eta senar utcitzallea ere, bai, beste emacume batequin. Baña Jesus-ec escubide au osotoró quendu zuen, eta ezcontza bere lenengo oñera itzuli zuen, eta eracutsi cigun, bein lotua ecin ascatu ditequeala. Vici-alarguntza ere, desleyaltasuna ez, beste edocin bidegatic eguitea, debecatcen du, eta onela banacatuai zorrotz aguintcen die, ez besterequin ezcontceco, lena vici zayon bitartean.

Ascotan aditu izan dezute, anciñacoai esan citzayela: guezurrezco juramenturic eguingo ez dezu, eta Jaunari itz emana beteco dezu; baña nic esaten dizutec; iñola ere juramenturic eguingo ez dezute, ez ceruagatic, ceren Jaincoaren eserlecuia dan; ez lurragatic, ceren bere oñ-lecuia dan; ez Jerusalengatic, ceren Erregue andiaren uria dan; ez zuen buruagatic, ceren ille zuri edo beltz bat eguin ecin dezaquezuten. Esan ezazute bada, bai, bai, ez, ez: itz oyezaz gañeracoa oquerretic dator.

Juramentua, bear dan bidez eguin ezquerò, ona da; baña artara oitua, juramentu guezurrezcoetan chit erraz eta ascotan erori ditequealaco, edo beste alderen batetic utseguin dezaquealaco, esaten da, oquerretic datorrela; argatic Jesus-ec escatcen du, bear bearrean baicic ez eguiteco.

Leguéac aguintcen dituen gauzaen gañean onela itzeguinda gueró, asi citzayen vorondatezcoac eracusten. Oyec eguitera Cristaüa beartua ezdago; ala ere, oyec diotena eguitearequin, Jaincoaren aurreraco chit asco irabezten da. Aditu dezute esaten, Jesus-ec esan cien, beguia beguiagatic, ortza ortzagatic; baña nic esaten dizutet, gaizqui eguin dizunari ez gaizquiarequin ordaintceco, ezpada batec escuico masallan jotcen bazaitu, ezquerrecoa esqueñtceco; eta iñorc aucia ipiñi nai badizu, eta barrungo jancia quendu, campocoa ere utci zayozu; eta batec beartcen bazaitu, zamatuta milla pausoan joatera, bi millan zoazquio. Escatcen dizunari, eman zayozu, eta ordañetan zuc cerbait ematea nai duenari, ez arpeguia itzuli.

Gueró esan cien: Aditu cenduten, esaten; zure lagun urcoa maite izango dezu, eta etsaya gorrotatuco dezu: baña nic esaten dizutet; zuen etsáyac maite izan itzatzute; gorroto dizutenai, on-eguin zayozute, eta galdu nai zaituztenagatic erregutu ezazute, Aita Cerucoaren seméac izan zaitezten, ceñac eguzquiaren arguia on eta gaiztoai bialtzen die, eta euria zucen eta biurrial datorqui; cergatic ecen, baldin maite zaituztenac, maite badizute, ¿cer ordañen beguira zaudete? ¿Publicanoac ere au bera eguiten ez dute? Eta zuc serideai bacarric diosaltzen badiezute, ¿cer

bestec baño gueyago eguiten dezute? Jainco eguiazco gabeco, Gentillac ere ori bera eguiten ez dute? On osoac edo perfectioac izan zaitezte bada, Ceruco zuen Aita dan bezala.

Norc bere etsaya edo gaizqui eguin diolaco maite izatea aldats eguiten da: baño Jesus zucenean ala aguin du cigun, eta berac aurrena eracutsi zuen, galdutcen zutenacgatic bere Aita-Eternoari erregutuaz.

Eguiten diran gauza onac, munduari on-irizteagatic bacarric eguiñac-izan ez ditecen, guero esan cien: On-eguiterra zoaztenean, beguira ezazute, guizonac ontzat iduquitceagatic eguin ez dezazuten; bada, onela eguiten badezute, sariric Ceruetaco zuen Aitagandic artuco ez dezute. Amoina edo limosna ematen dezunean, ez aurretic soñuric joerazo, gaitz-estali edo hipocritac eliza eta carricaetan eguiten duten bezala, guizonac onratu ditzen; bada, eguiaz esaten dizutet, oyec beren saria artu zutela: baño zuc amoina ematen dezunean, ezquerrac ez beza jaquin, escuyac eguiten duena, zure limosna escutuan egon dedin; eta zure Aita ezcutu guciac dacusquienac, ordainduco zaitu. Erregutcen dezutenean, etzaitezteela izan, icusiac izan ditelen, Elizan zutic edo lecu aguirietan jartcen diran hipocritaen antcecoac. Eguiaz esaten dizutet, oyec beren saria artu zutela; baño zuc, guelan sartu, eta atea ichita, Aitari isillic erregutu zayozu, eta isillicaco gucia aditcen duen Aitac, ordaña emango dizu. Erregutcen dezutenean ez asco itzeguin, asco itzeguin ezquero adituac izango dirala, uste duten Gentillac bezala. Ez oyen antcecoac nai izan; bada, zuen Aitac badaqui, escatu ere baño lenago, zuc cer bear dezuten.

Bi moduz oracioa eguin diteque, isillic eta aguirian edo itz eguiñaz; bacarrean eta lagunarequin, Jesus-ec emen oracio isilla eta bacarrecoa aitaten du; baño es da uste izan bear, aguiricoa eta lagunacquicoa debeatcen duela; bada, berac beste aldi batean esaten zuen: Zuetatic bi lurrean bildutcen badira, escatcen dutena Ceruetaco nere Aitac emango die; ceren bi edo iru nere icenean ceraten toquian, an izango nazuten.



Jesus-ec etcien esaten, nola eta cer itzacquin erregutu bear zan, eta icasle batec escatu cion, eracusteco. Jesus-ec orduan esan cien: Onela erregutuco dezute: Aita gurea, ceruetan zaudena, zure icena santuró erabilli bedi; zure Erreinua gugana betor; zure naya, ceruan bezala, lurrean ere eguin bedi. Gure egunoroco oguia gaur iguzu; gure zorrac barcatu zazquiguzu, guc gure zordunai barcatzen dieztegun bezala; utci ez dizaguzá tentacioan erortcen; ezpada gaitcetic gorde gaitzatzu. Ala izan bedi.

Nola erregutu bear zuten eracutsita ondoren, barañaren gañean itz eguin cien, esanaz: barau eguiten dezute-nean, ez arpegui itun edo trístea ipiñi, gaitz-estali edo hipocritac, barautcen dutela, guizonai adierazotceco, eguiten duten bezala. Eguiaz esaten dizutet, oyec beren saria artu zutela. Zuc, bada, barautcen dezunean, cere burua igortci eta arpeguia garbitu ezazu, guizónac jaquin ez dezaten, barautcen dezula, ezpada zure Aita isilla daquienac; eta onec saria emango dizu.

Ez ondasunac bildu lurrean, non erdozac eta sitsac ondacten dituen eta lapúrrac ostutcen dituzten. Bildu itzatzute ceruan, non ez erdozac jaten dituen, ez sitsac galdu, eta nondic lapúrrac ez ateratcen dituzten, ez ostu. Pensa ezazu, zure ondasunac dauden lecuan, zure biotza etedaucazula.

Emen Jesus-ec eracusten du, lurreco gauzaetara ez dala gueyegui etcin bear, eta oyetan biotza daucana Jaunaren deyai gor-eguingo zayela; argatic dio, gogozco bear tsuac zorionecoac dirala.

Jana eta janciagatic ere itzeguiten die, esanaz: Zure beguia zure gorputzaren argui-ontcia da: zure beguia arguia bada, zure gorputz gucia argui izango da; baña zure beguia illuna bada, zure gorputz gucia ere illuna izango da. Beguira ezazu, bada, zure argui ori illundu ez dedin. Zure beguiá lurreco gauzaetan itsutcen bada. ? nola cerucoac icusico ditu? Inore ecin bi nagusi servitu ditzaque. Edo bata maite izango du, eta bestea gorrotatuco du; edo bata gordeco du, eta bestea ecer guichian iduquico du. Ecin Jaincoa eta dirua servitu ditzaquezu, Orregatic esaten di-

zutet, ez ardura gueyeguiric artceco animaco janaz, eta gorputceco janciaz.

¿Anima ez da janaria baño lenago, eta gorputza jancia baño? Ceruco egaztia beguira: ez dute ereiten, ez itaitcen, ez gambaraetan bildutcen, eta zuen Aita Cerucoac jaten ematen die. ¿Zuec ayec baño lenago etcerate? Zuetatic nore bere gorputza beso bat gueyago luzatu dezaque? Eta ¿certaco janciaren orrembat ardura? Beguira, nola larra-lirioac, ez lanic eguin, ez iruten dun; ala ere, Salomon bere anditasun gucian etzan ain ederqui janci, cein da ayetatic bat. Orain, bada, gaur jayo eta biar labe sutuari emango zayozcan belàrrac ain ederqui jazten baditu ¿cembat gueyago ez du eguingo zuecquin, fede guichico guizonoc? Etzaitzeltela, bada, larritu, esanaz, cer jan edo cer edango degu, edo cerequin estalico guera. Onelacoen billan Gentillac dabilta. Baña zuen Aita Cerucoac badaqui zuec gauza oyen bear ceratela. Jaincoaren Erreinua eta zuentasuna lenengo billa itzatzute, eta hura gucia emango zatzute. Biaramonean arduraric ez artu, ceren biarco egunac berea ecarrico duen. Egunean eguneco nequea asco da.

Salvatzalleac gueró esan cien: Ez iñor juzgatu, ceroc juzgatuac izan etzaitzeten; bada, bestegatic eguiten dezuten juzgua, zuecgatic ere eguingo da; eta besteric neurtcen dezuten canarequin, zuec ere neurtuac izango cerate ¿Certaco, bada, zure anayaren beguian lastoa dacusu, eta zure beguico aga ez? ¿Edo nola zure anayari esaten diozu; ots, beguico lasto ori quenduco dizut, zurean aga bat daucazula? ¡Gaitz-estaliac! Zure beguico aga lenengo quendu ezazu, eta orduan zure anayaren beguitic lastoa quentcea, pensatuco dezu.

Gauza sàntac chacurrai eman ez dieztezutela, ez eta zuen perlac cherrien aurrera bota ere, osticopetu ez ditzaten eta zuetaronz itzulita, triscatu etzaitzaten. Esca Ezazute, eta emango zatzute; billa ezazute, eta arquituco dezute; jó ezazute, eta idiquico zatzute: bada, escatcen duenac, artcen du; billatcen duenac, arquitcen du; eta jotcen duepari. idiquitcen zayo. ¿Zuetatic cein guizon da, semeac

ogua escatuta, arria emango diona? ¿Eta arrai edo ezcalu bat escatcen badio, sugue bat emango diona? Zuec, bada, gaiztoac ceratelaric, baldin badaquizute, eman zazquizuten ondasunetatic zuen semeai ematen ¿cembat obeto zuen Aita Ceruetacoac, escatcen dutenai emango diezte? Ala bada, guizónac zuei eguitea nai dezuten gucia, zuec ere ayei eguiezute: orra leguea eta Profetac.

Ate estutic sartu zaitezte, ceren ondamenera daraman atea andia dan, eta bidea zabala; eta asco dira emendic sartcen diranac. ¡O cein ate estua dan, eta bire mearra vicitzara daramana, eta cein guichi diran topatcen dute-nac! Profeta guezurrezco edo falsoacquin contuz zabilzate ardiz jancita datorquizute; baña beren barruan otso amorratuac dira. Beren fruetetic ezagutuco dituzute. ¿Menturaz elorriac matsic ematen du, edo larrác picuric? Ala, bada, arbola onac frutu onac ematen ditu, eta charrac gaiztoac. Arbola onac ecin frutu gaiztoric eman dezaque, ez eta arbola charrac onic ere. Frutu ona ematen ez duen arbola ebaqui eta suari emana izango da. Beraz beren fruetetic ezagutuco dituzute.

Ceruetaco Erreinuan ez dira, Jauna, Jauna, dioten guciac sartuco: ceruetan dagoan nere Aitaren naya edo vorondatea eguiten duena bacarric ceruetaco Erreinuan sartuco da. Cerua ez da itz utsacquin irabazten, ezpada Jau-naren agunduac gordetcearequin. Ascoc egun artan esango didate, Jesus-ec dio, Jauna, Jauna, ¿ez guiñituen etorquizunac zure icenean asmatu edo profetizatu, deabruác zure icenean bota, eta mirari andiac zure icenean eguin? Nic orduan esango diet, beguetatic quen zaquizquit gaiztoa eguin dezutenoc, ceren beñere ezagutu etcinduztedan. Nere esanac aditu, eta gordetcen dituen berdin-duco da bere echea arcaitz-gañean eguin zuen guizon cintzo-argui batequin. Euria eguin zuen, ibayac anditu ciran, aiceac irten ciran, echea indar guciarequin jo zuten eta erori etzan, arcaitz-gañean eguiña zalaco. Baña nere esan oyec aditu, eta gordetcen ez dituen, bere echea are-gañean eguin zuen guizon zoroaren antzecoa izango da. Euri-jasa erori zan, úrac aci ciran, aicea irten zan, echea

indarrez jo zuen, eta erorita auts-eguin zan.

Jesus, itz oyec eta onelaco beste asco aldi lucean esanda, isildu zan, eta aditzalleac arrituric ceuden, eracusten ciezen ceruco gauzacquin, eta aguintea cencanaren antzean itzeguiten cielaco: eta guerozcoan beti-beti berari jarraitceco asmo viciarequin gueratu ciran.

### 3. §.—*Sorayoa-ren Sendamena.*

Menditic jatsita, Cafarnaum-eronz cijoala, leguenardun edo sorayo bat bidean belaunico jarri citzayon, ciosala: Jauna, nai badezu, garbitu nazaquezu. Jesus erruquitu zan escua luzatu cion; esanaz: nai det; eta bereala garbitu zan. Orduan Jesus-ec esan cion: Beguira, ez iñori esan; Apaizari zoazquio, eta Moises-ec aguindutaco esqueñia edo ofrenda eguizu.

Jesus-en iñori ez esateco aguinduari beguiratu gabe, sorayo onec bereala barreatu zuen, cer guertatu citzayon, eta guciac are arrituagoac, eta Jesus-ganonz etciñagoac jarri ciran: eta sorayo bacarrean vici bearrean arquitcen zana, gueró guizonen artean vicitcen asi zan.

### 4. §.—*Centurion-en mutillaren sendamena.*

Jesus Cafarnaum-era joan zan; eta emen arquitcen zan Euntari edo Centurion baten morroi elbarri ecin ibilli, eta iltcer zan bat. Nagusiac jaquin zuenean, Jesus ará zala, Judu zar batzuec bialdu ciozcan, etorri eta sendatu cezala esatera. Mandatariac esan cioten, mesede au, arren eguitemeco: bada chit asco zor ciotela. Joango natzayo, eta sendatuco det, Jesus-ec erantzun cien. Echera alderatu citzayozcanean, Euntariac Jesus-i adisquide batzuec bialdu ciozcan, esatera: Jauna, ni diña ez naiz, Zu nere echean sartu zaitecen: argatic ez natzazu bidera irteten; bada, zure esan uts batequin nere morroya sendatuco da.

Euntari onen humiltasunarequin Jesus arritu zan, eta lagunai esan cien: ez det Israel-en onembeste sinismen arquitu. Gueró Euntariari esan cion: Zoaz, eta zuc sinistu de-

zun bezala, eguin bedi: eta morroya ordu berean sendatu zan.

Guertaera onen ondoren, bere icasleac arrantzara, oi bezala, joan ciran batean, Jesus ere erregu-aldia eguinda, Genesaret-eco itsas-ondoan arquitzen zan, aren billan cebillen gende andia inguruan zuela. Ur-ertzean bi batela iñor gabe icusi cituen, mariñelac sareac garbitceagatic lurrera irten ciralaco. Bat Pedro-rena, eta bestea bi anaya Juan eta Santiago-rena ciran, Jesus-ec, Pedro-ren ontcian sartuta gendeari eracusten luzaró jardun zuen; eta itzaldiaren ondoren Pedro-ri agundu cion, itsasoan barrunago eramateco.

5. §—*Miragarrizco arrantza.*

Itsas-zabalera ciranean. Pedro-ri esan cion, sareac bota citzala. Pedro-c erantzun cion: Jauna, gau gucian ecer atcitu ez degu; baña zuc diozun ezqueró, zure icenean zabalduco ditugo. Ala eguin zuten, eta aimbeste arrai sarean nastu ciran, non, austen citzayen. Arrantza andi au icusiric, beste ontcira otseguin zuten, eta biac arrayez bete cituzten. Icasleac chit arritu cirac, eta Pedro-c esan cion: Jauna, nigandic aldeguin ezazu; bada becatari bat naiz. Pedro-c etzuen uste, Jesus-en ondoan egoteco diña zanic; argatic onela itzeguin cion. Ez icaratu: Jesus-ec erantzun cion; gaurticaurrera ez arrayen, ezpada guizonen atcitzalle izango cera. Ontciac baztertu, morróyac bialdu, eta zuten guci-gucia uteita, Jesus-i jarraitu citzayozcan, ez gueyago uzteco asmo viciarequin eta Cafarnaum-era joan-ciran.

Cafarnaum-en egun batzuec eguinda. Jesus bere icasleac-quin arratsalde batean Genesaret-co itsas-bazterrera berriz ere joan zan, gendetza andia ondoren zuela, Bidean Legue-jaquintsu batec nora-nai jarraitceco eresia aguertu cion; baña Jesus-ec esan cionean, arequin cebillenac, cer vicitza nequetacoa eguin bear zuen, atceratu zan. Beste bati bereala Jesus-ec berac otseguin cion: jarraidazu. Erantzun cion: Jauna, pozic jarraituco natzazu; baña zure baimenarequin aita lurpetcera noa. Illai utci zayezu, illac lurpetcen Jesus-ec esan cion, eta zuc Jaincoaren Erreinua

eracutsi ezazu. Beste batec esan cion. Jauna zurequin joango natzazu; baña utci zadazu, nere echeco gauzai beren eraena ematen. Jesus-ec erantzun cion: Goldeari escua ezarri, eta atcera beguiratcen duena, Jaincoaren Erreinuraco egoquia ez da. Itzqueta onequin adierazo zuen, lurreco gâuzac ez diotela Jaincoaren leguea eracutsi nai duenari biotza beretu bear.

Itsas-bazterrera zanean Jesus bere icasleacquin ontcian sartuta, beste ontci asco ondoan cituela, beste alderonz abiatu zan. Itsasoa aserretu citzayen, eta ondatceco zorian jarri ciran. Jesus lo cetzan, eta icasléac esnatuta, esan cioten: Maisua, gorde gaitzazu, bestela galduac guera. Guizon sinismen guichicoac ¿cerc icaratcen zaituzte? Jesus-ec esan cien. Itsasoari aguindu cion, guelditceco, eta eznetan jarri zan. Beste ontcietacoac ere irriscu berean arqitu ciralaco, arrituric, cioten: ¿Nor da itsasoa eta aiceac bere esanera ipintcen dituen au? Onguille andi oni esquérrac nola eman ecin asmatuz, itsas-adarra igarota, Gerasa-co ondoan lurra eguin zuten.

#### 6. §.—*Bi gaizquindunen sendamena.*

Jesus-i lembicico aurqueztu citzayozcanac bi gaizquindun izan ciran. Bi errucarri oyec basoetan edo lurpeetan, abere basatien guisan, vici ciran. Biac iltura edo tormentu andiac ceramazquiten, endamas batac, ceña egunez mendietan garrañica, eta gañes lurpean orruca oi cegoan: arri zorrotzac-quin araguiac ebaquitcen cituen: ascotan lotu nai izaten zuten, baña cate eta ubalac bereala etentcen cituen. Guizaño au, bada, Jesus icusi orduco joanda auspez oñetan jarri citzayon. Espiritu loya, Jesus-ec esan cion, guizon orregandic irten adi. Deabrúac deadar eguin zuen: ¿cer det nic zurequin cer icusi, Jainco andiaren Seme Jesus? Guizon, onec ceuzcan deabrúac asco ciran, eta aleguin gucia eguin zuten, ez guizon ari uzteco: baña Jesus-ec atcenean aguindu cien, irteteco, eta larrean cebilzan cherri-salmaldan sartu, eta itsasoan ondatu ciran. Cherrizayac, izu-icara eguiñic, nagusietara joan ciran, eta

cer guertatu citzayen esan cieten. Beste lagunari ere deabrúa berebat irten citzayon, eta biac jarri ciran; Jaunari esquérrac ematen. Ingurumaicoac mirari oyec jaquin cituztenean, Jesus icustera joan ciran, eta bere almen eta escubide andiac zabaldu cituzten. Bacarric Gerasarrac eracutsi zuten esquer gaiztoco billauqueriaric beltzena. Ain mirari andiac eguiten cebilquien Onguillea beren artean iduqui nai-eza biotz dollor ayetan sortu zan. Bildu ciran, eta Jesus-i guelditceco esan bearrean, escatu cioten, lembait-len beguietatic quendu cequiela. Munduaren Salvatzalléac eratcen cien zorionác poz baño, cherriac itsasoan ondatuac min gueyago ematen cien; eta bildur ciran, baldin gueró ere Jesus-ec ayecquin baciardun, onelaco beste gauzaren bat eguingo ciela: argatic nai zuten, bereala aldeguin cezan. Jesus-ec, bada, utci cituen, eta Cafarnaum-eronz irten zan, Gerasa-coric iñor ere etcerriquiola, Gaizquindun bi sendatutaco ayec bacarric jarraitu nai izan citzayozcan; baño Jesus-ec aguindu cien beren lecuan egoteco, ¡Lurreco ondasun ustelacgatic Jauna uzten dutenen cer irudi mene-menetacoa Gerasa-rrac beguietan ipintcen diguten!

7. §.—*Eri baten sendamena.*

Cafarnaum-en Pedro-ren echera joan zan; eta emen Galilea, Juda, eta Jerusalem-dic bildu citzayozcan batzuecquin bere leguearen gañean itzeguiten ciarduela, guciac isildu cituen gauza bat guertatu zan. Jesus icusiric eri guciac sendatzen, lau guizonec elbarri bat andaetan ceramaten, Jesus-i eracusteco asmoan: baño eg jin-al guciacquin ecin ciran atetic sartu, gende asco bildu zalaco. Tellatura igo, eta zulo batetic cincilica Jesus-en oñetaraño jatsi zuten. Jaunac, eri aren uste osoa, eta laguntzalleen on-eguin naya icusita, esan cion: sinistu ezazu, semea, zure becatuac barcatu zazquizu. Eserita ceuden Legue-jaquintsu, Escriba eta Fariseoac beregan cioten; ¿Ceinda onela itzeguiten duen au? ¿Norc, Jaincoac bestec, becatuac barcatu ditzaque? Jesus-ec iguerri cien, barrunen cer cerabilten, eta

esan cien: Errazago cer da; becatuac barcatu zazquizu: esatea, edo oyea datzana iracori, oya artu, eta ibillierazotcea? Jaquin ezazuten, bada, guizonaren Semeac becatuen barcatcea escuan duela, eriari esan cion: jaiqui, oya artu, eta echera zoaz. Eriac ala eguin zuen, osotoró sendaturic. Gende ez-jaquin gucia arritu zan, eta otseguin zuen, egundaño ez-icusitaco gáuzac cecusquitela. Escriba eta Fariseoai ere mirari onec beguiac garbitu bear ciezen; baña biotzac gogortuac ceuzcaten, eta etzuten eguia eza-gutu nai izan.

8. §.—*Mateo-ri Jesus-en deya.*

Pedro-ren echetic itsas ondora joan zan, eta icusi zue-nean Mateo aulquian eserita, alcabala edo Erregueác ipiñitaco pechac biltcen, esan cion: darraidazu. Ots onetara gauza guciac utcita, Jesus-equin joan zan. Mateo-c bere echean bazcari bat bereala prestatu zuen; eta mayean ceudela, Fariseóac icasleai esan cioten: ¿Nola zuen Maisuac becatariacquin jaten du? Pecha-biltzalle oyec publicano edo becataritzat ceuzcaten; argatic oyecquin Jesus-ec jateaz miresten ciran. Jesus-ec esan cien: sendatzallearen bear gañoa da, ez osasuna daucana. Ni etorri ez naiz justuen billan, ezpada becatariac ontcera.

9. §.—*Jairo-ren alabaren Viztutcea.*

Bazcalondoan Jesus bere icasle eta San Juan Bauplistare-nacquin, oyec eguin ciozcaten galde batzuen gañean, ciarduela, Jairo Sinagoga-co nagusia joan citzayon, eta escatu cion aren echera, arren, joateco. iltcer utci zuen alaba sendatcera, edo orduraco illa bazan, Viztutcera. Jesus jaiqui zan: eta Jairo-requin cijoala, amabi urtean odol-jarioz bici zan emacume gaso bat gende artetic sartu citzayon, eta soñecoan uqitu cion, esanaz: Baldin soñecoari uquitcen badiot, sendatuconaiz; eta ordu berean gaitzac utci zuen. Miñantz au ceucanic ecin iñorequin batu citequean, eta langai artan isillic ibilli zan; ez ordea Jesus oar-



tu gabe, ceñac esan zuen: ¿Nore uquitu dit? Emacumeác iguerri cion, ezagutu zuela, eta aitortu zuen. Orduan Jesus-ec esan cion: Zure uste onac sendatu zaitu; paquean zoaz, eta vici zaitte.

Emacume onequin itzquetan ciarduela, Jairo-ri alabaren il-berria etorri eitzayon. Aitac, legue dan bezala, min zuen baña, Jesus-ec bereala poztu zuen, esanaz: sinistu ezazu, eta zure alaba vicico da; eta echeronzco bideari eman citzayozcan. Alderatu ciranean, Jesus-ec Pedro, Santiago, Juan, eta illaren gurasóac berequin arturic, echean sartu zan, eta negarrez ceudenai esan cien: ¿Orrela cer dezute? Nescacha ez ilda, ezpada lo datza. Guelan sartu zan, eta escutic artuta, esan cion: Nescach, jaiqui zaitte. Bereala jaiqui, eta ibilliari eman cion. Jesus-ec gurasoai aguindu cien, ez iñcri esateco, cer eguin zuen: baña bazter guztietara laster barreatu zan.

#### 10. §.—*Bi itsuren arquitcea.*

Mirari oyen ondoren Jesus-ec, Cafarnaum-dic irtenda, Jerusalem-eronz bidea artu zuen, gende andia cerraquiola. Bidean esquean ceuden bi itsuc, oartu ciranean, Jesus anzala, deadar eguin cioten: David-en Semea, erruqui gaitzazu. Jesus-ec ez-aditu eguin cien; baña etsietzuten. Gaüa eguin bear zuen echeraño jarraitu citzayozcan, eta gendea sacabanatu zanean, berriz ere joan citzayozcan erregu berearequin, ciotsatela: David-en Semea, erruqui gaitzazu. Jesus-ec beguira jarrita, esan cien: ¿Uste dezute, nic on ori eguin dizazutequedala? Bai, Jauna, erantzun cioten. Jesus-ec orduan bere escúac beguietan ipiñi ciezten, esanaz: Zuen sinismenari dagoquiona, eguin bedi; eta biac arguitu ciran. Esan cien, ez iñori esateco; baña echelic irten orduco, asi ciran barreatcen.

Itsu oyec arguituta bereala, gaizquiñac ceuzcan guizon mutu bat eraman cioten. Jesus-ec, gueroce beguira egon gabe, deabrúa quendu cion, eta guizona asi zan itzeguiten. Guciac arritu, ciran, eta cioten, egundaño etzala Israel-en alacoric icusi; baña baciran Jesus-en eguin miraritsu oyec

ecin eraman cituztenac. Escriba eta Fariseoac, arroqueriaz heteric, venturatu ciran esatera, Jesus-ec deabruarequin parte arturic, mirari ayec eguiten cituela. Jesus-ec iguerri cien, cer cioten; baña etcien orduan aintzacotzat artu, eta Jerusalem-eronz baci Joan, esan diran mirari, eta onelaco beste asco bidean eguiñaz.

11. §.—*Ogueita emezortci urtean eri zanaren sendatcea*

Jesus Jerusalem-en sartu zan pesta andi bat eguiten zan egunean. Jerusalem-en arquitcen zan putzu bat *Piscina probatica* ceritzana, Putzu onetara urtean bein Aingueruá jatsi eta ura erabilli-ondoan lenengo sartcen zana, gaitz guciac sendatuta guelditcen zan: beragatic, putzu-inguru gucia eri eta gañoz estalia egon oi zan, Aingueruá cetorrenean, alcarren leyea sartceco. Ogueita emezortci urte aytan an arquitcen zan guizon elbarri bat Jesus-ec icusi zuen, oyea cetzala, eta galdetu cion: ¿ea sendatu nai zuan? Eriac erantzun cion: Jauna, iñorc ez daucat, ura muguitcen danean lenengo sartu nazan, eta asi orduco, bat edo bat sartcen da. Jaiqui zaite, Jesus-ec esan cion, zure oya artu eta zoaz. Eria bereala sendatu, eta oya sorbaldan zuela, joan zan.

Mirari au eguindaco eguna jai-eguna zan: eta Escriba eta Fariseoac emendic artu zuten, gaizqui itzeguiteco oña. Bérac etzuten mirariac eguiteco escubidea bestéc izatea ecin, alabañan, eraman zuten. Etciequiten norc eguin zuen; baña icusiric Jesus-ec eguindaco beste asco, zain charrac bereala eman cien, au ere Jesus-ec eguiña zala. Lembician, eriari eraso cioten; esanaz, jai eguna zalaco, oya ecin eraman cezaqueala: baña onec erantzun cien, sendatu zue nac esan ciola, oya artuta, joateco: esaten bacien bezala, ogueita emezortci urteco gaitza ain aisa quendu didanac, zuec baño obeto daqui, jai-egunean au edo ori eguin dittequean. Orduan galdetu cioten, ¿Norda, oya artuta, joateco, esan dizun guizon ori? Etciequien nor zan, eta Jesus-ec isillic aldeguin zuen.

Eri sendatua, oya echean utcita, Elizara joan zan, Jain-

coari esquérrac ematera. Jesus eta eria, ustez-ustecabe, an arqitu ciran, eta Jesus-ec esan cion: Beguira, sendatua zaude, eta ez gueyago oquerrie eguin. Orduan ezagutu zuen, Onguillea nor zan. Bereala Escriba eta Fariseoai, joanda, esan cion: Sendatzalle Jesus izan zuela. Berri onequin artu zuten Jesus esesi edo perseguitceco gogo gueyago. Jesus-i arpeguira eman cioten, certaco jai-egunean gauza ura eguin, eta eriari oyarequin joateco aguindu cion; baña Jesus-ec, ayen berri ondo ciequienac bezala, erantzun cion, eta bere eguiña garbitu zuen.

### LAUGARREN IRACURGAYA.

#### 1. §.—*Amabi Apostoluen auquera.*

Jesus-ec iguerri cion, galdu nai zutela, eta ordu au etorri baño lenago, autu nai izan cituen bere legue santa bere orde z ondoren norc eracutsiac, vici zan bitartean, bere ondoan ondo icasita. Jerusalem-dic irten, eta Cafarnaum-era joan zan. Auquera au eguiteco, gau batean mendira igo zan, otoitz eguitera; bada, lan andi gucietan aurretie prestaera au beti ceraman. Biaramonean-goiz, icasleai otseguin cion; eta oyen artetic amabi autu, eta *Apostoluac* deitu cion. Oyec ciran Simon Pedro, eta onen anaya Andres, Santiago andia, eta Juan anayac, Felipe, Bartolomé, Mateo, Tomás, Santiago gaztea, Judas Tadeo, Simon, eta Judas Iscariote gueró saldu zuena.

¡Gauza arrigarria! Guizon argal ez-jaquin batzuec Jesus-ec bere ordecotzat aututcen ditu, mundu gucia bere leguera ecartceco; bere Elizari oña emateco; bere icena mundu gucian zabaltceco. Baña ¿amabiac cer ciran ain lan andiraco? Batzuec arrantzale sareac zabaltcen baicic etciequienac, besteac necazale escolatu gabe itsuac; guciac gende beenecolic ateratuac, icen gabeco iñor uts ecer-tan ere aintzacotzat artcen etciranac, Oyec bada aututcen ditu guizonaren berezco griña char guciai, deabruari, eta munduari guerra emango dien legue andia eracusteco: baña Jaincoac autuac dira, eta au asto da, gauzarie mirari-tsuenac eta arrigarrienac eguiteco.

Jesus-ec autu cituenean, esan cien: Zoazte, eta mundu guciari esan zayozute, Jaincoaren Erreinua badatorrela: zoazte, ez oraindic ordea Gentillen artera, ez eta Samaria-rran errietan sartu ere; ezpada Israel-co ardi galduetara: eriac sendatu; illac Viztu; leguenardunac garbitu, eta gaizquiñac quendu itzatzute. Escualdi au doan artu dezute, eta doan erabillico dezute. Bidean ez ecer eramán, ez urreric, ez cillarric, ez cizcuetan diruric, ez zacutoric, ez bi janciric, ez oñetacoric, au da soñean ceramazquitenac besteric; bada, lana eguiten duenac, saria edo jornala mercedi du.

Edocean errietan sartcen ceratenean, galdetu ezazute, ea erri, artan diña cein dan. Eche onetan zaudete, echetic irten bitartean. Sartcen cerateneán, esango dezute; paquea eche onetan; eta echeac mercedi badu, paquea sartuco zayo, bestela ceroi itzulico zatzute; eta norbaitec ezbazaituzte artcen; edo zuen itzac aditcen, aren echetic edo erritic ir tetean, oñetaco autsac astindu itzatzute. Eguiac esaten dizutet, Sodoma eta Gomorra atcen-juicioco egunean ez dirala ain gogorquiró artuco, cein eche edo erri hura.

Eracutsi oyec, esan diteque, zudenten cerala, Jesus berà vici zan arterañoco: baña gueroagoraco ere eman nai izan ciezten, esanaz; bialtzen zaituzten ardiac otsoen erdira bezala; izan zaitezte contuzcoac, sugueac bezala; eta doblez gabeac usóac bezala. Guizonetatic gorde zaitezte; bada Erabaqui-lecu edo Tribunaletara eramango zaituztee, Sinagogaetan azotatuac izango cerate, eta Eraentzalle edo Gobernadore, eta Erregueen aurrean nigatic ipiñiac.

Orduan ez pensàtzen egon, noia edo cer itzeguingo dezuten; bada, cer-esanac emango zazquizute; zuec etcerate itzeguiten dezutenac, ezpada zuen bitartez itzeguiten duen Aitaren Espiritua. Anayac anayá eriotzara eramango du, eta aitac semeá, eta seméac gurasoen contra jaiquico dira, eta ilerazoco dituzte, eta zuec gucioc nere icenagatic gorrotatuac izango cerate; baña atceneraño irauten duena, salvatuco da. Uri batean esetsi edo perseguituac bacerate, bestera zoazte. Eguiac esaten dizutet, ez dituzutela Israel-co Uri guciac onduco guizonaren Semea datorren arteraño. Icas-

lea Maisua baño gueyago ez da; morroya ere ez nagusia baño. Icasleac asco du, Maisua bezala izatea, eta morroyac ere, bai, nagusia bezala. Baldin eche-nagusia edo familiaco buruari Belcebub deitu bacioten, ¿eche-coai cer deituco ez diete? Baña ez ocergatic icaratu; bada, ez da gauza ezcutaturic, aguertu-co ez danic, eta isillic, jaquingo ez danic. Nic isillic esaten dizutedana, zuecaguirian esan ezazute, eta belarrira esan zazutena, tellatuetatic eracutsi ezazute. Ez, gorputza iltcen dutenai bildur izan, ceren anima il ez dezaqueten. Bildur izan zatzaquio anima eta gorputza Infernura bota ditzaqueanari. Cer bada ¿ez dira bi ardigatic bi chori saltcen, eta ala-ere oyetic bat bacarra ere zuen Aitaren baimena gabe lurrera erorico ez da? Zuen buruco illeac cembatetuac dira, eta escu hura gabe bat bacarra ere galduco ez da. Ez icaratu bada, ceren chori ascoc baño gueyago balio dezuten. Guizonen aurrean aitortcen naüena, nic ere nere Aita Ceruetacoaren aurrean aitortuco det: baña guizonen aurrean ucatcen naüena, nic ere nere Aita Ceruetacoaren aurrean ucatuco det.

Ez uste izan paquea dacardala, au da, munduac paquetzat daucana, ez; paque orrequin ez nator, ezpada ezpatarequin au da, paque ona eta charra berecitcen dituen nere itzaren ezpatarequin. Nator banacatcera semea aitagandic, alaba amagandic, erraña amaguiarrabagandic, ceren guizon leyalaren etsáyac bere eche-coac izango diran. Bere aita eta bere ama ni baño maiteago dituen, nere diña ez da: eta bere semea eta alaba ni baño maiteagoa dituen, nere diña ez. Eta bere gurutcea artuta, ez darraiquidana nere diña ez da. Bere viciagordetcen duenac, galduco du; au da, bere viciari, niri baño gueyago nai dionac, anima galduco du, eta bere vicia nigatic galtcen duenac, anima gordeco du. Zuec artcen zaituztenac, ni artcen nauten; eta ni artcen naüenac ni bialdu ninduena artcen du. Profeta bat Profetatzat artcen duenac Profetaren saria artuco du; eta Justu bat Justutzat artcen duenac, Justuaren saria artuco du; eta nere icasleetan chiquienari baso-ur bat bacarra ematen dionac, ez du icaslearen saria galduco. Oyec eta onelaco beste gauza asco esan ciezen, bera vici

zan artean, eta gueró cer eguin bear zuten, eracusteco.

Itzaldi au eguinda, Jesus menditic beeratu zanean eri eia gaizquindun ascorequin arquite zan, guciac sendatceco escatcen ciotela. Gucai mesede au eguin-ondoan, eseri zan eta mendian lenagoco egonaldi batean eracutsitaco zortzi zorionac edo bienaventurantzac berritu ciezen. Gueró bereala gendea nor bere aldera bialduta, Cafarnaum-en sartu zan, bere Apostoluacquin cerbait artu eta atsedetera.

2. §.—*Amabi Apostoluac biñaca bialduac.*

Emendic amabi Apostoluac biñaca bialdu cituen, Jaincoaren Erreinua eracustera, eriac sendatcera, eta gaitzquiñac botatcera. Berác beste icasle batzuec laguntzat artu cituen, bere ondoan gueroco icasi cezaten. Auquera au eguinda, Naim-era lembici joateco asmoa artu zuen. Erri-co atera zanean, topatu zuen ama alargun baten seme baccar illoyan ceramatena. Jesus-ec ama negarrez icusita; esan cion: Ez negarrie eguin. Illoizaleac guelditu ciran. Orduan Jesus Illari alderatu citzáyon, eta esan cion: Gaztea, jaiqui zaite. Jaiqui, eta itzeguiten asi zan, eta amari eman cion. Guciac arritu ciran, eta deadar eguiten zuten: Profeta andi bat sortu zagu, eta Jaincoac bere Erriari bequiratu dio.

Egun oyetan San Juan Bauptista oraindic ichian ceucaten, eta bere icasleac joan citzayozcan, Jesus-ec eguiten cituen mirariac esatera. San Juan-ec gogoz eta poz andiarequin aditu cituen; baña iguerri cien, bear zan adiña sinismen Jesus-gan oraindic etceucatela, eta biri aguindu cien, Jesus-gana joanda, galdetceco: ¿Zu cera etorri bear dana, edo besteren baten zai egongo guerá? Jesus gende ascoc inguratua cegoan San Juan-en icasleac galde au eguin ciotenean; eta etcien ecer erantzun: baña, bai, asco eri sendatu, gaizquin bota, eta itsu arguitu. Gueró esan cien: Zoazte, eta Juan-i esayozute cer aditu eta icusi dezuten: itsuac dacustela; errenac dabiltzala; sarriatiac garbitu dirala; gorrac aditcen dutela; illac viztu dirala, eta beart-suai Evangelioa adierazten zayela.

Bereala San Juan-en aldeco itzaldi luce bat eguin cien, ceñetan, beste gauza ascoren artean, eracutsi cien, umiltasuna cein andia eta ederra dan. Aditzalleac chit gogoz egon citzayozcan, eta Fariseoai, besteri ez bezala, uquitcen cien itzqueta bazan ere, oyetatic Simon ceritzan batec, bate-re atsecaberie artu gabe, esan cion, aren echera bazcaltcera joateco; eta Jesus-ec Simon-en esqueñtza au aintzat artuta, joan citzayon; mayean jarri zan, Fariseo asco inguruan cituela; eta onela ceudela, guertatu zan gauza bat, emen cearó ezarrítcea dagocana.

3. §.—*María Magdalenaren ondutcea.*

Naim-go erri onetan vici zan, María ceritzan andre galdu bat. María Betania-n jayoa, eta guraso aberatsen alaba zan. Iru senide ciran, Làzaro, Marta eta María. Gurasoac ilda, ondadea iru senideac, norc bere zatia, artu zuten. Lazaro eta Marta-ri Betania-n cituzten ondasunac erori citzayozcaten, eta María-c artu zuen Magdalen-go gaztelua, ceñaren bidez *Magdalena* deitzen zayon. María Magdalena egun batzuetan bere senideen ondoan egon zan: bitarte onetan senideac iguerritcen cioten bere vicitasun arguia, eta munduaren beguetan aguertu nai gueyeguicoa: beregatic asco necatcen ciran, Jaincoaren bildurrean iduquitceco; baña alperric.

Magdalena-c senide on oyen ondoco izaera chit gogocoa iñolaz-ere etzuen, eta ayec utcita, Magdalen-go gaztelura joan zan, vicitcera. Senideen itzaletic aldeguin zue-nean, bereala arqutu zan galai zoro ascoc ondo itzeguiten ciotela; eta nescach buru-arin onen eresi gucia, bere gorputza andade bat eguiñic eracustea zan. Egun oyetan alderdi onetara ere Jesus-ec eguindaco mirarien otsa zabaldu zan. Lazaro eta Marta Jaunari bertatic jarraitu citzayozcan baita arreba zoro argatic escatu ere. Jesus-ec, becatarien billan mundura etorriac bezala, biotzean uqitu cion. Jesus-en Naim-en predicatcen zuen, eta Magdalena-c adituric Jesus-gatic esaten ciran gauza andiac, joan citzayon, aditcera, eta biotz osotoró aldatuarequin itzuli zan: bere

gaiztaqueriaren damu min bat artu zuen, eta bertatic Jesus-i jarraitzea ere bai. Onetaraco galdetu zuen, non egongo ote zan, eta esan ciotenean errico Andizqui gueyenacquin Simon-en echean bazcaltcen zala, joan zan: eta beguiratu gabe, ez cer esango zuten, ez cer iritcico cioten, bazcaltoquian sartu zan: eta arpeguiz-arpegui Jesus-i beguiratceco biotz gabe, aulqui-atcean jarri citzayon, auzpeztu zan, eta negarrari eman citzayon: Jesus-en oñac malcoacquin busti citnen, buruco illeacquin leortu ciozcan muñeguin cion, eta berequin ceraman balsamu usai gozocoarequin igortci ciozcan, eta bere utseguite eta gaiztaqueria gucien barcacio-esque jarri citzayon.

Eheco nagusi Simon Fariseoac beregan cion: baldin au Profeta balitz, balequique, emacume au becatari bat dala. Jesus-ec Simon-en esan isillari iguerrita, esan cion: Gauza baten-galdez nagoquizu. Bereala erantzun cion: Jauna, esazu. Guizon batec bi artceco ceuzcan: batac sei-eun erreal zor ciozcan, eta besteac iruroguei erreal!; baña cerequin zorra quendu etzutelaco, artcecodunac biai barcatu cien. ¿Bi oyetatic norc gueyago nai izan bear dio? Simon-ec erantzun cion, aren iritcian zorric andiena zue-na. Ondo diozu, Jesus-ec esan cion; eta Magdalenari beguirajarrita, esan cion: ¿Emacume ori dacusu? Zure echean sartu nintzan, eta uric ere etciñidan eman, oñac garbitceco: baña onec negar-malcoz busti, eta illeacquin garbitu dizquit: zuc olioarequin ez didazu burua igortci; baña onec oñac balsamuz eguin dizquit: beragatic esaten dizut, becatu ascoac barcatu zayozcala, ceren asco maitatu zuen.

Bitartean Magdalena buru macurtuarequin cegoan barcacioesque, eta Jesus-ec esan cion: Zure becatuac barcatu zazquizu. Mayean ceudenac esan oni asco iritcita, asi ciran esaten: ¿Au cein da, beca-tuac barcatceco? ¿Norc, Jaincoac bestec, becatuac barcatu ditzaque? Eguiaz, Jesus-i arteraño etcitzayon becatuen barcacio-esque iñor jarri: batzúec billatu izan zuten, maquiac zuentceco; bestéac itsuac arguitceco; oyec ezcabiác garbitceco; ayec illac viztutceco; eta guciac gorputzeco eritasun eta gaitzac quentceco: iñorc ez



ordea animaco zauriac sendatceco; argatic icusten ceudenac arritu ciran, aditu zutenean, becatuac barcatceco escubidea bere buruari ematen ciola. Gauza oyec buruan cerabilzquiten bitartean Jesus-ec oñetan cegoquion Magdalena-ri berriz ere beguira jarrita, esan cion: Zure sinisteac salvatu zaitu, paquean zoaz.

Egundaño etzan barcacio osoagoric, eta aldaqueta obeagoric icusi. Jaungoicoaganaco amorioa munduracoaren lecuan sartu zan, eta biotz andi hura satu zuen. Lazaro eta Marta-c berri onequin chit poz andia izan zuten. Magdalena bereala joan citzayen; esan cien, cer guertatu citzayon; eta gueró Jesus-gana itzulita, etzuen Maisu onegandic gueyago aldegin.

#### 4. §.—*San Juan Bauprista-ren eriotza.*

Bazcari gogoangarri onen ondoren Jesus-ec amabi Apostoluai deitu cien, eta guciac elcarrequin cebiltzan. Baña Jesus-ec laster izan zuen albista bat, chit min eman ciona. Herodes, Erregue eguiten zuenac, bere jayote-egunaren oroipenean Andizqui ascorequin bazcari andi bat eguin zuen, eta San Juan Baupristaren galmena bazcari onetatic etorri zan. Herodias, Herodes-en emazte-ordecoac, ceucan bere eguiazco senar utci zuenagandic izandaco alaba chit eder egoquia: eta onelaco bazcarietan emacuméac ezbazuten ere lecuric izaten, Herodes-ec Herodias-i esan cion, alaba al-zan ondoena apainduta, jan toquirá bialtceco. Beguiac zoratceco eran ipiñi zuen, eta aurqueztu zan. Herodes eta gañeracoen aurrean chit ascatasun andiarequin dantzatu zan; eta Herodes-en biotza ain beretu zuen, non, esan cion, nai zuen gauza escatceco, eta emango ciola: ala bear bazan, itz ciñeztuaren azpian Erreinuaren erdia ere aguindu cion. Alaba dantzaria guelatic irtenda, ama Herodias-i joan citzayon, galdetcera, ¿ea Erregueari cer escatuco cion? Herodias-ec etzuen utci nai bere vicitza gaiztoaren salati San Juan Bauprista galtceco cetorquion ain era ona; eta alabari esan cion; ez beste gauzaric escatceco, ezpada Juan-en burua. Dantzariac bereala, Herodesi-

joan, eta belarrira esan cion, Juan Bauphistaren burua platera batean eman citzayola.

Herodes-i etcitzayon escaera au ondo erori, Juan-i nai ciolaco; baña etzuen bear adiña biotz izan arestian eman-daco itza jateco, eta legue guciac nayago izan cituen autsi, bein esana ucatu baño. Bere morroi bati aguindu cion, ichian cegoan lecura joanda, lepoa ebaquitceco: eta servit-zari onec, nagusiaren esana gogorquiró eguiñic, burua, odola ceriola, Herodes-i eraman cion, onec nescach dantzariari, eta alabac amari eman eta Santu andi aren erio-tzarequin dantzari erguel baten gora-beerac eta arinquetac saristatuac izan ciran. Iru oyec ere etciran sari gabe gue-ratu. Cegoquien patu gaiztoac laster artu cituen. Urte gai-chiren epean Caligula Emperadoreac Herodes-i erreguetza quendu cion, eta Leon Franciaera erbestetu zuen, eta emen il zan. Herodias-i etcion alacoric aguindu; baña be-re galayarequin ibilli nai izan zan, eta guisa berean Leon-en il zan. Alaba dantzaria ibai izoztu batera erori, eta or-mac lepoa ebaqui cion. San Juan Bauphistaren icasleac Maisuaren gorputz illa contuz jasota, Samaria-co Uri Se-baste-n lurpetu zuten. Burua ere ontzi batean ipiñi zuten, eta gueyena orain Erroma-n dago.

5. §.—*Bost ogui eta ezcalu birequin bost milla guizon bazcatuac.*

San Juan Bauphista-ren icasleac ill-berri onequin Jesus-i joan citzayozcan, Jesus-enac ere beren misio-aldia eguinda Jesus-gana itzuli ciran egunetan. Nori bere albistac aditu-ric, Jesus guciacquin batela batean sartuta, Betsaida-co eremu bateronz joan zan. Jesus eta bere lagunac itsasoz orduco beste gendetza andi bat ere leorrez eta oñez joan zan, Jesus-i gueldituco zala iguerri cioten toquirá. Jesus gucien erdian jarri zan, eta Ceruco legue santa eracusten cien, eta gañoac sendatcen cituen. Onela ciardun arratsal-de batean, icasleac esan cioten: Jauna, eremu soll batean gaude; illuntcera dijoa; eta gende au bialdu ezazu cer ja-na billatu dezan. Ez ori, Jesus-ec erantzun cien; ez dira

joango: zuec jaten eman zayozute: eta Felipe-ri esan cion ¿Oyentzat oguia non erosico degu? Itz oyecquin Felipe arritu zan, ceren oraindic etzuen uste, oguiac ugaritceco escubidea Jesus-ec zuenic; eta erantzun cion: berreun erreal-bico asco ez dira ogui-cerracho bana erosteco; ala ere joango guera eroatera, eta emango diegu. ¿Cembat ogui dauzczute? Jesus-ec galdetu cien. Bost garagar-ogui, eta bi ezcalu mutico batec ceuzcanac arquite cituzten. ¿Baña onembeste lagunentzat oyec cer dira? Andres-ec cion. Gende gucia Jesus-ec celayean saldoca esererazo zuen; eta guizon utsac bost milla ciran beste aibeste emacume eta aurrequin. Jesus-ec ogui eta ezcaluac escuan artuta, Aita-Beticoari esquerrac eman ciozcan, bedeincatu cituen, eta Apostoluai aguindu cien, gendeari zabaltceco. Ematen asi ciran, eta naico gucia jateco adiña ogui eta arrai bost ogui eta bi ezcaluetatic sortu zan. Gueró aguindu cien, ogui eta arrai-puscac biltceco, eta amabi sasqui bete cituzten.

Mirari herri au icusi zutenean arrituric, osotoró sinistu zuten, Jesus Mesias zala: baña nola vici ciran, lurreco Erregue baten icenean Mesias etorrico zalacoan, ipiñi nai izan cioten coroa buruan, eta Erregue-cigorra edo maquilla escuan, eta Erreguetzat ezagutu. Jesus-ec iguerri cien, gogoan cer cerabilten; eta illuna gañean zalaco aitzaquian inguruco errietara bialdu cituen, gaña eguitera. Guisa onetan gendea beregandic bialtcen zuen bitartean, Apostoluai aguindu cien ontcian sartuta, Betsaida-ronz abiatceco, eta Genesaret-eco itsas-adarra igarotceco.

6. §.—*Jesus-ec itsas-aserretuan Apostolúac gordetcen ditu.*

Jesus bacarric arquite zanean mendira igo zan, eta otoitzari eman citzayon. Apostoluai itsasoa aserretu citzayen, eta gau gucian ondaltceco zorian ibilli ciran, eta amar orduan arraunacquin necatuta, etzuten ordu beteco bideric eguin. Jesus-ec icusi cituen nola cebilzan, eta aurqueztu citzayen. Sarreran izutu ciran, iracho edo duenderen bat zalacoan: baña Jesus-ec esan cien: Ez icaratu, Ni naiz,

Jauna, Zu bacera, Pedro-c esan cion, ceregana artu nazu. Jesus-ec esan cion; Atoz. Pedro onticitic irtenda, urean Jesus-gana cijoala, aiceac artu, eta ondalcera eguin zuen eta deadar eguin cion; Jauna, gorde nazazu. Jesus-ec es-cua luzatu, eta bere onticira artu zuen, esanaz: Siniste guichico guizona ¿certaco zalantzan jarri cera? Esan bacion bezala, ¿nere escubidearen berri etciniequien? Pedro Jesus-en onetan auzpeztu zan, eta esan zuen: *Jaincoaren Seme eguiazcoa Zu cera*. Itsasoa guelditu zan, eta beste neque gabe, ur-ertzera Joan cirau,

Jesus lurrera zanean bereala, cecusatzen guciac ezagutu zuten, eta cebillen lecu gucietan eri eta maquiac bidean ipintzen ciozcaten, eta escatcen cioten, arren, besteric ez-bazan ere, soñecoaren ertzari uquitzen uzteco, eta au iristen zutenac sendaturic guelditcen ciran. Onetan cebillela, jai-vezpera batean Cafarnaum-era joan zan. Aurreco egu-netan Erregue eguin nai zutenac, iguerri ciotenean alde-guin ciela, esque abiatu, eta Uri onetan arquitu zuten, eta asi citzayozcan espasunac aguertcen; baña Jesus-ec esan cien, cein lan zoroa zan, arequin eguin nai zutena, eta ala-co asmoari uzteco.

7. §.—*Animaco janariaren gañean Jesus-en itzqueta.*

Zuec billatcen nazute, esan cien, ez eguin ditudan mirariacgatic, ezpada jaten eman dizutedalaco. Necatu zaitez-te, bada, ez bereala aiccen dãn janaren ondoren, ezpada guizonaren Semeac emango dizuten, eta beti iraungo due-nagatic. Eta ¿cer eguingo degu au irabazteco? galdetu cioten. Jesus-ec erantzun cien, bera zala Cerutic jatsitaco ogui vici, belico vicitza ematen zuena, eta berari sinisteco. Baña, au gogor eguiten citzayen, eta menturatu ere vaci-ran galdetcera ¿ea cer eguiten zuen beren sinismen osoa ari emateco? Eguia da, esaten cioten, bost oguirequin egun batean bost milla guizon bazcatu dituzula; baña gu-re aita Moises-ec ere berroquei urtean seieunda gueyago milla lagun eremuan manarequin bazcatu cituen. Bai, ala da, Jesus-ec erantzun cien; baña Moises-ec emandaco

mana, Ceruco ogui eguiazcoaren irudipena edo antza baicic etzan: ura jandacoac il ciran: Ceruco ogui eguiazcoa Cerutic jatsi, eta munduari vicia ematen diona da. Ni naiz ogui vicia. Ni artcen naitenac betico vicitza dauca. Aditzalleac esan cioten: Jauna, ogui orretatic beti iguzu; eta Jesus-ec erantzun cien; vicitzaco oguia ni naiz; nigana datorrenac, goserie izango ez du, eta nigan sinisten duenac, egarriric ere ez. Juduac gaizqui-esaca asi ciran, esan zuelaco: vicitzaco oguia naiz, eta cerasaten: ¿cer? ¿au ez da José-ren seme, bere ait-amac ezagutcen diozcaguna? Gaizqui esate orri utci zayozute, Jesus-ec esan cien. Inor nigana ecin datorque, ni bialdu ninduen nere Aitac ezbadacar. Egui-eguiaz esaten dizutet, nigan sinisten duenac, betico vicitza duela. Ni naiz ogui vici, Cerutic jatsia. Inorc ogui onetatic jaten badu, betico vicico da. Jaquizute, Nic munduagatic emango dedan oguia, nere araguaia dala.

Juduac ordnan elcarri cerasaten: ¿nola onec bere araguaia jaten eman dizaguque? Juduac uste zuten, beste edo cein aragui bezala, Jesus-ec berea esqueñtzen ciela. Egui-eguiaz esaten dizutet, guizonaren Semearen araguaia ezpadezute jaten, eta odola edaten, ez dezute vicitzaric izango. Betico vicitza, nere araguaia jaten duenac, eta nere odola edaten duenac du: eta atceneco egunean nic viztucodet: bada, nere araguaia da eguiazco janaria, eta nore odola eguiazco edaria, eta nere araguaia jaten duena, eta nere odola edaten duena, nigan dago, eta Ni argan nago. Oyec eta onelaco beste gauza andi Aldareco Sacramentu Santua adierazten zuten asco eracusten ciezen, egun ayetan eguiten cituen itzaldietan. esanai mirariacquin indarra emanaz. Ala ere, asco ciran sinisten etciotenac; batezere, Escriba eta Fariseoac icusi ere ecin zuten, eta beguetatic quenteco bideac eguiten cebilzan. Jesus-ec iguerri cien, cer asmo cerabilten, eta aldequin zuen baña norá-nai cijoala, gaño, elbarri, eta maquiz beti inguratua cegoan, eta guciai osasuna emanda, aguintcen cien, ez, arren, barreatceco galdu nai zuten ayec jaquin etcezen. Jesus-ec baciequien galduco zutela; baña ordua etzan artean bete; argatic cuntuan ipintcen cituen, gueyago sutu etcitecen.

8. §.—*Escu-changu baten jai-eguneco sendatcea.*

Baña Fariseoac etzuten, iñorc ecer esanquizunic, nondic galdu cezaqueten billatceco. Gauzaric onenetatic ere artcen zuten Jesus-gatic gaizqui itzeguiteco oña. Ara sinisbide bat. Jai-egun batean Jesus Elizan sartu zan, eta Escriba eta Fariseoac beguira cegozquion, an arquitcen zan escu-changudun bat sendatcen ote zuen, jai-eguna zalaco erasotceco. Jesus lan artarà baño lenago galdetu cioten ¿ea cillegui edo ondo zan jai-egunean sendatcea? Galdera au bere gatzarequin zan; baño Jesus-ec ayen barrun galduai iguerri cien, eta ecer erantzun gabe, elbarriari esan cion, zutitceco, eta gucien erdian jartceco. Onela cegoala, esan cien ¿Cillegui da jai-egunean on edo gaitz eguitea? ¿Vicia gorde edo quentcea? ¿Zuetatic ceñec, jai-egunean zulora ardi bat erortcen bazayo, ez dio escua luzatuco, andic ateratceco? ¿Guizona cembal gueyago da ardia baño? Cillegui da bada, jai-egunean on eguitea; eta beguiratu zorrotz bat guizon itsutu ayei eguinda, escu-changudunari esan cion, escua luzatceco, eta sendatu citzayon. Ayen biotzac mirari argui onequin bigundu bearrean, ezaguturic bérac bacarric asco etcirala Jesus galtceco, Herodes-en adisquideetara légun-esque joan ciran. Bitartean Jesus-ec Galileaco itsas-ondoco ordecaetara aldeguin cien. Onará ere ecin esan adiña gende jarraitu citzayon, eta joandaco gaño eta elbarri guciac sendatu cituen.

9. §.—*Guizon gaizquindun itsu eta mutuaren sendatcea.*

Andic laster Cafarnaum-era itzuli zan, eta bereala eramian cioten guizon-gaizquindun itsu eta mutua. Emen ere Escriba eta Fariseoac inguratu citzayozcan arestian aitatu dan asmo galgarriarequin; baño oyen bildurrac etzuen Jesus guizon errucarri ari on eguitetic atceratu. Beguien ichi-idiqui batean gaizquiña quendu, beguiac arguitu, eta mingaña ascatu cion, eta guciac arrituric gueratu ciran.

Bacarric Escriba eta Fariseoac ausardia izan zuten esa-

teco, deabruen buru Beelcebub-en icenean eta escuarequin mirari ayec eguin cituela; baña Jesus-ec erantzun cien ayen itsuta-sunari cegoquion eran, gauza asco eta andiac eracutsiaz, ayentzat alperrie bederic.

10. §.—*Beste miragarrizco sendatceac,*

Egun oyetatic batean Escriba eta Fariseoacquin elean ciarduela, Ama eta aide batzuec, Nazaret-etic Cafarnaum-era joan citzayozcan icustera, eta elcarrequin guciac egon bat emen eguinda, Nazaret-era joan ciran. Jaquinduri arguia itzquetan, eta escu andia sendaquetan eracusten cituen; baña Jaincozco doai oyec Nazaret-arrentzat ecer etciran, Jose eta María beren erricoen semea zala oroitcean: beragatic etzuten aintzacotzat artcen, eta Jesus-ec aldeguin zuen, bere Legue santa beste errietan eracustera. Lambide onetan cebillela, bein batean Canan-go Emacume bat bidera irten citzayon, osca; Jauna, David-en Semea, erruqui nazazu: alaba deabruac artuta daucat. Jesus-ec ez-aditu eguin cion: baña emacumea leyatcen citzayon, berriz eta berriz esanaz; Jauna, David-en Semea, erruqui nazazu. Emacume onen negarracquin Apostoluac cupituta, Jesus-i esan cioten: Jauna, emacume ori isiltcen ez da, eta bialdu ezazu. Jesus-ec erantzun cien: Ni ez naiz etorri Israel-co ardi galduac biltcera vaicic. Emacumeac icusiric, Apostoluac ere etzutela ecer iritsi, Jesus-i onetan auzpeztu citzayon, esanaz: Jauna, valia zatzaquit. Jesus-ec esan cion: Semeen oguia chacurrai ematea on ez da. Ondo diozu, emacumeac erantzun cien; baña chacurcúmac ere nagusien mayetic eroritaco ogui-apurrac jaten dituzte. Orduan Jesus-ec esan cion: ¡O emacumea! siniste andicoa cera: zure naya eguin bedi: eta ordu berean alaba sendatu zan. Ama bereala echera joan zan, eta alaba gaizquiñic gabe arquite zuen.

Sendatu onen ondoren, or-emen ibilli andiac eguinda, mendi batean jarri zan atsedeten. Beste eri eta gaño ascorren artean gor-mutu bat eramán cioten: beatzac belarrietan sartu ciozcan, eta istuarequin mingaña igortci cion,

eta ceruronz beguiac ipiñita, esan cion: *Efeta*: eta bereala, belarriac garbitu eta mingaña ascatu ciran, eta aditcen eta itceguiten asi zan. Eguiquera au gogoan duela, *Eliz-Ama Santac* batayatcean belarriac istuz eguiten ditu.

11. §.—*Zazpi ogui eta ezcalu batzuecquin lau milla guizon bazcatuac.*

Mirari au eta beste asco eguinda gueró, icasleai esan cien: Gende onec biotza erdiratcen dit; iru egun oyetan nerequin dira, eta cer janic ez dute. Nic ez nituque barañ-ric bialdu nai, bidean desmayatu ez ditecen. Eta gnola eremu onetan arquiteco degu, icasleac esan cioten; oyec guciac asetceco adiña ogui *Etcirudien*, illabete guichiz onará amar milla eta gueyago lagun bost ogui eta bi ezcalurequin *Betsaida-co* eremuan bazcatcen icusitacóac, galde au eguingo zutenic; baña ayen sinistea oraindic epela zan. *Jesus-ec*, itzie ere itzuli gabe, galdetu cien ¿ea cembat ogui ceucaten? eta erantzun cioten, zazpi ogui, eta ezcalu bana-ca batzuec ceuzcatela. *Jesus-ec* bereala gendea lurrean esererazo zuen. *Ogui-ezcaluac* artuta, bedeincatu cituen, icasleai eman ciezen, eta oyec gendeari; eta lau milla guizon, copuru onetan emacume eta aurrac sartu gabe, ase ciran; eta ondarracquin zazpi sasqui bete cituzten. *Gueró* ontci batean sartuta, *Mageda-co* alderdira *Jesus* bere *Apostoluacquin* joan zan. Emen ere itsu bat arguitu zuen, eta bereala *Cesarea-co* *Filipo-ra* aldatu zan.

12. §.—*San Pedro-c Jesus-en Jaincotasuna aitortcen du.*

Emen *Jesus-ec*, bere *Apostoluacquin* bacarric jarrita, galdetu cien: ¿*Guizonaren Semea* nor dala, diote? Esaten bacien bezala: beren gogoa nerequin baño zuecquin obeto aguertuco dute; zuec ayen itzqueta caditcen diozcazute. ¿Cein diote, bada, Ni naizala? Bat ez datoz, *Apostolúac* erantzun cioten. *Batzuec* *Juan Baupista*, besteac *Elias*, besteac *Jeremias*, eta besteac anciñaco *Profeta Vistutaco* edo ayen antcecoren bat cerala, diote. Eta zuec, ¿cein naizala diozu-



te? Onelaco gauzaetan Pedro beti nabarmentzen zan, eta erantzun cion: Zu cera Christo Jainco viciaren Semea. Zorionecoa, Simon; Jesus-ec esan cion; bada, ez araguiac, ez odolac ori eracutsi dizu, ezpada Nere Aita Ceruetacoac: eta nic diotsut; zu cerala Pedro (ceñac arria esan nai du), eta Nere Eliza arri onen gañean jasoco dedala, eta Infernuco aleac onen contra ez dutela garaituco. Ceruco guiltzac Nic emango dizquizut: zuc lurrean lotcen dezuna, Ceruan lotua izango da, eta zuc lurrean ascatcen dezuna, Ceruan ascatua izango da. Esan gogoangarri onen ondoren zorrotz aguindu cien, hura vici zan artean ez esateco, Pedro-c cer aitortu zuen. Ordutic contuan ipiñi cituen, cer neque eta eriotza gogorraren beguira cegoan. Ordutic Jesus asi zitzayen bere icasleai esaten, cein conveni zan Jerusalem-era joatea, eta emen Zar, Escriba eta apaiz-buruen aldetic neque gogor-latzac igarotcea, iltcea, eta irugarren egunean Viztutcea. Itzqueta onequin Pedro chit arritu zan eta bazterrerá otseguinda, Jesus-i esan cion: ez orrelacoric Jauna, ez: Ceruari nai ez daquiola, zuc diozun ori, zuri guertatu daquizun: ori zuri ez dagoquizu. Pedro-c oraindic ere etciequien, Jesus-en Elizac cer cimendu izan bear zuen eta ondo etceritzan, Jaunac alaco nequeac eta humiltasunac eramatea; eta Jesus-ec, beguira-beguira jarrita, zorrozquiró esan cion: ortic quen zatzaquit, nere etsaya; bada, gogoa ez Jaincoaren gauzaetan, ezpada guizonenetan daucazu.

Itzqueta au apostoluacquin izanda, icasle eta gañeraco gendeac berequin cituela, Cesarea-ronz abiatu zan, eta bidean esan cien: Nere ondorean etorri nai duenac, bere burua ucatu, eta gurutcea artu beza, eta berraiquit, ceren bere bicia gorde nai duenac, anima galduco duen: baña bere vicia nigatic eta Evangelioagatic galdutcen duenac gordeco du. ¿Guizonari, mundu gucia beretceac, cer balio dio, bere anima galtcen badu? edo ¿guizonac ceren truque bere anima emango du? Nerequin eta nere esanacquin lotsatcen dana, guizonaren Semea ere, bere Aitaren glorian aingueruac lagun dituela, datorrenean, lotsatuco da, eta orduan nori bere irabacia emango dio. Eguiaz diotsuet

emen badirala, guizonaren Semea bere Erreinuan icusi gabe illo ez diranac. Batzuec badiote, Jesus-ec itzeguin ciela, demboraz guertatu zan bestiruditce edo transfiguracioaren, bestéac illen artetic Viztutcearen, eta ascoc cerurá igotcearen gañean; baña gueyenai deritzate, orain bereala esango dan bestiruditceagatic onela itzeguin ciela.

### BOSTGARREN IRACURGAYA.

#### 1. §.—*Tabor-co mendian Jesus-en bestiruditcea edo Transfiguracioa.*

Cesarea-co ingurumayetan bere leguea eracusten cebillen egun oyetic batean, Tabor-co mendi-ondora alderatu zan, eta emen aguertu nai izan zan bere edertasun eta anditasun gucian. Bere Pasio eta eriotzaren gañean Apostoluai itzeguin cienetic seigarren egunean, Pedro, Juan eta Santiago ez, beste guciac mendiaren oñean utcita, iru Apostolu ayecquin lontorrera igo zan, eta beti bezala, otoitzari eman citzayon, eta iru Apostolúac loacartu cituen Bitarte onetan Jesus-en gorputzac beste antz eder bat artu zuen. Arpeguiac eguzquia cirudien, eta soñecoac distiatuac eia elurra bezain zuri jarri ciran. Jesus-en albo bietan Moises eta Elias aguertu ciran, eta Jesus-equin itzquetan ciarduten. Milla eta bost eun urte baciran Moises il zala, eta bederatci eun Elias guizonen beguetatic ezcutatu zala: baña Jaincoaren esana eguiteagatic, ceuden lecuac utcita, emen aguertu ciran. Iru Apostolúac esnatu-ondoan, beguetaco miragarri hura icusi zutenean batetic, eta beren Maisu andiac Jerusalem-en laster igaroco cituen neque, oñaze eta gurutceco eriotzaren gañean itzeguiten aditu ciotenean bestetic, arri eguiñic gueratu ciran, itzeguiteco, ere quemén gabe. Pedro-c bacarric biotza izan zuen esateco: Jauna, on da gu emen izatea: iru vici-lecu daguizquigun, bat Zuretzat, bestea Moises-entzat, eta irugarrena Elias-entzat. Pedro-c onela ciardun bitartean, odei eder batec irurac estali cituen, eta ots bat irten zan. Apostoluc ots onequin are gueyago izutu, eta anzpez jausi ciran.

Orduan Jesus-ec uqutu cien, esanaz: Ots gora, ez izutu. Alde guciataronz beguiratu zuten; baña Jesus bezteric etzuten icusi, eta Jesus ere len-lengo izaeran. Menditic beeronz abiatu ciran, eta Jesus-ec aguindu cien, cer icusi zuten, ez iñori esateco, alic eta illen artetic bera Viztutcen zan arteraño, eta isillic, beste lagunai ere esan gabe, gorde zuten,

2. § —*Jesus-ec gaizquindun Apostolúac ecin zutena sendatcen du.*

Menditic celayera iru Apostoluacquin jatsi zanean, igotcean utcitaco gendea ugaritua arqutu zuen. Oyen artean aita bat aurqueztu citzayon, esanaz, seme chit aldi gaiztoac eguiten citzayozcana ceucala, batean urera, bestean sutara erortcen zala, eta, arren, arzaz erruquitceco. Jauna, esan cion, Zu emen etcendelaco zure icasleai eracutsi diet; baña ez dute ecer eguin. Zure seme ori ecartzu, Jesus-ec esan cion. Alderatu citzayonean, deabrua, lenago bezala, asi citzayon lurrera botaca, eta bitsa ceriola, aztarriaca cebillen. ¿Orrela noiz ezqueró dago? Jesus-ec aitari galdetu cion. Chiquitatic, aítac erantzun cion. Jesus-ec deabruari aguindu cion irtelecto, eta bereala igueseguin zuen; baña iltcer bezala uteita. Orduan Jesus-ec escutic artuta, aitari sendaturic eman cion. Apostolúac min zuten ayen esanera deabruac ez igueseguitearequin; eta Jesus-i, baztertu zanean, isillic galdetu cioten ¿ea ayec sendatu eciña certan cegoan? Zuec, erantzun cien, ez dezute zuen sinismen guichiz, deabrua bialdu: bada, fede vici bat bacendute, eta mendi oni esan, emendic aronz oa, aldatuco litzaque. Esan ere baaien, onelaco deabruac otoitz eta barañacquin baicic etcirala bialtcen.

3. §.—*Jesus-ec bere eriotza eta Viztutcearen gañean Apostoluai itzeguiten die.*

Bere icasleai gauza oyec onela eracutsi-ondorean, Cesareara joanda, emendic Cafarnaum-eronz abiatu zan. Jeru-

salen-era alderatcen zan, eta Uri doacabe onetan cer guer-  
tatuco citzayon gogoratceac izutu eta alderaguin bear cien  
baña Aitaren naya eguitera etorri zan, eta ecerc ere atce-  
ratcen etzuen. Bidean amabi Apostoluai berriz eta berriz  
bete eriotzaren gañean itzeguiten cien. Guizonaren semea  
guizonen escuetan ipiñia izango da, cion, ilco dute, eta  
iru egunen buruan Viztucoda. Apostolúac etciran Maisua-  
ren esanetan sartcen. Eriotza ain lotsagarria izango zue-  
nic etcien gogoác ere ematen, ceren baciequiten cein es-  
cualdi andicoa zan, bere burua -gordetceco, nai izan ez-  
queró; eta ilda gueroco Viztutcea nola citequean, ecin igue-  
rri cioten. Itzqueta onetan biotz chit illacquin Cafarnaum-  
en sartu ciran.

#### 4. §.—*Pecha-pagatcea.*

Pecha-biltzalléac bereala Pedro-ri esan cioten: ¿Zuen  
Maisuac pechac pagatcen ez ditu? Bai, Pedro-c erantzun  
cion: eta Jesus-gana joan zan, gai onetan itzeguitera: ba-  
ña Pedro-c itzic ere atera baño lenago, Jesus-ec iguerri  
cion cer cereman, eta galdetu cion: ¿Lurreco Erreguéac  
norgandic pechac artu bear dituzte? ¿Semeetatic edo atcee-  
tatic? Atceetatic Pedro-c erantzun cion; beraz seméac zor  
ez dute, Jesus-ec esan cion. Jesus Jainco zanetic Erregue  
gucien Erreguearen Semea zan, eta guizatasunetic David  
Erreguearen odolecoa; beragatic etzuen pecharic zor. Ala  
ere, cer esanic izan ez dezaten, Pedro-ri esan cion, itsaso-  
ra zoaz, amua bota, eta atcizen dezun arrayari, aoa idi-  
qui zayozu, eta peseta-bico bat arquituco diozu. Pedro-c  
ala eguin zuen, eta diru onequin pecha pagatu, eta Mai-  
suagana poz andiarequin itzuli zan.

#### 5. §.—*Apostoluen arroqueria beeratua.*

Guciac elcarganatu ciranean, Jesus-ec galdetu cien ¿ea  
bidean cer itzqueta ecarri zuten? Etcioten itzic irauli; lo-  
tsatcen ciran, alabañan, Mesias-en Erreinuan nor gueyena  
izango ote zan elean etorri cirala, esaten: eta Jesus-en gal-

deratic ezagutu zuten, itzqueta gucia iguerri ciela. Aditu izan cioten, ilda irugarren egunean Vizluco zala, eta uste zuten, bere Erreinua orduan ipiñico zuela, eta Apostolu dānac, norc bere burua lenengo mallan icusi nai zuten, eta Jesus-i galdetu ere bacioten, ¿nor lenengo izango zan? Baña Jesus-ec ayen andinayari cegozquion eracutsiac eman ciezten, esanaz: Lenengo nai duena, atceneco izango da. Gueró aur bat artu, eta erdian ipiñi cien, esanaz: baldin aur eguiten ezbacerate, Ceruco Erreinuan cer eguiñic ez dezute izango: aur oyetatic bat nere icenean artcen duenac, Ni artcen nau. Beguira, oyetatic iñor ecer-utsean beñere iduqui ez dezazuten: bada, oyen Aingueruac nere Aita Cerucuaaren arpeguia Ceruan beti dacuste.

Onela beren arroqueria eta andinaya arpeguira eman cien, gueró z umillac izan citecen; baña Jesus-ec esan guciac asco izan etciran, Apostoluen andinaya bear adiña beerateco, eta osotoró quendu ere etzan, Espiritu-Santuac gueroago argui-eguin cien arteraño.

#### 6. §.—*Escandaloaren gañeco itzqueta.*

Itzqueta onetan ciardutela, Juan-ec; gucien icenean itza artuta, Jesus-i esan cion: Jauna, bat icusi degu, zure icenean deabrúac botatcen, eta eragotci diogu, gu bezala, ez-darraiquizulaco, Esan au Juan-i Jesus-ec chit gaizqui artu cion, eta aguindu cion, ez berriz alaco eragozpenic ipintceco Jaincoa gloriatu nai zuen iñori; eta emendic oña artuta gaitzbide edo escandaloaren gañean itzeguin cien, esanaz: Nigan sinisten duten oyei gaitzeraco bidea ematen dienac, obe luque errota-arri bat lepotic lotuta, itsasora botaco baluquete. ¡Ay munduaren zorigaiztocola gaitzbideacgatic! Becaturaco bideac izan bearrac dira, bai; baña ¡ay oyec dacarzquien guizonaren zorigaiztocola! Jesus-ec bere Apostolu eta icasleai esan oyecquin eracutsi nai izan cien, ona eguileco eragozpena, eta gaiztoraco bidea besteri emateac cein icusquizon andia dacarren, ez bata, eta ez bestea eguin cezaten.

Gueró berriz esan cien: Guizonaren Semea galduac sal-

batcera dator. ¿Cer iritcitacoac cerate? baldin eun ardi dituen bati, bat galtcen bazayo, ¿larogugita emeretciac basoan utcita, galdu bacar aren esque abiatcen ez da? Eta arquitcen badu, onequin gueyago poztutcen da, beste larogueita emeretci ezcutatu etcitzayozcanacquin baño. One-la bada, zuen Aitac ez du nai, chiquicho oyetatic bat ere galdu dedin.

7. §.—*Lagun urcoari barcatcearen gañeco itzqueta.*

Beragatic zure anayac zure contra gaizqui eguin badu, gaiztoraco bidea zuri emanaz, zoazquio, eta buruz-buru lolsa-eman edo erreprenditu ezazu; aditcen badizu, cere anaya irabaci dezu: baña enzuten ezbadizu, lagun bat edo bi artu itzatzu, bi edo iruc aguiria eman dezaten. Baldin oyei aditcen ez badie, Elizari esayozu: eta baldin Elizari ere aditu nai ezbadio, Jainco eguiazcoa ezagutcen ez duen fede gabecotzat artu ezazu. Eguiaz esaten dizutet, zuec lurrean lotutcen dezuten gucia, Ceruan lotua izango dala, eta lurrean ascaccen dezutena, Ceruan ascatura izango dala.

Orduan Pedro-c, Jesus-i ondora joanda, esan cion: ¿Jau-na, nere anayac cembat aldiz niri gaizqui eguingo dit, eta nic barcatuco diot? ¿zazpi aldiz? Jesus-ec erantzun cion; Ez zazpi aldiz, baita irurogueita amar aldiz zazpitan ere: esan onequin aditcera emanaz, beti-beti barcatu bear zayola. Gueró Jesus-ec esan cion: Ceruco Erreinuac dirudi bere servitzariai contuac artu nai ciezen Erreguea. Au asi zan contuac escaccen, eta aurqueztu cioten amar milla talentu, au da, irureunda amasei milloi eta zortcien milla erreal bezalatsu, zor ciozcan morroi bat. Zor andi au ce-requin quendu edo pagatu morroyac etcuelaco, Erregueac aguindu zuen, servitzari au, bere emazte, hume eta gauza guciac saltceco, eta ari zor citzayona enateco. Orduan morroyac, oñetan jarrita, escaccen cion, arren, lecu emateco, eta dana pagatuco ciola. Erreguea erruqitu zan, eta ez lecu-eman, ecen, zor gucia barcatu ere cion, eta joaten utci cion. Andie irten da, cijoala, topatu zuen, oni

beroni eun denario, au da, berreun erreal bezalatsu, zor ciozcan morroi-lagun bat, eta lepotic itsatsita, ilotceco zorian ceucala, esaten cion; Nere artcecoa edo zor didacana indac. Lagun zorduna auzpez jarri citzayon, eta escatcen cion, lecu piscabat emateco, eta gucia pagatuco ciola; baña eperic eman nai izan etcion, eta ichian sartu zuen, zorra quitatu arteraño. Beste lagunac eguimbide onequin chit atsecàbetu ciran eta nagusiari joan citzayozcan, cer guertatcen zan, salatcera. Nagusiac servitzari gogor oni otseguinda, esan cion; ¿Servitzari gaiztoa, nere artceco gucia nie barcatu nican; erregutu idacalaco; eta i ere ire lagunaz erruqitu bear ez intzacan, ni izaz erruqitu ninducan bezala ? Erregueác, osotoró aserretuta, borreroen escuetan ipiñi zuen, zor gucia quitatu arteraño. Nere Aita Cerucoac zuecquin ere au bera eguingo du, baldin norc bere-anayari utseguñac biotz-biotzetic barcatzen ezba-diozca.

Itzqueta onetan luzaró Cafarnaum-en jardunda, Jesus bere Apostolu eta icasleacquin Jerusalem-eronz abiatu zan.

8. §.—*Irurogueita amabi icasleen auquera.*

Bidean cijoala, amabi Apostolúac bere ondotic ez uzteagatic, irurogueita amabi icasle autu cituen, eta ingurumai-co errietara biñaca bialdu cituen, escubide andiac emanic, bere ordez leguea eracustera, esanaz: Lan asco, eta bear guilleac guichi dira; eta aguindu cien, dembora jaquiñean itzultceco. Egun oyetan jai-egun batean Sinagogan bere Apostolucquin sartu zan, eta Legue-jaquintsu batec galdetu cion ¿ea Ceruco Erreinua irabazteco cer eguin bear zan? Jesus-ec erantzun cion, Legueac eracusten zuena: au da, gauza gucien gañean cere Jaun eta Jaincoa amatuco dezu lenengo, eta cere burua bezala cere lagun urcoa gueró. Ori eguia da, jaquintsuac esan cion: baña jaquin nai litzaque lagun urcoa nor dan? Jesus-ec orduan an izesate edo parabola bat ipiñi cion.

Jerusalem-dic Jerico-ronz guizon bat cijoala, lapúrrac bidera irtenda, ceraman gucia quendu, elbarritu, eta erdi-

illa utciric, aldeguin zuten. Apaiz bat bide berean sortu zan, eta ecertan artu gabe bideari jarraitu citzayon. Levita bat berebat eldu zan, eta au ere, beguiratu gabe, aurrera joan zan. Samaria-co bat alderatu zan, eta eria icusi zue-  
nean, erruquitu citzayon; zauriac edo ebaquiac olio-ar-  
doacquin igortei, pañaquin lotu, eta astoan arturic, ostatu-  
rà eraman zuen, eta gañean contu eguin cion. Iru oyetatic  
¿cein uste dezun, lapurren escuetan eroritacoaren lagun ur-  
coa dala? Legue jaquintsuac erantzun cion, erruquitu za-  
na. Bada zoaz, eta ori eguizu, Jesus-ec esan cion, Eran-  
zuera onequin jaquintsua utci zuen, cer esan etciequiela.  
Itzqueta au aditcen cegoan emacume batec, deadar eguin  
zuen. Zorionecoa Zu sortu ciñan sabela eta edan ciñituen  
bulàrrac.

Fariseo eta jaquintsuac bacebilzan onelaco galde asco  
Jesus-i eguiten, itzetan atcitcen o.e zuten icusteco: baña  
Jesus-ec, Jaquinduri utsa dan bezala, etcien ecertan ere  
gaizqui esateco bideric ematen. Icusiric beren beste eguin  
al guciac alperric cirala, uste izan zuten, jan-otordua izan-  
go zala certain batean erortceco garairic onena, eta Fari-  
seo baten echean bazcari bat esqueñi cioten. Jesus-e cba-  
ciequin certaco zan; ala ere, aintzat artu cien, joan citza-  
yen, eta mayean ceudela zabaldu ciozcaten sare eta amu  
guciac deseguin ciezten, eta eracutsi cien, aguertu nai zu-  
ten ontasun gucia on-irudi uts bat baicic etzala, eta lotsa-  
turic utci cituen, lotsa corrac baciran.

### 9. §—*Amar sarnadunen sendatcea.*

Egun oyetatic batean, Judea-ronz cijoala, Samaria-co  
alderdian, amar guizon sarnati edo lepraz josi, irten citza-  
yozean; eta alderatu ere gabe, otseguin cioten: Jesus Mai-  
sua, guzaz erruqui zaitte. Jesus-ec esan cien: Zoazte eta  
Apaizai aurqueztu zalzaquiete; eta Apaizetara baño lenago  
garbituta gueratu ciran. Amar ayetatic bat, berez Samaria-  
rra, chit sendatua icusi zanean, itzulita. Jesus-i auzpeztu  
citzayon, eta oñetan muñ-eguitez eta esquèrrac ematez  
etzan necatcen. Orduan Jesus-ec galdetu cion: ¿Amar ez



dira sendatu? ¿Beste bederatciac non dira bada? ¿Etzan Jaunari norc esquerrac eman, atce bat baicic? Ea gora, oraindic auzpez cegoan Samaria-rrari Jecus-ec esan cion, eta zoaz; bada zure sinismenac sendatu zaitu.

Bazcari eta sarnati oyen sendatcearen ondoren laster, arestian aitaturaco irurogueita amabi icasle ayec, beren eguitecotic itzuli ciran, eta beren lanaren berriac Jesus-i eman ciozcaten.

10. §.—*Fariseo-en Jesus galdu naya.*

Jerusalen-eronz bidean Jesus bacerraiquion, eta jai batean Sinagogan sartuta eracusten edo predicatcen ciarduela, emezortci urtean gaño cetzan emacume bat sortu zan. Jesus-ec otseguinda, uqitu cion, eta bereala sendatu zan. Fariseoac etcioten lambide au Jesus-i onean artu, jai eguanean eguin zuelaco: baña bere jaquinduri ecin gueyago-coarequin ayen esan char eta aitzahui guciac ecereztu eta deseguin cituen. Jerusalen-en sartu zan, eta cerraizquionai beti eracutsi onac eguiten ciezten, eta guciac arritoric uzten cituen, Fariseoac au ecin eraman, eta guizonac bialdu ciozcaten, escuac ezartcera; baña oraindic etzan onetaraco ordua bete, eta Jesus-ec esan cienarequin, ecer eguin gabe, itzuli ciran. Bialtzalleac su vician jarri ciran etceramatelaco, eta batzarra eguin zuten, il bear zala erabaquitceco; baña Nicodemus Jesus-en alde irten, eta aldi onetan lambide ari gueroraco utci cioten, ez ordea, galtceco amuac botatceari.

Jesus bacebillen egunez Elizan eracusten, eta gatiez Olibete-co mendian otoitz eguiten. Goiz batean Elizan eracusten ciarduela, Escriba eta Fariseoac eraman cioten emacume, bere senarra ez beste batequin atcitu zutena. Gende guciaren erdian ipiñita, Jesus-i esan cioten: Moises-en legueac aguintcen du onelaco emacumeac arricatceco; ¿Zuc cer diozu? Jesus-ec itzic ere esan gabe, macurtu, eta beatzarequin lurrean escribatcen zuen. Fariseoac icusiric etciela ecer esaten, leyatcen citzayozcan, galdetuaz, ¿Ea cer cion? Jesus-ec burua jaso, eta esan cien: zuen artean

becatu eguin gaberie bada, arria bota bizayo; eta berriz ere macurtu, eta lurrean escribatceari cerraiguion. Jesus-en esana aditu zutenean, guciac batbanaca, irten ciran, emacumea gendearen erdian utcita. Orduan Jesus-ec emacumeari galdetu cion; ¿Zure salatiac non dirà? ¿Etzaitu inore condenatcen? Ez, Jauna, emacuméac erantzun cion lotsaturic eta malcoac ceriozcala. Ezta nic ere, Jesus-ec esan cion. Zoaz, eta ez berriz becatu eguin. ¡Cer Jesus-en biguntasuna, eta becatu irabazteco eresia!

11. §.—*Jesus-ec itsua arguitcen du.*

Guertaera onen ondoren Jesus, Elizatic irtenda, bidean cijoala, jayotzatic itsu cetorren batequin topo-topo eguin zuen, eta bere icasleac galdetu cioten: Maisua ¿norc becatu eguin du, au itsu jayotceco? ¿berac edo gurasoac? Jesus-ec erantzun cion; Ez onec eta ez bere gurasoac becatu izan dute: itsu jayo da, Jaincoaren mirariac aguertu ditecen. Eguna dan artean, bialdu ninduenaren lan miragarriac eguin bear ditut. Gaña badator, eta orduan inore ecin ecer eguin dezaque. Munduan nabillen bitartean, munduaren arguia naiz. Au esanda, lur pisca bat escuan artu, istua bota, eta oreac eguin zuen; eta ore onequin beguiac igortci ciozcan: eta esan cion: Zoaz, eta Siloe-co putzuan garbitu zaite. Itsua garbitu zan, eta beguiac arguitu citzayozcan.

Mirari onen otsa bereala zabaldu zan, eta Escriba eta Fariseo-ac aserre vician sartu ciran, eta guezurtatu nayeze cebiltzan, baña alperric: cembat eta nayago ucatu, ambat gueyago aguertcen zan. Alde gucietic gendeac cijoazquion icustera, elcarri ciotsatela: ¿au ez da eche ondoetan esquean egoten zana? Bai, batzuec cioten; ez, aren anteco bat da bestéac cioten: baña itsuac deadar eguiten zuen ni naiz; eta bera icusitacoan, sinisten zuten. Baña. ¿nola beguiac arguitu zazquitzu? galdetcen cioten. Jesus deritzan guizon arc, erantzuten cien, loya eguinda, beguiac igortci cizquidan, eta esan cidan: Siloe-co putzura zoaz, eta garbitu zaite. Joan nintzan eta orain dacus. Fariseoetara

eraman zuten, eta aitormen bera eguin cien. Jai-eguna zan Jesus-ec sendatu zuenean; eta Fariseoac emendic artcen zuten Jesus-gatic gaizqui itzeguiteco bidea, esanaz, Jaincozcoa danac jai-egunic autsi ecin dezaqueala. Beste ascoc berriz cioten: ¿ea guizon gaizto batec alaco mirariac eguin citzaquean? Despita onetan ciardutela, berriz ere itsuari galdetu cioten: ¿ea cer ceritzan? Profeta da erantzun cien Gueró gurasóai galdetu cieten: ¿ea ayen seme itsujayoa hura zan? ¿nola bada orain dacust? Guc badaquigu, erantzun zuten, au gure semea dala, eta itsu jayo zala: baña ezdaquigu, orain nola dacustun; berari galde: urteac badiu. Gurasoac onela itzeguiten zuten. Juduai bildur citza-yeztelaco, ceren aguindua ceucaten, Jesus aitortcen zuena, Sinagogatic bota cedilla. Itsu arguituari gueró deitu cioten eta eguiac esan cieztelaco, beren artetic quendu zuten. Orduan Jesus-ec icusita, galdetu cion: ¿Jaincoaren Semeagan sinisten dezu? ¿Cein da ordea, itsuac erantzun cion, cein da, nic argan sinistu dezadan? Jesus-ec esan cion: Icusi dezu, eta zurequin itzquetan dagoana da. Sinisten det, Jauna, erantzun cion, sinisten det, Jaincoaren Semea zaitudala; eta auzpez jarrita adoratu zuen.

12. §.—*Fariseoen Buruaren eheco bazcaria.*

Biaramonean Jerusalem-dic irten zan, eta egun guichi batzuetara, Fariseo-en Buruac bazcaltcera echera eraman zuen, ecertatic eldu ote citzayoquean, icusteagatic. Eriac bereala ciequiten, Jesus nondic nora cebillen, eta ur-miña cencan guizon bat joan citzayon, bazcaltcen zuen echera. Jai-eguna zan, eta esanquizunic izan elcezatzen, maicoai galdetu cien: ¿Ea jai-egunean sendatcea cillegui zan? Gu-  
ciac elcarri beguira jarrita, etcioten itzic erantzun. Orduan gañoa artu, sendatu, eta bialdu zuen. Gueró Fariseoai esan cien: ¿Zuetatic norc, asto edo idi bat jayean putzura erortcen bazayo, bereala atera gabe uzten du? Etciequiten cer erantzun, eta lotsaturic guelditu ciran. Jesus-ec lambide onequin eracutsi cien, mirari-eguiteac jai-egunari etciola ecer quentcen, lenago ere bein baño gueyagotan esan izan cien bezala,

Eche onetan cegoala, beronequin batean afaltcera deituac izan ciranai, iguerri cien, mayean lecu goenenecoac artcen cituztela, eta oyetatic bati; bestéac aditu cezaten, esan cion: Eztayen batzuetara otseguiten zatzunean, ez beñere mai-buruco eserlecua artu, zu baño lenagocoren bat an arquituta, zu eta au, ezlayetara eraman zaituztenac guelan sartcen danean, esan ez dizazun; oni lecu-eguiözu; eta atceneco aulquirá lotsa gorrian jatsi bearrean icusi etzaitecen. Contrara, deitua ceranean, Zoaz, eta atceneco aulquian eseri zaitte, eraman cindaenac, etorrita, esan dizazun, adisquidea, gorago zoaz; eta orduan, gucien aurean onratua izango cera: bada goratcen dana, beeratua izango da, eta beeratcen dana goratua.

Gueró berriz eztai-guilleari itza emanda, esan cion: bazcari edo afari bat ematen dezunean, ez dizayezula deitu zure adisquideai, ez zure anayai, ez zure aideai, ez zure auzoai, aberatsac badira; oyec ere beren aldian zuri otseguinta ordaindu etzaitzaten; ezpada, janen bat eman nai dezunean otseguin zayezu beartsu edo pobreai, argal edo ecinduai, errenai eta itsuai, eta zorionecoa zu, ceren oyec zuri truquean cer emanic ez duten; eta justuer viztueran saria emango zatzu. Jesus-ec emen ez ditu gaizqui artcen aide eta adisquidéac elcarrequin maitaró eguiten dituzten eztai-jan neurrizcoac, eta billera onac, ezpada echeen ondagarri eta calteco diran gueyeguicoac.

Onen ondoren Jesus-ec ipui au esan cien: Guizon batec afari andi bat ipiñi zuen, eta ascori deitu cien, edo convidatu cituen. Afal-ordua zanean morroi bat bialdu zuen, deituai esatera, cetocela, bada gucia prest edo ipiñia cegoala Guciac asi ciran aitzaquiac ematen. Lenengoac esan cion: baserri bat erosi det, eta au ecustera joan bearra daucat; ontzat, arren, eraman zadazu. Bigarrenac esan cion: bost uztar-idi erosi ditut, eta oyen probara, edo nola eguiten duten icustera noa: ontzat, arren, eraman zadazu. Besteac esan cion: emaztea artu det, eta ecin noaque. Morroya echera itzuli zan, eta nagusiari esan cion, cer guertatu zan. Orduan nagusiari esan cion, cer guertatu zan. Orduan nagusiác, aserre vician sartuta, esan cion: Errico plaza eta

carricaetara bere-bereala zoaz, eta ecarzquidazu aguiri diran beartsu, argal, itsu, eta erren guciac. Morroya joan zan; topatu guciac echera eramanda, mayean ipiñi cituen eta nagusiari esan cion: Zuc aguindua eguin det, eta oraindic toqui gueyago ere badago. Nagusiac esan cion: Vide eta estrataetara zoaz, eta aguiri diran guciac sarerazo itzatzu, echea bete dedin. Eguiaz diotsuet, lenago deitutaco guizonetatic batec ere nere afaria ez duela uquituco.

Orra cer epai izugarria Jesus-ec guizon afari emalle aren aotic eman zuen, bere dei amoriotsuai belarriac ichita, leguea cintzo ez gordetceco aitzahui billan dabilzan becatarien contra. Baserria erosi zuenac andinayecoac adierazten ditu; uztar-ididunac diruzaleac, eta ezconduac aragui-coi edo lujuriotsuac, iru gaitz Jaunaren Eztai beticoetan eseri gabe cembat anima gaño uzten dituztenac.

### 13. §.—*Seme ondatzallearen Parabola.*

Jan ondoan Jesus echetic irten, eta bere icasleacquin Galilea-ronz joan zan. Gendéac bereala inguratu zuten, eta asi citzayen, esaten, cein poz andia becatari baten ondutcearequin Jaincoac arteen zuen: eta au obeto adierateco, beste gauza ascoren artean esan cien, *Seme ondatzallearen Parabola* edo ipui au. Guizon batec bi seme cituen eta gazteena aitari senipartearen esque jarri citzayon. Aitac bi anayai, nori bere zatia eman cien eta gazteena berearequin urrutietara joan, eta gauza guciac ondatu artean, gaiztaqueriatic gaiztaqueriara ibilli zan. Dembora onetan, alderdi ayetan gosete andi bat sortu zan, eta seme ondatzalle oni ere uquitu cion. Bere burua ecer gabe icusi zue-nean, jango bazuen, morrontzan jarri zan, eta nagusiac cherri-zai ipiñi zuen. Ain izaera erucarrira iritsi zan, non cherriai emandaco ezcurrac ere pozic jango cituquean; baña etcion iñore ematen, eta berac ere escuric etzuen, cherriai quenduta, jateco. Contuan jauci zan, eta cion: ¡Cembatec nere aitaren echean oguia naroró jango dute, ni emen goseac iltcen nuncan bitartean! Nere aitari joango natzayo, eta esango diot: Aita, gaizqui eguin det ceruaren

contra eta zure aurrean. Ez naiz zure semetzat iduquitceco diña: zure morroitzat artu nazazu. Au esan, eta bideari equin cion. Echera alderatu ere baño lenago aitac icusi zuen. Aita onari, semea erruqui artan icustearquin, biotza erdiratu citzayon, eta bidera irtenda, besoac egotci, eta laztandu zuen. ¡Ai, ene aita maitea! Seme lotsaz beteac, malcoac ceriozcala, deadar eguin zuen: ¡ai, ene aita biotzecoa! gaizqui eguin det Ceruaren contra eta zure aurrean. Zure semearen icenic ere mereci ez det. Aita amorioz beteac bereala morroyai esan cien: Zøazte, eta soñecoric onena ecardazute: janci, erraztuna beatzean sartu, eta oñetacoac ipiñi zayozcazute. Chal guri-guri bat il, eta bazcari prestatu ezazute; bada, seme au illa zan, eta viztu da; galdu zan, eta aguertu da; eta guciac mayean jaten jarri ciran.

Seme zarrena garai onetan campoan zan, eta eche-ondoratuta, ain poz andico soñuac aditu cituenean, morroi bati galdetu cion, ¿ea cer zan? Erantzun cionean, cer guertatcen zan, aserretu citzayon, eta echean sartu ere nai etzuen baña aita oartu zanean, esan cion, arren, sartu cedilla. Semeac orduan bere espac aguertu ciozcan, esanaz: Onembeste urtean eguin dizut aguindu gucia, ecertan ere utseguin gabe, eta anchume bat egundaño eman ez didazu, nere adisquide eta lagunacquin arratsalde-gosari bat gozoró eguin dezadan: orain etorri zatzu seme gaizto andre galduacquin bere gauza guciac ondatu dituen ori, eta chal guicen bat ilerazoric, ongui-etorria eguin diozu. Beguira, ene semea, aitac esan cion: zu beti nerequin zaitut, eta nere gauza guciac zureac dituzu: bada, chit videzcoa da, guc bazcari bat eguin eta poztutcea etorri zacunean zure anaya ilda cegoana, eta Viztu dana; galdua zana, eta aguertu dana.

Ara emen, becatari baten irudi mene-menetacoa. Seme ondatzalleac adierazten digu, becatuan sartu eta itsututaco becatari, eceriere beguiratcen ez diona, bere gogo gaiztoac asetcearren. Seme aitagana itzuliac eracusten digu, becataria, bere becatuac ezagutu dituenean, cer biotzequin itzuli bear dan, eta cein ondo Jaincoac artua izango

dan. ¡Berri chit pozgarria becatariric andientzat erel Jaincoa, alabañan, prest daucate, eguiaz damututa badijoaz-quo, beso zabalacquin artceco.

14. §.—*Aberats sayearen parabola.*

Fariseoac ondasunetara ere chit etciñac ciran, eta Jesus-ec gai onetan ere eracutsi nai izan cien, cein gaitzqui eguiten zuten, diru-zaleeguiac izatea; eta esan cien *Aberats sayearen* parabola edo ipui au. Guizon aberats bat zan eun me-mez eta sedaz chit ederqui apaindutcen zana, eta mai guciz ona egunoró ceucana: eta escale bat, berriz, Lazaro ceritzana, zauriz alde gucietatic josia, aberats aren eche atarian egoten zan, aren maico apurrac jango cituqueanean: baña inore ecerematen etcion: chacurrac. bacar bacarric, cetozquion, eta zauriac miazcatcen ciozcaten. Ezcalea il zan; eta Ainguerúac Abraham-en ondora eramian zuten. Aberatsa ere il zan; eta infernura amildu zan. Emengo su garretan cetzala, aberats zorigaiztoco onec ceruronz beguiratu zuen, eta Abraham eta onen alboan Lazaro icusi cituen. Orduan deadarrari eman citzayon, esanaz: Aita Abraham, nizaz erruqui zaite, eta Lazaro bialdu zadazu, bere escuco beatza urean bustita, nere mingaña cerbait oztu dezan; bada, emen quiscaltcen natza. Abraham-ec erantzun cion; Oroitu zaite, zure vician ondasunac izan ciñituela, eta Lazaro-c nequeac: orain, emen Lazaro atseguñetan dago, eta zu or garretan. Onezaz gañera, zuen eta gure artean leice andi, emengoac orrerá edo orcoac onará aldatcea eragozten duena dago. Au ecin bada-teque, aberatsac esan cion, benic-bein, Aita Abraham, arren, Lazaro bialdu ezazu nere aitaren echera; bada bost anaya ditut, eta esan dizayen emen cer guertatcen dan, ayec ere suzco lecu onetara ez datozen. Moises eta Profétac badituzte, Abraham-ec erantzun cion, aditu bizayete. Aberatsac esan cion: ez Aita Abraham: baldiñ ildacoetatic bat badijoaque, esatera, penitencia eguingo dute. Moises eta Profetai aditcen ez dietenac, Abraham-ec erantzun cion, ilda viztulacoari ere ez diote adituco.

15. §.—*Fariseo eta Publicano erregutzalleen Parabola.*

Jesus etzan aspertcen cerraizquionai ondo eracusten, eta lambide onetan ciarduela, Jaunari erregutceco eta escatceco dan premiaren gañean itzeguin cien. Lenago ere gai bera ascotan jo izan zuen; baña esan-al gucia gueyegui etceritzan, Esan cien; beingoan eta bitan iritsi ez arren, etsi bear ez dala, eta ez aspertu ere, bada, escatcen zayona ematea cembat aldiz luzatcen badu, gure onegatic dala. Esan ere cien, umiltasun andiarequin escatu bear zayola; eta Fariseoac berez ain arroac izanic, esan cien ipui au.

Bi guizon Elizara joan ciran erregutcera, bata Fariseoan, eta bestea Publicanoa. Fariseoac, zutic jarrita, beregan cion: Jauna, esquerrac ematen dizquizut, ez naizalaco beste guizon lapur, bidegabekeriac eguiten dituzten, beren Vici-laguna ez bestearequin dabilzanen antzecoa, Publicano au dan bezala. Astean bi aldiz barautcen det; amarrenac osoró eguiten ditut. Publicanoa, berriz, urrutitic beguiac jasotceco ere biotz gabe, bular-joca cegoquion, esanaz: Jauna, cupidaz beguira zadazu, ni becatari andi oni. Orain, bada, Jesus-ec esan cien: mene-menetan diot, Elizatic echera Publicanoa joan zala garbitua, eta ez Fariseoa, ceren goratcen dan guizona, beeratua izango dan, eta beeratcen dana goratua.

16. §.—*Zaqueo-ren umiltasuna.*

Joan-etorri oyetan Jesus cebillela, Zaqueo ceritzan Publicanoen andizqui chit aberats batec Jesus icusi nai zuen; baña guizon chiquia zalaco, ecin zuen. Jesus-equin cebillen gendearen aurretic joanda, basa-picu batera igo zan, Jesus andic igarotcean, icusteco. Jesus alderatu zan, eta picu-gañean icusi zuenean, esan cion: Zaqueo, beera atozquit; bada gaur zure echean ostatuz guelditu bear naiz. Zaqueo bereala jatsi zan, eta poz andiarequin echean artu zuen. Juduac bereala gaizqui-esaca jarri ciran, Jesus Pu-



blicano baten echean sartu zalaco: baña onetaraco bideric izan etcezaten, Zaqueo zutic cegoan, bere umiltasun eta beeratasuna adierazteco; eta cion: Nere ondasunen erdia bearren daudenai ematen diet; eta iñori calteric eguin badiot, lau gueyagorequin ordaintzen det. Orduan Jesus-ec esan cion: Eche onelara ona gaur etorri da, ceren au ere Abraham-en umea dan; bada, guizonaren Semea etorri da, galdua billatcera eta salvatcera.

### SEIGARREN IRAGURGAYA.

#### 1. §.—*Jerusalen-dic Betania-ra Jesus-en joanera.*

Guertaera oyen ondoren bereala, Jerusalem-era joan, eta Eliz-pestac ciralaco, egun batzuec emen igaro cituen, gueyago eta gueyago eracusten; baña alde batetic asco beretcen bacituen, bestetic hura ecin icusi zutenac ere, endemas Escriba eta Fariseoac, su vician sartcen ciran, eta arricatceco asmoac artu ere bacituzten; baña Jesus ec oraingoan ere etcien galtcen utci; eta Jerusalendic irtenda, Jordan-en jayotaldeco Betania-ra joan zan, eta iru illabete urrean emen eguin cituen, bere vicia emateco ordua betezai. Bitarte onetan joan citzayozcan Jerusalem-go asco, bere eracutsi on eta mirariacquin arguita cituen eta sinistu ciotenac. Oyetatic gueyenac San Juan Bauplista-ren icasle izanac ciran, eta Jesus-gana osotoró jarriac, beren Maisu zanac Jesus-gatic esandaco gucia guertatcen zalaco. Emen ere baciardun eriac sendatcen, eta eracutsi onac ematen: baña asmo garbico ascoren artean, ecin icusi zuten Fariseoac ere inguratcen citzayozcan, nola certam-baitcan atcituco ote zuten, beste eguiteco gabe.

Asmo onequin bereala itceguin cioten, batec bere emaztea noiz-nai uztearen gañean, esanaz, Moises-ec ere escualdi au eman izanzuela. Jesus-ec erantzun cien, ayen biotz gogorrai beguiratuta, escubide au Moises-i emanerazo citzayola; baña ezcontza guizonen asieratic beticoa zala, eta aurrera ere ala bearco zala, vici-laguna beñere uzteco escu gabe: bada, cion, bein Jaincoac bat eguin cituenac, guizónac ecin banacatu ditzaque.

Gueró aur batzuec eraman ciozcaten, escuacquin uquitu, eta oyecgatic erregutu cezan, Apostolúac aur-zayen contra aserretu ciran, eta alceratu nai izan cituzten: baña Jesus-ec lambide au etcien Apostoluaiontzat artu, eta ezan cien: Aurrai utci zayezute. datozquidan; bada Ceruetaco Erreinua oyena da: eta besarcatu, bedeinatu cituen, eta bialdu. Gueró aurren erru-eza edo inocenciari cembat nai cion adierazteco, esan cien: Nere Evangelioa, aurcho battec bezain argui eta garbi artcen ez duena, Jaincoaren Erreinuan sartuco ez da.

Egun oyetatic batean, erri batetic bestera cijoala, gazte aberats bat oñetan belaunicatu citzayon, eta galdetu cion: Maisu ona, ¿cer eguingo det belico vicitza irabazteco? Ceruan sartu nai badezu, Jesus-ec erantzun cion, aguinduac gorde itzatzu. ¿Cer aguindu? gazteac galdetu cion. Inor ez dezu ilco, Jesus-ec erantzun cion; inoren ezcontzaric ez dezu ostuco; ez dezu ez danic inorgatic esango; ez dezu loituco; ez dezu bide ez danic eguingo; zure aitaamac onratuco dituzu; eta lagun urcoa, cerori bezala maite izango dezu. Ori gucia beti-beti eguin det. ¿Cer gueyago eguin bear det? Jesus-ec beguiratu cion, eta amatu zuen, Evangelio Santuac dio. Bereala esan cion: ohea izan nai bacera, zoaz, dezun gucia saldu, beartsuai eman, eta nerequin atoz. Itz oyecquin gaztea estutu zan, eta biotz chit eroriarequin aldeguin zuen, ceren ondasun andien jabe zan. Gazte ura, ez dirudi, ain illa gueratu zala, bere ondasúnac usteco miñez, ezpada onetaraco bear adiña indarrequin arquitcen etzalaco. Onegatic Jaunaren aurreraco cer icusiric etzuen, ceren escatcen ez duen vicitza onena, ezpada ona; eta bere ondasúnac ondo eta zucen erabiliaz, au eguiteco asmoarequin, guciac utcita, Jesus-i jarraiceco adiña indar arquitcen elcitzayon ezqueró, bere eche-  
ra itzuli zan.

## 2. §.—*Aberastasunen gañeco itzqueta.*

Jesus-ec emendic oña arturic, ondasunen, eta oyec ceuzcatenen gañean itceguin cien. ¡Cein gaitz izango da abe-

ratsac Jaincoaren Erreinuan sartzea! esan cien. Icasleac esan onequin arritu ciran; baña Jesus-ec bere itzquetari baciardun, esanaz: Gamein bat jostorrazaren beguitic igarotcea errazago da, aberats bat Ceruetaco Erreinuan sartuco dan baño. Icasléac gueyago arrituric, elcarri ciotsaten ¿Nor saluatu al-diteque? Orduan Jesus-ec adierazo cien, Jaincoac aberatsari eracutsico diola, ondasunacquin cer eguin bear duen, eta oyetan biotza gueyegui sartu gabe, nola vici bear dan, ayec betico ondameneraco bideac izan ez daquizquion.

Pedro besteac baño beti viciagoac esan cion: Jauna, ara emen gu, gauza guciac utcita garraizquizonoc: ¿guzaz cer izango da? Mene-menetan diotsuet, Jesus-ec erantzun cien, niri jarraitu zatzazquitenoc, munduaren atcenean guizonaren Semea bere gloriaco jarlecuan esertcen danean, zuec ere amabi aulqitan eserico cerate, Israel-co amabi Tribuac juzgatceco. Eta bere echea, edo senidéac, edo gurasóac, edo emaztea, edo seméac edo lur-bazterrac nigatic uzten dituenac, baten truque eun artuco ditu, eta gueró betico vicitza.

### 3. §.—*Languilleen parabola.*

Juduac beren buruac ontzat, eta gañeraco guciac gaiztotzat iduquitceco griña zuten, eta Jesus-ec parabola au esan cien. Ceruetaco Erreinua, goicean-goiz bere mastiraco languilleen esque irten zan echeco-buruaren antcecoa da. Languilleac arqutu cituenean, bacoitzari erreal biña esqueñita, bearrera bialdu cituen. Berriz ere bederatciac aldean irten zan, eta plazan gueldi arqutu cituenai esan cien: Nere mastira zoazte, eta bidezcoa dana emango dizutet. Berriz eta berriz ere amabiac eta arratsaldeco iruracinguruan irten zan, eta berebat esanda, bialdu cituen. Gueroago ere irten zan, eta plazan topatu cituenai esan cien ¿Emen egun gucian alperquerian certan zaudete? Erantzun cioten: Nore otseguñic ez degulaco, gaude: zoazte, bada, zuec ere nere mastira, esan cien.

Eguzquia sartu zanean, nagusiác mayordomoari aguin-

du cion, languilleai otseguin eta atcenecoetatic asita, lenengoetarañoco guciai beren aloguera edo jornala emateco. Atcena joandacoac erreal-bico bana artu zutenean, lenengoac uste izan zuten, aloguera andiagoa emango cietelabaña guciac berdin eguin cirala icusi zutenean, nagusiaren contra gaizqui-esaca cerasaten, esanaz; Atceneco oyec lanean ordu-bete baicic eguin ez dute, eta egun gucico nequea eta eguzquia artu degunocquin bat-eguin dituzu. Nagusiac bati erantzun cion: Adisquidea, bear ez danie, eguiten ez dizut. ¿Erreal-bico bat emateco gueratu ez guinñan? zuc cerea ar- ezazu, eta zoaz; bada nic oni zuri aimbat, eman nai diot. ¿Edo nerearequin nai dedana eguin ez dezaquet? ¿edo zure beguia gaiztoa da, ni ona naizalaco? Atcenecoac lenengo, eta lenengoac atceneco izango dira: deituac asco dira, esleituac, ordea, guichi. Itz oyec Juduentzat itz icaragarriac ciran, eta gu cristañentzat ere berebat dira, eta eguin-al gucian necatcera ipiñi bear gaituzte, gure salvacio, ain galbide andian dabillena, irabazteco.

4. §.—*Jesus-ec bere eriotzaren gañean Apostoluai itzeguiten die.*

Jesus-en ilbearra urreratcen zan; eta Betania-n bi illabete eta erdi, arestian aitatu diran guertaeraetan eguinda, artu zuen Jerusalem-eronz abiatceco asmoa. Uri doacabe onen icenac Apostolúac chit izutcen cituen, ceren gogoan ceucaten, lenagoco aldietan ere Jesus cein gaizqui icusia eta artua izan zan. Jesus-ec, bada, bildur oni iguerritcen cion, eta cerraiquion gende artetic Apostolúac ateraric, iñoiz lenago ere bezala, esan cien: Ea, Jerusalem-era bagoaz, eta guizonaren Semeagatic Profétac esandaco gauza guciac eguingo dira. Ipiñia izango da Apaiz-buruen, Escribe eta Fariseoen, eta errico zarren escuetan, ceñac erabaquico dute, il dedilla: gueró Gentillai emango diete, il deza ten. Oyec berriz isecatu, chistuz bete, ceatu, gurutcean josi, eta ilco dute: baña irugarren egunean viztuco da.

Juduac uste zuten, Mesias lurrera cetorreanean, mundu gucico Erreguetzat jarri, eta erri guciac mendean iduquico

cituela; eta Apostoluac ere, oraindic uste berean ceuden, eta Jesus-i aditu ciotenean, ilda irugarren egunean viztucó zala, pensatu zuten erreinaldi andi bura orduan asico zala. Au gogoan arturic, Juan eta Santiago Apostoluen ama bere bi semeacquin Jesus-i urreratu citzayon, agur eguiñaz eta cerbaiten esque. ¿Cer nai dezu? Jesus-ec galdetu cion. Jauna, amac erantzun cion: nic nai dedana da, Zuc nere bi seme oyec zure Erreinuan bata escayan, eta bestea ezquerrean artu ditzazula. Jesus semeai beguira jarri citzayen, eta esan cien: Ezdaquizute ceren esque zaudeten. Edan dazaquezute nic edango dedan edacaya edo caliza? Esaten bacien bezala, nic eramango ditudan oñace eta miñac eramateco adiña indar eta biotz izango dezute? Bidezaguque, erantzun cioten. Bai, Jesus-ec esan cien: Nere caliza edango dezute, baña nire ezdagoquit nere escuyan edo ezquerrean artcea, nere Aitac prestatuta daucaenai baicic. Bi ayen contra beste amar Apostolúac aserretu ciran; baña Jesus-ec esan cienean guizona cein argala eta ezjaquiña dan, eta nola, bear ez diran gauza asco, escatcen dituen, baquetu ciran.

5. §.—*Itsu bateu arguitcea.*

Itzqueta onetan bidean cerbait luzatu zuten, eta Jericóra alderatu zanean, bide ondoan esquean egoten zan itsu batec gendeari galdetu cion. ¿Or cer dezute? Jesus Nazaret-ecoa dijoa, erantzun cioten, Itsuac bereala deadarrari eman cion: Jesus, David-en Semea, nizaz erruqui zaitte. Aurretic cijoacenac isilerazo nai zuten; baña itsuac gueroa-go eta ots andiagorequi esaten zuen; Jesus, David-en Semea, nizaz erruqui zaitte. Jesus guelditu zan, eta itsuari aurrean artuta, galdetu cion: ¿Cer nai dezu nic eguin dizazudan? arguitcea, Jauna, erantzun cion. Icusi ezazu, Jesus-ec esan cion, zure sinismenac sendatu zaitu. Itsua arguitu zan, eta Jesus-i besteen artean jarraitu citzayon.

ZAZPIGARREN IRACURGAYA.

1. §.—*Lazaro-ren gaitza eta eriotza, eta viztutcea.*

Jesus Jerico-n sartu zan, eta errian eta auzoetan bere eracutsi onac ematen cebillela, gaztigatu cioten, Marta eta Maria-ren anaya Lazaro, Betania-n chit gaizqui cetzala. Jesus-ec Lazaro chit maite zuen, eta albista au artu zuenean esan zuen: gaitz au iltceco miña ez da; ezpada Jaincoaren gloriaraco, eta beraren bitartez Jaincoaren Semea goratua izan dedin. Baña Jesus etzan beste egun bian Jericó-tic Betaniaronzaco irten, eta Lazaro ordu guichiren buruan il zan.

Betania-ronz abiatuta, bidean cijoala bere icasleai esan cien: Lazaro gure adisquidea lo datza, eta Ni esnatcera noaquo. Lo badatza, Apostolúac erantzun cioten, gaitzic ez dauca. Jesus-ec berriz esan cien: Lazaro il da, eta pozic nago, an ez nintzalaco, sinistu dezazuten.

Betania-ra urreratcen zan, jaquin zuenean illic eta lurpe-turic, lau egun cirala. Progu-echean Judu asto batu ciran, Marta eta Maria-ri damuan edo miñean laguntcera, eta anaya aztuerazotcera. Marta-c lenengo jaquin zuen, Jesus cettorrela, eta bidera irtenda, negarrez esan cion: Jauna, Zu emen izan baciña, gure anaya etzan ilco: baña, badaquit, Zuc escatu gucia Jaincoac eguingo dizula. Zure anaya viztucoda, Jesus-ec esan cion. Badaquit, Martac erantzun cion, badaquit, il guciac viztucoda diranean, nere anaya ere viztucoda. Viztutcea eta vicitza Ni naiz, Jesus-ec esan cion, eta Nigan sinisten duena, il bada ere, viztucoda. Nigan vicitcen dana eta sinisten duena, secular ez da ilco: ¿Au sinisten dezu? Bai, Jauna, Marta-c erantzun cion: sinistu det, Zu cerala, Jesu-Cristo, Jainco viciaren Seme mundura etorri cerana, Zugan sinisten dutenac salvatcera.

Maria-c etciequien, Jesus cettorrenic, eta Marta-c isillic esan cionean, Jauna an zala eta deitcen ciola, cegoana cegoan lecuan utcita, Jesus-i bereala bidera joan citzayon, eta oñetan auzpezturic, negarrez esan cion: ¡Ay Jauna, zu emen izan baciña, etzan nere anaya ilco. Echera poztutce-

ra joan citzayozcan Juduac, icusi zutenean echetic bat-ba-  
 tetan irteten, ondoren jarraitu citzayozcan, gorputz-illa ce-  
 tzan toquira negar eguitera cijoalacoan: baña oyec icuste-  
 ra orduco, hura Jesus-en oñetan auzpez celzan, eta nega-  
 rrari eman cioten. Jesus-ec bata eta besteac negarrez icu-  
 si cituenean, barruna illundu citzayon, eta nastu zan. ¿Non  
 ipiñi cenduten? Jesus-ec galdeiu cien. Atoz, Jauna, eta ara  
 emen, erantzun cioten. Guciac obira edo sepulturara joan  
 ciran, eta Jesus-ec icusi zuenean negar eguin zuen. Or-  
 duan Juduac esan zuten; Ara cembat nai cion. Baña baci-  
 ran esan zutenac: jayo!zatic itsu cetorrena arguitu zuen  
 onec ¿ecin cezaquean bere adisquide au viciric gorde?  
 Esan onequin Jesus-en biotza are gueyago il zan: bada itz  
 oyetan, dirudienez, esan nai zuten, edo itsua etzuela argui-  
 tu. edo Lazaro-ri vicia gordetceco escubideric etzuela, eta  
 naiz batarequin, naiz bestearequin, Jesus-i bidegabeque-  
 ria andia eguiten citzayon.

Jesus, bada, joan zan obira, ceña zan lur-zulo arri andi  
 batequin estalitaco bat. Arri ori quendu ezazute, Jesus-ec  
 esan cien. Jauna, quiratsa dario, Marta-c esan cion; bada  
 lau egun dira il zala. Marta, Jesus-ec erantzun cion, ¿ez di-  
 zut esan, sinisten badezu, Jaincoaren gloria icusico dezu-  
 la? Orduan Jesus, beguiac ceruronz ipiñiric, Aitari itzegui-  
 ten asi citzayon: Aita nerea, esquerrac ematen dizquizut,  
 aditu didazulaco. Baniequien, bai, beti aditcen didazula;  
 baña esan det, inguratcen nautenac sinistu dezaten, Zuc  
 bialdua naizala. Guciac eecusten lur-zuloan arrac gora-bee-  
 ra cebilzquion gorputz-illa, eta cer guertatuco ole zan, ja-  
 quin nayez ceuden. Jesus-en icasle, mirariac icusten ain  
 oituac, lenagoco gucien azcarria icusteco ustea zuten. La-  
 zaro zanaren bi arrebac ere larri ciran. Adisquidéac, icusi-  
 co zana, lembait-len icusi nai zuten. Orduan Jesus-ec ots  
 andi batequin esan zuen: *Lazaro, atoz campora;* eta be-  
 realaše obitic irten zan. Escu-oñac lotuta ceuzcan, arpeguia  
 zapi batequin estalia, eta gorputza maindire batean bil-  
 dua. Jesus-ec aguindu zuen, ascatceco, eta Lazaro zutic  
 osasun betean jarri citzayen.

Beguirra ceuden judu ascoc sinistu zuten, Jesus Mesias

eguiazcõa zala, eta Escriba eta Fariseoai joan citzayezten, Lazaro nola viztu zan, eta Jesus-ec onequin eguindaco guci-gucia, esatera. Berri au bazan, Escriba eta Fariseoac, beneric izatera, ezagüeran sartceco adiña; baña siuisgogorreguiac ciran, eta Jesus-en contra su viciagoác artu cituen.

2. §.—*Jesus iltceco osmoác artcen dira.*

Icusiric egunoró eta arguiró eguiten cijoan mirariac ecin ucatu citezquela, eta bildurturic gueldi utci ezqueró dembora guichiren epean gende guciã beretuco zuela, batzarrean bildu ciran, lembaitlen escuac egotci eta gajtceco bideac artcera. ¿Certan gaude? batzarrean elcarri esaten cioten. Guizon onec mirari asco eguiten ditu, eta paquean uzten badiogu, guciac sinistuco diote, eta Erroma-rrac etorrico zazquigu, eta gure bazter eta gende gucia artuco digute. Dembora onetan Anas-en sui Caifas Apaiz-nagusi eguiten zuenac, esan cien. Zuec ecer ez daquizute. Convenida, guizon bat iltcea, erria-gatic eta gende gucia galdu ez dedin. Itz oyequin aldeaurrez esan, edo asmatu zuen, nola Jesus gu guciogatic ilco zan. Batzar onetan, bada, erabaqui zan, Jesus il cedilla, eta aguindu zuten, Jesus nondic nora cebillen ciequienac, Batzar, edo Tribunalari berrieman cizayola

Jesus bitartean, Lazaro, Marta, eta Maria-ren echetic irlanda, egun-erdico bidean, Efren-go Urira joan zan. Emen eguin cituen astelenetic ostiral arteco egunac, bere icasleai eracusten, eta Jerusalem-en igaroco ciran gauza arrigarrac icusteco prestatcen. Ostiralean osterá Betania-ra itzuli zan; baña etzan Lazaro-ren echean larumbat-iliunabarreraño sartu. Iru senide zorioneco oyec beren Jaun eta Onguillea, beren artean berriró icusi zutenean, cer eguin etciequiten, artutaco mesede andi ari cegozquion esquer onác emateco. Bereala afari eder bat prelatu zuten Simon-Lepratsuaren echean, eta mayean jarri ciran Jesus bere Apostoluacquin, eta Lazaro viztu-berria, icustera joan citzayozcan bere adisquide ascorequin. Mai-servitzoan, beti bezala, Marta cebillen, eta Maria aurqueztu zan libra bat



oquendu garbi, ontci eder batean zuela. Jesus-i aurrean auzpeztu citzayon; oñac oquenduz aurrena igortci, eta gueró bere buruco illearequin leortu ciozcan, eta eche gucia usai gozoz bete zan.

Lambide au gaizqui artuco zuenic etcirudien izango zala, batezere noiz eta nori eguiten citzayon, beguiratu ezqueró; baña izan zan bat, eta aa Apostoluen artean, ontzat eman etzuen. Judas Iscariote Apostolu esquer gabeco saldu arc esan zuen: ¿Certaco oquendu au salduta, artuco ciran irureun erreal-bico beartsu-pobreak eman etzayezte? Judas-ec ceraman Jesus eta Onequin cebilzanen artu-eman gucia; eta iñoren gauza zalea izanic, aren escuetaratcen zanetic cerbait isillic beti gordetcen zuen, eta orain ere griña berac espa hura ateraerazo cion, ez beartsuai laguntceco gogoác. Jesus, Judas-ec ondo edo gaizqui itzeguin zuela erabaqui gabe, Maria-ren alde irten zan, eta esan zuen: Utzayozute; bada, nerequin lan ona eguin du. Beartsuac ceracquin beti izango dituzute, ez ordea Ni. Onec cezaqueana eguin du. Nere gorputza obiraco lendanaz igortci du. Egui-eguiaz esaten dizutet, Evangelioa eracutsico dan lecu gucietan, mundu gucian, emacume onec nerequin eguin duena ere bere oroipen oneraco esango dala.

Apaiz-buruac ernegatcen cebiltzan, Lazaro viztua izan zan ezqueró, Jesus-i are gende gueyago eta eresi andia-goan cijoaqiola icustearquin; eta artu zuten Lazaro ilteco asmoa. Baña ¡Cer itsumena! ¿Gaitzac illa viztu zuenac, ez ote cezaquean guizónac illa viztu? ¿Lazaro berac illarequin Jesus-i lenagoco escubidea quenduco ote cioten? Ezagutu zuten nombait, zoraqueria andi bat izango zala, edo beren buruac gueyago aguertcea baicic etzutela iritsico; beintzat, asmoa artu bazuten ere, il gabe utci cioten.

### 3. §.—*Erramu eguneco Jesus-en joanera Jerusalem-era.*

Jesus-ec bacecusan, cein gorroto andiarequin beguiratcen cioten, eta gorroto au beragandio mesedeac artuta-

coetara ere zabalteen zala; ala ere etcitzayen oraingoan ezcutatu. Itceco eguna bacetorren, eta biaramonean, Eliz-Ama Santac orain *Erramu-Eguna* deitzen dion egunean goiz, Betania-tic bere icasteacquin irten zan, eta Belfage ceritzan Olibete-co mendi-ondora eldu zanean, bere bi icasleri esan cien: Zoazte or aurrean icusten dezuten echadi orretara, eta arquituco dituzute lotula asto-eme bat, eta astocume inor oraindic igo etzayona. Ascatuta ecarzquidazute, eta inorc ecer esaten badizute, erantzungo diozute; Jaunac bear ditu; eta bereala utcico dizute ecartcen. Icasleac joan ciran, eta Jesus-ec esan bezala gucia guertatu zan. Isayas-en bitartez anciñatic esana zan: Sion-go alaba, ez icaratu, ara emen zure Erreguea u nillasun guciarequin astocho baten gañian jarria.

Ama-humeac eramán ciozcaten; Apostoluac beren soñecoac chalmatzat ipiñi ciezen: Jesus aurrena amari, eta gueró humeari igo citzayon, eta guciac Jerusalem-eronz abiatu ciran. Jerusalem-dic eta inguruco errietatic gendetza andiac batu citzayozcaten; eta Jesus-ec ceraman bidean, batzúec beren capac lurrean zabalteen cituzten; bestéac adar ostodunacquin bide-ertzac apaintcen cituzten, eta guciac erramu edo olivo ostoac escuan ceramazquiten, eta andi-chiqui guciac deadar eguiten zuten: Hosanna David-en semea, au da, David-en semea gorde ezazu. Bedeincatua izan bedi Jaincoaren icenean datorren Israel-co Erreguea. *Hosanna fili David, benedictus qui venit in nomine Domini.*

Fariseoac, Jesus ain onratua icusiric, esaten zuten. ¡Ez dacusute, ecer aurreratcen ez degula? mundu gucia berari darraiquio! eta batzúec Jesus-i albora joanda, esan cioten: Maisua, zure icasle oriec isilerazo itzatzu. Oriec isilduco baira, Jesus-ec erantzun cien, arriac itzeguingo luquete.

Jesus-entzat chit pozgarria zan aimbeste gende bereganajarri, eta agur-onac eguiten ciozcatela icustea; baña une berean, Jerusalem-era alderatuago, eta biotza illunagotutcen citzayon, ceren baciequien, egun guchiren buruan Uri doacabe artan guertalucó ciran gauza icaragarriac. Jerusalem chit maite zuen, eta bere biotz gucia argan ceucan, eta icustera zanean, negarrari eman citzayon, esa-

naz: ¡Ay, Jerusalem, Jerusalem, gaur bederic ezagutuco bacedu cerc on eguingo dizun! Baña zure beguiac itsutuac daude, eta badator eguna, zure etsayac inguratu, eta alde gucietatic estutuco zaituztena, zure paretac lurrera ezarri zure semeac il, eta gucia ondatuco dutena, arria arriaren gañean utci ere gabe, ceren ezagutu ez dezun, ondo icusi nai izan zaituzten ordua.

Cispuruz eta negarrez Jesus bacijoan, eta Uri zorigaiztoco artan sartu zanean, gucia azoratu ciran, eta Jesus-equin cijoacenai galdetcen cieten: ¿Cein dacarzute? ¿Orré-laco andiustean datorren ori cein dezute? Au Jesus Nazaret-eco Profeta da, erantzuten zuten. Jesus, guelditceric ere eguin gabe, Elizaraño joan, eta Eliz-atarian astochotic jatsi zan. Beguien aurrean jarri citzayon lembicico aguiracagarria edo aserrerazo ciona izan zan, oracioco echea saldu-erosietaco lecu eguiña arquitea; eta bere predicuaren asieran bezala, orain ere arpeguira eman cien, cein gaizqui eguiten zuten lecu santuan artu-emanetan jarduten.

Saldu-erosleen contra ain aserretua Jesus icusi arren, onen bear ciran elbarri, itsu eta guisa gucietaco beste eri gañoac bacijoazquion osasun esque, eta guciac sendatcen cituen. Aur eta gaztechoac ere inguratu zuten, otseguñaz: Hosanna David-en semea. Apaiz-buruac eta Escribac, icusiric eguiten cituen mirariac, eta adituric gazte oyen be-deincacioco otsac, sutu ciran, eta esan cioten: ¿Ez dezu aditcen, oyec cer dioten? Bai, Jesus-ec erantzun cien, aditu det. ¿Eta zuec ez dezute iracurri Profetac diona; *chiquichoen eta bularreco aurren aotic zure alabantza artu cenduen?* Esan oni cer erantzunic izan ez, eta isillic aldeguin zuten. Oyen lecuac, eta oyec baño biotz obeagoco Grecia-r batzúec sortu ciran, eta beren erritar Felipe Apostoluari esan cioten, Jesus icusi nai zutela, eta Jesus-gana berequin eraman cituen, eta Elizan sartuta. Jesus-i aditzen egon ciran.

#### 4. §.—*Gal-aciaren parabola.*

Jesus-ec, bada, itzaldia onela asi zuen. Etorri da ordua, guizonaren Semea gloriaztua edo alchatua izango dana; ba-

ña onequin guertatuco da gal-aciarequin guertatcen dana, Gal-acia erortcen danean; iltcen ezpada, bacarric dago; baña iltcen bada, ugaritcen da. Cuizonaren Semearequin au bera guertatuco da. Au esatearequin batean gogoratu citzayon cetozquion iltura edo tormentuen eraman-bearra, eta otseguin zuen: Nere barrua estua dago, eta ¿cer esango det? ¿nori itzeguingo diot? Zugana ¡Aita nerea! zugana nator nere esturasun gucien erdian. Gorde nazazu datorquidan ordu icaragarri artatic: baña ez orrelacoric, Jainco nerea, Ni ez naiz etorri ilturai igues eguiteco, ezpada Zuri esqueñtceco. Artu zadazu, badā, Jauna, eguingo dizudan ofrenda, eta zure lcen guciz Santua alcha- ezazu. Atceneco itz oyec esan orduco, Cerutic irten zan ots bat, ciona: Alchatu det, eta alchatuco det. Ots au batzúec turmoi-soñutzat artu zuten; besteac Jaunaren Aingueruaren itz-olsa zala, cioten: baña Jesus-ec esan cien: Ots au ez nigatic, ezpada zuecgatic izan da, ezagutu dezazuten Jaincoren Semea naizala. Mundua orain neurtu edo juzgatuco da; mundu onetaco aguintaria orain campora botaco da, eta lurretic jasotcen nautenean gucia neretuco det. Itz oyecquin aditcera eman nai izan cien, Evangelio Santuac dio, gurutcean ilco zala. Orduan Juduac esan zuten: Guc gure leguean aditu izan degu, Cristoc beti iraungo duela, eta Zuc ¿nola diozu guizonaren Semea gurutcean jasolcea conveni dala? ¿Guizonaren Seme ori nor da? Oraindic ere zuen artean argui pisca batec badirau, Jesus-ec esan cien, eta argui onec diratien bitartean ibilli zaitezte, illunac itsumustuan artu etzaitzaten: illumpean dabilleenac, ez daqui, non dabilen; arguia dezuten artean, arguiagan sinistu ezazute, arguiaren humeac izan zaitezten. Esaten bacien bezala, etciztatela galdu ayen artean eguingo cituen egun banacac, bada hura il ezqueró sartuco citzayen illunac, etciela onic eguiten utcico. Ala guertatu zan: Juduac orduco arguian etcioten lecuric eman nai izan, itsutu ciran, Eguia ezagutceco, eta gaur-dan-egunean ere itsutasun onec gende zorigaitzoco argan badirau. Itzaldi onen ondoren illuntcean Jesus bere Apostoluacquin Elizatic irtenda, Betania-ra Lazaro eta bere bi arrebaen echera itzuli zan.

5. §.—*Masti-jabearen parabola.*

Beste egun batean goiz Jesus bere Apostoluacquin Jerusalem-era joan zan, eta Elizan, lecu santuari ezdagozquion gauzac eguiten cituztenen contra bere espasunac berrituta gueró, ipiñi cien parabola bat, garbiró adierazten zuena bere laster il-bearra, eta cein bidegabeco ilco zuten. Ara parabola. Eche-jaun batec masti bat eguinda esiz ichi zuen gueró dolare bat eta echea eguiñic, maizterrai beren-gañ eman cien, eta urrutietara joan zan. Mats-bilceco egunac alderatu ciranean, morroyac bialdu cituen errenta-esque; baña maiztarrac morroi bat elbarritu, bestea il, eta irugarrena arricatu zuten. Nagusiac, berriz ere, lenac baño morroi gueyago bialdu cituen, eta maiztarrac oyecquin berebat eguin zuten. Orduan masti-jabeac esan zuen. ¿Cer eguingo det? Nere seme maitea bialduco diet, eta au icusita, lotsaluco dira. Maiztarrac seme au icusi zutenean, elcarri esan cioten: Nagusiaren onordecoa da, ots, il dezagun, eta bere ondadea guretzat izango da. Maizter gaiztoac eldu cioten, eta mastitic aterata, il zuten. Orain, bada, masti-jabea datorrenean, ¿maizterrai cer eguingo die? Gaiztoac galduco ditu, eta errenta zucenago pagatuco dioten beste maizter batzuei mastia emango die.

Escribac, Fariseoac, Apaiz-buru, eta errico aguintariac Jesus-i laster iguerri cioten, itzqueta au gucia beren asaba Profétac il izan cituztenagatic, eta orain Jaincoaren Semea beta il nayez cebiltzan heracgatic zala; baña Jesus-i cerraiquion gende andiaren bildurrez, etzuten biotzie izan escuac ezartceco.

6. §.—*Errcgae-Semearen eztayen parabola.*

Parabola onen ondoren esan cien beste bat are lotsagarriagoa. Ceruetaco Erreinua semea ezcontceco eztayac prestatu cituen Erregue baten antzecoa da. Gucia zucendutacoan, morroyac bialdu cituen, lendanaz esanda ceudenai, etortceco gaztigalcera; baña etciran etorri nai izan:

Berriz ere morroyac bialdu ciezten, esatera: Maya ipiñita dago, idi guicen eta gaztiac il dira, eta gañeraco gauza guciac prest daude, eta eztayetara atozte. Orduan ere gastigua elzuten ecertan artu; bata sorora, eta bestea bere eguitecoetara joan ciran, eta gañeracoac morroyai escuac egotci; eta farragarri asco eguin ondoren, il cituzten. Erreguea albista onequin aserretu zan, eta guizon armadunac bialduta, iltzalleac ondatu eta erriari su emanda, auts eguin zuen; eta morroyai esan cien: Eztayac prestatuta daude; esan citzayenac etciran etortceco diña: bide-gurutcera zoazte, eta dacusuten guciari esango diozute, eztayetara etortceco. Morroyac joan ciran, eta arquite cituzten on eta gaizto guciacquin itzuli ciran, eta maya bete zan. Erreguea sartu zan mayean ceudenac icustera, eta eztai-jancia gabe bat arquite zuenean, esan cion: Adisquidea gnola onarà eztai-soñecoa gabe etorri cera? Etcion itzie erantzun. Orduan Erregueac bere servitzariai esan cien: escu eta oñac lotuta, bota ezazute campoco illunetara, non negarra eta orzcarrascotsac baicie, izango ez dan.

Emen bucatu zuen parabola, ceñarequin eracusten digu, asco ez dala, Elizan sartcea, au da, cristau eguita; graciazco soñecua ere iduqui bear degula, salvatuco bagera: eta soñeco au, Jaincoac betico eztayetara deitzen diguneraco, beñere quendu gabe gorde bear dala, eracusteco, Jesus-ec ipiñi zuen beste parabola, Eliz-Ama Santac ain sarriró Meza Santan iracurtcen digun au.

### 7. §.—*Amar virgiñaen parabola.*

Ceruetaco Erreinua ezcon-berriai, criseluac escuan cituztela, bidera irten citzayezten amar virgiñaen antzecoa izango da, Amar virgiña oyetatic bost zoroac ciran, eta beste bost cintzoac. Zoroac etzuten berequin olioric artu; baña cintzoac bai. Esposoaren etorrerac luzatcen zuelaco, virgiñac logaletu ciran, eta gueroenean loac bota cituen. Gañerdian izan zan ots bat, ciona: beguira, esposoa badator, eta bidera irten zatzazquio. Orduan virgiña guciac jaiqui, eta asi ciran criseluac zucenten: baña zoroac cin-

zoai esaten cieten; zuen oliotic iguzute, bada, gure crise-  
luac itzaltcen zazquigu; eta cintzoac erantzun zuten, esa-  
naz: zoazte saltcen dan toquira, eta bear dezutena erosi  
ezazute, guc zuei emanda, gueró zuec eta gu batere gabe  
gueratu ez gaitecen. Zoroac olio-erosten ciran bitartean,  
esposoa etorri zan, eta prest ceudenac ezta yetara onequin  
sartu ciran, eta atea ichi zan. Beste virgiñac guerò etor-  
ri ciran, esanaz, Jauna, Jauna, idiqui zaguzu; baña espo-  
soac erantzun cien; cin-ciñez esaten dizutet, ezagutcen  
etzaituztedala. Esnai egon bada, ceren ezdaquizuten, cein  
egun, eta cer ordutan deituco zatzuten.

Parabola onec aditcera ematen digu, obra onen olio-  
requin prestatuta beti egon bear guerala, Jaincoac beste  
mundura deitcen diguneraco. Itzqueta oni cerraiquiola  
beste parabola bat ere esan cien, Ara cer.

#### 8. §.—*Talentuen parabola.*

Guizon aberats batec artu zuen urruti batera joateco as-  
moa, eta morróyac beregana eramanda, bere dirua eman  
cien, ceritzan neurri batean. Bati bost talentu eman cioz-  
can, eta talentu bacoitzac ogueita amaica milla, seiunda  
laroguei erreal bezalatsu balio cituen: beste bati bi, eta  
besteari bat, eta bere bidean joan zan. Bost artu cituenac  
irabacian ipiñi, eta beste bost atera cituen. Bi artu citue-  
nac ere, herebat beste bi irabaci cituen; baña bat baca-  
carra artu zuenac, lurrean zulo bat eguin, eta gorde zuen.  
Dembora lucearen buruan, nagusia echera zan, eta mo-  
rróyai contuac escatu ciezten. Bost artutacoac beste bost  
eraman ciozcan, esanaz: Jauna, bost talentu eman ciñiz-  
quidan, eta ara gañera beste bost irabaci ditudanac. Chit  
ondo, morroi on eta leyala, nagusi ac esan cion; ceren gui-  
chian leyala izan ceran, asco emango dizut: zure Jauna-  
ren pozean sar-zaitte. Bi artu cituena ere joan citzayon, eta  
esan cion: Jauna, bi talentu eman ciñizquidan, eta ara  
eman gañera beste bi irabaci ditudanacquin. Chit ondo, mo-  
rroi on eta leyala, nagusi ac esan cion; ceren guichian leyala  
izan ceran, asco emango dizut. zure Jaunaren pozean sar-

zalte. Talentu bat bacarra artu zuena ere joan citzayon, eta esan cion: Jauna, badaquit guizon zorrotza cerala, erein etcenduan lecuan segatcen dezula, eta banatu etcenduen toquian biltcen dezula; eta bildurrez, zuc eman ciñidan talentua lur-pean gorde nuen: orra non dezun cere-cerea. Morroi gaizto alperra, nagusiac aserrez esan cion, zuc ba ciñiequien, diozuez, nic erein ez dedan lecuan segatcen dedala, eta banatu ez dedan toquian bildu: beragatic, nere dirua irabacian ipiñi bear cenduen, obariarequin nere ne-rea orain nic artu nezan. Quendu zayozute, bada, talentu ori, eta amar dituenari eman; ceren daucanari emango zayon eta ugaritu: baña ez daucanari, daucala uste duen hura ere quenduco zazon. Orain morroi alper au bota eza-zute campo illunera, negar eta orz-carrascotslecura.

Jesus-ec parabola onequin aditcera eman cigun, norc bere doayacquin, asco dituena bezala guichicoa ere, bere eta besteren salvacioa irabazten necatu bear dala: eta ¡ay nagui-alperraren errucarria, ezpadu dezaquean gucia, bere aldetie eguiten! ¡Cein estu Jaincoac contuac artuco dioz-can!

9. §.—*Atcen-juicioaren gañeco itzaldia.*

Oraindañocoan Jesus-ec antz-irudi, edo parabolaetan aditcera ematen zuen, munduaren atcenean gucioc neur-tcera etorrico dala; baña orain garbiró eta arguiró gai onen gañean itzeguin zuen. Guizonaren Semea, esan cien, bere anditasun gucian, Aingueru guciac berequin dituela, datorrenean, bere aulqui edo tronoan eserico da, eta gende guci-guciac bere ondora bilduco dira. Batzuec Bestee-tatic banacatuco ditu, artzayác anchumeen artetic ardiac bezala, eta ardiac, au da, onac, bere escryan ipiñico ditu, eta auchumeac, au da, gaiztoac ezquerrean. Orduan guizonaren Semeac escui-aldecoai esango die: Atozte, nere Aitaren bedeincatuoc, munduaren asieratic prestatuta da-goquizuten Erreinura; bada, gose nintzan, eta jaten eman ciñidaten; egarri nintzan, eta edaten eman ciñidaten; arro-tza nintzan, eta echean artu minduzuten; billosa nengoan,



eta estali ninduzuten; gaño nintzan, eta icusi ninduzuten; ichian, eta icustera etorri cintzazquidaten. Orduan onac esango dute: Jauna ¿noiz, ordea, gosetua icusi cindugun, eta jaten eman? ¿edo egarritua eta edaten eman? noiz arrotza izan, eta echean artu, edo larrugorrian, eta janci? ¿Edo noiz gaño icusita, edo ichian cendela, icustera joan guintzazun? Juezac erantzungo die, esanaz: Egui-eguiaz esaten dizutet, nere anayacho oyetatic bati eguiten ciñiotenean, niri eguin ciñidaten.

Orduan ezquer-aldecoai ere esango die: Nigandic zoazte, mararicatuoc, deabru eta bere aingueruentzat prestatua dagoan su beticora: bada, gose nintzan, eta etciñidaten eman jaten; egarri nintzan, eta etciñidaten eman edaten, arrotza nintzan, eta ez ninduzuten echean artu, billosa nengoen eta ez ninduzuten estali; eri eta ichian, eta ez ninduzuten icusi. Eta bérac ere erantzungo dute, esanaz: Jauna ¿noiz icusico cindugun gosetua, edo egarritua, edo arrotza, edo larrugorrian, edo eri, edo ichian, eta ez guñizun lagundu? Juezac esango die: Chiquicho oyetatic bati eguin etciñiotean, niri ere etciñidaten eguin. Eta oyec su beticora joango dira, eta onac betico vicitzara. ¡Esan icaragarria! ¡Epai izugarria! baña guertatuco dana. Emen gogoan artu bear degu, Jesus-ec oneraco edo gaitzeraco bere epaya emateco, etcituela gauza andi edo becatu aguiri-aguiricoac aitatu; ezpada guc aintzacotzat ere menturaz, artcen ez ditugunac, nola diran cerbaiten bearrean daudenai laguntzea edo ez laguntzea: beragatic, etzagu iñoiz ere aztu bear, gure vici tsaco on eta ez-onac cein cearó eta zucen neurtuac izango diran.

## ZORTCIGARREN IRACURGAYA.

### 1. §.—*Jesus-en Pasioa.*

Eldu guera Jesus-en vicitzaren zatiric gogoangarrienera. Munduan igaro cituen egun eta orduan cein baño ceinic etzuten, ala ere, esan diteque, atceneco orduetan eguidaco gauza andiac eta ez-adituac lengo gucien azcarriac cirala. Oraindaño Jainco guizonaren vicitza icusi degu:

emendie aurrera Jainco guizonaren eriotza icusico degu. Orain-artean, cebillen lecu gucietan, eracutsi onac ematen; Ceruraco bidean nola ibilli bear dan esaten, guizonari ona eta ona eguiten, icusi degu gaurguerò guizonagandie eta guizonagatic billanqueriarie beltzenac, penarie andienac, eta eriotzarie lotsagarriena artcen icusi degu. Baña gueyago luzatu gabe, sallari garraizquion.

2. §.—*Jesus-en salmena.*

Ordua bacetorren, eta Jesus-en betico etsàyac, Caifas Apaiz-Nagusiaren echean batzarrea eguin zuten; eta erabaqui zan, Jesus Nazaret-ecoa atcitceco, eta bereala iltceco. Lenago ere au bera erabaqui izan zan, ordua bete etzalaco, eguin ez bazuten ere: baña oraingoan artu zuten nolabait galtceco asmoa. Bi eragozpen aurrean jartcen citzayezten; batetic gendeari bildur citzayozcan, ceren asco eta asco ciran Jesus-i chit ondo nai ciotenac, eta bildur onegatic gucia isillic, eta astegunean, inor oartu gabe, eguin nai zuten: bestetic gucia nayerara eguiteco dembora neurtua ceucaten. Batzarra asteazquen-goicean eguin zuten, eta Pazcoa ostral-arratsaldean asten zan: eta bitarte onetan Jesus atcitu, auzi-antza moldatu, eta gañeraco gucia presatu nai zuten, Pazcoa asi baño lenago iltceco. Eta nondie eta nola asico ciran ecin asmatuz cebilzala, guichiena us-te cezaqueten lecutic, erarie onena aguertu citzayen.

Dembora onetan Jesus egunez Jerusalem-era joan, eta Elizan eracusten edo predicatcen ciardun, eta gañeraco Oliveteco mendira igo, eta erregu-aldi luceac eguiten cituen. Egun ayetatic batean Betania-n, Simon-lepratsua ce-ritzanaren echean, bere icasleacquin afalteen cegoala, Maria, Lazaro-ren arrebac, lenagocoan oquendu gozoa onetara bezala, oraingoan burura bota cion. Judas-ec etcion ontzat artu, nayago zuelaco, oquendua salduta, onen dirua artu, guerò beretzat cer gorde gueyago izan cezan. Gañeracoan, beste lenagoco afarian guertatu zana bera oraingoan ere guichi-gora-bera guertatu zan. Emen esan ciran itzetatic Judas-ec, nombait, ezagutu zuen, Jesus laster ilcozala, eta icusiric, berequin cebilzanai cer utciric etzuela,

bere diru-nai zorigaiztocoarequin Satanas-i biotzean lecu eman cion eta artu zuen bere Maisu ona, galtceco esque cebilzquion etsayai saltceco asmoa. Barrun gaizto one juin Betania-tic irtenda, Jerusalem-era joan zan; eta oraindic Batzarrean ciardutela, sartu citzayen, eta esan cien: ¿Cere eman nai dirazute, eta nic escura eman edo entregatuco dizutet? Berealaşe ogueita amar diru cillarrezco esqueñi ciozcaten. Ogueita amar diru oyec, batzuen iritcian, oraingo iruroguei erreal balio zuten: bestéac berriz, berreunda ogueita amasei erreal eta erdi, diote; baña dana dala, ecertan artcea ere mereci etzulenac, beintzat, ciran, eta gauza uts onen truque Jesus saltceco itza Judas-ec eman cien. Itz oyec elcarri emanda, Judas Betania-ra itzuli zan, ecer eguindaco antz gabe. Beste Aposto-luac oartu ere etciran Judas campoan izan zanic; bada, Apostolu galdu onec or-emenac bereala, eta isillic eguin cituen.

### 3. §.—*Pazcoaraco prestamena.*

Pazcoaco arcumea urte artan ostegun-arratsaldean jan bear zan; eta Apostolúac au gogoan ceucatela, ostegunera iritsi ciranean, Jesus-i alderatu citzayozcan, eta galdetu cioten: ¿Non nai dezu, Pazcoa jan dezagun? Jesus-ec Pedro eta Juan bialdu cituen, esanaz: Urira zoazte, eta topatuco dezute lusull, edo pegarra-urarequin dijoan guizon bat, eta ondoren zoazquiote, eta sartcen dan echeco nagusiari esango diozute: Maisuac au dio: ¿afaltoquia non da? ¿Nere icasleacquin Pazcoa non jango del? Nere dembora alderatu da. Pazcoa nere icasleacquin zure echean eguitera noa. Orduan Afaltoqui eder-eder bat eracutsico dizute, eta bear dan gucia emen presta-ezazute. Pazcoa au eguiten zan arcume erre, lechuga min, legami gabeco ogui, eta ardoarequin.

Gauza guciac zucendu cituztenean, Jesus bere Aposto-luacquin Jerusalem-era joan zan, eta illunabarreco zazpiretan guichi-gora-beera mayean eseri zan, bere Apostoluac alboetan cituela. Jaten eta edaten lanotasun guciarequin ciardutela, Jesus-ec guciai beguiratu cien, Aitac bere humeai bezala, eta esan cien. Opa-opa nuen, Pazcoa au zuec-

quin eguitea, il baño lenago; bada eguiaz esaten dizutet, ez dedala berriz jango, Jaincoaren Erreinuan jan dezadan artean. Au esanda ardoz edanontci bat bete zuen, Aita-Eterno-ari esquerrac eman ciozcan, eta bere Apostoluai luzatu cien, edan cezaten. Andic laster, alaco berri tristeric uste ecin cezaquetenean, Jesus-ec esan cien: Nerequin emen jaten duen zuetatic batec salduco nau. Guclac larritu ciran, eta galdeteen cioten: ¿Jauna, ni naiz? Plateran escua nerequin sartcen duena da ni salduco nauena, Jesus-ec esan cien; eta guizonaren Semea badijoa, esanic eta erabaquiric dagoan bezala. Baño ¡Ai, guizonaren Semea salduco duenaren zorigaiztocoa! ¡Obe izango zuen secular jayo esbalitz! Apostolúac are gueyago larritu eta icaratu ciran, eta asi ciran, elcarri galdezca, ¿cein ayen artean izango zan onelaco gaiztaqueria eguingo zuena? Judas-ec. ez jaquin eguinda, izan zuen biotza, Jesus-i esateco: ¿Maisua ni ote naiz? Apostolu billau onec nombait gogoan etceucan, Jesus-i etcitzayola ecer ere oartzaca eguiten, eta jaquin nai zuen, aren asmo gaiztoai iguerri ote cien; baña eran-tzuera icaragarri au artu zuen: Zuc esan dezu. Jesus-ekin Judas-en arteco itzqueta au isillic nosqui izan zan; beste Apostolúac, beintzat, gueroago ere etciequiten.

4. §.—*Jesus-ec Apostoluai oñac garbitcea.*

Afariabucalcera zan, eta Jesus-ec adierazo cien, gauza andi batzuec buruan cerabilzquiela; izatez ere alaše zan; bada, inñori gogoac ere eman ecin cizayoquean miraria eguitera cijoan: mundutic irten bear zan orduetan bere Gorputz eta Odol viciac uztera cijoan: Aldareco Sacramentu guciz Santua ipintcera cijoan, baña bere burua umiltasun-ic gogoangarrienera lenago beeratuta.

Jesus mayetic jaiqui zan, gañeco bere soñecoa quendu, eta ezcuzapi edo toaja batequin guerria lotu zuen: ontci batera ura botata, prestatu zan, Apostoluai oñac urarequin garbitu eta zapiarequin leortceco. ¡Umiltasunaren andia Ceru-lurren Jabearentzat! Apostolu gucien buruari bezala Pedro-ri bereala asi citzayon; baña Apostolúac, chit

arrituric, otseguin zuen; ¡Cer! ¿Zuc, Jauna, niri oñac garbitu? Nic eguiten dedana, Jesus-ec erantzun cion, zuc orain ezdaquizu; gueró jaquingo dezu. Ez, Jauna, ez, Pedro-esan cion; agundaño ez dizut, Zuc niri ¡oñac garbitcen, utcico. Bada Nic ez garbitcera, Jesus-ec esan cion, ez dezu nerequin cer eguiñic izango. Pedro larritu zan, eta esan cion: Jauna, garbitu zazquidazu oñac, ez ecen, escu eta burua ere. Jesus-ec esan cion: garbi dagoanac, oñac beste garbituquizunic ez du; bada gucia garbia dago, eta zuec garbiac zaudete, gucioc ezpada ere. Esan au ceñentzat edo ceñegatic zan, Judas-ec iguerri cion, baña etzan aren biotz arrizcoa biguntceco adiña izan; eta bere Maisu andi, salduta ceucanari, utci cion, oñ, asco aldetatic ciquin ayec garbitcen, damutasunaren antzie ere eman gabe.

Guciai oñac garbitu-ondoren, escu-zapia utcita, soñe-coa artu zuen, eta mayean eseri zan, eta esan cien: Dacusute, zuecquin cer eguin dedan. Jauna, eta Maisua, deitecen didazute, eta eguia diozute: ala naiz. Orain, bada, baldin Nic zuen Jaun eta Maisu naizan onec; oñac garbitu badizquizutet, zuec ere elcarri garbitu bear diozcazute, ceren eracutsi dizutedan, Nic zuecquin eguin dedan bezala, zuec ere elcarrequin eguin dezazuten. Egui-eguiaz esaten dizutet: morroya ez da nagusia baño gueyago; bialdua ere ez, bialtzallea baño. Au cintzó aditu eta eguiten ¡badezute, zorionecoac izango cerate. Zuec-gatie ez diardut. Badaquit, ceintzuec autu ditudan: ezpada, bete ditecen, Escrituraco itz oyec: Nerequin oguia jaten duenac orpoa nere contra jasoco du. Bertatic eta aldeaurrez, guertatuco dan baño lenago, esaten dizutet, gueró guertatcen danean, sinistu dezazuten, Ni naizela Mesias, Jaincoaren Semea. Egui-eguiaz esaten dizutet: nic bialtcen dedana artcen duenac, Ni nerau artuco nau, eta Ni arteen naüenac, Ni bialdu naüena artuco du.

5. §. — *Apostolu saltzallearen contraco Jesus-en espac.*

Umiltasun ecin gueyagoco eracutsi onen ondoren, Je

sus prestatu zan guganaco bere amorio neurri gabea aguerreco, Bere Gorputz eta Odol guciz Santúac Aldare Santuan utci nai cizquigun, baña Apostolu dollor saltzalle bati ematera cijoala gogoratceac cerbait atceratzen zuen, eta esanerazo cion: Eguiaz esaten dizutet, ene Apostolúac, zuetatic batec nere etsayen escuetan ipiñico naüela. Iru-garren aldia zan Jesus-ec espasun berac Apostoluai iragarri cieztela; eta Pedro-c ecin eramane, ain biotz gaizto-co guizona ayen artean aguertu gabe egotea, jaquin naj izan zuen, nor ole zan, lagun artetic, benic-bein, be-reala quentceco, besteric ecin eguñ bacitzayoquean ere. Jesus-en escutic Pedro, eta ezquerretic Juan ceuden. Pedro-c, gucien burutzat autua zan aldetic bacirudien, Jesus-i beste bitarteco gabe galdeluco ciola; baña uste izan zuen, Juan Apostolu maitea zala, Jaunari alaco galde bat eguiteco egoquiena, eta oni galderazo cion, Juan Jesus-en sayetsean cetzan, eta era oberic artaraco ecin citequean. Juan-ec galdetu cion, bada, eta Jesus-ec erantzun zuen: Nic ogui-pusca bat bustita ematen diodan hura da: eta ogui-cerra bustita, Judas-Isariote-ri eman cion.

6. §.—*Aldareco Sacramentu guciz Santuaren ipiñera.*

Afari jaquiña eguinda gueró, Apostolúac beguira ceuden, Jesus noiz jaiquico zan, nora-nai jarraitceco; baña Jesus-ec eguin-asmoa zuen, secula gucian gogoan izango dan lan andi hura, Aldareco Sacramentu guciz Santuaren ipintcea. Legami gabeco oguia bere escuetan artu zuen: Aita-Eterno-ari esquérrac eman ciozcan; bedeincatu zuen, eta ebaquita, bere Apostoluai eman cien, esanaz: Artu, eta jan ezazute: AU DA NERE GORPUTZA, ZUECGATIC EMANGO DANA. Au nere oroipenean eguizute. Gueró eda-nontcia ardoarequin artu zuen Aita-Eterno-ari esquérrac berebat eman ciozcan; bedeincatu zuen, eta Apostoluai eman cien, esanaz: Emendic gucioc edanezazute; AU DA, BADA, TESTAMENTU BERRICO NERE ODOLA, ZUECGATIC ETA ASCOGATIC BECATUEN BARCACIORACO SURICO DANA. Au eguiten dezuten gucian, neré oroipenean eguingo dezute.

Itz oyecquin, bada, Jesus-ec ipiñi zuen Sacramentu adogarri au, ceñetan utci cizquigun bere Gorputza gure janarizat, eta bere Odola gure edarizat. Apostoluai eman cien aubera eguiteco escubidea; baita beren ondorengo edo ordecoac uztecoa ere: eta escubide onen bitartez Elizac beti izan ditu, dauzca eta izango ere ditu Apaiz, oguia Jesus-en gorputz eta ardoa Jesus-en odol izatera, aldatu dezaquetenac.

7. §.—*Jesus Jerusalem-dic Getsemani-raco bidean.*

Jesus-ec, afari gogoangarri au eguinda, bere Apostoluacquin batean esquerrac eman cituen, Israel-darrac oitura zuten era eta itzacquin. Judas Iscariote-c isillie aldeguin zuen, bere salduqueriari buru ematera: eta Jesus beste amaica Apostoluac-quin Afalteguitie eta Jerusalem-dic itenda, Olivete-co mendironz abiatu zan. Mendi au Jerusalem-dic, guichi-gora-bera milla pausora cegoan, bitartean Josafat-eco celaya zuela. Bere albo batean cegoan Getsemani-co alderria, eta Aita Eterno-arequin bere itzaldia eguiteco, Jesus-ec autu zuen baratza. Apostolúac Jesus. equin bacijoacen, baratza artan ain argaltasun andia aguertuco zuten uste gabe, gai au bidean bein eta birretan Jesus-ec jo bacien ere. Zuec gucioc, esan cien, gaur arratsean oquerreraco bidea nigandic artuco dézute; bada esana da: Artzaya joco det, eta ardiac sacabanatuco dira. Berri mingarri au gozotceco, bereala esan cien: Ni viztuta gueró, Galilea-ra zuec baño lenago joango natzazute. Itz oyec aditutacoan, Pedro, bere vicitasunez. nombait aurre-ratu zan, cerbait erantzutera; beintzat, Jesus-ec berari itza emanda, esan cion: Simon, Simon; ara non Satanas-ec artzatu nai zaituzten, garia artzatcen dan becela; baño Nic zugatic erregutuco det, zure sinismen edo fedecac utseguin ez dezan, eta zuc, zure anayaetara itzulita, fedean sendotuco dituzu. Pedro-c erantzun cion: Jauna, beste guciac zugandic gaitzeraco bidea artuco balute ere, nic benic-bein etzaitut utcico Eguiaz, esaten dizut, Jesus-ec esan cion arrats onetan berean ollarrac bi aldiz jo baño lenago, iru

aldiz ucatuco nazu. Apostoluac etcion Jesus-en esanari bildurric artcen, eta bere irmotasuna iragarri naye, esan cion: Jauna. ni prest dago, presondeguira zurequin joateco eia iltceco: eta ala bear bada, zurequin batean ilco naiz, eta ez nic zu secular ere ucatu, Beste Apostolúac ere herebat esan zuten.

Getsemani-co baratzaronz bacijoan, eta Jesus-ec Cedron-go ibai vicia igaro zuenean, baratzan sartu baño lenago, Apostoluai beguira jarrita, esan cion: ¿Cizcu, zacu, eta oñetaco gabe predicatcera bialdu cinduztedanean, ecerenez-izanic, edo utsaldiric izan cenduten? Ez Jauna, erantzun cioten. Bada orain cizcua eta zacua dituenac, saldu bitza, eta ez dituenac, bere soñecoa saldu, eta ezpata erosi beza: conveni da, alabañan nerequin bete ditecen aspaldian esandaco itz oyec: *Gaižtoaquin bat equin zuten* Jauna, Apostolúac esan cioten; ara bi ezpata emen, Asco da, Jesus-ec erantzun cion, eta bideari jarraitu citzayozcan.

Baratzan sartu zanean esan cion: emen zaudete, eta erregutu ezazute, tentacioan erori eizaitezten, Nic aurrera-šeago joanda, nere otoitz-aldia equin dezadan bitartean. Pedro Santiago, eta Jian apostolúac berequin artuta, barruragotu zan, eta otoitzari eman citzayon. Tristuraz bereala bete eta icaraz jarri zan; eta iru Apostoluai esan cion: Nere anima tristuraz iltceco zorian dago. Emen zaudete, eta contu eguizute, Arricada bat bidean aldeguin zuen, eta auzpez arpeguia lurrean zuela, oracioan jarri zan, eta Aita-Eternoari onela itzeguin cion: Ene Aita, zuretzat eciñic ez da; eguizu, Caliza au nigandic quendu dedin; baña ez bedi equin nic nai dedana, ezpada zuc gogo dezuna. Escaera au eguinda, bere iru Apostoluetara itzuli zan, eta lo arquitu cituen, eta Pedro-ri esan cion: ¿Ordu betean ere nerequin esnai ecin egon izan cerate? Contuan zaudete bada, eta erregutu ezazute, tentacioan erori etzaitetzen. Espiritua prest dago, baña araguaia algala. Berriz ere Jesus bacartu zan, eta Aitari erregutcen cion, esanaz; Ene Aita, Caliza au quendu ecin baditeque nic edan gabe, zuc nai dezuna equin bedi. Apostoluetara itzuli zan, eta lo arquitu cituen; baña oraingoan etcien ecer esan,



eta irugarren aldian bacartu zan, eta Aita-Eternoari erregu bera eguin cion.

8. §.—*Judas eta Juduac Jesus-en billan.*

Orduan Ceruco Ainguerua aurqueztu citzayon, sendotcera: baña Jesus auzpez arpeguia lurrean ipiñita cetzan, eta odolezco icerdi otzac eman cion lurra bustitceraño, eta Aita Jaincoac nai zuena eguitera jarri zan. Aingueruac aldeguin zuen; Jesus bere otoitz-aldetic jaiqui, eta Apostoluetara itzuli zan, eta guciac lo arqutu cituen, eta esan cien: ots, jaiqui zaitzte, eta erregutu ezazute, tentacioan erori etzaitzten. Goacen. Badator guizonaren Semea becatarien escuetan ipiñia izango dan ordua. Badator ipiñico naüena. Itzqueta onetan ciarduela Judas aguertu zan. Saltzalle gaizto onec baciequien, Jesus eta bere Apostolúac ascotan egoten ciran lecuá, eta arà joan zan guizon armadun ascocorequin, zuci-arguiac escuetan ceramazquitela. Beste lagun gueyagoren artean bost eun soldaduti sei eunera berequin bacituen. Gende au gucia errico Aguintari edo Cargu-dunac Judas-i eman cioten, Jesus errazago eta seguruago atcitu cezaten. Judas-ec jaquin bear zuen, onelaco prestamen bearric etzala, igueseguin nai etzuen bat escuratceco, eta igueseguin nai izan ezqueró, oyec eta guizonac artu citzaquean beste guciac alper-alperric cirala. Bein baño gueyagotan icusi izan zuen, galdu nai zuten bere etsai charren aldetic, bérac cecustela ere, igueseguiten: aditu izan ere bacion, ordua bete artean, arequin etsayac elzutela cer-eguinic izango: baña anciñatic esana zan: *gaiztoacquin bat eguin zuten*: eta esan au bete bearra zan.

Jesus Judas-i bidera irten citzayon. Judas ere bacijoan, bere guizonac ondoren cerraizquiola. Oyec esanac ceuzcan, laztanduco zuen hura Jesus Nazaret-ecoa zala, eta bereala escuac ezarrita, contuz eramateco. Judas, gendeari aurreratuta. Jesus-i alderatu citzayon, eta musu eman cion, esanaz: Agur Maisua. ¿Adisquidea, Jesus-ec esan cion, certara zatoz? ¿Guizonaren Semea laztan batequin etsayen escuetaratcen dezu? Itz oyec, Judas ez beste edocēnen

biotza bigunduco zuten; baña Apostolu billau hura gogortua cegoan, amorezco esanac aditceco, eta damutasunaren arrasto chiquienic ere etzuen eman.

Jesus amaica Apostoluacquin bere etsayetara urreratu zan, eta galdetu cien: ¿Nor billatcen dezute? Jesus Nazaretecoa, erantzun cioten. Ni naiz, Jesus-ec esan cien. eta *Ni naiz* au esan orduco, nagusi-morróyac, aguintari eta soldadúac, eta Judas berac elcarren gañean atzez lurra jo zuten. Jaiqui ciran, eta asiera gaiztoa ezagutu bearrean, beren asmo galdua aurrera ceramaten: eta Jesus-ec berriz ere galdetu cien: ¿Nor billatcen dezute? Jesus Nazaretecoa, lenago bezala, erantzun zuten. Esan dizutet, Ni naizala, Jesus-ec esan cien; eta nere billan zatozten ezqueró, nerequin datocen oyei utci zayezute joaten.

Apostolúac icnsiric, Jesus-i escuac ezartcera cijoazquiola; galdetu cioten. ¿Cer eguiten degu? Ezpataz joco ditugu? Eta Jesus-en erantzueraren beguira egon gabe, Pedro-c berequin ceramana zorrotic aterata, Apaiz-Nagusiaren morroi Malco ceritzanari belárria quendu cion. Jesus-ec Malco beregana eraman-erazo zuen, eta belarria bere lecuan ipiñita, sendatu cion. Malco eta besteac mirari onetatic ezagutu cezaqueten, nor zan, galdu nai zutena; baña alperric izan zan, ayec beren asmo charrai uzteco. Pedro-ri guerò esan cion; Ezpata ori zorrotu ezazu; bada, ezpataz beneric iltcen duena, ezpataz ilco da. ¿Uste dezu nic nere Aitari escatu ecin dizayoquedala, eta bialduco dizquidala Aingueruzco amabi legio edo samalda ere baño gueyago, gorde nazaten? (Legio bacoitzac sei milla ditu.) Baña nic au eguitera, ¿nola beteco litzaque Escrituraren esana, diorean, Ni iltcea conveni dala? ¡Cer! ¿Nere Aitac prestatutaco caliza edango ez det? Gende orri utci zayozute, etorri daquidan. Itz oyec esateraco, soldadu-aguintaria, bere soldaduacquin, eta gañeraco guciac alderatu citzayozcan, eta Jesus-ec esan cien: ¡Ezpata eta maquillacquin zatozte, ni arrapatcera, lapur bat banintz bezala! eta Elizan egunoró zuecquin egonizan banaiz ere, etciñidaten escuric ezarril Egunoró zuei eracusten niarduen, eta ez ninduzuten artu; baña orain da zuen ordua, eta illunaren escualdia.

Apostolúac itz oyetatic iguerri cioten, atcitcen uztera cijoala, eta guciac igueseguin zuten. Orduan soldaduac, eta besteac Jesus-i eldu cioten, eta bereala lotu-lotu eguin zuten. Baña ¿cer balioco zuten etsai char oyen lotura guciac, Sanso-nec beste dembora batean Filistin-darrenac baño aisago, nai izan ezqueró, eten eta urratu citzaquean Jesus-entzat? Lotutcen utci cien, guizonaren oneraco conveni zalaco.

9. §.—*Jesus-en Getsemani-tic Jerusalem-era eramanagera.*

Getsemani-co baratzatic irtenda, Jerusalem-eronz Jesus lotuarequin cijoacela, icusi zuten mutil gazte bat, bere soñecoaren gañetic maindire bat zuela, eta oni ere eldu cioten, Jesus-en icasleren bat izango zala pensatuta, baña maindirea escuetan utcita igueseguin cien, eta Jesus bacar-carric, bereetacoric inor ere gabe, etsayen artean guelditu zan.

Jesus galtceco lambidean cebiltzan guciac Jerusalem-en zai ceuden, Jesus noiz eramango zuten, oi-zan auci-leguea edo procesoa jaso, eta iltceco epaya edo sentencia emateco. Urte artaco Apaiz-nagusi Caifas zan; eta aguintuta ceucan, Jesus atcitcen zuten bezain laster, Caifas beraren aitaguiarraba Anás lenago Apaiz-nagusi izandacoari eramateco. Anas-ec Jesus bere aurrean icusi zuenean, galde batzuec eguinta, bereala Caifas-i bialdu cion, Apaiz-Nagusi zan aldetic, ceritzana eguin cezan. Onec orduraco Batzarrea bilduta ceucan, eramaten ciotenean bereala, cer eguin bear citzayon, erabaquitceco.

10. §.—*Jesus Caifas-en echean.*

Pedro eta Juan, beste Apostoluacquin batean bildurrez igues-eguinta, berera ciranean, Jesus-i bacerraizquion; baña urrutitic, soldadúac ezagutu eta arrapatu etcitzaten. Icusi zutenean Jesus Caifas-en echean sartu zutela, Juan-ec etzuen bildurric izan, atea jo eta otseguiteco, ceren Caifas eta onen ehecoen ezaguna zan, eta morróyac ere atea be-

reala idiqui cioten. Pedro, echean ezagüerarie etzuelaco, atarian egon zan, Juan-en bitartecotzaz escaratzean sar- cen utci cioten arteraño. Bi Apostolúac elcarrequin barru- ra pozic joango ciran, Jesus-i cer eguiten cioten icustera; baña Juan-ec iritsi etzuen, berequin batean laguna sartu cedin; eta Pedro escaratzean soldadu eta Apaiz-Nagusiaren morroyacquin guelditu zan. Uda-berria zan, eta oraindic otz-eguiten zuen, batezere gáuetan, eta escaratzaren er- dian sua ceucaten, berotceco. Pedro, ere, bere zorigai- tcean, su-ondoratu zan, cer erabaquitcen ote zuten icusi artean.

Caifas bera lenen-lenengo Jesus-i asi citzayon galdezca bere icasle, eta eracusten cituen legue eta gauzaen ga- ñean. Nic Jesus-ec erantzun ción, munduari aguiri-agui- rian itz-eguin diot. Nic Elizan eta Sinagogaetan, non Ju- duac biltcen diran, eracutsi izan det, ecer ere isillic esan gabe ¿Certaco niri galdetcen didazu? Niri aditu didatenai galdetu zayezu, ea cer esan diedan. Berac daquite cer esan dedan. Erantzuera an chit bidezcoa eta eguia garbi- garbia bazan ere, Apaiz-Nagusiac becosco beltza ipiñi cion. Orduan onen morroi batec Jesus-i masalleco bat eman cion, esanaz: ¿Apaiz-Nagusiari orrela erantzuten dioc? Mo- rroi cital-char oni Jesus-ec bere ontasun guciarequin esan cion: Gaizqui itzeguin badet, esan zadazu, certan; eta ondo itzeguin badet ¿Cergatic jotcen nazu? ¿Cer negargarria Je- sus-en arpegui ederrean escu tzar ciquin-ats hura icustea! ¡Ai nola Ainguerúac beguiac estalico cituzten ez icuzteaga- tic! Apaiz-Naguziac berac ere etzuen onean eraman bear, morroi char bat Batzarre-lecuan eta aimbesteren aurean ala ausardialcea; baña Jesus-i edoceñec nai gucia eguitea zan aren eta bere lagunen pozic andiena.

Jesus-en galtzalle oyec lecuco edo testiguac billatu cituz- ten, Jesus-gatic etzan gauza andiren bat esan cezaten, ba- ña ecer ere atera ecin izan zuten, beren asmo galduac eder- teeco; bada, lecucoac bat etcetocen. Gueroenean lenago beste asco alperric artuta, eraman cituzten bi guezurti, esan zutenac: Guc gueroc aditu diogn esaten: Jaincoaren Eliza ondatu dezáquet, eta iru egunean berriztu ere bai. Aditu

ere badiogu: Nic ondatuco det escuz eguindaco Eliza au, eta iru egunean alchatuco det beste bat escuz eguin gabea. Lenengoac bezala, oyec eguia esaten etzuten. Eliza au ondatu ezazute, eta iru egunean berriztuko det, Jesus-ec esan izan zuen, bai; baña bere gorputzagatic, ceñari Elizaren icena ascotan ematen cion. Itz oyecquin, bada, esan nai zuen, il cezatela; baña irugarren egunean Viztuko zala, guero icusi zan bezala,

Caifas-Apaiz-Nagusiac ezagutcen zuen, lecucoac esandaco gucia ecer etzala, eguin nai zutena edertceco: eta icusiric, berriac artzera, bere alde cerbait esan bearrean, bearbada izan citezqueala eguia garbiró aguertu, eta lotsatuta utcico zutenac, lan oni laga cion. Ala ere, gauza andiren batzuec Jesus-en contra esan cituztelaco antzean, Juez-aulquitic jaiquita, Jesus-i esan cion: ¿Ez diezu ecer erantzuten zugatic esan dituzten gauza oyei? Jesus isillic cegoan. Orduan Caifas-ec esan cion: Jainco viciaren icenean aguintcen dizut esan zaguzula, Cristo Jaincoaren Semea Zu ceran. Jesus-ec iguirritcen cion, galdera oni cegoquion erantzueran ematea vicia costaco citzayola; baña zana zan bezala esan bear zuen, eta erantzun cion: Ni naiz: zuc cerorrec diozu. Eta egui-eguiac esaten dizutet, e nendic guichi batera icusico dezute guizonaren Semea Jaincoaren escuian esertcen, eta ceruco odehyetan etortcen. Caifas-ec itz oyec aditutacoan, soñecoac urratu cituen, eta deadar eguin zuen: Blasfematu du; añenecoa bota du. ¿Certaco degu inore esan bearra? Añenecoa aditu dezute: ¿Cer deritzazute? Batzarrecoac ito-itoca erantzun cioten: Itcea mereci du.

Caifas-ec epai au poz guciarequin aditu zuen, eta Jesus-ec ere, bai pacienciaric andienarequin. Au erabaqui esqueró, beren gogoz berealañe ilco zuten; baña Jaincoac aututa ceucan ordua batelic bete etzan; eta bestelic Batzarreac erabaquia Erroma-rreren icenean aguintcen zuenac ontzat eman bearra zan; eta au biaramoneraco utcita, nor bere echera atsedetera joan ciran, goizean goiz elcarganatceco itzean.

Caifas-en echeari contu-artcen ceuden Soldaduai Jesus eman cieten, goiz-artean gordetceco, eta escaratzera jatsi

zuten, gau mingarrien hura bereacquin igarotceco. Pedro Apostolua an arquiteen zan, arestian esan dan bezala, arañoco baimena Juan-ec iritsi ciolaco. Bere Maisua soldadutzarrac erdian cecartela icusi zuen; baña ez ezagutu eguin zan, ari ere cerbait eguin, edo preso artuco zuten bildurrez.

11. §.—*Pedro-ren ucamena.*

Soldadúac eta Morroyac su-ondoan ceuden, eta Pedro ere bai, ayecquin batean berotcen. Nescame atezaya an sortu zan, eta Pedro-ri galdetu ciõn ¿Zu ere Preso onen icaslea etcera? Ez naiz; Pedro-c erantzun cion; eta Pedro-c itz oyec esan orduco, ollarrac jo zuen. Audic guichi bate-ra Apaiz-Nagusiaren nescame bat aguertu zan; eta Pedro-ri beguira-beguira jarrita, esan cion: Zu Jesus-Nazaret-ecoa-requin ciñan. Pedroc ucatu cion, esana; Ezagutcen ez det, eta cer diozun ere ezdaquit. Ordu heteren buruan, Pedro-c belarria quendutaco Malco-ren aide zan Apaiz-Nagusia-ren morroi batec esan cion: ¿Zu baratzan arequin batean icusi etcindudan? Dudaric gabe ayetacoa cera; bada, Galilea-rra cera, eta zure itzcuntzac berac aguertcen zaitu. Orduan Pedro asi zan juramentuaren aspian, ecetz, ecetz, esaten, eta ezagutcen zuela ere ucatcen. Onetan ciardutela, ollarrac bigarren aldian jo zuen; eta Pedro oroitu zan, ollarrac bi aldiz jo baño lenago, Jesus iru aldiz ucatuco zuela, Jesus-ec esana. Ollar-soñu au bacarric asco zan, Pedroc ezagutceco, cein gaizqui eguin zuen, guizon circill ayen bildurrez, Jesus ucatcen: bai baña, are gueyago arguitu zuen, Jesus onac dembora onetan eguin cion beguiratuac. Ollar-otsa belarrian sartu citzayon; baña Jesus-en beguiratuac biotzean uqitu cion; eta bere gaizqui eguiñaz damututa, Apaiz-Nagusiaren echetic bereala irten zan; negarrari eman citzayon, eta Jaincoagandic bere becatuaren barcaciõa iritsi zuen.

12. §.—*Jesus-en gaiieco neque-portitzac.*

Pedro-c bere ucamena negar-malcoric samiñenacquin

garbitcen zuen bitartean, soldadúac, morróyac eta beste servitzariac, Jesus beren contura artuta, gau negargarriartan gucian cer burla eta farra eguin, eta cer penac eman ciozcaten, eta cembat eracutsi cioten, ecin diteque ezan. Batzuec istu eta carcašaca, besteac ucabilca cerabilten, eta ascoc beguiac estali eta escu-tzarrac masallaetan ezartcen ciozcaten, esanaz: ¿Asma zaguc, Cristo, norc jo aucan? Jesus-ec itzie ateratcen etzuen: eta išilic uzte onec berac su gueyago ematen cien biotz gabeco guizon gaizqui-acyei. Nagusien gogoco berri morróyac bazuten; baciequiten ayen atseguñic andiena eguinal gucian Jesus penatcea zala, eta gau gucia onetan igaro zuten.

## BEDERATCIGARREN IRACURGAYA.

### 1. §.—*Ostiral-goiceco Batzarrea.*

Biaramon-goizean Apaiz-buru edo Sacerdoteen Principeac, errico Cargudunac, Escribac eta gañeracoac Batzarrea bildu ciran. Jesus escaratzetic bereala igoerazo zuten. Eguitera cijoacenari edergarri bat emateco, lenagoco arratsean itseguindaco gucia berriztu zan; eta nola iltceco, ecin asmatu zuten bere burua Jaincoaren Seme eguiten zuela, beste aitzaquiatic, galdetu cioten: Cristo bacera, arguiró esaguzu, Esango banizute, Jesus-ec erantzun cien, sinistuco ezdidazute, eta galdetuco banizute, erantzungo ez didazute, eta ascatu ere ez. Baña guizonaren Semea Jaincoaren poderearen escuian laster eserico da. ¿Beraz zu Jaincoaren Semea cera? esan cioten. Bai, ondo diozute, Jesus-ec erantzun cien, ondo diozute, Jaincoaren Semea ni naizela. ¿Cer gueyago bear degu? Juezac deadar eguin zuten. Guc gueroc bere aotic esaten aditu diogu. Orduan soldadúac Jesus artuta, Batzarre-guelatic Judea-co Buru eguiten zuen Poncio Pilatoren echera eraman zuten.

### 2. §.—*Judas-en urcamena.*

Judas Apostolu gaiztoac icusiric Jesus iltcera cijoacela,

bere salduqueria ezagutu zuen, eta Apaiz-buru eta Cargudunai salmentaco ogueita amar diruacquin Elizara joan citzayen, esanaz: Gaizqui eguin det, oben-culpa gabeco On baten odola salduarequin. Apaiz eta Cargudunac erantzun cioten; ¿Guri cer zagu, zue ondo edo gaizqui eguin badezu? Zue cerorrec icusico dezu: eta diruac artu etciozcaten.

Judas-ec, bere oquerra iragarri cion arguiari cerraiqui-ola, Pedro-c bezala, Jaunari barcacio-escatu bacion, zorionecoa izan citequean; baña lenago Jaincoaren zucentasunari eguindaco bidegabekeria, orain bere erruquimentu bazter gabeari berriztuta, etsi zuen, arentzat barcacioric etzala; ernegatu citzayon; Elizan diruac bota ciezen, eta soca batetic cincilica jarrita, bere burua urcatu zuen, errai guciac lurrera ceriozcala, ¡Eriotza icaragarria eta pareric ez duena.

Apaiz-buruac Judas-ec Elizan botataco diruac jaso cituzten, eta esan zuten, diru hura etzala Corbonan, (au da Elizaco diruteguiari) gorde bear, odol-truquecoa zalaco. Gauza onen gañean guerò Batzarrea eguin zuten eta erabaqui zan, elteguille baten soroa erosteco, erromes edo peregrinoen gorputz-illac lurpetceco izan cedin, ceñari deitu citzayon *Haceldama*, au da, odolaren soroa.

### 3. §.—*Jesus Pilato-ren echean.*

Jesus-en etsayac iltecco sententia emanda gueró, nai zuten, Pilato Judea-co Gebernadore len aitatu danac ere ontzat eman cezan. Pilato onec bere Erabaqui-lecua edo Tribunalala Jerusalem-en ceucan, eta onengana Jesus-ekin joan ciran. Pilato berez artara jarrico ezbazan ere, chit bildurtia zan, Baciequien Escriba, Fariseo eta bestéac Jesus-ekin nola cebilzan; baña pensatcen zuen ecin-icusiac ce-rabilzala, eta argana joan zai cegean, arrazoi-bidera ecartcen, necatceco.

Jesus goiz-goizean eramán cioten, eta soldadúac Auci-guelan edo Audienciaco salan Jesus sartuta, Judu-etsai-salatzalleac eche-atarian guelditu ciran, Gentil baten echean sartuta, beren Eliz-lanetaraco cutsutu-citecen bildurrez.



Echeac atari-aldera baranda bat zuen; eta Jesus-i barrunen galde andiric eguin gabe, barandara irtenda, Pilatos salatzalleai itzeguin cien esanaz: ¿Guizen onen contra cer esanquizun dezute? Gaitzguille biurria ezpalitz, ez guiñizun ecarrico, erantzun cioten. Orain bada, Pilato-c esan cien, baldin gaitzguillea dala badaquizute, artu eta zuec ceroc juzgatu ezazute, ceron legueac dioñ guisan. Ez, erantzun cioten, guri ezdagoquigu iñor iltcea. Jesus-ec ascotan esanizan zuen, gurutcean ilco zala; baña eriotzaera au Israel-darretan iñori ematen etcitzayon: beragatic Jesut-ec esaten zuen, Gentillen escuetan ipiñico zutela, gurutziltzatu cezaten, Aurrez-esan au Pilato-ren echean asi zan betetcen, Juduac nai zuten, Jesus gurutcean il cedin; baña Pilato Gentillac aguinduta; eta iguerriric, onec alaco gauzaren asmoric etcerabilela, Judu salatzalleac iscambilla andi bat jaso zuten. Jesus-i gauza asco egozten ciozcaten baña gucietan andienac bi. Guc guero, cerasaten, guc guero guizon au arquita degu, gucia nasten, eragotciaz, pecha edo tributoa Cesar-i pagatcea; eta eracutsiaz, berá Cristo Erreguea dala. Saltzalle ayen esanac Pilato etzuten itsutu edo engañatu: ala ere, egozten ciozcaten gauzac ain pisuac izanic, aintzat artu bearrean icusi zan.

Atarian ceudenai utcita, guelara itzuli zan. eta Jesus-i isillic galdetu cion ¿Juduen Erreguea zu cera? Zuc diozu, Jesus-ec erantzun cion: baña ¿zuc cerez galdetcen dezu, edo bestec nigatic ori esan dizu? ¿Cer bada! Pilato-c esan cion: ¿Ni Judua al naiz? Zure gendeac eta Apaizac nere escuan ipiñi zaituzte. ¿Cer eguin dezu? Esan det, Erregue naizela, Jesus-ec erantzun cion; baña nere Erreinua mundu onetacoa ez da: mundu onetacoa balitz, nere servitziac guerra eguingo luquete, Juduai eman ez nazaten; baña nere erreinua emengoa ez da. ¿Beraz Zu Erregue cera? Pilato-c esan cion. Zuc diozu, Jesus-ec erantzun zuen; zuc diozu, Ni Erregue naizela. Ni mundura onetaraco etorri naiz, eguiaren sinismena emateco, ceren eguiatic datorien guciac nere etsa aditcen duen.

¿Eguia cer da? Pilato-c galdetu cion, eta cer eranzuten cion beguira egon gabe Apaiz-buru eta gendeari aurqueztu

citzaen, esanaz: Nic Guizon onengan oquerric arquitcen ez det, Orduan indar andiagoarequin cerasaten: Erria nastua dauca. Pilato-c isillerazo cituen; eta gendea cerbait paquetu eta onera zanean, Jesus-i esan cion: ¿Ez dezu icusten, cembat gauza egozten dizquizuten? Jesus isilic cegoan, eta itzic ere trucatcen etcion, Pilato bera ere arritceraño. Onec Jesus, ecer eguin gabe, pozic bialduco zuquean, ceren bere uste gucian icuzquizunic etzuen: beragatic obenculpa gabeco baten odolarequin cutsutu nai etzuen. Baña Juduac Pilato-ren uzcurtasunari iguerri cioten, eta pensaturic beste iscambilla berri batequin Pilato ipiñico zutela, bildurra utcita, ayec naya eguitera, berriró cerasaten: Zuc ez daquizu, Guizon ori nor dan. Ori Galilea-n asi zan leque berri nasleac eracusten; gueró Judea-ra etorri zan zabaltcen, eta atcenic Jerusalem-en bertan ere lan berean jardun du.

4. §.—*Pilato-c Herodes-i Jesus bialtzen dio.*

Pilato-c Galilea-ren icena aditu zuenean, uste izan zuen, lambide gogaicarri artatic bere burua gordetceco eraric onena aguertcen citzayola; eta galdetu zuen: ¿ea Jesus Galilea-coa zan? Erantzun cioten, Galilea-co Uri, Nazaret ceritzanean jayoa zala. Uri onetan Jesus-ec vicitzatic gueyena eguin zuen, eta bere Ama Maria guciz Santa eta bere aita-ordeco San José ere jatorriz, Isai anciñaco asabaren odolecoac bezala, eta ascoren iritcian jayotzaz ere, emengoac ciran: beragatic Juduac Jesus Nazaret-ecotzat ceucaten, Belen-en jayoa bazan ere, Pilato-c, bada, icusiric Galilea-co Aguintari edo Gobernadore Herodes-en mendecoa zala, eta jaquiñic, Herodes, ala bearrez, egun ayetan Jerusalem-en arquitcen zala, Jesus, ondo lotuta, contu-artzalleacquin echera bialda cion, eta salatzalleac ere ondoren jarraitu citzayozcan.

Herodes, icen-goitiz, Antipas ceritzan au zan, Jesus jayoberrian aimbeste aurcho ilerazo cituen Herodes zarraren, eta Cleopatarra Jerusalem-darraren semea. Antipas onec, bere anaya Filipo-ren emazte Herodias emazte-orde-

tzat artuta, itzquetaco-bide andiac ematen cituen, eta cerman vicitza lotzagarri onegatic San Juan Baupstiac esaten ciozcanac ecin eraman cituelaco, Jesus-en Berri-emalle andi hura ilerazo zuen, lenago esan dan bezala. 1

Herodes ain oitura galduetaco guizon lotsagarri oni, bada eraman cioten Jesus ona, ceñaren icusteac Herodes-i chit poz andia eman cion. Aspaldian eresi onequin vicitzan, ceren aditu izan zuen, gauza arrigarriac eguiten cituela, eta uste zuen, berac cecusala ere cerbait eguitea. Jesus-i cerraquion gendea, batezere, Apaiz-buru eta Escribac etciran aspertcen, Herodes-en aurrean berriz eta berriz salatcen; baña oyen ots-iscambillac alde batera utcita, Jesus-i asi citzayon, galdeac eguiten, Herodes, icusiric bere aurrean mirariric eguin, ez ecen, erantzun ere nai elciola, su viciac artu zuen, aintzat ez artceagatic erantzuten etciolacoan, eta bere soldaduacquin batean iseca eta burlaca eraso cion, eta eroa bazan bezala, soñeco zuri bat jancita, Pilato-gana itzuli zuen.

Herodes eta Pilato arteraño aserre izaten ciran, eta Pilato-c Herodes-i Jesus bialdu ciolaco, lengo elcar-ecin-icusi guciac utcita, biac adisquidetu ciran: baña Pilato gueldituzan Herodes-i ezarri nai cion Jesus-equicoa bere gañ zuela. Pilatoren echera Jesus itzuli zuten, bada, Herodes-enera eramandaco iscambilla eta trisca beracquin: Soldaduac sartu zuten len-iduquitaco Auci-guela edo Pretorioan, eta salatzalleac atarian guelditu ciran. Pilato-c gueró Apaiz-buru, cargudun eta gañeracoai itzeguin cien, esanaz: Zuec Guizon au ecarri ciñidaten erriaren galtzalletzat, eta dacusute, nola zuen aurrean galdeac eguinda, zuec egozten diozuten utseguiteric arquitcen ez diodala; eta are gueyago dana, Herodes-ec ere, berez Judua, eta zuen leguean ondo icasia izanic, il-gai eguiten duen gauzaric topatu ez dio, Ez esan oyecquin, ez lengo eguin-alacquin iritsi zuen Jesus-i paquean uztea, eta beste bide bat gogoratu citzayon, alperric bedere.

5. §.—*Jesus utcita Barrabas-en auquera.*

Juduac Erroma-iren mendean jarri ciran lembicico ur-

teetatic escatu zuten, eta iritsi ere bai, Erroma-co Emperadoreac bere icenean aguintcera Judea-ra bialtzen zuen Eraentzalle edo Gebernadoreac, beren gaiztaquericgatic ilteco ichian ceudenetatic Juduac berac aututcen zuten bat, Pazcoaz libratu ezala, Israel-darrac Moises-ec Egiptotic atera cituelaco oroipenean. Pilato-c baciequien, errico Andisquiac ecin-icusiac ceramazquiela, Jesus galtcera, eta etsiric cegoan oyetatic barcacioric iritsico etzuela: eta oyei utcita, errico gende beeari itzeguin cion, ezagüerara errazago ecarrico cituelacoan: baña ustea uts irten citzayon. Oiturari cerraizquiola, eche-atarilic Pilato-ri osca jarri citzayozcan, ilteco cegoan bat ascateco. Beste ascoren artean ichia arquitec zan Barrabás ceritzan guizon gaisto, iscambilla-naste batean guizon bat il zuena. Pilato-c Jesus eta Barrabás auqueran ipiñi ciezten, Barrabás utcita, Jesus libratceco escatuco ciotelacoan: baña orduraco Andisquiac gendea irabacita ceucaten.

Pilato, gauza au erabaquitceco, Juez-eser-aulquian ce-goala, emàzteac bialdu cion mandatari batequin itzeguite ra, aldeguin bearrean arquitec zan. Emaztéac mandatari onen bidez esaten cion: Ez gueró Justu orrequin icusquizunic artu; bada, gaur ametsetan gauza asco burura orregatic etorri zazquit. Gaztigu onec cer-pensatu andiric Pilato-ri eman etcion, ceren bera ere aitzahui-billan cebillen Justu hura libratceco. Mandatariarequicoa eguinda, Juez-aulquira itzuli zan, eta Jesus bere ondoan artuta, iscambillan ciardungendeari galdetu cion: ¿Cein naidezute, eman dizazutedan? Barrabás edo Jesus, Cristo deritzana? Pilato, emaztearen gaztigua artcen zan bitartean Apaiz-buru eta Cargudunac gendearen erdian sartuta, ibilli ciran esaten. ez inola ere escateco, Jesus libratu cedilla, zana zala Jesus-equin auqueran ipintcen cien. Pilato-c aotic itza atera bezain laster, indarce cerasaten: Barrabas ascatu ezazu: Barrabás igozu; Cer pena Jesus-entzat, Barrabas bezain guizon biurri bati nayago izatea! ¿Eta cer eguingo diot Jesus, Cristo deritzanari? Pilato-c galdetu cien. Gurutziltzatubedi, guciac erantzun zuten. ¿Baña cer gaitz eguin du? Pilatoc esan cien. Deadar viciagoacquin esaten zuten:

gurutziltzatu bedi. Pilato berriz ere leyatcen citzayen, Jesus libratu nayez; baña gueroago eta miñago cerasaten: gurutziltzatu ezazu. *Crucifige, Crucifige.* Irugarren aldian Pilato-c esan cien: ¿Cer gaitz, ordea, onec eguindu? Nic ilerazotceco bideric ez diot arquitcen. Castigatuco det, bada, eta utcico diot, joaten; baña berean ciarduten, gurutcean il cedilla, osca.

Pilato-c icusiric, iscambilla gueyago jasotcea baicic ateratcen elzuela, ura artu, eta escuac garbitceari eman citzayon, esanaz: Justu onen odelean, ni beintzat, ez naiz cutsutcen: or compon. Erri guciac erantzun cion: orren odola gure eta gure humeen gañ izan bedi. Ordean Pilato-c aguindu zuen. Barrabàs ichitic ateratceco, eta eman cien. Jesus, berriz, ichian sartu zuen, gurutziltzatu cedin, oraindic ere libratu ecin bacezaquean.

#### 6. §.—*Jesus azotatua*

Erroma-co legueac aguintcen zuten, gurutcean il bear ciranac lenago azolatuac izan citecela. Pilato-c pensatu zuen, castigu-modu au Jesus-i ematea, onela icusita, ilteco cerabilten asmoari utcico ciotelacoan: baña erruqui-ustean eguindaco lanarequin, ayen biotzat samurtu ez, eta Jesus-i penaric izugarrienac eman ciozcan. Bere soldaduai aguindu cien, atarira eraman, eta azotez ceatceco, il ez beste gucia eguin arteraño, eta gueró beregana itzultceco. Soldadua elzuten nagusiaren aguindua aditu besteric nai, bereala equiteco. Atarira jatsi zuten: soldadu guciac erdian artuta, soñecoac quendu ciozcaten, gende lotsagabe-tzar aren aurrean larru gorri-gorrian ipintcen zutela: pillare bati lotuta; azotez ceatu zuten, ezur guciac agueru, eta gorputz gucia aragui vici-vici eguiteraño, odola alde guciatic chirrian ceriola. Ain andiac eta latzac izan ciran, Jesus-en aldi onetaco oñace-miñac, non, ez lumaz ezarri ditzequean, ez iracurri, bazter guciac negar-malcoz busti gabe. Ala ere, Jesus-ec ez itzic atera zuen, ez cizpuru bat aditu citzayon.

Soldadu-tzarrac baciequiten, Jesus-i Juduen Erreguea

esaten ciotela, eta farragarri andiagoraco gorputz odoldua oyal gorrizco mantu zar batequin estali cioten: arantza zorrotcezco coroa buruan jantzita, zapaldu cioten, arantzac ondo-ondora sartceraño: escuico escuan Erregue-cigortzat cañabera bat ipiñi cioten, eta burla eguiteagatic, belaunicatuta, esaten zuten: Agur Juduen Erreguea: istuz eta carcaña nazcagarriz arpeguia betelcen cioten: beren escu-tzarraquin masallan, eta escutic cañabera quendota, beronecquin buruan jotcen zuten.

Burlaz ondo beteta, burutic oñetaraño odolezco itsaso bat eguinda, Pretoriora itzuli zuten, eta Pilato, berriz ere, barandara irten citzayen, eta esan cien: campora atera, eta eracustera noaquizute, ezagutu dezazuten, nic Onen gana arquitcen ez dedala, cergatic il. Bereala aguertu zuen Jesus, arantzazco coroa buruan, cañabera escuan, eta escutzar ciquin ayecquin eguindaco ubeldu andiac arpeguian cituela, eta soñeco gorri zar urratuaren zuloetatic zauriz eta odolez betelaco aragui vici-vicia aguiari zuela; eta esan cien. Ara emen guizona. *Ecce homo*: esaten bacien bezala: Erregue izan nai duela, zuec salatcen dezuten guizona, ara emen. Beguira ezazute, eta esan, orain dacusuten eran, guizon onec cer bildur eman dizayequean naiz Juduai naiz Erroma-rrai.

Pilato-c etzuen onela ere ecer aurreratu, Apaiz-buru eta bestéac Jesus-icusi zutenean, deadar eguiten zuten; Gurutziltzatu ezazu, gurutziltzatu ezazu: baña Pilato-c esan cien; artu, eta ceroc il ezazute; bada, nic cergatic ilcecoric topatcen ez diot. Guc leguea degu, erantzun cioten, eta onec dionez il bearra da, Jaincoaren Seme eguin dalaco. Pilato-c itz oyec aditu cituenean, icara gueyago artu zuen. Arteraño egotci izan ciozcatenac aintzacotzat artu etcituen, baña *Jaincoaren Semearen* aitamena aditu zuenean, nastu zan. Bereala Pretorioa itzuli zan, Jesus berequin ceralama, eta isilic galdetu cion: ¿Zu nongoa cera? Jesus-ec ecer crantzun etcien. Pilato-c orduan esan cion: Niri ez didazu itzeguiten? ¿ez daquizu Zu gurutziltzatceco, edo ascata, bialtceco escualdia badedala? Nigan escu-bideric izango etzenduque, Jesus-ec erantzun cion, goitic eman ezba-

litzatzu: beragatic zure escuetan Ni ipiñi nauñenac zue ba-  
ño becatu andiagoa du. Esan nai cion: eguia da, Ni ilteco  
escua diarequin zaudela; baña escualdi au Jaincoa-gandic  
datorquizu, eta aren aurrean icusquizun andia izango dezu,  
bide gabe ilerazotcen banazu. Judúac zu baño erruduna-  
goac dira, Ni, ecin icusiz eta didaten gorrotoz, zugana  
ecarri nautelaco; baña zue ere cer-iensia badezu, ayen gaiz-  
taqueriari zure baimena eman ezqueró,

7. §.—*Jesus ilteco Pilato-ren aguindua.*

Pilato-c ordutic ere eresi gueyago artu zuen, Jesus libra-  
teco; baña Judúac otseguiten cioten: baldin orri orrela  
uzten badiozu Cesar-en adisquidea etcera: bada, Erregue  
eguiten dana Cesar-en contra dijoa. Itz oyec aditutacoan,  
Jesus guelatic atera zuen, eta Pilato bera, Grecia-co itzcun-  
tzan *Litóstrotos* eta Hebreacoan *Gábata* ceritzan lecu  
goratu batean Juez-eser-aulquian ipiñita, eseri zan, eta Ju-  
duai esan cion: Ara emen, zuen Erreguea. Juduac deadar-  
ca erantzun cioten: Quen, quen ori ortic, eta gurutziltzatu  
ezazu ¿Zuen Erreguea gurutziltzatuco det? Pilato-c esan  
cion: eta Apaiz-buruac erantzun cioten: Guc Cesar beste  
Erregueric ez degu. Esan onequin Pilato osotoró larritu  
eta icaratu zan: eta aguindu zuen, Jesus gurutcean il ce-  
dilla, eta bereala etsai amorratuai eman cion.

Pazcoa asitceco ordua bacetorren, eta cerbait luzatu ez-  
queró, etceucaten Pazcoaren ondorengo zortci egunetan  
iltceric; eta bildur ciran, bitartean atterapenen bat sortu  
cedin. Goizeco bederatciac ciran Pilato-ren epaya edo sen-  
tencia irten zanean, eta Pazcoa asitcen zan eguzquia sar-  
tcean edo arratsaldeco seietan. Bitarteco demboran Jesus  
gurutziltzatu, il, gurutctic quendu, eta lurpetu bear zan.

Pilato-c, il cedilla, aguindu bezain laster, eche-atarian  
ceuden gendeac, Escriba eta Fariseoac buruan cituztela,  
aleetara joan ciran, ain ayer citzayozcan Jesus artcera. Je-  
sus escalleran beera burlazco soñeco zar urratuarequin  
bacetorren, eta iltcera eraman bear zuten soldaduac, be-  
ren contura artu zutenean bereala, gogortasunic icaraga-

rrienarequin, soñeco zar ura eranci cioten, jariotu citzayon odolarequin gorputz larrutuari itsatsita ceucalaco, soñecoarequin batean aragui pusca andiac quentcea ciozcatela. ¡Cer miña ene Jaincoal! ¡Cer pena! Lengo bere soñecoa jazten diote; bera il bear dan gurutce-tzar, anciñacoac diotenez, bost cana luce, eta iru cana zabal zana, sorbaldan ezartcen diote: eta zama pisu izugarri onequin abiatcen dira Calvario edo *Golgota-co* mendira, ceñac esan nai du *buruzurra*.

Elizaco gnraso ascoren iritcian, icen au eman citzayon, Adan-en buru ezurra an topatu zutelaco: bada bigarren Adan-onec autu zuen eriotza menderatceco eta guizon guciac erosteco il-lecutzat, eriotza mundura ecarri, eta gende gucia onen mendean ipiñi zuen lengo Adan celzan lecuca.

8. §.—*Calvario-raco joanera.*

Calvarioco mendira igotceco Jerusalem gucia ibilli bear zan, eta ibar edo Valle chiqui bat igarota gueró, igo. Beragatic Jesus oraindic ere Jerusalem-darren icuscarriztat aguertu bear zan. Icusi izan zuten gauza onac eracusten; jayotzatic itsuac arguitcen; ogueita emezortci urtean elbarrri vici ciranac sendatcen, lau egunean ilda cezatenac viztuten: icusi zan zuten, Mesias-en icenean Elizan aguintcen; Anas, Caifas, Herodes, eta Pilato-ren echera lotuta erama ten: Gurutcea sorbaldan zuela, Calvario-co mendira igotcea beste cer icusiric ya etzuten; eta au ere etorri citzayen, Jesus Jerusalem-go carrica guciatic barrena bacijoan; baña atceneco arratsean soldadu guiza-charrac eraetsi ciotenarequin, eta goicean emandaco azoteacquin odol-ustu zulelaco, pauso asco eman baño lenago ayecatuta, gurutcearen pisuac lurrera ezarri zuen.

Lenengo erorico onetatic nolabait, nequez bedere, jaiquita laster, bere Ama gucis Santa, Apostolu San Juan, eta emacume on batzuecquin, bidera irten citzayon. Cer pena icusi onetan Amac eta Semeac izango zuten, ecin esan diteque. ¡Nore adierazo bi biotz maitagarri ayec elcarrri esango ciozcaten amodiozco itzac!



Pauso negargarri onetatic bereala, Veronica ceritzan emacume on bat Jesus-i alderatu citzayon, eta arpeguico icerdi-odolac zapi batequin garbitu ciozcan, eta Jesus-ec lambide on onen saritzat bere arpegui ederraren antza zapian utci cion. Jaquintsuac diote, Veronica au zala, Jairoren alaba viztutcera Jesus cijoala, mantuaren ertzari uquitu utsarequin, aspaldian nocitcen zuen odol-miña, sendatu citzayon emacumea.

Jesus bere gurutze-tzarra sorbaldan zuela, bacijoan, eta Uritic irteeran bigarrenaldian lurrera erori zan. Aren etsayac icusirie, lurrean cetzala, Calvario-co mendira baño lenago ilco citzayen, eta gurutcean josita icusico etzuten bildurac artu cituen. Orduan Alejandro eta Ruforen aita Simon ceritzan Cirene-co seme edo jatorri bat bere baschetie celorren, eta Urico atean sartcean, artu zuten gurutcea eramaten Jesus-i laguntceco. ¡Cein zorionecoa Simon Cirine-ar Jaincoac bere Semeari gurutcea eramaten laguntceco autu zuena! ¡Cein Cristau dicha artan arquite naico ez litzaque! San Marcos Evangelariac ain auditzat artu zuen, non, ez bacarrie Simon-en icena eta erria daczqui, baita Semeena, ere, mundua mundu dan artean Simon Cirine-coaren icenac irauan dezan .

Simon onec ematen cion laguntzarequin Jesus cerbait bizcortu zan, bideari jarraitceco, eta bacijoan Escriba, Fariseo, Cargudun eta Apaiz-buruac gendetza ecin esan-ala-coarequin orpoz orpo ceraizquiola; bada, pauso batean ere beguetatic uzten etzuten. Jesus-ec, norc galduasco bacituen ere, Chit ondo nai ciotenac ere bacituen, endemas Israel-co emacumeen ar.ean. Oyetatic cembait ondoren cijoazquion, beren Onguille ona errequi artan icusita, negarrez urtutcen. Jesus-ec bide-ertz batean icusi cituen, eta esan cien; Jerusalem-go alabac; Ez niri negarrie eguin, ezpada zuec cerocgatic, eta ceron humeacgatic: ceren egúnac badatoz, esango dutena; Zorionecoa emacume agorrac, eta aurric artu ez duten errayac, eta ezneric emán ez duten bularrac. Orduan mendiai asico zayezte, esaten; atozte gure gañera, eta muñatsai, estali gaitzazute: cergatic ece, baldin arbola ecean a1 eguiten badu, zigartuan

cer eguingo du? Baldin Aita-Eterno-ac uzten badu bere Seme guciz Santuari becatariacgatic au eguiten, becatari berai ¿cer eguingo die?

Emacume on ayei etorquizun negargarriac icusteco prest egon citecela, onela adierazota, Calvario-rabacijoan: baña mendiaren aldatsora zanean, gurutcearen pisuarequin berriz ere lurrera jauci zan. ¡Ain aula eta quemengabea cegoan! Jaiqui nai eta ecin jaiqui ibillita, gueroenean jaiqui zan, eta mendi-gaña iritsi zuen, Jesus-en lotsa gueyagoraco bi lapur gaizto ere igo cituzten: Jesus-ekin batean iltceco.

### 9. §.—*Jesus gurutziltzatua.*

Soldadu-tzar gogorrac soñecoac quendu ciozcaten, bere zauri guciac irugarren aldian berritu, eta soñecoarequin batean oni itsatsitaco aragui-puscac quentzen ciozcatela, eta ipiñi zuten, eguindaco idiquietatic odola chirrian ceriala. Gorputz gucia onela larrututa, gurutcean etzanerazo zuten: escuac eta oñac iltce-tzarracquin josi ciozcaten: eta zutituta, lendanaz eguinda ceucaten zuloan gurutcea colpez sartu zuten, gorputz guciari dardarazo izugarria eman, eta zauri guciac berritcen ciozcatela: eta Jesus cerulurren Jabea gurutziltzatua airean aguertu zan, lapur bi ezquer-escuitic cituela.

Urcamendian iltzen cituztenai ematen cieten mirra deritzan arguizagui-antz batequin nastutaco ardoa, onequin erdi-loan jarrita, ceramazquiten penac ariñago eguin cequiezen. Soldaduac Jesus-i esqueñi cioten mirrarequin nastuaz gañera, beazunarequin ondó mindua: baña Jesus-ec mirra eta beazunaren garraztasun miña artceagatic aoran sartu, bai; baña edan nai izan etzuen, cordea galdu etzezan, ceramazquien neque-oñaceac beren indar gucian artceagatic.

Amabien inguruan gurutziltzatu zuten, eta gurutcean, itzic ere atera gabe, luzaró egon zan biotz amodiozco arguizonagatic cembat beguiratcen zuen ezagutceco siñale berri bat eman zuen arteraño. Barcatu zayezu, ene Aita,

ceren ez daquiten cer eguiten duten: ain eriolza miña ematen ciotenacgatic, Aita- Eterno-ari esan cion. ¡Esaera estimagarria, aztu bear ez dana, gure etsai edo etsai-ustecoén contra cerbait eguiteco gogóac erasotcen digunean! Escaera onen ondoren ayetatic batzuec barcacioa iritsi zuten, gaizqui-eguiña ezagutu zutelaco, eta danac iritsi bear zuten, su-arri guciac baño biotz gogorrangoac izan ez baciran, eta beren itsumenean iraun nai izan ez bazuten.

Gurutctic cincilica cegoala, alde gucietatic neque-oñace eta penac besteric etcetorquion. Gurutcearen aurrera beguiratcen du, eta dacus gende gogor hura, iseca eta farrabaiic eguiten ez diola: an dacusqui Apaiz-buru, Car-gudun, Escriba eta Fariseoac, lagun berriac billatcen, eman ciozcaten baño ere pena gueyago emateco. Atcera-seago beguiratcen du, eta dacusqui guizon eta emacumeasco negarrez, eta oyen artean bere Apostolu eta icasle leyalac. Gurutcearen oñean dacus bere Ama maite-maitagarria, penaz eta naigabez josiric; baño negar-malco gabe, daquielaco Semearen eriotza Jaincoaren naya betetcen duela. Gurutcearen alboan dacus San Juan bere Apostolu cutuna, eta Amaren betico laguna: an dacusqui María Cleofas-en emaztea, eta María Magdalena, cerraizquion emacume gucietatic leyalena eta irauncorrena. Ceruronz beguiratcen du, eta laguntce antzic ere ematen ez dio. Lurre-ra beguiratu du eta soldadu-tzarrac dacusqui, quendu ciozcaten soñecoac beren artean zabalcen, eta bere Ama maite María guciz Santaren escu ederrac eguin cioten, gañeco janci jostura gabecoa, norentzat gueldituco zan chocheguiten. ¿Nor icuscarri onen beguira jarri, beguiac negarrezco iturri bi eguin gabe? ¿Nore gogora ecarri dezaque, biotza osotoró erdiratu gabe? ¡O ene Jesus maitea! ¡O ene Jabe gozoa! ¡Nore gurutctic jatsi cintzaquean, eta Zure Ama biotcecoari besoetara eramau, odol-cutsu guciac bere estalquiarequin quendu eta garbitcecol! Baña ez; ecin diteque. Aita-Eterno-ac aguinduta dauca, eta lurrecoac erabaqui dute, Zuc zure atceneco asnasa gurutcean eman dezazula.

Pilato-caguindu zuen, Jesus-i buru-gañean ipintceco char-

tel bat, esaten zuena, *Jesus Nazaret-eco Juduen Erreguea*. Juduac itz oyec iracurri cituztenean, Pilato-ri joan citzayozcan, eta esan cioten, itz ayec quenduta, ipintceco, berac esaten zuela, Juduen Erreguea naiz Pilato-c erantzun cien: bein esribatua, esribatua izan bedi.

Pilato-gaudic nai zutenic iritsi etzutenean, -Jesus-i berri-ró eraso cioten, arpeguico queñu, buru-macurqueta, eta beste farragarri asco eguiñas. Adizac, esaten cioten; Jaincoaren Eliza ondatu, eta iru egunean berritcen decan orrec, ere burua libratu ezac. Jaincoaren Semea baaiz, ortic jatsi adi Gueró elcarri ciotsaten: bestéac libratu cituen, eta Jaincoaren Autua bada, bera ere libratu bedi. Apaiz-buru, Escriba, eta Cargudunac ere burlaz cioten: Bestéac libratu cituen, eta bera ere libratu bedi. Israel-co Erregue bada, gurutctic jatsi bedi eta sinistuco diogu, Uste gucia Jaincoagan ceucan; Jaincoaren Semea naiz, cion, eta orain libratu beza, maite badu. Juduen Erreguea baaiz, escuetatic joan aquigu; Judu zatarrac otseguiten cioten. Atcenic escui-ezquerretan ipiñi ciozcaten lapúrrac ere, besteac bezala, isecaten zuten; eta biac añenecoca ciarduten. Baña ¡O Jaunaren gogoan dauden gauzac cein ondo gabeac diran! Bata gurutcean Jaunagana itzuli, eta bestea bere gaiztoan gogortcen dira Bata barcacio-esque, eta bestea gaizqui esaca dagoquio ¡Cer berdineza batagandic besteaganacoal

Bi oyetatic batec Jesus-i esaten cion: Cristo baaiz libratu gaitzague i erori eta gu: baña besteac lagun gaizquitzeguiña aguiracatcen edo erreprenditcen zuen, esanaz: ¿Cer? i urcamendian agoala ere, Jaincoari bildurric artcen ez dioc? Gue ceramacagun patua chit bidezcoa, eta gure gaiztaqueriai dagoquiena dec: baña onec gaitzie eguin ez dic: eta Jesus-i, berriz, esaten cion: Jauna, zure Erreinaratcen ceranean, nizaz oroitu zaitte. Bai, gaur Ceruan ne-requin izango cera, Jesus-ec erantzun cion.

Egüerdico amabiac, aldean, ciraneguzquia bete-betea, eta Cerna odeicho bat ere gabe garbi-garbi arquitcen zala, mundu gucia ilunantz batec estali zuenean. Illuntasun au, oi ez bezalacoa zalaco, guciac miragarritzat jo bear zuten

baña aintzacotzat ere artu gabe, soldadúac, Judúac eta gáñeraco guciac, Jesus-en adisquideetarañocoac Calvario-comendian ceuden. Maria guciz Santa, arestian esan dan bezala Semearen gurutcearen oñean cegoan, ecin esan ere ditequean adiña penatua. San Juan Apostolu maitea ondotic quendutcen etcitzayon. Maria Cleofas eta Maria Magdalena ere muguitcen etciran.

Jesus-en ilteco ordua betetcer zanean, bere Ama maiteari gurutcearen oñera, beguiratu cion, eta Juan-i albora: eta Amari esan cion: Emacumea, orra or zure semea: *Ecce filius tuus*. ¡Cer trucaera negargarria Maria Virgiña guciz Santarentzat! Icaslea Maisuaren lecuan, Juan Jesus-en lecuan, Zebegdeo-ren semea, Jaincoaren Semearen lecuan ematen zayo, Gueró Apostoluari esan cion; Orra or zure ama: *Ecce mater tua*: Eta ordutic Apostoluac María Amatzat artu zuen. Itz oyecquin gu gucioc, Apostolu maite aren buruan, María guciz Santaren mantupean, humeac Amarenean bezala, ipiñita, Aita-Eterno-ari atceneco iizac esan bear ciozcan: eta arratsaldeco iruac alderatu ciranean, otz andi batequin esan cion: *Eli, Eli, lama sabachthani*: au da, Ene Jaincoa, Ene Jaincoa ¿Cergatic utci nazu? Itz oyec aditu cituzten ango batzuec, uste izan zuten, Elias-i deitcen ciola, etciequitelaco *Eli Eli-c*, Siria-co itzcuntza izanic, cer esan nai zuen; eta elcarri ciotsaten: beguira gauden Elias ote datorquion, libralcera,

10. §.—*Jesus-en iltcea,*

Jesus-ec baciequien, cer gauza ciran orandic betetzaca; eta Escritura santan aldeaurrez esana; nere egarrían ozpiña eman cidaten: guertatu cedin, esan zuen: egarri naiz. Ozpin-ontci bat an arqitu z iten, eta beguira ceudenetic batec atroqui edo esponja ozpiñetan buzi zuen, eta maquilla luce bati erpiñean ipiñita, aora eman cion, eta Jesus-ec ozpiña artu zuen. Ondoren beste Ots bat eguin zuen, esanaz: Guacia eguiña dago: eta atcen-atce-  
nean bere Aita Eternoari esan cion: Ene Aita, nere espiritua zure escuetan uzten det: eta burua macurtuta, Jesus ilzan.

Arratsaldeco iruac ciran, Jesus-ec bere gañ artutaco, gure erospen edo Erredencioco lana osobete, eta eguin zanean. Orduan gure zorrac quitatu cituen; baña ¡cein garesti! Esan degu, bere odol guci-guciaren truque, Esquerrac eta esquerrac eman dizayozcagun, bada, gugatic aimbeste neque-pena artu cituen Jainco guizonduari, Ordu onetan berean gauza guciac adierazo zuten guertacari andiren bat izan zala. Mundu gucia bildurrac artu zuen: eguzquia illondu zan: Eliza-ren erdian cincilica cegoan oyala erdibitu, eta aimbeste lengo guizaldietan ichita egoten zan lecu guciz Santua aguertu zan: arriac zarracatu ciran; lurra dardarratu zan: obiac edo sepulturac idiqui ciran: eta izatea duten gauza danac beren erara negar eguin, eta naigabea eracutsi zuten, gucien eguille Jesus gurutcean il zanean.

Aimbeste mirari ez-aditu oyecquin, esan citequean, Juduac beren gaiztaqueria ezagutu, eta Jaincoaganonz noizbait itzulico cirala; baña arroqueriaz beteac, eta berecoyeguiac ciran, batezere, buru eguiten zutenac, bein aterataco itza jateco, eta gaizqui eguin zutela, aitortceco. Ala ere, Calvario-co mendian baciran ezagüeran sartu ciranac. Jesus-i contuartceco joan ciran soldaduen Aguintari edo Centurion-ac aditu zuenean, Jesus-ec atceneco asnasa ematean eguindaco deadarra, oartu zanean, bere oñ-azpico lurra icaratcen, arriac zarracaten, obiac idiquitcen, eta onelaco beste mirari asco eguiten, larritu zan; eta otseguin zuen: Au Jaincoaren Semea zan, bai. Soldaduac ere nagusiari cerraizquiola aitortu zuten Jesus Jainco eguiazcoa zala. Juduetatic ere ascoc esagutu zuten, cein gaizqui ibilli ciran, Jesus-i aimbeste eracusten, eta arri-eguiñic, echera itzuli ciran, bular-joca, Jaunaribarcacio-escatuaz.

11. §.—*Jesus illa gurutcetic jasitceco prestamenac.*

Lambide artan buru eguiten zutenac nai gucia iritsita-coan, Pilato-ri joan citzayozcan, eta escatu cioten, aguindu cezala, gorputz-illac gurutcetic quentceco Pazcoaco egun andia sartu baño lenago. Pilato-c bayezcoa eman cien, eta bere aguinduz soldaduac Calvario-ra igo ciran, eta lapur

biai bernazaquiac autsi ciezten, bereala il citecen; baña Jesus icusi zutenean il zala, autsi etciozcaten; eta soldadu batec lanza luce batequin escuico sayetsa idiqui cion, eta odola eta ura irten ciran.

Gauza gucietan Jaunaren escu miragarria cebillen, eta etzan ecer ere venturara eta ustecabean eguiten. Soldaduac aguinduac eijoacen, Jesus-i bernazaquiac austeco, eta illa egon arren, aguindua eguin gabe uzteco escuric etzuten: bestetic egon bear etciran atcerago illari austeco, viciai baño. Anciña-anciña esanai eguiztamena eman bear citzayen: Moises-ec Pazcoaco bildotsagatic esan izan zuen *Ezurric batere autsico ez diozute*. Lanzaz sayetsa idiquitcea ere, eceri ez cihocala eguin etzan: bada, Juduacgatic aldeaurrez esan zan: *beguiratu cioten zulatu zutenari*.

Soldadúac guisa onetan, Jaincoac Profetaen bitartez lendaraz adierazotaco gauzac, eguiten cituzten bitartean, José ceritzan Arimatea-co guizon on-prestu, eta Sanedrin edo Batzarre-nagusicoetatic bat, Jesus-en contraco lanetan icusquizunic izan gabea, eta isillean Jesus-i jarraitcen citzayona, Jesus il bezain lasler, Jerusalem-era ito-itoca joan zan, eta Jaunaren gorputza Pilato-ri escatu cion. Pilato-c il-berri au artuta bereala aguindu zuen, emateco. José baimen onequin era berean corrica Calvario-ra itzuli zan, gorputz-illa obiratcera. Beste ascoren artean, Nicodemo berez Judua, Fariseo-en burua, Israel co Maisua, eta José bezala Batzarre nagusicoa; Nicodemo, gau batean bere galdeac eguitera, Jesus-i joan citzayona, eta Jesus-eguin itzeguin ezqueró, isillic bedere, oni jarraitu citzayona, eta Batzarrean Jesus-en alde chit gogorquiró itzeguin zuena ere Calvario-ra joan zan, mirraz eta zabila deritzan belarmin batequin eguindaco eun libra oquendu berequin ci-tuela, Jaunaren gorputz-illa igortcitceco.

José eta Nicodemo-c ilteac gurutctic atera, eta gorputza jatsi zuten, eta Ama María guciz Santari magalera eman cioten. ¡Cer Ama maite onen orduco biotz-erdiratcea, bere Seme biotzeco besoetan artu zuenean! Beguirajarri citzayon, eta cecusan buru gucia muñetaraño arautzaz josia, arpeguia ezarri ciozcaten istu eta carcaña ciqui-

ñacquin torticatua, sayetsa lanzaz idiquia, escu-oñac ilteztarracquin zulatuac, gorputza aibeste milla azoterequin larrutua eta odoldua; itz batean, burutic oñetarañoco gucia zauri bat eguiña. ¡Nore adierazo Amaren orduco miña! Ez, ez dezaque, Amac berac bestec neurtu, guisa artan Seme Jaincoa icusteac biotz biguñ ari eman cion, eta Simeon zarrac lendanaz esandaco ezpata zorrotza. Eta are andiagoa artu zuen bi guizon on ayec besoetatic quenda ciotenean, obiratceco.

12. §.—*Gorputz illaren obiratcea.*

José-c eta Nicodemoc, bada, onec eramandaco oquenduárequin gorputz-illa ondo igortci, eta José-c erositaco maindire berri batean bildu zuten: arpeguia icerdi-zapi batequin estali cioten, eta gorputza maindirearen gañetic pašatu edo pašaz ondo lotu zuten, gauza oyec guciac Nicodemo-ren oquenduarequin lenago embasatuta, Judúac guizon andien gorputz-illacquin eguiten zuten bezala.

Obia bear zan, eta arquite zuten gurutctic ogueita amasei canara cegoan baratza batean, non José-c arri vicivician eraguinda ceucan, bera eta bere echeocoac lurpetceco; baña arteraño iñor ipiñi etzan, edo iñorequin erabilli gabeco berri-berria zan. José eta Nicodemo-c gorputz-illa baratzara eraman, eta obi onetan ipiñi zuten, burua eguzquiaren sartalderonz zuela; eta obia ar-losa andi batequin estalita, baratzatic irten ciran, viztutceco eman cien itza gogoan zutela. Jesus-equin Galilea-tic etorritaco emacume on-piadosa ayec, aresti-ezqueró esaten gatocen lambide oyetan gucietan beguiric quendu etzuten, ez aldeguin ere, alic-eta gorputza obiratuta, baratzatic irten ciran arteraño; baña beste guciac atcenean joan arren, Maria Magdalena, eta María, Santiago gaztearen amac aldeguin nai izan etzuten, eta gorputz-illaren aurean eserita, gueratu ciran. Emen Jaunagan pensatcen ceudela, gogoac eman cien, berac ere gorputza berriró igortcitea, eta Jerusalem-era oquendu esque jatsi ciran; baña oquendua erosi, eta beste gauzac prestatcen cebiltzan bitartean, Pazcoa-jaya



sartu zan, eta onec ciralien artean, alaco lanac eguitea le-  
guez ez bazan ere, oituraz debeatua zalaco, ondoreraco  
utci bearra izan zuten.

Ostiraleco eguzquia sartcearequin larumbata asten zan,  
eta Apaiz-buru eta Fariseoac Pilato-ri joan citzayozcan,  
esanaz: Jauna, oroiteen guera, guezurti arc esan zuela: iru  
egunen buruan viztucoc naiz. Beragatic aguindu ezazu, gor-  
putz-illa sartu dan obiari contu-artceco, berari cerraizquion  
icasleac gañez joan, gorputza ostu, eta gendeari esan ez  
dizayoten: Ilen artetic viztu zan: ceren utseguite berri au  
lenagocoa baño andiagoc izango dan. Gordetzalleac ba-  
dituzute, Pilato-c erantzun cien, zoazte, eta contu-eguin  
zayozute, daquizuten bezala.

Judúac soldadu-samalda bat beti izaten zuten, Elizari  
contu artceco, eta Jaincoac gauzac zucendu cituen, Juduen  
soldadu oyec bérac gorputz-illa zantceco, eta ez Pilato-  
renac; guerò viztutacocan, Judúac esan etcezaten, Jesus-en  
icasleac Pilato-ren soldaduacquin elcar artuta, gorputz-  
illa eraman zutela; argatic ondo etorri zan, Pilato-c bere  
soldadúac ucalcea, eta erantzutea, bérac ere bacituztela.  
Judúac neurri au eta beste gneyago artu cituzten, beren  
ustez, guezurren bat asmatuta, Jesus viztu zala, onen adis-  
quidéac esan etcezaten. Iru egunac baño lenago, obira joan  
ciran, ar-losa jasota, an ote cetzan icustera: an cegoan, be-  
rriró estali zuten, eta sillua marcatu cioten, iñorc erabilcen  
bazuen ere, ezagutu cedin, eta beren uste guci-gucico con-  
tu-artzalleac ipiñi cituzten, eta gogóac eman cien gañera-  
co gucia, eceri barcatu gabe, eguin zuten, berenarequin  
irtetearren; baño itsu ayen asmacari guciac alperric izan  
ciran, eta eguia garbiró aguertu zan.

## AMARGARREN IRACURGAYA.

### 1. §.—*Jesus-en viztuera.*

Jesu-Cristo gure Jaunac ascotan esan izan zuen, ilda  
irugarren egunean viztucoc zala. Arteraño eracutsitaco gau-  
za guciai sinismen osoa emateco cimendua au zan, eta  
esana eguiztatu zuen.

Ostiral-arratsaldeco iruetan il zan; eta bere gorputza arratsalde berean obian ipiñi zuten: ona emen lenengo eguna, zati bat osoaren ordeztuta. Biaramonean, ceña larumbata zan, egun gucian egon zan: ona emen bigarren eguna. Igande goicean obitic irten zan: eta ona emen irugarren eguna, lenengoa bezala, zatia osoaren ordeztuta.

Ilzan ordu bere-berean: anima guciz santa jatsi zan *Abraham-en Senoa* ceritzan, eta arteraño ildaco on guciac arquitec ciran lecura. Oyec aspaldietan beren Libratzalle andiaren zai ceuden, eta icūsi zutenean, Jaincoaren Semea cijoaquiela, argui eder batec artu cituen, eta asi ciran belico zorionecoac izaten; artan diraude; eta secula gucian iraungo ere dute. Igande-goiceraño emen egon zan, eta goiz onetan, obian cetzan gorputzari itzuli citzayon. eta gurutcean galdutaco vicia beretuta, obia estaltcen zaen ar-losa portitza ez autsi, eta ez quenduta, sillua ere, zana zan bezala, utciric, gorputza animarequin batean irten zan, gorputz gloriotsuaren doai eder guciac berequin cituela.

Contu artcen cenden soldaduac ecerzaz ere oartu etciran, alic-eta lurricara andi baten otsarequin Aingueru bat Cerutic jatsi obi-gañeco ar-losa irauli, eta onen gañean eseri zan arteraño. Aingueruaren arpeguiac chimista cirudien, beguiac chingárrac, eta soñecoa elurra baño zurriago zan. Soldadu contuartzalleac, Aingueru onen ederra eta arguia ecin eramane, atceronz jauci ciran, iuda bezala; eta cerbait berera ciranean, osotoró izututa, andic iguesequin zuten.

Maria Magdalena eta Maria, Santiago gaztearen ama, orainago esanda, Jerusalem-en gueratu cirala, Pazcoa-eguna igaro artean, gueró bereala Jesus-en gorputz-illa oquenduz eguiteco: eta ásmo on oni cerraizquiola, igande-goizean-goiz baratzaronz abiatu ciran, beste emacume onasco, eta oyen artean Juana, Herodes-en contu-eramalle Chusas-en emaztea, eta María Salome Santiago zarrenaren eta Juan-en, ama berequin cituztela. Larumbat gucia, nola bacarrean, eta iñorequin itzeguin gabe igaro zuten,

etciequizquiten, Jesus-en obiari contu-artcearen gañean Judúac erabilli cituzten. lanac.

2. §.—*Pedro eta Juan-en joanera obira.*

Jaquin-ez onetan bacijoacen; María Magdalena, lagunac atcean utcita, besteac baño lenago obira alderatu zan, eta obia estaltcen zuen ar-losa ceareatua icusi zuenean berea-la, pensatu zuen, Jaunaren gorputza norbaitec ostua izanzala; baño Aingueruric oraindic icusi etzuen. Bere-berea-la Jerusalem-eraco bideari eman citzayon, baratzaronz abiatu zanean berequin artutaco lagúnac aren itzuleraz oartu ere gabe. Jerusalem-en Pedro-ren echean sartuta, oni eta Juan-i esan cien: Jauna obitic eraman dute, eta ez daquigu, non utci duten. Bi Apostolúac berri au aintzat bertatic artu zuten; eta ezagaturic, cein conveni zan, garbiró jaquitea, María Magdalena, emacume men, eta eguitizat bacencaten ere; bere eresi onagatic utseguin cezaquen, edo artean illun cegoala, gauza bat beste iruditu cizayoquean bildurrez, biac obiaronz abiatu ciran, beren beguiacquin icustera. Biac elcarrequin bacijoacen ere, Juan gazteagoa bezala, Pedro baño lenago eldu zan, eta macururic, obiaren zoruan edo selairuan icusi cituen gorputza bildutaco maindirea, eta lotutaco pašac, baño obian sartu etzan. Gueró bereala Pedro ere eldu, eta Obian Juan baño lenago sartu zan. Juan-ec bezala maindirea eta pašac icusi cituen; baita ere arpeguia estaltceco ipiñi cioten icerdi-zapi, Juan-ec icusi etzuena baztercho batean. Ez Jauna bera, ez Ainguerua icusi cituen; baño bai, baratza soldadu contu-artzaitte gabe, arri-estalquia azpicoaz goora iraulia, obia utsic, iljancia zoruan, eta icerdi-zapia aldamenean eta gauza oyec guciac arguiró adierazo cioten, eta sinistu zuen, Jesus viztu zala. Juan ere gueró sartu zan, eta Pedro-c bezala, gucia icusi zuen, eta biac poz andiarequin Jerusalem-era itzuli ciran.

3 §.—*Jesus Maria Magdalen-ari aguertcen zayo.*

María Magdalena ayei orpoz-orpo baratzaraño jarraitu

citzayen, baña ayecquin Jerusalem-era itzuli nai izan etzan, bere Jaun maitea obiratutaco lecu uzteco miñez, eta obiaren sarreran negarra ceriola gneratu zan. Obiaren barrura aldianmaiz beguiratcen zuen; baña ecer icusten e-tzuen. Gueroenean aguertu citzayozcan zuriz jancitaco bi Aingueru, bata obiaren buru aldetic eta bestea oñetan eserita, eta esan cioten: ¿Cergatic negar eguiten dezu? Ceren nere Jauna quendu duten, eta non utci duten ez daquidalaco, negarrez nago, erantzun cien.

Itzqueta onetan ciarduela, atceronz beguiratu zuen batean, Jesus zutic icusi zuen, ez ordea ezagutu. Emacumea ¿Cergatic negar eguiten dezu? ¿noren billan zabiltza? Jaunac galdetu cion. María Magdalena-c uste izan zuen, itzeguiten ciona baratza zaya edo hortelanoa zuela, eta esan cion: Zuc quendu badezu, esan zadazu, non utci dezun eta nie eramango det. Au esanda, berriz ere obira beguira jarri zan, gorputz-illa an icusten bazuen bezala; bada burutic ecin quendu zuen. Orduan baratza-zaya zalacoac, baña Jaun eguiazcoac esan cion: *María*. Itz bacar onecquin María Magdalena-c ezagutu zuen, Jauna zala eta poz eta atseguñez beteric, deadar eguiten du ¡Ene Maisu maitea!!! Auzpeztutcen zayo, atseguñeco negar malcoacquin bustitcen diozca Simon-en echean bocatuen damu eta miñez garbitu izan ciozcan oñ guciz santu ayec. Artuta muñeguin nai die, baña Jesus-ec esaten dio: Ez uqitu: Esaten bacion bezala; asco da; ezagutcen det, cembat nai didazun, Oraindic lecu dago: Nere Aitagana orain bereala ez noa, Zu nere anayetara (Apostoluetara) zoaz, eta esayezu, viztu naizela, eta emendic guichi batera igoco naizela, nere eta zuen Aitagana, nere eta zuen Jaincoagana.

Jesus gorde edo ezcutatu citzayon, eta Magdalena berriz ere Apostoluetara Jerusalem-era corrica jatsi zan, eta esan cien: Jauna icusi det; au eta au esan dit. Cer guertatu citzayon, ce aró esan cien: baña Pedro eta Juan, arrestian bérac icusi zuten irequin jurtcen baciran ere, Magdalenaren esanac sinistra, beste Apostolúac eta icasleac chit biotz illunacquin eta negarrez arqitu cituen, beren Maisu ona viztu zala, ecin siniztuz. Nie neronec icusi ditut, esa-

ten cien, bi Aingueru eder, bata obiaren buru-aldetic eta bestea oñetan eserita. Nic neronec Jauna icusi det, eta itzeguin dit: baña esan oyec artcen ciozcaten bere itsumenac eta eresiac erasandacolzat.

4. §.—*María Magdalena-ren lagunai Aingueruac itzeguiten die.*

María Magdalena-c or-emem guciac chit dembora guichian eguin cituen, bada eguzquia aguertceraco bigarren aldian Jerusalem-era itzuli zan. Onequin batean goizeangoiz obiaronz irtendaco lagunac María-ren ibillien berriric etzuten, María-c ayetatic aldeguin, eta beste bide batetic atcera eta aurrera ibilli zalaco; eta lagun oyen bideco ardura eta jardun gucia zan, gorputz-illa nola oquenduz igortcico zuten: éta elcarri ciotsaten: ¿Nore obia estaltcen duen arri andi hura quenduco digu? Baratzan sartu ciran eguzquia aguertuta gueró, eta arria iraulita icusteac poz andia eman cien, Idiquita cegoanean, bereala sartu ciran; baña ondoraño jatsi etciran, galai gazte baten antzeco Aingueru zuriz janci bat escuian icusi zutelaco, eta larritu ciran. Ez icaratu, Aingueruac esan cien: zuec Jesus Nazaret-eco gurutziltzatua billatcen dezute; viztu zan; emen ez dago: atozte; eta icusico dezute Jauna ipiñi zuten lecuá. Bereala zoazte, eta aren icasle eta Pedro-ri esayezute, viztu dala, eta Galilea-ra beren aurretic dijoaquiela, eta agundu izan cien bezala, an icusico dutela. Aingueruac esanda obiaren ondora emacumeac jatsi ciran; beguiratu cioten; baña il-jancia, eta icerdi-zapia besteric arquite etzuten. Arri-eguin ciran Jaunaren gorputza icusi etzutenean, eta Aingueruac esanac ecer guichian artuta, uste izan zuten, Magdalena-c bezala, norbaitzuec ostua izan zala.

Emacume on oyec negarrari eman citzayozcan, eta nalgabetuenac ceuden demboran bi guizon chit ederqui jancitaco aldamenen jarri citzayezten, ceñac icustearrequin lotsatu ciran, eta beguiac beeratu cituzten, eta guizonac esan cieten: Certaco zabilzate illen artean vici danaren billan? Viztu di, emen ez dago. Oroitu zaitezte, nola Gali-

lean esan cizuten: conveni da guizonaren Semea izan dedin becatarien escuetan ipiñia, gurutziltzatua; eta irugarren egunean viztutcea. Orduan gogoratu citzayezten Jesus-ec esandaco itzac, eta sinistu zuten, Jauna viztua zala.

Poz onequin Jerusalem-eronz baciyoacen, eta Jesus bidean bere lenagoco antz-antzean aguertu citzayen, eta esan cien: Jaincoac gorde zaitzatela. Bereala ezagutu zuten, auzpeztu citzayozcan, eta oñelatic elduta, adonatu zuten. Onetan ecin aspertuz ciarduten, eta Jesus-ec esan cien: Ez icaratu; zoazte eta nere anayai esayezute, Galilea-ra joateco: an icusico naute. Its oyec esatearequin batean Jesus ezcutatu zan, eta emacumeac bereala Jerusalem-era joan ciran.

Orduraco, Magdalena-c zabalduco albistarequin Apostolúac eta icasle asco Pedro-ren echean bilduta ceuden; emacuméac sartu ciran, eta esan cieten guertatu citzayoten guci-gucia. An arquitcen ciranac poz andiarequin aditcen cituzten oyen esánac, María Magdalena-renac, Pedro eta Juan Apostoluenac; baña uzcurtasun-antz bat eracusten zuten, beren beguiacquin icusi gabe, oso'oró sinisteco. Jesus-ec vici zala ascotan esan izan cien, viztuta gueró Galilea-n icusico zutela. Orain Jesus-ec berác, eta Ainguerúac emacume on ayei au bera esan cieten, eta beren go-goa osotoró betetceco, erabaqui zuten, Galilea-ra joatea.

5. §.—*Soldadu contu-artzalleac nagusiai esaten diete, cer guertatu zayen.*

Lurricara eta Ainguerua-ren aurquetarequin izututa iguesi joandaco soldaduetatic batzuec eguzquia aguertu zaneraco elcargana bildu ciran; eta Jerusalem-era itzulita, Apaiz-burnai esaten cieten, cer guertatu citzayen. Gau illunean lurricara bat izan zan, cioten; eguzquia bera baño Aingueru arguiago bat, obia estaltcen zuen ar-losa irauli, eta gañean eseri zan. Aren beguiac chimistac ciruditen, eta eguin cigun beguiratua ain zorrotza izan zan, non, erdi-illac atceronz erori guñan. Orduan, norc bere eguinalean, iguesequin guenduen, eta ara emen gu oraindic ere

icara osotoró quendu gabe: baña sinits-sinits eguinda, Jesu-Cristo viztu dala, eta aren gorputza obian ez datzala. Guri cegoquigon, zuei, dana dan bezala, esatea, eta zuei dagoquizute, gai miragarri onetan cer datequean jaquitea.

Soldadu ayei adituta, bereala Apaiz-buru eta Cargudunac batzarreatu ciran, gauza onen gañean itzeguitera. Arguiric asco bazuten, Jesus orainago il zutena, viztu zala ezagutu eta sinistatceco; baña gogor ceuden beren gaizqui-eguiña aitortceco, eta gucia guezurtatceco asmóac artu cituzten. Baña ¿nola ucatu eta isillic gorde cezaqueten beren soldadúac berac esaten eta aitortcen zutena? Dirutza andi bat emango diegu cioten, cer icusi duten esan gabe, isillic egon ditecen, eta barreatu dezaten, lo ceutzala, Jesus-en icasléac gañez etorri, eta gorputz-illa ostu cietela. ¡Apucoaren lotsagarria! ¿Cer? ¿lo dautzan batzuec dacarzuquiguzute lecu edo testigutzat? San Agustin-ec Batzarrecoai burlaz esaten die. Apaiz-buru eta Cargudunen asmacari au eguiaren antz gabea bazan ere, soldadúac diruagatic pozic barreatu zuten, eta Judúac gaur dan eguneraño sinismen uts onetan vici oi dira.

Berez esana dago, berri onequin Jesus-en icasle lapur ciralacoen contra Judúac su viciac artuco cituela, eta oyen bildurrez egongo cirala. Arratseraño, beintzat, ezcutuan egon ciran, eta illundu zuenean, guciac, nor bere aldetic, Galilea-ronz abiatu ciran. Ordu guichiren buruan, Tomas icen goitiz Didimo ceritzana ez, beste Apostolúac elcarrequin arquitu ciran, eta oyecquin batean beste icasle asco ere bai, eta guciac guela batean sartuta, jarri ciran, bate-tic Juduen bildurrez, eta bestetic Jesus-en icusiren bat emango cien uste oso-osoa.

Ordu pozgarri onen beguira ceudela, bi icaslec atea jo zuten, eta ezagunac ciralaco, idiqui cieten. Bi oyetatic bat zan Cleofas, ascoc diotenez, Santiago gaztearen aita, eta bestea, batzuen iritcian, Cefas. Bi icasle oyec Jerusalem-dic egüerdian irten ciran bi orduco bidastian cegoan Emaus ceritzan gaztelu edo alderrian illunabartcean sartceco asmoarequin. Itzqueta gucia egun ayetan Jerusalem-en guertatutaco gauzaen gañean ceramaten, eta elcarri galdeac

eguiten ciardutela, Jesus urreratu citzayen, eta oyequin batean cijoan; baña beguiac lausotu citzayezten, Jesus ezagutu etcezaten. Jesus-ec esan cien ¿Cer itzqueta da bidean daramazuten ori? ¿eta ain triste cerc zauzcate? Cleofas-ec erantzun cion ¿Zu bacarra cera Jerusalem-en, egun oyetan an guertatu dana ezdaquizuna? ¿Cer? Jesus-ec galdetu cien. Bidanteac erantzun cioten: Itsegnin degu Jesus Nazaret-coaren gañean, ceña izan zan guizon Igarlea, Jaincoaren eta erri guciaren aurrean eguin eta esanetan escu andicoa: eta nola gure Apaiz-buru eta Cargudunac eriotzaco sententia eman, eta gurutziltzatu zuten. Guc uste guenduen bera izango zala Israel erosi edo erredimitaco zuena, eta gaur da irugarren eguna gauza oyec guertatu cirala. Eguia da, gure emacume batzuec aztoratu edo airean ipiñi gaituzte, cergatic ecen, gaur-goizean eguna baño lenago obira joan dira, eta gorputz-illa arquite ez dutenean, etorri zaizquigu esanaz: icusi dituztela Ainguerúac, ceñac esan dieten, vici dala, eta guretatic batzuec obira joan ciran, eta gucia arquite zuten emacuméac esan bezala; baña Jauna etzuten topatu. Orduan Jesus-ec esan cien: ¡O Zoro eta biotz naguicoac, Profétac esan guciac sinisteco! ¡Cer badà! ¿conveni etzan Cristo ilteca, eta bere glorian onela sartu cedin? Eta aguertu cien Moises eta beste Profétac argatic esandaco gucia. Onetan ciardutela, Emausera alderatu ciran, eta Jesus-ec aurrera cijoalacoa eguia cien; baña escatu cioten, ayecquin guelditceco, esanaz: Gurequin guelditu zaitte, bada berandu da; eta eguna badijoa. Gueroenean bi ayecquin batean echean sartu zan. Mayean eserita ceudela, Jesus-ec ognia artu, bedeincatu, eta ebaqui zuen, eta ematen cien. Biac artu cioten, eta Jauna ezagutu zuten, eta ezcutatu citzayen.

Bacarric arquite ciranean, elcarri ciotsaten: ¿Gure biotzai etcicecaten, bidean itzeguiten eta Escritura Santac eracusten cizquigunean? Au esanda mayetic jaiqui, eta Galilea-ra joan ciran, cer guertatu citzayen esatera, eta arquite cituzten Apostolúac eta bestéac, ciotela; Jauna eguiatz viztuda, eta Simon-i aguertu zayo. Ez daquigu, Apostolúac emen aitatcen duten aguerquera au Simon Pedro-ri Jaunac



noiz eguin cion; baña uste izaten da, beste Apostoluai baño lenago aguertu citzayola. Emaus-co bi ayec gueró be-reala cearó esan cieten bidean igaroa, eta nola Jesus oguia ebaquitcen ezagutu zuten.

6. §.—*Jesus-en aguerquera Apostoluai.*

Igande edo astearen lenengo egun onen gaña aurrera cijoan, eta Apostolu eta icasléac, Juduen bildurrez echeco atea ondo ichita, ceadela, Jesus etorri eta gucien erdian jarri citzayen. Lembician icaratu ciran, eta uste izan zuten, espiritu edo antz uts gaiztoren bat zala; bada, etceritzaten, gorputz eguiazcoric ate ichietan sartu citequeanic, eta Jesus-ec esan cien: Paquea zuecquin: ¿Certaco larritu cerate, eta gogoracio bildurtiai lecu eman diezute? Ez icaratu: Ni naiz; eta icusitaco.n, adoratu zuten. Baña ayen artean baciran batzúec osotoró oraindie sinisten etzutenac, eta Jesus-ec esan eien: beguira nere escu eta oñai, eta Ni nerau naiz. Uquitu, eta icusi, espirituac aragui eta ezurric ez duela, Nic dauzcadala, dacusuten bezala: aa esanda, escuac, oñac eta sayetsa eracuteci ciezten. Baña oyec guciac icusi arren, uzcur cenden sinisteco; uste zuten, alabañan, pozác beguietan ipintcen cien irudipenen bat zala: eta Jesus-ec esan cien: ¿Cer janic badezute? Ezcalu erre bat eta ezti-abarasca bat eman ciozcaten, Jesus-ec jan cituen; eta ezagutu cezaten, ezcalu eta ezti, berez ciran eran, jan cituela, condarrac eman ciezten, jan citzaten.

Gauza oyec guciac Jesus-ec ain cearó eta banaca eguin cituen, uzcurtasun guciari utcita, bete-betea sinistu cezaten, eguiaz viztu zala: eta gueró esan cien: Zuecquin nembillenean au esan nizuten: Moises, Profétac eta Salmóac nigatic aldeaurrez esandaco gucia, eguin bear zala. Orduan eman cien Escritura Santari iguerriteco, edo eer esan nai zuen ezagutceco arguia, esanaz: Onela escribatu dago, eta onela conveni zan, Cristo il, eta irugarren egu-nean illen artelic viztu cedin, eta bere icenean penitencia eta becatuen barcacioa gende guciarentzat, Jerusalem-dic asita, predicatu citecen. Gauz oyec guciac zuec ceroc icu-

si eta aditu dituzute, Itzqueta au eguinda, Jesus ezcutatu citzayen, eta urrengo iganderaño berriz aguertu ¡eitza-yenic, ezdaquigu,

7. §.—*Jesus-ec berrizco aguerquera Apostoluai.*

Igande batetic besterañoco zortci egunac Apostoluac eta icasleac, Juduen bildurrez, ezcutuan eguin cituzten, beren Maisu maitea berriz ere aguertuco citzayelaco ustean; eta ala guertatu zan. Lenengo igande-gau artan Tomás beste Apostoluacquin arquite etzan Jesus aguertu citzayenean, eta aste-bitartean lagunac icusi-zutenean bereala esan cioten, Jauna icusi zutela: baña Tomás-ec erantzun cien; Nic ezbadacust aren escuetaco iltcezuloa, eta nere beatza an, eta escua sayetseco idiquian sartcen ezbaditut, sinistuco ez det. Apostolu onec asco escalcen zuen; baña Jesus-ec gucia eguin cion.

Bigarren igandean, au da, viztu zanelic zortcigarren egunean, Apostoluac eta icasléac elcarrequin, atea ichita. ezcutuan ceuden, Tomás berequin zutela, eta Jesus, lenagocoan bezala, sartu citzayen, eta erdianjarrita, esan cien: Paquea zuecquin. Gueró Tomas-i esan cien: zure beatza emen sareza, eta beguira nere escuai, eta zure escua indazu, eta nere sayetsean sar-ezazu eta etzaite izan sinisgogor, eta bai siniscor. Tomás-ec, nosqui, biotzie izango etzuen, escuric luzalceco, eta uquitceco ere, Jesus-ec ain zorrozquiró itceguin cionean. Bacarric itz oyec esan cituen: ¡Ene Jauna, eta ene Jaincoa!!! Eta Jesus-ec esañ cion: Icusi nazulaco, Tomás, sinistu dezu. Zorionecoac icusi etzutenac eta sinistu zutenac: zan esatea: zu baño zorionecoagoac izan ciran icusi gabe sinistu zutenac, Au esanda, Jesus ezcutatu citzayen.

8. §.—*Jesus-en irugarren aguerquera Apostoluai*

Egun onen ondoren laster bein batean aguertu citzayen Pedro eta Santiago-ri: beste bein amaica Apostoluai, elcarrequin ceudela; eta beste ascori, berriz, Teberiadeco itsas-ondoan, onela: Simon Pedro, Tomas, Natanael

(ceña batzuec diote Bartolome zala), Cebedeoren seme Santiago eta Juan, eta beste bi icasle elcarrequin arquitecen oiran; eta Simon Pedro-c esan cien: Arrantzara noa; gu ere bai zurequin, lagunac erantzun cioten. Guclac itsasora urreratu, eta ontcian sartu ciran; baña gau guclan sareacquin ibillita, ecer ere arrapatu etzuten. Eguna arguitu zanean, Jesus ur-ondoco erriberan aurqueztu zan: baña ezagutu etzuten; eia esan cien: Semeac ¿cer janic badezute? Ez, erantzun cioten. Sarea ontciaren escuira bota ezazute, eta arquiteco dezute, Jesus-ec esan cien. Bota zuten eta ecin jaso-al arrai sartu ciran (eunda berroqueita amairu pusca). Orduan Juan, Jesus-en Apostolu maiteac Pedro-ri esan cion: Jauna da. Pedro, au aditutacoan, azpico janciare gañetic mantua guerrian bilduta, itsas-urean abiatu zan, lur-leorrean bacijoan bezala, Jesus-i gñetan jartceco eresiarequin, Bitartean beste Apostolu eta icasléac ere urertzera bacetocen sare arrayez betea, ontcia zutela; bada, arrantza miragarria eguin zuten loquitic ur-ertzera eunen bat canaco bidea cegoan. Pedro, bere agur atseguñezcoa Jaunari eguin cionean lagunetara itzuli zan; sareari bere arrai guclacquin eldu cion. eta lurreratu zuen, pisu andicoa izan arren, balere urratu gabe. Leorrera ciranean icusi zuten su-brasa vici bat, onen gañean arrai bat erretcen, eta aldamenean ogui bat. Atozte eta jan ezazute, Jesus-ec esan cien, Joan citzayozcan, eta etzan ciran, Oitura zuten bezala; jateco: baña inor venturatu etcitzayon, galdetcera ¿Zu nor cera? jaquiñic, Jauna zala.

Irugarren aldian zan Jesus Apostoluai, elcar-ganatuta ceudela, aguertu citzayen oraingoa. Lenengo egunean amarri aguertu citzayen; bada, sudas saltzallea orduraco urcatua zan, eta Tomàs aguri etzan, Andic zortcigarrenean amaicai, Tomàs barrunean zala; eta oraingoan Tiberiadesco ondoan. Emen aguertu citzayen bada, ez bacarric arrigarrizco arrantza eguin eta icusteco, baita beste gauza goangarri asco eta andiac eguin, eta eracusteco ere.

9. §.—*San Pedro Elizaren Buru equiña.*

Jan-ondoan Jesus-ec Simon Pedrori galdetu cion: Si-

mon, Juan-en semea ¿oyec baño zuc maiteago nazu? Bai Jauna, badaquizu maite zaitudala, Pedro-c erantzun cion. Bada nere arcuméac bazca-itzatzu, Jesus-ec esan cion. Berriz ere galdetu cion: Simon, Juan-en semea ¿maite nazu? Bai Jauna; badaquizu maite zaitudala, Pedro-c erantzun cion. Bada nere arcumeac bazca-itzatzu, Jesus-ec Jesan cion. Irugarren aldian Jesus-ec galdetu cion: Simon, uan-en semea ¿maite nazu? Berriz eta berrizco galde onec Simon Pedro-ri barruna illuntasunez bete cion. Bere ustean biotz-biotzetic maitatcen zuen; baño iru galde oyec gogoraerazo ciozcaten Caifas-en ezcaratzeco iru uco-aldiac, eta bear aibat maite etzuen bildurrác ematen cion: eta tristura andi eta biotz illarequin erantzun cion: Jauna, Zuc gauza guciai iguerritcen diezu. Zuc daquizu, nie maite zaitudala. Bada, nere ardiac bazca-itzatzu, Jesus-ec esan cion.

Itz guichi oyeequin Jesus-ec Pedro poztu zuen, eta galdéac eman cioten miña gozotu cion. Oyeequin bere Elizaren buru eguin zuen: eta Pedro-ren contura utci cituen, ez bacarric arcumeacquin adierazten cituen, cristau beecoac, baita ardiacquin adierazotaco Artzai eta Apaiz-andiac ere. Itz oyeequin eguin zuen Artzai gucien Artzai, Opispo gucien Opispo, eta lurrean bere Ordeco eta gu gucion Buru. Gueró esan cion, cargu onec cer lanac eta nequeac eracarri-co ciozcan; baita eriotza bera-ere atcenean. Egui-eguiaz esaten dizut, cion, gaztea ciñanean, cerorri, guerrilotcen ciñan, eta nai cenduen lecura cijoacen: baño zartuco ceranean, escuac luzatuco dituzu, bestéc guerrilotuco zaitu, eta nai ez dezun toquira eramango zaitu. Itz oyen ondoren esan cion: Darraidazu, Pedro abiatu zan; atceronz beguiratu, eta icusi zuen, Juan ere cerraiquiola. Pedro-c baciequien, Jesus-ec Apostolu maite onicein asco nai cion, eta galdetu cion: ¿Jauna onec cer? esaten bación bezala: Zuc aguindu didazu zuri jarraitceco; ¿eta au nerequin etorricoida? Jesus-ec etzuen jaquin-nai onetatic Pedro atera na, izan, eta erantzun cion: Orrela nai det, ori gueratu dedin Ni natorren artean: ¿zuri cer zatzu? Zuc darraidazu. Itz oyetatic oña artuta, beste lagunen artean barreatu zan,

Juan ilco etzala: baña Jesus-ec Pedro-ri esan etcion, Juan ilco etzanic; ezpada orrela nai zuela gueratu cedin, Jesus etorrico zan arteraño, Jesus-ec oraindic vici zala, bi anaya Santiago eta Juan esanac cituen, berác edango zuen Caliza, ayec ere edango zutela: eta Jesus-ec, itz au jan nai e-tzuen, eta itzqueta hura izan zan, Pedro, Juan baño lenago, ilco zala adierazteco. Oyec eta onelaco beste gauza asco esanda, Jesus ezcutatu citzayen.

Andie laster beste egun batean amaica Apostoluac, eta bost eun icasle baño gueyágo elcarrequin Galilea-n ceudela, Jesus aguertu citzayen; baña aguerquera onen gañean Evangelariac beste berriric ematen ez digute. Onen ondo-ren beste bein batean Santiago gazteari aguertu citzayon; baña onen gañean berebat isillic daude, aguertu citzayela baicic esan gabe.

10. §.—*Jesus-en aguerquera Maria guciz Santari.*

Baña aguerqueta gucietan pozic andienecoa eta maitagarriena dudaric gabe izan zan bere Ama guciz santari Semeác eguin ciona. Evangelariac esaten ez digute Semea Amari aguertu citzayonic, ez noiz, ez cembat aldiz: baña sinismen oso-osoa egon bearguera, lenen-lenengo Amari aguertu citzayola, eta viztu zanetic Cerura igo arteco munduan eguin cituen berroguetari egunetan sarri eta maiz elcar icusi zutela, eta itzqueta luceac eguiten cituztela. Munduco criatura gucietan lenengoa zan eta Semeac maitteen-maiteena zuena: eta bere amorioaren siñaleric vicienac ematen ciozcan, chit ascotan aguertuaz, eta Ceruan sartuco zan bitartean, lurrean izan cezaquean zorion guci-gucia emanaz. Baña atceneco aguerquetara eldu gaitecen.

11. §.—*Jesus-en atceneco aguerquera Apostoluai*

Guizonaren salvacioco lanari buru emateco dembora betetcen zan: eta Jesus-ec Apostoluai aguindu cien, viztu zanetic berroguetari-garren egunean Jerusalem-en biltceco,

Ala eguin zuten; eta esan cien: Ceruan eta lurrean escubide dana eman zat. Zoazte bada, eta gende guciai eracutsi zayezute, Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu-Santua-  
ren icenean batayatuaz; aguindu dizutedan gucia gorde-  
tzen eracutsiaz. Zoazte mundu gucitic barrena, eta Criatu-  
ra guciari Evangelioa predicatu zayozute. Sinisten duena  
eta batayaten dana saluatuco da: baña sinisten ez due-  
na, condenatuco da. Ara Ni emen munduaren atceneraño  
cerocquin non beti nazuten. Sinisten dutenac siñale oyec  
emango dituzte: deabruac nere icenean botaco dituzte:  
itzcuntza berrietan itzeguingo dñe; suguéac quenduco di-  
tuzte; eta gauza ilgarriren bat edaten badute, gaitzie eguin-  
go ez die; escuac eriai ipiñico dieztee, eta sendatuco dira.  
Mirari oyec guciac Elizaren asieran, Fedea oñ onean ipiñi  
artean, eguiten cituzten: bada, landare berri bat ipintzen  
danean, sustrayac eguin, lurrean indarra artu eta aci ar-  
tean, erregalzen edo urarequin laguntzen zayon bezala,  
San Agustinec dio, Elizaren asi-berrian ere mirari oyec  
eguin bear izan cirala Cristañen biotzetan Fedec erroac  
eman citzan, eta sendotu citecen, elorrico citzayezten era-  
soai eta galbideai gogor eguiteco.

12. §.—*Confesioco Sacramentu Santuaren ipintcea.*

Jesus-ec atceneco afari gogoangarrian Aldareco Sacra-  
mentu guciz Santua ipiñi zuenean, bere Apostoluai eman  
cien escubidea aren Gorputza eta odola donequidatecco  
edo consagratceco; baita ere, eracutsi cien, leguea mun-  
du gucian zabaltecco berez eta bérac autulcen cituzten  
ondorengoan bitartez. Orain Aingueruai ere eman izan  
etcien escubidea guizonai emateco, esan cien: Paquea zu-  
ecquin, Ni nere Aitac bialdu ninduen bezala Nic ere zuec  
bialtzen zaituztet Au esanda, aiceman edo asnasa bota cien,  
esanaz; Espiritu santua ar-etzazute: Zuec becatúac barcat-  
cen dieztezutenai, barcatuacgueratzen zayeste; eta zuec  
barcatzen ez dieztezutenai, barcatu gabe gueratzen zayes-  
te. Arnasa zorioneco onequin bere Eliza santan, Sacerdo-  
teen escuetan, utci cigun becatuac barcatceco escubide,

bein-ere bear adiña andizcatu ecin diqueteana, ceñaren bitartez Ceruco ateac idiqui ditzaquegun.

13 §.—*Jesus-en Cerura igoteea.*

Jesus-ec iritci cionean bere aldetic gucia eguiña cegoala eta Espiritu Santua etortcea beste cer eguiñic etzala, Jaincoac erabaquita ceucan dembora bete zanean, prestatu zan Cerura itzultceco, eta esqueñi izan zuen bezala, Espiritu Postutzallea bialdu, eta berá bere Aita Jaincoaren escutic betico gueratceco. Onetaraco Apostolu eta icasléac-Jerusalen-en bilduta ceuden toquian, guciacquin jan-ondotan, esan cien: Nere Aitaren Esqueña zuei bialtcera noa. Zuec Jerusalen-en egon zaitezte, Aitac nere aotic esqueñi dizutena datorquizuten bitartean: bada, Juan-ec urarequin batayalcen zuen; baña zuec egun guichiren buruan Espiritu-Santuan batayatuac izango cerate, orduan an ciranae galdetcen cioten: ¿Jauna, Israel-co Erreinua orduan berri-tuco dezu? Apostoluac oraindic ere uste zuten, Jesus-ec Israel-en erreinu bat ipiñi, eta lurreco erregueen antcean anditasun guciarequin berac aguinduco zuela, eta itsumen onetatic irten etciran, alic-eta Espiritu-Santuac bere etorreraco egunean arguitu cituen arteraño. Zuei ez dagoquizute, Jesus-ec esan cien, jaquitea, Aitac bere escuan ipiñi cituen dembora eta mementoac: baña Espiritu-Santua-ren indarra artuco dezute, eta orduan lecuco edo testigu izango zatzazquit Jerusalen-en, Judea-n, Samaria-n, eta munduaren bazterrenean ere.

Jesus-equin arquitcen ciran, bere Ama guciz Santa amaica Apostoluac, eta icasle asco, eta guciac berequin artuta, egüerdi-aurrean Jerusalen-dic irten zan, Betanatic barrena Olibete-co mendira joaleco. Bide ascoz gogoangarri dan mendi onetara amabietaraco igo ciran. Jesus-ec escuac jasota, bedeincatu cituen, eta ez-arian Ceruronz abiatu zan. Cecusten, donario ederrean, eta anditasun guciarequin igolcen zan, alic-eta edei argui-eder bat erdian jarrita, chit ezcutatu citzayen arteraño, Orduan Infernu gucia garbitu zuen munduaren Salvatzallea Ceru an sar-

tu, eta Aita-Jaincoaren escuian betico eseri zan. Eseritura Santac ez digu esaten; baña sinismen osoan gaude, Jesu-Cristo-c Cerura berequin eraman cituela Adan-gandic asita, arteraño Jaincoaren gracion ildaco Abraham-en señoan ceuden zorioneco guciac; bada, Ceruan lenago inor ere sartu etzan.

¡Cer icuscarri ederra eta maitagarria an ciran zorioneco ayentzat! ¡Cer poza María guciz Santarentzat bere biotzeco Seme-Jaincoa, etsai guciac menderatuta, bere betico Aitaren ondora itzultcen icustea! ¡Cer atseguin Apostolu eta icasleentzat beren Maisu ona, esan izan cien guciari eguiztamena emanda, Garailari igo zala pensatcea! Poz eta atseguin onequin alde batetic, eta lurrean berriz elcar icusico etzuten miñez bestetic, eraman zuen bidera beguira eciñ aspertuz ceudela, zuriz jancitaco bi Aingueru, guizon antzean, aurquestu citzayezten, esanaz: Galilea-co guizonac ¿Certaco zaudete Ceruronz beguira? Cerura igotcen icusi dezuten Jesus au, etorrico da, Cerura igotcen icusi dezuten guisa berean. Au aditu zutenean Jerusalem-era itzuli ciran eta eche-gambara batean sartuta, oracioan jarri ciran, eta ichedon zuten, Espiritu-Santua noiz etorrico citzayen beguira.

Oyec dira, bada, Jesus-ec eguin cituela, Evangelariac esaten diguten aguerquetac: baña badaquigu etcizquigutela, ez oyen, eta ez beste gauza ascoren berri guciac osotoró utci: bada, San Juan, lau Evangelarietatic batec, eta Jesus-equin gueyen-gueyena itzeguin eta ibilli zana, bere Evangelioaren atceneco itzetan esaten digu, baldin Jesus-ee eguin cituen gauza guciac bat-banaca escribatuco balira, eguin bearco liraquean liburúa; mundu gucian cabbituco ez liraqueala.

## AMAICAGARREN IRACURGAYA

### 1. §.—*Judas-en lecuraco San Matias autua.*

Jesu Cristo gure Jauna, lan guciac lurrean eguinda, Cerura igo zanean, berac emandaco leguea, eta au gorde-



tearequin irabaci ditequean betico zoriona mundu gu-  
 ciari eracusteco carguarequin Apostoluac guelditu ciran.  
 Apostolu oyez, bada, oraño esan dan bezala, Espi-  
 ritu-Santuaren zai edo ustean Jerusalem-en ceuden. Bi-  
 tartean cecusten, Judas saltzallea urcatuta, onen aulquia  
 utsic cegoala: eta emen eseri cedin, artu zuten ama-  
 bigarren Apostolu bat aututceco asmoa. Onetaraco San  
 Pedro, gucien Buru bezala, eunda ogueiren bat lagun  
 elcarrequin ceudela, gucien aurrean jaiqui citzayen, eta  
 esan cien, chit conveni zala, Jesus-equin asieratic atcene-  
 raño ibilli izan ciran icasleetatic bat aututcea; Judas-en  
 aulquian eseri cedin, eta zorigaiztoco arc galdutaco Apos-  
 tolutza artu cezan. San Pedro-ren iritcia guciac ontzat ar-  
 tu zuten. eta bereala bi icentatu cituzten, José Barnabas,  
 icengoitiz Justua ceritzana, eta Matias, biac guizon zucen  
 eta Jaincoaren bildur andicoac, Gueró Jaincoari escatu  
 cioten, gucien biotzac ezagutcen dituenac bezala, iragarri  
 cizayela, bi ayetatic cein aututcen zuen, Judas-en lecu-  
 an esertceco. Escari onen ondoren choch eguin zuten, eta Ma-  
 tias-i erori citzayon; eta arteraño icasle baicic etzana, or-  
 dutic Apostoluzat artu zuten, eta Apostoluen Amabico co-  
 purua osotu zan: eta dira: San Pedro, San Juau, Santiago,  
 San Andrés, San Felipe, Santo Tomás, San Bartolomé,  
 San Mateo: Santiago gaztea, San Simon, San Judas Tadeo,  
 eta San Matias.

2. §.—*Espiritu Santuaren etorrera.*

Israel-darrac beste jai-egunen artean chit ardura-andia-  
 requin gordetcen zuten, Pazcoatic berrogeita amarga-  
 rren egunean, Jaincoac Sinai-co mendian bere leguea  
 eracutsi cieneco oroipenean eguiten zan Pentecostes-co  
 pesta. Jesus Cerura igo zanelic amargarren egunean Ma-  
 ría guciz Santa, Apostoluac, icasleac, eta len esan diran  
 emacumeac prestatu ciran, jai-egun au al-zan ondoena  
 gordetceco; eta norc bere aldetic Jaincoari erregulcen, eta  
 bear ciran beste gauzac egaiten ciardutela, goizeco bede-  
 ratcietan aditu zan, aice-bolada baten antzeco ost bat-ba-

tetaco, bat, ceuden eche gucia muguitcen zuena. Ots onen ondoren bereala airean aguertu ciran suzco-mingañ-antz batzuec, eta bacoitzari berea, gañean guciai jarri citzayen, Orduan guciac Espiritu-Santuz bete ciran, eta onec eracusten cien neurrian, itzcuntza ascotan itzeguiteari eman citcayozcan,

Egun ayetan Jerusalem-en arquitcen ciran, pesta au eguitera, eguzquiac argui-eguiten duen lecu gucietatic etorritaco Abraham-en ondorengo guizon on asco. Baita ecin esan adiña Gentill pesta icustera bildu ciranac ere ceintzuetic ascoc Moises-en leguea artu izan zuten. Len aitatu dan Ceruco otsa Jerusalem gucian adituta, gende gucia inguratu citzayen, eta arrituric gueratu ciran, norc bere itzcuntzan aditcen cietelaco: eta elcarri ciotsaten ¿Au cer da? ¿Itzeguiten diguten oyec guciac Galilea-coac ez dira? ¿Nola, bada, gucioc, norc bere jayotzaco itzcuntzan. aditcen diegu? An arquitcen ciran Partoac, Medoac, eta Elamitac: Mesopotamia-n eta Capadocia-n; Pon-to-n eta Asia-n; Frigia-n eta Panfilia-n; Egipto-n eta Libia-co baztarretan vici ciranac; Erroma-tic joanac, Judu eta Proselito-ac; Cretes eta Arabia-coac, eta guciac, nori bere itzcuntzan esaten bacitzayozcan bezala, Jaincoaren mirariac aditcen ciezteen: eta guciac arritcen ciran, esanaz ¿Onec cer esan nai du? Baña ala-ere, baciran batzuec burlaz esaten zutenac, ardoz beteac ceudela.

Escriba eta Fariseo-ac beren setan gogor ceuden. Len esaten zuten, Jesus-ec mirariac deabruaren escuz eguiten cituela: eta orain berriz, dacustenean, Apostoluac onela itzeguiten, diote escubide au ardoac ematen diela ¡Itsumenaren negargarria! Baciequiten Abraham-en humerac, oracioraco ordu jaquin bat arteraño, barañia austen etzutela; eta ala-ere, beren beguiacquin cecusquizaten mirariac uacitcen cituzten, edo gaiztoago dana, edanari egozten ciozcaten.

3. §.—*San Pedro-c lenengo sermoyarequin iru milla guizon Jesus-entzat irabazten ditu.*

San Pedro-c etzuen isillic utci nai izan gaizquiesale ayen

erausi char au, eta beste Apostolu eta icasleac inguruan cituela, zutic jarrita, gende guciari itzeguin cion, esanaz, Judeaco guizonac, eta zuec Jerusalem-en vici ceratenoc-contuz aditu zadazute, esatera noaquizedana: nere lagun oyec ordituac ez daude, ez, zuec uste dezuten bezala: oraindic bederatciac dira, eta ecer artu ez dute: zuec icu-ši eta aditcen dezuten au Joel Profetac anciñatic esana da. Gueró esan cien, Jesus, aimbeste mirari eguinaz, ayen artean ibilli, eta atcenean gurutziltzatu, eta il zutena, illen artetic viztu zala. Au an ciran guciac ciequitela, beren beguiacquin icusi zutelaco: Jesus au zala eguiazco Mesias, Profetac adierazoa, eta ayec iehedoten zutena. Oyec eta onelaco beste gauza asco San Pedro-c esanac aditu cituztenean, Jesus-gan sinistu zuten, eta lenengo itzaldi edo sermoi onequin San Pedro-c iru milla lagun irabaci cituen, eta bereala batayatu ciran, eta vicitza on eta Jaincoaren chit bildur andicoari equin cioten.

4. §.—*San Pedro-c jayotzatic elbarri bat sendatcen du.*

San Pedro-c lenengo sermoi onequin bere eguitecoari ain asiera ona emanda gueró, Escritura Santac aitatcen digun lenengo miraria, erren baten sendatcea izan zan. Jayotzatic oñac elbarriac cituen erren bat, Elizaco ate ederra ceritzan batean, bestec ipiñita, egoten zan, Elizara cijoan gendeari amoina edo limosna escatcen. Juduen oitura ri cerraizquiola, Jesus-en Apostoluac eta icasleac ordu jaquiñetan Elizara igotcen ciran, otoitzaldia eguitera. Bein batean San Pedro eta San Juan arratsaldeco iruetan baci-joacen, eta guizon elbarriac icusi cituenean Elizan sartcen, besteai bezala, limosna escatu cien. Pedro, Juan-equin batean beguira jarri citzayon, eta esan cion: Beguira zaguzu. Elbarria beguira-beguira jarri citzayen, cerbail emango ciotelacoan. Pedro-c esan cion: urre eta cillarrie ez daucat; baña dedana ematen dizut: Jesu-Cristo Nazaret-ecoaren icenean alcha zaite, eta zabilza: eta escuico escutic artuta, jaiquitcen lagundu cion. Ordu bere-berean orgatillac eta oñazpiac sendotu citzayozcan, eta salto bat eguinda,

zutic jarri zan, eta ibilliari eman citzayon, eta ayecquin batean, Jauna alabatuaz, Elizan sartu zan. Elbarri onec berroqueita gueyago urte cituen, eta Eliz-atarian esquean aimbeste aldiz icusi izan zutelaco, guciac ezagutcen zuten, eta orain sendatuta, bere onguillearen escutic cecusate-nean, gendetza andia inguratu citzayon.

5. §.—*San Pedroc bigarren sermoyarequin bost milla guizon irabazten ditu.*

San Pedro-c aimbeste gende bere aurrean icusi zue-nean etzuen ain era ona itzeguiteco, galdu nai izan, eta esan cien: Israel-co semeac ¿cerc orrela arritcen zaituzte? ¿eta cergatic zuen beguiac gugan dauzcazute, guc gure escuz edo poderez guizon au ibillierazo baguendu bezala? Abraham, Isaac, eta Jacob-en Jaincoac glorificatu du bere Seme Jesus, zuec bere etsayen escuetan ipiñi, eta Pilatoren aurrean ucatu cendutena, eta onec, libratu bear zala, esan arren, zuec nai izan etcendutena. Zuec, bada, Santua utcita, guizon-iltzalle bat escatu cenduten. Zuec il cenduten viciaren Eguille au, Jaincoac illen artetic viztu zuen: onen lecuco edo testigu gu gueroc guera, eta onen icenean, zuec elbarri ezagutu dezuten guizon onen oñac sendotu dira, eta zuen aurrean sendatu da, Jaincoac bere Profetaen bitartez esana ceucan, Jesu-Cristo ilco zala; ala guertatu da. Orain bada, gaizqui eguiñaren damua ar-eza-zute, eta ondu zaitezte, zuen becatuac barcatuac izan da-quizquitzuten. San Pedro guisa onetan itzeguiten luzaró aritu citzayen, eta guizon utsac, emacume eta aurrac ga-be bost milla Jesus-entzat irabaci cituen, eta batayatu ci-ran.

Jesus-en viztutcearen gañean Apostoluác ain arguiró itzeguiten zuela, eta aimbeste gende beretcen icusita, Elizaco Cargudun eta Apaizac, illen viztutcea sinistu nai etzuten Saduceo batzuecquin batean aztoratu ciran, eta is-cambilla andia sortu zuten. Illunabarra zan, eta auci-le-guea asteco lecuric etzutelaco, gendea sacabanatu, eta bi Apostoluac ichian sartu cituzten, biaramonean Anas, onen

sui Caifas eta gañeracoac Batzarrean bildu, eta cer eguin bear citzayen, erabaquitceco asmoan. Biaramonean goiz Batzarre guciaren aurrera Apostoluac eramán cituzten, eta galdetu cieten ¿ea noren escuz edo icenean errren elbarri hora sendatu zuten? San Pedro-c Espiritu-Santuz beneric esan cien, ayec gurutziltzatu zuten eta Jaincoac illen artetic viztu zuen Jesu-Cristoren icenean, eta escubidea-requin an cecusatén guizon hora sendatua izan zala. Jesus au zala, ayec utci bazuten ere, salvacioco cimenduaren arria, eta beste icenic cerupean etzala ceñaren bidez guizonac Cerua iritsi dezaquean.

Batzarreco Jaunac baciequiten, escolatu gabeco guizon ez jaquiñac cirala; baita egun guichiz lenago cein argaltason eta bildur andia eracutsi zuten, beren Maisuari aldeguiteraño: eta orain cecusquizatenean alaco jaquinduriarequin eta ain irmotasun viciarequin itzeguiten, arritu ciran. Beguieian ceucaten, cein escualdi andicoac cirala, esaten cien maqui sendatua, eta cer eguin ecin asmatur ciardutela, Batzarretic atera cituzten, eta bérac guelditu ciran gai onetan itzeguiten. ¿Cer eguingo degu? elcarri ciotsaten: ecin ucatu diteque, mirari andi bat eguin dutela: Jerusalem guciac badaqui; baña errian gueyago barreatu ez dedin, aguindu dizayegun, Jesu-Cristoren icenean ez iñori berriz itzeguiteco. Batzarrera berriz eramán cituzten, eta debecatu citzayen, Jesus-en icenean berriz itzeguitea eta eracustea. Baña Apostoluac erantzun cieten, esanaz: Zuec ceroc esazute, bidezago dan zuei aditcea, Jaunari baño: bada, gu ecin gaudezque icusia eta aditua esan gabe. Berriz ere lena berá aguindu citzayen, eta bialdu cituzten gaitzic eguin gabe, maquiaren sendatcea icusita, Jauna alabatcen zuen gendearen bildurrez.

Apostoluac, Batzarretic irtenda, beren lagunetara joan ciran, eta cer guertatu citzayen esan cieten. Guciac Jaunari esquerrac ematen jarri ciran; eta etsiric, Batzarreac orduan ecer eguin izan ez arren, luzaró paquean utceico etciela, Jaunari escatu cioten, bere Icen Santua eracustera cijoacen oyei mirariac eguiteco eecubidea emateco: eta escari onetan ari cirala, Jaincoac adierazo zuen, aditu cie-

la. Ceuden echea icaratu zan, eta eheco guciac Espiritu-Santuaren doayez bete ciran.

6. §.—*Lenengo cristaiien viciera eta lurreco gauzaen utcimena.*

Gueróz Apostoluac chit irmotasun viciarequin eracusten zuten, Jesus illen artetic viztu zala, eta onen legue santa zabaltcen cijoacen, esanac eguin miragarrizcoaequin eguiztatcen cituztela. Jesus Jaincotzat ascoc aitortcen zuten, eta cristaututcen ciran, eta vicitza on eta chit Jaincozcoari ematen citzayozcan. Lembicico cristan zorioneco ayec biotzac Ceruronz jaso, eta lurreco atseguin guciac eceretzat ceuzcaten, Oyen gogoie etciran betetcen aguin-  
dua eguin utsarequin; onena zala ceritzateaa, eguiten zuten. Beren ondasun guciac Apostoluen escuetan ipintcen cituzten, eta oyec persona bearrean artean zabaldu, eta guci-  
en ez-izanac estaltcen cituzten, eta zure eta nere gabe vicitcen ciran, Jesus-en ez-izan edo pobrezari cerraizquio-  
la. Batzuec onela icusten ciranean, besteac ere artcen zuten, dana utci, eta Jesus-gana jartceco gogoa. Oyen artean lenengo mallan ipintcea merce duena, José ceritzan Chi-  
preco bat izan zan. José onec, ceñari Apostoluac Bernabé icena eman cioten, lur-erlo andi bat zuen, eta salduta, onequin artutaco dirua Apostoluai eraman cien, beartsue-  
tan zabaldu cezaten, eta berá ecer ere gabe uts-utsic guel-  
ditu zan. Eliz-guizon beenecoa edo levita zan, eta Aposto-  
luac laguntzat artu zuten, eta Apostolu deitcen ere zayo.

7. §.—*Ananias eta Safira-ren castigua.*

Onen ondoren, Escritura Santac beste bat aitaten digu, ez ordea ain oso bere gauzai utci nayecoa. Ananias ceritzan batec, bere emaztearequin elcar artuta, soro bat saldu zuen, Bernabé-c bezala, dirua Apostoluai emateco asmoan. Baña ¿cer eguin zuen? Deabruari lecu eman cion; eta zati bat gordeta, bestea Apostoluai eraman cien, gucia ceramalaco irudian. Espiritu-Santuac arguituta, San Pe-

dro-c jaquin zuen, eta Ananias-i esan cion. ¿Certaco Sata-  
nas-i lecu eman diozu; dirua gordeta, Espiritu-Santuari  
guezurra sartceco? ¿Cerbada? ¿Soroa saltcen ezbacenduen,  
zurea etzan? Eta saltcen bacenduen, dirua ere zurea etzan?  
Esaten bacion bezala ¿norc beartu zaitu, soroa saltcera,  
eta onen dirua iñori ematera? Iñorc ez; ¿Certaco, bada,  
zati bat gordeta, munduaren beguietan guci-gucia eman.  
irudia eguin nai izan dezu? Ori Jesus-en servitzari oso ba-  
tentzat ez da. Gueró esan cion; ez guizonai, ezpada Jain-  
coari guezurra sartu nai izan ciola. San Pedro-c au esaten  
ciarduela, Ananias erori eta bereala il zan. Beguira ceu-  
denac icaratu ciran, eta gazte batzuec gorputz-illa jasota  
eraman zuten, eta lurra eman cioten. Andic irubat ordu-  
ra Safira emaztea aguertu zan, senarrari guertatu citzayo-  
naren berri gabe, eta San Pedro-c galdetu cion: Emacu-  
mea, esan zadazu ¿soroa onembestean saldu dezute? Bai,  
Safira-c erantzun cion: Lere senarrac zuri eman dizuna-  
gatic saldu degu. San Pedro-c esan cion ¿Cergatic elcar  
artu dezute Jaunaren Espirituari guezurra esateco? Ara or-  
atean, zure senarra lurpetu dutenen oñac, eta zu ere eram-  
ango zaituenac, Safira bereala erori, eta ilzan. Gazteac sartu  
ciran, eta icuci zulenean illa cetzala, artu eta eraman zu-  
ten, senarraren ondoan lurpetcera.

Bi castigu gogor oyec bereala barreatu ciran, eta guciac  
izuicara andiac artu cituen. Oyezaz gañera asco ciran  
Apostoluac eguiten cituzten gauza arrigarriac, batez ere  
San Pedro-c ceña nondic nora cebillen jaquinda, eri ga-  
šoac oyetan ipiñita, caleetara ceramazquiten, aren itzalac  
uquitu cizayen, eta gaitz-gucietatic sendatu citecen; Baz-  
ter-errietatic ere gendea eri eta gaizquiñac ceuzcatenacquin  
Jerusalen-era samaldaca cijoan, Apostoluac icusi ezqueró,  
sendatuco cituzten uste oso-osoan, eta nai gucia iristen  
zulen.

*8. §—Apostoluac ichian sartcen dituzte, eta Aingueruac  
ateratcen ditu.*

Mirari oyec icusita, Jerusalem gucia laster cristautuco

zan. baldin buru eguiten zutenac besteric izan balira; baña Jaincoaren bildur gabeco guizonac ciran, eta gendearen aldaqueta on au eraman ecinda, artu zuten Apostoluai galerazotceco asmoa, Onetaraco Apostoluai bein batean escuac ezarri ciezteen, eta ichian sartu cituzten, biaramonean auci-leguea eguiteco, baña Jaunaren Aingueruac gañez ateac idiqui, eta esan cien, Elizara joan eta salvacioco bidea erriari eracusteco. Aingueruaren esan onequin Apostoluac goizean Elizara joan ciran, eta eracusten ciarduten. Bitarte onetan Batzarrea bildu zan, eta Apostoluac ichian ceuzcatelacoan morroyac esque bialdu cituzten; baña bereala itzuli ciran, esanaz, presondeguico ateac ichiac, eta contuartzalleac atean arquite cituztela; baña iñor barrunan icusi etzutela, Batzarreco jaunac albista onequin elcarri beguira jarri ciran, cer guertatu ote zan ecin pensatuz. Onela luzaró egonquizunic etzuten izan; bada, berriemalle bat joan citzayen, esatera, aurreco egunean ichian ipiñitaco guizonac gendeari eracusten Elizan ciardutela.

Orduan Buru-aurquiac Elizara joanda, Batzarrera beracquin batean eraman cituzten beguiramen gucian eta bear etzanic bidean eguin gabe, eguiten cituzten mirariacquin biotzac irabaci ciozcaten gendeari bildur citzayozcalaco. Batzarrean sartu ciranean Apaiz-nagusiac esan cien: aguindu guiñizuten, orren icenean ez eracusteco, eta zuec gure esana ecertan artu gabe, Jerusalengucia ceron eracutsiacquin bete dezute; eta guizon orren odola guri egotci nai diguzute. San Pedro-c bere lagun gucien icenean, aurrecoan bezala, erantzun cien, guizonac esana baño Jaincoarena lenago zala; Jesus, ayec gurutziltzatua, Jaincoac viztu zuela, eta onen icenean baicic becatuen barcacio eta salvacioric etcegoala. Itz oyec aditu ciozcatenez, aserretuta, ortzacquin carrasca-otsac eguiten cituztela jarri ciran, eta ilteco gogoac ere ematen cien: baña Batzarreco bat Gamaliel ceritzana, guizon aditua, eta errian chitasco cezaqueana, Fariseoa bazan ere; jaiqui zan, eta Apostoluac guelatic aterata, Batzarrecoai, guizon cintzó eta arguari dagoquion eran, itzeguin, eta alcenean esan cien:



¿Certaco orrela necatcen cerate? Baldin guizon oriec dara-  
bilden lana guizouena, bada, berez erorico da; baña Jain-  
coarena bada, alperrie gogor eguingo diezute: eta zuen  
eguin al guciaquin mundu guciaren aurrean ceroc Jain-  
coaren etsai aguertcea baicic eguingo ez dezute, eta ¿cer  
gauza icaragarriagoric au baño? Gamaliel-en esanai ondo  
iritci cioten; baña Apostoluac ganaco gorrotoa osotoró utci  
etzuten, iltceco cerabilten asmotic atceratu baciran ere.

Batzarrera berriz eramanda, gucien aurrean lotsa gue-  
yagoraco, azoteac eman ciezteen, eta Jesus-en icenean ez  
berriz itzeguiteco aguinduta, bialdu cituzten. Batzarrecoac,  
iñolaz ere, uste zuten, ain azote farragarriac artutaco gui-  
zónac etcirala venturatuco, legue berri bat eracustera; eta  
artaratcen baciran ere, aditzalle eta icasleric etzutela izan-  
go; baña utseguin zuten.

Apostoluac Batzarre-guelatic chit poz andiarequin irten  
ciran, Jesus-en icenean eta Jesus-gatic cerbait eramateco  
zoriona izan zutelaco. Apostolu guciac icasleacquin bildu  
ciran, eta atsedean ere gabe cebiltzan, bein Elizan, bein  
echeetan, Jaunaren leguea eracusten, eta Evangelioa za-  
baltcen, Batzarrean eguin nai izan citzayen azotezco ise-  
càc etcien beren icasleetatic bat-bacarra ere quendu, eta  
ez atceratu; egunetic egunera are gueyago cerraizquiou; eta  
icusiric, amabi Apostoluentzaco adiña baño lan gueyago  
sortzen citzayela, eguiteco batzuetaraco lagun jaquiñac au-  
tulceco asmoac artu cituzten.

### 9. §.—Zazpi Diaconoen auquera.

Jesu-Cristo Cerura igo zanetic seiren bat illabetean Apos-  
toluac bérac, onguilleac ematen ciezten gauzac, Cristau  
beartsuen artean zabaltcen cituzten; baña Cristauac asco-  
tu ciranean, neque-eguiten citzayen, guciai berdin eta bear  
bezala beguiratcea, Apostolutzaco beren lan andienai utci-  
gabe. Bitartean Hebrearren eta Grecia-rren artean despita  
bat sortu zan. Grecia-coac esaten zuten, oyen emacume  
alargun beartsuac etcirala ain ondo beguiratuac eta lagun-  
duac, nola Hebreacoenac; eta beti gaizqui-esaca erausian

ciarduten. Despita oni asieratic zañac ebaquitceco, Apostoluac icasle guciac batera bildu cituzten, eta esan cieteen, autu citzatela beren arteco zazpi guizon virtutetsuenac, Espiritu-Santuz beteac, eta jaquintsuenac, artu-eman oyen contua izan cezaten, bérac otoitzari eta prediuari heteroago. eta arazo guichiagorequin emateco. Apostoluen esana guciai ondo erori citzayen, eta bereala autu cituzten Esteban, guizon fede andicoa, eta Espiritu-Santuz beteac, Felipe, Prócoro, Nicanor, Timon, Pàrmenas, eta Nicolàs Antioquia-tic joan-berria. Apostoluac otoitz-eguinda, escuac ipiñi ciezteen, eta Diacono eguin edo Evanġelios ordendu cituzten.

Languille berri oyecquin Jesu-Cristo-ren icasleac eta jarraitzalleac egunetic egunera ugaritcen ciran, batez-ere, Jerusalem-en, eta besteen artean Aaron-en jatorrico apaizac ere, Moises-en leguea utcita, Jesus-ena artcen zuten. Baña zazpi languille berrietatic gueyena, bere jaquinduri, itzeguiteco arguiarequin eta mirarietaco escualdiacgatic aguertcen zana San Esteban zan. Onen icena eta lánac barratu ciran. Sinagogaco jaquintsu-usteco bazuec jaiqui citzayozcan, berarequin eleatu eta contra eguitera; baña ecer eguin ecin zuten, eta laster isiltcen cituen. San Esteban-en eguin-al gucia zan eracustea Jesu-Cristo Jainco eguiaczoa dala; eta emendic oña arturic, abiatu ciran San Esteban ilteco asmoan. Lecuco edo testigu guezurti batzuec irabaci cituzten, esan cezaten, Jaincoaren eta Moises-en contra blasfematcen aditu ciotela. Escuac bereala ezarri ciozcaten, eta Batzarrera eramanda, esan cioten, cer gauzac egozten citzayozcan. Andizqui eta gende asco bildu ciran, cer erantzuten zuen, edo bere burua nola garbitcen ote zuen icusi nayez, San Esteban-ec bacecusan galdu nai zutela; eta erioa gañean zuela; baña bere barrunari baci. cecan Jesus-en amorez, eta Jesus-en icenean cerbait igar<sub>o</sub> bearra zuelaco pozez. Laster ezagutu zan, Jaincoac beguiratcen ciola; bada, arpeguia ain ederra eta arguia bat-batetan jarri citzayon, non beguira ceudenac, uste izan zuten, Aingueruren bat cecusatela. Orduan Apaiz-nagusiac galdetu, cion, gea ezarri cioten gayaren gañean ecer esan bearrie zuen?

10. §.—*San Esteban-en eriotza.*

San Esteban, Espiritu-Santuaren arguiz beteric, asi citzayen itzeguiten. Esan cien, ayen lenagocoai, Abraham-gandic asita, Jaincoac cer mesedeac eguin ciezten, eta Jaincoarequin cer erantzupide izan zuten: Jaincoac esanac artu bearrean, cer eguin izan cioten: eta atcenean esan cien: Zuec, guizon buru-gogor-dunac eta biotz gaiztoac, Espiritu-Santuari beli gogor eguiten diozute, zuen asabac eguin izan cioten bezala. ¿Cein Profetari zuen asabac vicia barcatu cioten? Ayec Gristo-ren berri-emalleac il cituzten, eta zuec Cristo bera il dezute. Au aditu zutenean aserre vician sartu, eta ortzacquin carrasca-osca jarri ciran. San Esteban-ec laster iguerri cien, cer eguilera cijoazquion, baña cetorquion il-bearrac etzuen alceratcen, eta dicharie andienecotzat ceucan Jesus-gatic vicia galtcea, lembaitlen Ceruan elcar icusteco. Eresi onequin beguiac ceruronz jasola, esan zuen: Ara non dacusquidan ceruac zabal-zabalic, eta guizonaren Semea Jaincoaren escoian zutic. Judúac ez gueyago aditceagatic belarriac estali cituzten; iscambilla andi batequin gañean ezarri citzayozcan, eta gogortasun guciarequin Jerusalem-dic aterata, arrica eraso cioten. Lecuco edo Testiguac ciran castigüera au ematen, oituraz lembicico asitcen ciranac, eta arazo guichiagorequin eguin cezaten, beren capac, Saulo ceritzan gazte baten oñetan ipini cituzten. Gorputz gucia laster mallatu eta urratu cioten; odol gucia arri-zuloetatic bacerion; eta bere buruari iguerriacionean, indarrac aitu citzayozcala, eta itcera cijoala, esan zuen: Ene Jaun Jesus, nere espirituar- ezazu. Jesus bere Maisuac, iltzalleacgatic Aita Jaincoari gurutcean esandaco itzac, arria arriaren urrena cetorquion estuenean, ere, gogoan ceuzcan, eta atceneco asnasaetan belaunico jarrita, beguiac ceruronz cituela, deadar eguin zuen: Jauna, becatu au aintzat artu ez dizayezula, arren: eta itz oyec esan orduco, il zan.

Jesus-en etsayac bildur andia ematen bazuten ere, aren icenean ecer eguiten zutenentzat, Jesusalen-en arquite ci-

ran guizon on, eta Jaincoaren bildurrecoact etorquizon guciac aztuta, San Esteban lenengo Martiri onen gorputz-illa artu, garbi-garbi eguin eta oquenduz ondo igortcita, negar min, eta progu andiarequin lurpetu zutenac. Urreneco arratsean Gamaliel-ec gorputz-illa isillic artuta, Jerusalem dic zazpi orduco bidean ceucan soroan, obi berri batean ipiñi zuen, non Gamaliel berà, bere seme Abibon, eta Nicodemo, Jesus gurutctic jatsi zuenarequin batean gue-roago lurpetua izan zan

### AMABIGARREN IRACURGAYA.

#### 1. §.—*Elizaren esetsia edo persecucioa.*

San Esteban-en eriotzarequin Elizaren nequéac asi ciran Arteraño Jerusalem-ec ozterontzeco lecu gucietan cristaiac eramankuizun andi gabe paque onean vici ciran. Jerusalem-en ere, Apostoluai bein azoteac eman haciezten ere Jesus-en icena ez berriz aitatceco aguindu utsarequin, gue-yago gabe, utci cituzten, eta Jesus-en etsayac cerbait gogoan iduqui arren, etciran chit aguertcen; eta Apostoluac ere Jesus-en leguea, isill edo aguiari, eracusten ciarduten. Baña San Esteban-i vicia quentcera bein jarri ciranean, es-talqui guciac bota cituzten, eta arguiró asi ciran cristaiaren zantzucó guciac galdu navez, eta Jerusalem-en iracequitaco sua inguruetara zabaldu zan.

Apostoluac icuciric, Cristaiac cein irriscu andian arquitcen ciran ain gogoz artutaco Jesus-en leguea galtceco, eguin-al gucian necatcen ciran, sendotceco, eceri ere barcatu gabe. Esetsi edo persecucioric gogorrena nola Jerusalem-en jaiqui zan, pensatu zuten, asi-berri artan bérac emen egotea onena zala, guciai arpegui emateco; eta bere lecuaren arestian aitatu diran languille berri San Esteban zanaren sei lagúnac eta beste asco Judea [gucira eta inguruetara zabaldu cituzten, eta oyec beren eracutsi eta vicitza onarequin, eta eguiten cituzten mirariacquin lenac bizcortu, eta asco berri cristaututcen cituzten.

Felipe, languille oyetatic bat, Samaria-co alderdira joan,

eta Evangelioa eracusten baciardun, bere esanai mirari ascorequin lagunduaz. Samaria-co uri Siquen-en vici zan Simon ceritzan bat, bere sorguintza eta guezurraquin gendegucia beretu zuena, eta guizon anditzat ceucaten, eta «Jaincoaren vertutea» deitzen ciotena. Siquen-darrac orain Felipe-ri aditutacoarequin Jesus-gan sinistu zuten, eta guizon-emasumeac, eta zar-gazteac batayatu ciran: atcenic Simon berac ere Felipe-ren esanai ecin arpegui eman izan cien, eta batayatu zan.

2. §.—*San Pedro eta San Juan-en joanera Samaria-ra:*

Felipe-c Diacono utsa zalaco, beste Sacramentuac ecin eman citzaquean, eta batayatu berri ayei eman naye, batez ere Confirmacioco Sacramentuac, ceñaren bitnitez Cristaūai Espiritu-Santua, eta onequin mirariac eguiteco escua ceterquien, Jerusalem-era Apostoluai gazligatu cien, Samaria-c Jaincoaren esana artu zuela, eta on izango zala, Apostolu batzuec joan, eta Sacramentu sendogarri au ematea. San Pedro berá, eta San Juan bere lagun cutuna joan ciran, eta escuac gañean ipiñita, andi-chiqui guciac confirmatu cituzten.

Simon, arestian aitatuac, icusiric, Apostoluac escuac ipintcearequin Espiritu-Santua ceterrela, cscatu cien, ari ere escubide hura eman cizayotela cerbait diruren truque. San Pedro aserretu citzayon, eta esan cion: Zure dirua zure galmen izan bedi, Jaincoaren doaya diru-truque ematen dala, uste izan dezulaco. Guerò iragarri cion, cein barru galducoa eta biotz gaiztocoa zan, eta bere gaizqui-eguiñaz damutu cedilla, eta Jaunari barcacio escatceco. Simon-ec bayezco itza eman cion; baña, inolaz ere, bere gaiztaquerian il zan, bere utseguiteac ezagututa, Jaunaren bidean jarri gabe. Simon onegandic dator *Simonia* deritzan, eta Elizac ain zorrotz debeatcen duen lurreco gauzacgatic animacoen salmenta. Herege gucietan lenengoa Simon au bera da,

Samaria-rrai Confirmacioco Sacramentua emanda, bi Apostoluac Jerusalem-era itzuli ciran, Jesus-en leguetic ain

urrutic cebilzan gende ayec Jesus Jaincotzat ezagutu zule-  
laco chit poz andiarequin.

3. §.—*Etiopia-rraren batayoa.*

Aposteluac aldeguin zutenean bereala, Aingueru bat Felipe-ri aguertu citzayon, eta esan cion, Jerusalem-dic Gaza-ronzco bidean barrena eguerdi-aldean joan cedilla. Bidean jarri zan, eta bereala topatu zuen guizon bat, *Candace-ren* icenarequin emacuméac bacarric aguintcen zuten alderdi bateco Erreguiñaren Ministro eta ondasun gucien contuartzallea. Etiopia-r au noizbait Gentilla izau bazan ere, orduraco Moises-en leguea artua zan; beragatic Jerusalem-go Elizan Jaincoa adoratcen izanda, echeronz bere gurdian eserita cijoan, Escritura Santa iracurtcen. Felipe Jaincoac ala iragarrita, gurdira alderatu citzayon, eta ezaguturic, Isayas-en liburua iracurtcen zuela, esan cion: ¿Iguerritcen diozu iracurtcen dezun orri? Etiopia-rrac umiltasun guciarequin erantzun cion, ¿Nic nola iguerri dizayoquet, norc eracutsi ez badet? Gueró esan cion, gurdian sartu, eta aren ondoan esertceco. Iracurtcen zuen Escritura Santac au cion: ardia bezala, il-toquira eramán zuten; eta bildots bat mochallearen aurrean bezala, isillie egon zan, itzie ere atera gabe. Etiopia-rrac Felipe-ri galdetu cion, ¿ea Isayas-ec hura ceñgatic cion? ¿bere buruagatic edo besteren batgatic? Felipe-c, emendic aria artuta, esan cion. Profeta aren esana nola bete zan Jesus Nazaret-ecoaren eriotzan, ceñaren berri, uste zuen, Etiopia-rrac bérac Jerusalem-en egondaco egunetan izango zuela. Gueró eracutsi ciozcan Evangelioari dagozquion gauzac, eta ceñ eguin; bear dan, betico vicitza iristeco. Iizqueta onetan cijoacela ur-ondo batera eldu ciran, eta Etiopia-rrac Felipe-ri esan cion: Ara ura emen, ¿cerc eragozten du ni batayateca? Baldin biotz-biotzetic sinisten badezu, Felipe-c esan cion, batayatua izan zaitezque. Etiopia-rrac erantzun cion: Sinisten det, Jesu-Cristo Jaincoaren Semea dala. Orduan gurdia gueldierazo zuen; biac urera jatsi ciran, eta Felipe-c batayatu zuen. Uretic igo ciranean, Espiritu-Santuac

Felipe artu zuen, eta Etiopia-rrac berriz icusi ezuen. r-  
dian sartuta, bere bideari jarraitu citzayon poz andian, eta  
artu zuen Jesus-en Evangelioa bere alderdian eracusteco  
eresi viciarequin, Felipe-c bere burua Azoto Filistindarren  
urian, arqitu zuen, eta emendic asita, inguruetaco erri  
gucietan eracusten ibilli zan, Cesarea-co bere errira joan  
zan artera ño.

4. §.—*Saulo Cristaüen etsaya.*

Jerusalen-dic cerbait urrutian ceuden alderdietan Cris-  
taüac, oraindic ere, paquean eta neque andia gabe vici ci-  
ran, eta Jerusalen-dic zabaldutaco languilléac Evangelioa-  
ren aciac sosegu guciarequin erein, eta aboztu onac iristen  
cituzten: ez ordea Jerusalen-en, non Cristaüen odola chi-  
rrian cijoan, eta Martiri ascoc cerua irabazten zuten. Je-  
sus-en etsai odol-zaleac onean ecin eraman cituzten urru-  
tietatic cetorzquien Jesus-en aldeco berriac: eta gucien ar-  
tean gogortasunic andiena aguertcen zuena, orañago ai-  
tuta dan Saulo zan.

Saulo, gazte vici ecerc bildurtcen etzuena, eta ecergatic  
ere oña alceratcen etciequiena: berez arguia, iztun ederra,  
jaquintsua, bere vicieran ecertan ere maiñiatuquizun gabea,  
Moises-en leguean ondo icasi, berac cintzó gorde, eta bes-  
teai gorderaguiteco chit contu andicoa zan: beragatic bere  
erlegioco guciac chit asco nai cioten, eta bere esanera  
ceuzcan. Profetaen esanac ondo aratuac edo erregistra-  
tratuac cituen, eta oyetatic iguerritcen cion, Mesias-en eto-  
rrerac etzuela luzatueo; baña beste Judúac bezala, lurre-  
co erregueen antzeco anditasunean etorrico zalacoan, ce-  
goan; eta Jesus-gan onelaco aztarnaric nola etzuen icusten,  
ecin sinistu zuen, Mesias eguiazcoa zala, eta eguin cion  
berri au ematen eta sinisten zuten guciai gogor eguin eta  
galdutceari.

Saulo-ren gogoa asetcen etzan San Esteban-en iltzalleai  
lagundu izanarequin; ez Jerusalen-en vici ciran beste cris-  
taüac eguin- al gucian necatu eta penatcearequin: campo-  
coai ere ayer citzayen; eta Apaiz-nagusiari escatu ciozcan

bear ciran baimen eta escubideac, alderdi gucietara, batez-ere, Damasco-ra joanda, arrapatcen cituen cristau guciac Jerusalen-era eramateco. Apaiz-nagusiac gauza gogo-coagoric etzuen; eta Saulo-ri arguibide guciac eman ciozcan, ciona eguiteco.

Saulo Jerusalen-dic aserre vician irten zan, eta Damasco-ondora eldu zanean, ceruco argui batec inguratua arquite zan; eta lurrera erorita, ots bat aditu zuen, esaten ciola: Saulo, Saulo, ¿certaco jazartcen edo perseguitcen nazu? Saulo-c bereala esan cion ¿Nor zaitut, Jauna? Ni naiz Jesus, ain ayer zu zatzayona, Jesus-ec erantzun cion; zurretzat acullua osticatcea gogorra da. Saulo chit larritu zan, eta galdetu cion ¿Cer nai dezu, bada, nic eguin dezadan? Urira zoaz, Jaunac esan cion, eta an esango zatzu, cer eguin. Saulo-ren lagunac arri-eguiñic ceuden, otsa aditu, bai eta iñor etcecustelaco.

5. §.—*Saulo-ren ondutcea, eta lenengo lanac.*

Saulo jaiqui zan, eta beguiac zabaldua, ecer icusten etzuen. Orduan lagúnac, escutie artuta, Damasco-ra sartu zuten. Iru egunean egon zan ecer icusi, jan eta edan gabe, Bitarte gucia igaro zuen Jaunari erregutcen, bere gaiztaqueriac ezagutcen, oyen barcacioa Jaunari escatcen, eta Jaunac aginduco cion gucia eguiteco prestatcen. Demborra onetan Damasco-n arquitecen zan Ananias ceritzan Jesus-en icaste bat, ceñari Jaunac agindu cion, Saulo-gana joateco. Ananias-ec baciequien, Saulo cristallen cein etsai gogorra zan, eta uzcur cegoan; baña Jaincoac esan cionean, Saulo Gentillai eta Erregueai bere icena eramateco autu zuen bat zala, agindua eguitera, jarri zan. Iru egunen buruan Saulo-ri ere iruditu citzayon, Ananias ceritzan bat cijoquiola, eta escuac gañean ipintcen ciozcala. Esan eta eguin: Ananias, Jaunac esan bezala, joanda, Saulo-ren echean sartu zan, eta escuac gañean ipiñita, esan cion: Saulo anaya, onara cenecarren bidean aguertu citzatzun Jaun Jesus-ec bialdu nau, zure beguiac arguitu ditecen, eta Espiritu-Santuz bete zaitecen, Au esan ordaco, Saulo-ren



beguietatic ezcama-ren antzeco cerbaitzuec erori ciran, beguiac arguitu citzayozcan; jaiqui zan, eta bereala batayatu izan zan. Cerbait janda, bizcortu zan, eta ondorengo egun batzuec Jesus-en icasleacquin Damasco-n eguin cituen. Ananias, Jaunac aguindua cintzó eguinda, echera itzuli zan, eta Saulo guelditu zan Jaunari esquerrac eta esquerrac ematen, gorputzeco arguiarequin batean, animan ere arguitu zuelaco.

Saulo-c bere burua Cristautua icusi zuenean, Evangelioa eguin-ál gucian, eceri ere barcatu gabe, eracusteco asmoa artu zuen. Bereala asi zan Damasco-co Sinagoga edo Juduen elizaetan predicatcen, Jesus Jaincoaren Semea zala Aditcen cioten guciac arrituric, esaten zuten, ¿ea hura etzan Jesus-en icena eracusten zutenac galdutcen Jerusalem-en cebillena, eta Damasco-ra ere, emengoac ara eramateco, Apaiz-nagusiaren escubide guciacquin etorri zana? Oyec cembat gueyago esan eta arrituagotu, Saulo-c ambat viciago eracusten zuen, Jesus zala Mesias eguiazco Jaincoaren Esqueñaia.

Damasco-co Judúac onean ecir eraman izan zuten, orañago beretacoa zan guizon argui onec, Jesus-en alde ala itzeguitea; eta dudatzaca Saulo ilteco asmoa artuco zuten, benic-bein Damasco-ñic joan zan Arabia-ra, Evangelioaren berriric arteraño zabaldu etzan alderdira. Emen iru urte igarota, Damasco-ra itzuli zan, Damasco-arrac utci cituenean baño samurragoac, eta Evangelioa artceco prestatuagoac arquituco [cituelacoan; baño bere usteac uts irten citzayozcan. Judúac ezagoturic Saulo bezain guizon arguiaren esanac cein itzal andicoac ciran, Batzarrea eguinda, aguindu zuten, il cedilla. Damasco-co Eraentzalle edo Gobernadoreagandic bereala iritsi zuten, Urico ateetan contuartzalleac ipintcea, isillic igueseguin etcezan. Saulo-c ibilli oyen berriac artu cituen. Urian ciran Jesus-en icasle andien'suacquin gai onetan itzeguin zuen, eta uribazterreco eche batera joanda, sasqui batean leyotic lurrera gañez jalsi zuten, eta galdu nai zutenen escuetatic igues-eguin zuen.

Saulo-c eta San Pedro-c elcar oraindic ezagutcen etzu-

ten, eta Jesus-en ordeco oni zor cion beguirunea eracusteco, eta ezagutceco ceucan eresiarequin, Damasco-tic aldeguinda, Jerusalem-era joan zan. San Pedro-ri bereala aurqueztu citzayon; Jaincoac eguin ciozcan mesede andien, eta bere ibilli gucien berri eman cion, eta San Pedro-c Aita on bati dagoquion beguibitartea-requin artu zuen. Emen etzuen San Pedro eta Santiago gaztea beste Apostoloric icusi, gañeracoac orduraco, nosqui, Juduea-razabaldueac ciralaco, Evangelioa eracustera. Jerusalem-en amabost egun bacarric eguin cituen; bitartean ala Gentillai, nola Juduai, Jesus-en gañean itzeguiten cien, leñagoco bere utseguiteen orde; eta atceneraco Judúac, arpegui ecin emanic, iltceco asmoa artu zuten.

Saulo bere viciaren gora-beeragatic Jerusalem-en egongo zan, Evangelioa gueyago eta gueyago eracusten, baña Gentillen Apostolutzaraco Jaincoac autua zan, eta adierazo cion, galdu nai zutenetic aldeguin cezala. Adisquideac iguerri ciotenean bacijoaquicela, Cesarea-raño lagundu cioten, eta Tarsora bialdu zuten, bere aide, adisquide eta ezagunen babesean Juduen ayercunetic obeto gorde cedin.

6. §.—*Evangelioaren aurrerapenac.*

Bitartean Evangelioac Judea-n Galilean. eta Samarian irabaci andiac ateratcen cituen, eta cristaiac paque onean vici ciran. Au gogoan ceucala, San Pedro-c esetsi edo persecucioa suric vicienean cirañenean Jerusalem-dic aldeguin ezbazuen ere, orain cerbait itzaltcera eguin zanean, artu zuen alderdi ayetan gira bat emateco asmoa. Jerusalem-dic irtenda, Judea, Galilea eta Samaria-co erriric andienac icusi cituen, Jesus-en Ordeco lurrian, eta gucien Aita zan aldetic, eracutsi onac ematen cieztela; eta atcenean joan zan Lida ceritzan urira. Emen baciardun, aspertu ere gabe, guciai Jesus-en leguea eracusten; eta eri oatuta ceudenac ere San Pedro-ren itz onac aditu gabe guelditu etcitecen, echez-eche ceramaten, eriac ere, besteac bezala, poz au izan cezaten. Larabide on onetan cebillen bein batean joan zan, zortci urte gorputz-erdi-illarequin oyan ceramazquien

guizon Eneas ceritzanaren echera; eta esan cion: Eneas Jaun Jesu-Cristo-c sendatcen zaitu, jaiqui zaite, eta cere oya tolestatu ezazu. Eneas jaiqui zan eta oya tolestatu, zuen, icusi cezaten, eguiaz sendatu zala. Ecin sendatu citequean eritzat zortci urte ayetan ceucatenaren, bat-bate-laco sendatce au zabaldu zan uri eta Saronaco ballera gucian, eta danac cristau eguin ciran.

7. §.—*San Pedro-c Tabita viztutcen du.*

Mirari andi onen otsa iritsi zan, Lida-tic bi orduco bidera cegoan Jope-ceritzan uri larri batera ere. Jopen zan emacume alargun bat, Tabita ceritzana, Jesus-en icasle chit ona, vertutetsua, eta persona bearrai on-eguiten beti ciarduena, eta pobre guciac amatzat beguiratcen ciotena. Tabita il zan, bere mesedetu guciac negarrez ulcita. Atceneco proguric andienarequin lurpetceco gorputza garbituta, oquenduz ondo igortci zuten, eta guela eder batean ipiñi zuten, eta bere oneguindaco asco inguruan jarri citzayozcan.

Jope-co Cristauac jaquin zutenean, San Pedro-c Lida-co eriarequin cer eguin zuen, bi mandatari bialdu ciozcaten esatera, Jope-ra, arren, bere-bereala joan cequiela, San Pedro-c gaztigu au artu zuenean bereala, certaco zan esan ezbacioten ere, bideari equin cion. Guelan sartu zan, eta arquitu zuen andre-alargun-samalda andi bat, Tabita zana eguin izan ciezten soñecoac negar-malcoz bustitcen cituztela. San Pedro-ri, icusi orduco, asi citzayozcan erre-gua, arren ayen gucien onguille andi hura viztu cezala. San Pedro-c guciac guelatic cámpora bialdu cituen, eta bera bacar-bacarra guelan gueldituta, gurputz-illaren ondoan belaunicatu zan, eta Jaincoari otoitz-aldia eguinda gueró, Tabita zanari beguira jarri citzayon, eta esan cion: Tabita, jaiqui zaite. Beguiac bereala zabaldu cituen, eta San Pedro icusita, eseri zan. San Pedro-c escua eman cion, eta jaiqui zan. Gueró Jesus-en icasle eta andre negartiai otseguinda, Tabita viztua eta sendatua eman cien. Viztutce miragarrizco au Jope gucian barreatu zan, eta guichi batzuec ez besteac Jesus-gan sinistu zuten, eta cris-

tau eguin ciran. Poz onequin ondorengo egunetan San Pedro Jope-n egon zan, Simon ceritzan larru-ontzalle, edo curtidore baten echera billetcen zala.

8. §.—*Cornelio eta bereen batayoa.*

Jope-co cristau berriai contu artcen, San Pedro-c, iñori utci gabe, berez ciardun bitartean, Cesarea-co urian are ots andiagoco langai bat Jaincoac prestatcen cion. Uri onetan cegoan *Italia-co legioa* esaten citzayon soldadu-samalda baten Buru eguiten zuën Cornelio ceritzana, (edo eun soldaduzco compañía baten Capitana). Cornelio chit ona eta Jaincoaren bildur andicoa zan, eta echecoac ere berebat ciran. Persona bear asco estaltcen cituen, eta otoitz-aldi luceetan egoten zan. Bein batean arratsaldeco iruen aldean iruditu citzayon, Aingueru batec itzeguiten ciola, esanaz; Cornelio, zuré otoitz eta limosnac Jaincoaren aurrera igo dira. Mandatariac Jope-ra bialdu itzatzu, eta Simon larru-ontzallearen echean vici dan Pedro, era berean Simon deritzanari gaztigatu zayozu, zugana etortceco. Berac esango dizu, cer eguin. Ainguerua ezcutatu citzayonean, Cornelio-c Jaincoaren bildurreco bi morroi eta soldadu bat Jope-ra bialdu cituen. Biaramonean Jope-ra ozta urreratu ciran demboran, San Pedro amabien inguruan echeco gambarara igo zan, otoitz eguitera. Gosetu zan, eta cerbait jateco asmoa artu zuen. Jana maneateen ari ciran bitartean, corde gabe jarri zan, eta onela cegoala, iruditu citzayon icusten zuela Cerua idiquia eta zapi bat lau ertcetatic lotuta, ontei baten guisan Ceratic lurrera cettorrela, Ontei onetan cetocen lurrean dabilzan lau oñeco vicidun guciac, eta aireco egaztiac: eta aditu zuen ots bat ciona; Jaiqui zaite. Pedro, il eta Jan ezazu, Pedro-c erantzun zuen; Ez nie orrelacoric, Jauna, bada gauza loiric egundaño jan ez det. Berriz ere otseguin citzayon, esanaz, Jaincoac garbituari ez zuc loya esau. Itz oyec iru aldiz aditu cituen; eta atcenean zapizco ontcia Cerura itzuli zan. San Pedro cordera zan, eta irudipea onec cer esan nai ote zuen esin iguerriz ciarduela, Cornelio-c bialdutaco iru

guizónac atean otseguin zuten, galdez. Simon, Pedro céritzana, an vici ote zan. Jaincoac San Pedro-ri biotzera esan cion, nola cijoazquion, eta guizonai bidera irtenda, esan cien, ayec billatcen zutena hurase zala, ¿ea cer nai zuten? Eratzun cioten, Gornelio guizon on eta Jaincoaren bildurreco, eta Juduen artean icen andicoari Aingueruac aguindu ciola, hura bere echera eramateco, eta cer esaten cion, aditceco,

San Pedro-c ostatuz bere echean artu cituen, eta biaramonean Cesarea-ronz abiatu zan, iru mandatariac, eta Jesus-en icastle batzuec lagun cituela. Bigarren egunean eldu eiran Cesarea-ra, non Cornelio-c bere aide eta adisquideacquin ichedoten cion. San Pedro echea atectara zanean, Cornelio aurreratu zan, eta oñetan auzpezturic, agur-eguin cion. San Pedro-c esan cion; Jaiqui zaite; bada ni ere guizona naiz; eta biac sartu ciran, aide eta adisquideac ceuden guelan. Guciac San Pedro-ri aditceco eresi andiarequin arquitcen ciran, eta Apostoluac au ezagututa, bereala asi citzayen Jesu-Cristoren gañean itzeguiten: eracutsi ciezen Evangelioari dagozquion gauza andiac, eta bere itzaldiari oraindic buru eman baño lenago, Espiritu-Santua, guciac cecustela, aditzalle gucietara jatsi zan, eta asi ciran itzcuntza ascotan itzeguiten, eta Jaunaren berri andiac ematen. Au icusita, Jope-tic berequin eramandaco lagunac arritu ciran, ez amba! berai Judu cristautuac izanic, etorri citzayelaco, cembat Cornelio, eta onen aide eta adisquide Gentill ciranai: bada, uste izaten zuten, Gentillac Jesu-cristo-ren Elizan sarreraric etzutela, edo benicbein, Moises-en leguea lenago aitortu bear zutela, eta gueró Jesus-enean sartu. Baña San Pedro-c, Jesu-cristo-ren ordecoac bezala, eracutsi cien, Jesus-ec beregana edocein artcen duela, naiz Judua izan, naiz Gentilla; bada, Jaunarentzat guciac berdiñac dirala; eta Jope-co berelagunai aguindu cien, Cornelio, eta gañeracoac batayalceco. Cristau berri oyec San Pedro-ri escatu cioten, egun batzuec ayecquin eguin citzala, eta poz au eman cien; baña luzaró egon gabe bere eguitecoac beste lecuetara deitcen ciotelaco, Cesarea-tic irten zan.

Cesarea-Coacquicoa eguinda, San Pedro Jope-n artutaco lagunacquin Jerusalem-eronz abiatu zan. Alderatu baño lenago, beste Apostoluac eta Judu cristautuac jaquin zuten Gentillac ere Jaincoaren itza artu zutela; eta Jerusalem-en sartu orduco, eraso cioten, ea certaco Gentillacquin bat eguin zan, oyen echean sartuaz, eta oyecquin janaz. San Pedro-c esan cien, Aingueruarequin eer guertatu citzayon eta onen esanera Cesarea-ra joanda, itzeguiten ari citzayela, nola Espiritu-Santua arguiró jatsi zan: eta atcenean vici-vici esan cien, ea hura nor zan, Jaincoari neurriac artececo, edo lan au eragozteco. Guciac isildu ciran, itzie ere gueyago trucatu gabe; eta Jauna alabatzen zuten, esanaz; Beraz Jaincoac guri bezala, Gentillai ere eman die Jesu-Cristo-Gan sinistea, penitencia eguitea, batayatcea, eta belico vicitza irabaztea. Onembestez zapaldu zan Gentillen deyaren gañean sortutaco despita gucia.

## AMAIRUGARREN IRACURGAYA.

### 1. §.—*Evangelioaren irabaciac Antioquian.*

San Esteban ilda ondoren cristauen contra sortu zan guerra eta esetsi gogorragatic, or-emen zabalduaco Jesus-en icasle Chipre eta Cirine-ar batzuec Antioquia-ra joan ciran, eta aditu zutenean, Cornelio bere aide eta adisquideacquin Cesarea-n batayatua izan zala, eta nola San Pedro-c erabaqui zuen, Gentillac ere cristautzara artu citezqueala, Evangelioa eracusteari eman citzayozcan, ez bacarric Juduai, batzuec lenago eguin izan zuten bezala, baita Gentillai ere, endamas Juduacquin ecer aurreratu ecin zala, cecustenean, eta asco ipidtcen cituzten, batayatcera; bada Urico buruac ere gogorric eguiten etzuten, icusiric lanic guichiena ematen zutenac, eta oitura zucene-lacoac cristauac cirala.

Antioquia-co berriac Jerusalem-en San Pedro-c laster izan cituen, eta pensatu zuen, aimbeste gendeco uri batec bere ardura eta ajola gucia escatcen ciola. Beste Apostolu eta icasle bicañtsuacquin gai onetan itzeguin zuen, eta era-

baqui zan, San Bernabé antioquia-ra bialtceco ango eguinquizunen buruan jarri cedin, eta Obispozaco lanac eguincitzan; bada beste lenagoco eracusleac oraindic Obispo etciran.

Auquera obeagoric ecin citequean. Animaen artzai bati dagozquion doai on gucietacoa zan, eta berez Chipre-coa izanic, Antioquia-co itzcun'zan chit trebatua eta arguia. Sartu zaneco, bere erri Chipre-co eta Cirine-co eracusle ayecquin itzeguin zuen; eta gauzac nola ceuden jaquindun bereala eguin zan; eta Obispo etor-berriac eta lenagoco eracusleac elcar artuta, ecin esan adiña persona Jesus-gana ipiñi, eta batayatu cituzten, alaco moduan, non, urte bete igaro orduco, pensatu zuen, lagun baten bearrean arquitcen zala; eta anciñaco adisquide Saulo-ri beguiac bereala ezarri ciozcan. Saulo-c bere erri Tarso-n ciardun Evangelioa errico eta inguruetaco Juduai eracusten. San Bernabé Tarso-ra joan citzayon, eta elcarrequin itzeguinda, Antioquia-ra biac itzuli ciran.

Saulo-c arteraño etcien, Juduai baicic, Evangelioa eracusten; baña bein San Pecro-c erabaqui zuen ezqueró, Gentillac ere, Judúac bezala, artu bear cirala, eta batayatu, asi san Gentillai ere eracusten, eta bi Apostoluac Antioquia-n urte betean eguin zuten lanarequin aimbeste lagun, batez-ere Gentilletatic beretu cituzten, non, Jesus-en jarraitzalleac *Cristaiac* deitzen, lembici emen asi ciran. Antioquia-ren icena urrutietara zabaldu zan, eta alde gucietatic gendeac cijoacen, ango cristaiac icustera.

Oyen artean Agabo ceritzan bat ere joan zan. Agabo au Profeta zan, eta Jaincoac ala arguituta, esan zuen, mundu gucia gosete izugarri batec artu bearra zala. Berri onequin Antioquia-co cristaiac ain Jaincozcoac eta onguilleac batetic, eta ondasunez ere beste cembat lecutan baño obeto vici ciranac bestetic, izanic, erabaqui zuten, norc bere al-cezaqueanarequin Judea-co anayai laguntceco. Oyetatic gueyenac persona bearrae ciran, dala beren izan guciac Apostoluai eman ciezteelaco, dala San Esteban ilda ondorengo esetsi gogorrean gucia galdu zutelaco, Apostoluac, beren contura cristau onguilleac utcitaco ondasu-

nacquin esturasun jaquiñac estalteen cituzten; baña gose-teac cecarzquienetaraño iritsico etciran bildurrac eman cien: argatic Antioquia-rrac, aitatu dan lambide artara aurreratu ciran. Cerbait ondo bildu zanean, Jerusalem-go eta inguruetaco diacono eta zarrai Saulo eta San Bernabé-requin bialdu ciezteen, gosetea cetorrenean beartsuac es-tali citzaten.

2. §.—*Santiago zarrenaren eriotza.*

Bi Apostolu oyec Judea-n eguiteco onetan erriz-erri ce-biltzan demboran Herodes Agripa Galilea-co Erreguea, Je-sus-en jayotzan aurrac ilerazo cituen Erodes-en biloba, edo semearen semea, Jerusalem-era Pazcoa aurrean joan zan, gosetea asi baño lenago, Jesus-en jayotzatic berro-gueita iru-garren urte inguruan, Herodes-ec Galilea-co cristallai etcien gaitz andiric eguiten, eta epel-epelean, ecer ezbaciran bezala, beguiratcen cien, bururic oyecga-tic asco berotu gabe: baña Sinagogaco jaunac cristallieta-ra gorroto vician ceuden, batez-ere, Apostoluetara, eta pensatu zuten, Herodes-en etorrerac era ona ematen ciela, ain ayer citzayetenac ondatceco. Herodes-i bereala itz-eguin cioten esanaz, chit conveni citzayola cristau guciac galdutcea; bada, lambide onequin Juduen gogoac beretu-co cituela, eta Erroma-rren aldeic esturasunic iñoiz bace-torquion, bérac lagunduco ciotela. Herodes-i, guizon bat edo gueyago odol otzean ilerazo arren, ecer etcitzayon, eta jarri zan Judúac escatcen ciotena eguiteco. Ez daquigu dembora onetan Jerusalem-en cembat Apostolu arquitcen ciran. Guciac batean irteten etciran, eta guciac elcarrequin egon ere ez: baña guichienaz San Pedro bera, Santiago zarrena, onen anaya San Juan, eta Santiago gaztea Paz-coa-co egun oyetan emen ceuden. Herodes-ec lau oyecquin nai gucia eguin cezaquean, naiz guciac batean, naiz ba-naca illaz: eta inolaz-ere banaca iltceco asmoarequin, Santiago zarrena artu zuten, eta ordu guichico auci-le-gue bat eguinda, lepoa ebaqui cioten, eta Jesus-gatic bere vicia Apostolu gucietan lenengo galdu zuena au izan



zan: Martiri andi onen gorputz-buruac bilduta, cristauac progu andiarequin lur eman cioten.

3. §.—*Santiago zarrena Españara etorri zalaco berriac.*

San Esteban-en eriotzatic Santiago-renera bitartean Jesu-Cristo-ren Apostolu eta icasle andienac mundu gucian zabaldu ciran, Evangelioa eracustera: eta Escritura Santac esaten ez badigu ere, jaquintsu gueyenen iritcian, eta ecin ueatu dilequeana da, Satiango zarren au gure Ezpaña-ra etorri zala, eta Evangelio-aren lembicico berriac Apostolu onec gure asabai erein cieztela. Alderdi au gucia ibillita gueró, Jerusalem-era itzuli zan, zazpi icasle Torcuato, Tesifonte, Segundo, Indalecio, Cecilio, Hesiquio, eta Efruasio berequin cituela, ceñac Apostoluac Obispo eguinda, berriaz España-ra bialdu cituzten, Santiago-c asitaco lanari contu-artu, eta aurreratcera. Zazpi icasle oyec berequin ecarri zuten beren maisu Santiago-ren gorputz-illa, eta urte ascoan ezcutuan egonda, gaur arquitcen da Santiago deritzan Galicia-co Uri batean. Españarrac beren Bitarteco edo Patroitzañ ancina-anciñatic dute, eta chit jayera edo devocio andia diote, promesean bide luceetan agur eguitera joaten zayozcala.

4. §.—*San Pedro ichian sartua, eta Aingueruac libratua.*

Herodes-ec icusiric, Santiago il izanarequin Juduai cerpoza eman cien, San Pedro ere ilteco asmoa artu zuen. Cristau gucien Buru au galdu ezqueró, uste zuen, Juduac edoceñ esturasunetan bere alde izango cituela. Pazcoa bereala asten zan, eta gueroco utci gabe, escuac ezarri ciozcaten. eta ichian ipiñi zuten, Pazcoa-ondoan bereala ilteco. Amasei soldaduc contu eguiten cioten; oyetatic bi albo bietan, eta beste bi atean cituela, eta ordutic ordura aldatcen ciran, beguetatic beñere quendu gabe, Au gucia guizon bacar bat gordetceco asco ezbazan bezala, burnizco bi caterequin bi escuac lotu ciozcaten; baña guizonen eguin-al guciac Jaincoarentzat ecer etciran.

Cristatiac jaquin zutenean San Pedro ichian ceucateta bereala ilteco, bildu ciran, Jaincoari escalcera, arren, viciric gorde eta galdu nai zutenen mendetic atera cezala, Soldaduac contu-artcen bezala, cristatiac ere chandaca otoitz-eguiten, eta beren Aita onagatic erregutcen ciarduten, orduric ere utci gabe. San Pedro aimbeste contuartzalleren erdian arquitcen bazan ere lo etzan zan, biotze-co lasatasun guciarequin, eta laster eman nai cioten erioztaren quezca andi gabe. Onela cetzala, il-asmu zuten vezpera-arratsean Aingueru bat ichian edo carcelan sartu zan, eta gucia argui-argui eguin zuen. San Pedro-ri ondora joan citzayon, eta sayetsean jota, esnatu zuen, esanaz; Azcar jaiqui zaite; eta escuetaco cateac erori cizayozcan. Gueró esan cion; Guerricoa lotu ezazu, eta abarcac jantci itzatzu. San Pedro-c ala eguin zuen. Berriz esan cion; Caparequin estali zaite, eta darraidazu. San Pedroc ichitic irtenda, Aingueruari ondoren bacijoaquion; baña eguiten zuena eguiaz zanic ezagutu gabe; bada, uste zuen, irudipen uts bat zala. Lenengo eta bigarren contuartzalleac edo guardiac igaro cituzten, eta Jerusalem-en sarreran zan burnizco atera urreratu ciranean, berez idiqui citzayen, eta emendic echadi edo barrio batera joan ciran, eta Ainguerua ezcutatu citzayon. San Pedro orduan corderatu zan eta esan zuen; Orainche daquit, bai, Jaincoac bere Ainguerua bialdu didala, eta Herodes-en escutic, eta Juduen beguitan-gotza gucietatic atera nauela.

San Pedro bereala joan zan Maria Cleofas ceritzan emacume alargun on baten echera. Emacume au, Jesus-ec bere aurretic bere eracutsiac arteco bideac prestatcera bialdu cituen irurogueita amabi icasle ayetatic Juan Marcos ceritzan baten ama zan. Onen echean, bada, cristau on asco bilduta cenden, San Pedro-gatic Jaincoari erregutcen, Apostoluac atea jo cienean, Roda ceritzan nescacho bat atera jatsi zan, nor ote zan icustera; eta ezagutu zuenean, San Pedro zala, atea idiquitceco beta gabe, lasterca igo citzayen, esanaz. Pedro atean dago. Pedro atean dago. Sinistu etcioten esanaz burutic jauci zala. Baña nescachoaren leya icusiric, esan zuten, aren Ainguerua izango zala. San

Pedro-c bitartean atejoca ciardun, eta gueroenean atea idiqui cioten: eta icusi zutenean Pedro zala, ayen biotzac cer poza eta atseguña artu zuten, ecin esan dileque.

Guertatu citzayon guciaren berriac eman ciezen; atce-  
nean esan cien, Jaincoac aditu cituela eguin ciozcaten erre-  
guac eta negarrac; eta erruquituric, Aingueru baten bitar-  
tez esturasunelic atera eta bere seme maiteen erdian, ce-  
cusaten bezala, ipiñi zuela. Aguin du cien, Jerusalem-en  
zan Apostolu bacar Santiago-ri eta beste anayai esateco,  
cer guertatu citzayon: eta bere gogoz gende on arequin  
egongo bazan ere, berriz atcitu etcezen, egun-sentia ba-  
ño lenago aldeguin zuen, eta Antioquia-ronz abiatu zan.  
Contu-artcen cioten soldaduac ecertzaz ere oartu etciran.  
eta biaramonean carcelan iñor gabe arquite ciran. Cer  
eguin ote cien, edo cer guertatcen zan, ecin iguerri azto-  
ratuta cebilzala, artu zuten, ichian ceucatelacoa urcamen-  
dira eramateco, Erreguearen aguin dua: baña Herodes-ec  
jaquin zuenean, San Pedro gabe arquite cirala, cer-icu-  
si edo culpa gabeac baciran ere, bere-bereala ilerazo ci-  
tuen, eta Juduai onela adierazo nai izan cien, ayec gogo  
zutena eguiteco, cer eresiarequin ibilli zan.

### 5. §.—*Herodes castigatua.*

Asco luzatu baño lenago, guizaño ayei eguin cien, eta  
Apostoluari nai izan cionagatic Jaincoaren escu zorrotzac  
jo zuen. Tiro eta Sidon-darracquin aspaldian aserre vician  
cebillen, eta debeatuta ceucan, bere mendetic, bi Uri aye-  
lara jan-ganzaric eramatea. Oyec ere estu ciran, cer-jana  
sortu ecin zutelaco; eta Erregue Herodes cerbait urreratu  
citzayenean, gogoac eman cien, adisquidetceco, eguin-alean  
sayatu bear cirala. Beste lan gucien aurretic, Erreguearen  
guela-zai Blasto irabaci zuten, beren esanquizonac adi-  
tceco adiña lecu eman cizayen, eta iritsi cien. Herodes gau-  
za gucietan chit artoa, eta bere burua iñor ez bezalaco  
iztuntzat jotcen zuena zan: eta Tiro eta Sidon inguru aye-  
tan bi erri aberatsenetaco mandatariac celozquioneraco  
prestatu zan, Erregue bali cegoquin janci, eta beste eder-

garri guciacquin. Mandatariac gende ascoren aurean artu cituen, eta beren escariac eguin ciozcatenean, asi citzayen itzeguiten, eta aditzalleac esan zuten: Jaincoac itzeguiten digu, eta ez guizonac. Herodes lenaz gañera, esan onequin arrotu zan: baña bere andiuste gucian cegoala, Aingueru bat jatsi zitzayon, gorputza bat-batetan zauriz bete cion, oñace min-miñac artu zuten; eta ar-ciquin-naz-cagarriz josita, lotsa gorrian esan cien; Ara, emen, zuen Jaincoa iltcen; eta egun guchiren buruan il zan.

Herodes-en eriotzarequin Cristaüen etzayat cerbait oztu ciran, eta Jesus-en Eliza asco zabalten zan; bada Apostoluac, eta artaraco ipiñitaco languilleac isildu gabe cebilzan Palestina gucian, batez-ere, Judea-n eta Jerusalem-en bertan, non arteraño aimbeste esetsi eta neque eraman izan zuten; eta lecu gucietan Jesusentzat irabaci andiac ateratcen cituzten: eta paque-aldi onetatic asita gueroco ogueita lau bat urtean Palestina gucian cer esan beteciric etzan icusi; eta Cristaüac paque andian vici izan ciran. Beragatic emengo berriai erabat utcita, Antioquia-co Elizari eta Gentillen Apostolu Saulori garraizquion.

### AMALUGARREN IRACURGAYA:

#### 1. §.—*Gentillai Evangelioa eracustera Saulo eta San Bernabé bialduac.*

Saulo eta San Bernabe-c, Antioquia-co cristauac, orañago esan dan bezala, Judea-co beren cristauquideentzat oparó emandaco limosnac zabaldu cituztenean, Antioquiarantz itzuli ciran, eta Evangelioa eracusten ciarduten, ceñac len eta gueró aimbeste gende beretu zuten, ecen, San Pedro-c Elizaren asieran lecu jaquinic artu gabe, batera eta bestera, premiatic estuenac deitzen cion lecura, ibilli bazan ere, Jesu-Cristoren Ordeco edo Aita-Santua-ren Aulquia zazpi urtean emen iduqui zuen, Jesus-en jayotzatic berrogeita irugarren urtean guichi gora-beera mundu guciaren Erri-buru zan Erroma-ra aldatu zuen arteraño, non vici izan zan, gueroago esango dan bezala.

Bein batean, bada, Obispo eta beste Eliz-guizon asco elcarrequin Jaincoa servitcen eta alabatcen ceudela, Espiritu-Santuac esan cien; Saulo eta Bernabé bereci edo apartatu itzatzute, nic eman nai diedan laneraco. Bereala barautu eta otoitz-eguinda, escuac ipiñi ciezteen, eta bialdu cituzten Espiritu-Santuac ceramazquien lecura, Evangelioa Gentillai eracustera. Egun au ezqueró Saulo-c buru eguiten zuen, eta San Bernabé bigarrena zan. Lenengo Seleucia-ra joan ciran, Juan Marcos, berequin zutela: gueró itsasoz Chipre-co Erri-buru Salamina-ra, eta emen asi ciran Sinagoga edo Juduen Elizaetan predicatcen, eta oyec aditcen etcielenean, gueyenean guertatcen citzayena, Gentillai itzeguiten cieten. Salamina-n aldi batean necatuta, Pafos-era aldatu ciran.

2. §.—*Sergio Pablo-ren batayoa.*

Pafos-en vici zan Erroma-co Proconsul Sergio Pablo ceritzana. Berez guizon ona, eta eguia jaquin nayecoa zan, eta Apostoluen berriac izan cituen ezqueró, beren aotic aditceco eresi andiarequin vici zan: baña bere zorigaitcean, echean ceucan morroi bat, Elimas ceritzana, chit biurria, eta deabruarequin elcartua, sorguintzan oi cebillena. Apostoluac Sergio-c bere aurrera eraman, eta Jaincoaren gauzac erasaten ciezten; baña morroyac beti atceratcen zuen! ayetara jarri etcedin. Saulo-c orduan Elimas-i aurquez aurque jarrita, esan cion: ¡O guizon guezurtia eta dollorra, ¡Deabruaren semea! ¡Onaren etsaya! ¡Jaincoaren bide zucenai arazoac ipintcez aspertcen etcerana! Ara non Jaincoaren escuac jotcen zaituen, eta aldi bateraco itsutcen ceran. Elimas bat-batetan itsutu zan. Sergio-c Jesus-en leguea osoloró artu zuen; botayatu zan; eta gueroztic Saulo-ren chit adisquide andia eta maitea izan zan. Batzuec diote, San Pablo-c Saulo bere lengo icena utcita, Pablo-rena artu zuela, batayatu zanean: baña jaquintsu gueyenen iritecian, Elimas-equin guertatutaco mirari eta Sergioren aldaqueta onetatic asi zan Pablo deitcen, Erroma-rren itzcuntzari obeto cegoquiolaco, eta Escritura Santac ere icep

au lembici orain aitatcen du, eta onequin gueróz deituco diogu,

3. §.—*San Pablo eta San Bernabe-ren ibilliac.*

Pafos-tic Panfilia-co Perge-ra itsasoz joan ciran, Pafos-en cristaututaco asco berquein eituztela. Juan Marcos-ec emen aldeguin cien; bada, arquiteen etzan, dirudienez-bear adiña biotz edo espirituruquin, ayec izango cituzten neque eta ibilliquizunai arpegui emateco; eta bere ama Cleofas-en ondora Jerusalem-era bialdu zuten. Perge-tic bideari jarraitu cioten Pisidia-co Antioquia-raño. Emen Judúac beren jai-egunean Sinagogara biltcen ciran, eta oyecquin batean Jainco eguiazcoa aitortcen zuten Gentilasco ere bai. Bi Apostoluac ere sartu ciran, eta Sinagogaco buru eguiten zutenac beren liburu oituac iracurri cituz, tenean, San Pablo-ri, guizon argui eta iztun ona iguerrita, lecu eman cioten, esanaz, cerbait itzeguin eizayela. San Pablo-ecisillie egoteco escuarequin queñu eguinda, jarri citzayen itzeguiten, Jaincoac ayen asaba eta gurasoai dem-bora gucietan eguindaco mesedeen gañean; nola beñi beguiratu izan cien, bere Erri autuari bezala, eta atcenean bere Seme bacarra bialduta, artu nai izan ez, ecen, gurutziltzatu eta il zuten: baña bérac iracurteen cituzten Profétac alde-aurrez esan bezala, viztu zala, eta onen legue Ceruraco bide bacarra eracustera, cijoazquiela. Gueroe-nean esan cien, contuz ibilteco; bada, arteraño iñore ecer esan ezbacien ere, gaurgueró aitzagui eta apucoric ecin ipiñico zutela.

San Pablo-ren itzaldi au aditu zutenean, buru-macurtuta, cer pensatu andiac gogoan eituztela, echeetara itzuli ciran, urrengo jayean aditceco asmoan, baldin berriz itzeguin nai bacien. Apostoluai ostaturaño ascoc lagundu ci-ten, icasbide berriac aditceagatic, eta Apostoluac ere eguin-al gucia eguiten zuten, eracusteco eta artcen zuten Jesus-en leguean irauteco. Urrengo jayean Uri gucia Sinagogan bildu zan San Pablo-ri aditcera; baña Judu gogor buru eguiten zutenac aimbeste gende icusi zutenean, aserretu

ciran, eta Apostoluai gaizqui-esaca eta añenecoacquin era-  
so cieten. Orduan San Pablo eta San Bernabe-c esan cie-  
ten: Conveni zan zuei leuengo Jaincoaren itza eracustea-  
baña ecertan artcen ez dezuten ezqueró, Gentilletara goaz;  
Jaincoaren aguinduari garraiquiola. Aditcen zuten Genti-  
llac chit poztu ciran, eta Jaincoa ascoc bertatic jaitortu, eta  
alabatu zuten. Judúac, contrara, aserre viciagoan sarturic,  
atseden etzuten Apostoluc andic bialdu arteraño. Oyoc  
icusu zutenean cer iscambilla jaso zan, oñetaco autsac as-  
lindu, eta Ico-nio-ra aldatu ciran.

Iconio-n ere, Antioquian bezala, Sinagogara joan ciran  
eta Jesu-Cristo-ren leguea cerua irabazteco cein premiaz,  
coa eta bearra dan, ain argui eta garbi eracutsi zuten, ecen-  
Judu eta Gentil asco cristau eguin ciran. Urte berdi bat eta  
gueyagoan emen egon ciran; bitartean Judu sinisgogorrac  
eragozpen andiac ipintcen ciezteen, nai cituzten guciac  
irabazteco; baña esanac mirariacquin eguiztatuta, arriga-  
rrizeco aldaquetac eguiten cituzten. Gueroeneraco Jesus-en  
etsayac iscambilla latz bat sortuta, arrica emateco asmoa  
artu zuten. Apostoluc iguerri cietenean cer cerabilten,  
igueseguin zuten, eta Listra eta Derbe-ra joan ciran, Emen  
ere beren belico lanari equin cioten, Evangelioa eracutsiaz,  
eta mirariac eguiñaz.

Listra-n zan guizon bat jayotzatic elbarria, eta bein-ere  
oñez ibilli etzana. Egun batean bere burua eramane-erazo  
zuen San Pablo-c predicuan ciardun toquira, eta eseri zan.  
Apostoluc icusiric, cein arduraz eta contuz aditcen zuen,  
esan cion, jaiqui cedilla, eta zutic jartceco. Elbarria berea-  
la jaiqui zan, eta ezagutu zanean oñez ibiltceco adiña, po-  
zez saltoca abiatu zan. Beguira ceudenac arrituric, dea-  
darca asi ciran, esañaz: Ez guizónac, ezpada guizónen  
jancian Jaincóac jatsi zazquigu; eta San Bernaberi bere  
ederragatic Jupiter, eta San Pablo-ri bere itzqueta arguia-  
gatic Mercurio deitcen cieten. Jupiter jainco guezurrezcoa-  
ren apaiza Apostoluai bereala joan citzayen cecen eta lo-  
reacquin ofrendac eguitera. Apostoluc, ayen itsumen ne-  
gargarria icusita, soñecoac urratu cituzten, eta gende-ar-  
a sartuta, otseguiten zuten: ¡Guizonac! ¡Cer eguiten de-

zute? Gu ere, zuec bezala, guizon ilcorrac guera, eracutsi nai dizutegunoc, ez dala Jainco eguiazco ceru-lurrac, eta itsasoa, eta oyetan diran gauza guciac eguin cituen bat-bacarra baicic. Gucien Eguille oni, bacar-bacarric, ofrendac eta adoracioac zor zayozca. Esan ayec eta onelaco beste ascorequin alceratcen cituzten, Jaincotzat adonatu nayeze cebilzquien ez-jaquin itsu ayec; eta nequeric andienean cebiltzan unean, irten-bide ustez-uste gabecoa sortu citzayen.

Pisidia-co Antioquia-n eta Iconio-n jazarri edo perse-guitu cituzten Judúac, aditu zutēnean, cembat cristautut-cen cituzten, Apostoluetaraco gorrotuari cerraizquiola, Lистра-ra joan ciran, eta adonaten utci nayeze elean estuena ciarduten demboran, Antioquia-coac eta Iconio-coac osca asi ciran, Pablo eta Bernabé deabruacquin bat eguinda, engañatcen cebiltzan guizon guezurti batzuec cirala, eta icusi ciezteen mirariac ere gaizquiñen laguntza-requin eguin cituztela. Lистра-rran biotzac esan oyecquin alaco moduan trucatu cituzten, non itzelic ortzera jarri ciran Jaincotzat ceuzcatenai arrica ematera. San Pablo bereala iltzat eman zuten, eta erritic campora aterata, bazter batean utci zuten. Bere icasleac etcitzayozcan aurretic quendu, eta iguerri ciotenean, oraindic asnasa bazuela, berotuaz, eta beste sendagarriacquin lagundu cioten zuz-, pertcen eta bizcortcen, eta errira isillic sartuta, biaramo-nean San Bernabé-requin batean Derbes-era joan zan, non bereala asi zan, berriz ere Evangelioa eracusten. Derbes-dic Perges-era aldatu ciran; eta emen ere lagun asco cristante cituzten: eta gira guciac eguinda, bi urteren buruan itzuli ciran Siria-co Antioquia-ra, nondic aitaten gatocen misio au eguitera, irten izan ciran. Antioquia-co Apaiz eta beste cristau guciac batera bilduta, eman ciezteen urte bi ayetan izandaco gora-beera guciē berriac, eta Antioquia-rrac aditu zutenean, cer irabaci andiac Jesus-enzat atera cituzten, chit poz andia artu zuten; eta are andiagorequin beren artean Apostolu on ayec luzaroago iduquico cituzter; baña Jerusalem-era joateco asmoa artu zuten. Ara cergatic,



4. §.—*Circuncisioa bearrecoa zan edo ezeco despita.*

Jesus-en icasle eta jarraitzalleen artean despita andi bat sortu zan, Moises-en legueac aguinteen zuen circuncisioaren gañean, Judu cristautuac cioten, Jesus-en leguea artu nai zuten guciac, aurrena circucidatu bear cirala: eta Jerusalem-dic Antioquia-ra joandaco icasle batzuec ere iriteoni cerraizquiola, eracusten zuten, Gentil cristautuac ecin salvatu citezqueala, Moises-en legueac aguindua eguin etzutelaco. San Pablo-c, San Bernabe-c, eta oyecquin beste asco contrara cioten, circucidatu bearrie etzutela Batzuec eta besteac elcarrequin itzqueta luceac eguinda, jarri ciran Jerusalem-era joan, eta emengo Apostolu eta icasle bicañen icquin ezda-baida au icusteco eta erabaquitceco. Antioquia-co Gentil cristautuen aldelic bi Apostolúac joan ciran, Tito San Pablo-rem icasle maitea irugarrena berequin zutela. Jerusalem-en bildu ciran San Pedro gucién Burua, guertuena izaten ciran beste Apostoluec, Apaizac, eta Jesu-Cristo ezagutu zuten icasle zarretatic ere asco, Elizaren lembicico Batzarre edo Concilio onetan, norc bere iritcia, guciac eman zuten, beren alde arquitcen cituzten arguibide eta sinisgarriacquin, San Pablo-c esaten zuen, circucidatu bearrie etzalā, ceraman iritciarequin utseguitera, Jaincoac etciola aimbeste mirari aguiricorequin lagunduco, eta bere lanac ontzat emango, Gucién iritciac adituta. San Pedro Jesu-Cristo-ren Ordeco, eta Espiritu-Santuaren argituari cegoquion, norenari jarraitu bear eitzayon, erabaquitcea: eta zutic jarrita, esan cien: Anayac, badaquizute, Jaincoac anteiñatic aguindu zuela, Gentillac nere aotic Evangelioa aditceco, eta sinisteco. Eta biotzac icusten dituen Jaincoac au eguiztatu du, Espiritu-Santua, guri bezala, ayei ere emanaz: eta biotzac fedearen bitartez garbitu ezqueró, ayei eta gu berdiñac guera. ¿Certaco orain egotci nai diezute gure gurasoac eta guc ecin eraman izan degun uztarria? Uste degu, bada, salvatuco guerala, ayei salvatu ciran bezala. Aditzalle guciac isildu ciran; San Pedro-c erabaquia ontzat eman

zuten, eta aucia bucatu zan. Bereala Judas eta Silas guizon elduenac autu cituzten, Antioquia-ra bialteco, aucia erabaqui zala, esatera, eta erabaqui au escribuz ezarrita, eman citzayen.

Batzarrearen bi mandatari oyec, San Pablo eta San Bernabe-requin batean, Antioquia-ra joan ciran; eta ain ondore negargarriac izan citzaquean despita, gucien gogora zapaldu zalaco berria cer pöz eta at-seguinequin ango Cristiañac artu zuten esatea, erraz ez da. Egun asco elcarri eracusten eta poztutcen eguin cituzten, eta gueró Silas Antioquia-n gueldituta, Judas Jerusalem-era itzuli zan.

5. §.—*San Pablo eta San Bernabé banacatcen dira.*

San Pablo-c eta San Bernabe-c beste lagun ascorequin Antioquia-n baciarduten, Evangelioa eracusten, eta zabalteen: baña San Pablo-ri gogoac eman cion, orduraco eguin cituzten languilleac Antioquia-raco asco cirala pensatuta, lenago ibillitaco toquietara joatea, artu izau zuten leguean nola cirauten, edo cembat aurreratcen zuten, icustera. San Pablo-c bere lagun San Bernabe-ri eresi au aguertu cion, eta San Bernabé ere artara jarri zan: baña gauza batean berdin etcetocen. San Bernabe-c berequin eramán nai zuen Jaun Marcos bere lengusua: baña San Pablo-c erantzuten cion, hura eramatea ondo etcetorqueila; baciequiela, alabañan, nola Pamfilia-n utci cituen, eta amaren ondora Jerusalem-*ra* joan zan: lenagoco ibilli eta nequeai arpegui emateco gorputzie izan etzuela, eta orain ere lena izango zala. San Bernabe-c bere lengusuagan beste usteric zuen; eta bi Apostoluac jarri ciran, nor bere aldetic ibiltcera, edo obeto esateco, Jaincoaren escua cebillen, despita onen bitartez, bata batera, eta bestea bestera joanda Evangelioa gueyago zabaldu cezaten. San Bernabé Juan Marcos-equin Chipre-ra joan zan, eta gende gucia Jesu-Cristo-ren leguera ipiñi zuen. Andic Italia-ra aldatu zan, non lan berean erbeit demboran jardun zuen, onandiac eguinaz; eta gueró bere erri Chipre-ra itzulita, Berri-emalle edo Historiadore ascoren iritecian, Jesus-en etsa-

yac sortutaco iscambilla batean, arricà il zuten. Itzalleac gorputz-illa erre nai izan zuten; baña Juan Marcos-ecurrengo arratsean isillic artuta, Jesu-Cristo-ren Martiri bati cegoquion proguarequin lurpetu zuen. Gueró demboraren demboran, gorputz-ill au, bere escuz escribatutaco San Mateo-ren Evangelioa bularrean zuela, arquitua izan zan.

San Pablo-c laguntzat artu zuen Jérusalen-dic Antioquia ra joandaco mandatari Silas arestian aitatua, ceñac, orduraco Obispo bazan ere, San Pablo-ren aguindura joatea, ez-egoquitzat etceucan. Biac, bada, Antioquia-tic irtenda, Siria-n eta Cilicia-n ibilli ciran, cristau berriac eguiten, eta lenac fedean sendotcen. Iconio, Derbe, eta Listra-ra ere joan ciran, eta emen arquitu zuen Timoteo ceritzan cristau gazte bat aita Gentillaren, eta ama berez Judua, baño batayatuaren semea. Timoteo onegatic San Pablo-ri chit berri onac eman ciozcaten, eta bertatic laguntzat artu zuen, Juduai Evangelioa eracusteco, lenago Tito Gentillai eracusteco, bezala. Bazter oyetic aldatu zan, Silas, Tito eta Timoteo-cerraizquiola, Asia chiquienenetic barrena Macedonia-ra. Lucas bere aidea ere, ascoc diotenez, bidaje onetan batu citzayon; Escritura Santae, beintzat, lembici orain aitatcen du, San Pablo-requin cebillela. Bitarte onetan, Filipino beste ascoren artean Cristau eguitera ipiñi zuen Lidia ceritzan mercatari ots andico bat.

6. §.—*San Pablo azotatcen dute.*

Beste batean Jaincoari otoitz eguitera cijoacela, San Pablo-c icusi zuen nescach bat ondoren cerraiquiena, esanaz: Guizon oyec salvacioco bidea eracusten diguten Jaincoaren servitzariac dira. Nescach onec ondorengo egu-netan ere au bera eguiten zuen; baña deabrua zan errucarrri aren barrunen sartuta, ala itzeguiten zuena: eta nescach gaso aren izaerac biotza erdiratuta, Apostoluac deabruari Jesu-Cristo-ren icenean aguindu cion, gorputz artatic irte-teco, eta bereala igueseguín zuen.

Nescach onec deabrua berequin zuela, aztiqueria eta

sorguintza asco eguiten cituen, eta bere nagusiai irabaci andiac ematen ciezen, eta nagusiac orain cecusatenean, San Pablo-c deabrua quendu ezqueró, irabacia ere galtcen citzayela, iscambillatu ciran, eta San Pablo eta Silas atcirtuta, errico Buruetara eraman cituzten, esanaz, erria nastuten cebiltzan, eta legue berriac ipiñi nai cituzten Judu aztoratzalle batzuec cirala. Errico buruac, Erroma-rrac izanic, Juduen icena aditu utsarequin aserretcen ciran, eta atcealdetic soñecoac urratuta ezurretaraño azotez ebaqui, eta ichian sartu cituzten, eta amabiarí aguindu cioten, contu eguiteco. Amabiac bereala barrunagoco ciega illun batean sartu, eta oñac cepoan cituztela, ipiñi cituen.

Gaüerdian San Pablo eta Silas otoitzea ceudela, lurricara batec eche gucia cimenduetaraño dardaratu zuen, ate guciac idiqui ciran, eta cepo guciac ascatu citzayezten. Amabiac au icusita, iguesequin ciotelacoan, bere burua il navez abiatu zan; baña San Pablo-c ots andi batequin esan cion, etcezala alacoric eguin, an ceudela. Amabiac, berera zanean, arguia viztu zuen; ichi edo carcela guciai beguiratu cien, eta danac an arqitu cituen: eta ezagaturic, San Pablo-c eta Silas-ec beren otsacquin gorde zutela bere burua galtcetic, oñetan auzpez jarri citzayen, eta esan cien ¿ea cer eguin bear zuen, saluateco? Erantzun cioten, Jesus-gan sinisteco, eta bera eta echeco guciac saluateco cirala. Azoteac eguindaco zauriac amabiac bereala garbitu ciezen; eta berà eta echeco guciac, bear ciran icasiquizunac San Pablo eta Silas-gandic artuta, batayatuac izan ciran. Echera eraman cituen eta jaten eman cien.

Biamonean Errico buruac amabiarí gaztigatu cioten ichian ceuzcanai joaten uzteco. Albista au San Pablo-ri eman cionean, Apostoluac erantzun cion, ¿Cer? ¿gu Erroma-rrac izanic, arrotzac baguiña bezala, aguiri-aguirian azotatu, eta ichian sartu gaituzte, eta orain gu isillie bialdu? Ez, berac betozquigu, eta bérac atera gaitzate. Tarso-arrac noizbait eguindaco mesedeen batzuegatic, Erromarren escualdi guciac cituzten, eta San Pablo angoa zalaco, beartu nai izan cituen, aitortcera, ari eta bere lagunari lotsa hura ematen, cein gaizqui eguin zuten. Esan eta eguin

icusquizunen bat gueró izan cezaten bildurrez, San Pablo-ri joan citzayozcan, eta escatu cioten, arren, erritic irten cedilla. Ichitic irtenda, joan ciran Lidia-ren echera, non ar-quitcen ciran lagun guciac naigabe andiarequin, eta beren Maisuari cer guertatuco ole citzayon quezcatan; baña icusi, eta nola ibilli ciran aditu zutenean, chit póztu ciran.

Filipo-n Lucas eta Tito, iñolaz-ere, utcita, San Pablo Silas eta Timoteo-requin Tesalonica-ra joan zan. Emen ere Sinagogan sartuta, eguiten cituen prediquacquin asco eta asco bereganalcen cituen, eta cristau eguiten ciran, bai Juduac, eta bai Gentillac: baña San Pablo-c cembat irabaci, Judu sinistu nai etzutenac ambat gorroto gueyago artcen cioten. Aicenean, gendearen artean iscambilla andi bat jaso zuten, eta il navez abiatu citzayozcan; baña Jason ceritzan icasle baten echean isillic gordeta, gueró gaüez Berea-ra igueseguin zuten. Tesalonica-rrac jaquin zutenean, auzo-erri Berea-n cebilzala, joan ciran; gendea asaldatu zuten; baña San Pablo-c orduraco Berea-n icasle maite asco eguin cituen, eta oyec, itsas-ontci batean artuta, isillic Atenas-era eraman zuten, eta Silas eta Timoteo Berea-n guelditu ciran. Orain ezdaquigu, edo ecertaraco lecu gabe bat-batetan irten zalaco, edo ayerrena Apostoluari citzayozcalaco, edo beste cergatic San Pablo bacarra joan zan.

Atenas-ec dembora artan guison jaquintsu, eta gauza berriac eta ez-oituac aditu nayeco asco cituen; baña ordu berean jainco guezurrezcoatara chit elciñac ciran: bada, edoceñec bere gogocoen bat Jaincolzat artu, eta adonatu cezaquean; beragatic Atenas-en bacarric Jainco gueyago ezagutcen ciran, gañeraco Grecia gucian baño. San Pablo icusi zutenean, Jesus ayentzat Jainco berria, eta Jesus-en Evangelioa berebat ezoitua eracusten, aguertu cioten, gauza oyen gañean itzqueta eta jardun-aldi batzuec elcarrequin eguileco eta eleatceco eresia Asi ciran, eta San Pablo-c, Espiritu-Santuaren escolan icasiac bezala, gauza gucietan bereala isillicen cituen. Ascoc sinistu cioten, eta cristautu ciran, ceñaen artean San Dionisio Areopagita; eta Damaris emacume ots andicoa.

Atenas-lic Corinto-ra joan zan. Emen ere arquite cituen

Judu gogor galdu nai izan zutenac; baña bai Gentil sotil, Jesus-gana jarrita, chit poz andia eman ciotenac ere. Anlioquiatic irten zan ezqueró, Corinto-n bezain egonaldi lucreric beste erritan eguin etzuen; bada, urte bat eta erdian egon zan, Elizari hume on asco ematen ciozcala, eta oye-tatic bi, Aquila eta bere emaztea, isillic utci bear ez diranac.

Jesu-Cristo-ren jayotzatic berroqueita bederatcigarren urtea zan San Pablo Corinto-ra joan zana. Claudio Erromaco Emperadoreac urte onetan aguin du zuen, Judu guciac Erromatic irte-teco. Aquila ceritzan bat Priscila bere emaztearequin arquita zan Erroma utci bearrean, eta Corinto-n sartu zan, San Pablo ere ara iritsitaco egunetan. Ezagüerac bereala artu cituzten, eta adisqueide eguin ciran. San Pablo-c laster iguerri cion, cein biotz onecoa zan, eta bear ciran gauzac eracutsita, cristau eguin zuen. Aquila-ren echean oslatuz jarri zan, eta onequin batean soldaduentzà larruzco estalpeac eguiten, bere oguia irabazten zuen, ñor necatu gabe vicitceagatic. Jai-egunetan Sinagogara joan, eta Judu eta Gentillai Jesu-Cristoren gañean itzeguiten cien; eracutsia sinisteco. Neque onetan ciarduela, Timoteo eta Silas Berea-n gueldituciranac etorri citzayozcan, eta biotza chit zabaldu eta lasatu citzayon; bai oyec bere ondoan icustearquin, bai Tesalonica-rrac fedean cein sendo eta oituraetan cein contuzcoac vici ciran, esan ciotelaco.

7. §—*Sinagogaco Buru Crispo-ren batayoa, eta beste guraipenac.*

Bein batean, besteetan bezala, Sinagogara joan zan, eta Jesus Mesias eguiazcoa zala, Juduai eracusten ari zala, ain sinisbide arguiac eman ciezen, non, cer erantzunic etzute-la, ipiñi cituen; eta besteric eciñean, Jesu-Cristo-ren contra añenecoac botatcen edo blasfematcen asi ciran. Sinagogan ciran Gentillac, Juduen esan oyecquin gaiztoraco bideric artu etcezaten, San Pablo gucien aurrein jaiqui zan eta bere soñecoac astinduta, esan cien: Zuen odola zuen gañ izan bedi; nie cer icusirie ez det, eta Gentilletara bertatic

noa. Judúac, Jaincoaren mandatari onec eguindaco quiñadarequin, batere malmetitn etciran; eta Apostoluá Sinagogaren ondoan vici zan Tito Gentil on baten echera bereberealala ostatuz aldatu zan, Aquila-requin, jayotzatic Judua zalaco, ez egoteagatic. Alaere. Sinagogaco Buru Crispo-c bere ehecoaquin sinistu cion; Tito-ren echera guciac joan citzayozcan, eta batayoa artu zuten. Oyen ondoren beste asco ere Jesus-gana jarri ciran, eta batayatu cituzten. Irabaci andi oyec icusita, San Pablo-ri eman cion, Judúac aztoratuco ciran bildurrac, eta beste errietatic bezala, igues-eguin bearra izango ote zuen quezcac. baña bildur eta quezca oyetan cebillela, Jaincoac ametsetan esan cion, ez icaratceco: isildu gabe itzeguin cezala: Berac lagunduco ciola, eta inore gaitzic eguingo etciola. Corinto-n berealdeco gende asco zuela. Jaincoaren gaztigu pozgarri onequin baciardun, Evangelioa gueyago eta gueyago eracusten, eta Cristauac ugaritcen, Jaincoac beste ascoric artcen zuen bitartean. Gueroenean irten-bearra etorri citzayon, orain esatera goacenaren bidez.

Erroma-rrac Acaya gucico Buru Galion eguin zuten, eta Corinto-ra vicitzez joan zanean bereala, Juduac asi ciran San Pablo gaitceco bideac prestatcen. Escuac ezarri ciozcaten, eta Galion-i aurqueztu cioten esanaz; guizon arc gendeai eracusten ciela, ayen legue eta oiturac aguintcen zuten ez beste era batean, Jaincoa adoratcen. San Pablo asi zan itzeguiten; baña Galion-ec eragotci cion: eta Juduai esan cien, baldin gaiztaqueria andi batequin joan bacitzazquion, adituco ciela, aguintean dagoanari dagoquion, eta bear duen bezala; baña espa guciac Juduen legue eta gauzaen gañean ciran ezqueró, ayen beren eguitecoa zala, eta ayen lanetan sartcera etcijoala; eta onembestez bere aurretie quenda cituen. Judúac etzutea alaco erantzueraric artu uste, eta su vician sartu ciran; eta oni errequin gueyago emateco, San Pablo ere trisca edo bullician ezcutatu citzayen. San Pablo-ri Galion-en aurrera Sostenes berez Judua, baña Jesu-Cristo-ren icasle eguiñac, lagundu cion; eta Apostoluac igueseguin zuela cecusate-nean, Galion en beraren aurrean Sostenes-i eraso cioten,

eta colpatu zuten. Gueró ayen escuetatic nola ere bait aldeguinta, San Pablo topatu zuen, eta onen ibilli eta neque gucietan lagun izateco itza eman cion.

Egun batzuetan, isillie bedere, Corinto-n oraindie egon zan, eta ango Cristau ascoc oñ onean irauteco gauza guciac zucendutacoan; itsasoz Efeso-ra joan zan. Aquila eta Priscila berequin cituela. Efeso-arrac luzaró iduqui nai izan zuten; baña San Pablo-c erantzun cien, aldi artan ecin guelditu citequeala, eta Aquila eta Priscila bere ordeztu utcitta, gueroago itzultceco itzean, Asia chiquieneronz abiatu zan, len lenago ibilli izan cituen errietan, eta cristautu cituenac icusteco asmoarequin. Icasbide berriac guciac eman ciezen, eta lenago artutaco fedean sendotu cituen, eta Efeso-ra itzuli zan.

San Pablo, orañago aitatu dan bezala, Efeso-tic irtenda laster, ara joan zan Apolo ceritzan Alejandria-r bat, jayotzaz Judua, eta gueró cristan eguiña, Guizon arguia, iztun ederra, eta Escritura Santaetan ondo icasia izanaz gañera, Jesus-en leguea zabaltceco chit eresi audicoa zan, eta Juduacquin ere elea latzac izaten cituen. Berezo gogo on oni cerraiquiola, San Pablo-c bere lecuan utcitaco Aquila eta Priscila-requin elcartuta, Apostolua Efeso-ra itzulceraco, leguean chit ondo trebatu asco ceuzcaten, eta San Pablo etorri zanean, batayatuac izan ciran.

San Pablo Efeso-n iru urte urrean vici izan zan, irteo-al diac auzoetara eguiten cituela. Bitarte onetan gendearen arrigarrizco aldaquetac eguin cituen, eta ecin esan diteque cembat lagun cristautu ciran. Ain jaquinduri andiarequin itzeguiten cien, non, bein aditcea asco zan, Evangelio leguea, arteco, eta Cristau eguiteco. Esanai mirariacquin laguntcen cien; bada, berac erabillitaco soñeco, zapi edo guerricoarequin eriai uquitce utsaz gaitz guciac sendatcen ciran.

#### 8. §.—*Judu conjuratzalleen castigua.*

San Pablo-c lambide onetan ciardun bitartean, Juduac ere bacebiltzan beren aldeco cerbait eguin nayez, eta onec



beronec San Pablo-ren itzari indar gueyago eman cion. Cecusten, gaizquiñac ceuzcatenac San Pablo-ri bacijoazquion, eta San Pablo-c Jesus-en icenean aguindu, irteteco, bereala igueseguiten zutela, Judúac ere bacituzten exorcistac edo gaizquiñac botatzen cituztelacoa eguiten cebiltzanac; eta icuširic, San Pablo-c cer eguiten zuen, oyec ere asi ciran, Jesus-en icenean aguinteen, irten citecela. Esceva Apaiz-buruaren zazpi seme ciran, eguiteco onetan er riz-erri ibilteen ciranac. Bein batean gaizquindun bati beren itzqueta-mordolloan asi citzayozcan, eta ecer iristen elzutenean, Jesus-en icenari otsegin cioten: baña gaizquiñac erantzun cien: Jesus ezaguteen dicat; Pablo nor dan bacequiat, baña ¿zuec cer cerate?, Au esanda gaizquinduna itsasi citzayen, eta ain abarraquituta utci cituen, non, larrugorrian eta zauriz beteric, echetic doi-doi irten ciran. Berria Efeso gucian Judu eta Gentillen artean barre-atu zan, eta guciac Jaunari bildur andia artu cioten, eta Jesus-en Icen santua alchatua zan. Onen ondoren ascoc sinistu zuten, eta batayatu ciran: eta batayoac arterañoco becatuac osotoró barcatzen baciezten ere, lotsa gueyagoraco San Pablo-ri joan citzayozcan gaizqui-eguin guciac aitortcera, lenagocoen damu miñ-min, eta berriz ez eguiteco itzarequin, eta au biotz-biotzetic ciotela iragarrizeco, arguibide ecin obeagoa eman zuten. Ayetatic asco ciran, liburu gaiztoetan icasita, sorguintzan cebiltzanac, eta erri guciaren aguirian eta beguietan liburu danac erre cituzten. ¡Cer icasbide ederra lembicico cristau zorioneco ayec munduari eman cioten, eunda berrogei milla erreal balio cituzten liburu galgarri guciac ain oparó erretcearequin! Ay au ondorengoac eguingo balute!

9. §.—*Demetrio cillarguilleac Efeso-n sortutaco iscam-billa.*

Efeso-arren prestutasunac San Pablo-ren biotza cembateraño zabalduco zuen, cer esanic ez da: baña atsecabez laster bete citzayon. Asia gucian chit ots andicoa zan, Diana jainco guezurrezcoac Efeso-n zuen eliza, eta gendetza

andiac urrutietatic cijoazquion, adorateera, eta echeracoan ceramazquiten cillarrez eguindaco elizacho batzuec Dianaren irudia erdian zutenac. San Pablo-c asperzaca beti ciardun idolo edo jainco guezurrezco gacien contra itzeguiten, eta ecer-utsac cirala eracusten: eta gendeac uzten cion cillarrezco Eliza oynec erosteari, cerequin cillarguilleai irabacia quentcen citzayen. Demetrio ceritzan cillarguille bat, languille asco artuta, eliza oynec eguiten aritcen zan, eta ignerri cionean, San Pablo-ren eracutsiac etciola bere irabacian onic eguiten, languilleac bildu, eta esan cien, baldin eracusle ari artan uzten hacitzayon, dembora guichiren barruan, etzuela ayen escuco lanic-iñore erosico, eta cerjan gabe arquituco cirala; eta bere irabaciagatic cebillela uste izan etcezaten, eta San Pablo-ren contra gueyago sututceco, esan cien, Diana andiaren eliza iñore ecertan artu ez, eta laster lur-joco zuela. Demetrio-c opa zuen bezala, languilleac aserre bician sartu ciran, eta cerasaten: ¡Efeso-co Diana andia! ¡Efeso-co Diana andia! Erri gucia aztortu, eta nastu zan.

Guciac bereala biltoqui edo teatroa joan ciran, bidean topatu cituzten San Pablo-ren lagun Gayo eta Aristarco berequin ceramazquitela, iñolaz-ere, Maisuaren ordezen antzun cezaten. San Pablo-c jaquin zuenean, joan nai izan zan; baña adisquideac utci etcioten, naspilla artan cerbait eguin cizayoten bildurrez. Jesus-en Evangelioac bezala, Moises-en legueac ere, Jainco bacarra besteric adoratea, debecatcen zuen: eta Judúac larritu ciran, Dianaren aldecoac ayen contra aztoratuco ciralacoan, eta beren odoleco Alejandro iztun andia bialdu zuten, gai artan eguitecoric izan etzutela esan eta sinisterazotzera; baña asaldatuac jaquinzutenean, hura ere Judua zala gogorraco cerasaten: ¡Efeso-co Diana andia! ¡Efeso-co Diana andia! Alejandro-c eceñ iritsi etzuen, eta ordu bian deadarca irain zuten. Gueroenean, Urico Sindicu Procuradorea sartu citzayen, eta isilltecco quiñua eguinda, esan cien, paquetu citecela, iscambilla gueyago ipiñi gabe: ez guizon ayec cer icusiric zutela; ez iñore Diana-ren Elizan bear etzanic eguin zuela: eta Demetrio-c eta onen languilleac esanquizunic bazuten,

Urico cargadunac anche cendela, eta Batzarrean erabaquico zala. Itzqueta onequin isildu ciran, eta nor bere aldera joan zan.

San Pablo-ri ondo etceritzan Efeso-n luzaroago egotea. Cristau asco baciran ere, bildur zan, gaiztoac beste iscam-billa berriren bat sortu cezaten: eta garagarrillaren lenengo egunetan Pazcoa Espiritu-Santuco inguruan Efeso-tic irtenda, joan zan Macedonia, Tesalonica, Berea eta Filipo-co Elizac icustera, Lucas lau urtez lenago Filipo-n utcia bere langun zuela: eta ayetaco Cristaüac arqitu cituen chit paque andian, eta lenago eman izan ciezten icasbideetan chit sendoac eta Jaincoaren bildur andicoac: baita zuten gucia beartsuai emateco ere biotzie onenacquin. San Pablo-c onelaco prestamena icusita, aurreratcen cituen, obra on eta Jaincoaren ain gogocoa eguitera, batez-ere Jerusalem-en vici ciran senide errucarriacquin: bada, oyec ezizanie negargarrienean arquitcen ciran, non eta nola irabaci izan gabe, eta Judüac egunetic egunera gogorrigo eta eutsiago aguertcen citzayeztelaco.

### AMABOSTGARREN IRACURGAYA.

#### 1. §.—*San Pablo-ren joanera Jerusalem-era.*

Ibilli onetan sei illabete eguin cituen, eta bildu zuenarequin Jerusalem-go anaya errucarriai lagunteen prestatu zan; baña etsaya ere lo-elcetzan, eragozten ote citzayon eguin-alac eguiteco. Eman ciozcaten limosna ugarien ganean inõre gaizpensatu etcezan, diruaren eramantzalle artu cituen Berea-tic Sopatro, Tesalónica-tic Aristarco eta Segundo, Derbe-tic, Cayo, eta Efeso-tic Tichico eta Trofimo, guciac, nor bere erriac, lambide artaraco autuac; eta Corinto-n elcarganatu ciran, emendic itsasoz irtetececo asmoan. Judüac jaquin zutenean, nola San Pablo cijoan, eralle edo guizon-iltzalle bazuec ontcian sartu cituzten, itsasoan iltceco, edo au ecin bazan, San Pablo lurreratuco zan toquieta beste batzuec bialdu cituzten, atcitcen zuten lecuan ilcezaten.

Cer cerabilten, San Pablo-c iguerri cien, eta lagunac

aurrera ontcian bialduta, herá San Lucas adisquide maitea berequin zuela, Macedonia-tic barrena abiatu zan, eta Filipo-ra eldu zanean, guelditu zan, Pazcoaco sei egun emen eguileco. Gueró itsasoz bost egunean Troade-ra joan zan, non arquitu cituen, aurrera bialdu cituela arestian esandaco lagunac. Troade-n zazpi egun ceramazquien, ango cristaiñai atseguin ematen; eta San Pablo, bere gogoz luzaroago egongo bazan ere, Jerusalem-era iritsi nai zuen, Pazcoa-Espiritu-Santucoa baño lenago, eta apirillaren ogueitabatgarrena irteteco icentatu zan. Troade-co cristaiñac jaquin zutenean, San Pablo eta onen lagunac cein egunetan irteten ciran, vezperan gendetza andia bildu zan Apostolua ostatzuz cegoan echera, atcen-agur eguitera, eta Comunio Santa goizean artceco asmoan. Apostolua asi citzayen onetaraco cegozquien eracutsiac eguiten, eta onetan ciardutela, ez-arian eta oarzaca, gauerdia eldu zan. Arguiasco ceuden iracequiac, ez aibat gatiagatic, cembat artcõra cijocac Sacramentu Santu Aldarecoagatic.

2. §.—*San Pabloc-c Eutiquio illa viztutcen du.*

Eutiquio ceritzan gazte bat San Pablo-ri aditcen leyo-gañ batean jarri zan, eta predicuac luzatuta, loacartu zuen, eta irugarren vicitza edo endanatic atarira erori, eta il zan. Zorigaitz onec guciac atsecabetu cituen: icustera lasterca joan ciran; baña ilda arquitu zuten. Lurrac escualdiric etzuen il hura viztutceco, eta San Pablo-c ceruari escatu cion. Apostolu andi au uste oso-osoa mutil illaren gañean etzan zan, eta jaiquita, esan zuen: Inõr larritu ez bedi: gorputz onec anima berequin dauca. Eutiquio berea-la viztua jaiqui zan. Mirari berri onequin guciac arritu ciran. San Pablo-c esan cien, Jaincoari cer esquerrac zor ciozcaten. Gueró Comunio Santa eman cien, eta goizeangciz prestatu zan, irteteco.

San Pabloc Troade-tic Ason-go portura cijoa, Eutiquio-ren guraso eta echeoac berarequin bidera irten citzayozcan, esquerrac ematera. San Pablo-c chit beguitarte ona eguin cien: eta inõlazere Eutiquio gueróz bere onguilleari

jarraitu citzayon, seguru esaten ezbazagu ere. Ason-go portuan itsasoan sartuta, bost garren egunean Mileto-ra iritsi ciran, eta lurra eguin zuten. Emendic gaztigatuta, Efeso-co Obispo, Apaiz eta zarrac beregana eraman cituen: esan cien, cer neque eta eramanquizunac cetozquion, batezere, Jerusalem-era cijoanean; baña etzala atceratuco, ceren Jaincoac aguindua eguiten zuen. Ayec ere norc galduac izango cituztela, eta contuan ibiltceco, iru urtean eman izan ciezten icasbideaz aztu gabe. Atcenean esan ciennean, menturaz berriz icusico etzutela, negarrari eman citzayozcan. Gueró ordua bete zanean, ontcian sartuta, Tiro-ra iritsi ciran, Troade-tic irten ciranetic amalaugarren egunean. Tiro-tic aldatu zan, oguei urtez lenago galdu nai izan zuten Juduai igueseguiteagatic utcitaco Cesarea-ra, non arquitu zuen San Felipe, Apostoluac beren laguntzat artu cituzten zazpi Diacono ayetatic bat, ceñaren echean ostatz jarri zan.

3. §.—*Agabo Profetac San Pablo-ren Jerusalem-go nequeac adierazten ditu.*

Emen atsedeten ceudela, Jerusalem-dic joan citzayen, Erroma-co Emperadore Claudio-ren demboran cektorren gosetea aldeurrez asmatu zuen Profeta Agabo, lenago aitatu dana. San Pablo-ri urreratu citzayon; guerricoa quendu cion, eta onequin bere escu-oñac lotu cituen, guciac cecustela, eta deadar eguin zuen: Ara Espiritu-Santua cer dion: guerrico onen jabea Judúac Jerusalem-en onela lotuco dute, eta Gentillen escuetan ipiñico dute. San Felipe eta gañeraco an ciran guciac erregutu cioten, Jerusalem-era, arren, ez joateco: baña San Pablo-c eran zuten cien, esan eta errregu ayecquin etzutela ecer aurreratcen; bada prest cegoala, Jesus-en iceenagatic Jerusalem-en lotua izateco, ez ecen, iltceco ere. Icusiric, etciotela oñic atceraerazotcen, esan zuten: Jaincoac nai duena izan bedi.

4. §.—*San Pablo Jerusalem-en.*

Cesarea-tic Jerusalem-eronz irten zan, berequin cermazquiela lenagoco lagúnac, eta berriro batu citzayozcan beste icasle asco, ceñaen artean Nason ceritzan Chipre-ar, Jesus-en anciñaco icasle bat ere bai. Onen Jerusalem-go echea zan ango Cristaüen eliza, eta San Pablo, eta bere lagúnac ere ostatuz emen jarri ciran. Jerusalem-go Cristaüac chit arrera on eta pozgarria eguin cieten. San Pablo biaramonean Jerusalemgo Obispo Santiago-ri joan citzayon, icustera, eta emen zar guciac bilduta, itzaldi gozo bat eguin zuten. San Pedro an etzan, Aita-Santutzaco lanetan campoan izan, edo orduraco Erroma-ra aldatua zalaco. Zortzi urtez lenago San Pablo-c arterañoco bere lanac esan izan ciezten, eta orain guerozco gucien berriac eman eta Jaincoac Asia-n, Frigia-n, Galacia-n, Macedonia-n, eta Grecia-n bere bitartez eguindaco gauza arrigarriac, cembat gendetzari Jesus-en leguea eracutsi eta batayatu cituen, cearó esan cien: eta Zar beneragarri entzuleac Jaincoari esquerrac eman eta alchatcen zuten. Baña San Pablo-ri Espiritu-Santuac barrunen esana, betetcera cijoan.

Lenengo icusi au Santiago eta besteai emanda, ondo-rengo egunetan echez-eche ibilli zan, eraman zuen limosna-dirua persona bearrai ematen, erri onguille ayetatic artutaco mandatari edo diru-emalleac beti berequin cituela, ecer esateco bideric izan etcedin. Pentecostes edo Primiciaetaco Pazcoa ceritzana, eguitera Asia-tic etorritaco Judu Jesus-en leguea artu nai etzuten batzuec San Pablo icusi zuten, echez-eche nola cebillen, Trofimo berez Gentilla lagun zuela: eta gueró berriz elizan icusi zuten bein batean escuac ezarri ciozcaten, cerasatela: Israel-co semeac, lagundu zaguzute: Au da erria-ren, leguearen, eta lecu santu onen contra eracusten non-nai dabillen guizona. Gañera Gentillac ere onara ecarri ditu. Trofimo-requin echez-eche icusi zutelaco, uste izan zuten, Elizan ere berequin zuela; argatic cioten, lecu debecatura Gentillac eraman cituela; baña guezurra zan. Ala ere, Urico gendegucia asal-

datuzan, Eta Elizara bilduta, San Pablo-ri eldu cioten, Elizatic campora atera zuten, colpez iltcer uzten zutela, eta ateac ichi cituzten, berriz sartu etcedin, aren odolarequin Eliza ez loitceco aitzaquitan. Bereala il nai izan zuten; baña Elizari contu artzen cioten Erroma-r soldaduen aguintari Lisias, gendearen iscambilla adituta, cijoaqniela oartu ciranean, utci cioten. Orduan Lisias-ec San Pablo bi caterequin lotuerazo zuen: eta galdetu zuen ¿ea guizon hura nor zan edo cer eguin zuen? Batzuec, bat, besteac bestea erantzuten cioten, eta icusiric, ecer garbirie ateratcen etzuela, edo iscambilla hura certatic sortu zan, ecin jaquin zala, aguindu zuen, gaztelura eramateco. Onen escalleraren lenengo mallara ordaco, Judutzar asco bildu ciran, cerasatela, «il ezazu, il ezazu», ata soldaduac elduta, eraman bearrean arqitu ciran. Gazteluco atera iritsi ciranean, San Pablo-c Lisias-i esan cion ¿Itz bi esaten utcico didazu? Lisias-ec galdetu cion ¿ea Grecia-co itzcuntzan al-cequien? ¿edo ez alzala, iscambilla izugarri bat orañago jaso, eta lau milla lapur lister eremura eraman cituea Igitto hura? San Pablo-c erantzun cion, berez Judua eta Tarso-co semea zala; baña gendeari itzeguiteco baime-na eman citzayola. Lisias-ec eman cion, eta escalleraren goeneco mallan jarrita, gendeari itzeguiten asi citzayon, eta Hebreaco itzcuntzan ciarduela, cecusatenean, are ar-dura gueyagorequin jarri citzayozcan.

Cristatiac jazarri edo perseguitcen cituenetic asita, arte-rañoco bere vicitza-gucia esan cien: eta aditu ciotenean, araco Jaincoaren itza Gentillai eracustera, bialdua zala, lenago isillic egon bacitzayozcan ere, deadarrari eman cioten, Tribunoari escatcen ciotela, guizon galgarri hura ilerazotceco, eta capac bola, eta autsa airean banatcen zuten. Au icusita, Tribunoac aguindu zuen, gazteluan sartceco eta azoteac emateco, jaquin cedin, ea cergatic ots ayec aren contra Juduac ateratcen cituzten: guero abe bati ñalacquin ondo lotceco, Erroma-rrac mendeco edo esclavoacquin eguin oi zuten bezala. Soldaduac prelatu ciran, nagusiac aguindu gucia eguiteco; eta asitcera cijoacen unean, San Pablo-c Capitanari esan cion. ¿Erroma-r bat

bide onez azotatu dezaquezute cergatic esan edo icusi gabe? Capitana bereala Tribunoari joan citzayon, esatera, beguira cezala, guizon arequin cer eguiten zuen; bada Erroma-rra zala, ciola. Tribunoa San Pablo-gana joan zan eta galdetu cion? ea Erroma-rra zan? Bai, San Pablo-c erantzun cion. Orduan Tribunoac esan cion: nic icen ori diru ascoren truque erosita det. Ni bada jayotzatic naiz, Apostoluác erantzun cion. Gueyago gabe, burlazco castigu hura ematera cijoazquion guciac isill-isillie aldeguin zuten eta tribunoa bera ere chit larritu zan, lotu eta azotalceco agiindu zuena, Erroma-rra zala, aditutacoan.

Tribunoac biaramonean Juduen Batzarrea bilduerazo zuen, eta San Pablo, lotura guciac quenduta, aurqueztu cien, aren contra cer esanquizon ote zuten icusteco. San Pablo asi citzayen itzeguiten, eta nai etzuten gauzaren bat esan zuelaco, masallaco bat eman cioten. Gueró Batzarreco Jaunac erdiratu ciran, batzuec San Pablo-ren alde, eta besteac contra. Guciac itzeguiten zuten, eta elcarri ecin ecer adierazo cioten. Atceneraco aserre latza sortu zan; eta San Pablo bertan galduco zuten, baldin Tribunoac, bere soldaduacquin artuta, gaztelura itzuli ezbalu.

5. §.—*Jaincoac San Pablo-ri itzeguiten dio.*

Urrengo gauean Jaincoa San Pablo-ri aguertu citzayon eta esan cion, ez bildurric izateco: Jaincoaren Ikena Jerusalem-en eracutsi zuen bezala, Erroma-n ere eracutsi bear zuela. Esan onequin San Pablo bizcortu zan, ez ambat irriscu gogor artatic ateratcen zan usteagatic, combat aren Icen santua eta leguea Erroma-n eracusteco aututcen zuelaco. Baña irriscu berri batean, eta Jaincoac esana eguia zala pensateco bidean laster arquitu zan.

Judúac icusiric, Tribunoac gazteluan gordetcen zuela, ain ayer citzayozcan Apostolua, berroqueita gueyago lagunec promestu edo volo-eguin zuten. San Pablo vici zan artean, ez ecer jateco, ez edateco. Promes gogorra zan, eta San Pablo bereala éz iltcera, goseác eta egarriac asco galdu bear cituen. Eta znola il gazteluan gordeta cegoana?



Ecín au bacecusten, eta apaiz-buruai esan cieten, Tribunoari escatceco, Batzarrean berriró icusi citzatela, San Pablo-ri egozten ci.zayozcan gáuzac: eta gaztelutic Batzarre-  
ra ceramaten Bitartean bérac bidean ilco zutela. ¡Cer sare ondo zabaldua! baña Jaincoaren escuarentzat indar gabe-  
coa, Ayen asmo guciac, bada, quea bezala deseguin ciran.

San Pablo-ren arreba bat Jesusalen-en vici zan, eta onen seme batec jaquin zuenean, bere osabarequin cer eguiteco cebiltzan, osabari gaztelura joan citzayon, eta jaquiñean ipiñi zuen. San Pablo-c bereala Centurion edo Capitan baten bitartez illoba Tribunoagana bialdu zuen; eta esan ciozcan Juduen barau, escaera, eta beste lan guciac, eta cer asmo cerabilten, eta bere escuetatic ez, arren, San Pablo uzteco. Tribunoac gucia aditu cion, eta isillic gorde cezala, illobari esanda, Capitan biri aguindu cien, bere bereala prestatu citzatela berreun soldadu oñezco, irurogueita amar zaldizco berreun ayotzequin, eta abere bat San Pablo-rentzat; bada arratséco bedaratcietan irten bear cirala, San Pablo segurantz guciarequin Cesarea-co Eraentzalle Félix-i eramatera. Gauza guciac zucenduta, Cesarea-ronz irten ciran. Tribunoac Félix-i chartel batean gaztigatu cion, Juduacquin guertatu citzayon gucia, eta bialtzen ciola, alde biai aditu ondoan, ceritzana eguin cezan. Onetaraco salatzalleai ere esan cien, cer esanic bazuten, Cesarea-ra joateco. San Pablo-requin cijoacenac Cesarea-ra iritsi ciranean, Félix-ec Apostolua ipiñi zuen Herodes-ec eguindaco eche galant batean, contuartzalleac ondoan cituela, salatzalleac cetocenean aucia icusteco.

#### 6.—§. *San Pablo Cesarea-n.*

Bost egunen buruan Ananias Apaiz-burua, eta beste cargudun batzuec. Tertulo iztunotsandicoa berequin zutela aurqueztu ciran Félix Eraentzalleagana. Onec salatzalleac eta saiatua bildu cituen; Tertulo-c San Pablo-ren contra eguin-algucian itzeguin zuen. Gueró Gobernadoreac San Pablo-ri aguindu cion, cer erantzunic bazuen, esan cezala. Félix-ec bi aldecoai aditu cien, eta; garbiró ezagutu zuen,

Juduac San Pablo-ren contra cecarzten 'espa guciac ecer etcirala: baña Juduai atsecabe osoa ez emateagatic, esan cien, donarioz pensatuco eta erabaquico zuela. Bitartean aguindz zuen, San Pablo ichian iduquitceco; baña beguiramen guciarequin, bear etzaniz eguin gabe; eta inor be-reelacoric icustera bacijoaquion, sarteen uzteco.

Andic egun batzuetara Félix bere emazte Drusila-requin San Pablo-ri joan citzayon, ichian cegoan toquirá. Jesus-en legueco gauzaetan itzaldi luce bat elcarrequin eguin zuten; baña San Pablo asi citzayoneau cerbait esaten zucentasun, garbitasun, eta Jaincoari egunen batean gucioc eman bearco diogun conta estuaren gañean, Félix izutu zan, eta etcion gueyago itzeguiten utci, esanaz, beste batean itzqueta hura berrituco zutela. Félix-igaiayetan asco uquitcen citzayon; argatic alaco gauzaric aditu nai etzuen Berriz eta berriz ere elcarganatu ciran; baña Félix biguntcen etzan, ez ceucan bide gabeco ichi arlatic, Apostolua ateratceco, ez, onec eracusten cion leguera, jartceco. Juduacquin izan zuen itzquetatic Felix-ec iguerri cion, Jerusalem- era persona berriai dirua eramatera joana zala, eta oraindic chit ustua izango etzalacoan, Eraentzalle diru-zale arc San Pablo-ren esanai, itz-bitarteac sartu, eta gueroco epea ematen cien, ea ichitic ateratce-truque ecer esqueñt-cen, ote cion, icusteco. Bi urte onetan igaro ciran, ichian ceucana, ez lotu, ezfascatu, eguin gabe, aguintean bere ondorengotzat Porcio-Festo joan citzayonean.

Esan citequean, Félix-ec aguintea uztean. San Pablo-ri nai zuena eguiteco, eta nora-nai joateco escubidea emango ciola, bere etsayac egozten ciozcaten gauzaetatic garbi cegoala ciequin ezqueró; baña diruric iritsi ecin izan zue-nean, Juduacquin ere osotoró autsi nai izan etzuen, Erroma-ra cetorreanean, bere alde izateco ustean.

7. §.—*San Pablo-c Cesar-gana gañdeitcen du.*

Festo-c bere eguiteco berria Cesarea-n artata, irugarren egunean Jerusalem-era joan zan. Apaiz-buru eta Judu andizquiac bereala aurqueztu citzayozcan. San Pablo Jerusa-

len-era bialdu cezan esquearequin, bidean ilerazotcec<sup>o</sup> asmoan. Jaincoaren escua, lenago bezala, orain ere bere Apostolu onequin zan. Festo-c erantzun cien, San Pablo Cesarea-n cegoala, eta onen contra cer esanic bazuten, ará joateco, eta adituco ciela. Jerusalem-en zortci edo amar egun eguinda, Cesarea-ra itzuli zan. Biaramonean Festo Erabaqui-lecu edo Tribunalean eseri zan, eta San Pablo eracarri zuen, eta Jerusalem-dic jatsitaco Judúac bereala asi citzayozcan gaiztaqueria eta gaiztaqueria egozten; baña eguiac cirala, sinisterazotceco ecer aguertu gabe. San Pablo-c batere malmetitú gabe erantzuten zuen, ecertan ere uqitu etciela ez Juduen legueari, ez Elizari, ez Cesar-i. Orduan Festo-c galdetu cion, Juduacquicoa obeto eguiteagatic, nosqui, ¿ea Jerusalem-era igo nai zan, eta egozten ciozcaten gauzai aren aurrean erantzun? San Pablo-c esan cion, Cesar-en Tribunalean cegoala, eta emen juzgatua izan bear zala. Judnai gaitzie eguin ez diet, esaten zuen, zuc, cerorrec obeto daquizun bezala, eta ecer eguin badiet, edo ilteco bideric cerbaitequin eman badet, ara ni emen prest. Baña dioten gauzatic ezbadidate arquitcen, inore ez dauca ni oyei uzteco escubideric. Cesar-gana gañdeitcen edo apelatcen det. Orduan Festo-c bere Consellariacquin itzeguinda, esan cion, ¿Cesar-i deitcen diozu? Cesar-gana joango cera. *Cesaren apellasti! ad Cesarem ibis.*

8. §.—*San Pablo Erroma-ra ecartceco prestamenac.*

Egun batzuen buruan San Pablo Italia-ra ecartcecoprestamenac eguiten cebiltzan bitartean, Galilea-co Erregue Agripa eta onen arreba Berenice Cesarea-ra joan ciran, Festo-ri onguietorria eguitera, eta itzac itzbidea emanda, Festo-c Agripa-ri esan cion, San Pablo-requin Juduen artean cer guertatcen citzayon. Nic neronec ere guizon orri áditu nai nion, Erregueac esan cion:† eta biaramonean icusteco guelditu ciran.

Agripa eta Berenice anai-arrebac ordu jaquineraco Tribunalean aurqueztu ciran, anditasun gucian, eta errico andizqui eta persona bicañ danac lagun cituztela. Festo-c

bereala San Pablo eracutsi cien, esanaz: Ara emen guizon au, ceñaren vici-esque Judu guciac Jerusalem-en jarri citzazquidan, baña nic ecer topatcen ez diot, iltceco. Cesar-gana joan nai du; eta bialtcera noa; baña nere Nagusi Emperadoreari cer esan, ez da quit. Zuec itzeguiozute, eta gueró eracutsico didazute, cer esan bear diodan: bada, ondo ez deritzat guizon bat lotuta edo preso bialtcea, cer-gatic bialcen dedan esan gabe.

Erregue Agripa-c San Pablo-ri esan cion, itzeguiteco. Apostoluac etzuen galdu nai izan aurqueztutcen citzayon ain era ona, bere icasbidea, edo dotriña aguertceco, Eracutsi cien, bada, ecin ueatu cezaqueten moduan, Jesu-Cristo Judúac ilzutena dala Jainco-Seme eta Mesias eguiazcoa: Profetaen anciñaco esan guciac onegan bele cirala. Aundo ezagutu, eta lenagoco vicitza utciric, Jesus-en Evangeliora jarri zala. Esan cien mirarizco bere itsutcea, arquiteca eta guertatu citzayon gañeraco gucia. Festo-c, Gentilla zalaco etcion San Pablo-ren itzquetari iguerritcen, eta esan cion Zuc buru gucia nastua daucazu. Ez, Festo, ez, San Pablo-c erantzun cion. Nic diodana eguia garbia da. Aditcen dagoquidan Erregueac ondo daqui, eta eguiztatu nazaque, ceren gauza oyec guertatu diran, ez bazter isill batean, ezpada Jerusalem-en, Judea-n eta Palestina gucian; eta Moises eta Profetae escribatuta utci cizquiguten. Gueró, Agripa-ri itza emanda, esan cion: ¡O Erregue Agripa! ¿Zuc Profetai sinisten diezu? Badaquit, bai, sinisten diezula. Orduan Agripa larritu zan, eta San Pablo-c bere esanacquin geyago estutu etcezan, esan cion: Guichigatic cristau eguiten ez nazu. ¡Ai, bada, ori eguingo bacendute zuc eta aditcen didazuten beste gucioc! San Pablo isildu zanean, Erreguea, arreba, Festo eta gañeracoac jaiqui ciran, eta elcarri esan cioten, etcitzayola iltceco, ez ecen, ichian iduquitceco ere bideric ecertan arquitecen; eta Agripa Erregueac Festo-ri esan cion, baldin Cesar-gana joateco conturic aitatu ez balu, nai zuena eguiteco escubidea eman cizayoqueala; baña barreatu zan ezqueró, Cesar-gana bialdu gabe ecin utcico zala.

9. §.—*Cesarea-tic Erroma-raco San Pablo-ren bidajea.*

Gauza guciac bideraco zucenduta, illabeteren barruan Festo-c San Pablo beste preso batzuecquin Erroma-ra itsa. soz bialdu zuen, Julio ceritzan Euntari edo Capitan Erroma-r bat contuartzalle zuela. San Pablo-c berequin ceramaz- quien Jerusalem-en escuac ezarri ciozcaten ezqueró betilagun izan zuen San Lucas, eta limosna-diruaren eramalle ayeta- tic bat, Aristarco ceritzana. Julio-claster ezagutu zuen, San Pablo-gandic beste presoetaraco berdin-eza, eta iñori ez bezalaco beguirunea aguer.cen cion. Bidean itsañoac chit aldi gaiztoac izan cituen: itotceco zorian ascotan arquitu izan ciran, eta esturasunic laticenean, orainche itoco guera esanaz cebilzanean, Jaincooc San Pablo-ri iragarri cion, ontcia porrocatu eta ondatuco zala, bai; baña ontcian cijoa- nic iñor ere galduco etzala. Berri onequin guciac bizcortu ciran, eta ontei erdi-autsiari-eguin-alean lagunduaz, Malta- co costara alderatu ciran, eta arroca bat jota, ontcia galdu zan; baña ontcico berreunda irurogueita sei lagunac, bat- zuec igueri, besteac ol-puscaetan, sei illabeteren buruan lurrera vicirie irten ciran.

10. §.—*San Pablo-ren Malta-co sarrera.*

Malta-rrac, errucarri ayen errequia icusita, chit arrera ona eguin cieten. Su on bat bereala eguinda, leortcen eta berotcen ipiñi cituzten. Onetaraco San Pablo ere besteac- quin batean bacebillen egurra suari inguratcen, eta artu zuen sorta-egurrean suga bat cegoan, eta suaren beroare- quin bizcortu zanean, escutic eldu cion; eta cincilica jarri zitzayon. Malta-rrac ala icusi zutenean, elcarri ciotsaten; guizon au, nosqui, guizon-iltzalleren bat da; beintzat, itsa- soaren aserreari igues-eguin orduco, orain vicia quendu nai dio. San Pablo-c escua astindu, eta suguea sutara bota zuen. Malta-rrac uste izan zuten aurrena puztu edo anditu eta gueró bereala ilco zala. Luzaró beguira egon citzayoz- can, eta cecusatenean, pozoniac ecer eguin etciola, lenago-

co usteac trucatu, eta esan zuten, jaincoa zala. San Pablo-c bereala contra eguin cien, esanaz, Ceru-lurrae eguin cituen Jaincoa baicic etzala, eta au bacarric adoratu bear zala. Gueroztic ugarte edo Isla artaco sugueac pozoniric ez dute.

Ugarteco Buru edo Principe Publio-c bereac cituen itsasotic irtenda, lurra artu zuten bazterrae. San Pablo-ri suguearequin guertatu citzayona jaquin zuen, eta echean icusteco eresia aguertu zuen. San Pablo bere bi lagun San Lucas eta Aristorco-re-quin joan citzayon; iru egunean emen chit ondo egon ciran; eta Publio-c ayecquin eguindaco onaren saria, Jaincoac laster itzuli cion. Publio-c aita aspaldian sabelzardun edo beeracoarequin eta berotasun edo calenturarequin gaso cencan. San Pablo sartu citzayon, icustera, oitz-eguin zuen; escuac gañean ipiñi ciozcan, eta bertatic sendatu zan. Mirari au Ugarte gucian barreatuta, eri eta elbarri guciac San Pablo-ri ceramazquioten, eta guciac sendatcen cituen; eta gorputceco gaitzac, ez ecen animacoac ere quentcen ciezten, Miragarrizco sendatce oyecquin gende gucia beretu zuen, eta danac batayatu ciran.

#### 11. §—*Malta-tic Erroma-raco San Pablo-ren irteera.*

Malta-rrren atseguñic andiena izango zan beren onguille eta animaco maisua berequin luzaró iduquiteen; baña San Pablo autua zan mundu guciaren Erri-buru Erroma-n Evangelioa eracusteco, eta aronz irteteco dembora bace-torquion. Bitartean Ugarte-ar esquer onecoac bideraco bear zuen gucia oparó prestatu cioten, Julio Capitanac on-teia artu zuen, eta Maltatic apirillaren erdian irtenda, iru-garren egunean itsasoz Puzol-era joan ciran, emendic Erroma-ra leorrez joateco asmoan. Lembicico Cristauac Puzol-en arquite cituzten, eta San Pablo-ren berriac ordu-raco bacituztelaco, chit arrera ona eguin cioten. Oraindic cateacquin lotuta cijoan, eta beguiramen guciarequin muñ eguiten cieteen. Puzol-en zazpi egun eguin cituen, ango cristaüac mesede au escatu ciotelaco; oyen ondoren Erro-

ma-ronz irten zan, Erroma-co cristaiac artu zutenean San Pablo urreratcen citzayen albista, batzuec emezortej leguan, besteac amaican bidera irten citzayozcan. Cerrera eguin cioten, ecin esan diteque; eta San Pablo bere bi lagun maiteacquin Jaincoari esquerrac eman ciozcan. Gañeracoac ere, Jainco eguiazcoaren leguea oraindi cicasi gabeac baciran ere, beren erara eman nai izan ciozcaten; ain ito-bide andietatic itsasoan gorde, eta aimbeste laguntza lurrean eratu cieztelaco.

12. §.—*San Pablo Errom-n.*

Jesu-Cristo-ren irurogueita bat garren urteco mayatzaren asieran Erroma-ra iritsi ciran; eta Julio Capitan, bidean ain ondo beguiratu izan cionac, Erroma-n ere berebat eguin nai izan zuen. Ceramazquien beste preso guciac ichira edo carcelara eramanda, San Pablo carpoan utci zuen, soldadu bat beste contuartzalle gabe, ceñarequin izaten zan, bi adisquide elcarrequin bezala; baña bere cateacquin beti, bada, oyec quentcen etciozcaten.

San Pablo orduco, Festo Cesarea-co Eraentzalleac Erromaco Emperadoreari bialtzen ciozcan San Pablo-ren berriac iritsi ciran. Arc oni esaten cion, Juduac egozten ciozcaten gauzac indar guichicoac cirala: guizon prestua zala; bere iriltcia asco, ez ecen, Erregue Agripa-ri ere eracutsi ciola, eta biac bat celocela; eta Cesar-gana apelatu ez baluan bertan ascatuco zuela. Berri oyec alde batetic, eta bidean guertalutaco gora-beera miragarri, Julio-c eta gañeraco bide-lagunac esandacoac bestetic, gende gucia San Pablo-ren alde eta icusteco eresian ipiñi zuten. Pretorio edo Auci-guelan bereala aurqueztu zan; bere burua garbitu zuen, baña bertatic libratcea bacegoquion ere, utci nai izan etcioten, Jerusalem-die elortceco ciran salatzalleac eldu arteraño; eta dala oyen elorrerac luzatu zuelaco, dala Erroma-rrac gauzá betaz eta donarioz artu zutelaco, San Pablo-c, beintzat, bi urte bere cateacquin igarocituen; ala-ere oyec eragozten etcioten, Evangelioa lecu gucietan eracustea. Berac mayena zuen toquian ostatuz jartceco

baimena eman cioten, eta autu zuen lanic gueyena eguin cezaquean lecuá.

Erroma-ra iritsita irugarren egunean Judu andientsu eta bicañenai gaztigatu cien, aren echera joateco, eta esango ciela, cergatic Cesar-gana apelatu zuen, adierazo nai cieztan beste cembait gauzarequin. Joan citzayozcan; esan cien, Jerusalem-en guezurrezco gauza egotci ciozcatelaco Cesar-gana apelatu zuela; ez Juduen contra emateagatic, ezpada bere burua garbitceco. Etcezatela pensatu, cate ayecquin bacecusten ere, gaitzguilleren bat zala, ez. Cera-mazquiela Israel-ec ichedoten zuen Mesias predicatcen zuelaco. Judúac erantzun cioten, ecer etciequitela. Gueró, berriz ere, beste egun batean goizetic arratseraño itzeguin cien Jesu-Cristo-ren Erlegioaren gañean, beguien aurrean ipintcen cieztela, onec bere alde cituen Profetaen esan eta beste sinisbide guciac Ascoc ondo artu cioten, eta cristau eguin ciran: baña gueyenac gogor aguertu citzayozcan, eta esan cien, Juduai esqueñtzen citzayen salvacioco bidea, Gentillai emango citzayela, ayec baño obe-to oyec artuco zutelaco. San Pablo Apostolua-ren ibilli, oraindaño aitatu ditugunac, San Lucas Evangelariac *Apostoluen eguintza-en* iceneco liburuan dacarzqui; eta gue-rozcoac Escritura Santac esaten ezbadizquigu ere, ecin ucatu eta zalatzan ipiñi ere ditezque, sinisbideric arguie-nac eceretzat jo gabe. Au bera diot, emendic aurrera eza-rrico degun gañeraco guciagatic.

### AMASEIGARREN IRACURGAYA.

1. §.—*San Pablo-ren cateetatic libratcea. Gure España raco etorrera.*

Erroma-n bi urtean egon zan, aitatu dan bezala, Empe-radorearen Tribunalac libratceco aguindu zuen arteraño. Bitartean on andiac eguin cituen. Asco joaten citzayozcan icustera, eta bere jaquinduri ez-oiuarequin guciac arritcen cituen, eta Jesu-Cristo-ren Evangeliora jarri, eta cristautu-ñcen ciran. Itzez eracutsi ecin cien urruticoai, escribuz gaz-



tigatcen cieztan, bere carteatan iracurtcen ditugun Ceruraco icasbide andiac.

Bi urteren buruan cateac ascatuta, nora-nai joateco escubidean jarri-zanean, ibilli andiac eguin cituen, berac lenago ipiñitaco Elizac icusten, eta berriac ipinteen, Gure España-ra ere dembora onetan etorri zan. Emen eta ibilli zan lecu gucietan Evangelioa eracutsi eta zabaldu zuen, ecin esan-al Gentill Jesu-Cristo-rentzat irabazten cituela. Atceneraco Erroma-ra itzuli zan, Neron emperadore gogor aren echean ere cristau osco eguin cituen; oyen artean Neron beraren emazte-ordeco emacume galdu bat; baña Jaincoaren ain gogoco lan oyecquin, Jaincoaren etsai gucien gorrotoa iracequi zan; eta arterañoco neque guciac bere odolarequin sillatceco bidea bacetorquin.

San Pablo-c, Erroma-ra itzuli zanean, emen arquitu zuen San Pedro Apostolu gucien Burua, lurrean Jesus-en Ordecoa, eta lenengo Aita-Santua. San Pablo-ren gañean cearó itzeguiten asi guiñanean, esan zan, bere Aulqui-nagusia zazpi urtean Antioquia-n iduqui zuela, eta andic. Erroma-ra aldatu zala, Esan eta eguin: bere vicilecu jaquiña au zuen; baña, mundu gucian zabaltcen cijoan Elizaren contua, bere gañ ceucanac bezala, ibilli-bear andiac izan cituen. Eguzquiaren sortaldera joan zan; eta eguzquiaren sartaldera etorri ere, bai: eta badira jaquintsuac diotenac, gure España-n ere izan zala; Evangelioa eracutsi zuela, eta emen bere ondorengo Obispo eta Apaitzac utcitta, Erroma-ra itzuli zala. Gure Errusuma edo Erreina au izanic, Erroma-rren mendeco bazterric bicañe-nena, guizonic andienac bere semeetan cituena, eta ondasunic aberatsenacquin Erroma-rrai laguntcen ciena, badirudi, gucion Aitaren ardura andian alderdi au ere sartuco zala, eta gure asaba eta anciñaco emenvici ciranac, icusi naico cituela.

Gai onetan dana dala, beintzat, bere eguitecoetan cebillenean, Jaincoac iragarri edo adierazo cion, laster il bearra zala, eta berri onequin Erroma-ra itzuli zan. Vicitzan Cristaui eracutsi izan cieztan eguiac, ilda gueró ere, gogoa iduqui citzaten, bi carta chit icasiquizun asco eta andicoac escribatu cituen.

2. §.—*San Pedro eta San Pablo elcarrequin Erroma-n.*

Bi Apostolu andiac, bada, elcar artuta. Evangelioa eracusten baciarduten, Neron munduan izan dan guizon biotz-gogorrenecoac biac galtceco asmóac artu cituenean. Ara cergatic. Simon Mago, lenago iñoiz aitatua, Samariatia Erromara etorri zan, bere eracutsi guezurrezcoac eta sorguintzac zabaltcera. Neron berez izanic gaiztaqueria gucietara etcina eta griñatua, Simon-equin chit adisquide eguin zan, eta bere atsenden-aldi guciac onen sorguintzac aditcen eta icusten, igarotcen cituen. Beste guezur ascoren artean, Neron-i sinisterazo cion, ceruetaraño igoco zala, ceñaren bitartez eracutsi nai izan zuen, Jesu-Cristo-c ez ecen, arc ere au eguiteco escubidea baceucala: artaraco uste zuen deabruac lagunduco ciola.

San Pedro eta San Pablo bi Apostoluac cecusten, baldin igo-irudi, edo antz bat ere eguiten bazuen, asco itsutu eta bereluco cituela: eta otoitz-barañiacquin bérac prestatu, eta guezurti arc indarric izan etcezala, Jaincoari escatceco, Cristaüai esanda, igo bear zan toquira joan ciran. Simon goronz abiatu zan; baña bereala erorita, bi ancac autsi citzayozcan. Sendatceco asmoan aldameneco eche baten goeneneco bicitzara eraman zuten, eta icusiric, bere esqueñi eta esan guciac guezurtatu citzayozcala, bere burua leyotic bota eta il zan.

3. §.—*San Pedro eta San Pablo-ren eriotzac.*

Apostoluen contra lenagoco aserre\_gucia Neron-i iracequi citzayon. Catez ondo lotuerazota, bederatci illabetean ichian iduqui cituen. Emen ere gueldi eta alperric egon etciran. Beren contu-artzalleetatic bi, Proceso eta Martiniano, ichian ceuden beste berroqueita zazpi lagunequin Jesus-entzat irabaci eta batayatu cituzten. Gueroenean aguindu zan, il citecela; eta biac beren odolarequin vicitza sillatu zuten. San Pedro, gurutcean buruz-beera josita, il zan; eta San Pablo, lepomóztuta, garagarrillaren oqueita

bederatcigarren egunean. Bi Apostolu gogoangarri oyen icasleac eta adisquidéac contu andia izan zuten, al-zan progu onrotsuenarequin gorputz-illac gordetceco, eta orain Erroma-n dautza. San Pedro-ren emazteac, senarrac baño ere lenago Jesus-gatic vicia galdu zuen. Apostolutzan asi baño lenago izan zuen alaba Santa Petronilla ere berebat il zan.

4. §.—*Beste Apostoluen berriac.*

Gañeraco Apostolu, San Juan ez besteac ere, nor bere alderdian, edo Evangelioa eracusten ibilli ciran toquietan Jesus-en icenean odola isuri, eta illac izan ciran. Bacarric San Juan zartuta, berez il zan: baña onec ere vicitzan Jesus-gatic martirioa artu zuen. Efeso-n vici zan lecutic Domiciano Emperadoreac Erroma-ra eramanezaco, eta olio iraquiñetan sartu zuen: baña frigituta irtengo zala uste zutenac, arrituric guelditu ciran, len bezain larmiuaz eder leunecoa, eta acatsic ere eguin gabe irteten icusi zutenean Gueróz ere urte batzuetan vici izan zan; eta atcenean Jesus-en beste Apostolu gucien ondoren, zartuta, beste gaitz gabe, eun urtecoa Efeso-n il zan, eta adisquidéac progu andiarequin lurpetu zuten.

Jesus-en languille andi oyec, bada, mundu gucira zabaldu zuten beren Maisu Jaincoagandic artutaco leguea; eta ala asieran, nola gueró infernu gucia jaiqui izan bada ere, osotoró quendu eta galdu nayez, Jaincoaren itzaren indarrac etsai guciac azpiratu izan ditu, eta sinismen osoan gaude, aurrera ere mundua mundu dan artean iraungo duela.

5. §.—*Jesus-en Ama guciz Santa-ren atceneco berriac.*

San Juan-en eriotzarequin mundutic ezcutatu ciran, Jesus-equin itzeguin, icasi eta ezagutu zutenac. Orain itzeguin bear degu, aspaldian aitatu ez dan Apostolu gucien Aman-dre, Jesus-en Ama, eta ceru-lurren Erreguina María guciz Santa-ren gañean.

Lenago esan da, Jesus cerura igo zanean, María guciz Santa Apostoluacquin batean Olivete-co menditic Jerusalem era itzuli zala, Espiritu-Santuaren etorreraren zai egotera. Jatsi zanean, bere Esposa-ri bezala, beguiratu cion, cegozquion doai ederguciacquin apaintcen zuela. Guertaera onen ondoren, María guciz Santa Jerusalem-en San Juan Apostoluaren echean vici izan zan. Cein vicitza ona eta Jaincozcoa eguin zuen, cer esan ez da. Ordu gaciac otoitz edo oracioan ceramazquien; Seme Jaincoarequin, larrean ibilli zan bitartean mingañez bezala, cerura joan ezqueró, biotzez itzeguiten zuela. Cristaüac beguiruneric andiena cioten Apostoluac, beren nequeen poza, jaquinquizunen arguia, eta eguinbearretaraco indarra Ama maitagarri onegan ceucaten. Semearen lecuan Ama andi oni gauza guciataraco beguiratcen cioten, eta oni esan gabe ecer ere eguiten etzuten. Amarrembat urte Jerusalem-en igaro cituen, eta Jesus-en etsáyac cristaien contra jaiquita: Apostoluac Jerusalem-dic irten bearrean arquitu ciranean María guciz Santa Seme-ordeco San Juan-ec Efeso-ra eramán zuen, eta aldi batean emen vici izan zan. Gueró, berriz ere, Jerusalem-era itzulita, Marcos-en ama María-ren echean vici izan zan, San Juan-ec beguietatic beñere utci gabe, eguin. al gucian laguntcen ciola.

Gueroenean María guciz Santac jaquin zuen noiz ilco zan. Jerusalem-go cristaiac gaztigatu cien, eta cetzan oichoaren ingurura bildu citzayozcan; atceneco itz gozoac aditu, eta munduan betico agur eguitera. Santo Tomas ez, beste Apostolu-guciac. orduraco munduan sacabanatuac baciran ere, bere guelan bat-batetan aurqueztu citzayozcan, berac baicic inore etcioquiela. Jesus-en beste icasle asco ere an arquitu ciran: eta Ama maitagarriac biotz-biotzetic guciai esan cien, Jesus-en leguea zabaltcen necatu citecela, eta berac bere Semearen ondotic lagunduco ciela. Jesus, ecin esan-ala Aingeru ederrequin inguratuta, aguertu citzayon eta anima zorion gucien gañean zorioneco hura cerura bere ondora eramán zuen. Atceneco asnasa eman bezain laster, cetzan guela miragarrizco arguiz bete zan, eta beguira cegozquionac aditu cituzten, ceruco Aingeru guciac beren

Erreguiñari cantatcen ciozcaten soñu gozoac. Bereala be-  
launicatu ciran, eta beguirune gueiarequin oñ santuetan  
muñ-eguiten cioten. negar-malcoz bustitcen ciozcatela.

Jerusalen-en eta ingurumai gucian barreatu zan, eta  
alde gucietatic icustera cijoazquion, eri, elbarri, eta gañoac  
artuta, eta iñor ere sendatzaca guelditu etzan. Guciac, be-  
ren devociozco gogoac aguintcen cien, eguindacoan, gor-  
putz-illa illoi eder batean ipiñita, Getsemani-co errira Apos-  
toluac sorbaldan eraman zuten, beste gueiac escuetan ar-  
guiacquin ondoren cerraizquiela. Gorputz-illa obi galant  
batean ezarrita, arlosa batequin estalizuten. Gueroco egun  
batzuetan Apostoluac ondotic quendu etcitzayozcan, eta  
ceruco Aingueruacquin chandaca progua eguiten cioten.  
Santo Tomàs beguira etzan Maria gucz Santa il zanean,  
ez obian ipiñi zutenean ere: eta berri au artu zuenean co-  
rrica joan zan, proguco egunac betetceraco. Escatu zuen,  
Jainco guizon eguiña bederateci illabetean sabelean iduqui  
zuen zorioneco gorputz hura iensten, arren, uzteco, Es-  
caera au ontzat artu cioten; obia idiqui zuten, eta arquitu  
ciran gorputz-illa gabe, il-janei edo meztidura utsacquin,  
ceñac ematen zuten usai gozoac inguru gucia lurrindu  
zuen. Ieusqueta onequin guciac arritu ciran, eta pensatu  
zuten; guizontceco Jaincoac autu izan zuen gorputz beñere  
loitu gabea, eriotzac dacarren usteltasunac ere uquitutzaca  
garbi-garbi gorde nai izan zuela, eta anima eta gorputza,  
bat-eguinda, bere Ama maitagarria ilda irugarren egu-  
nean Ceruco gloriara bere ondora eraman zuela. Au sinis-  
tu eta aitorturic, gure Eliz-Ama-Santac aboztuaren ama-  
bostgarren egunean eguiten du Jaincoaren Ama cerura  
igo izan zaneco Eliz-pesta edo Asumpcioa. Itce au noiz  
edo cein urtetan guertatu zan, ez daquigu; baña, bai, San  
Pedro eta beste Apostolu batzuec oraindic vici cirala; bada  
arestian aiatu dan guisan, beguira arquitu ciran. Gucioe,  
bada, poztu gaitecen, becatarien Ama au Seme Jaincoaren  
ondoan gure Bitarteco nagusi dancagulaco, ceñaren erre-  
guz betico zoriona iritsi dezagun.

Amandre andi onen eta Apostoluen gañeraco berri gu-  
ciac ematea, luzaroco lana litzaque, eta nere sallari atcena

ematera noa Israel-darren edo Juduen Erri doacabearen ondamen negargarriarequin.

### AMAZAZPIGARREN IRACURGAYA.

#### 1. §.—*Juduen Izaera.*

Jesu-Cristo gure Jaunac Juduai ascotan esan izan cien Jerusalem eta Israel gücia cein patu negargarriaren beguira ceuden, bere garayean Eguia sinistu eta Arguia icusi nai etzutelaco; eta Jesus-en aldeurrezco esanac beletceco ordua bacetorren. Ogueita amar urte eta gueyago ceramazquiten, beren belarriacquin aditu izan ciotenetic; baña Jaunaren aserrea obra onacquin itzali, eta aren ezpata zorrotza penitencia eguiazcoarequin atceratu bearrean, eguetic egunera gaiztoagotutcen ciran. Mesias eguiazcoa illarequin utseguiteric izugarrienean bein erori ezqueró, adimentua illundu, eta vorondatea oquertu citzayen. Ez beren erlegioco lanetan, ez munduco gobernuari cegozquionetan gauza zucenic eguiten zuten. Onela vici cirala, Jaincoaren cigorrada urreratcen citzayelaco aztarna eta zanzua Erromatic cijoazquien Eraentzalleetan cecusten. Oyec, cein baño cein gogorrangoac, sortcen citzayezten. Cuspidió Fado Tiberio Alejandro, eta Ventidio Cumanio, Poncio Pilato-ren ondorengoac, bidegabeco escaera eta ondasun-gose ecin asearequin ondacten cituzten, eta ernegatceco zorian jarri ciran. Onezaz gañera Caligula Emperadorea ere leyatu citzayen, bere irudi bat Jerusalem-go Elizan ipiñi, eta jaincotzat adoratatu cezaten. Ieusiric cer ecin-vician arquitecen ciran, eta cer gogortasunarequin aguintcen cieten. berac ere gogor eguiten asi ciran. Judúac Jesus-equico lanetan bezain elcar, beste gauzaetan artu izan balute, esango zan, berenarequin irten citezqueala; baña zorigaitz gueyagoraco, gai ascotan bat etcetocen; eta alceneraco campoe-tara irten, eta norbere erara, leguearen beguiramen gabe, eta iñoren aguinte gabe, gogoác ciona eguñaz vicitcen ciran. Erromarretatic ez-bearren bat cetorquienean, asten baciran arpegui ematen, beren buruac galdu, eta bazter

guciac Juduen odolez gorritcen cituzten, zala Erroma-rren ezpátac isurita, zala elcarrequin aserretcen ciralaco. Baña negarbide oyec guciac guerocon asiera chiqui bat baicic etciran; bada bete-beteen erori bear citzayen, Jaincoaren Semearen odola escatu zutenean, beren buruai egotcitaeo biraña; eta guerocon oyen berriac asi ciran aguertcen.

2. §.—*Ondamenaren adiragarriac.*

Jesu-Cristo-ren jayotzatic irurogueita bost garren urteco apirillaren zortcian, Pazcoa eguiten zan egunean, Jerusalem-go Eliza egunez bezain argui gaterdian jarri zan. Eguzquiaren sortaldeco atea izanic, ogei guizonec doi-doi muguitcen zuten broncezco chit pisua, eta morrollo sendo, eta burnizco balança alboetan ondo sartuacquin ichia, berez idiqui zan. Andic berrogueita gueyago egunera, mayatzaren ogeita batean, Jerusalem-en eta ingurumai gucien gañean suzco ezpátac, gurdiac, eta armadúnac ciruditen asco aguertu ciran. Ondorengo Pazcoa-Espiritu-Santuco egunean Juduen apaizac Elizan sartuta, iñor ere barrunen etzala, aditu zuten ots andi bat, esaten zuena; *emendic irten gaitecen, emendic irten gaitecen.*

Arrigarrizco guertaera oyec pensaquizun andia ematen cieten; baña are gueyago izutu eta icaratcen cituen Ananoren Seme-Jesus ceritzan guizon arrotz batec, ceña Tabernaculoen pesta eguitera joanda, asi citzayen esaten: ¡Ay Eliza, Eliza; sortaldeco otsa, sortaldeco otsa: lau aldeetaco otsa; Ay Eliza, Ay Jerusalem! Jesu-Cristo-ren irurogueita bigarrenean asita, lau urtean jardun zuen Jerusalem-go carricaz-carrica, itz oyec bacarrac esaten, egunez eta ganez isiltzaca. Belico ots oyecquin Cargudunai gogaitutcen cien, castigatcen zuten, isillic egon cedin; baña alperric. Lucinio Eraentzalleagana eramanda, onec azotez ceerazo zuen, ezurrac aguertceraño; baña batere esparic agertcen etzuen, eta colpe bacoitzean cion; ¡Ay Jerusalem zorigaitzocoa! Galdetu cion, nongoa zan, edo nondic cettorren, eta ots ayecquin cer esan nai-zuen, eta itzic erantzuten etcion, eta beti bere soñuan ciardun. Noizbait asper-

tuta, erotzat utci zuten, eta bacebillen, inõrequin itzeguin gabe; ez gaitz-eguiten ciotenegatic quejatcen zan; ez on eguiten ciotenai esquerrac ematen ciezten. Bitartean Erromar-rrac icusirie, Juduac etcietela nai luquetean bezain sotill-tasun andia eracusten, ayen mendean vicitceco, eta lenagoco urteetan elcarrequin izandaco autsi-osoacgatic, artu zuten, osotoró escuetaratceco asmoa. Soldadu-talde andiac bialduta, Jerusalem inguratu zuten. Gauzac onela ceudela, Anano-c bere otsacquin baciardon. Gueroenean deadar andiagoc eguiteari eman citzayon, esanaz; ¡Zorigaiztoco Eliza, Zori gaiztoco Jerusalem, zorigaiztoco Erria! Atcenean otseguinzuen ¡Ay nere zorigaiztoco! eta itz oyec esatearequin batean, Erroma-rrac campolic botataco arri andi batec azpian artuta, plastatu edo zapaldu zuen, eta lau urtean osca ibillita gueró il zan.

Ez Anano-ren otsac, ez aireco suzco guizon eta beste adiragarriac izan ciran, Juduac beren ondamen-bidetic ateratceco adiña. Oraingoan Erroma-rrac quicoa cerbait eguin zuten, eta garaipen onequin are gueyago arrotu ciran, eta guciac menderatceco ustea artu zuten. Agripa Erreguea bitarteco sartu citzayen, Erroma-rracquin Juduen arteco paqueac eguin nabez: baña iguesi bialdu zuten. Gueró Masada-co gazteluan indarrez sartuta, contu-artcen cioten soldadu Erroma-r guciac il cituzten. Eleazar, Apaiz-nagusia-ren semeac dembora berean debecatu zuen, Emperadorea-gatic len eguiten ciran ofrendac berriz eguita; eta lambide onec cecarzquien ondoreac ezagutcen cituztenac, leyatu bacitzayozcan ere, Eleazar lan artatic ateratceco, aditeen etcitzayen. Batzuec eta besteac despítatu ciran; gueroenean Eleazar-en aldecoac gueyago cezaqueten: Jerusalem-go er-goenaz, eta Antonia-ren gazteluaz jabe eguin ciran. Urian arquitcen ciran Erroma-rrac dorre batzuelan sartu bearra izan zuten; baña egun guichiren barruan cer-jana aitu citzayelaco, menderatu ciran, gaitzie ez eguiteco itzean, Juduac laster autsi bazuten ere; bada escuratuta bereala il cituzten. Bidegabequeria an Cesarea-co Erroma-rrac aditu zutenean, asaldatu ciran, eta oqueita gueyago milla Judu il, eta vicirie utcitaco banacac ere itsaz-ertzetara bialdu cituzten.



3. §—*Juduacquin Siria-rren arteco despita, eta ayen galmena.*

Judúac eta Siria-rrac elcarrequin chit oquer lenagotic cebiltzan; eta orain Cesarea-n eguindaco ilquintza izu-garria icusi zutenean, Juduac Siria-co bazter gucietan zabaldu ciran, erriac eta echeac erre, eta arrapateen cituzten personae illaz. Siria-rrac ere prestatu ciran gogor eguiteco Juduetan baciran lambide oyec ontzat artcen etcituztenac, eta Siria-rrai gendetza andia batu eitzayen, legue gabe cebiltzan guizon-odolzale-en mendetic igueseguiteagatic. Siria-rrac, zala iguitcen cituztelaco, zala oyen itzetan sinismen osoric etzutelaco, lagun berri oyec mendi-baso batera bialdu cituzten, eta dembora asco baño lenago amairu milla Judu emen il cituzten. Oyetatic bat Simon ceritzana, eta Siria-ra joateco gueyena necatu ciranetacoac, icusirie bere lagúnac errequi onetan iltcen, ernegatcen jarrita, esan zuen: Nic eriotza ondo irabacia det; baña ni neroni dagoquit artcea. Gueró bere echecoai beguira jarrita, aitari lenengo ille zurietic itsatsi cion, eta ezpataz josi zuen. Urrena amari au bera eguin cion. Gueró bere emazte eta humeac il cituen; eta atcenean, oraindic odola cerion ezpatarequin, besoa goratuta, bere burua josi zuen, eta il zan. Guisa onetan Siria-n ilcen ciran bitartean, Egipto-n ere bazter guciac odoletan ceuden. Alejandria-n bertan aimbeste Judu il cituzten, ecen, berrogueita amar milla gorputzill pilla batean arquite ciran.

Bitarte onetan Juduac Siria-co Eraentzalle Cestio Gallorequin Jerusalem-en equin-aldi latz bat izanda, iguesi bialdu zuten: cerbait gende galdu, eta calte asco eguin cioten Orduan Judúac arroturic, Jerusalem-go pareta edo murruc arabatu eta sendotu cituzten; Judea-co gazteri guciari armac bialdu ciozcaten, eta prestatu ciran, Erroma-rrai, il edo vici, arpegui emateco. Jerusalem-en vici ciran Cristauac, Jerusalem-gatic Jesus-en aurrez-esanac gogoan ceuzcabela, Pellá ceritzan erricho batera joan, eta vicitzez jarri ciran.

4. §.—*Vespasiano-ren joanera Jerusalem-aldera.*

Erroma-co Emperadore Neron-ec jaquin zuenean Cestio-c Jerusalem-en izandaco ez-bearra edo desgracia, eta Juduac cein arro jarri ciran, Cestio-ren lecuraco Vespasiano bialdu zuen. Guerrari aditu eta argui onec iruroguei milla guizonequin Galilea gucia, Jotapata-co erria ez bestea, bereala menderatu zuen. Eon milla Judu Josefo buru zutela, Jotapata-n sartu ciran, gogor eguiteco asmoan; baña berroguei egunean ichian iduñquita, Vespasiano-c artu zuen: bitartean erdiac eta gueyago barrunen il ciran. Gañeracoac arzulo batzuetan gordeta, atcenean elcar il zuten. Josefo, Vespasianoren prestutasunaren berria izanda, aurqueztu citzayon, eta vicirie guelditu zan. Jotapata artu-ondoren, ibilli batzuec eguin cituen, gende gucia bere mendera ecartceco, eta Jerusalem-i equin baño lenago. etsai guciac garbitceco. Lan oyetan cebillela, Erroma-co gora beerac-gatic, aurreracoari utci bearrean arqutu zan.

Neron Emperadore arri guciac baño biotz gogorragoco hura bere lasaiqueria eta beste biurriqueriacquin gucien beguitan jarri zan: eta aguintea eta vicia quentcera cijoazquiola iguerri cionean, Jesus-en irurogueita zortcigarren urteco garagarrillaren bederatcian, ganibita bat equin bere lepoa ebaquita, ogueita, amabi urtecoa il zan. Onen ondoren aguintea escutic escura luzaró ibillita, atcenean Vespasiano, Judea-co guerran cebillena, Emperadore eguin zuten. Bereala Erromara etorri zan, aguintea artcera, eta bere lecuan eta ordez utci zuen, lendanaz an cebillen guerrari Tito bere semea.

5. §.—*Jerusalem Tito-c setiatua.*

Oyec onela, eta Jerusalem-go Judúac gauza ascotan [bat etcetocelaco, eta guciac aguindu nai zutelaco, elcar ilcen cebilzan, eta izaerarie mingarrienean arquitcen ciran, Jesus-ea irurogueita amargarren urteco udaberrian Tito-c setiatu zuene an. Pazcoaco egunac ciran, eta pesta au egui-

tera, ain gendetza andia, bilduric, jaquitsuac diotenez, millatan milla, edo milloi bat eta bosteun milla lagun barrunen baciran, cembate onetan Moises-en legueaz campoco, eta aurrac sartu gabe.

Aimbeste genderequin batetic, eta elcarren arteco egunoroco despitaquin bestetic, iguerri dioquegu, erri ichi bat nola arquituco zan. Ala-ere gucien etsaitzat ceuzcaten Erroma-rrai gogor eguiteco bat-eguiten ciran. Judea eta alderdi ayetaco gende guciac osotoró sinistuta ceuden, mundu gucia menderatuco zuen guizon bat demberaz ayetatic sortuco zala; eta itsumen onequin andi eta chiquiac, zar eta gazteac, guizon eta emacumeac prest ceuden, atceneco odol-tantaraño isurtceco. Uria alde gucietatic ondo irmotua zan; guizonaren escúac gueyago ecin cioquean eguin, iru pareta sendo edo murru lodirequin ichia zan; unetic unera dorre chit goratuac ceuzcan. Eliza bera ere mendi-gañ batean cegoan, gaztelu baten antzean, eta, onen gordelari bezala, Antonia-ren gaztelua. Onezaz gañera lurpeco bide asco cituen, isillic irteteco eta sartceco; nondic etsayetara itsumustuan noiz-nai joan citezquean. Oyec guciac ondo pensatuac eta eguiñac ciran; baña aimbeste gendec barrungo jánac laster ezcutatu clluzten, eta gosetea bereala asi zan.

Apirillaren amalaüean, ceña Pazcoa eguna zan, Eleazar eliz-barruan cegoanac, ateac idiqui cituen, eta Giscala, elizataria gordetcen zuena, Eleazar-equin bat-etcetorrelaco bere gendearequin bat-batetan sartuta, Eleazar-en gende gueyena ondatu zuen, eta len atariaz bezala, gueró barrunez jabe eguin zan. Beren arteco despita oyen berriac artu cituenean, nosqui, Tito seienn zaldizcorequin urreratu zan Uria icustera: baña guichigatic galdu etzuten, eta nequez bederic, igueseguin cien.

Andic amabost egunera, mayatzaren iruan, lenengo pareta zulatuta; Erroma-rrac sartu ciran, eta Uriaren ifarrralde Cedron-go Ibarrerañoco gucia menderatu zuten. Bost egunen buruan bigarren paretari eraso cioten, eta gende ascoren truque bederic, artu zuten. Emen gendeari cerbait atsedem ematen Tito jarri zan; eta gende galtee

gueyago ez icusteagatic, barrungoac ere aspertuta egongo ciralacoan, bialdu cien beren erritar Josefo, Jotapata-tie viciric irtenda, Vespasiano-ri aurqueztu citzayona, ondo esanez umillatcen ote cituen, icustera; baña alperric: garaipe-narequin irten, eta mundu guciaren jabe eguiteco, profeta guezurti batzuec ematen ciezteen ustéac, Josefo-ren esá-nac baño, indar gueyago zuten, eta Josefo ondo-esalea ecer eguin gabe itzuli zan, Ez goséac ez suác ez Uriaren zati andi bat etsayaren mendean egoteac beren uste zoro-tic ateratcen cituen.

6. §.—*Jerusalen-go gosetea.*

Tito-c icusiric, onez-onean ecer eguiteric etcegoala, aguindu zuen, iru egunen barruan Uri gucia pareta sendo batequin inguratceco. Bi legua-luceco pareta escatcen zuen ala-ere ordu esaneraco eguin zan, or-emen gazteluchoac cituela: eta ichitu berri onequin jan-gauzac barrunera sart-cea eragotci zuten.

Goseteac lenengo egunetic calte andiac eguiten cituen; baña atceneco lambide onequin lenagocoen azcarria sartu zan. Gari eta beste jan-gauzaric aspaldian etzan saltcen: cerbait ceucanac isillic gorde bearra zuen; bestela gogor-rago bat echean sartuta, quenduco cion. Bat bacecusten guicenchoa edo arpegui betecoa, edo colore onecoa, be-reala eraso, eta arrapatu gucia quentcen cioten, iltcen ez-bazuten ere. Ate bat ichita icustea asco zan, cerbait jateco bacegoala, pensatceco; puscatcen zulen, eta echecoac bear-tcen cituzten, dana aguertcera. Emacuméac illeetatic arras-taca, eta aurac osticopean cerabiltzquiten, ogui-cerra bat ateraeraguiteagatic. Urico aberatsenac beren lurrac gari-bicor batzuecgatic saltcen cituzten: gueró echean ezcutuan oguia eguinda, edo gal-ale gordiña jateco, Edocein apuco-gatic echeetan sartu, personac il, eta cegoana berequin ce-ramaten. Oquellura joanda, cimaurric liquitsenac, ubal-pusca zarrac, belar ustelduac jaten cituzten. Aide maitee-nac, adisquide cutunenac elcarri erasotcen cioten, cerja-nen bat zuela iguerri ezqueró. Iñori ere bareateen etcitza-

yon, amorratcen cerabilzquien gosea cerbait quentcearren. Baña cembateraño gosea sartu zan, jaquiteco, María é-ritzan emacume batec eguiña aditcea asco da. Emacume au eche oneco alaba, eta guriró acia zan. Bere zorigaiztoan, beste asco bezala, Pazcoa eguitera, Jerusalem-en sartu, zan, eta ceraman guci-gucia bereala quendu cioten. Miñaren miñez ascoac esai ciezten, aserrerazota, il cezaten: eta icusiric, ala-ere iltcen etzutela, bularreco bere aurra escuetan artuta, esan cion: Zorigaiztoco aurra ¿certaco zaituz? ¿ez izan izugarri oyetan izateco? ¿goseác iltceco edo etsairic gogorrenen escuetan jartceco?. Au esanda, lepoa ebaqui cion, eta burruncian erreta, erdia jan zuen, eta gañeracoa berrizco gorde zuen. Bestéac aragui-errearen usaya artu zuten; echean sartu citzayozcan, eta ezpata bularrean ipiñi cioten, ceucana eman citzayen. Nic zati bat gorde ditutet, esan cien, eta aur-erdi-jana aurrera ecarri zuen. Au icusi zutenean, aldeguin nai ciotelaco, esan cien: Jan dezaquezute, bai; bada, ez emacume bat baño beguiratuagoac, ez ama bat baño biguñagoac izango cerate. Arri-eguiñic igueseguin zuten. Guertaera izugarri ez-aditu au Uri gucian barratu zan, eta barrungoac, ez ecen, campocoac ere icaratu ciran. Onela bete ciran, Jesus-ec esandaco itz oyec: *Etorrico da eguna, zorionecotzat artuco dana aurrric izan ez duen emamcumea, eta ezneric eman gabeco bularra.*

7. §.—*Jerusalen-go izurritea.*

Goseteari izurritea lagun etorri citzayon: biac egunoró ceramazquitenac aimbeste ciran, non, echeac eta carricac gorputz-illez beteac ceuden, quiratsa ceriela. Gendéac carrica eta plazaetan, arrasaca bezala, cebilzan, eta bat-batetan illotzac erortcen ciran. Gorputz-illac asieran Gobernuaren contura Uritic ateratcen cituzten: ate bacar batetic bi illabete eta erdian ateratuac eunda amabost millataraño igo ciran, barrundic campora igues-eguindaco, illoizale eta zuloguilleai pagatceco contua zuen batec Tito berari esan cionez. Beste batzúec cioten, ate gucietatic ateratuac seienn milla bacirala. Gueroenean, onela ere ecin burutu

zutelaco, Urico pareta-gañetatic campora bota, edo eche-utsetan montoyac eguin, eta chit betelcen ciranean, ateac isten cituzten. Tito ere nazcatcen zan, bazter gucietara cijoan quirats eta usai ciquiñarequin; eta biotza erdiraturic, esaten zuen, Jaincoac baciequiela, ez-bear eta negarbide guciac Uri doacabe argandic cetocela.

Jerusalen-dar batzuec gosetea sortu zanean, asi ciran campora irtenda, belarrac biltcen, gosea cerbait elicateco. Tito oartu zanean, zaldizcoac bialduta, atsitcen cituztenac, gurutziltzatcen cituzten, iseca eta farragarri asco, bérac Jesusequin eguin izan zuten guisan, ēguinda: eta baciran egúnac, bosteun onela iltcen ciranac; barrungoac ezagüer- ran sartu citecen. Beste asco, berriz, escuac, sudurrac, eta belarriac quenduta, barrunera itzultcen cituzten: baña lambide eta castigu [oyecquin Judúac biguntcen etciran, menderatcera. Erroma-rrac lenago erruquitu ciran, eta barrundic iguesi cijoazquienac, artcen asi ciran; eta etorri- orduco, jaten ematen cieten; baña barrún otzarequin eta chit eroriac cetocelaco, janác berac bota eta illic uzten ci- tuen, Igueslari ayetatic ascoc, Erroma-rretan aurqueztuta- coan, ceramaten dirua quentceco bildurrez, jan, eta gueró sabeletic cijoaquiena zandu eta aratuta, dirua arquitcen zuten. Campoco soldadúac oartu ciran, Judúac cer egui- ten zuten; bereala barreatu zan, Jerusalendic igueseguina- dacoac sabelac urrez beteac ceuzcatela, eta dirugose one- quin. batez-ere Arabia, eta Siria-rrac; iguēsi cijoan bat icusi orduco, sabela idiquitcen cioten; eta gau bat bacar- rean bi milla onela il cituzten. Tito-c jaquin zuenean be- reala, zorrotz debecatu zuen, berriz alacoric eguitea; ala- ere, isillic bederic, cembait galdu cituzten.

8. §.—*Jerusalen Tito-c artua, eta Elizaren erretcea.*

Gueroenean Tito prestatu zan, Jerusalem-en indarrez sartceco. Equinaldi latzac eguin cituzten, eta noizbat, gen- de asco bat eta hestecoa galduta, Urian sartu ciran. Orain- dic ere Juduai Eliza eta Eliz-inguruco bazter andiac guel- ditcen sitzayezten: Eliza bi pareta edo murru lodirequin

inguratua zan, Antonia-ren gaztelua babes zuela: baña azoraturic cebiltzan, beren legueac aguindutaco sacrificio anciña-anciñatic beñere utci gabe, eguiten cetocena, eci-nean ceudelaco; bada uztaillaren amarrean apaiz eta beste sacrificatzalle gabe arquitu ciran. Lambide onetan cecusten, Profetac esana bete-betean erori citzayela, ala-ere ayen beguiac zabaltcen etciran; eta uste zuten, Elizaren sendoa, inguruetaco pareta lodiaco, eta gaztelu<sup>7</sup>nai bezala [eguindaco] asco cirala, etsayen eraso guciai arpegui emateco.

Juduai Apaizic ez isanac ematen cien azoramena gogoan zutela, Erroma-rrac erasotcera jarri ciran. Lenengo pareta-aldiaco odol ascoren truque artu<sup>7</sup> cituzten, eta su eman ere bai. Bigarren endanacoac arteco asmoan, escalleracquin igo ciran; baña Juduac gogor eguinda, atceratu cituzten. Orduan Tito-c bigarren endanaco atei aboztuaren zortecian su-eman cien, eta garrac Eliz-atarira sartuta, eliz-ingurucó baranda edo galeriai iracequi citzayen, eta egun eta arrats osoan erretcen egon ciran, Tito-ren eresi gucia Eliza erretzaca gordetcecoa zan, eta suac cirañen bitartean, soldaduc itzaltcen aritu cituen, barrunera zabaldu etcedin, guero indarrez sartceco asmoan. Biaramonean lambide onetan asi ciran; baña Juduac secular baño bizcorrago eta gogorrago aguertu citzayezten, eta atceratu bearrean arquitu ciran. Orduan soldadu batec, bere lagunen besoburuan jarrita, illeti bat leyotic barrunera sartu zuen, eta eliz-barru gucia bat-batetan su eta gar jarri zan, eta alde gucietic bacicecan, Gentillac berac ere arritu, eta lurrez gañeco gauza zala aitortceraño. Tito eguin-al gucian berez eta bestez bacebillen itzaltcen; baña cembat soldaduc eguiten etzuten, suaria lagundu, errequiñac eman; eta naspilla gueyago ipiñi<sup>7</sup> bacic. Cecusten, Elizaren paretac campoco aldetic urrez estaliac ceudela, eta uste izan zuten, barrunen ere ondasun andiac izango cirala: beragatic, alde batean itzaltcen bazan, bestean sortcen zan. Gueroenean Tito-ren eguin-al guciacgatic Eliza gogoangarri, bere parecoric munduan izan ez duena, erre eta quiscaldu zan Jesu-Cristo-ren irurogueita, amargarren urteco aboztuaren amarrean, Salomon-ec eguindaco lenen-

goa Nabucodonosor-ec errea izan zan egun bere-berean. Soldadu garailariac aserre vician sartu ciran, eta iñor ere viciric utci etzuten, eta bazter guciac gorputz-illez beteac icusten ciran: baña beste zorigaiztoco ascoren artean beguitangoenac ciran profeta guezurtien esánac sinistuta, garaituco zutelacoan Uritic Elizara igotaco sei milla guizon, emacume eta aur, ceñac an bertan il cituzten, eta Eliza gucia pleplei aldarearen berdineraño gorputz-illez bete zuten. Gende setatsu aren buru eguiten zuten Juan de Giscala, eta Simon de Giora-c, ezpàtac escuan cituztela, gende-artetic bidea eguinda, Sion-go mēdira edo Jerusalem-en lecuric goenenera igo ciran, eta emen, oraindic ere gogor eguiteco asmoa artu zuten. Tito-c vicia esqueñi cien, bereala menderatcen bacitzayozcan; baña nai izan etzuten, beren emazte eta humeacquin baso-mortura joateco itzean baicic. Tito-c etcien escaera au ontzat artu. Aserretu zan; bet-erria edo Jerusalemgo zatiric beeneneco guciari su eman cion; bereala auts eguin zan: eta er-goena ere indarrez artceco, aboztuaren ogueitic, agorraren zazpiraño, bear ciran prestamenac eguin cituen. Egun onetan eraso ciou, eta biaramonean sartu ciran. Judúac etsi zutenean, galduac cirala, batzuec lurpe eta carcabaetan edo cimaurteguietan gorde ciran; eta bestéac Erroma-rren escuetan vicia galdu zuten; bada, etzan iñor ere viciric guelditu, eta gauza guciac, sartuta bereala, ondatu cituzten. Eguzquiaren sartaldeco murru eta iru dorre bacarrac beren oñean guelditu ciran, ondorean oroitgarri izan citecen, Gueró Judúac ondasunac lurpean gordeac izango cituztelacoan, Tito-c Jerusalem-go oru edo lur gucia goldez eguin eta aretu zuen; eta lambide onequin bete-betean eguiztatu zan, arria arriaren gañean Jerusalem-i utcico etcitzayola. Jesu-Cristo-c esana. An ondatu ciran ondasunac, neurriric etzuten; ala-ere topatu zana ain asco eta uguri izan zan, non, alderdi ayetan urrearen balioa erdira jatsi zan. Lurpe eta carcabaetan, sartu ciranetic bi milla persóna goseac edo elcar ilda, arquitec cituzten. Giscala eta Giora, aimbeste ondamen eguiteco bideac eman cituztenac, cer-jana aitu citzayenean, Erroma-rren escuetan jarri ciran. Lenengoa ichi batean



betico sartu zuten. Bigarrenac egun asco baño lenago bere gaiztaqueric urcamendian nocitu cituen.

9. §.—*Jerusalen-en artu-ondoreac.*

Ecín esan diteque guerra galgarri onetan cembat Judu il ciran. Beraren berriac utci cizquigun Josefo-c dio. Jerusalemgo setioac iraun zuen bitartean, milloi bat eta eun milla illac izan cirala; eta oyei batutcen bazayezte Judea-co beste errietan dembora onetan il ciranac, milloi bat irureunda ogueita ariazazpi millara igotcen cirala, cembate onetan ez-jaquin asco sartu gabe. Eun milla atceman edo prisionero ere artu cituzten, ceñac salmentan ipiñi arren, ozta erosleac izan cituzten, iñorc ere ecertan etceuzcalaco.

Ain ots andico garaipen onen ondoren auzoetaco gendeac Tito-ri aurqueztu citzayozcan, oitura zuten bezala, coroac esqueñtcera, aimbeste etsai menderatceco zoriona izán zuelaco; baña artu nai izan etciezten, esanaz, Jaincoac autu bat baicic izan etzala, erri doacabe bere Jaincoaren iltzalleari cegoquion cigorrada emateco.

Tito-c, Jerusalem ondatuari contu-artcen soldadu batzuec utcita, urreneco negua Cesarea-n igaro zuen. Gueró Erromara etorri zan, non bere aita Vespasiano-c garailari andi bati cegoquion onguietorriarequin artu zuen. Titoren lecuán Lucilio Baso joan zan, Judea-co condar guciacqui-coa eguitera, ceñac Herodion eta Maquerunte-co gaztelúac menderatu cituen. Baso ilda, Publio Silva-c ordaindu zuen. Masada-co gaztelu, ecín artu citequealacolzat ceucatenari eraso cion: eta barrungoac etsi zutenean, ayenac eguin zuela, eta luzaroago ecín gorde citezqueala, erabaqui zuten, aurrena emacumeac eta aurrac iltceco: eta guizonac, berriz, alcena cein gueratuco zan choch-eguindaelcar il zuten: eta atcenecoac, guciai, ilda ote ceuden, beguiratuta berá norc illic etzuela, cecusanean, gazteluar, su eman cion, eta bere burua ganibitaz il zuen. Biaramon goizean Erroma-rrac sartu ciran: baña gorputz-ill-montoyac baicic arquitu etzuten; eta Judea gucico jaun eta ja-

be onequin guelditu ciran. Emperadorearen aguinguz Juduen lur guciac saldu eta emanac izan ciran. Guerra galgarri au sortu, eta su-eman izan cioten buru-aurqui batzuec Egipto-ronz igueseguinda, Alejandria-n eta beste toquietan beren erritarrac aztoratu eta asaldatu nayerz ibilli ciran; baña laster galdu cituzten, eta Judea-n ezcutuan gordetaco guichi batzuec baicie, viciric guelditu etciran, Oyen ondorengoac gueroztic, or-emen sacabanatuac, vici dira, iñon ere erriric eguin gabe, arrotzac eta er-bestecoac bezala.

Orra Jacob-en jatorrico Israel-dar, beren Jaincoa aimbeste mirari eguiten icusi, eta bere escu-oparoetatic ain mesede andiac artu izan cituzten esquer-gaiztoco ayen patu zorigaiztocola, ain luzaró ichedoten zuten, eta arguiró eracutsi citzayen Mesias eguiaczoa ezagutu nai ez, eta gurtziltzatuta il zutelaco. Orra Jerusalem ospatsu, bere Jaunaren odolez gorritutacoaren atcen doacabea. Orra pare-ric gabeco Eliza gogoangarri, ain ondasun andiac bere errayetan ceuzcana, eta mundu gucia arritcen zuenaren ondamen negargarria. Au gucia Jaunaren Profetac anciña-anciñatic adierazoa zan. Orain guertatu gucia Jesus-ec Juduai berai aldeaurrez esana zan: eta Jaincoac gauzac zucendu cituen, bere esanac eguizlatceco eran, mundu guciac ezagutu cezan, Jesu-Cristo Belen-en jayoa, Nazaret-en acia, Judea-n eracusten ibillia, Jerusalem-en gurutcean illa, irugarren egunean Viztua, eta berroqueigarrenean Cerura igoa, dala Mesias esqueña. Patriarca-c opatua; Profeta-c adierazoa, Jainco eguiaczoa, ceñaren leguea dan Ceruraco bide bacarra, eta gucioc ibilli bear guerana.

### TESTAMENTU BERRICO CONDAIRAREN ATCENA.

LIBURU ONETAN IPIÑI DIRAN BERRIEN ARQUI-BIDEA,

TESTAMENTU ZARRECO CONDAIRA.

Itzaurrea.

**LENENGO IRACURGAYA.**

1. §.—Munduaren eguitea . . . . . 5
2. Adan lenengo guizona lurreco Paradisuan ipiñia 6
3. Adan-en eroricoa. . . . . 7
4. Adan-en castigna. . . . . 9
5. Abel-en eriotza. . . . . 10

**BIGARREN IRACURGAYA.**

1. Noe-ren cucha edo ontzia. . . . . 13
2. Noe-ren mastia. . . . . 15
3. Babel-co Dorrea. . . . . 16

**IRUGARREN IRACURGAYA.**

1. Abran-en deya. . . . . 17
2. Abran, eta Lot-en banacatzea. . . . . 19
3. Lot catibu erori, eta Abran-ec libratcen du. . 20
4. Agar-equin Abran-en ezcontza. . . . . 21
5. Circuncisioa. . . . . 23
6. Sodoma eta beste Urien ondamena. . . . . 25
7. Lot-en emaztea gatz biurtua. Lot-en becatua. 27

**LAUGARREN IRACURGAYA.**

1. Isaac en jayotza. . . . . 29
2. Agar eta Ismael-en basora joatea. . . . . 29
3. Abraham-en esqueñtza edo sacrificioa. . . 30

4. §.—Sara-ren eriotza. . . . .	32
5. Isaac-en ezcontza. . . . .	33
6. Esau eta Jacob-en jayotza. Abraham-en eriotza.	35

### BOSTGARREN IRACURGAYA.

1. Esau-c Jacob-i lenen-izatea saltcen dio. . . . .	37
2. Isaac-ec Jacob bedeincatcen du . . . . .	39
3. Jacob-en zurubia edo escallera. . . . .	41
4. Jacob-en joanera Haran-era. . . . .	43
5. Jacob-en ezcontza. . . . .	44
6. Mesopotamia-tic Jacob-en iguesa. . . . .	47
7. Aingueruarequin Jacob-en burruca. . . . .	50
8. Jacob eta Esau-ren elcar icustea. . . . .	50
9. Dina-ren guertaera . . . . .	52
10. Raquel-en iltcea. . . . .	54

### SEIGARREN IRACURGAYA.

1. José, . . . . .	55
2. José-ren salera. . . . .	56
3. Tamar-equin Judas-en becatua. . . . .	58
4. José Egipto-n. . . . .	60
5. José-ren igotcea . . . . .	62
6. José-ren anayaen joanera Egipto-ra. . . . .	63
7. Bigarren joanera. . . . .	65
8. Jacob-en jaisquera Egipto-ra. . . . .	69
9. Jacob-en iltcea, . . . . .	70
10. José-ren iltcea. . . . .	72

### ZAZPIPARREN IRACURGAYA.

1. Egipto-co catibutasuna. . . . .	73
2. Moises-en jayotza. . . . .	74
3. Moises-ec Faraon-en echetic igues-eguiten du. . . . .	74
4. Moises-i Jaincoaren aguerquera. . . . .	75
5. Egipto-co amar zauriac. . . . .	78

### ZORTZIGARREN IRACURGAYA.

1. Egipto-co catibutasunetic Israel-tarren irteera.	83
---	----

2. §.—Ichaso gorria. . . . .	84
3. Baso-mortuco sarrera. . . . .	84
4. Maná . . . . .	85
5. §.—Horeb-co arcaitza . . . . .	86
6. Amalec-tarren guerra. . . . .	86
7. Sinai-co mendia. . . . .	87
8. Jauna-ren gloria, eta bere leguearen arlosac. . . . .	89
9. Urrezco chala. . . . .	90

### BEDERATCIGARREN IRACURGAYA.

1. Lenengo Tabernaculoa. . . . .	92
2. Bigarren Tabernaculoa. . . . .	93
3. Ataria . . . . .	94
4. Apaizac. . . . .	95
5. Nadab eta Abiud illac. . . . .	96
6. Sina-co mendi ondotic irteera. . . . .	97
7. Sanedrin-en ipiñera. . . . .	99
8. Aaron eta Maria-ren espac, edo quejurac. . . . .	99
9. Canaan-go berri-ecartzalleac. . . . .	101

### AMARGARREN IRACURGAYA.

1. Jaincoac Israel ondatu nai, eta Moises-ec atcera- lacen du. . . . .	103
2. Jayeco languillearen castigua. . . . .	105
3. Coré, Datan, Abiron, eta lagunen ondamera. . . . .	107
4. Aaron-en cigorra. . . . .	108
5. Israel-tarren Canaan-ondora itzultzea. Maria- ren eriotza. . . . .	109
6. Aaron-en Eriotza. . . . .	110
7. Arad-co Erreguea, eta bere ondomena. . . . .	111
8. Suguezcó castigua . . . . .	112

### AMAICAGARREN IRACURGAYA.

1. Balaan Profeta. . . . .	113
2. Balaan-en astoa . . . . .	114
3. Balaan-en eracutsi gaiztoa. . . . .	115

4. §.—Gaiztaqueria onen castigua. . . . . 116
5. Josué-ren auquera. Madian-tarren cigorrada . 117
6. Moises-ec irabacitaco lurren/erdiratcea; onen  
atceneco ondo esanac. . . . . 118
7. Moises-en eriotza. . . . . 120

### AMABIGARREN IRACURGAYA.

1. Josué-c celatariac Jericó-ra bialtzen ditu. . . 121
2. Jordan-go ibayaren igarotcea. . . . . 121
3. Circuncisioa, eta Pazcoa-ren berritcea. . . 123
4. Manà-ren aitcea. . . . . 124
5. Jericó-ren ondamena. . . . . 124
6. Acan-en cigorrada . . . . . 126
7. Hai-ren ondamena . . . . . 127
8. Gavaon-tarren guezurra . . . . . 127
9. Eguzquiaren guelditcea . . . . . 129
10. Josué-ren beste garaipénac . . . . . 131
11. Galgala-tic Silo-ra Cucha santaren aldatcea . 132
12. Canaan-en banatzea, eta partitcea . . . . 132
13. Josué-ren eriotza. . . . . 133
14. José-ren ezurren lurpetcea. Eleazar-en eriotza. 133

### AMAIRUGARBEN IRACURGAYA.

1. Israel-co eraena edo gubernua. . . . . 134
2. Cembat bazterren menderatcea. . . . . 135
3. Israel-tarrac idolo-zaletcen dira . . . . . 135
4. Israel-co Juezen eraenmentua, edo gubernua. 137
5. Otoniel, lenengo Jueza. . . . . 137
6. Aod bigarren Jueza. . . . . 138
7. Sangar, irugarren Jueza. . . . . 138
8. Debora, Barac-equin laugarren Jueza. . . 139
9. Gedeon, bostgarren Jueza. . . . . 140
10. Madian-tarren ondamena. . . . . 143
11. Abimelec, seigarren Jueza. . . . . 146
12. Tola zazpigarren Jueza. . . . . 148
13. Jair, zortzigarren Jueza. . . . . 148
14. Jekte, bederatzigarren Jueza. Abesan, amargar-

rena. Ahialon, amaigarrena. Abdon, amabi-  
garrena. . . . . 150

**AMALAU GARREN IRACURGAYA.**

1. §.—Sanson, amairugarren Jueza. . . . . 153
2. Sanson-en lenengo ezcontza. . . . . 155
3. Sanson-en bigarren ezcontza. . . . . 157
4. Sanson-en menderatzea. . . . . 161
5. Heli, amalaugarren Jueza. . . . . 163

**AMABOSTGARREN IRACURGAYA.**

1. Samuel Profetaren jayotza. . . . . 164
2. Cucha santaren galera . . . . . 166
3. Filistin-tarren cigorrada . . . . . 168
4. Cucha santaren itzulera Israel-era. . . . . 169
5. Samuel, amabostgarren Jueza. . . . . 170

**AMASEIGARREN IRACURGAYA.**

1. Israel-co Erregue-en asiera. Saul, lenengo Erre-  
guea. . . . . 171
2. Rut. . . . . 175

**AMAZAZPIGARREN IRACURGAYA.**

1. David, Erreguetzaco autua. . . . . 180
2. Goliat . . . . . 181
3. Micol-equin David-en ezcontza . . . . . 184
4. Saul-gandic David-en iguesa . . . . . 185
5. David-en joanera Get-era aurrena, eta gueró  
Moab-era . . . . . 187
6. Jaunaren apaizen iltzea. . . . . 189
7. Saul David-en billan. . . . . 191
8. Samuel-en eriotza. Nabal-en guertaera. . . . . 192
9. Abigail-equin David-en ezcontza. . . . . 194
10. David-ec Get-era bigarren aldian igues-egui-  
ten du. . . . . 196
11. Amalec-tarrac ondatuac . . . . . 198

- 12-§. -Saul Endor-cosorguiñari galdezea jarteen zayo 199  
 13. Saul en eriotza. . . . . 200

**EMEZORTCIGARREN IRACURGAYA.**

1. §.—David-en bigarren igortcitcea . . . . . 202  
 2. Isboset-en eriotza . . . . . 204  
 3. David irugarren aldian Erreguetzaco igortcia . 205  
 4. Sion-go gazteluaren artuera. . . . . 206  
 5. Jaunaren Cucha santa aldatcea. . . . . 206  
 6. Eliza eguiteco asmoa David-ec artcen du, eta  
     Jaunac eragozten dio. . . . . 208  
 7. David-en guérrac. . . . . 208  
 8. David-en eroricoa. . . . . 210  
 9. Natan Profetac itzeguiten dio . . . . . 211

**EMERETCIGARREN IRACURGAYA.**

- 1 Salomon-en jayotza . . . . . 213  
 2 Absalon-ec Amnon iltcen du. . . . . 214  
 3 Absalon-en Erreguetceco asmoac . . . . . 216  
 4 David-en iguesa. . . . . 216  
 5 David-en emazteen galera . . . . . 218  
 6 Absalon-en eriotza . . . . . 220  
 7 Joab-en ausardia. . . . . 221  
 8 Jerusalem-era David-en itzulera. . . . . 222  
 9 Joab-ec Amasa iltcen du . . . . . 223  
 10 Cembab gende daucan, David-en jaquin-naya. 224  
 11 Izurritea . . . . . 225  
 12 Eliza eguiteco asmoa . . . . . 226  
 13 Adonias-en Erreguetceco eresia . . . . . 227  
 14 David-en eriotza . . . . . 228

**OGUEIGARREN IRACURGAYA.**

1. Salomon-en Erreguetza. . . . . 229  
 2. Jaincoac Salomon-i jaquinduria ematen dio. . 230  
 3. Salomon-en aberastasuna. . . . . 231  
 4. Jerusalem-go Elizaren asiera. . . . . 232



5.	§.—Elizaren donequida edo bedeincacioa . . . . .	233
6.	Saba-co Erregiñaren etorrera . . . . .	234
7.	Salomon-en eroricoa . . . . .	235
8.	Salomon-en cigorrada . . . . .	236
9.	Salomon-en eriotza . . . . .	237

### OGUEITA BATGARREN IRACURGAYA.

1.	Israel-co erreinuaren erdiratcea . . . . .	238
2.	Jeroboan, Israel-co Erregue lenengoa . . . . .	240
3.	Nadab, bigarren Erreguea . . . . .	243
4.	Basaa, irugarren Erreguea . . . . .	243
5.	Ela, laugarren Erreguea; Zambri, postgarrena; Teni, seigarrena; eta Amri, zazpigarrena.	243
6.	Acab, zortzigarren Erreguea . . . . .	244
7.	Elias Profeta . . . . .	245
8.	Sarepta-co alargunaren aurra viztutcea . . . . .	246
9.	Baal-en profetaen ondamena . . . . .	248
10.	Elias-en iguesa . . . . .	249
11.	Elisio-ren auquera . . . . .	251
12.	Benadad, Siria-co Erregueárequin Acab-en arteco guerra . . . . .	251
13.	Nabot-en mastia . . . . .	252
14.	Elias-ec Acab-i itzeguiten dio. . . . .	254
15.	Acab eta Benadad-en arteco guerra. . . . .	254
16.	Miqueas Profeta . . . . .	255

### OGUEITA BIGARREN IRACURGAYA

1.	Ococias, bederatzigarren Erreguea . . . . .	257
2.	Mundutic Elias-en ezcutaquera . . . . .	259
3.	Joran, amargarren Erreguea . . . . .	260
4.	Elisio-ren mirariac . . . . .	261
5.	Naaman Siria-coaren sendatcea. . . . .	262
6.	Gieci lepraz betea, . . . . .	264
7.	Israel-co gosetea. . . . .	266
8.	Israel-co Erregueác Siria-coaria emandaco gue- rra . . . . .	269
9.	Jehu, amaicagarren Erreguea, . . . . .	270

- 10, §.—Joacaz, amabigarren Erreguea; eta Joas, amariugarrena . . . . . 272
11. Eliseo-ren eriotza. . . . . 273

**OGUEITA IRUGARREN IRACURGAYA.**

1. Jeroboan, amalaugarren Erreguea . . . . . 273
2. Jonas Profeta. . . . . 274
3. Zacarias, amabostgarren Erreguea; Selum amaseigarrena; Manahen, amazpigarrena; Faceya, emezortcigarrena; eta Faces, emerecigarrena . . . . . 276
4. Osee, Israel-co ogueigarren eta atceneco Erreguea . . . . . 277
5. Job santua . . . . . 278

**OGUEITA LAUGARREN IRACURGAYA.**

1. Juda-co Erregueac. Roboan lenengoa . . . . . 282
2. Abia. Juda-co bigarren Erreguea. . . . . 284
3. Asa, irugarren Erreguea . . . . . 284
4. Josefai, laugarren Erreguea . . . . . 286
5. Joran, bostgarren Erreguea . . . . . 288
6. Ococias, seigarren Erreguea . . . . . 290
7. Atalia, zazpigarrena . . . . . 290
8. Joas, zortcigarren Erreguea . . . . . 291
9. Amasias, bederetcigarren Erreguea . . . . . 293
10. Ozias, amargarren Erreguea. . . . . 294
11. Joatan, amaicagarren Erreguea. . . . . 296
12. Acaz, amabigarren Erreguea. . . . . 296
13. Ezequias, amairugarren Erreguea . . . . . 298
14. Senaquerib-en ondamena. . . . . 301
15. Manases, amalaugarren Erreguea. . . . . 302

**OGUEITA BOSTGARREN IRACURGAYA.**

1. Tobias . . . . . 303
2. Judit. . . . . 312

**OGUEITA SEIGARREN IRACURGAYA.**

1. Amon, amabostgarren Erreguea . . . . . 317

2.	§.—Josias, amaseigarren Erreguea . . . . .	318
3.	Joacaz, amazpigarren Erreguea. . . . .	319
4.	Joaquin, emezortcigarren Erreguea. . . . .	320
5.	Jeremias Profeta. . . . .	321
6.	Jeconias, emeretcigarren Erreguea. . . . .	323
7.	Sedecias, Juda-co atceneco Erreguea. . . . .	323
8.	Ezequiel Profeta. . . . .	324
9.	Jerusalen eta Jerusalem-goen ondamena . . . . .	325
10.	Jeremias-ec Elizaco cembat gauza gordetcentitu. . . . .	327

### OGUEITA ZAZPIGARREN IRACURGAYA.

1.	Babilonia-co catibutasuna . . . . .	329
2.	Daniel Profeta . . . . .	329
3.	Susana . . . . .	330
4.	Nabucodonosor-en ametsa . . . . .	333
5.	Nabucodonosor-en guiz-antza . . . . .	335
6.	Daniel-en lagunac labe gorituan. . . . .	336
7.	Nabucodonosor abere eguiña. . . . .	338

### OGUEITA ZORTCIGARREN IRACURGAYA.

1.	Ester eta Mardoqueo Persia-n. . . . .	340
----	---------------------------------------	-----

### OGUEITA BEDERATCIGARREN IRACURGAYA.

1.	Babilonia-co guertaerac. Baltasar-en afaria. . . . .	347
2.	Dario, Babilonia-co Erreguea. . . . .	349
3.	Ciro Persia-co, eta Babilonia-co Erreguea. . . . .	350
4.	Bel-en apaizac . . . . .	351
5.	Daniel leoi-zuloan . . . . .	352
6.	Babilonia-co catibutasunaren bucaera. . . . .	353
7.	Israel-tarrac prestatcen dira, Israel-era itzulceco. . . . .	354
8.	Babilonia-tic Jerusalem-eraco irteera. . . . .	354
9.	Elizaren berritcea . . . . .	355
10.	Jerusalem-go Elizaren bucaera . . . . .	357
11.	Jerusalem-en isquera . . . . .	358

## OGUEITA A MARGARREN IRACURGAYA.

1. §.—Macabeo-en condaira, edo historia . . . . . 359
2. Antioco: . . . . . 361
3. Eleazar-en irmotasuna eta eriotza. . . . . 363
4. Ama batequin zazpi semeen eriotza. . . . . 364
5. Matatias Apaiz-nagusiaren irmotasuna. . . . . 365
6. Matatias ilda, Judas-en aguintea . . . . . 367
7. Antioco gaizquitua . . . . . 370
8. Antioco gaztea . . . . . 372
9. Judas-equin Antioco-ren aguintari Lisias-en arteco paque-eguitea. . . . . 373
10. Sion-go gaztelua arteco prestamenac. . . . . 374
11. Demetrio Erreguea. . . . . 376

## OGUEITA AMAICAGARREN IRACURGAYA.

1. Erroma-ren aguinte andia. . . . . 376
2. Judas-en eriotza. . . . . 377
3. Antioco-ren seme Alejandro . . . . . 378
4. Demetrio Erreguea . . . . . 379
5. Tolemeo Egipto-co Erreguea. . . . . 379
6. Antioco . . . . . 381
7. Jonatas-en Tolemaida-ra joanera . . . . . 382
8. Jonatas eta bi semeen iltzea . . . . . 383
9. Juan Hircano . . . . . 385
10. Joaquin eta Ana-ren ezcontza . . . . . 387
11. José eta Maria-ren ezcontza. . . . . 388
12. Maria eta José-ren Adan-ganañoco alabac. . . . . 389

## TESTAMENTU ZARRECO CONDAIRAREN ATCENA.

# Testamentu Berriko Gondaira.

## LENENGO IRACURGAYA.

1. §.—Mesias-en esqueñera . . . . . 393
2. Mesias-en Berri-emalle Juan Baupista . . . . . 393
3. Jaincoaren guizon-eguitea . . . . . 395
4. Isabel icustera Maria-ren joanera . . . . . 396
5. San Juan-en jayotza. . . . . 397
6. Maria-ren vicitza Nazaret-en . . . . . 397
7. Aingueruac Maria-ren izaera José-ri aguertcen  
dio . . . . . 398
8. José eta Maria-ren joanera Belen-era. . . . . 398
9. Jesus-en jayotza . . . . . 399
10. Jesus-en Circuncisioa . . . . . 400
11. Iru Erregueen adoracioa. . . . . 400
12. Maria guciz Santaren Eliz-sartcea . . . . . 401
13. Aur culpa gabeen iltcea . . . . . 402
14. Jerusalem-go Elizan Semearen gueratcea . . . . . 403

## BIGARREN IRACURGAYA.

1. San Juan-en predicua . . . . . 404
2. San Juan-ec Jesus batayacen du . . . . . 405
3. Deabruac Jesus tentacen du . . . . . 405
4. Caná-co eztayac. Jesus-en lenengo mirari agui-  
rica. . . . . 407
6. Samaria-co Emacumearequin Jesus-en itzaldia. 409
7. Jaun baten semearen sendatcea Cafarnaum-en. 410
8. San Juan Baupista ichian sartua. . . . . 411

## IRUGARREN IRACURGAYA.

1. Zortci zorientasunac aguertuta. . . . . 412
2. Jesus-ec Apostolui aurrena, eta besteai guero

	bere icasbideac ematen diezte. . . . .	419
3.	§.—Sorayoa-ren sendamena . . . . .	420
4.	Centurion-en mutillaren sendamena . . . . .	420
5.	Miragarrizco arrantza . . . . .	421
6.	Bi gaizquindunen sendamena . . . . .	422
7.	Eri baten sendamena . . . . .	423
8.	Mateo-ri Jesus-en deya . . . . .	424
9.	Jairo-ren alabaren Viztutcea. . . . .	424
10.	Bi itsuren arguitcea. . . . .	425
11.	Ogueita emezortci urtean eri zanaren sendat- cea. . . . .	426

### LAUGARRN IRACURGAYA.

1.	Amabi Apostoluen auquera . . . . .	427
2.	Amabi Apostoluac biñaca bialduac . . . . .	430
3.	Maria Magdalenaren ondutcea . . . . .	431
4.	San Juan Bauplista-ren eriotza . . . . .	433
5.	Bost ogui eta ezcalu birequin bost milla guizon bazcatuac . . . . .	434
6.	Jesus-ec itsas-aserretuan Apostoluac gordetcen ditu . . . . .	435
7.	Animaco janariaren gañean Jesus-en itzqueta. . . . .	436
8.	Escu-changu baten jai-eguneco sendatcea. . . . .	438
9.	Guizon gaitzquindun itsu eta mutuaren sendat- cea . . . . .	438
10.	Beste miragarrizco sendatceac. . . . .	439
11.	Zazpi ogui eta ezcalu batzuequin lau milla gui- zon bazcatuac. . . . .	440
12.	San Pedro-c Jesus-en Jaincotasuna aitortcen du. . . . .	440

### BOSTGARRRN IRACURGAYA.

1.	Tabor-co mendian Jesus-en bestiruditcea edo Transfiguracioa . . . . .	442
2.	Jesus-ec gaizquindun Apostoluac ecin zutena sendatcen du. . . . .	443
3.	Jesus-ec bere eriotza eta Viztutcearen gañean Apostoluai itzeguiten die. . . . .	443
4.	Pecha-pagaltea . . . . .	444
5.	Apostoluen arroqueria beeratua. . . . .	444

6.	§.—Escandaloaren gañeco itzqueta. . . . .	445
7.	Lagun urcoari barcatcearen gañeco itzqueta.	446
8.	Irurogueita amabi icasleec auquera. . . . .	447
9.	Amar sarnadunen sendatcea. . . . .	448
10.	Fariseo-en Jesus galdu naya. . . . .	449
11.	Jesus-ec itsua arguitcen du. . . . .	450
12.	Fariseoen Buruaren eheco bazcaria . . . . .	451
13.	Seme ondatzallearen Parabola. . . . .	453
14.	Aberats sayearen parabola. . . . .	455
15.	Fariseo eta Publicano erregutzalleen parabola.	456
16.	Zaqueo-ren umiltasuna. . . . .	456

### SEIGARREN IRACURGAYA.

1.	Jerusalen-dic Betania-ra Jesus-en joanera. . . . .	457
2.	Aberastasunen gañeco itzqueta. . . . .	458
3.	Languilleen parabola . . . . .	459
4.	Jesus-ec bere eriotzaren gañean Apostoluai itze- guiten die. . . . .	460
5.	Itsu baten arguitea . . . . .	461

### ZAZPIGARREN IRACURGAYA.

1.	Lázaro-ren gaitza eta eriotza, eta viztutcea. . . . .	462
2.	Jesus iltceco asmoac artcen dira. . . . .	464
3.	Erramu egunoco Jesus-en joanera Jerusalem-era	465
4.	Gal-aciaren parabola. . . . .	467
5.	Masti-jabearen parabola . . . . .	469
6.	Erregue-semearen eztayen parabola. . . . .	469
7.	Amar virgiñaen parabola . . . . .	470
8.	Talentuen parabola. . . . .	471
9.	Atcen-juicioaren gañeco itzaldia. . . . .	472

### ZORTCIGARREN IRACURGAYA.

1.	Jesus-en Pasioa . . . . .	473
2.	Jesus-en salmena. . . . .	474
3.	Pazcoaraco prestamena . . . . .	475
4.	Jesus-ec Apostoluai oñac garbitcea . . . . .	476
5.	Apostolu saltzallearen contraco Jesus-en espac.	477
6.	Aldareco Sacramentu guciz Santuaren ipiñera.	478
7.	Jesus Jerusalem-dic Getsemani-raco bidean. . . . .	479
8.	Judas eta Juduac Jesus-en billan. . . . .	481
9.	Jesus-en Getsemani-tic Jerusalem-era erama-	

	nera. . . . .	483
10.	§—Jesus Caifas-en echean. . . . .	483
11.	Pedro-ren ucamena. . . . .	486
12.	Jesus-en gaüeco neque-portitzac. . . . .	486

**[BEDERATCIGARREN IRACURGAYA.**

1.	Ostiral-goiceco Batzarrea . . . . .	487
2.	Judas-en urcamana . . . . .	487
3.	Jesus Pilato-ren echean . . . . .	488
4.	Pilato-c Horodes-i Jesus bialtcen dio . . . . .	490
5.	Jesus utcita Barrabas-en auquera . . . . .	491
6.	Jesus azotatua. . . . .	493
7.	Jesus iltceco Pilato-ren aguindua. . . . .	495
8.	Calvario-raco joanera . . . . .	496
9.	Jesus gurutziltzatua. . . . .	498
10.	Jesus-en iltcea. . . . .	501
11.	Jesus illa gurutctic jatsitceco prestamenac . . . . .	502
12.	Gorputz illaren obiratcea. . . . .	504

**AMARGARREN IRACURGAYA.**

1.	Jesus-en viztuera. . . . .	505
2.	Pedro eta Juan-en joanera obira. . . . .	507
3.	Jesus Maria Magdalen-ari aguertcen zayo. . . . .	507
4.	Maria Magdalena-ren lagunai Aingueruac itce- guiten die. . . . .	509
5.	Soldadu contu-artzalleac nagusiai esaten diete, cer guertalu zayen. . . . .	510
6.	Jesus-en aguerquera Apostoluai . . . . .	513
7.	Jesus-en berrizco aguerquera Apostoluai . . . . .	514
8.	Jesus-en irugarren aguerquera Apostoluai . . . . .	514
9.	San Pedro Elizaren buru eguiña . . . . .	515
10.	Jesus-en aguerquera Maria guciz Santari . . . . .	517
11.	Jesus-en atceneco aguerquera Apostoluai. . . . .	517
12.	Confesioco Sacramentu Santuaren ipintcea. . . . .	518
13.	Jesus-en Cerura igotcea. . . . .	519

**AMAICAGARREN IRACURGAYA.**

1.	Judas-en lecuraco San Matias autua. . . . .	520
2.	Espiritu Santuaren etorrera . . . . .	521
3.	San Pedro-c lenengo sermoyarequin iru milla.	





guizon Jesus-entzat irabazten ditu . . . . .	522
4. §—San Pedro-c jayotzatic elbarri bat sendatcen du	523
5. San Pedro-c bigarren sermoyarequin bost mila guizon irabazten ditu . . . . .	524
6. Lenengo cristaien viciera eta lurreco gauzaen utcimena . . . . .	526
7. Ananias eta Safira-ren castigua . . . . .	526
8. Apostoluac ichian sartcen dituzte, eta Aingueruac ateratcen ditu. . . . .	527
9. Zazpi diaconoen auquera. . . . .	529
10. San Esteban-en eriotza . . . . .	531

#### AMABIGARREN IRACURGAYA.

1. Elizaren esetsia edo persecucioa. . . . .	532
2. San Pedro eta San Juan-en jeanera Samaria-ra.	533
3. Etiopia-rraren batayoa. . . . .	534
4. Saulo Cristaien etsaya. . . . .	535
5. Saulo-ren ondutcea, eta lenengo lanac. . . . .	536
6. Evangelioaren aurrerapenac . . . . .	538
7. San Pedro-c Tabita viztutcen du . . . . .	539
8. Cornelio eta bereen batayoa . . . . .	540

#### AMAIRUGARREN IRACURGAYA.

1. Evangelioaren irabaciac Antioquia-n . . . . .	542
2. Santiago zarrenaren eriotza . . . . .	544
3. Santiago zarrena Españara etorri zalaco berriac. . . . .	545
4. San Pedro ichian sartua, eta Aingueruac libratua . . . . .	445
5. Herodes castigatua . . . . .	547

#### AMALUGARREN IRACURGAYA.

1. Gentillai Evangelioa eracustera Saulo eta San Bernabè bialduac . . . . .	548
2. Sergio Pablo-ren batayoa . . . . .	549
3. San Pablo-eta San Bernabé-ren ibilliac. . . . .	550
4. Circuncisioa bearrecoa zan edo ezeco despita.	553
5. San Pablo eta San Bernabé banácatcen dira.	554
6. San Pablo azotatcen date . . . . .	555
7. Sinagogaco Buru Crispo-ren batayoa, eta beste garaipenac . . . . .	558

8. §.—Judu conjuratzallea castigua . . . . . 560  
 9. Demetrio cillarguilleac Efeso-n sortutaco iscam-  
 billa. . . . . 561

**AMABOSTGARREN IRACURGAYA.**

1. San Pablo-ren joanera Jerusalem-era. . . . . 563  
 2. San Pablo-c Eutiquio illa viztutcen du. . . . . 564  
 3. Agabo Profetac San Pablo-ren Jerusalem-go  
 nequeac adierazten ditu. . . . . 565  
 4. San Pablo Jerusalem-en. . . . . 566  
 5. Jaincoac San Pablo ri itzeguiten dio. . . . . 568  
 6. San Pablo Cesarea-n. . . . . 569  
 7. San Pablo-c Cesar-gana gañdeitcen du. . . . . 570  
 8. San Pablo Erroma-ra ecartceco prestamenac. . . . . 571  
 9. Cesarea-tic Erroma-raco San Pablo-ren bidajea. . . . . 573  
 10. San Pablo-ren Malta-co sarrera . . . . . 573  
 11. Malta-tic Erroma-raco San Pablo-ren irteera . . . . . 574  
 12. San Pablo Erroma-n. . . . . 575

**AMASEIGARREN IRACURGAYA.**

1. San Pablo-ren cateetatic libratcea. Gure Espa-  
 ñaraco etorrera. . . . . 576  
 2. San Pedro eta San Pablo elcarrequin Erroma-n . . . . . 578  
 3. San Pedro eta San Pablo-ren eriotzac. . . . . 578  
 4. Beste Apostoluen berriac. . . . . 579  
 5. Jesus-en Amaguciz Santa-ren atceneco berriac . . . . . 579

**AMAZAZPIGARREN IRACURGAYA.**

1. Juduen Izaera. . . . . 582  
 2. Ondamenaren adiragarriac. . . . . 583  
 3. Juduacquin Siria-rren arteco despita, eta ayen  
 galmena. . . . . 585  
 4. Vespasiano-ren joanera Jerusalem-aldera . . . . . 586  
 5. Jerusalem Tito-c setiatua. . . . . 586  
 6. Jerusalem-go gosetea. . . . . 588  
 7. Jerusalemgo izurritea . . . . . 589  
 8. Jerusalem Tito-c artua, eta Elizaren erretcea. . . . . 530  
 9. Jerusalem-en artu-ondoreac. . . . . 533

**TESTAMENTU BERRICO CONDAIRAREN ATCENA.**







